

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zarautz



Aurkibidea

Udalerria: Zarautz

Sarrera



Urola Kostako udalerria, eskualdeko handiena. Aspaldikoa da turismoaren garrantzia herrian (gutxienez XIX. gizaldi amaierakoa) eta azken hamarkadetan igoera demografiko handia izan du. Hala ere, ondo eutsi dio euskarari, kanpoko eraginei aurre eginez. Hizkera aldetik, oso hurbileko ditu Getariakoa zein Oriokoa, bakoitzak zenbait ezaugarri bereizgarri dituen arren.

- **Biztanleak:** 22.733
- **Euskaldunak:** %70,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **108**
- Zintak: **132**
- Pasarteak: **1.806**
- Transkribatutakoak: **442**
- Audioak: **168**
- Bideoak: **1.637**

Proiektuak

- 101L - Zumaia eleaniztuna
- Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- Dialektologia-EHU
- Durango 1936
- Erditzea erdigunera: begirunea eta indarkeria gorpuzten dituzten bizipenak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskalkiak.eus
- Gazte gara gazte
- Herri Irratia
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- Zarauztar aitona-amonen hizkera
- Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza
- Zumaiaiko ahotsak

Hizlariak

Margarita - (1911)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Pakita Agirresarobe (1910)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Manolo Agirrezabal Izeta (1916-2001)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean, Zarautzi buruzko hainbat istorio kontatu eta hainbat abesti kantatu zituen.

Agustin Agoues Sarasola (1900-1993)



Austin Enea baserrian jaio zen Zarauzko San Pelaion. Ezkondutakoan, Ipar kaleko 3.ean bizi izan zen hiru urtean, eta gero Musika Plazan. Lanbidez ebanista zen, baina 1936an bere abizen bereko karrozeria ireki eta bertan lan egin zuen 1967 arte. Ageda Zubeldia Anzuolarekin ezkondu zen eta 14 seme-alaba izan zituzten elkarrekin. Arrantza zuen gustuko; maketazioan ere abila zen eta itsasontzi ederrak egiten zituen itsas mazkorrarekin. Kotxerik ez zuenez, bizikletan ibiltzen zen eta halaxe ibili zuen 83 urte zituen arte. "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Juan Agoues Zubeldia (1927-2013)



Zarauzko plazan jaio zen, aitonarena zen etxean. Bera txikia zela gurasoak Santa Marina kalera aldatu ziren. Aita ebanista zen, eta gerra garaian karrozeria sortu zuen. Familiako beste zenbait kidek bezala, berak ere bertan egin izan du lan. Arrantza eta itsasoa ere asko gustatzen zaizkio eta txipiroitarako zaletasun handia izan du.



Xabier Aierdi Aldasoro (1924)

Ander Alberdi Arregi (1933)



Zarautzen gerra ondoren izandako loraldi kulturean lan asko egindakoa. Txistularia. Horrez gainera, antzerkiak, dantza-taldeak eta beste hainbat ekitaldi antolatzen jardun izan du hainbat urtez. Mendizale eta ehiztari amorratua.

Josu Alberdi Arregi (1936)



Zarautzen jaio zen lau anai-arrebaren artean bigarren. Gabon gauean jaio zenez, saria ekarri zuen etxera: gabonetako saskia. Aitona jostuna zuen eta hark erakutsi zion perretxikoak biltzen; elkarrekin joaten ziren Zarautz inguruko basoetara eta hala errotu zitzaion bizi guztirako zaletasuna. Arrantzan ere umetatik ikasitakoa, bizibidea ateratzeko era garrantzitsua izan zen zenbait garaitan. Hasieran Zarauzko fraideetan ikasi zuen; eta geroago Donostiako lanbide-eskolan ibili zen, argiketari izateko ikasten. Gerora, industri peritu ikasketak egin zituen eta lana ez zitzaion falta izan; askotan bidaiatzea tokatu zitzaion. Gerra osteko gosea eta gerora etorritako krisi eta greba garaiak ondo ezagutu izan ditu. Ezkondu eta gero ere Zarautzen bizitzen jarraitu izan du.



Jon Xabier Arana Ezenarro Arana (1969)

Gurasoak zarautzarrak: ama jostuna eta aita saltzailea. Hiru senidetan bigarrena. Seme bat dauka.



Francisco Javier Aranburu Aranguren (1921-2006)

Orape kalean jaio zen, eta zapataria izan da, aita eta aitona bezala. 15 urterekin hasi zen lanean.

Aritz Aranburu Azpiazu (1985)



Aritz Aranburu zarautzarra, 1985ean Getarian jaiotako surflari profesionala da. Umetatik beti hondartzan ibili da eta hiru urterekin izan zuen bere lehenengo taula txikia. Zazpi urterekin hasi zen surfeatzen eta Euskadiko txapelketa irabazi zuen 12 urtetik beherakoentzat eta ondoren, 18 urtetik beherakoentzat. 2007an Europako txapelduna izan zen eta 2008tik aurrera ASP World Tour ziurkuituan parte hartu du, munduko 45 surflari onenen artean. Hori lortu duen bosgarren europarra eta lehenengo euskal herritarra. 2007an, Kirolari Onenaren Euskadi Saria jaso zuen, beste kirolari batzuekin batera.

Kontxi Aristi Eizagirre (1930)



Zarauzko Santa Marina kalean hazi ziren Kontxi eta bere anai-arrebak. "*Juan Jose igeltseruanekuak*" ziren, aitaren lanbidea zela eta. Mojekin ikasi zuen, 14 urterekin lanean hasi zen arte; Enrique Keller musika-tresna lantegian lehenengo, ahoko-soinuen piezak egiten eta Alfa altzari fabrikari gero. Han ezagutu zuen bere gizona izango zena, San Lorente (Zestoa) auzoko Donato Urbistondo "*Xaloente*". Zarauzko parrokiaren ezkondu ziren biek 30 urte zituztela. Lantokia utzi eta etxeko lanetan eta seme-alabak zaintzen aritu zen ondoren.

Joxepa Antoni Aristi Isasti (1905-1995)



Zigordia kalean eta Trinitate kalean bizi izan zen, baina gaztetan neskame ere joan zen Madrilera etxeetan lan egitera. Euskaldunek langile finaren ospea zuten, besteek baino 5 pezeta gehiago irabazten zituen. Madrildik itzuli zenean Fidel Etxabe Makazaga zarauztarrarekin ezkondu zen eta 8 seme-alaba izan zituen. Geroztik etxeko lanetan aritu zen. Joxepa Antonik bidaiatxoak eta eguneko txangoak zituen gustuko, batik bat loteria. Loteria zalea zen oso. Hitzun bizia eta arina, "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean, eta makina bat kontu batu zitzaizkion.

Elisabete Arrillaga De Aguirre (1960)



Jaiotzez zarauztarra, lehen senarra artzaina zuen eta alargun gelditu zenean, artzaintzarekin jarraitzeko erabakia hartu zuen. Geroago ezagutuko zuen [Mikel Etxezarreta Goiburu](#) zegamarra, artzaina hau ere. Bien artaldeak batu eta elkarrekin jarraitu zuten lanbidean. Olaberrian bizi ziren elkarrizketa egin zitzaizkion, "Aizpea" da beraien esplotazioa eta izen berarekin komertzializatzen dute gazta ere.

Mertxe Arruti Abendibar (1931)



Ipar kalean jaio zen (lehenago Calle Mirador deitua, eta Calle Calvo Sotelo Francoren garaian). Ama bizkaitarra zuen, Mallabikoa. 24 urterekin ezkondu zen zarauztar batekin eta 3 seme-alaba izan ditu. Irakasle izan zen, baina ezkondu eta lanbidea utzi egin zuen. Hala ere, urte luzez jarraitu zuen eskola partikularrak ematen.

Santos Azpeitia Leunda (1926)



Iñurritza auzoko baserri batean jaio zen. Golf zelaitik bertan bizi ziren eta uda sasoian dirua irabaztera joaten ziren kadi lanera edo pilotak jasotzera. Golfean jokatzeko ere gazterik ikasi zuen, edozein makila hartuta. Golfa itxita zegoenean, hondartzan ere jokatzeko zuten.



Jose Azpeitia Otaño (1924)

Pakita Eizagirre Arruti (1933)



Zarauzko Santa Marina kalean jaio zen, 5 anai-arrebaren artean txikiena bera. Ama Aiakoa zuen eta aita zarauztarra, lanbidez ebanista; gerora, Alfa lantegiko zuzendari izan zen. Pakitak josten ikasi zuen eta orduko teknikak eta lanak gogoan ditu. Zarauzko bizimoduan izandako aldaketak ezagutu izan ditu. [Jesus Mari Unanue](#)ekin ezkondu eta bi alaba izan zituzten.

Pedro Joxe Eizagirre Artetxe *Salbide* (1907-1995)



Bere aitonak Salbiden zeukan terrenoan baserria eraiki zuen 1885ean, Salbide baserria, eta hantxe bizi izan zen Pedro. Hiru hilabetez joan zen eskolara, "Mixerikordira", baina Pedrok nahiago zuen etxekoan artean egon. Eta hala ikasi zuen bere lanbidea: baserria. Hasierako urteetan, esnea eta haragia ziren baserriak ematen zituen produktu nagusiak. Gero, baratze lantzen hasi ziren. Barazkiak plazan saltzeaz gain, herriko hoteletan ere banatzen zituzten. Plazara bere emazte itziartarra joaten zen, Francisca Martija Osa. Sei seme-alaba izan zituzten: 3 mutil eta 3 neska. Pedro hiltuna zen oso, eta bertsozalea ere bai: zientoka bertso zekizkien buruz. Aizkora eta sega zituen oso gustuko. Azken horretan oso ongi aritzen omen zen. Korrika ibiltzea ere gustatzen zitzaion, eta apustulariei laguntzen ibiltzen zen. 1995. urtean hil zen arte, Pedrok Salbideko baserrian pasa zuen bizitza osoa. "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987an. urtean.

Florentino Eizagirre Ayerza *Bihurri* (1941)



Zarauzko Urteta auzoko Kortaburu baserrian jaio zen, 4 anai-arrebaren artean lehenengoa. Aitonaren aitonarengandik jaso zuten "Bihurri" ezizena, eta Florentinok ohore egin izan dio ezizenari, bera ere bihurrikeria ugari egindakoa da-eta. Baserriko lanetan gogor jardundakoa, eguraldi txarra zenean joaten zen eskolara. 14 urte bete baino astebete lehenago fundizioan hasi zen lanean; baina handik urtebetera, osasuna galtzen ari zela konturatu zenean, lana utzi eta Lizundiaren ehun-fabrikari hasi zen. Han 18 urte eman zituen: mekaniko-lanbidea ikasi zuen, eta gainera emaztea izango zuena ezagutu zuen bertan; 4 seme-alaba izan dituzte elkarrekin. 35 urte zituela, bere kontura hasi zen lanean beste lagun batzuekin, eta gerora kooperatiba sortu zuen. Erretiroa hartu arte bertan ibili izan da lanean.

Itziar Eizagirre Beristai (1976)



Itziar Eizagirre, zarauztar enologoa da. Talai-Berri txakolindegiko 5. belaunaldikoa da Itziar eta umetatik ikusi ditu mahastiak eta upategiaren funtzionamendua. Tarragonan, enologiako ikasketak egin zituen, eta ondoren, Arabar Errioxako Remelluri upategian praktikak. Praktiketari ikasitakoa txakolindegira eraman zuen eta txakoli beltza atera zuten lehenengoak izan ziren. Bertan jarraitzen du lanean.

Lo Eizagirre Erguin (1988)



Zarutzen jaioa da Lo, 1988an, eta zarauztarrak ditu gurasoak ere. Bi senidetan zaharrena da. Gipuzkoako Surf Federazioko idazkari lanetan ari zen [Eli Thomas](#) lagunarekin batera elkarriketa egin genionean. Surfean plazerez zein lehian aritua, bere esperientzietan oinarritutako testigantzak eskaintzen ditu, eta baita kirol horri generoaren ikuspegitik botatako begirada ere.

Jose Maria Eizagirre Goenaga (1925)



Zarutzen jaioa, Urteta auzoan, bertan bizi izan da beti. Ehiztari amorratua, Urteta inguruko baso, mendi eta animaliak oso ondo ezagutzen ditu.



Benita Eizagirre Ibarguren (1909-2011)

Gurmendi baserrian jaio bazen ere, herrian lan egindakoa da, neskame gisa. Gizona ere Urtetakoa zuen, Ixasti baserrikoa. 24 urterekin ezkondu eta herrira jaitsi ziren.



Felisa Eizagirre Ibarguren (1914)

Urteta auzoko Gurmendi baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Askizukoa. Zortzi senide izan ziren aurrerakoak. Auzo eskolan ibili zen. Esnea partitzen zuten, astoarekin. Umezain joan zen kalera, Zarautzera. Hainbat urte egin zituen zerbitzatzen, eta gero Irunera joan zen bizitzera, ahizpari laguntzeko. Anakan ezagutu zuen senarra izango zena. 27 urterekin ezkondu zen, Agerre baserrira. Bi seme izan zituzten.



Sebastian Eizagirre Martija *Salbide* (1942-2014)

Salbide baserrian jaioa, gazterik hasi zen fabrikan lanean. Hala ere, baserriko bizimodua ez zuen sekula utzi. Salbide eta Azken Portu inguruaz hainbat kontu azaldu ditu. Bere aita Pedro Joxe Eizagirre zen, eta 1987ko Zarauzko bekarako elkarriketatu zuten.



Antonio Eizagirre Uranga (1933)

Baserritarra, Gurmendin bertan jaio eta bizi izan da beti, Urtetan. Bere emaztea Pakita Uria da.



Iñaki Eizmendi Manterola *Basarri* (1913-1999)

Errezilgo Granadaerreka baserrian sortu zen, baina gazterik joan zen Zarautzera bizitzera. Bertsolari eta kazetari ofizioz, hizketarako eta idazteko zuen trebeziak jende askoren estimua ekarri zion. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia birritan irabazi zuen, 1935ean eta 1960an.



Karmele Elola Aranburu (1924)

Santa Marina kalean jaio zen eta bertan bizi da. Gazte-gazterik, 12 urte zituela, hasi zen udan umeak zaintzen, eta neskame ere izan zen zenbait etxetan.

Maritxu Elozegi (1927)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Enkarna Elozegi Benito (1922-2016)



Beasainen jaio zen zazpi senideren artean lehenengo. Ama Debakoa zuen eta aita Amezketakoa, Fernando amezketarraren ahaidea. Aitak CAFen egiten zuen lan, baina 1931ko krisia iritsi zenean, Zarautzera joan behar izan zuen lanera. Familia osoa berekin eraman zuen. "Las chicas de la purpurina" deitzen zieten familiako ahizpei, aitaren lanari erreferentzia eginez. Herriko eskolan ikasi zuen, baina Errepublikako giroan erlijioa tratatzen zen modua ikusita, mojetara eraman zuten ikastera. Gerora, eskola partikularrak jasotzera bidali zuten, eta han ikasi zuen gehien Enkarnak. Kooperatiban errazionamenduko jeneroa kudeatzen egin zuen lan dozena bat urtean, baita ezkondu ostean ere. Egun batean, hala ere, lana uztea erabaki, eta kolpetik dedikatu zen seme-alaba eta etxeko lanetara. Emakume argia, bere familiaren jatorria ondo ezagutzen du, eta gogoan ditu errepublikan eta gerra zibilean gertatutakoak. Beasaindik etorri zirenetik, Zarautzen eman izan du bizi guztia eta sei seme-alaba izan ditu.

Inoxenxio Epelde Etxabe (1902-1993)

Anaia Hilario Epelderekin batera, XX. mende hasieran "baineru" lanetan aritutakoa. Geroago, toldero lanetan aritu ziren hainbat urtez. Berak eta bere senideek sortu zituzten gaur egun hain ezagunak diren Zarauzko toldoak, eta banaka-banaka egin zituzten hondartzako aulki eta banku guztiak. Gizon alaia eta hizlaria, "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean. Berekin batera, beste hiru hiztun ere azaltzen dira grabazioan: Emiliano Alberdi, Mariano Izeta eta Prontxio Azpiazu.

Hilario Epelde Lizaso (1947)



Zarauzko Santa Marina kalean jaioa, beti Zarautzen bizi izan da. Gurasoak, izeba-osabak eta aitona-amonak tolderoak izan ziren, Zarauzko hondartzan udan toldoak alokatzen zituztenak. Hilariok ere 26 urtera arte toldero lana egin zuen. Bere amonaren osaba batek (Etxabetarra) hil zuen 1878an Zarauzko azkenengo balea.

Imanol Epelde Pagola (1977)



1977ko otsailaren 21ean jaio zen Zarautzen, bertan bizi izan da betidanik, eta bertan bizi da gaur egun ere. Ama usurbildarra eta aita zarautzarra, lau senidetik zaharrena da bera. Elkarrizketa egin zitzaion garaian irakasle lanetan dabil Zarauzko Antoniano ikastetxean (gerora Lizardi institutuan), baina baita beste hainbat sorkuntza lanetan ere. Imanol 27zapata ezizenarekin da ezaguna sarean, izen bereko [bloga](#) dauka, bertsotan ibilia da, antzerkia du gustuko, eta elkarrizketatu genuenean [Etxepare Rap](#) proiektuan buru-belarri murgilduta zebilen. Hizkuntza eta hezkuntza kontuez, koadrilaz, DBHko nerabeez, Imanolen proiektuez eta kontu horien guztien artean sortu ziren beste hainbat gairi buruz aritu ginen hizketan.

Mari Cruz Etxabe (1915)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Jose Agustin Etxabe Olaskoaga (1924-2011)



Kale Nagusian jaio zen. Aita harakina zuen, eta bera haragi-partitzen jardundakoa da. Itxaropena inprentan ere egin zuen lan. 52an Venezuelara joan zen, eta duela 13 urte bueltatu zen Zarautzera.

Arantza Etxeberria Unanue (1926)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Euskal Udalekuak: Zarauzko topaketa

Euskal Udalekuetan lanean ibilitako gizon-emakumeen oroitzapenak jaso genituen Zarautzen eginiko topaketa honetan.



Elkarriketatutako partaideak: Roberto Chico, Aingeru Ezkerra, Oier Agirresarobe, Iban Burgaña, Patxi Galarraga, Asier Mendizabal, Iñaki Otamendi, Patxi Mujika, Rafa Apeztegia. Xabier Etxabe, Josu Galarraga, Larraitx Garmendia, Xabier Legorburu, Jon Burgaña, Susana Arevalo eta Leire Garate.

Juan Ezenarro Barrenetxea (1911-2013)



Elgoibarren jaio zen, baina bederatzi urterekin etorri zen Zarautzera familiarekin. Gaztetan EGIko kide izan zen: EAJn jardun zuen lehenik, eta EAn gero. Batzokiarekin (alkartetxea orain) oso lotua. Gerra garaian bost urte inguru eman zituen Zarauztik kanpo, frontean, Agirre lehendakariarentzat ertzain, eta kartzelan.

Jose Ezenarro Roteta (1921-2014)



Zarautzen jaioa, nahiz eta gurasoak Getaria eta Zumaia-koak izan. Txoko taberna gainean bizi izan zen. Rosa Buenetxearekin ezkondua.

Eugenia Sebera Fernandez Urkia (1905-1994)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarriketa 1987. urtean.

Pepita Goikoetxea Agirre (1934)



Sakoneta baserrian jaioa, trenaren langileburuarekin ezkondu eta harrezkero "Izar alde" etxean bizi izan da Astin, Sakoneta azpian. Zazpi seme-alaba izan ditu. Baserri ingurukoa, bertako hizkera du, eta baserriari buruzko kontuak kontatu ditu. Azken 40 urteetan egunero azokara joan izan da barazkiak saltzera.

ZAR-100 Hizlari ezezaguna (1932)

ZAR-119 Hizlari ezezaguna (1917)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

ZAR-122 Hizlari ezezaguna

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Pio Illarramendi Arizaga (1942)



Pio jatetxean jaioa. Jatetxea aitonak jarri zuen XIX. gizaldian, eta bere amonak eta gurasoek jarraitu. Azken urteotan bera eta emaztea izan dira arduradunak.

Rosario Illarramendi Larrañaga (1929)



Zarautzen jaio zen San Frantzisko kalean, 7 senideren artean bera 5.a. Aita arotza zuten, Beristainen tailerrean lan egiten zuena; ama etxeakoandrea zen, oso emakume alaia eta bizia. Zarautzen izandako aldaketak ondo ezagutu izan ditu, baina herriko giro ona ez omen da aldatu ezta gerraren pozoiarekin ere. Eskolako kontuak, gaztetako giroa, dantzak... gogoan ditu.

Zuhatz Irigarai Aizpurua (1986)

Juana Leonarda Irulegi (1902)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Ander Iruretagoiena Castro (1994)



Bulgarian jaio zen 1994an. Sei urte zituela, harrera-familia batek umezurztegitik atera eta Euskal Herrira ekarri zuen, Zarautzera, hain zuzen ere. Ordutik bertan bizi izan da eta egun aktorea da. Antzerkia du afizio zein ofizio eta horretaz jardun genuen berarekin 2018an egindako elkarrizketa honetan.



Juan Iturria Astiazaran (1921-2016)

Zarautzen Zigordia kalean jaioa, orain Zuhaitzin bizi da. Lanbidez, ebanista. Itxaropena inprimategian ere jardun zuen lanean.



Rafael Iturzaeta Martija (1928-2011)

Gurmendi kaleko Tente baserrian jaioa. Tentetarren familiakoa, Zarauzko familia ezaguna. Tente baserria kalean bertan zegoen.



Jesus Mari Kaperotxipi Arakistain (1928)

San Frantzisko kalean jaioa, ezkondua eta sastrea izandakoa, gero mandataria.

Arantxa Larrañaga Azpiroz (1964)



Orion jaioa, umetan Zarautzera joan ziren bizitzera, aitaren lanbidearengatik; arotza zen. Guraso biak Aiakoak ziren. Hiru senidetan bigarrena. Umetako kontu batzuk kontatzen dituzte Arantxak eta bere ahizpa Isabelek. Gaur egun sofa denda baten jabea da eta bertan egiten du lan, Zarautzen.

Isabel Larrañaga Azpiroz (1962)



Orion jaioa, umetan Zarautzera joan ziren bizitzera, aitaren lanbidearengatik; arotza zen. Guraso biak Aiakoak ziren. Hiru senidetan zaharrena. Umetako kontu batzuk kontatzen dituzte Isabelek eta bere ahizpa Arantxak.



Antonio Larrañaga Larrañaga (1931)



Maria Larrañaga Manterola (1908-2006)

Iruzta baserrian jaioa, Aitz bailaran. Ezkondu arte baserrian bizitakoa, 25 urterekin ezkondua, baina senarra gerran hila. Jostuna izandakoa. Baserri inguruko hizkera darabil herrikoa baino gehiago.

Inazio Lazkano Roteta (1924-2008)



Antxunarrutegi baserrian jaio zen, Abendaño inguruan. Baserritik kalera aldatu ziren. Aita izan zen Basa-Lore baserria eraiki zuena, Santa Barbara auzoan, eta txakolinaren negozioari ekin ziona. Harrezkero bertan bizi izan da, eta oraindik ere jarraitzen dute txakolina egiten.

Juan Lazkano Roteta *Juan XXIII* (1925-2006)



Elkano auzoan jaioa, baserriko kontuak ondo ezagutzen ditu, eta horien gaineko hainbat istorio kontatu zituen. Perretxikozale amorratua ere bazen.

Inaxio Lertxundi Ameztai (1932-2017)



Santa Marina kalean jaioa, emaztea ere kale berekoa du, eta bertan bizi dira. Ongi ezagutzen ditu kale horren gaineko kontuak. La Salle ikastetxearekin harreman zuzena izan du beti.

Santos Leunda Eizagirre (1912-2008)



Zarautzen jaio zen, Iñurritzan, Etxetxiki baserrian (hiru edo laugarren gizaldia). 1940ko Apirilaren 20an ezkondu zen, 28 urte zituela.

Juana Lizarralde Buenetxea (1914-2008)



Zarautzeko Urta baserrian jaioa. Bidarte baserriko semearekin ezkondu zen 20 urte zituela. 36 urte izan arte bere ama izan zen baserriko etxekoandrea. Aitze auzoko kontuak ondo ezagutzen ditu, baita Urtetakoak ere.

Joxepa Lizaso Illarramendi *Xaxola* (1918-1999)



Bere aitak Elkanoko "Sasola" baserria saldu eta Zarauzko Santa Marina kalean etxea eraiki zuen. Bertan, "Xaxola" izeneko sagardotegi ezaguna zabaldu zuen. Sagardotegi giroan hezi eta hazi zen Joxepa, atsedeen hartzera edota lagunartera hurbildutako baserritar, soldadu, apustuzale eta bertsolarien artean. Hantxe ezagutu zuen bere senar Hilario Epelde (argazkian). Emakume herrikoia, irekia eta hiztuna. Unean uneko esamolde, ateraldi, istorio eta jolaserako iaioa. 1987an grabazioa egin zitzaion "Zarauzko aiton-amonen hizkera" bekarako.

Agate Loiola Antzuola (1925)



Patxiku kaleko Loyola Enea etxean jaioa, aitak eraikitako etxean. Bertan bizi da. Ezkongabea. Jostuna izan da, bere ahizpak bezala (Rosario eta Ignacia); jertseteria izan zuten, eta geroago ume-denda. Euren artean hika hitz egiten dute.

Ignacia Loiola Antzuola (1927)



Patxiku kaleko Loyola Enea etxean jaioa, aitak eraikitako etxean. Bertan bizi da. Ezkongabea. Jostuna izan da, bere ahizpak bezala (Rosario eta Agate); jertseteria izan zuten, eta geroago ume-denda.

Rosario Loiola Antzuola (1922)



Patxiku kaleko Loyola Enea etxean jaioa, aitak eraikitako etxean. Ezkonduta dago. Jostuna izan da, bere ahizpak bezala (Agate eta Ignacia); jertseteria izan zuten, eta geroago ume-denda.

Migel Lopetegi Arreseigor (1926-2008)



Arrantzale amorratua. Horixe izan da bere zaletasunik handiena.

Jesusa Madariaga Oar (1915-2013)



Jesusa Madariaga Oar 1915eko urtarrilaren 17an jaio zen, Foruko Baldatika auzoan (Bizkaian). Oso gazterik Forutik Bilbora joan zen neskame, 13 urterekin. Ondoren Zarautza ezkondu zen, 26 urterekin, eta harrezkero Zarautzen bizi zen. 40 urterekin alargundu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Arrain-saltzailea izan zen lanbidez. "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Ignacio Makazaga Agirre *Beaxai* (1925)



Kanpineko Bea zai zaharrean jaio zen eta bertan bizi izan da orain dela 35 urte arte. Ezkondua, orain ere taberna dauka.

Joxe Makazaga Arruabarrena (1935-2014)



Zarauzko Txerri kalean jaio zen zazpi senideren artean laugarren. Gurasoak Zarauzkoak zituen: aita Berazadizar baserrikoa eta ama Esteraingoa. Miserikordian, La Sallen eta Antonianoetan ikasi ostean, 25 urtez aritu zen igeltsero lanetan; gerora, harakin izan zen, baina istripu larri baten ondorioz Orokieta eskolako atezain izan zen erretiroa hartu arte. Gaztetan arraunlari izandakoa, Zarauzko arraun-elkarteko presidente izan zen hainbat urtez; ondo ezagutzen du arraunaren mundua eta lehendik hona izandako aldaketak.



Pako Makazaga Arruabarrena (1927)

Zarautzen jaioa, tailugilea izandakoa da. Zarauzko sindikatuen mundua barru-barrutik ezagutu izan du.



Juan Jose Markaide Etxabe (1935)

Oleskarietako kide izandakoa, herriko hainbat saltsatan ibilia da Pako Olazabal "Paxorekin".



Imanol Murua Arregi (1935-2008)

Azara kalean jaioa, gerora Agerreson bizi izan zen. Ezkondua. Zarauzko alkate izan zen eta diputatu. Arrantza eta itsasoa ere asko gustatzen zaizkio.



Iñaki Murua Arregi (1926-2015)



Bonifazio Mutiozabal Begiristain Txabillo (1926-2007)

Txabilotarren tabernan jaioa, Gipuzkoa kalean. Zarautzen bizi izan da beti. Hainbat lan egindakoa. Bere anaia Jose Mutiozabal da, hori ere proiektu honetan elkarizketatua.



Jose Mutiozabal Begiristain Txabillo (1930-2020)

Txabilotarren tabernan jaioa, Gipuzkoa kalean. Ezkondua. Okin izandakoa, igeltseroa, arotza eta mandataria. Festak antolatzen jardun izan du. Bere anaia Bonifazio Mutiozabal da, hura ere proiektu honetan elkarizketatua.

Andoni Odriozola Arruabarrena (1932)



Zarautzen jaio zen "Txerrikalean", eta beti bertan bizi izan da. Itsasorako zaletasun handikoa, eta azken urteotan arrantzan ordu asko egindakoa. Txibiak, lupinak... eta batez ere lamotetara joateko zaletasun handia izan du. Elkarrizketan, gehienbat, arrantza eta itsasoaren gaineko kontuak aipatu zizkigun.

Vitorio Odriozola Arruabarrena (1937)



Zarautzen jaioa, "Txerrikalean", beti bertan bizi izan da. Itsasorako zaletasun handia izan du, eta gaztetatik arrantzan ordu asko egindakoa da. Txibiak, panekak, lupinak... eta batez ere lamotetara joateko zaletasun handia izan du. Elkarrizketan, gehienbat, arrantza eta itsasoaren gaineko kontuak aipatu zizkigun.

Balero Odriozola Roteta (1902-1994)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean. Zarautzen gertatutako istorio barregarriak eta dibertigarriak kontatu zituen oso estilo onarekin.

Manoli Olaizola Alkorta (1917-2008)



Amak Mikela zuen izena, eta Altzolakoa zen. Aitak Martin (Martin "Txiliku"), eta Urdanetakoa zen. Zarautzera ezkondu ziren, eta bertan jaio ziren Manoli eta bere anaia. Txiliku baserrian hazi ziren. "Txiliku" idazlearen izeba da.



Marcial Olaizola Iruretagoiena (1917-2005)

Añai baserrian jaioa, Getariarako bidean. Batez ere gerrako pasadizoak kontatu ditu.



Jesus Mari Olaizola Lazkano Txiliku (1951)

Idazlea, batez ere haur literatura landu du. Zarauzko euskara jaso eta erabili izan du bere zenbait ipuinetan. Baserriko semea, eta etnografian zaletua, ondo ezagutzen ditu gai horiek.



Pako Olazabal Iruretagoiena Paxo (1936-2016)

Oleskarietako kide izandakoa eta herriko hainbat saltsatan ibilia Juan Jose Markaiderekin.

Alfonso Sansebastian Izeta (1918-1999)

"Zarauzko aitona-amonon hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean. Gerrako kontuak eta herrian egindako obrei buruzko kontu interesgarriak aipatzen ditu.

Antonio Serras Azpillaga (1920-2020)



Kale Nagusian jaio zen eta bertan bizi da, gozotegiaren gainean. Elkarrizketa emaztearekin batera egin genion, Manoli Uria. Hamazazpi urterekin hasi eta beti elkarrekin egon izan dira. Gizona pastelgilea da, eta emakumea harakinaren alaba.

Manoli Solaberrieta Arsuaga (1924)



Zarautzen jaio zen, Iñurritzan, bederatzi anai-arrebaren artean bosgarrena bera; baina senide bat oso ume zela hil zitzaion. Villa San Josen bizi ziren, aita bertako zaintzailea baitzen. Oso ondo gogoratzen du Manolik umetako bizimodua: eskola, dantzak, janzkera, gerra, udatiarrak, mutilekin harremana... Ezkondu zenean, senarrarekin hasi zen lanean okindegian eta lan franko egin behar izan du. Maisutasunez marrazten du garai bateko Zarautzen irudia.

Elisabet Thomas Arrizabalaga Eli (1992)



Maruri-Jataben jaioa da Eli. Itziartarra du ama eta holandarra aita, Utrechkoa. Bi senide dira etxean. Kirol ikasketak egindakoa da, kirola du gustuko, eta surfean aritzen da, Zarauzko Surf Eskolaren jiran. Surf irakasle lanetan ere jarduten du eta, batez ere, kirol horri lotutako gaien inguruan mintzatu zen 2015eko martxoan [Lo Eizagirre](#) lagunarekin batera 'Gazte Gara Gazte' proiektuaren baitan eskainitako testigantzetan.

Maria Josefa Txurruka Egaña (1913-2011)



Mutrikun jaio zen, Astigarribia Auzoan. 19 urterekin Zarautzera ezkondu zen. Modesto Aginaga zuen senar. Alleme baserrian bizi izan ziren (Santa Barbara), nahiz eta gerora kalera bizitzera joan.

Jesus Mari Unanue Arzelus (1927)



Zarauzko Santa Marina kalean jaio zen 3 anai-arrebaren artean 2.a bera; gurasoak azpeitiarrak zituen. Gaztetan kuadrila giroan abentura ugari bizitakoa, futbolerako zaletasun handia izan du. Eskola bukatutakoan zizelkari lanetan hasi zen Muebles Murgia lantegian, eta 50 urte zituela Enrique Keller fabrikan hasi zen gitarrak egiten. [Pakita Eizagirre](#)rekin ezkondu eta 2 alaba izan zituzten.

Isidoro Unzueta Murua (1917-2001)



Isidoro Unzueta atleta Zarautzen jaio zen. Oso gaztea zela, ama hil eta Ixpilla baserrira eraman zuten, aitonarengana. 1934ko San Jose egunean debutatu zuen Zarauzko Eusko Gaztediaren lasterketan eta hamargarren gelditu zen. Paben Arruti antolaketaren arduradunak Isidoro gaztearen dohainak ikusita, Eusko Gaztedi taldean sartzera gonbidatu zuen. Hamazazpi urte besterik ez zituela irabazi zuen lehenengo lasterketa, eta 1935. urtean, 18 urte zituela, parte hartu zuen lasterketa guztietako garailea izan zen: Gipuzkoako 2. mailakoen txapelketa eta Donostiako, Zarauzko, Bilboko, Ordiziako eta Eibarko lasterketak irabazi zituen. 1936an Espainiako txapelketako 5000 metrotako finalean bigarren egin zuen, eta Berlingo Olinpiadetara joateko hautatu zuten. Baina gerra iritsi eta bertan behera geratu ziren Unzuetauren itzaropenak.

Frantziska Uranga Ibarguren (1917)



1917ko maiatzaren 5ean jaio zen Aizarnako "Aistin" baserrian, baina gerora Zarautzera etorri zen. Azken urteetan "Añai" baserrian bizi izan da, Meagako bidean. Lanbidez etxekoandrea. "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Julian Uranga Ibarguren (1933)



Aizarnan jaioa, Santa Engraziko Aristain baserrian, 1933an. 12 anai-arreba ziren eta bera hirugarrena. Aita Aizarnakoa bertako zuen eta ama, berriz, Errezilgoa. Aizarnako Pilar Zinkunegirekin ezkondu eta lau alaba izan zituzten. Zarautzera joan ziren bizitzera eta bertan egin zioten ekarriketa Donostiako San Ignacio ikastetxeko ikasleek.

Imanol Urbietta Beristain (1934-2016)

Zarauzko musika plazan jaio zen 1934an. Hamar anai-arrebatatik hirugarrena izanik, bera baino txikiagoak loaraztea zen bere eginkizuna, sehaskari eraginez. Esperientzia horrek eta beraien etxean piano bat egoteak betirako bideratu zuen musikarantz, zaletasun moduan lehenengo eta ogibide bihurtuz gero. 6 urterekin hasi zen musikaren kulturaren barneratzen eta 8rekin bazuen pianoko irakaslea, txistua jotzen ikasia zen eta klarinetearekin hasita zegoen. Musikagilea, pedagogo, psikomotrizista eta batez ere sortzailea. 40 urtetik gorako ibilbidean, kontaezinak dira berak sortutako haurrentzako abesti, melodia eta musika zein ikaste-metodoak, 60tik gorako diskotan plazaratuta: "Xirula mirula", "Xixupika", "Haurtxoa", "Urtxintxa", "Txanela", "Zarautzeko haur kantariak", "Amonaren kutxan", "Haur kantarien birlorak", "Axelko, otsoko eta Beleko", "Lau katu eta danbor bat", "Gabon gauean", "Bizarzuri", "Kansenia koralez koral", "Kun-kun lo lo", "Handitzen, handitzen", "Txikia izanik", "Kukuketan"... Bereak diren "Pintto" txakurrarena, betaurrekodun astoa zein 'po-po po-po' egiten duen Ranroverrena... zer umek ez ditu abestu?



Jose Mari Uria (1898)

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Manoli Uria Aldalur (1923-2021)

Kale Nagusian jaio zen eta bertan bizi da, Serras gozotegiaren gainean. Elkarrizketa gizonarekin batera egin genion, Antonio Serras. Hamazazpi urterekin hasi eta beti elkarrekin egon izan dira. Gizona pastelgilea zen, eta emakumea harakinaren alaba.



Mertxe Uria Aramendi (1920-2015)



Zarautzen jaio zen, sei senideren artean lehenengo. Etxean "ama txiki" deitzen zioten, askotan anai-arrebak zaintzea tokatu baitzitzaion. Zarauzko Munuan eta Santa Marinaran alokairuan bizi izan baziren ere, errepublika garaian aita eta osabak etxea eraiki zuten Patxiku kalean, beraiek lan egiten zuten tailerraren gainean. Mertxek Santa Anako eskolan ikasi zuen mojekin, baina pena du lehenago ez joan izana herriko eskolara, han Maximiliana Orokieta baitzegoen, oso ospe oneko maistra. 14 urterekin Luis Tomaseneko karamelu-fabrikan hasi zen lanean, eta lau urte eman zituen han. Gerora, aita Donostian altxaridenda jarri zuenean, hara joan zen Mertxe lanera, eta bertan jarraitu zuen erretiroa hartu arte. Egunero trenetz joaten zen Donostiara eta hainbat lagun egin zituen treneko bizipenei esker. Irakurtzeko zaletasuna izan du txikitatik, eta horri esker, berak bizi izan dituen garaiez gain, badu bera jaio baino lehenagoko historiaren berri ere.

Feli Uria Eizagirre (1947)



Guraso biak zarauztarrak zituen Felik, Urteta auzokoak: ama Gurmendi baserrikoa eta aita Isastikoa. 5 anai-arreben ondoren etorri ziren Feli eta bere anaia bixkia. Gaztetxotan Ondartza dantza taldean ibili zen eta baita mendizale taldean ere. Ezkondu ondoren iritsi zen Zumaiara. Magisteritza ikasketak amaitzen ari zela sortu zitzaion Oikiako Eskola Txikian andereño gisa lanean hasteko aukera. Urte asko eman zituen han baina erretiratu aurreko azken urteetan atzeritarrei euskara irakasten ibili zen Zarautzen. Literaturazalea eta bertsozalea ere bada Feli.

Jose Antonio Uria Eizagirre (1933)

Maritxu Uria Eizagirre (1937)



Zarauzko Patxiku kalean jaio zen, 7 senideren artean hirugarren. Gerra osteko gose garaia bizitzea tokatu bazitzaion ere, ondo moldatu ziren etxean zer jan izateko. Eskolan mojekin ikasia, garai hartan erdara oso sartua zegoen hezkuntzan, eta beharbada horregatik neskek Zarautzen erdaraz egiten zuten. Maritxuk, hala ere, euskarari eutsi zion, batetik, familian gogor egiten zitelako, eta bestetik, [Imanol Murua](#) senarra izango zuenarekin ateratzen hasi zenean euskaraz egiteko erabakia hartu zutelako. Irakurketari esker hainbat teknika ikasi izan ditu, besteak beste, igerian egiteko eta haurrak erditzeko. 4 seme-alaba izan ditu eta Zarauzko bizimoduan egondako aldaketak ondo ezagutzen ditu.



Pakita Uria Mancisidor (1937)

Isasti baserrian jaio zen, Urtetan. Antonio Eizagirrerekin ezkondu eta Gurmendin bizi izan da harrezkero, Urteta auzoan bertan.



Pako Urkia Manzisidor (1935-2016)

Kirolzale amorratua, Club Deportivoaren eta plaieroen gaineko hainbat gorabehera ezagutzen ditu.

Gloria Urkola Etxetxipia (1979)

Gloria 1979an jaiotakoa da eta hiru seme-alaben ama. Lehenengoa zesarea bitartez jaio zen Donostiako ospitale pribatu batean. Beste biak etxean izan ditu. Denda bat dauka Zarautzen "meitaimaitie" izeneko eta hitzaldiak ematen ditu.

Ankelo Usobiaga Larrañaga (1947)



Anjel Usobiaga eta Maria Larrañaga zarauztarraren semea. Ama Anjelen anaia Antoniorekin egon zen ezkondata aurretik, baina 1936an Antonio hil egin zuten, Maria urtebeteko haurrarekin alargun utzita. Gerra bukatu eta gero, 1941ean, ezkondu zen ama bigarrenez. Gerra garaiko kontu horiek jasotzeko egin zioten elkarriketa [Durango 1936](#) Elkartekoek, [Arantza](#) arrebarekin batera.

Arantza Usobiaga Larrañaga (1935)



Antonio Usobiaga eta Maria Larrañagaren alaba. Ama zarauztarra zuen, Irusta baserrikoa. Aita Durangon jaio zen, aitona han eta hemen igeltsero ibiltzen zelako, baina oso txikia zela joan omen ziren Zarautzera bizitzera. 1933an ezkondu ziren gurasoak eta 1935ean jaio zen Arantza. Urtebete geroago, 1936ko irailaren 20an, matxinoen tropak Zarautzera sartu zirenean, urtebete bete berria zuela, aita hil egin zuten. Ez du jakin sekula zergatik. Ama koinatua zuen Anjel Usobiagarekin ezkondu zen 1941ean, gerra bukatu zenean. Bi seme-alaba gehiago izan zituzten, baina bietan zaharrena hil egin zen umetan. Gerra garaiko kontu horiek jasotzeko egin zioten elkarriketa [Durango 1936](#) Elkartekoek, [Ankelo](#) anaiarekin batera.

Micaela Zubeldia Agirrezabal (1917-2001)



Zarauzko Munantxo baserrian jaio zen, baina Martin Enea baserrian bizi izan zen alabarekin urte askoz. Lanbidez etxekoandrea zen. Sebastian Aizpurua Ostolazarekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten. Zezenen ikuskizunak zituen gustuko, eta karta jokoan ere ibiltzen zen. "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Adoracion Zubiaurre Arozena (1922-2017)



Zarautzen jaio zen Arenal kalean, hiru senideren artean zaharrena, baina senideetako bat umetan hil zitzaien. Ama Aiakoa zen, etxekoandrea; aita, berriz, Zarauzkoa, tren-geltokiko morroia eta Beristaingo zerrategiko langilea. Adoracionek gogoan ditu umetako kontuak, gaixotasunak, haien erremedioak, haurdunaldiak, gaztetako ohiturak... Ezkondu eta bi alaba izan zituen.

Lourdes Zufiria Letemendia Txufo (1953)



Gurasoak biak zarauztarrak zituen. Ama etxekoandre lanetan eta okindegian ibilitakoa eta aita familiako zaldale/pentsu-dendaren sortzailea. Hamar senidetan zaharrena, pentsu-dendako saltzailea eta Arguiñano eta Izeta jatetxeetako zerbitzaria izan zen.

Juan Zulaika Lizaso (1929)



Juan Zulaika 1929an jaio zen Astazuri baserrian. Azken Portu taberna zegoen inguruan zegoen, baina bota egin zuten 1975 inguruan. Baratzea eta ganadua zituzten. Txirrindulari-lasterketetan ere ibilia da gaztetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ekonomia eta industria

1.1. Egurra lantzen zuten lantegiak

- **Hizlaria(k):** Lertxundi Amezttoi, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-001/004
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lantegiak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Zarautzen asko lantzen zen egurra. Arrutik San Pelaion zuen lantegia: Palacio del mueble. "Eguzki" izeneko armairu bat atera zuten eta asko esportatu zuten kanpora. Beraiek egurrari eutsi diote beti. Egin izan dituzten lanak.

Transkripzioa

- Egurra asko landu da Zarautzen, e? Arotz asko, ta ebanista asko, ta...
 - Lehen, oain dana galduta, baiño lehen ona, lehen, lehen egurrian Zarautza zan maixu. Esto... ez dakit aitzia izango dezuen, Arruti, Arruti? Horrek taillarra lehen San Pealion zakan, Palacio del Mueble o deitzen ziyoen, ez dakit gootuko zeaten. Eta hoiek... hoiek iten zuen, nik uste det, Españan muebleik onenak behintzat, Europan ta 're oso zeatua zeon, konsideratua, zea, esto, e, Arruti taillerra. Hoiek atea zuen armaio bat, Eguzki jarri ziyoen izena armaio hori. Eta hori, esto, Rusira ta dana esportatzen zuen, zeatik armaio bat zan, esto nik, ba, kataloguak eta bazkat eta, nik handikan, harrezkeo ibili izandu naiz Valentziyan ta feri guztitan, baiño halako armaioik ez ditut ezautu. Harrek [...], hark zezkan egurrak eta haiek zazken gauzak, eta... [...] onak bazaben. Geo, ba, zerian 'e hasi zian, ta hasi zian kartoiakin muebliak iten. Guk ez ditugu hola iten, e! Oaingo mouan kartoiakin, txapa o jarriko diyoe, eta, eta hori hasi zan ta, ba, beno, beno. Ta nik orduan enkargoko lana iten gendun, ta esan niyon semiai: "hi, guk geuriai eutsi in ber ziu, e!". Eta, bastante eutsi diyoun, eta, guk hola, aglomeratuan eta lan gutxi iten deu oso. Dana zan, esto, egurrian ta... Geo, gaiñez, tokatu zaku, ba, gauza nahiko majuak itia. Ez dakit ezautuko dezuen Kiruri? Azpeitiyan Kiruri? Oan in dan berrikuntza, oan taberna ta mostradoriak eta zeak, hoiek danak guk ein genitun, e! Eta geo, ba, joyeiyak eta hola, zean, Zumarragan ta Legazpin ta 're asko montau ditugu. Baiño joyei onak, e, mueblei onakin ta. Hortan suertia euki deu ta semiak eta nere mouko kijote antxequak gea, ta ez perru txiki bat irabazi ez, e, baarrunantzat aiña ateatzen bada, nahio holako mueble zea, gauza, trastiak hala in baiño... Ta egurra maite izandu deten pertsona naiz. Nik egurra maite det, maite. Ta egurrai usaia, ta zea, egurrak bere usaia eukitzen ditu danak, e! Ta usaia, ta zea, ta. Usaia nola? Ba, nik usaia aitzen ziot, eta, betak eta nola ta zea... Atsegingarriya da egurra.
 - Bestela, baserritako ta itsasontzietako ta holako lanik?
 - Ez, baserritako ta itsasontzietako ez, ez, ez.

1.2. Nola hasi zen industria zabaltzen

- **Hizlaria(k):** Lertxundi Ameztoi, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-001/024
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:44:32. **Bukatu:** 00:47:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

- **Laburpena:** Hasieran egurra zen nagusi Zarautzen. Geroago alemanak etorri ziren: Keller, Glass.. Portzelana, musika-tresnak, purpurina fabrikak.. Horiek mugitu zuten industria. Gero Alfa ere etorri zen Zarautzera eta bulegoko altzariak egiten zituzten. Langile askoko lantegiak ziren, baina gaur egun ez dago halakorik.

Transkripzioa

- Bestela, jentea nola ezautu dezu, ze ofiziyotan, egurretik aparte, ze ofiziyo egon da hemen?
- Egurretikan aparte... Beno, lehenoa iya dana egurra zan, iya dana egurra. Geo etorri zian alemanak. Nik [...], alemanak etorri zian: Pielhoff, ta harek bere zea, portzelanazko gauzak iten hasi zan. Geo etorri zan Keller, hoiek iya danak bata etorri zian. Keller etorri zan, eta Kellerrekok egurrakin, ta, akordeoiak eta gitarrak. Orduan, akordeoiak eta gehio iten zituen. Ete geo, beste alemana, Pielhoff, Keller... a! Glas, Glas, Glas, ta horrek ez dakit zer iten zitun. Ta geo, Val, Valek purpurina fabrika jarri zun. Uain Roke Eizagirrek eta hor goian, Azpeiti bidian mahastiyak eta nola dazka? Hor badao itxe haundi bat oandikan, igual-igual dao. Eta... horrek purpurina fabrika. Ta Purpuriñeta deitzen zako horrei. Hiruerreketatik gora daon zea horrei guk deitzen giñun barriyo horrei Purpurineta, Purpurineta, bai. Eta...
- Hoiekin hasi zan pixkat industria moitzen, ordun?
- Hoiek hasi zian industria muitzen. Hemen aleman hoiek moitu zuten industriya. Eta, geo, geo, hasi zan, ba, hasi zian, ba, beste zean bat, e... Geo, Alfa 're, Alfak 'e orduan makinak iten zitun. Eta, e, hasi zan esto, makinak iten mueble ta guztikuak, e, lehengo makinak, bere mueblia ta. Bere muebletxo bat izaten zuen, ta gaiñian makina, ta geo, ra!, ta makina barroa sartzen zan. Eta muebliak [...] zian. Ta geo, tapak eta zea, ta. Hor, taillarra orduan Zarautzan montatu zun, Alfak Zarautzan montatu zun. Eta urte askotan muebliak in dia, baiño geo, nunbait, mueble asunto hori laga in da, makinak beste mou batea, portatillak eta gauzak eta. Eta geo Alfa, ba, ofizinako muebliak iten hasi zan, ta hua 're gaizki atea zitzakon, ta uan, Arrutikin ta ezkontuta daude, baiño... iya, iya, larehun langille zituen taillarrak kiebra jota geatu zian, ta atzeaka, atzeaka. Ez zuen jakin izandu adaptatzen ta zeakin, munduko egoerakin juten, eta geatu zian, ba. Eta lehenoa, adibidez, esto, hango bestia alemana, esto, zea, e, zein da?... Reich, Reich, horrek, horrek 'e, e, horrek makinai ona iten zun oso, eta ehun langilletik gora beti. Kellerrek 'e ehun langilletik, berrehun langilletik gora. Alfak 'e hirurehunetik gora. Eta geo, Pielhoffek 'e ehunetik gora. Eta kanpotik eta etortzen zan jendia. Ta geo, oain berrogeitik gorako taillarrak ez dao Zarautzen.
- Bombas Itur.
- Bombas Itur, hoixe, bai.
- Gaiñontzen, udaletxea da lantegi haundiyena.
- Udaletxia bai, ez da seiñale earra hori.

1.3. Kooperatibaren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Roteta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-006/040
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:11:56. **Bukatu:** 01:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

- **Laburpena:** Denetarik egoten zen kooperatiban: hasieran janaria bakarrik, baina gerora gauza gehiago ere bai. Gerra garaian izena aldatu zioten: cooperativa la Amistad.

Transkripzioa

- Ta, danetik eoten zan han ez?
- Bai.
- Fruta ta babarruna ta...
- (E) Ez, ez.
- Danetik. Hor danetik jarri zuen geo, telak eta dana.
- (E) Fruta ta ba al zeon? Geroa jarri zuen fruta? Geroa, ez? Lehendabizikotikan? "Comestible, todo comestible".
- "Comestible y"...
- (E) Denda luze hura zanian, kooperatiba zanian luze hura?
- Bai, tela 're bai.
- (E) Tela 're bai? Bai. Ontzi gauzak bai; bai, bai, bai.
- Karnizeia aldamenian, ta panadeia beste aldamenian.
- (E) Bai, baita, bai, bai, bai.
- Hor dana in zuen, aizu, ze panadeia, ta nolako panadeia, ta...
- (E) Bai, bai, bai, bai.
- Karnizeia, oain ez al dao karnizeia?
- (E) Bai.
- Ez, oain dana bat inda.
- (E) Ordun, ordun... dana bat. Oain barroa sartu behar dezu dana hartzeko.
- Bai, ba.
- (E) Ordun aparte zeon karnizeia.
- Ordun ikaragarriya jarri zuen, haundiya, haundiya. Bodega 're badaka harek, itxe aiñako bodega daka, gauzak edukitzeko.
- Ta, gerra garaian eon zan koperatiba hori?
- (E) Bai.
- Horrek izena zun lehenon Cooperativa Laguntasuna, ta gerra denboan aldatu zioen izena, Cooperativa La Amistad, ta hemengo jendiak. Ta geo berriz, zeak pasa zian, oain berriz Laguntasuna.
- Ez, oain da, e, lfa o, ya, osea, beste... beste... "como si fuese Eroski. Así, está crecido", beste..., grupo haundiya da.
- Ba, oain grupo bat da, baiña berriz 'e Laguntasuna.

1.4. Bidegileentzat egiten zituzten bota-pareak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Aranguren, Francisco Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-014/028
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:45:04. **Bukatu:** 00:47:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):** Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Aldundiko bidegileentzat bota pareak egiten zituzten urtero. Oinetakoak egiteko prozesua. Iltzedun botak ere egiten zituzten,

baina gero ohartu ziren txarrak zirela. Zortzi duro balio zituen bota pareak.

Transkripzioa

- Zuek konpondu iten zenuten, eñ ez.
- Bai, berriyak 'e bai.
- Bai, e?
- Guk iten giñun berriyak, este, hemen kamiñeruak diputaziyoko enpleatuak zian hoiek, kamiyotan ibiltzen zianak, eta hoiek eskubidia zituen urtian bota pare bat, ta diputaziyuak geo paatzen ziguen. Ba, guk garai hartan dana, osea, hasi Donostitik eta Mutrikuko zeara arte, urtero bota bi iten giñun. Ta hoiek izaten zuen jefe bat, kabo. Ta kabo horrek esaten zigun "hi, o aizue, holako ta halako danak, ahal baituzue, ingo al dituzue hurrengo perirako?". Ta hurrengo perirako etortzen zian kabo hoiek, ta guk pardela inda jartzen giñun, ta holaxe.
- Esplikatuko al dezu pixkat prozesua, oiñetako berriyak eiteko nola hasten zan prozesua ta nola bukatu, pauso-pauso.
- Bueno, prozesua da, ba, neurriya hartzen dezu ta geo, ba, plantilla hori ateatzen dezu. Geo plantilla hori horma jartzen dezu iguala, zea, neurrira [...] hankan neurrita jartzen zendun. Eta geo ya horma iña dakazunian, zea, ordun iten zendun larrua ebaki, ta materialak ebaki. Eta geo izaten da muntajia, montajia in ta geo, ba, geo nolakua dan o, batzuk zea, sebuakin ibiltzen zian, bota gogor-gogor hoiek, azpiyan iltzedunak 'e iten giñuzen, baiño geo azkenian kontuatu zian iltzedunak 'e txarrak ziala, labaindu iten ziala kamiyuan, ta geo, azpiyan gomakin ta iten giñuzen. Bai, urtian pare bat. Ta etortzen zian Añorgatik, ta bestia Zumaikua, ta Debakua, ta hoiek. Ta geo, beste zonakuak, ba, beste zapatein baten ingo zuen.
- Zenbat, zanbat balio zun orduan bota pariak?
- Ordun? Zortzi duro edo hola.
- Diru dexente, e?
- Bueno, bai, materiala 're ona ta...

1.5. Neurrira egindako oinetakoak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Aranguren, Francisco Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-014/029
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:47:24. **Bukatu**: 00:48:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena**: Materiala Donostiatik edo Bilbotik ekartzen zuten. Herriko jendearentzat ere egiten zituzten oinetakoak. Euskaldunek dendetan arazoak izaten zituzten neurriko oinetakoak aurkitzeko. Orduan modelo bakarra egoten zen.

Transkripzioa

- Materiala nundik ekartzen zenuten?
- Donostitik. Donostitik eta Bilbotik 'e bai. Biajantiak etortzen zian eskeinka, ta ekartzen zendun, gutxi gorabehera jakiten zendun zenbat bota in behar dezun, ta horrenbeste larru ta horrenbeste zoro, ta.

- Ta hortik aparte, herriko jentiantzako ta baita 're zapatak eta hola.

- A, bai, bai, bai, iten giñun, iten giñun. Zeatikan lehenoko aldian oain oiñetako ona iten da. Zergatikan lehen izaten zan, e, zapata ba, ze eango dizut, ba, toreruan hanka [...], zeatikan, ta hanka ixtuak, ta hemen euskaldunak deu kontzientzizko hanka zabala, ta haiei derrior in behar izaten zaio neurrira. Ta haiek, denda jun ta ez zuen billatzen, e! Ta bagiñuzen holako hanka zabal samarra zuenak eta, haiei itea giñukan, ta, igual bi hiru urtian, gehio in beharrik ez, ta puskatzen zanian, o gastatu o [...], berriz zoro-berritu, ta...

- Ta modelua ta aldatzen al zan, edo?

- Ez, ez, ez. Oain gehio da. Lehen modelo... oiñetakua izan ezkeo, bale! Hankan ondo eon dedilla, ta, bale!

1.6. Zapatagintzan erabilitako material eta erremintak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Aranguren, Francisco Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-014/031
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:52:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Larru-klase asko zeuden. Barne-zolak ere egiten zituzten. Emakumeen oinetakoak egitea zailagoa zen material delikatuago izaten zutelako. Erremintak: mailua, hortzak (kutxilak). Lehen dena eskuz egiten zen. Eztenak erabiltzen zituzten zulatzeke.

Transkripzioa

- Orduan, ze material, ze material erabiltzen zenuten zapatak eiteko, larrua?

- Bai, larrua. Larruak 'e klase asko dia. Batzuek tafiñetiak, bestia boskala, betia "piel de hierro", ta... holako, klase asko.

- Ta, zer gehio? Goma...

- Goma, bai. Goma 're bai, goma azpikua izaten zan, gaiñekua larrua, ta holaxe. Bai.

- Ta plantillak eta zuek iten zenituen baita?

- Bai, bai. Horma iten da, ba, aurrena. Ta hormai dagokiyon ebaki, ta, juxtu-juxtu beria in ta.

- Ze izaten zan eiteko zaillagua, emakumezkuana ala gizonezkoana?

- Emakumena.

- Zeatikan?

- Joño, gizonezkua, materialak zeak izaten dia, ba, material fuertiauak. Ta emakumianak, aldiz, delikau xamarak, eta. Geo, gure amak preparatzen zitun gaiñeko zea habek, josi ta...

- Ta prezioz?

- E?

- Prezioz garestiago emakumeana?

- Bai, zerbait bai. Bai, denbora gehio behar izaten zan haiek iten, ta.

- Ta erremintak, gogoatzen al dituzu izenak, erremintak, erabiltzen...

- Maillua ta, kutxillak eta. Geo, ba al dakizu, lehen izaten zan dana eskulana. Ta geo makinak sortu zian, ta gastatzeko, ta refinatzeke, ta lijak

eta. Geo 're errexo iten zan. Baiño, lehen berriz eskuan dana.

- Ta eskulana, lanan jarduteko, erremintan izenak gogoratzen al dituzu?
- Bai, eztenak eta, eztenak zulatze ta.
- Zulatze, eta?
- Bai, bai.
- Gehiago?
- Ta geo, hariya, hariya 're, norbeak moldatu behar izaten zun.

Emakumiana askoz zan mihio, ta gizonana, berriz, loriyo, ta.

- Ta, eztenaz aparte, beste erremintaik, hola?
- Bai, mazak, eta geo brillua ateatzeko ta.
- Erreminta hoiek gordeta al dazkazue?
- Ez, ez, ez, ez. Ez, ez. Nik oaindik badazkat ganbaran, e?
- A, bai?
- Ta itxekua ahal baldin bada nik neonek iten det. Bai.

1.7. Emakume eta gizonezkoen oinetako arteko aldea

- **Hizlaria(k):** Aranburu Aranguren, Francisco Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-014/032
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:52:15. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Jendea oinetakoak konpontzera etortzen zitzairen. Gizonezkoen oinetakoak konpontzea 8-9 pezeta ordaintzen zen eta emakumeena 5 pezeta inguru.

Transkripzioa

- Ze giro egoten zan zapateiyan? Ze giro?
- Girua? Nola, ze gaitan?
- Jentia, jun-etorriya, ta...
- A, bai, bai. Jendia etortzen zan, ta, "beno, habek dakarzkite. Aurria dakae hondatuta, o, takoya dauka". Ta etorriko zan, ta esango ziozun, "ba, beno, jarriko diou honei zoro-erdiya jarriko diou, ta atzian takoia 're bai, ta".
- Ta, presupuestua iten al zenuten ala ein, eindako... Nola kobratzen zenuten, denboran arabera, edo?
- Ez, ez, ez. Ez, ez. Zea, gizasemezkuai gutxi gorabehera kostatzen zan, ba, emakume baiño, lan zeauo, baldarxio da, ta denboa 're gehio behar izaten da, ta.
- Ta orduan, denpora ta materiala kontuan izan, ta prezioya.
- Ez! Gizasemianak, ba, ordun izaten zian, ba, zortzi o beatzi pezta. Ta emakumianak, ba, ze esango dizut ba nik, ba, bost pezta, o gutxixio, eo. Geo, zenbaittek esaten zun: "zenbat kostauko da?", ta honenbeste, ta "ez, ez, berriyak erosiko ditut". "Benoa, tira ba, eaman etxea". Hori ba.

1.8. Zapatagintzan ordu asko sartu behar

- **Hizlaria(k):** Aranburu Aranguren, Francisco Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-014/035
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:55:58. **Bukatu:** 00:58:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Ordu asko lan egiten zuten eta ez zuen astirik lagunartean ibiltzeko. Oporrik ere ez zuten hartzen. Zapata-denda gehiago ere bazeuden. Inguruetako jendea etortzen zen Zarautzera erostera. Batzuetan jeneroaren truke konpontzen zituzten oinetakoak.

Transkripzioa

- Bueno...
- Bai.
- Ofiziyua ikasita, ta, zeu 're hasiko ziñan, ba, sagardoteitik eta, eo tarteka juten, edo, ya behin ofiziyua ikasi ta lana ein ta gero ta?
- Ez, ez, ez. Gu...
- Ez?
- Ez, ez, ez, ez.
- Zenbat ordu iten zenuten lana?
- E?
- Orduak, zenbat ordu?
- Igual, hamabi igual ta! Ba, udan igual hamar t 'erdiyak arte ta gabian, ta.
- Hola astirik ez gero...
- Ez, ez, ez, ez.
- ... lagunen artean ibiltzeko ta.
- Ez, ez, ez, ez. Ta gaiñea behiñ 'e-behiñ 'e guk bakaziyoik ez gendun iten. Oain dia bakaziyo kontuak eta, ezta bakaziyoik 'e.
- Ta sapatuan 'e lana.
- Bai, eun guztiyan. Bai, gue aitan launak [...] lanian, ta, "hi, Antonio, lagaio, motel, beste danak apainduta zabiltzaztek, eta zuek oaindik hor", eta, "holakoxeko lanteia dek, ba, ta!". Bai.
- Konpententziik ba al zeon? Ba al zeon beste zapateiik Zarautzen?
- E?
- Konpententziik ba al zeneukaten?
- Bai, bai, bai. Hemen bai, zortzi o beatzi zapatei bai, bazian orduan, bai.
- Beste herritako jentia etorriko zan erostea Zarautzea?
- Bai, ba al dakizu? Zarautzak izan ditu Oikiya ta Aia ta Aizarnazabal, ta... holako zea hoiek eta. Tolosak bere ingurumari duen bezela, ta hona, hemen ingurukuak honea etortzen zian. Ta basarritarrak etortzen zian, ba, beren, ba al dakizu, haiek 'e dirua behar, ta arrautzakin ta. Jenerua ekarri iten zuen beren etxeko produkziyoko gauzak, diru-txanpon batzuek hartzeko ta. Etorri, ta berdua-plazan jartzen zian, ta, "saldu ditut ba!", "benta ona izan da!", ta holakoxe kontuak. Herri txikiya... hau herri, zea, diru gutxiko herriya izan zan.
- Noiz eo noiz tokatu al zaizue jendeak esatea bueno, dirua eman beharrean, ba, arrautza batzuk emango dizkizut konpontzeagatik, edo

holako zer bait.

- A, bai! Ta errelok ekarri 're!

- A bai, e?

- Ta errelok ekarri 're, bai, bai, bai! Arrautzak ekarri izan dizkigu, bai.

"Aizu, datorren, zortzi, nik zortziyan...", bazian ba, Oikiyatik eta Aiatik etortzen zian zortziyan behin, sapatutan. Ta geo, garai batian geu bakar samarrik giñan ta aillatu eziñik 'e bai ta, lanan ta... "Iten baiazu ekarriko dizut, ba!". Ta intxaurrak igual ekartzen zizkiguen, ta, bai, errealo. Bai, bai, bai.

1.9. Zarausko gremioak eta industria

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Aranguren, Francisco Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-014/036
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:58:50. **Bukatu**: 01:00:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Altzarien gremioa sortu zen lehenengo. Arotzek, "linterneroek", pintoreek.. ere bazuten. Zarautzen ez zegoen industria handirik. Arrutinekoak hasi ziren altzariekin eta ondo ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Gremiyuak izango zian, ba, hemen kaskuan, herriko kaskuan, ordun, garai hartan, gremiyuak? Lanian, eskulanak, eta...

- A, bai, bai. Hamen, e, lehenbiziko zea izan zan hamen mueble, mueblan, bai. Hamen, e, etxepian hiru o lau laun jartzen zian ta armaio bat ein, o, ohiak in, edo. Holaxe.

- Ta bestela, ze gremio, zapaterik, arotzak... Zer gremiyo zan?

- Hamen arotzak, linterneruak, pintoriak. Hamen industri haundiik ez da izan. Hamen Arrutinekuak, hoiek hasi zian mueble zea iten, tan hoiek Madridea jun ta, hotela, hotelak eta subastatu iten zian, ba, geo itxia in ta geo amueblatzeko. Ta hoiek anai bat bazuen oso azkarra zan, ta harea jun ta haien notak hartu, honenbestekua hartu, honenbeste zea, honenbeste komedore, ta... Presupuestua sartu, ta nunbait, hemen merkexio ingo zan eo, ta, "Palacio del Mueble".

1.10. Jertseak egiten zituzten makinan

- **Hizlaria(k)**: Loiola Antzuola, Agate; Loiola Antzuola, Ignacia; Loiola Antzuola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-019/022
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:39:45. **Bukatu**: 00:40:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Lanbideak » Sastreak, jostunak

- **Laburpena:** 14 urtera arte ibili ziren eskolan eta ondoren lanean hasi ziren. Etxean lan egiten zuten, era guztietako lanetan. Jertseak egiten zituzten makinan. Rosario Donostian ibili zen josten ikasten.

Transkripzioa

- Ta lanian ta zenbat urtekin eo nola hasi ziñaten...
- A.: Seituan.
- ...ze eskolan zenbat urtekin...
- A.: Hamalau urte arte.
- R.: Gerra arte.
- Eta lana, gero hamalau urtetik aurrea lana?
- A.: Lana, bai, bai.
- Ze lan edo?
- R.: Itxian [...].
- A.: Danetik, danetik iten gendun.
- Esate bateako?
- A.: Jertsiak iten giñuzen guk, jertsiak makinan.
- R.: Makinan jertsiak.
- Etxian bertan?
- A.: Bai, behian, behian.
- I.: Behian.
- R.: Nik ikasi nun, eta geo behian iten genun lana.
- Ahizpak, e! Denan artian?
- R. I. A.: Bai.
- Industria txikiya, orduan?
- Hori, ba!
- Ez, guetzat oso ona. Guetzat...
- I.: Ez zan lanik falta.
- Eta ze jertse klase edo ze iten...
- A.: Danetik, danetik. Bakizu, jertsiak milla klase dia. Batzuek itxitakuak, bestiak irikitakuak, bestiak rayakin, ta danetik!
- Ta jentea ze etortzen zan neurriyak hartu ta itea?
- A.: Neurriyak hartu ta in.
- R.: Baiña lehenbizi josten ikasi in behar.
- A.: Geo josi, klaro.
- R.: Geo josi. Eskolan [...] guk jertse iten.
- Nun ikasi zendun josten, etxian bertan? O zenek erakutsi?
- R.: Nik ikasi nun, ez, nik ikasi nun Donostiyan.
- I.: Hola da, ta geo pasa.
- A.: Bai, ba, zaharraguak pasa iten ziyon bestiai.
- R.: Ikusiko ziñun zuk makina hoiek...
- Bai, bai.
- R.: ...holako haundiya gendukan guk, hiru genduzkan.

1.11. Jertseen prezioa; ordaintzeko erak.

- **Hizlaria(k):** Loiola Antzuola, Agate; Loiola Antzuola, Ignacia; Loiola Antzuola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-019/034

- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:06:09. **Bukatu:** 01:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Hamabost duro balio zituen jertseak gerraostean. Garai batean funeraria ere izan zuten denda ondoan. Ordainketak nola egiten ziren. Zenbait baserritarrek janariarekin ordaintzen zieten. Gaur egun dirua askoz gehiago gastatzen da.

Transkripzioa

- Eta ze, jertse batek garai hartan ze preziyo zeukan?
- A.: Jesus!
- I.: Zein akordatuko da!
- R.: Hamabost duro.
- Hamabost duro. Gerra aurrian? Ez, gero...
- R.: Ez...
- A: Ez, geo, geo...
- Bueno, berrogeita... geo, geo...
- R.: Batian.
- I.: Bai.
- Berrogeita batian o hola, hamabost duro.
- R: Hamabost duro.
- I.: Bai.
- Ta kremalleradunak eta danetikan.
- A.: Dane-danetik.
- R.: Bai, bai, bai.
- A.: Botoiak, kremallerakin.
- I.: Itxiyak, irikiyak.
- R.: Danetik. Oan daben bezela guk iten giñun.
- I.: Punto diferentia, koloriak.
- Geo, kale hontan baita 're zuen denda ta onduan funeraria izango zan, ezta?
- R., I., A.: Bai!
- Hori zuek noiztik ezautu zenuen, funeraria hori?
- I.: Hori ez zan...
- R.: Funeraria hori?
- I.: ... oso zaharra.
- R.: Hor zea zan, garajia zan, hori garajia zan. Ta funeraria jarri zuen, zenbat urte ote jarri zuela?
- I.: Bai... alaba zaharrenak zenbat urte dazkan? Ordun etorri hitunan...
- R.: Este... hua ekarri ziyenan bi urtekua.
- I.: Oso txikiya bai, bai, orduntxe.
- R.: Hogeita sei bat urte. Ta geo kendu zuen ta zea, ayuntamientuak jarri du.
- A, oseake hori baiño lehenuo garaje bat zan hori.
- I.: Garaje bat zan hori.
- R.: Hori garajia.
- I.: Automobilla sartzen zan, ta.
- Ta, denda, dendak nola funtzionatzen zun? Jenteak enkargua iten zun, ordaintzen zun eskura, ala...
- R.: Ez, ez, ez...
- Ala kontua eoten zan?

- A.: Ez, ez, eskura, eskura.
 - R.: Jertsia entregatzen zanian kobratzen zan.
 - Kobratzen zan.
 - I.: Bai, bai.
 - Fiatze konturik eta ez.
 - A.: Batzutan bai, batzutan.
 - I.: Bueno, batzutan bai. Ta ordun eziñekuak ta tokatzen zian.
 - A.: Baiño paatzen zuen.
 - I.: Eta baiño beak esaten zuen, "horrenbeste pusketian ordainduko dizut", eta, in iten zitzakoen. Baiña ez, jende fiña.
 - Eta, baserritarrekin eta eoten zan halako trukerik?
 - R.: Bai, bai, bai.
 - Igual, e, gauza bat dirutan pagatu ta beste bat...
 - R., I., A.: Bai, bai, bai.
 - A.: Haiek ekartzen zuen patata ta babarruna, ta.
 - R., I.: Bai.
 - A.: Ze eman diyozun...
 - R.: Hori ba!
 - A.: ...diruan ordeztu ekartzen zuen. Oso ederki haiek baserritarrak. Bestela zuk erositzea jun behar dezu, ta, beak saltzea.
 - R.: Itxea ekartzen zituen. Itxea ekartzen zituen, asike.
 - I.: Bai, diru juxtua ibiltzen zan lehen. Uain dia, nik ez dakit zein milagro izaten dan, baiño uain dirua dabil parra-parra, e! Gastatzen da..., bueno!
 - R.: Bueno, bueno!
 - I.: Bijaia eta geo, ezer ikusten ez danantzako. Zeatikan bjaie hua o iten dezu...
 - R.: Ez due bat 'e pentsatu 're iten.
 - I.: Diru pilla gastatu dezu ta ze ikusten dezu handikan? Ahorratu zeoze.
 - R.: "Amona! Banijua!", "Noa zuaz?".
 - I.: Ezer ez, eaman du horrek diru pilla, baiño hola da.

1.12. Tailurako egurra

- **Hizlaria(k)**: Gereka Etxaniz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-026/015
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:24:15. **Bukatu**: 00:25:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena**: Normalean Kanadako astigarra erabiltzen zuten tailurako. Egur zuria eta gogorra da, eta asko irauten du. Egurrak bere bizia du.

Transkripzioa

- Orduan egurra, ze egur, ze egur, ze material?
 - Ba, jenealian ibiltzen giñun azkeneako nik, arce, arce del Canadá, arce. Euskeraz oain, momentu hontan ez naiz gooratu 're iten. Zuriya da, egur zuriya da ta. Ta goorra, fuertia, egur fuertia, egur fuertia da.
 - Kanadakoa?
 - Arce de Canadá zan [...].
 - Ta nork ekartzen zun egur hori, edo?
 - E?

- Egur hori nork ekartzen zun?
- Nik, in deten lanik onena, zea, fabricantesen, Zarautzan badao (...), hoiek dana zean iten due, arce hortan. Izena nola... momentuan ez naiz gootzen izenikan, la ordiga. Eta behiñik behin, handik ekartzen due hori, ta da egurra goorra, ta zuri-zuri-zuriya, garbi-garbiya. Ta txapa ta dana horrekin aberatsaua. Izugarri mueble [...] iten dezu. Ta hala esan zien batian batek, "oaindala hamabost egun entreatu, hamabost urte entreatu, eta lehenguan giñuan beste lan bat han entregatzea, ta oain dala hamabost egun inda bezela zio". Oain ze kalidadeko zeak ibiltzen zituen, lakak eta gauzak. Beantzat ez [...] ikusten, porke hola irauteko muebliak, urria baliyo du muebliak, baiña hola irauteko muebliak berri horrenbeste urte pasata. Hamen ibiltzen dianak, [...] esta pentsatu 're, ezta pentsatu 're.
- Pipiyak eta ez dio jotzen?
- Jotzen due, baiña! Horrei ez dakit [...], baiña [...] horrek bere biziya du. Egurak biziya daka, ta biziya etorri iten zaixkiyo, guri bezelaxe, gaitzak, hor ba!
- Hor egurra beti 're garbiya [...].
- Garbiya...
- Eta [...] gaiñian dibujua ipini ta kalkatu.
- Bai, aukeratu in behar du, ta handikan landu.
- Eta gero handikan landu.
- Landu.

1.13. Tailurako erremintak

- **Hizlaria(k)**: Gereka Etxaniz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-026/016
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:25:47. **Bukatu**: 00:26:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena**: Erreminta asko erabiltzen zituen. Gubiak; klase asko zeuden. Lehenbizi erreminta handiagoak erabiltzen dira zatirik handiena kentzeko. Berak egindako erreminta.

Transkripzioa

- Ze erreminta erabiltzen da, prozesua, lehenengo ze erreminta, gero, gero, gero. Pixkat amaitu arteko, ze erreminta prozesu?
- Ez, erreminta asko nazkan nik, dauzkat, tailerrian dabe.
- Izenak ba al dazkizu?
- Gubiyak.
- Dana gubiyak?
- Bai, gubiyak. Media kañak, zea, [gubi eskinak], bestia, beste zer da hori? Beste... benak iteko, zea, benak, zea estuak, estu hoietakuak 'e bai. Klase asko, klase asko dia. Nik erreminta asko nazkan, dazkat, dazkat. Erreminta asko. Behar dezuna hartu, ta bestiak han geatzen dia.
- Baiña, prozesu baten hasieran ze erramienta erabiltzen da? Gubiya, zeak...
- Gubiya, aurrena haundi aurkiya kendu behar diyozu, aurrena [...]. Erreliebe, reliebe haundikuai, nik azkeneako eskuduak banitun, ta reliebia

zenbat, sei zentimetrokuak eta, asko kendu beharrak eta. Pistoleta, erreminta bat neukan inda, zea, ebaki barrua sartzen dan kirten hori, han moldeatu, zea, kanal mouko tubo bat, zea, esto, linterneruandikan, soldeatu, ta pistoleta jarri, ta, ta-ta-ta-ta-ta, ta derrepentian, jata, egurra eskualaiak bezela kentzen zun. Harekin manejatu ez dezu ingo, baiña haundi aurkiya kendu, derrepentian.

1.14. Tailatze-lanbidearen alderdi txarrak

- **Hizlaria(k):** Gereka Etxaniz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-026/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena:** Lanbidearen alderdi txarrena da ez duela aurrera egiten. Bestetik, ez dakizu sortutako estilo horrek noiz arte iraungo duen. Bukaeran laka eta kolorea eman behar zaizkio.

Transkripzioa

- Eboluzioak izan zun ofiziuak, zure ofiziuak? Eboluzioak izan al zun...
- Ez, ez, ez. Hori daka txarra ofizio honek, hori daka txarra. Beste danak aurreatu, eta hamen ez, hamen ez. Eta hor, behe aldian makinak badaude serietako ta askoz zeatzen duenak. Baiña beldurgarritzko serieak behar dituzu horreko, ta ez dao lanik hori iteko. Hori iteko ez dao lanikan hamen. Ta geo, txarra dauka, ba, lan bat sortzen dezu, estilo bat, ta ez dakizu zenbat iraungo dizun: urte bete, bi, lau... Ta geo, ze, berriya geo? Eta serie haundiya iten baezu, eskutan geatzen zaizkizu, ta aberastasun danak galtzen dituzu. Danak saltzen ez badituzu, zu galeran ateatzen zea, galeran ateatzen da, hor ez dao.
- Ta gero, behin zeakin, gubiyakin ta nagusiya kendu ta gero, zer da, zer dator gero?
- Ez, beak, erreminta beakin garbitu in behar dezu, hori... Hor ez dao... dana garbi-garbi dao hori, e!
- Ta gero, azkenean, brillua emateko, ta?
- Laka, koloria ta laka. Ta koloria nik ikasi nun hor daon bezela. Koloria, hiru kolore o baazka aber, e, brotxa txikiyakin, e. Aurrena kolore bat, geo bestia, pultsuan. Kuadrua pintatzen bezela inda dabe hoiek, eta horreatikan hoinbesteaiñoko aberastasuna hartzen du honek.
- Lijaik eta ez dezute...
- Ez, ez, ez, ez, ez! Ezta pentsatu 're lija, ezta pentsatu 're!
- Dana erremintakin?
- Dana erremintakin.
- Ta bukatua 're bai.
- Bai, bai, bai, bai, bai.

1.15. Soldata eta prezioen erlazioa

- **Hizlaria(k):** Gereka Etxaniz, Mariano

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-026/027
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:37:56. **Bukatu**: 00:38:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: 15 egunean 5 duro kobratzen zituen; olio litroak 50 balio zituen. Jendeak pasa zuen gosea.

Transkripzioa

- Zenbat kobratzen zendun zuk hasierako soldata, hamahiru urtekin hasi ziñanian lanean, zenbat? Gooratzzen al zea?

- Esan dizut, ba! Hamabost egunian bost duro.

- Hamabost egunian bost duro.

- Eta litro oliyuak berrogeita hamar. Hortik atea ze pasa zitun jendiak. Nik seme-alabai esaten diyot, e, ze garai zian haiek! Esan dizu oin ezin dula flakatu? Nere maixuak esaten du, han, frailletako aurrian, hantxe sartzen dia Alberdi ta, han, pisotik barrundik, ixkutuan. Ta, han, danak cadaver andantes. Judiyuak nola [...] geatu zian? Tankeratsu, e! Ezin dula flakatu?

1.16. Entierroak zirenean irabazten zuen diru gehien, baserritarrei gorbata lotzen

- **Hizlaria(k)**: Illarramendi Arizaga, Pio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-030/006
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Beraiek ostatua eta taberna zuten. Entierroak zirenean jende asko izaten zen. Baserritarrak beraien tabernan janzten ziren, eta beraiek gorbata-korapiloa egiten zien baserritarrei, txanpon batzuk ateratzeko.

Transkripzioa

- Holakuak, halakuak milla akordatzen naiz, porke, esaten dizut ba, hemen jaio, taberna, ostatua, jatetxia, arrandeia, dana.

- Zentro haundiya hau?

- Zentro haundiya, kontatzeko milloi bat gauza bai.

- Erreferente haundiya.

- Erreferentia, ta geo gaiñez nola hamahiru urteako hasi behar izan nun, rekuerdo... Entierruak zianian herriyan basarritar danak etortzen zian o Goikoetxeanea, taberna zan, o gurea. Ta danak. Eta nik diruik gehiena ateatzzen nun garaia. Ordun izan zan ba, "moda de la corbata", dana korbatakin ibiltzen zan gizona. Ta ordun etortzen zian pixkat lehentxio ta Patxi barberuanea eo jun ta kogotia konpondu esaten zitzaiona, porke lotsagarriya zan hola pixkat ile gehiokin. Ta bestia zan auzo... Ta geo ba, honea etortzen zian ta ordun ekartzen zituen bonbatxuak gaiñetikan ta

abarkakin. Ta zapatak hamen lagatzen zituen askotan, guk armaio bat izaten zan zapatak. Etortzen zian entierrotako ta holako gauzak, ta nik ikasi. Lehen korbata txoixo moura iten zuen ta geo ikasi in zan el tipo americano o zana ikasi nun, ta baserritar danai iteatik, batek bi errial bestiak errial bat, bestiak... Danak zeoze ematen zien ta desiatzen entierrua eoteko ni ta beste bat. Ni ta bestia zea zakiyena hori, Iribar porterua, porke hor jaio zan, kuadrillakuak giñan biyok. Hura 're gurian jardutzen zan laguntzen, aurrena, bai, txanpon batzuk ateatzeko.

- Ze urte zan hori funeralena hori ta, ze epoka?

- Funeralak geo 're beandu arte izan dia, baiño hori, hori bai ba, cincuenta... Ni hasi nitzan cincuenta y seis, cincuenta y siete ta, baiño, orduako itxian beti, ta mutil koskorra.

1.17. Herriko eraikinak

- **Hizlaria(k):** Elozegi, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Erref:** ZAR-108/006
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:06:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lantegiak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Lehen herrian fabrika gutxiago eta txikiagoak zeuden. Beren familiak zer ezizen eduki izan dituen aipatzen du. "Purpurina" fabrika non zegoen azaltzen du; txakolin-fabrika bat jarri zuten haren orde. Torreoia txikitatik ezagutu izan du.

Transkripzioa

- Fabrika asko al zeuden leno, oain konparaturik?

- Han goyan? Honbre.

- Herriyan, herriyan!

- A! Herriyan! Ba, bai, gutxiyo zeuden. Uain askoze zea geyo dao: komodidade geyo, pabrika, nola esango dizut, ba, nik? Muebliak eta... Leno're izaten zian e? Baiña txikiyo.

- Nola deitzen dizute, zuen familiko ezizen bat o?

- Ba, guk, ez dakit, guri esaten ziguen "Las chicas de las Purpurinas". Esaten ziguen. Eta oain, ba, hemen, ba hemendeitzen diyoe "Amaskarkuak".

- Purpurinan fabrikak nun zeuen gutxi gorabehera?

- Ba, Azpeiti kamiyuan, hemendik kilometro t'erdi hola. Uain ez dao e? Uain ez dao fabrika hori.

- Ze egin zuten berarekin?

- Ba, geo itxi zuen, eta jarri zuen txakolin, txakolin-fabrika. Eta uain, uain ez det uste ezer daonik.

- Txakolin-fabrika horrek nola izena zun?

- Ba zan Roke, Roke Eizagirre.

- Ezautzen al zenituen pertsona horiek?

- Baaai, bai, oso ezagunak dia.

- Zer zian, hemen Zarauzkuak dia?

- Zarauzkuak, bai, Zarauzkuak. Hamen dazkae alabak eta danak ezkontuta.

- Lendikan ba al zegoen torreoia?
- Baaai, nik ezautu nun txikitatik hori. Txikitatik.

1.18. Zarauzko tailerrak

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Artetxe, Pedro Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria Eizagirre, Imanol
- **Erref:** ZAR-115/007
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:09:13. **Bukatu:** 00:10:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Eizagirre, Imanol
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Zarautzen zer denda eta tailer zeuden azaltzen du.

Transkripzioa

Ta Ariñek, Arindarrak geo in zuen tailer hori; hori geo indakua da. Beste gaiñuntzen herriyan bueltan, hor beste gaiñuntzen esan dizuet Eizagirretarrak nola zuen kalen, zean, kamiyan, lenoko San Pelayoko zarren zuen Eizagirretarrak zea hori, Izeta Eizagirre, zea hori, Txerri Buztanenekuak, eta Boni Kapaxak eta hoyek. Ta geo hoyek Alfa in zanen Alfa alde in zuen; ta zeak'e bai, Beistaindarrak'e bai, Alfa alde in zuen hoyek. Aerrexuk eta hor seitu zuen. Asieske azken arte beak, Naxario ta hoyek partitu zian zea hoyek, laukotia eo zian soziyuak, hiltzoriyan danak zian hor. [...] Ze esango dizut ba gero? Beste gaiñuntzen, hor Manutarrak'e bai San Pelayo alden dauke hoik taillarra. Ta hoyek'e leno hemen hoyek nun arrayo zuen hoyek [...] bizitza? Ta geora in zuen, ta hua in zala're urte asko da. Ta beste Manu, Prontxio zarra ibilitzen da hor oaiñ'e larogeita zortzi urte dituna, eo hamar'e baditu honezkeo. Ta hoyek zean zuen, frontoien aurreko hortan, Kukuluk taberna nola daka? Hortxe zuen hoyek taillerra. Eta San Pelayo alden taillerra itia, eta hor ez dakit zenbat habitaziyo Ilario Haundiyak hartu ta in zizken hoyei. Hoik danak, hoyek hoyek goguan dazkat, egiya esan, nola izaten dian kontuak. Ta hori, ba ixtori hoyek dia.

2. Aisia

2.1. Garai dinamikoa; Cachi Bachiren sorrera.

- **Hizlaria(k):** Lertxundi Amezttoi, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-001/008
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:16:08. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Boxeoa
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- **Laburpena:** Bere garaia atletismorako garai egokia izan zela dio, garai dinamikoa izan zelako. Cachi Bachi elkarte sortu zen eta elkarte honek

hartu zituen boxeoa, atletismoko kontuak, arrauna... Boxeolari onak ere atera ziren eskualde mailan. Lasarteko Irubiden musika egoten zen eta eskualdeko jendea biltzen zen. Beti borrokan bukatzen zuten.

Transkripzioa

- Ta kirola, garai hartan, ze kirol? Mendia, mendi asko iten zan, mendia asko ibiltzen zan jentia, mendian?

- Orduan mendian? Bai, ibiltzen zan. Kirola, kirola, e, gu behintzat pelotan iten gendun gehiena. Fubolian, ta, geo hasi zian fubolian ta zea. Ta geo izan zan gure garaian izan zan, e, une zea bat, egoki bat, atletismokua. Zeatikan Cachi Bachi, ez dakit esan deten, Cachi Bachi sortu zanian, ba, orduan Club Deportivo eta Cachi Bachin artian halakoxe zea sortu zan zeatikan, zeatikan beti Club Deportivok uste izan du, uste izandu du, ba, beak izan behar zula herriko zea, e, kirola eamaten zun klub bakarra. Ta ez zan konturatzen klub bat zala, e, ta kluba ondo zio, eaman zak nahi deken guztiya, baiño. Ta Antonianokin ta halaxe ibili zan. Aizu, uste zun, ba, Antonianon ateatzen zian futbolistak eskolan Clubea jun behar zuela. Ta Antonianok ezetz: "hi, guk aurea ateako dixkiagu ekipo hoiek", eta. Orduan sortu zan, ba, e, haiek, Cachi Bachikuak egokitu zian kuadrilla bat, hartu zuen bouseua, hartu zuen atletismoko gai guztiyak, arrauna 're hartu zuen, eta zea, ta orduan, neu 're pixkat haiekin ibili nitzan, ta, zean ta. Pixkat bouseuan ta 're ibili izandu naiz [...], eta eman ez nitun asko iten, baiño earrak hartzen nitun. Eta, o sea, nahiko garai dinamikua izan zan zeatikan kuadrilla haundiya zan hua, eta atletismoko iya zea guztitan juten zian: hasi belozidadeko karreretatikan, eta... Atletismuan olinpiadan ematen dian iya zea guztitan sartzen zian haiek. Bat o bi ateatzen zuen, eta. Gu haien atzetik juten giñan, eta, zea. Ta geo, bousealaiak 'e oso onak zian, zeatikan nola, esto, e, gehiegi nola ez dan praktikatzen, ba, hemendik atea zian, ba, dozena erdi bat bousealai nahiko onak, probintzi maillan ta ondo ibiltzen zianak, eta geo kuadrillan haiekin entrenatzen zianak eta 're bouseuan zekiyenak zian. Eta gertatu zan, gertatu zan, oan parre ingo dezue honekin, baiño, hemen, esto... garizuman ta zea ta, ba, musikik ez zan jotzen, dana, o sea, riguroso, ta. Eta orduan musika jartzen zan Hirubiden, Lasarteko Hirubide, hor jartzen zan eta probintzi guztiko jendia horrea juten zian dantza ta zea. Eta bukaeran, ba, burrukan bukatu behar izaten zan dana. Eta habek ez zaken jotzeik, federauta zaben, ta ez zakaen jotzeikan. Eta orduan ikasi zuen, hola heltzen ziyon zeatikan hola batei, ta dan!, buruakin jotzen. Nokao laatzen zituen danak, e, hoiek, ta!, buruakin jota, ta holakoxiak.

2.2. Zarautzen istingorrek ehizatzen ziren

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-003/002
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Ehizarako eta arrantzarako zaletasun handia. Zarautzen afizio handia, istingorretarako batez ere, lehen zingira asko zeudelako.

Erriberetan zeuden zelaietan zingira asko zegoen, Salbidetik Sanpelaiorako. Tiroa oso zaila dauka. Kostan, iluntze garaian, ahateen pasea izaten zen, oso behetik. Goizetan hegaberak, eta iluntzean ahateak.

Transkripzioa

- Arrantza orduan afiziyua?
- Bai, beti, mutikoskorretik. Guk txalupa beti euki deu.
- Bai?
- Bai, ba. Ta jubilatatu nintzanian erosi nun berriya haundi-haundiya ta listo, harekin bukatu arte.
- Bestela, holako beste afizioikan, edo?
- Bueno, uain, lehenengo mendiyan ta ibili, hantxe jun da ta, ehiza 're bai ta, baiño banaka-banaka lautzen jun giñun ta, eskopeta kendu zigun, ta.
- Zarautzen ze egon da, afizio handia ehizarako ta?
- Bai, beti izaten zan, gure itxian beti, osaba ta beti izan da, txakurra ta eskopeta beti.
- Eta, oillagorretan edo?
- Oillagorretan, hegaberetan, istingorretan. Istingorra gehiena.
- A bai, e?
- Hemen Zarautzen bai. Erriberetan lehenengo istingorra asko izaten zan.
- Hamen atzekaldian eta?
- Danian. Behin trenbiretikan beheko aldea, hor dana istingor lekua zan. Hor bi o hiru basarri ta besteik ez.
- Noiz izaten da sasoia?
- Oaintxe pasatzen, zea, oktubrian azkenetik, oain garai hau. Hamendik aurea pasa iten da ya. Ta geo otsailetikan aurea beste hamabost egun, hilabete bueltakua. Hemendik gaboneta buleta hontan ezer ez, geldi dao, ta. Ta itsaso zea ez bada, egualdi txar bat o hola, ta oillagorrak ordun sartzen dia.
- Bestela kirolian ta zerbait, afizioikan edo?
- Bueno, futbolian mutikoskorretan, arraunian 'e bai, ta hortik aurea gauza gutxi, mendiya.
- Eta istingorrena ta, nola izaten da istingorren ehiza eta? Oillagorran antzekua da, edo?
- Ez, ez, zeatikan zingira behar izaten du, zeak, este, zelaia hor zean zianak, erriberetan zian zelaia, ixkiñetan beti uran zeak izaten zuen, apartatzeko lekua, separaziyo moura ta hango zingira istingorra sartu iten da. Ta hori zan hasi hemen zeatik, Salbide oain daon hontatik eta San Pelaio, Astiko futboleko kanpoaiño. Hor danak pasiaz pasiaz txakurra hartu, batetik bestea, ta istingorra duna earra daon leku batian altxatzen baezu ikusi itezu atzea noa jutun dan, urrutira ez da jutun. [...] bi altxaldi, hiru altxaldi, horren aldetikan geo tirua oso zailla du, [...] ertetzen da.
- Bai?
- Bai, azkarra da oso. Oso polita da tirua.
- Oillagorra baiño zaillagua?
- Bai, bai. Hua, oillagorra gehio da, mendiyan jutun zea zu ta leku itxiyan ta zeagua, ta gutxiyo nola izaten dan kosta iten da. Baiña istingorra asko izaten zan, asko.
- Oain 'e asko al dabil istingorra?
- Oain lekuik ez dago.
- Ez dago, hori ba.
- Oriyo aldean beharbada.
- Eongo da Oriyotikan Donosti aldea, Santiyo aldeko zea ta, zingira haietan ta, han sartuko da istingorra.

- Bai.

- Baiña nik urtiak da laga nula.

- Eta, bestela, ahataik edo?

- Lehenoa bai. Lehenoa kostan. Kostan jarri eta uain, uaintxe illuntzeko garaian o, pasa iten zan. Pasatzen zan baju, zeatikan bai zeatikan hasi frailetako zelaiko hortikan hasi eta kanalea arte, jardiñak bazian, itxiak 'e bazian baiña arbola asko, ordun pasatzen zan hegaztiya behetik pasatzen zan, oso behetik, tiro iteko mouan.

- Eta ze izaten zan, ahatak edo, antzarrak edo?

- Ahatiak. Goizetan hegabera ta illuntzetan ahatia, hegabera 're asko, bertan takatuta, kostan takau ta, golfian takau ta. Hor tirua galaziya zeon baiña in iten zan, Guardia Zibilla zaitu ta aurrera. Hala zan hori.

- Eta asko izaten zan, Guardia Zibilla?

- Bai. Guardia Zibilla, ba, bi o hiru, baiña beti bueltaka. Txarrenak Guardia Zibillak ez zian, txarrenak zian telefonotik deitzen ziyoenak Guardia Zibillai, han ziala tiroka iñez.

- A, bai, e?

- Karo, harek berotzen zitun ta etorri iten zian. Beak esaten zizuen, "es que no nos dejan en paz". Bai, ordun Guardia Zibillakin hizketan 'e in iten zan, diferencia zan. Gauza diferencia zan.

2.3. Zarauzko txistulari banda

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-003/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Beraien taldea osatu ondoren, Gure Kabian ere txistulari banda antolatu zuten, eta udal banda bihurtu zen. 1950-1960 inguruan izan zen.

Transkripzioa

- Dena dela, e, txistulari banda ofizialik ez zegoen, ez? Debeekatuta...

- Bueno, hura 're in giñun.

- Gure Kabiya kua izenian eon zan, ez?

- Ni bigarrena nitzan han.

- A!

- Hango bigarrena nitzan. Osea, guk in giñuna zan gure taldian laukua jarri, baiña geo gertatu zan, etorri zan Batallón de Trabajadoresetarik Joxe Mari Eizagirre. Hua zan primerua, gerra aurretik eondakua ayuntamentuan. Ta hareatik esan zuen hamen ayuntamentuan, bueno ayuntamentuan, hamen gelditu zianetako batzuek esan ziyoen Zarautzen gehio txistuik ez zula joko harek. Hola jarri zian. Eta hori etorri, bigarrena zea zan, Betelu, Jesus Betelu Urdanpilleta, eta harek ez zun aurreko zeikan ez zun zeatzen. Zilbota gure aitak jotzen zun. Geo osaba Joxe jarri zan geoa, baiña guk in giñuna zan gure bandatik bi hartu, osea, Joxe Marikin sartu, ta lehengo danborrerua ta Joxe Marikin banda jarri, eta bai Kabiyan eta bai Udaletxian plaza atea. Eta lortu giñun Joxe Mari sartzia berriro han. Zeatikan zan, bea

etorrita zeatikan, batailloitikan, sarrerik eta gabe, ofiziyua ebanista zan, baiña lehen funtzionaio bezela eondakua zan plazan, ayuntamientuan, eta momento haietan eskubideikan gabe. Ta lortu giñun sartzia, geo harekin jubilaziyuak eta danak hartzen zitun Joxe Marik. Baiña gu jardun giñan urte batzuetan gure banda laga, osea, jo iten giñun baiña banda bezela ya guk herriko zeak hartu, obligaziyuak hartu, jaiero herriyan jo, dantzaiak, osea goizeko zortzitako buelta, zea guztiya, obligaziyo danak bete eta bere soldatakin Joxe Mari sartu. Hori in giñun. Ta Joxe Mari beti zeakua izan zan, Kabikua, [...], han azaltzen giñan, joten giñanian konkurso batea o bestea, banda de estos, de txistularis de la Sociedad Kabiya. Guk zea atea giñun, Gipuzkoako aurreneko premiyua atea giñun.

- Ze urte zan hori?

- Hirurogeita... ez! Berrogeita hamasei eo hamazazpi o hola, Azpeitiyan.

- Oain bakizu, e, disko baten atea dela zuen musika, amerikano batek ein zuen grabaziyo batzuk. Bai, Xabier Etxabek...

- Bai, esan zian, Xabierrek esan zian.

- Esan zizun.

- Esan zian, bai.

- Bai, Juan Mari Beltranek eta emandako informaziyuakin ta, bai.

- Ya.

2.4. Euskarazko antzerkiak antolatzen zituzten

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-003/011
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:20:35. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Antzerkiak euskaraz egiten zituzten. Baimenak lortzeko gaztelaniaz aurkeztu behar izaten ziren, baina antzeztu euskaraz egiten ziren. Gerra aurretik idatzitako antzezlanak izaten ziren. Gehienetan Tolosatik ateratzen zituzten, edo bestela Toribio Altzagarenak. Zarautzen hasi, eta Gipuzkoako herri guztietan aritzen ziren.

Transkripzioa

- Ta, antzerki testuak eta hoiak esan dezu eiten zenituztela itzuli?

- Erdera pasa behar zian.

- Eta gero antzeztu?

- Euskeraz.

- Eta ze testu?

- Bueno guk hortan suertia ona euki giñun zeatikan, suertia ez gaiña, joten ziñan o Tolosa, o joten ziñan Errenteira, eta hor topatzen ziñun gerra aurretikan beak eskribitutako jendia, osea, bere obrak zituen. Eta nola hortikan diruik ez zuen ateatzen, eta bean ilusiyo guztiya itia zan, joten baldin baziñan erreztasun danak ematen zizkizun: kopiya ateatzen zizkizun, bialtzen zizun, autorizaziya ematen zizun. Zean bertan, testuan bertan jarrita lagatzen ziñula ta, zeata guztiya, ahal zun zea guztiyak kenduaz, oztopo guztiyak kenduaz. Hortatikan haundiya. [...] Tolosako

autoriak beak, beste aldetik, Labaienek eta hoiek danak eman, utzi iten zizuen.

- Eta Zarautzen bertan bazan idazlerik edo?

- Ez. Beno bazian, izan ingo zian, baiña ez, horta, osea, teatroko obra euskerazkote ez zan, guk ez giñun topatu. Gehienak Tolosatik atea giñun. Ta geo ezagunak zianak, obrak, batenak o bestianak, o Toribio Altzaganak eta holako zeak pillat bat. Orduan hartzen ziñun, eta ez Zarautzen bakarrik, hori garai hartan, teatrua [...] guk Gipuzkoa guztiyan. Donostitik hasi, Eibarren, Mondragoian, danian.

- Bai, e?

- Bai.

2.5. Futbol partidu baten inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Barrenetxea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen
- **Erref**: ZAR-005/021
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:46:39. **Bukatu**: 00:48:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Behin futbol partidu garrantzitsua zuten zarautzarrek Bergararen kontra. Denak meza goiz amaitzeko zain, baina apaizak luzatu egiten zuen meza jendea zegoenean. Aritzbatalde futbol zelaia non zegoen. Azkenean suspenditu egin zen partidua. Futbol taldearen jantzia.

Transkripzioa

- Nik gogoratzen det beste batian, kristo-erregen egunian zan, ointxe pasa da. Ta orduan, joe, danak juten giñan "en punta en blanco" danok eta. Arratsaldian zeara, bezpereta, ta bezpereta jun. Ta zan, Zarautzak jokatzun Bergaratarran kontra fuboleko partidua, ta oso garrantzitsua zan. Eta, Don Fernandoi esan giñun, "bezpereta etorriko gea, baiño fubolea jun behar deu, e!", ta ondo iñ ezkeo nahiko denboa zeon, baiño... Parrokua zea zan, Don Meliton Pagola, ta hura hitza hartzen zuenian, ta hola jendia beteta, ez zuen bukatzen. Ta Don Fernandok ordun "nik konponduko det hori", gu danok zeara, fubolea juteko. Ta, efetibamente, jarri gea ta, kristo gure errege kantatu ta, bestiak segi iten zun, ta Don Fernandok 'e "kristo gure errege", benga, benga ta benga, ta bestiak "hi, baiña [...]", danok kalea! Ta saltaka, zeara, aizua, fuboleko kanpoa. Ta euriya, haura zan euriya itia!

- Nun zan fubola? Fuboleko kanpua nun zeon?

- Arizbatalde! Oain, e, nola dao, ba, zea, anbulatoia, ta? Hortxe, hortxe zeon kanpua, Arizbatalde. Ta hura iten 'e parte hartu gendun. Eta haraxe. Ta lau ta hutsa o, lau ta bat eo hola zarautzarrak irabazten. Ta euriya benga ta benga. [...] beteko ura altxa zan zea, esate bateako fuboleko kanpuan, eta oaindikan hoge bat minutu falta ziala, biyak jarri zian deakuerto ta suspenditu.

- Baiña, zarautzarrak irabazi!

- E?

- Zarautzarrak irabazi!

- Bai, lau ta [...]. Irabazten zaben, ta esan zuen, bale, bale, bale...

- Eta, jantzin bat ba al zekaen? Kamixetaen bat eo zarauztarrak, o? Danak...

- Bai, igualak, bai. Kamixeta eta ondo, botak eta ondo, ondo.

- Bai, e?

- Bai, bai, bai. Erregaluan eunen uniformia, galtza beltzak eta kamixeta zuriya, ta botak eta. Hor ez, hor ez zeon zeaik 'e...

2.6. Mandaska futbol taldea

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Barrenetxea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-005/022
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:48:58. **Bukatu:** 00:49:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** Bera ere ibili zen futboleant. Mando aska bat zegoen inguruan jokatzeko zuten futboleant eta taldeari "Mandaska" deitzen zioten. Berari bizikletan ibiltzea gustatzen zitzaion.

Transkripzioa

- Ta zu, fubolian zu ibili zina? Zu ibili zina futbolian?

- Gu, ibili nintzan fubolian, bai, baiño txarra nintzan. Zeant, hemen, soziedadia, zea bat euki gendun, barriyokua. Mixeikordiko aurrian, hor uain biblioteka o etxe bat badao han... horren onduan, atzia zan basarriya, Kirkillanekua. Ta aurria zan Mandaska. Ta manduak eta orduan ba al dakizu, zalduyak eta kamiyotan, haiek ura erateko aska bat zeon, urakin. Ta gu irten gina Mandaskakuak ekipua. Mandaska bai gina. Eta kostan 'e asko jokatzeko gendun fubolian 'e, baiña nei bizikleta gustatzen zitzaiten, ta ni bizikleta. En tres años, hiru urtian bi ostu, ointxe.

2.7. Aisialdia: gaztetan pilotan; gerora kuadrillarekin sagardotegietan

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Roteta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-006/012
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:20:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Kirola. Pilotan eta korrika egiten zuen, baina gerra-garaian dena bukatu zen. Ze frontoi zeuden: Errustaneko okindegikoa, Zinema, fraideetakoa.. Behin 18-20 urte ezker mutill-kuadrillak elkartu eta sagardotegietan ibiltzen ziren. Tokan jolasten zuten. Galtzen zuenak erronda ordaindu behar zuen.

Transkripzioa

- Eta, orduan, e, zure gazte denboran kiroleako zaletasunik eta ba al zeon hemen Zarautzen?
- E?
- Kiroleako zaletasunik ba al zeon hemen Zarautzen?
- Ez det ondo...
- Kirolrik iten al zan?
- (Emaztea) Aber kirol-gauzikan iten zan? Deportia!
- Deportia?
- (E) Bai.
- Ahal zunak ahal zuna iten zun.
- (E) Pelotan, pelotan.
- Ni pelotan, korrika 're bai iten nun, batzokitikan. Geo, gerra etorri zanian hura 're dana bukatu zuen ta gelditu in behar.
- Gerra garaian dana bukatu in zan.
- Dana bukatu zan hamen, K.O. Hamen ez zan ezer 'e gelditu. Hamen beste ezer ez zan. Danak frentian, ta zean ta. Hamen ez zan ezer iten, ezertxo 're ez zan hamen: ez arraunik eta ez zeik, eta. Ezta ezer 'e! Lehen, gure gazte denboan, hoixe pelotan, fubolian, kostan, ta deportia dexente in giñun.
- Ze frontoi zeuden Zarautzen? Bat esan dezu, frontoiak, zuek in zenutena?
- Bai. Geo beste frontoia bazan, e, Noizbait haundiya. Baiña horrea iñor ez zan sartzen. Hori Erdoiztaneko panadeikua zan ta, itxiya eoten zan hura. Ta geo bestia Zinema, han, han bazkaldu ta seituan hara.
- (E) Ta geo Frontoi Txikiya nola dao...
- Geo Frontoi Txikiya daona.
- (E) San Francisco kalia? Hori 're bai.
- Frailetako frontoia han, ta toki askotan geneuzkan. Terreno hotan geuk indakua 're bai. Pelotan asko iten giñun, ahal giñun bitartian. Ta geo kanbiatuz, kanbiatuz, kanbiatuz, ba, orduan ohitura zeon, ta behin hemezortzi hemeretzi urtekin o, hogeitaz urtekin, launak iten zian, ta saardoteitik saardoteira. Saardotei asko zan. Ta saardoteira jun ta han tokan ibili, tokan.
- (E) Ez dakit jakingo duen zer dan toka...
- Bai, ez. Bueno, nei. Esplikatu, bai, nik ez dakit. Nola da toka?
- Toka da, zea bat, e, txabola bat bezela, irikiya, ta zea bat daka, burdi bat forma hontan peatuta daona, ta zeak, burdizko zea batzuekin. Bota, ta hua jo behar urrutian, aitzen? Holako ixtuak zian, ta tokan. [...] zan, afiziyo haundiya zan.
- Nun zeuden tokak? Nun zeuden toka...
- Saardotei danetan.
- (E) Asko, toki askotan.
- Bai, bai, ta han juntatzen giñan zortzi, igual hamar laun, batzuek kuadrillak izaten zian bostekuak. Gu gutxienez bagiñan zortzi o beatzi ta, toka ronda, zenek gutxina jotzen zitun, paatu in behar.

2.8. Udaletxeko dantzari txikien taldea

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Roteta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-006/026
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:44:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Gerra aurretik udaletxeak dantzari txikien taldea zeukan. Udan, jaiero meza nagusira joaten ziren udaletxeekin batera eta ondoren plazan dantzak egiten zituzten. Arratsaldean San Pelaion egiten zituzten dantzak eta afaria ematen zieten. Astean duro bat eta alpagata pare berria ematen zien udaletxeak. Beasaingoa zen dantza-maisua.

Transkripzioa

- Eta, festak eta ziharo diferentziak izango zian, Euskal Jai euna ta, San Pelaio, ta San Pelaiuak eta...

- Euskal Jaitan?

- (E) Berdintsuak, hola, jai hoiek, e, San Pelaio ta...

- Jantzi, zeon... Guk giñaukan gauza bat ona Zarautzen gerra aurretik, e! Ayuntamientuak grupua zakan dantzai txikiyana, grupo bat, e. Zarautzan jendiak gastatu iten zun ayuntamientuan. Ta jaiero, udan, e, neguan ez, udaan, meza nagusira juten giñan alkatiakin ta ayuntamientu guztiya ta grupua dantzai txikiyana. Ta geo plazan dantzak, hiru o lau plazan, hiru lau o bost, zea, dantzaldi in eta alto. Ta arratsaldetan, udaan, udaan San Pelaioa, nahiz zeon ez, zea izan ez, San Pelaioa juten giñan. Han berriz 'e dantza in, afaia ematen ziguen, astian duro bat. Han eoten zan ama zai [...] kentzeko. Duro bat ematen zigun ayuntamientuak, e! Ta astero-astero alpagata paria berriya. Neurrita 're inda, gaiñea, e! San Pelaioko zeara jun, alpagateruana, ta neurrita inda ematen zien. Ta, durua. Ta noizian, garaitan ematen zigun pastelak eta. Hor uain ayuntamientuan tokiyan, hori hutsa zan, ayuntamientua erre arte hori hutsa zan.

- (E) Ayuntamientua Plaza Musikan zeon.

- Ta han gaiñian ikasi giñun dantzan ta. Geo horrea etorri zan ayuntamientua, erre in zan, erre in zuen, plazan zeona, ta hor eoten giñan. Ta geneuzkan maixua beasaindar bat, urte guztiyan hamen apopillo,e! Eskolan zea eakusteko, dantzan ta eakusteko. Ayuntamientua orduan, ondo [...], e! Bai, bai, bizimou ona pasa deu. Gose pixkat, baiño... Gerra garaian pasa zan, ta.

2.9. Mutil-ardoak antolatzen zituen San Pelaioak

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Xabier - Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-007/003
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:05:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena:** San Pelaioak nola ospatzen ziren. Udaletxeari baimena eskatu eta mutil-ardokoak ibiltzen ziren festak antolatzen. Auzokoek oilasko-batzea egiten zuten baserriz baserri.

Transkripzioa

- Hemen, pixkat, e, hasi zaite nahi bazu kontatzen hemen zure gaztetako

girua, ze giro zeon hamen, ta festak eta nola iten zian, ta... holako...

- Festak, San Pelaiua, beste festaik ez zan hamen.

- Nola izaten zian San Pelaiuak?

- San Pelaiuak izaten zian, aurreko astian, aste erdiyan eo, juntatu eta beti komisiyua izaten zan aurrekua, eta mutil-zaharrena juten zan zeara, esto... ayuntamentura, baimena zeatzeko, festa zeatzeko. Ta geo, juntatzen zian batzutan [Polisan]. Hor baserri bat bazan [Polisen], ta han itxe itxurazkua eo, behintzat reuniyua iteko, ta han zeatu...

- Hoi ze, mutill-ardokuak izango zian pentsatzen det, ezta?

- Bai, mutill-ardokuak, bai.

- Hor mutill-arduan ba al zekazuen edadeikan sartzeko, eo... Toki batzutan esaten zuen hamalau urte o hamasei urte sartu, eo libre izaten zan?

- Hoi, hamen hamalau urte artekoik ez zan sartzen, baiña [...] libre beti, [...] behiñ 'e, zeaik, urtian ezeptziyoik behiñ 'e ez deu zeatu. Jeneralian zaharrena, mutil zaharren bat izaten zan, hirurogei urtetik aurrekuak eta. Guk hamen, zean, ta, ayuntamientoko zea...

- Harei permissuak eta eskatu ta...

- Hori da. Ta geo, oain iten dan bezela iya, iten zan zeatu, bezperan juntatu, ta geo San Pelaio bigarren goizian oillasko bildu, baserriz baserri hasi, ta geo [...] hasi, [...], Nekazabal, ta zea, zea, Aixiya, ta [...] San Pelaioko buelta hau.

- Ze iten zan, buelta bakarra o bi buelta uain bezala? Bi kuadrillean, eo...

- Bakarra ibiltzen zan ordun. Mutillak 'e oaingo erdiya, baiño kaleko zeatzeko erdiya, ta ordun hori barriyuan bertakuak bakarrik zeatzen zian. Ta barriyo, zian hamen [...] danak 'e, hogeita hamar itxe ez zian izango, hoiek kontatuta 're.

2.10. Kadi lanak golfeko zelaian

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Xabier - Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-007/010
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:21:22. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Golfeko zelaia. Teniseko zelaia. Espainiako txapelketak ere jokatzen ziren eta atzerritar asko etortzen zen. Kadi lanean ibiltzen ziren golfeko zelaian eta sei errial irabazten zituzten eguneko, etxekoentzat ogia erosteko lain.

Transkripzioa

- Eta, gu, nik sei urteako, ni 're golea... Uste diat, nik lau urte nitunen o hola iñ ote zan gola. Hori da, erdiya ayuntamientuana dao. Eta txaleta ta berriz, o, txaletatikan zeara, [...] zea arte...

- (A) Kanal aldea...

- Herriyana da, mugak hantxe dabe.

- Oseake, garai hartan asko ibiltzen ziñaten, baserriyaz aparte, ba, arrantzan tenporada bat eta gero golian...

- Ba, golian gu hiru anaiak 'e bai. Akordartzen naiz tenisan lehenbizikoz

hasi nitzanian pilota biltzen, bakizu nola ibiltzen giñan pelotak botatzen, ta. Sei errial euneko, e, ta goizian dana markatu, letxerakin markak, ta [...]. Zian sei tenis, ta Campeonato de España jokatu zian ordun zean 'e, hamen 'e, Campeonato de Españak. Zeako gerra, este, Afrikako gerra zanian, hamen etortzen zian orduan frantsesa, inglesa, italianua... Hamen, ordun jaiki zan, gola 're ordun iyo zan. Sei errial, ta bi anaiak golea, o sea, kadi ibiltzen zian. Geo, bai, ni 're zazpi urte ezkeo, gehio irabazten zan, ta, kadi, bakizu, boltsakin. Uain bakoitza bere zeakin ibiltzen dia, karruakin. Ta, orduan aristrokaziko jendia bakarrik. Ta, sei errial. Ta, zea, esan zien bidian anaiak, "ez esan, e, galdetuko dik amak, eta, ze diruik ibili al haiz, eta ezetz esan". Ta, orduan nik nola esan [...], mahaian gaiñian sei errial, ta jesus, amak zea, famili danantzako euneko ogiya, sei errialekin, pentsa zazu ta, hamabi lagun o eongo giñan, sei errial... Bueno, hortako goizian talua jaten gendun, talo ta esnia, ta afaitan 'e bai. Eguerdiyan bakarrik ogiya, bai.

2.11. Altzolako eta Urdanetako jaietara

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Uranga, Antonio; Uria Mancisidor, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-009/026
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:39:03. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Altzolara eta Urdanetara joaten ziren festetan. Dantzan egiten zuten eta gero mutil-ardoa egoten zen. Oinez joaten ziren auzoetara. Festa arratsaldean goiz hasten zen eta iluntzean ere bederatzirak aldean bukatzen zen. Antonio 14 urtez gero hasi zen festetara joaten; neskak ere antzera.

Transkripzioa

- Lehen esan dezu Altzola ta Urdaneta ta juten ziñatela festeta, ze iten zenuten?

- (A) Zea, dantzan iñ.

- (P) Orduan soiñuba izaten zan ta!

- (A) Soiñuba jotzen, dantzan iñ. Ta geo, mutill-ardua eoten zan Urtetan, Urdanetan ta Altzolan, baita Iñurritzan ta, jira, barriyo guztitan. Ta, geo, ba, ardua handikan, zeatikan...

- (P) Barrikan, barrikatikan.

- (A) Mutill-ardua, ta mutill-ardua, "Urdaneta mutill-ardota jun behar deu, ta Altzola 're bai ta". Geo, hor ibiltzen giñan batzutan, "hangokuai aurtan, hi, aurtan ez diye eman, ta hurrengo urtian ez zieuk eman behar hairi", ta bata bestia holakotxe zeak, pikek eukitzen giñun.

- Nola juten ziñaten harea, oiñez?

- (A) Oiñez, bueno, hoixe, jata behetik gora, gustoa asko!

- Sasoi earrian!

- (P) Bai!

- (A) Gauen etorri 're bai beandu asko Urdaneta, Altzolatikan 'e. Ordu bi alden igual, ordu bi aldea arte hantxe bertan eon, ta berriz, danba-danba,

goitik behera.

- Noiz hasten zan orduan festan, arratsaldian goizo?

- (A) Bai, hasiko zan bost...

- (P) Goizo.

- (A) Bostak alde behintzat bai.

- (P) Bai, bai. Eta geo illuntzian orduba izaten zan geatzeko 're, e! Behin illunduta, ze ordu jarriko nuke, ba, nik? Beetzik? Ba, bukatzen zanen pexta.

- (A) Bai, bai, itxea 're etorri behar izaten zan, behin...

- (P) Bai, bai, goizo itxea etorri behar izaten zan, ta.

- (A) Neskak, neskak behintzat bai. Neskak ordun goizo erretiau behar izaten zan.

- Ze, ze, ze urtekin hasi ziñaten festeta juten? Zenbat urtekin?

- (A) Esan dizut, ba, hamalau urtekin.

- Bai, e?

- (A) Bai, bai, hamalau urte ezkeo.

- Guraso eskuzabalak, e?

- (A) Bai, hortan. Huaxe uste zigun, jai aatsalden. Igual goizen lana in, ta igual eguardin beandu arte ta, igual arratsaldian 'e bai, e! Igual lana laurak arte, siesta pixkat itten banun in, siestaik in gabe igual, ta geo handik atzea...

- Belarra ondu behar zanen, ta...

- (A) Bai, ba. Belarra ondu behar zanen, ta... Ba, hola, jaien lanak itten 'e izaten zan ordun, e! Bai, ordun...

- Ta neskak zenbat urtekin festeta juten?

- (P) Ba, gu 're hamabost urte o hola. Arte bitarten ez giñan...

- (A) Zuek lehen 're bai.

- (P) Bai? Bai, bertan bai, baiño hola urrutira ta, kanpoa ta ez.

- (A) Bai, urrutira, zea, zuek 'e gu bezelaxe. Altzola ta jungo ziñan zu hamabost urte baiño lehen 're ta.

- (P) Bai? Ez dakit, ba! Ez naiz hola gootzen seguru, baiño.

- (A) Bai, bai, hola.

2.12. Erromerien inguruko kontuak: Urtetako festak

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Uranga, Antonio; Uria Mancisidor, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-009/030
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 00:46:17. **Bukatu:** 00:51:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Festa lehenago Elizemendin egiten zen. Urte bakoitzean baserri ezberdin baten ospatzen ziren festak. Etxeetakoek jartzen zuten dirua festetarako, baina soinujolea eta beste zenbait kontu mutil-ardoak ordaintzen zituen. Baserrietan gonbidauak izaten ziren. Apaizari errespetu handia zioten. Gero nesken festa ere bazegoen. Neska-laguntzeak.

Transkripzioa

- Bestela, auzuan aldaketak eta, etxe berriak eta, zeoze izan al da?

- (A) Itxe berrik? Oain bai, oain arte gutxi. Lehen...

- (P) Oain bai, itxe berritu ta oain, oaintxe in dia, oain urte gutxi kamiyuak eta in dian hontan, oaintxe moittu da.

- Pexta nun iten zan ba lehen, pexta, musika ta, dantza ta, nun iten zan?

- (P) Elizamendiñ.

- Goian, kaskoan.

- (P) Hor, Elizamendi.

- Goian.

- (A) Bai, elizan aurreko zea hoi zan, gu, guk aurreneko horrea ikasi gendun biria.

- (P) Mandiyua izaten zan.

- (A) Ta geo aldau itten zan, e! Orduan hua 're zea zan, maiordomua esaten zitzaion ta. Bi, itxe batek hiru urtetan in behar izaten zun, hiru San Sebastian, hiru urtetako San Sebastianeko pextak baserri bati tokatzen zitzaizkon. Ta bi [...] baserriya baldin bazan 'e, berdin. Teillatu beagatik hiru urte ta, gu, bi [...] zan hau 're, ta gu ondo libratzen genun itxe bakarrak bazian urten, hiru urten in ber zianak. Ta, horrek eukitzen zun baiño hark 'e ezin, nahio hola, ta hari paatu iten zitzaion. Ta haren, paatu nahi ez bazitzaion, nor o nork, beak in behar. Ta haben, Isastin 'e ezautuko nun nik pexta iten, haben bextekua zan, bextekuak in zun. Bi [...] zan Isasti 're ta han pexta. Itxe berdiña, bai. Ta [...] itxian ez det zeatu behiñ 'e nik. Etxebesten 'e urte baten ezautu nun.

- (P) Bai.

- (A) Ta, hor gaiñuntzen Elizamendiñ ta Erromiñen. Urteta beheko zea honek, e! [...] ez.

- Ordun, zuen artean organizatu behar izaten zan festa, ta txandatuta.

- (A) Bai, bai.

- (P) Bai.

- (A) Txandauta in behar izaten zan, hiru urtea, ta in nahi ez bazendun, paatu. Ta paatzen zan. Ordun nik ezautuko nun Errominguai paatzen gure aita zana.

- Eta dirua, etxeak berak ipini behar izanten zun, edo ayuntamientuak ipintzen zun?

- (A) Ez, itxiak, itxiak.

- (P) Itxiak.

- Soiñujoliak eta beak paatu behar?

- (A) Ez.

- (P) Soiñujotzalek...

- (A) Zeak, mutill-arduak, soiñujolek.

- Mutil-arduak.

- (A) Mutill-arduak. Baiño, apaizan hamaiketakua ta [...] izaten zittun; hamaiketakua ez, bazkaia, e!

- Bazkaia.

- (P) Bazkaia lehen.

- (A) Bazkaita etortzen zian hiru, hiru apaiz etortzen zian bazkaita.

- Gaiñea, hura porru-patatakin ez zan konformauko, joe!

- (A) Hairi zea eman behar! Ta, geo, ba, basarritan ez dakit ba ze pasa zan eo, haikin baiño bakarrik nahio, ta zean ematen hasi zian, Pionen ta. Bazkaia paatu hairi, ta han bazkaltzen [...] nik: hamen hamaiketakua in ta geo bazkaia iten zan, bazkaia iten zan han.

- Pionen bazkaltzea, ez dao gaizki!

- (A) Haiek ondo arreglatzen zian.

- (P) Ez, gonbirauk izaten zian, ba, basarritan.

- Bai, bai, bai, bai.

- (P) Eta geo apaizak eta etortzen bazian, ta haien, bakizu zuk zer izaten zan. Ordun 'e bakarrik eman eziñ haiei, ta...

- (A) Bai, apaizakin ordun oaingo alden bildur handiya eukitzen gendun, e!
- (P) Bai, ba.
- Bai, bai, bai, bai.
- (P) Oain apaizakin ta 're normalo hitz ein ta iten dia. Lehen bildurra bezela, o.
- Lehen apaiza autoridadia izango zan, autoridadia.
- (A) Hoixe, gu bildurra. Apaizakin zea bezela pasatzen giñan, txapelkin ibiltzen giñan gu, ta pasaan beti [...] hala in behar izaten, ta!, zea, apaizan paren txapela altxa. Hoixe ezautu gendun guk.
- Ordun, pexta gehienbat mutill-ardok, e, preparatzen zun. Baiña baserritan ta zea, hamaiketakua ta holako...
- (A) Bai, apaizan hamaiketakoa bakarrikan zeaik, pexta behintzat tabernan Hamaiketakoa iten zan eta mutill-ardua, ta geo pextako soiñujotzaillek eta mutill-ardoko zeak, kuadrillak paatzen zun, soiñuba paatu. Ta neskak urten eun bat izaten zan, San Sebastian...
- (P) Biarrena.
- (A) San Sebastian biarrena, o.
- A, neskak, e?
- (A) Zea, neska-pexta.
- Neska-pexta, e?
- (P) Nexka-pexta.
- Ta ze izaten zan hori, ba?
- (A) Ba, bestela bezelako pextak.
- (P) Hori izaten zan, ba, nexkak meza jarri aurrena, San Sebastian. Geo, Kandelaia eguna zan. Meza aurrena ateatzen gendun, geuk, neskak paatu. Eta geo, pexta 're, soinuba nexkak paatzen zuen. Nexka-pexta izaten zan. Ta gaiñontzen, mutillak, mutill-ardok...
- Soiñu-jotzaillek, ba...
- Zuek, zuek, zuek agintaia ordun?
- (P) Gu, ariño...
- Kalabaza earrak emango zenituen, ordun, e? Dantza eskatu ezkeo zuen egunean, e?
- (P) Bueno.
- (A) Ordun, hemen, dantzan ta kalabazak geo itxea abiatzen zanen. Geo itxea laundu in behar izaten zaie, ba, neskak bakarrik ez zian jun nahi izaten.
- Bai, neska-laguntzia ta ingo zan gaez.
- (A) Huaxe in behar ba geo, ta kalabazak orduan izaten zian.
- Urrutiaño jun, ta ordun...
- (A) E? Ez, abiatutakon, kalabaza ordun ematen zan.
- Aurretik hitz ein gabe?
- (A) E?
- Aurretik hitz ein gabe.
- (A) Beno, baltsian itten ez bazenun [...] hitz eiten zailla zan. Geo baltsa ta hasi zanen ta hitz eitten zan.
- Bestela ezin zan hitz ein?
- (A) Bestela zailla zan., dantzan zean, danok bueltan saltoka gabiltzala... Oain, hurrengo jaitako, gaur juten bazian, ta hurrengo jaitako igual zeatu hitz einda eon, ta. Geo tartian berriz beste bat hobia tokatzen bazan 'e, txarra izaten zan hua hurrengo jaitako hitz einda jartzia ta.
- Konpromisua.
- (A) Konpromisua. Holaxe ibiltzen giñan!

2.13. Mutil-ardoa nola antolatzen zen

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Uranga, Antonio; Uria Mancisidor, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-009/033
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:55:28. **Bukatu:** 00:57:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Mutil-ardoa nola antolatzen zen. Tabernaren ondoan gela bat ordaintzen zuten. Bi barrika ardo ekarri eta haiek edan arte festa egiten zuten. Mutil-ardoko gelan egiten zuten festa San Sebastian hurrenengoan. Neskak ere joaten ziren eta dantzan aritzen ziren.

Transkripzioa

- Mutill-ardoak nola funtzionatzen zun, nola organizatzen zan hori?
- (A) Hua 're kuartua, zan tabernan ondon [...] izaten zan. Cuarto hua paatu in behar, mutillak zeatzen cuarto hua.
- Taberna, tabernakua zan kuartua.
- (A) Ez, aldamenen... Beno, [...] taberna nun zan, Erromiñen eo, bai. Jenealen bai, e! Noizpaitt eongo zan baten taberna ta besten mutill-ardua, Isastin eon zan. Esan det, ba, haben besteko taberna eon zala, ta geo, haben 'e mutill-ardua, euki [...] bi hirutan, holaxe. Baiña taberna zean ondon, mutill-ardua izaten zun. Paatu, zea, urten honenbeste [...] zenbat paatzen zan.
- Ta ze iten zan, mutil-arduak ze iten zun?
- (A) Ba, bi barrika ardo ekarri. Geo, hiru zeatikan, Pionetikan jenealen. Juten giñan aurrena mutillak ardo-probatzea, sapatu baten, ardua aukeratzea. Ta, zeñ ona zan aukeratu, ta, geo, zeauta eoten giñan, giltzerok urten bi [...] txandak aldatuz, ta, hala, giltzero kargua eaman behar izaten zan, harei giltzero esaten zitzaion. Geo ardo probatzea danok jun, danok eo nahi zianak. Ta, Santa [...] bezpean, irikin jun, ta, barrikak ekarri.
- A, irikin, e?
- (A) Hoixe! Haikin ekartzen gendun. Ta, jarri barrika arduai, ta segi haik ean arte. Ta, jana gutxi izaten zan. Apai bat iten gendun, konttu iteko eunen, zea, apaia izaten zan, intxaurrek eta ogiya... Telefonua, ez al dao Mikel hor?...
- Ta ordun fuego, jo ta fuego ean arte.
- (A) Bai, haitxek pestak, ta aittonai ta 're o aittai ta 're ematen gendun ta haik 'e harrapatzen zittun [...] earrak, eta! Hua pexta, hua izaten zan, ardua ematen ta moxkorra...
- (P) Geo mutill-ardoko zea kuartuak izaten zun San Sebastian biarrenen, aparte baldin bazan behintzat, eguardin pexta han, zea baten, e, momentu baten eo hola jun pixkat eta danak, ardua eanez, ta han dantza saio bat in.
- Neskak 'e bai?
- (P) Bai. Neskak, honbre, pixkat!
- (A) Neskak 'e ardua eaten zuen, ordun pixkaka baiño...
- Apaiz hori ez al zan kejatzen? Bakarrik dantzakin?
- (A) Ez, arduakiñ ez.
- (P) Baltsiakin, baltsiakin bakarrik hua.
- (A) Baltsiakin, hura, harek. Harekin zun bildurra.

2.14. Inguruetako dolareak

- **Hizlaria(k):** Lazkano Roteta, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-010/015
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:40:47. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Non zeuden dolareak lehenago; asko ziren inguruetan. Bera mutikoa zela jarri zuen aitak dolarea txabolan. Normala izaten zen etxe gehienetan dolarea izatea. Auzoa zerbitzatzen zuten dolare hauek. Errotetan moduan, eguneko hainbeste kentzen zuten dolarezaleek.

Transkripzioa

- Hemen inguruan zenbat zeuden? Tolare asko zegoen hemen inguruan?
- Hemen tolariak asko garai batian. Antxuninian oandik 'e hor daola aittu det, ta Manuel Mariñian ta, Xuaxolanian ta, tolariak toki askotan. Hemen goiko basarri hortan 'e bazan. Gu aurreneko horrea hasi giñan sagarrakin ta, sagardua eitteko ta, goiko basarrira, baiña belaxe zeatu zun, moldatu zun gure aitta zanak zea, tolaria. Oaindikan tolaria hor dao, jasota dao, lehengua.
- Orduan bertan, e, hemen, e, zeure etxian?
- Bai geuk 'e jarri gendun tolaria o, bai, ni mutil koskorra nitzala aita zanak jarri zun tolaria. Dalako behia jarri zuneko hartan, txerriyak eon zianeko zea hartan, hau itxi in zunen, tolaria jarri zun.
- Txabolan?
- Bai. Tolaria, erropak garbitzeko alberga, ta berdurak garbitzeko askaa zian hor. Oain ez, oain danak kendu zian. Gauzak modernizatzen ai dia oain.
- Normala zan hori etxe bakoitzian, e, tolar bat izatia, ero?
- Ez, ez zan danetan izaten, baiña toki askotan bai. Basarri askotan, nola o halakua tolaria sagardua, itxeako, sagardua toki askotan iten zan. Bai, auzua zerbitzatzen, etxian ez bazan. Pantolingo tolarian 'e txanda eoten zan. Pantolingo tolarian 'e mahats denboa zanian, Pedro Alleme ta hoiek 'e ez zuen zeikan. Hoiek mahastiyak bazittuen ta ez zuen tolarreikan, ta Pantolinguanian [...] zittuen. Hor herri jirako zea hoiek, [...] zea hauek eta, Montxiyoko mahasti hoiek eta, danak horrea zeatzen zian. Ta hoiek errotak laka kentzen zun bezela, ba, ehuneko honenbesteko bat, zea, [...], nik ez dakit ze kondiziyo, baiña zeak, tolar zaliak zea kentzen ziyoen, laka bezela txakoliña, mustiyua.
- Mustiyua ero txakoliña?
- Mustiyua da txakoliña.
- Bai, baina...
- (Emaztea) Zikiña.
- Bai zea, tolairetik ertetzen zan zea hua, ta barrika bat eoten zan ta, Pantolingoko zeak iten zun mahastizale batena ta bestiena ta bestiena ta bestiena, jata bukoaia bete arte, danakin eitten zun. [...] eun batian betetzen, ya kenduz bete zula, batai ta bestiai ta, proportziyuan, nik ez dakit zenbat ontzi bete zittun o, zenbat iten zun ta hori, baiña. Hori bai, hori aittua dakat nik nola zeatzen zuen, ta nola kentzen ziyon orai hori, ta hori barrikan sartzen zula.

2.15. Urtetako festak

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-011/018
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromeriak: Laurkainera joaten ziren, eta, bestela, Urtetan bertan. San Sebastian eguna eta bigarrena ospatzen zituzten. Egun bat gurasoek ordaintzen zuten, hurrengo jaian neskak eta hurrengoan

mutilek. Baserrietako mandioan egiten zen festa. Zer baserritan izaten zen.

Transkripzioa

- Ta lehen aipatu du alabak festak eta iten ziala Urtetan ta: ibiltzen al ziñan zu hola, erromeitan ta hola umetan? O gaztetan?
- Ez, umetan ez, hasi ezkeo... hamar bat urtekiñ o hola, Laurgaiña ta hola jutun giñan. Huaxe, Laurgaiña ta. Gaiñuntzen, Urtetan bertan. Izaten zan ba, San Sebastian euna ta bigarrena. Ta hoi gurasuak zeatzen zuen, eleizako jun etorriyak eta zeatzen zituen. Ta geo, hurrengo jayen izaten zan nexkana. Nexkak paatzen zuen filarmonika eo zea, soiñu-jotzeko zea hori. Ta hurreneko jayian, mutillak paatzen zuen. Ohitura hoiek zian. Geo, etortzen zan Aiatikan emakume bat, ama bi alabakiñ o, solterak, geo ezkondu zian, baiña, haiek etortzen zian ta geo, behin basarri batekuak atenditzen ziyon soiñua jotzea etortzen zana, mandiyoa, basarritako mandiyuan iten zan pexta, zeatikan, San Sebastianetan gehienian egualdi txarra izaten zan ba, ta egualdi ona o ateri baldin bazan eo, plazan ibiltzen zian, ta geo illuntzian zeara, basarrita. Gure itxian ez zan behiñ 'e eoten. Gaiñeko Etxe ta Etxebeste, Erromin ta Elizamendi ta hoietan eiten zan festa ta Gurmendikuak iten zuen, ba, "bueno, hartu nahi baldin baezue, guk horrenbeste paatuko deu, ta batzui gustatu iten zitzaioen, perra batzuk irabazi iten zituen haiek plazan inguruko baserri haietan. Urteta behiñ 'e, Gurmendira behiñ 'e ez zian pesta itea etortzen, guk beti bestiai ematen giñoun.
- (A) Baiña, festa urte bakoitzian basarri batek in, basarri batian ingo zan?
- Bai.
- (A) Aldatzen, baiña...
- Bai, txandatuz.
- Bai, bai, bai. Gurmendikuak behintzat zeoze paatzen zuen, akordatzen naiz, hoge duro eo hola.
- Ta ze iten zenuen, sueltuan?
- E?
- Dantza sueltuan ingo zenuen?
- Bai, bai, bai.
- (A) Baiña leku ixtua zan ta sueltuan baiña urre.
- Bai, horrenbesteaiñoko jende pillaikan ez, baiña, zenbat jungo zan, ba? Konbidau 're jutun zian batzuk, eta... Geo, Zarauzko kaletikan 'e jutun zian batzuk eta...
- (A) Ni akordatzen naiz gure garaian Elizamendiñian danak pea-pea-pea inda.
- (A) Konbidaua 're asko izaten zan garai haietan basarritan, e? Konbidaua...
- Batzuek, batzuek, toki batzuetan, toki batzuetan gehio, baiña ez, horrenbesteaiñoko zean 'e... Gaiñeko Etxen ez zan konbidau asko izaten, ta Elizamendin 'e ez, ta Errominen 'e ez, ta...
- Ta nola zan asunto hau, konbidauan asuntua... Nola izaten zan...
- E?
- Nola izaten zan konbidauan asuntua?
- Konbidauana? Ba, Urtetan pesta zanen, gure etxea etortzen zian ta geo jutun giñan hara ba, etortzen zian haiek 'e beste egun bat jartzen zuen konbidauak iteko, jutun giñan hara 're konbidau. Baiña hola, jende askoko zeaikan...
- (A) Lehengusu propiyuak o izeba-osabak o zein?
- Bai, hola.
- Familiya?

- Bai. En kanbio, segun. Gure besten bizi zan, izaten zian ba, amistade haundiya zuen kaperuanekuak, Kaperotxipi, Flores Kaperotxipi dia hoiek. Eta batzutan, Garro bazan basura biltzen ibiltzen zana, txintxarriya jarrita behi batekiñ, basurak biltzen zittuna, ta "ze, San Sebastianak dia ta bihar ta zea ta, konbidatzia nahi dezue? ta, "bai", ta [...], hola asko etortzen zan. Geo Seberinonekuak 'e berriz, Mazaneko zea hori, denda haundi hori, horkuakiñ 'e amistadia haundiya zuen. Denda hortatikan jenerua ta erosi ta iten zituen ta, geo San Sebastianetan igual joten zian konbidau hara. Baiña esan deana, bakoitzak hola kantidade haundiya ez, dozena erdi bat o, o gutxiyo igual, hola.

2.16. Zarauzko Euskal Jaia

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-011/019
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Zarauzko Euskal Jaiak. Flores Kaperotxipi pintoreak esan zion berari okurritu zitzaiola Euskal Jaia antolatzea, atzerritarrek luzaroagoan erakartzeko. San Pelaioetik kalejira egiten zuten. Gogoratzen da noiz izan zen lehenengo Euskal Jaia. Nortzuk antolatzen zuten.

Transkripzioa

- Ta Zarauzko "Fiesta Vasca" lehen aipatu dezu ta, ezautu al zenun gaztetan, Zarauzko Euskal Jaiak? Etortzen al ziñan?

- O, ordurako zenbat urte giñuzen? Euskal Jaiak. Nei esan zian Flores Kaperotxiki pintoriak beai okurritu zitzaiola. Zeatikan, beraneantiak etortzen ziala, ta behin setienbrea ezkeo alde in, alde iñ iten zuela, eta pixkat bertako zea iteko, "Fiesta Vasca" zeatu, montatu ta in behar zuela ta, beak atea hitza, ta zeatu in zula, produzitu in zula. Beraneantiak 'e gozatu iten ziela zea horrekin, jantzi horik eta, zean ta. Geo, San Pelaiotikan kalea, hola, besotikan danak helduta, batek lepotik, eta bestiak gerritik igual ta.

- (L) Pasakallen.

- Bai. Salto ta zea, brinko zeaiño, botikako exkiñaiño, ta hor bukatu.

- (A) Baiña, Flores Kaperotxipi zure edadekua zan, ez?

- E?

- (A) Flores Kaperotxipi zure edadekua zala?

- Nere edadia baiño zaharro zan hua!

- (A) Zenbat?

- Flores? Zein zea? Jesus, Maria ta Jose! Gure aitan edadia hurreo!

- (A) Bueno, kontua da, esan nahi det, haren idea baldin bazan, zu umia ziñanian Euskal Jairik ez zan izango.

- Ez, ez, ez, ez. Ni akordatzen naiz noiz izan zan.

- (A) Lehenengua?

- Bai. Danak zian, ba, Arrutitarrak eta hoiek zian ya oso zean, aurrian ta, Flores Kaperotxipi hori ta haren lagunak, hoiek izango zitun, Arrutitarrak. Aita gallegua omen zan ta, orduan iya euskeraz 'e ez zuen ondo iten, ta

geo hobeto iten zun.

- (L) Udaa luzatzeatik ordun in zun hori.

- E?

- (L) Udara luzatzeagatik ipini zuela hori.

- Bai, udaa luzatzeatik. Baiño beak ateatako hitza zala esaten zun, beak ateatako hitza. Zeatikan, San Pelaiotharrak eta zeak eta, berdura ta zea saldu, ta beraneantiak hemen euki ezkeo, ba konsumitu iten zuela.

2.17. Oporretako entretenimenduak

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/018
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:29:04. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Oporrak
 - Aisia » Kultura » Zinema
 - Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Eskolako egutegia. Oporrak uztailaren hamabostetik irailaren 15era izaten zituzten. Udan hondartzara, dantzara eta zinera joaten zen. Pelikulak ze kolore zuen begiratu behar izaten zen. Kolore bakoitzaren esanahia.

Transkripzioa

- Ze egutegi, ze kalendaio eukitzen zenuten eskolan, gogoatzen al dezu?

Oporrak eta noiz izaten zan, ta...

- Ez naiz gooratzen, ba, oporrak noiz eukitzen genduzen... ba, "julio, del quince de julio al quince de setiembre".

- Ta ze iten zenuten oporretan?

- Ni, Zarautzen nola bizi nitzan, hondartzan. Ni ondo bizi nitzan. Arraldian jaiotakua naiz ni. Zuk ba al dakizu arraldia zein dan? Ba, hortxe. Hor inguruan jaiua nitzan, ta guk egun guztiyan arraldian, gu itsasuan. Ta, bestela, plaza dantza noski, hori bai, e! Ta zinea 're bai. Baiño zea beiratu behar izaten gendun, ze koloretako pelikula zan, o roxa, o urdiña, o horiya. Bestela ezin zan jun.

- Ze esan nahi zun, kolore bakoitzak ze esan nahi zun?

- Ba, adibidez, txuriya zan "pa todos los públicos". Geo zetorren, ez dakit ba, urdiñ argiya o roxa, hoi izango zan, ba, hamalau urte arte. Geo bestia zan hemezortzi urte arte, ta geo, "prohibido a todos los públicos". Ta hori izaten zan politena, verde o rojo, hoiek izaten zian txarrenak.

2.18. 12-13 urterekin hasten ziren dantzan

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/024
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:37:38. **Bukatu:** 00:38:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** 12-13 urterekin hasten ziren plazan dantzan. Erlojua atzeratzen zuten, bederatzioetarako etxean egon behar zuten bestela eta.

Transkripzioa

- Ordun mutilletan, hamabi hamahiru urtekin goiz, ez, garai hartako?
 - Bai, dantzan plazan ta, bai. Etxetik erten baiño lehenon gaiñea, ordulaia hartu, ta ordu laurden bat o ordu erdi bat atzeatu, bestela betzitako itxea etorri behar zan, ta, zea onenian ta, zea, gure pasiatxua Getai birian in gabe nola jungo giñan, ba? Ta geo ama kontuatzen ez bazan, bale, baiño kontuatu baldin bazan, ba, bronka. [...], gaztetako kontuak. Ene! Kontatuko gentuzke gauza gehio, baiño horrela, hotzian, gutxi, ez zea gogoratzen.

2.19. Neska eta mutilen arteko aldea kiroletan

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/030
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:45:10. **Bukatu:** 00:46:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Mutilak kukañan ibiltzen ziren eta neskak begira. Igerira ere neskak gutxiago joaten ziren moilara.

Transkripzioa

- Ta orduan 'e hondartzan ta, mutillak kukañan-ta ibiltzen zian eta abar, ta neskak ba al zuten hola...
 - Begira, ez, gu beira, gu beira kukañetan... Ta hoixe gustoa, gaiñea, beira eoten giñan. Beti eukitzen gendun faboriton bat, eta... zeinek harrapatzen dun ta... Gu haiei beira, kukaña dila ta. Geo, igerira neskak gutxi juten zian zeara, moilla, mutillak gehio. Neskak maritxiko hara jun ezkeo, maritxiko. Ta ez zeon oso ondo ikusiya. Gu hondartzan, baiñatzeko ta hori, enteitzen?
 - Baiña kixkilleta bai.
 - Bai, han bai, kixkillak harrapatzen, ta, zapaburuak eta. Nik ez dakit ze... murliyuak eta lapak eta muskuluak eta [...] harrapatzen. Bueno, izugarrizko arrantza. Oaingo aldian asko zeon orduan, e! Uain ez dao ezer 'e, orduan asko zeon bai.

2.20. Emakumerik ez zen sartzen tabernetan

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/038
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:58:12. **Bukatu:** 00:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

- **Laburpena:** Ezkondu arte ez zen inoiz tabernan sartu. Ez zegoen ondo ikusita, gainera.

Transkripzioa

-Taberna giruan-eta noiz hasi ziñaten emakume bezela sartzen tabernetan-eta?

-Ez, ez. Ni ezkondu arte ez.

-Ez, e?

-Ez. Ezkondu arte ez. Ni ezkondu ta geo bai. Ohitura haundiya gendun mezeta jun ta mezetatikan erten ta aperitibua hartzia.

-Zenbat urtekin hori?

-Ba ezkondu nitzan hogeita lauekin.

-Hogeita lau urte arte taberna zapaldu're ez.

-Bueno... ez... Zergaitikan zerbait -o limonadan bat o- hartu bagenun, hori izaten zan gehienetan, ba, Iñurritzan, San Pelaiotan ta, horrela. Puestuak-eta nola jartzen zituen... Hola. Bestela taberneta... ez. Noiz o noiz, nik nobiyua... nobiyotan, noiz o noiz igual, limonadan bat hartzea o...

Korderitorea, gure etxe aurrian nakan ta. Hola igual bai e, baiño ez, bestela ez, ez, ez, ez. Ez zeon ondo ikusiya, gaiñea... Ez zeon ondo ikusiya, ez, ez. Gero behin ezkondu ezkeo, bai. Bai, orduan, gaiñea, talde haundiya giñan ta taldeka ibiltzen giñan ta... bai. Ta ni zarauztarrakin ezkondu nitzan. Oseake ya lehenotik ezautzen giñan. Zarauztarra, gurasuak'e zarauztarrak ta aitona ta amona-ta re zarauztarrak. Oseake...

2.21. Mendirako zaletasuna izan du gaztetatik. Txangoak

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe

- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando

- **Erref:** ZAR-017/041

- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:02:15. **Bukatu:** 01:04:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

- **Laburpena:** Gaztetan mendira joaten ziren 12-13 urterekin hasita. Txokolatea egiten zuten mendian. Montetxiora joan zireneko pasadizo bat kontatzen du. Ezkondu eta gero senarrarekin Club Deportbotik ere joaten ziren.

Transkripzioa

- Mendira ta juten ziñaten gaztetan ta?

- Bai, bai, bai, txokolatia itea, "a hacer chocolatadas".

- Ze urtetan hasita edo?

- Ez dakit, ba, hamahiru, hamalau, hamabi. Bai.

- Nora?

- Ba, kanposanto aldea, Salbide aldea, Salbiden han zelai earrak zaben lehen. Oain ez daude. Iñurritza aldea, oain ez dao zelairik, baiño lehen izugarrizko zelai earrak zauden. Eta, beste behin gooratzan naiz Montetxio aldea jun gea, ta in gendun sua piztu ta txokolatia in ta, txokolatia in ta geo, ba, hantxe giñan berriketan, ta, potia "leche condensadakin" bota gendun, eta "zer ziok, zer dabil hor?", ta, "auskalo, arratoien bat, eo". Ze

ote dabillen ta, hantxe, zean, erantza batzuek, eta arantza tartian, ta zea... subia! "¡Anda carajo!", dana laga daon bezela, ta saltaka igesi gendun, subia. Ezerrek ez dit nei nazkik ematen, e, xaguak eta arratoiak eta, danak zoragarriyak dia, baiño subiak, ama... subia! Ta geo esan ziguen, este, esnia ta gauza gozua gustatzen zaiola, eta gu potia kondensadana txokolatia iteko, "leche condensada" eaman gendun ba, ta hua bota gendun han tarte, ta haren zeara ikusten danez, subia ta hola [...] beltz-beltz-beltz bat. Hua bildurra! Bai, txokolatia itea ta mendira bai, gustatzen zitzaigun.

2.22. Batzokiko giroa: antzerkiak, dantzariak..

- **Hizlaria(k):** Loiola Antzuola, Agate; Loiola Antzuola, Ignacia; Loiola Antzuola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-019/017
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:30:07. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena:** Batzokiko giroa. Bakoitzak kargu desberdin bat izaten zuen; anaiak antzerkiak antolatzen zituen. Emakumeek Emakume Abertzaleen Batzan ikasten zuten. Nolako euskal dantzak egiten zituzten. Hilandera edo pospolin jantzia.

Transkripzioa

- Ta, batzokiko girua nola gogoratzen dezu, gerra aurreko girua batzokikua?
- R.: Batzokikua? Gizonana? Batzokiya zana?
- Bai.
- R.: Han eoten zan, bueno, orduko [...] agintariyak zazkaen. Batek iten zun bat, bestiak bestia. Nere anaiak jeneralian iten zun antzerkiya preparatu, zeak hartu, notak: zeñek ze in behar zun. Bea, bea, bea 're oso ona zan antzerkiya iten, oso ona. Eta han juten zian zea itea, pruebak itea, ta zeak itea ta. Urtiak hola, gerra hasi arte.
- Ta ze ekintza, ze ekintza egoten zan ordun? Ze, ze aukera egoten zan, e, batzokiyan? Dantza 're bai esan dezu lehen?
- R.: Baita, baita. Baiña hori izaten zan batzokiyan ez, Emakume... zean.
- Batza.
- A.: Abertzaleen Baratz.
- R.: Han, han ikasten gendun dantza ta baita antzerkiyak 'e. Porke han, han genduzkan andereñuak eta haiek erakusten ziguen. Ahora, nik beharko ikasi, han, han, nere anaia, nere lehengusua, danak atzetik nazkan beti, ba! "Aizan, ikasi zan ondo hori, e!", "Ikasi detela!". Ikasten nitun nik Aita Guria bezela.
- A.: Ta asmatuta 're bai juten zanian hara. Asmatuta nola zijuan.
- Ta ze dantza egiten zenuten? Euskal dantza, noski.
- R.: Bai, euskal dantza. Bai andereñuan, eo andereñuan ni berriz...
- I.: Hilandera.
- R.: ...hilandera zeakin, gona gorriya, ribete berdía, blusa zuriya, eta geo zea bat...
- A.: Txalekua.

- R.: Txaleko berdía.
 - I.: Korpiñua...
 - A.: Kurpiñua beltza.
 - R.: Kurpiñua beltza ez... berdía.
 - A.: Bai, beltza. Alkandora zuriyakin.
 - R.: Berdía!
 - A.: Berdía al zan? Berdía?
 - R.: Karo, berdía, "a juego con lo de la barra".
 - A.: Bai, bai, bai.
 - Eta ze, ze, ze dantza klase?
 - R.: Hoi, zea ba, poxpoliñak iten duena, zea, arkuana, zintana. Mutillak izaten zian guekin, beste saiua, ta haiek ezpata-dantza iten zuen, makil-dantza.
 - A.: Bai, horrek segitzen du uan 'e, e!
 - R.: Bai.
 - I.: Bai, uaiñ hartu du indarra horrek. Puskatian gabe eon gea, gabe eon gea.
 - A.: Klaro, gerra denboran ta bukatu in zian danak.
 - Gero frankismuakin, ta...
 - R. I. A.: Bai, bai, bai.
 - Orduan mutillak ezautzeko ta parada earra, aukera.
 - R.: Mutillak! [...] dana mutillak zian! Fubolian ibiltzen giñan earki.
 - A, bai, e?
 - R.: Uuu, bueno!

2.23. Auzokoen arteko erromeriak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Manterola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-021/020
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:31:45. **Bukatu**: 00:32:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Nekazabal baserriko bi semek soinua jotzen zuten eta gaztetan bertan elkartzen ziren erromeria egiteko.

Transkripzioa

- Bien, ta, dibertsiyua, ze dibertsiyo eukitzan zenuten gaztetan?
- Dibertsiyua, esan dizutena, barriyotako zea hoiek, inguruko hoiek, eta...
- Igandetan...
- Geo, geo, ba, zea, Nekazabal hortan, han bazian bi anai, zeoze lardasten zien eskuko soiñuakin. Eta... beno bat dexente... Eta hantxe juntatzen giñan auzuak eta iten gendun erromeia. Baiña tabernak eta, zurrutik eta hola ez, e! Dantzan in ta itxea.
- (A) Nola zun izena harek? Nola zun izena?
- Zeiñek? Nekazabal.
- (A) Baiña, jotzen, soiñu-jotzen zunak?
- Rufino.
- A, Rufino.
- Patxi. Bai, anai bat Patxi zan ta bestia, solterua, Rufino. Haiek jotzen ziguen, ta guetzako danak baliyo zun, ba.

2.24. Bertsopaperak 10 zentimoan

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Manterola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-021/022
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Gizon batek 10 zentimoan saltzen zituen bertsopaperak. Aitak erosi eta amari kantarazten zizkion. Nori ateratzen zitzaizkion kantan.

Transkripzioa

- Gure aita, gure aita difuntuak, lehen esan dizutena, Antzuola hori, etortzen zan honea, ta Antonianako eskola bakizu nun daon?
- Bai.
- Hor, meza ondoreneako etortzen zan ta han jartzen zan kantoian, meza bukatzen zanen, hamarna xentimon hantxen saltzen zitun bertsopapelak. Ta gure aita ez zekin ez letzen ta ez eskribitzen. Eta, baiña eamaten zittun. Amak bazekin, ta gaiña oso earki kantatzen zun, graziya zun kantatzeko. Amai kantatu arazitzen zizkiyon.
- (A) Eta zuk ikasi ingo ziñun ordun?
- Bai, ikasi... Ahaztu zaizkit, e! Ikasi asko baiña ahaztu! Bueno!
- (A) Txirritanak eta.
- Bai.
- (A) Danak.
- Ez dezu gogoratzen ordun bate.
- (A) Momentu hontan [...].
- Zeoze... Zeanak, baiña oain ez zaizkit akordatuko, ezta...
- (A) Zeiñenak, Txirritanak?
- Txirritanak [...] banezkin, banezkin abesten. Batzuk banezkiñan. Danai kantak ateatzen zizkiyoen ordun: [...] ziala, kantak. Neska-mutillak hasarratu ziala, kantak. Danai, danai ateatzen zizkiyoen. Holantxe. Ikasten nittun ta kantatu 're bai, kantatzen 'e gogatsu nitzan, ez nitzan oso egokiya, baiña kantatu bai.

2.25. Lehenagoko festa-giroa eta jaietako ekintzak

- **Hizlaria(k):** Mutiozabal Begiristain, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-022/011
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:15:21. **Bukatu:** 00:18:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 - Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Bera mutikoa zela bizikleta lasterketak egiten ziren kale Nagusian. Ama Birjina egunean Munoan lapiko-apurtzeak egiten ziren. Lehenagoko San Pelaioak nolakoak ziren. Soinujoleak hostoz adornatutako karroan jotzen zuen.

Transkripzioa

- Ta orduan, zirkulotik hasi ziñan, piska bat hango, zeretikan...
- Bai, handikan, buruhaundiyakin ta.
- Ordun, e, hamar urtekin esan dezu, hasi ziñala.
- Bai, bai.
- Ta ordun ze festa izaten zan ordun, zuk hamar urte zenula?
- Ordun izaten zian bizikleta karrerak eta. Bizikletak eta karrerak iten zituen, buruhaundiyak nola uan? Haiek buruan jarri ta ni akordatzan naiz, bat bizi da, ta bea justu-justu akordatzan da. [...] akordatzan? [...] Urbietan. Hori da Carlos ta, frailliak eta, hoien osaba da hori. Ama ama zanan anaia. Ta hoiek eta, ta, hil zian bestiak, Pantolingokua ta, ni akordatzan naiz [...] ta. Geo, zean, e, Ama Birjiña eguna etortzen zan ta Ama Birjiña egunian 'e Munuan jartzen zuen, postiak zian ba, arbolezko postiak zian hor, ta

batetik bestea sokakin jarri, lurrezko ontziyak, lurrezko, e! Lurrezko ontziyak jarri, han konejuak sartzen zituen, ta oillaskuak. Ta, zuri begiya itxi ta makillakin, ta hausten dunak beatzako. Ta geo premiyuan ematen zuen hola, gehiena hausten zituna ta. Beno [...]! Oso... festa politak iten zian lehen, bai. Uan, uan dana, San Pelaiotan 'e... Lehen goizian etortzen zian zazpirak eta laurdena Ramon Inazion osaba ta... Barkatu!

- Bai, trankil, trankil.

- Lasai, lasai.

- Ez dago arazorik.

- Zea... akaso esango zizun, bano, hoiek Gaztatxurinekuak zian hoi en ama ta, San Pelaion, gasolinera bano lehen, ze, kanal aldea guazela, basarri zahar bat.

- Bai, bai.

- Ta han geo inbitauak eta etortzen zian, San Pelaiotan oso festa ze iten zan, ba. Ta hoiek etortzen zian barriyoko, han barriyoko... Oan 'e ekartzen due, soñuzalia ekartzen zuen, ta bertsolaiak eta. Ta iten zuen, ze, [...] Eibarren ze eon balin bazea... Lehen San Juanetan bakizu, han 'e ohitura haundiya, ta hemen 'e Serrasenian ta arbolak hostruak berdiak, haiekin jarri ze karruai, soñua jarri han, eta bi hiru etortzen zian panelo gorriyakin. Zuk akaso ezautu 're ingo zenun, Etxaniz aguazilla ezautu al zenun? Ba, hura, [...] o, ez dakit nola izena... hura 're bai. Lehen, lehen fiestak lehen izaten zian, San Pelaiuak lehen izaten zian. Geo, San Pelaio biarrena 're berriz, karrera, karrera izaten zan. [...] o Lasartekuak eta, izeneko, karrera hemen fama haundiya zun.

2.26. Santa Ageda eskeko giroa

- **Hizlaria(k)**: Mutiozabal Begiristain, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-022/012
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:18:08. **Bukatu**: 00:20:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena**: Santa Ageda egunean zazpiak aldean atera eta tabernaz taberna ibiltzen ziren. Nortzuk ibiltzen ziren kuadrillan, Baserri tartean zela. Elgeta soinujoale ere ibiltzen zen. Koplak abesten ziren makilekin konpasa eramanez.

Transkripzioa

- Igual errepaso bat ingo deu, urte, urte, urte hasieratikan, kalendaiua hartu eta ze festa eoten zan Zarautzen, e, zure gazte, gazte, hamar, hamar, mutiko garaian.

- Ba, aurrena...

- Santa Agedak iten al zian?

- E?

- Santa Agedak.

- Bai, bai, onak gaiñea, e! Basarri-ta.

- Ta, nola, nola izaten zan, aber. Santa Agedatan ze iten zan zure, zure mutiko garaian?

- Gure mutiko garaian iten zan, ba, arratsaldian ateatzen zian, ba, zazpi t 'erdik zortzik aldian, ta hamengo taberna danak pasa. Lehen tabernan

uango aldian dana beteta eoten zan, ba. Ta orduan, ba, Basarri bertsolaia, Txokoko, uan Bar Txoko itxiya do, Alejandro, ta holako kuadrillak. Badabe batzuk, beno, batzuk hilda 're badabe, oan. Zuk gaiñez ezautu, bestia ezautuko dezu Eugenio Elola, eletrizista esan deu, ba? Hamen, Elektrizista Santa Maiña, hoiek eta. Hoiek santa eskian... Hemen santa eskiak oso zea zun, fama haundiya. Geo zuk ezautu ez, Elgetako bat zan, geo, azkenian nahiko zea hil zan hura, bueno, Elgetakuak, Miako jendiakin, Miako neskakin ta. Hamen zea...

- Elgeta trikitilaia?

- Elgeta trikitilariya. Harek zakin purua erretzen! Honeaiño erretzen zun purua, [...]: izugarriya! Ezautzen, ezautzen zendun, e? Aitu! Soñuzale ona, bai! Ta zean 'e santa esken nik hura ezautu nun mutil koskortan.

- Ta Miako neskakin ibiltzen zan?

- Hura Miakua, [...] zeakin, Ziotzako neskakin ta. Aitu! Kuadrilla, ekipua ibiltzen zan ba, ekipua. Gizasemia gehio ibiltzen zan bano, hura, hango Miako jendiakin ibiltzen zan hura. Ni, ni akordatzen naiz, gu mutilkoskorra, ta. Bai, esan [...] bai, lehenosanta eskia oso zea zan, oso...

- Ta, koplak iten zan, koplak? Bertso ta koplak.

- Bai, geo etxeandriai, [...] Txokoko andriai o gizonai, beai botatzen zion ta. Batek bertsua ta geo, makillakin, oso earra zeatzen zan hori. Uain 'e iten due, baino lehenos, oso polita izaten zan.

- Ta kantu bereziya bazeon, Zarauzko kantu bereziikan bazeon, edo?

- A, hori ez nizuke esango. Ez, horta ez nizun...

2.27. San Pelaioetako giroa; musika eta dantza.

- **Hizlaria(k):** Mutiozabal Begiristain, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-022/017
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:30:21. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 - Aisia » Kultura » Musika
 - Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** San Pelaioak. Kanpotik etortzen ziren neskei "bugatis" deitzen zitzairen. Helduan dantza egiten zuten. Jaien hasieran buru-haundi eta erraldoiak egoten ziren eta gauean bandak jotzen zuen. Txistulariak eta Lizarrako dultzaineroak ere etortzen ziren. Hauen inguruko gertakizuna.

Transkripzioa

- Bueno, eta, e, San, San Juanak, e, ordun, San, San, e, San...

- [...] hortan iten zan.

- ... iten zan.

- Geo hortik jun zian horrea.

- Bai, bai. Eta gero, San Juanak para ta gero San Pelaiuak. Nola izaten zian San Pelaiuak zure mutiko garaian?

- Jo! Gure mutilla garaian San Pelaiuak [...] iten zian earrak! Lehenos, gure zean, gazte denboan, uan iten dun bezela, afaita ta juten da jendia, orduan ez zan holako zeakin.

- Jaietan ze eoten zan, ze programa eoten zan, eo ze iten zan, eo? Ala ezer

ez da festa?

- Bai, bai, bai. Jaitan musika izaten zan hamen. Ta uda partian iten zan, ez dakit, astin bitan jartzen zuen, osteunian ta zapatun uste det jartzen zuela. Neskamiak kanpotik etortzen zianak, hoiei deitzen zitzaioen "bugatis", bugatiyak deitzen ziyoen. Neskamian tokiyan bugatiyak orduan. Ta, dantzan, ordun iten zan dantzan, heldua, e! Heldua ta, da-da, dantzan in, ta, pu! Ordu, ordu, orduan iten zan. Ta...

- Baiña San Pelaiuak nola hasten zian? Bisperan nola hasten zian? Ze, ze eoten zan hasteko, festa hasteko?

- [...] zea, fiesta hasteko? Aurrenengo gauza, kabezuruak eta, ta jigantiak, hoiek izaten dia. Uan bezela, uan danborradak eta, holakoik ez zeon lehen.

- Ta, e...

- Kabezuruak eta [...] hasi ta geo gabian, gabian zea jartzen zuen, musika jartzen zuen. Bandak jotzen zun, o bestela kanpotik ekartzen zuen. Bano gutxi kanpotik, herri, herriko bandak lan asko iten zun lehen.

- Ta zu, orduan ya kabezudokin ta ibiltzen ziñan?

- Ni kabezuruakin, bai, bai, bai. Nik lehen, lehen [...] zeak, agozillak eta ezautzen det, bai, ba, hamar urtetikan hasi nitzan, ta. Geo honea zian, zu ezautu bai, Eibarren eon balin bazea zu, [...], duzineruak, hiru anai, Estellakuak etortzen zian Eibarrea, illoba batekin, illobak tanborra jotzen zun. Ta hiru, hiru anaiak jotzen zuen duzina. Eta etortzen zian handikan Zarautza. Ta zuk ezautuko zenun Zarautzan ayuntamientuan urte askuan eon zan Juanito Zuzuarregi? Horrek paatzen zun. Ta gertatu zan handik etorri iten zian ta, egunian haiek etortzen zian. Ibiltzen giñan txistuakin bezperan, bano, egunian, bi egunetan ibiltzen giñan, uan bezela soiñuakin ta ez, zeakin, duzinakin, zea, duzineruakin. Guk gaiteros deitzen diyou hoiei, Estellakuak. Ta hoiek. Ta hoiek etortzen zian Eibartik Zarautza. Ta geo Zarautztikan juten zian Zumaira, San Pedruak. Ta hola ibiltzen zian. Bano urte bat gertatu zan, jai hau, ta han ze in diyoe? Koño! Gelditu zeazte zean, ta gelditu han, ta guri ezer 'e abixatu ez. Ta gu hamen zai. Nik mutillak eta danak jarrita, buruhaundik eta, nik eamaten nun, ba, martxa. Danak zai, zai, zai, zai, zai. Zuzuarregiri esan niyon, Juanitoi, hau ta hau, "geo ba al dakizu ze pasatzen dan? Ayuntamientuan inorrek ez du iten festetan lanikan, ta..." Lehen bezela, uan bezela ez zeon lehen inspekziyuak eta, bazian bano, jaitan zanen diferente. Nola hala lokalizatu zuen, si... hau ta hori esan ziyoela ta, bakizu, haiekin ondo gelditzeatik, bano hori ez zala iten. Ta, azkenian txistulaiaquin ta abar, ta nola hala ibili giñan ta. Ikusten dezu gauza nola izaten dan, geo laga in ziyoen haiei. Haiek harrezkeo ez zian etorri.

2.28. San Pelaioetako giroa; garaien arteko konparaketa

- **Hizlaria(k):** Mutiozabal Begiristain, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-022/026
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:51:34. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 - Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Lehengo San Pelaioen eta oraingoan arteko aldea. Oilasko-biltzea egiten zen goizaldera. Herri-kirol erakustaldiak ere egiten ziren. Familia guztiek eramaten zituzten erroskilak. Dantza asko egiten zen.

Transkripzioa

- Jaietan, herri-kirolak eta izaten al zian? Herri-kirolak eta...
- Bai, bai, bai...
- Ze herri-kirol iten zan?
- Oain bezela, sokatirak eta... Sokatirakin ez naiz hola akordatzen, bano aizkora apustua ta... Geo hoiek zian ohitura handiya, zea, e, oillasko biltzen-ta ibiltzen zian goizaldera. Ta geo hoiek... bertsolaiyak-eta, bertsolaiyak-eta orduan nekez... bano oain jarri ditue /jarritue/ bertsolaiyak-eta, oain ekartzen ditue.
- Herri-kirol apustuak-eta iten zian lehen?
- Bai.
- Ze, San Pelaiotan?
- A, apustuak eta, ez apustuak ez...
- Exibiziyuak.
- Exibiziyua, hori da, esibiziyuak orokorren, nik hala akordatzen naiz...
- Ta nun ite zan hori?
- Hori? Iñurritzán.
- Iñurritzán.
- Iñurritzán ite zan hori.
- Ta herriko jendia juten zan? Herriko...?
- Herriko jendia hara juten zan. Esan dezu ta... in zan San Pelaiotan, bi egunetan, famili bat [egongo] erroskillak ekartzen zituna. Ta ekartzen ez zunak... han jende asko ta, ta... Serrasetik hartu, Serrasetian bere sokakin txintxilika. Geo oain, azken sasoi hontan, ikusi izan ditut nik, makil bat sartu hola, ta makillakin zeak eta, [...]... Leheno dana sokakin zan. [Lista] txiki bat eukitzen zun ta... Esaten dizut, ba, lehen San Pelaiuak... San Pelaiuak, lehen iten zian San Pelaiuak. Ta dantzán 'e ordun iten zun jendiak gehio. Uan dantza gutxi iten du jendiak.
- Ta jendia nola dibertitzen zan? Dantza inda ta...
- Dantza in ta... aitu, bata ta bestiai txikitua ta... Oain bezain... Euskal festak-eta etorri ta, oan bezela? kioskuan onduan botillak-eta lagata. Holako kontuik ez zan lehen!

2.29. Buruhaundien inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Mutiozabal Begiristain, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-022/032
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Euskal Jaietan jendea bokadiloekin egunpasa joaten zen San Pelaiora. Ama Birjinaren jaietan bizikleta-lasterketak egiten ziren buru-haundiekin. Buru-haundiak egurrezkoak izaten ziren eta humedadearekin hondatu egiten ziren.

Transkripzioa

- Eta garai hartan, garai hartan esan dezu, e, e, euskal jaietan ta animaziyo haundiya...
- Bai, haundiya, haundiya, beti izan du honek.
- Herri, herri kirolak eongo zan ordun, baita?

- Bai, bai, bai, bai, bai.
 - San Pelaion baita?
 - Bai, San Pelaion 'e bai.
 - San Pelaion.
 - Beno, San Pelaion izaten zan, zea, hango, fama, fama haundiya zan, e, bokailluakin ta junta, ta han, tabernak eta zea, han, ta, han, ta. Bestela kirolak eta, aizkol-apostuk eta [orduik] ez zan izaten. Iten zan aizkol-apustua ta hoiek San Pelaio eunian.
 - A, San Pelaio egunian.
 - Entenditzen?
 - Bai.
 - Ta soka tirakin ez naiz... Geo uste det hasi ziala sokatirakin ta.
 - Baiña lehen aipatu dezu bizikleta-karrera izaten zala...
 - Bai, bizikleta karrera, bai.
 - Zea, buruhaundi...
 - Buruhandiyakin 'e bai.
 - Eta hori noiz izaten zan?
 - Hori Ama Birjiñetan.
 - Ama Birjiñetan.
 - Ama Birjiñetan.
 - Ta ze karrera izaten zan? Nundik noakoa izaten zan?
 - Zirkulutikan Kale Nagusira, zeatikan, Parrokitikan buelta. Parrokitikan buelta iten zan, ta geo frailleta iyo berriz 'e, ta meta frailletako horta izaten zan ta. Oan, beno, hori asko izanda ezta akordatu 're ez dia ingo! Hor ibiltzen dana, Urbietan esan dizutena, Meltxorren zea, ez da akordatzen. Ta ni akordatzen naiz earki. Bai, bai. Lehen zian gaiña jigantiak egurrezkuak, ta geo, izorratu in zian. Ta geo hortikan plaza berdura. Uan komunak eta nola dabe? Hor. Ta hor eukitzen zuen bonberuak 'e, lehen bakizu, hiru o lau bonbero, ta mangak, eta beti humeraria. Ta jigantiak [...], jigantiak esaten dizut bat, zortzi bat urte pasatzen baldin bazuen humerariakin ta izorratu iten zian.
 - Ta, ze premiyo ematen zuen ordun, hola, bizikleta karrera irabazi ezkeo?
 - A! Hua! Bi duro o hiru duro o. Ta aitu, ta, orduan diru haundiya zan, ta jendia ta, esaten dizut, ba, zea, Ama Birjiña eunian 'e, zean 'e jarri lapikuakin ta, begiya itxi, ta oso polita izaten zan. Ta jende asko eoten zan, e! Ta zuk makil bat hartzen zenun, ta hausi in behar izaten zenun. Ta askoek hausi ezin, ta hura izaten zan polita ikusteko, jendiak parre iteko ta. Lo que pasa que, zuk esan, seituan hausten baldin bazuen, bano, han hausi ezinikan ta, zea ta, oso polita izaten zan hori, bai.

2.30. Pilota; Kontxako estropadetan arraunean

- **Hizlaria(k)**: Mutiozabal Begiristain, Bonifazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-023/008
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:14:12. **Bukatu**: 00:16:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kirola » Pilota
 Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- **Laburpena**: Pilotan aritzen ziren eskuz Zinema frontoian soldaduskara joan aurretik. Ondoren, "media pala"-n aritzen ziren, modan jarri zen

eta. Arraunean aritzen zen eta Kontxako estropadetan ibili zen lau urtez.

Transkripzioa

- Ta, dibertsiyoik ez al zeon? Mutikotan dibertitzeko denboaik ez, astiik ez?
- Dibertitu? Bai. Dibertitzeko zea bazeon. Pelotan ordun ibiltzen giñan asko, pelotan. Launbata etorri ta jaia, pelota jo ta hausu. Fronton zineman ibiltzen giñan eskuz soldauska jun baiño lehen, eskuz. Ta geo, boleta juten giñan eguardiyan jaitan.
- Ta pelotan, pelotan, e, nola baiña? Partiduk ala...
- Ez, ez, ez, geuen artian, launan artian ba, ibiltzen giñun partiduak in geuen artian ta jokatu. Geo, saldauska jun giñanen, handik etorri giñanian media palan hasi giñan hamen. Kuartango ez dakit ezautuko zenun. Kuartangok horrek sortu zun media pala o zea hoi ta, zea, afiziyua pixkat jarri zan, ta. Media pala jolasten giñan hor.
- Ze urte zan hori, media palako hori? Ze urte?
- Ba, hori, ni saldauskatik etorrita zan, ta. Hogeita... hogeita hirukin, biekin, hiruekin etorri, hiru kunplitzeko, el año, pues, izango zan hori, el año... Baiña hoi baiño lehen 're zeatik etorri, bai, soldauskatik etorri nitzan [...]. Ta zeara, puertoa jun nitzan. Puertua ordun udaan, ta puerto, ta jendia ta ibiltzen zan, ta. Arin txikiya esaten ziyoen, Leandro Arin. Arin, zea euki zuen hor fabrika o taillerra. Ta, hura amorratu zan arraunean ta zean ta. Ordun Zarauzko traiñeua ateatzeko zean, ta, "Koño, Txabillo, benga arraunea hi 're! Sasoiekuak eta zea hau ta bai, ta [...]", ta, han hasi giñan arraunian pixkat ta. Lau urtetan ibili nitzan Donostiko zean, estropetan.
- Kontxako hortan 'e bai?
- Bai, lau urtetan. El año, el año... zer zan? Cincuenta y dos o, ez dakit, dos, tres, cuatro, cinco o hola, lau urtetan behintzat izan zan han. Ibili giñan geo Zarauzko estropetan 'e bai. Ta Bermeoa 're jun izandu giñan trainerilletan, ta. Holaxen.
- Ordun, e, gelditu 're ez, e?
- Ez, ni deportista zea izan naiz, e!

2.31. Entreenimenduak: bizikleta, pilota, boleta eta karta-jokoa

- **Hizlaria(k):** Mutiozabal Begiristain, Bonifazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-023/011
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 - Aisia » Kirola » Txirrindularitza
 - Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Txirrindulari lasterketak ere antolatzen ziren San Pelaion. Berak denetarik egiten zuen: bizikletan, palaz, boletan... Eta bukatu ostean tabernara joan eta jokoan aritzen ziren.

Transkripzioa

- Ta bizikletan ta, taldian ibiltzen ziñaten, ala...
- Hamen San Pelaiotan karrera jartzen zittuenen hor ertetzen giñan. Ordun

federatua ta hola, hola ez zan uain bezela. Ta hamen ertetzen giñan, bi, bitan o erten nitzan ni hamen. Baiño hola karrereta ta juteko zeaik ez nun nik. Ya, neonek bakarrikan ta, ibilli bizikletan hara ta honea.

- Ta apustuik eta bai kuadrillen artean, lagunen artean, apustuik eta iten zuten?

- Bizikletan? Ez.

- Ez.

- Bizikletan [...] apustuikan, apustuik ez zeon, apustuik. Ta geo, esan dizut, boletan ta. Hor ibiltzen giñan, jo ta haus. Jaittan. Goizian frontoian, ta hamaika t 'arditan o boleta etorri ta boletan ordu bik arte, bazkaitako garaia arte. Ordu bik o ordu bi t 'erdik. Bazkaldu, berriz, frontoira juten giñan, ta media palan. Berriz, lau t 'arditan o boletan. Ta illundu arte hantxen.

- Ta parrandaik batez?

- Parrandik ordun, gu ez, parrandik ez zeikan.

- Neskatan, ta?

- Ez ta zeaikan, pentsau 're. Pentsau 're neskatan. Ta, boletatikan juten, ertetzen giñanian o zea, bukatzen giñunen, zea, hantxe Xalegineko taberna zan, oain Banco Popular o daon hortan, ta. Hara jun ta han partida bat o beste iten giñun, ta, o kaxuelka bat tripaki jan, ta holaxen ibiltzen giñan.

- Jokatu kartatan, musian?

- Tutian o musian o, tutian, tutian orduan, tutian giñan. Musian ni beandu hasi nitzan musian. Geo hasi nitzan musian.

2.32. Soldadutzara orduko 700 pezeta irabazi zituen boletan

- **Hizlaria(k)**: Mutiozabal Begiristain, Bonifazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-023/013
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:22:16. **Bukatu**: 00:25:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- **Laburpena**: Udaletxe ondoan bolatokia jarri zuten eta hantxe hasi zen boletan. Nola jokutzen zen dirua. Soldadutzara orduko 700 pezeta atera zituen eta diru-horrekin lasaiago ibili zen soldadutzan bokadiloa janez eta "txupin" ardoa edanez.

Transkripzioa

- Bueno, hoixe, hoixe pixkat igual sakondu behar deu, ba, bolako kontu hori. Noiz hasi ziñan jokuan hor, boletan?

- Ba, ni hasi nitzan, hamen lehen-lehen bazian bolatokiak, baiño hemen ta Azken Portun eon behar zuen. Ni ya mutil koxkorra nitzan ta ordun ez nitzan ni hor ibili. Baiño hamen bolatoki berriya jarri zuen, Sakana taberna nola daka? Hor, baztar hortan, zea, ayuntamientuak dakan zea hortan, bolatokiya zeak, linternero txikiya zeatzen zan ordun, Agirrezabalaga edo. Ta haik jarri zuen bolatokiya. Ta ni han hasi nitzan. Bola botatzen zuen bolaiak, eta geo brillak jarri ta bola bueltan botatzeko handikan. Bola bueltan bota ta brilla jarri ta, han ikasi nun nik, handikan. Geo hasi nitzan

bola ikasi nunen zeakin, onakin ta botatzen, ta hor iten zan kartak partitzen zitun, pezeta bat karta bat. Ta, bi tiradatako. Bi tiradatan gehiena jotzen zunak, zenbat karta zian, ba. Hamar bazian, hamar pezta. Geo hamar pezta hortatikan pezeta bat o kentzen zun bolantzat o zea, materialantzat.

- Nagusiyak.

- Nausiyak kentzen zun, hoi kentzen zun. Hantxen, jo ta ikasi nun bolan ta. Soldauska juteako zazpirehun pezta o ahorratu nittun nik han irabazita, soldauska juteako. Jolin! Alde earra in zian ordun!

- Saio ederrak inda, ordun!

- E?

- Saio ederrak einda.

- Bai, bai, bai. Esan ziut, ba! Jaia etortzian goiz ta arratsalde han jartzen giñan boletan. Guetzako ez zeon zea, nesketan ta zeaikan, musikik, dantzik eta zeaikan. Hantxen boletan. Ta bola gaiñuntzian, ba, esan ziut, partidaen bat o beste iten bagiñun han tabernan, ta geo handik itxea. Ez nun zeaikan, dantzako ta afiziyoik izan.

- Ta zazpiehun pezta soldautza jun aurretikan irabazita.

- Bai! Irabazi nittun nik hor. Ordun mahaia iten zan, ta boletan ta, pixkana-pixkana-pixkana, ba, zazpirehun pezta ahorratu nittun soldaduska juteko. Joño! Orduako asko!

- Asko.

- Asko.

- Ta diru horrekin, ze, soldautzan hobeto?

- Aber! Hara juten nitzan han, bokaillo bat jateko ta, txupiañak saltzen giñun, limonada boteillak zian hola, txikiyak. Ta haitako bat hartu, ta bokaillo bat. Nik eunero raziya nakan, ta kontuan. Baiño beste asko bazian han, mondragoitarrak eta, bazian han juten zian ta eamaten zuen diru guztiya eun batian biyan gastatzen zuen haik. Ta geo, han eoten zian, zea, hola. Nik, berriz, eunero-eunero-eunero hantxen, bokaillua jan, ta txupiaña o zea, ardo botilla txikiya ean. Ta geo tartetan launakin ta han bazian kantinak, ta kantina jun, oggik ez zan ordun, ta. Han ogiya eoten zan, ta intxaurrak eta, ogiyakin ta ardua, han eaten giñun launakin.

2.33. Espainiako txapeldun geratu zen bola-jokoan

- **Hizlaria(k):** Mutiozabal Begiristain, Bonifazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-023/015
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:29:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Bolari "gurpila" eman behar izaten zaio eta oholean zuzen atera. Txapelketak antolatzen zituzten herri desberdinetako bolatokiaren artean. "Regularidad" saria eta Espainiako saria atera zituen.

Transkripzioa

- Ta, ze teknika behar zan hor, hola jotzeko? Ona, ondo jokatzeko ze teknika?.

- Ikasi in behar botatzen bola. Bola zuluakin eoten da. Ta kurpilla eman behar bolian.

- Kurpilla eman behar.

- Kurpilla eman behar ta oholian ondo atea behar, zuzen o. Pixkat goroxio o beheroxio, terrenua nola daon, han geo brillan tartea sartzeko.

- Ta, txapelketaik ta ez zan ezer eoten? Txapelketaik eta.

- Bai, kanpeonatua. Nik atea nun lehenbizi regularidad. Hoi hamar bolatokitan, hamabitan o iten zan hori.

- Ze, ze, ze, nungo bolatokiak zian hoiek?

- Ba, Lasarte, Añorga, Donosti, Altza. Geo, Seguran, Zerain, Legazpi, Azpeitayan 'e bazan ordun Komutxo o esaten ziyona, oain hura 're galdu zan. Ta, holaxen. Ta regularidadekua aten nun nik hoi bat. Ta bestia, Campeonato de España, Donostiyan. Kanpeonato Españako iten zan, ba, igual hirurogei, hirurogei eo larogei bola igual botatzen zituen. Ta ordun iten zan hamar eo berrogei onenak klasifikatu. Ta orduan iten zuen, berrogei hoiek finala jokatzen zan Donostiyan ordun, Treinta y Uno de Agostoko zea hortan, bolatokiya han zan. Ta goizian hamar bola, ta atsaldian beste hamar bola botatzen zian. Ya sorteuia inda eoten zan ya. Ya bagenkiun noiz bota behar zan, goizian, hamarretan o hamat t 'arditan o segun. Ta hala, goizian bota nun ta berrogeita hamabi jo nittun nik hamarretan. Ta, geo, atsaldian nitzan atzenaldea. Berrogei zian, ta ni hogeita hamabosgarren o ez dakit zer nitzan arratsaldian. Ta zaben haundinak bi tiradetan, goiz ta arratsalde jo zittuenak ciento siete, lau zaben. Ta nik cincuenta y dos nazkan goizian. Ta, atsaldian jo behar nittun haik pareatzeko cincuenta y cinco jo behar nittun. Ta hasi nitzan bolan ta cincuenta y siete jo nitun. Ciento nueve. Goguan dakat gaiñea hura, [...] ahazten ya. El año sesenta y uno izango zan. Sesenta y uno, dos. Uno usten det zala, bai. Atea nun Campeonato de España.

- Joño! Ta sari ona? Sariya ona?

- Ez. Sari ona? Ordun [...] ba, zenbat bola botatzen zian, tanto por ciento zeatzen zan ordun. Ordun kanpeonatua atea nunen, nik ez dakit ba, durua o ze jokatzen zan. Durua botatzen giñun inkripziyua, ta ordun, zea haundiik ez. Ta geo kopa ematen zuen, kopa bai. Baiña dirua, dirua hola esateko asko ez. Nik ez dakit, ba, zenbat izango zan, zenbat izango zan, ba, ordun, ez dakit ba, bostehun pezta o? Bostehun pezta, askoz gehio ez da izango.

2.34. Bolatokietako giroa

- **Hizlaria(k)**: Mutiozabal Begiristain, Bonifazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-023/018
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:31:07. **Bukatu**: 00:32:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Hasieran bolatoki bakarra zegoen Zarautzen eta gerora San Pelaion ere jarri zuten. Jende asko etortzen zen mezara eta ondoren bolatokira. Baserritarrak ere asko etortzen ziren.

Transkripzioa

- Ta ordun, e, bolatoki bakarra zan Zarautzen?

- Bai, ordun bai.

- Ordun bai.

- Ordun bai. Ya hamen zea, esan dizun hortan, Sakananeko hortan. Geo, zean in zuen, Zelai Ondo hortan, ta geo San Pelaion in zuen bestia, bai, baiño han bakarria jokau zan. Konkurtso bat jokau zan ta akabo, ezer gehio. Oain kenduta dao hura 're.

- Ta ze giro egoten zan, e, ze giro egoten zan bolatokiyan?

- Hamen ondo. Gu hasi giñanian...

- Giro ona? Giro ona?

- Basarritar jendia asko etortzen zan ordun, mezeta etortzen zan jendia, hamen, hamaika t 'erditako mezeta, prailleta. Hortik ertetzen zuenian boleta jendia. Ta hola eoten zan, e, jendia ikusten ta beira ta. Ta boletan 'e hamar, hamabi laun, hamalau igual juntatzen giñan, hantxen [...] bi gizon, zea zaharrak zian orduan gue aldian, zaharrak. Geo hamen Elkano ta [...] izaten zian, gizon haundiya ta, hoi ta. Bestia Roteta, zea, Roteta, Juan Roteta o, Urdanetakuak zian hoiek. Hoiek etortzen zian, gehienian, ta hantxen. Bota mahaian pezeta ta jokua, gehiena jotzen zuntzat. Geo itten giñun, eguardiyan bazkaita juteko aurrian [...] durukua, ya ordun batzuk alde iten zuen itxea, ta beste batzuek geatzen zian sei o zortzi, o hamar igual geauko zian. Durua bota ta bi tiradatan. Gehiena jotzen zuna, hura zan earra hortako, hura zan earra. Bai, gizona, hura. ¡Aquellos tiempos!

- Ta geo, gazte ta nagusi ta, era guztitako jentia, jeneraziyo guztitako jentia, gazte ta zahar, ta danetikan.

- Bai, bai, bai, bai. Ordun, zaharrak eta zeak, [...] juten zian.

2.35. Olagarrotara

- **Hizlaria(k):** Makazaga Agirre , Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-025/016
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:25:53. **Bukatu:** 00:27:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Hiru belaunaldiak olagarrotara joaten ziren elkarrekin. Nola harrapatzen zituzten. Aitona esku-motxa zen eta nola moldatzen zen.

Transkripzioa

- Geo, zean 'e, gizaldi kontu horrekin, arrantzan ta gauzetan 'e, itsaso baztarrekok giñan, ta. Gu jun ohi giñan, e, hiru gizaldi olaarrota 're.

- A, bai, e? Ta nola juten ziñaten olaarrota? Nola harrapatzen zenuen?

- Makilla baten muturren jartzen zitzaion trapu zuri batekin zerbait, jana, zaiña eo holako bat. Ta, hor ez due, tienpo hortan bestia, hor [planea] hoitan gantxokin bakarrik, baiño guk ez. Jartzen det, ta olaarrua eortzen bazitzaizun... Barrika haundiya ta betetzen giñun guk! Aittona, ni, ni... haundiya. Neonek ekarri ditut galantak. Aittak 'e zanak 'e bai, baiño. Aittona haundiya zan [...] haundikua, harek zenbatekua ekarri ote zun? Ta eskumotxa. Beitu nola iten zun, hortzakin, hortzakin akaatzen zun olaarrua.

- Jo! Ez da egiya?

- Askok akatzen due hortzakiñ 'e!

- A, bai, e?

- Bai! Hor, lepa gaiñen hueko bat iten diyou ba, hankakin, harri koskor batekin eo. Lepa gaiñen zeatzen zaie, nerbiyua galtzen zaie. Gure aittonak, beitu ze esku, bat harekin, dana peatu, hainbesteko olaarro zahar haundi harek. Jata, hoiek zeatu iten due, txupatu, gorri-gorri iten du dana. Amo zalia zan olaarrutan hua 're.

2.36. Arrantza kontuak: tresnak, arriskuak, lekuak

- **Hizlaria(k):** Makazaga Agirre , Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-025/017
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:27:08. **Bukatu:** 00:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Arroketako arrantza ere egin izan du: karabineroak, lupiak.. Ze tresneria erabiltzen zen. Arrantzan zebilela hartutako kolpeak. Barran ibiltzen ziren arrantzan. Garai hartan oinez haraino joatea neketsua zen. Nortzuk joaten ziren Zarauztik oinez.

Transkripzioa

- Ta ze gehio harpatzen zan?
- Uuu! Nik, e..., nik arrantza asko in det. Asko. Ba, lehorretik izatekotan, ba, zea 're bai, esaten giñuna, karabiñero arrantza, eo donzellas, karraspiyo, ta zea. Baiño fondoa, ta urraburu, ta lupi, ta...
- Oseake, itxaso barrua 're jun ziñan?
- Ez, karretekin, baztarretik.
- A! Hori, baztarretik.
- Baztarretik, baztarretik. Baiño, bueno...
- Ze tramankulu ibiltzen zenun? Nola izena zuen tramankulu haiek, edo? Oain, oaingo igualak dia, o...
- Beno, zea hoiek, e... Esan dizutena, lupitako ta, aparejuk, uain bezelaxe.
- Uain bezelaxe.
- Kañaberak, karrete earrakin, ta. Kortxo baldin baziñan, antxoa o. Fondoako ez, fondoako [aizarra] ta amar berdek eta... Arraia 're zean 'e bai, e: perka pillua ta, erla pillua ta. Hiru-lau aldiz erori. Baten gaiñea burun pasa, "hamendik ertengo al haiz?", pentsa zazu nola... Hoi, ta!, oaindikan arrai hua begi aurrian agertzen zat! Apasta botatzen jardun ta, bat 'e uste gabe bota ta hurre xamarren 'e. Ta jun naiz arraia hola zeatzea, ta, brit!, labaindu naiz antxoa ustelan gaiñen. Ertengo da laister, erten nitzan. Kaskateko earra hartu nun, baiño. Hartu ditut nik, e!, kaskateko dezentiak, eta. Beno, esaten due "hoi kolpe horren zea dek" eta, baiño nei ez zat, nunbait ez zat...
- Ta nun ibiltzen ziñan? Mollarri inguruan edo hola?
- Bai, ta barra asko. Ta barra joten giñan, goora iyo, ta han menditik. Oain, oain barra, ez du merezi. Eozein joten zaizu kotxiakin.
- A, hareaiño.
- "Y va cualquiera", nahi ditun guztiyak. Baiño lehen ez, lehen jun in behar zan. Oriyotik jun behar zuenak 'e bajamarren eo jun, ta geo, mendiz 'e... Ba! Ta gu 're oiñez erten, Zarauztikan, Zarauztikan joten ziana zan bat, Lorentxa fruteraneko mutilzaharra o ez dakit zer zan. Bestia..., hiru-lau bat Zarauzko kaletik barra joten zian. Errekondo 're bai, hor. Eta... gure andriai

zea bialdu, apasta jarri zean, zaldiyan gaiñen. Gure etxeaiño [...] zeakin jun, ta geo handikan... Handikan 'e iyo in behar dia [...], handikan jatsi goitik behera. Ta arrantza iten bazu geo gora 're bai. Ba, halare, neke gutxi iten da arraia daonen 'e!

- Bai, ezta? Ondo, gustoa iyotzen da.

- Bai!

2.37. Hegaztien inguruko kontuak; pasa eta kontrapasa garaia.

- **Hizlaria(k):** Makazaga Agirre , Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-025/021
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:32:22. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
 - Natura » Fauna
- **Laburpena:** Ehizarako zaletasuna ere izan du. Udazkena izaten zen alkanzuri eta galeperren sasoia. Uso-pasea Pilarika inguruan izaten da. Hegaberak beranduago. Kontrapasa martxo inguruan izaten da. Kukua asko entzuten zen lehenago, baina orain ez; Aia aldean, oster, bai.

Transkripzioa

- Neguan, oingo alden beste negu batzuk iten zittun ordun.
- Bai.
- Ta, ehizan 'e apiziyo pixkat bai, ta.
- A, baita?
- Bai. Hola, basarriya laga baztarrea, ta ibiltzeko ez, e!
- Ez, hola, pixkat.
- Elurra iten zunen, ta. Geo goiz baten eo, bakizu, urten izaten zian eunak alkan zuriyanak, egabernak, [...].
- Noiz izaten zian egun hoiek?
- Hoiek... Garai, garai haitan, uratzenen zan zea, alkan zuriya o esaten deuna, galeper ta. Hoiek, bai, nik... Eon zaitte, Pilarica euna, Pilarican lau kilo...
- Urrian izaten da hori.
- E? Pilarica euna, "en setiembre no es?"
- O setienbrian bestela, bai, hor ingurun da bai, Udara bukaeran behintzat.
- Bai. Pilarica oktubren da.
- Oktubren, ez? Bai, urrian. Hala uste det, bai. Hor izaten zan.
- Oktubren izango da Pilarica.
- Bai.
- Ordun izaten da uso pasa, kontrapasakua, kriston zea. Hegabera ya beanduxio.
- Beanduxio.
- Bai. Eta kontrapasa, hori pasaa, ta kontrapasa zan, berriz, martxon. Oaintxe izan da, oain izan da. Gure basarri aldian fenomeno zan.
- A, bai, e?
- Bai. Ta oain, kukuak 'e ez dia jotzen.
- Ez da? Ai, ba!
- Ta hala eo, hamen, Javier Beldarrainek eta [Pagoarra], ez dakit, Aian, [Pagoarra]. Ba al dakizu nun daon?

- Ez dakin nun daon, ba!
 - Bueno, "ixildu gabe hemen da kukuba", ta.
 - A, bai! Lehenguan Laurgain inguruan behintzat...
 - Ikusten al dezu?
 - Ikeagarri!
 - A, hor!
 - Ixildu 're in gabe kukua, bai.
 - Mekaguen la letxe! Ta, nik, ez [...]. Nik dirua zea, txanponakin ta, ta.
 - Hala esaten da, ez? Esaera bada, ez?
 - Bai, bai...
 - Patrikan dirua...
 - Gure aita zanak 'e, bueno! Ta nik esaten diyot, hoi dek! Jo diek hurrengo urtian 'e! Nik urtebeteko plazua ematen diyot. Dirua ona izango dek, baiño kukua aitzia 're ez da txarra.
 - Bai, polita izaten da. Ikeagarri omen dao, bai, Laurgain inguruan.
 - Hala eongo da. Ta hamen, ez!
 - Ta lehen bai, ordun, e?
 - Puf! Hamen kukua, metatik meta ibiltzen zitzaigun geuri ta. Jesus, María ta Jose! Kukua ikaragarri zeon, ikaragarri! Ta basua ez baleo 're... bakau basua!

2.38. Dontzeila-lanak

- **Hizlaria(k)**: Elola Aranburu, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-028/008
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:16:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kultura » Dantza
 Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Dontzeila-lanaren baldintzak. Hamabostean behin irteten ziren. Berak dantzara joaten uztea eskatu zion nagusiari. Langile asko zeuden etxean, medikuak kontsulta etxean pasatzen zuen eta.

Transkripzioa

- Ta gaztia, ta laun bat nekan eskolatikan. Eta hamarretan zea izaten zan plazan, dantzaia izan naiz, hori bai. Plazan musika izaten zan, ta lehenbiziko piezak. Hamarretan etortzen zitzaixkiten ba, afaita, baiño hamar ta laurdenak izaten zian. Lehenbiziko pieza bukatuta etortzen zian. Ta ni ze iten? Tinbria jotzen zian, ta erten, ta dantza erteten nitzan. Pieza hoiek in ta itxea etortzen nitzan, ta. Eta hor eoten zan beti, hor eoten zian, ta etxeoandria beti hor eoten zan, ta piezak indakuan bukatzen zan. Eta ikusi iten zilako, ta aurrexio jutun zan. Eta, jun eta, "¿qué es esto? Cenar y aquí, nadie pa sacarnos la cena". "A, bueno, a mí el aita me dijo que, que estuviera un año y ya he hecho el año, y ya voy por el segundo año, y así que, entoces me voy pa casa", esan niyon. Eta esan zian, "Oi! No me dejes con dos años al niño, otro año aunque sea, por favor, otro año, otro año, otro año". "Ah, pues me tendrá que dejar ir a bailar esas piezas", esan niyon. Ba, hamabostian bakarrikan erteten giñan, e! Ta bea igual lau t 'erditan erten ta zortzitan itxea, bai, libre eguna. Hiru genden, e. Ta geo gaiñea interina, ta.

- Jo!
 - Bai, bai. Hiru haur ta...
 - Langille asko etxe batian, ez?
 - Bai, bai, bai. Baiño, klaro, meikua zan, e! Eta lan asko zeon etxeke garbitasunian 'e bai, ta geo, Oriyotik etortzen zan bat, labandeitza itea, garbitasuna itea. Bai.
 - Kontsulta etxean pasatzen zun?
 - Bai, bai, bai. Kontsulta itxian pasatzen zun. Ordun ez zan hola zeaikan. Garai haitan kontsulta itxian zan. Horreatikan ni jun nitzan horrea. Ahizpak bihatzian miña in zulako [...]. Bestela Zumaian eongo nitzan. Ez zait damutu, e! Karo, eskola gehio jakingo nun, baiño...

2.39. Txikitatik hondartzan

- **Hizlaria(k)**: Elola Aranburu, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-028/014
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:24:21. **Bukatu**: 00:25:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kirola » Uretako kirolak
 Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Txiki-txikitatik joan izan da hondartzara. Igerian aurreraino joatea gustatzen zitzaion.

Transkripzioa

-Hondartzan ibiltzen al ziñaten?
 -Hondartzan bai asko, hondartzan bai igeriyan. Ba harrapatzen nun guztiyan ta eote nitzan guztiyan ta txiki-txikitatikan beti, bai ta hemen ezin zanian molla ta ez zuen lagatzen molla juten, baiño han ikasteatikan ta.
 -Nun ikasi zenun igeriyan?
 -Hementxe, herriyan. Eta geo ya iten nun ta baiño...
 -Hondartzan ala mollar?
 -Nik ustet gehio hondartzan. Ta geo gehiegi atrebitzen nitzan gure gizona larritu iten zan ta “ez zaite aurea jun e! hola ibili zaite e!”. Eta ni aurea juteko ohitura hantxe ondona ibiltze nitzan. Eta bat han dator giza-seme bat dana sustatuta, korrientian nebillen, eziñian nebillen, antzeman in zian ta: “Lasai e, ertengo naiz-ta”. “Ez launduko dizut”, ta “Ez, ez segi lasai”. Baiño onduan jun zan, “Ertengo naiz”. Senarrak esaten zian beti “zuk solterotatikan”. Berak erakutsi zian ta hemen itsasua goi-goian zeonian mollaraiño juten giñan eta bakarrikan geo bildurtu ite zan, eta geo ya hasi nitzan hola ibiltzen, batea ta bestea bai. Geo olatutan izugarri gustatzen zitzaiten. Oain, berriz, olatuikan...

2.40. Dantzan plazan ikasten zuten

- **Hizlaria(k)**: Elola Aranburu, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-028/025
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:40:35. **Bukatu**: 00:41:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Dantzan plazan ikasi zuen. Bere senarraren aita dantza-txapelketetan epailea zen.

Transkripzioa

- Lehen esan dezu dantzaria ta...
- Dantzaia ni ez naiz ibili, e!, dantzan. Dantzari bezela ez, baiño dantza asko gustatzen zitzaizela bai, bueno!
- Ta nola ikasi zenun?
- E?
- Nola ikasi dantzan?
- Dantzan? Hoixe, plazan dabilatzazela.
- Sueltuan, edo?
- Sueltuan 'e bai. Sueltuan hor ikasitakua dakiu. Sueltuan asko in det. Nere gizonan aita gaiña jurauan ta eoten zana zan dantzaiaikin ta. Beakin 'e dantza iten nun, zea, San Pelaiotan dala ta festetan dala. Ta, "benga, Karmele, in zan!", ta, zea, gizonan aitakin.
- Ta, pixkat praktika, nola, nola, nola iten zian. Aste barruan praktika in ta gero...
- Bai, zea! Batere ez! Beti plazan ikasi deu guk, txiki-txikitatikan plazan hasi ta plazan.
- Etxian, ispilluan aurrean ta...
- Ezta, behiñ ere, ezta okurritu 're. Ordun holako gauza danak pekatu zian ta.
- A, bai, e?
- Bai. Dantzan itia? Nei ez zien hartu, e, zean, e, Hijas de Mariasetan. Osea ke, kongregaziyuan ez zien sartu nahi. Baiño, hori, ixtoriyak...

2.41. Aitak egindako txalupa

- **Hizlaria(k):** Agoues Zubeldia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-029/014
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:28:11. **Bukatu:** 00:30:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Aitak egindako txaluparekin ibiltzen zen. Ze materialekin egin zuen txalupa. Hasieran arraunarekin ibili zen urte askoan.

Transkripzioa

- Bueno, pasa gaitezen arrantza kontuetara. Arrantza, ya, mutikotatik txalupakin, ta. Nundik zeneukan txalupa?
- Nun?
- Nongoa, nundikan lortutakoa txalupa?
- Ba... Ibili nuna urte askuan aitak iña, neure aitak iña. Oso mañosua huan lanian ta. Eta txalupa beak in zian taillarrian. Txoko batian, neguan.
- Ze materialekin, edo?
- Ba, [...], ez dakit, ba. Txalupak, txalupak izaten zian, ba, lehendabizi, ba, plantilla bat ta geo kostillak alkatzizkuak, ta geo pino nortia, pino nortia. Ta

txalupa polita in ziyan, zea, este, nola esango nuke, ba? Txolo samarra. Horrek esan nahi dik, este, ontziyan balantza, asiento, uretan, asiento txikikua. Txalupa jun behar izaten huan hola, zean...

- Txolua?

- ...ohitu, ta. Bai, ohitu, ta, han-han txalupan sartzen balin bahintzan [...] mouz heltzian, putzua. Bai, baiña, aizu...

- Ta arraunakin ala motorrakin?

- Arraunakin urte askuan, arraunakin. Nik motorra, guk motorra... Nik berrogeita hamabost urte arte..., gehio! Igual hirurogei urte arte ez nitxakan, zea, motorrikan. Geo, geo ezkondu ta, ezkondu ta behalaxe, ba, arrantzan kontu hoiek pixkat laga in nitun. Bai, ba, esaten diyat, arrantza netzako izan dek gauzik earrena. Baiña, biarren zea, biarren... taillarra euki det, ta taillarra eamaten nahiko lana izan det, e. Ta geo, geo, nola esaten da, "primero la obligación, después la devoción", esaten dana, ezta? Ba...

2.42. Txipiroien arrantza nagusi Zarautzen

- **Hizlaria(k)**: Agoues Zubeldia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-029/015
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:30:09. **Bukatu**: 00:32:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Moilan izaten zuen bere txalupa. Ia 60 txaluparaino egon ohi ziren. Familia askori laguntzen zion arrantzak udaran, batez ere txipiroiekin. Ze arrain-mota arrantzatzen zen.

Transkripzioa

- Nun eukitzen zendun txalupa?

- E?

- Nun eukitzen zendun txalupa?

- Ba, uda... iya urte guztiya moillan.

- Moillan.

- Baiña geo neguan, zeara...

- Asko eoten al zian?

- E?

- Asko eoten al zian?

- Txalupak? Eon izandu dia berroeita hemezortzi 're, txalupa.

- Oain baiño askozek gehio.

- E?

- Oain baiño askozek gehio.

- Oan baiño lau aldiz gehio, o gehio. Baiña orduan txalupakin Zarautzan famili asko jazten zan, arrantza ondo ateatzen zan, arrantza ona iten zan. Txipiroiak beti diru iten zun. Eta, bueno, hoiek..., nola esaten da? Ba, ba, ba, [...] batzuk izaten dia onak, beste batzuk txar-txarrak, ez, tartekua [...] baezu, ya está. Ba, baiña udaran, udaran Zarautzan asko, jende asko jazten zan zeatikan, este..., arrantzatikan, txipiroitatik orduan. Bai, ba.

- Ze, ze arrain...

- Txipiroia.

- Beti, txibiya beti?

- Udaberriyan txitxarrua. Luego, igandetan ta, arrai-txikitan, kabrak eta

hola. Baiña, hamen printzipalena izan da, este...

- Txibiya.

- Txipiroia, bai, txibiya.

- Eta, bestela, lupiyak ta holakoikan?

- Bai, batzuek kazen ta bai, baiña ez, hori, hori urriya izan da, urriya izan da. Batek egokitzen du, batei egokitzen du lupi bat harrapatzia, ta ya kontatu iten du, kontatzeko [...]. Baiña bestela, ba, normalena hamen txipiroia izan du. Zarautzan udaran eoten zan iya hondartza dana estali ontziyakin, ontzi txikiya, gu bezelakua, zean. Nik oain, aspaldi ez naiz jun, baiña, uain azkeneko urtetan, uain bada urte batzuk laga niyola, baiña, udaran, moilla, zea, hondartza azaldu ta ikusten baituzu hogei bat ontzi, txalupak, Zarauzko hondartzan, emozionatu ta dana iten da bat. Nolako gauza ederra dan hori, bai, ba. Ta gu eoten giñan, ba, igual esaten dizut, e, igual, igual, iya hirurogei ontzi eoten zian. Ta igual berrogei o gehio hantxe, danak alkarren koska pixkat jarrita. Hura polita izaten zan.

2.43. Arrantzarako orduak eta moilako giroa

- **Hizlaria(k)**: Agoues Zubeldia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-029/016
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:32:22. **Bukatu**: 00:34:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Ze ordutan joaten ziren arrantzara: goizean eguna argitzerako itsasoan egoten ziren eta gauean ilundu arte. Bueltan etorritakoan saltsa jartzen zuten moilan gazteek.

Transkripzioa

- Ta ni goatzen naiz, este, hamen adoración nocturna-kuak meza goizaldian lautan izaten zan, ta hango irteeran gu han itsasoa, gu itsasoa presaka, ta. Zea, egoistak o anbiziosuak deitu izandu ziguen ta, ez zan anbiziyoik batere. Hura gustatzen, hura, [...].

- Noiz juten ziñaten? Ze ordutan, edo?

- Hara illunpian, illunpian. Batzuek euna zabaldu baiña bi ordu lehenueo igual. Baiña eguna zabaltzeako, han. Juten ez baziñan, ta jun ta harrapatu, jun ta hasten baziñan seituan harrapatzen, damu bat eukitzen zendun, lehenueo ez juna. Hortako ez ba jakin 'e, baiña, arrantzako kontuk hola izaten dia.

- Ta illuntzean, ta?

- Illuntzetan, ba, illundu are, illundu arte. Oain ez, oain beste zea batzuk dituk. Oain arratsalden zazpitan aspertu in al da? Itxea, entenditzen? Orduan ez. Orduan danak illundu arte, alkar jotzen ontziyak eta, ta. Ta geo moilla etorri ta moillan, aizu, danak batian, sarreran ta. Gu gaztiak eta.... Beti izaten zan erokeien bat. Nola izaten da? O zaata, o. O batek harrapatu zulako, bestiak ez zulako, batei hori gertatu zakolako.

- Diskuziyua?

- Bai, diskuziyuak ez, baiña...

- Xextra, xextra pixka bat?

- Bai, zea pixkat, ambiente pixkat. Ta gu gaztiak giñala, ba, bero in baldin bazun, ba, putzua salto, ta baiñatu, ta. Beste edadekoik baldin bazan

adarra jo. Hala izaten da! Ez bagiñan gu 're santuak! Bakizu, oainguak 'e ez ta, lehengokuak 'e ez, ta...

2.44. Itsasoan erreferentziak nola hartzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Agoues Zubeldia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-029/021
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:42:56. **Bukatu**: 00:44:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Zarautz ingurua oso aberatsa zen lehenago txipiroitarako. Zein puntutan arrantzatzen zuten kalkulatzeko baserri eta txaletekin hartzen zuten erreferentzia.

Transkripzioa

- Ze zona zan ona arrantzuan iteko?
- E?
- Ze zona? Ze gunea?
- Hemen? Ba, este... Zarautza zea, txipiroia harrapatzeko Zarautza aberatsa izan huan orduan. Oain ez, oain ordia, etortzen dituk aurki, zea, garnata itea, zea, atunetako ta zimarroitako ta, atuna itea. Ta hoiek hondartza dana garbitzen due. Hoiek ez due ezer lagatzen. Lehenoz ez zan holako zeaikan.
- Ta puntu berdiñea juten ziñaten beti arrantzura? Puntu berdiñera, ala aldatu?
- Aldatu? Ez. Ibili batea ta o bestea ta, hamen gelditu, ta ezer ez. Geo horrea zean ta. Ta, "atzo hemen, hemen jo nixkiyan", da!, markak hartu. Markak hartzen zendun, ba, hamen lehenoz dana txaleta zan, ta, ba, [Corbeseneko] txaleta, halako han goian dan basarri harekin, o zeakin, eo. Itsasuak hala esaten digu. Oain 'e bai, zea. Oain 'e arrai-txikita ta juten dianak, moillarri gaiñea, ta, hoiek danak zeakin, este, este... Basarriyakin, zea iten dia. Geo, geo, ba, Getariako torriak, osea, elizan torriak eta Oriyoko elizan torria, ta Aiako elizak, hoiek hoge milla marka eukiko ditue, zea, hoge milla marka. Hola jun ta, oaintxe han gaituk, ba hor gaituk, ba hor gaituk, ba... Bota fondua hor gelditzeko. Ta hemen txipiroitan, ba, esaten dizut. Bezperan, ta, askotan gezurra 're bai. "Nun hitzan?", ta, "Borgetonian", ta hortako beste aldi, igual. Hori, hori, mariñel tartian normalena izan da.
- Ehiztariak bezela, ordun.
- A, bai! Hori, hori normala.
- Ta perretxikulariak bezela.
- Baita. Bai, bai, bai, hori, zean...
- Gezurra esan behar.
- Gezurra esan behar, bestela hurrengo egunian danak han!

2.45. Turismoak gauza berri asko ekarri zituen: bikiniak, diskotekak...

- **Hizlaria(k)**: Illarramendi Arizaga, Pio

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-030/029
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:11:40. **Bukatu**: 01:13:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Zarautz izan zen bikini onartu zuen aurreneko hondartzetariko bat. Espainian sei lizentzia eman zituzten, "Playas Internacionales". Mediterraneoan bi, Santanderren eta Zarautzen. Aurreneko diskotekak ere Zarautzen antolatu zituzten: Luis Aguilé, Julio Iglesias... Diskoteka asko sortu ziren: Mimos, Gaztedi, Euromar...

Transkripzioa

- Euskal Herriyan ta Espaiñiko sei aurrenetan, sei kosta aurrenetan, Zarautza izan zan bikiniya libre zeona. Ez al dakizu? Hori´re ez al dizu iñorrek kontatu? "Seis playas internacionales se concedieron" Espaiñira; zian Zarautza, Santander, Llanes ta uste det Riazor. Donostiya ez. Donostiyan ez al dek behin´e aitu poliziya nola kasko ta guzti jeitsitzen zian bikini aurrenenguai multa ematea y "a hacerle salir de la playa". Ez al dek behin´e aitu? Hik edade pixkat badek ba.

- Barrukaldekua da hori.

- A! Barrukua?

- Lehorrekua.

- Baño nahi det esan... bikiniya. "Playas internacionales" ta mediterraneuan bi: e... zea, Lloret del mar ta bestia ez dakit zein zan, Benidor-ta ez.

- Ze urte zan hori?

- 52-53. Bikiniyak aurrenekua. Ta aurrenengo diskotekak "como discotecas" Zarautzen sortu hituan. Zauratzen aktuatu die /aktuatuie/ Luis Aguilé, Julio Iglesias... Hori ez al dik kontatu iñorrek? Julio Iglesias, Carlos Acuña... Hemen? Hemen diskotekak eon hituan... Jendia... milakak etortzen hituan.

- Nun zian diskoteka hoiek?

- Naia, Euromar, Mimos, Gaztedi, Alai azpiyan... gehiyo´re bazian, baño oain ez naiz gogoratzen. Hasi ezkeo... zea. Baño kantantiak... aurrenengo urtiak, aurrenengo aktuaziyo exitokua Julio Iglesiasena Zarautzen, beak esanda, Euromarren. Julio Iglesias ta. [...] hola. Jendia...!

2.46. Kuadrilletako giroa

- **Hizlaria(k)**: Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-031/023
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:31:12. **Bukatu**: 00:32:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Tabernetan kuadrillan abesten zutenean rantxera eta tangoak abesten zituzten. "Tximista" taldekoak eta "Aitzakia"-koak

nortzuk ziren. Lehenago errazago konformatzen ziren, eta laguntasun gehiago zegoen.

Transkripzioa

- Umetako kantik eta zeoze gogoratzen al dezu? Umetan hola?
- Elizako kantak.
- Elizako kantak, bestela ez.
- Ez, guk ez. Nik gaztetan ta, kuadrillak eta kantatzen zuenian ta, rantxera ta kantatzen zan orduan asko tabernetan ta, joño. Tanguak eta, bazian eokiyak, e! Zea, Juanito Illarramendi ezautzen dezu? Hoiek eta, kuadrilla hori, Agustin Primo ta, kuadrilla hori, hoiek zian Tximistakuak. Tximista deitzen dia hoiei ekipua fubolian ateatzen zian ta, Tximista. Ta bestia, Iñaki Murua ta horiek, Aitzakikuak, Aitzaki zan fuboleko zea, ekipua zuen hoiek. Ta hoiek biyak bakarrik ziaben hamen. Ta, kantatzen, joño! Ta geo hemen, Felipe Zubiaurre ta habek 'e oso onak zian kantatzen. Alaia oso, konformatuo giñan orduan. Danok berdiña giñan, ta, ze. Bizikera aldatu in da asko, Jesus! Zan dana orduan hoixe, launtasun haundiya zion, launtasun haundiya. Ta politikak 'e ez zun hainbeste eragin. Gerra bukauta 're, alkarrekin ondo etortzen giñan, bai batekuak ta bai bestekuak.

2.47. Zarauzko futbol-taldeak eta bertako jokalariek

- **Hizlaria(k):** Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-031/029
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Pilota
 - Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** Pilotan aritzen ziren frontoi-txikian eta futboleant ere ibiltzen ziren. Beti ezagutu izan du Aritzbataldeko futbol-zelaia. "Mollarri" taldea zergatik utzi zuten. Gero beste talde bat sortu zen eta "Txatxin"-ek jokatzen zuen bertan. Elgoibarko taldea izaten zen inguruetan nagusi.

Transkripzioa

- Gainontzian ze? Pelotan, hortxe, frontoi-txikiyan ta ibiltzen giñan, ta. Fubola 're zea, trapuzko baloiakin ta, ta, bai, ahal zan bezela!

- Zuk betitik ezautu al dezu kanpo-fubola hor Azken Portuko hua...

- Aritzatalde? Kendu zuen hori? Bai! Honbre! Hor Mollarri eon zan orduan Zarautzen ekipua, oso famatua zan probintziyan 'e. Ta tongo o in zuen Donostiarrakin o, ta kendu in zuen Kluba Mollarri. Bai! Ta geo hutsikan eon zan. Asike... hor, milla betzirehun ta berroeita bost arte o hutsikan, ta geo ekipua sortu zan Zarautzen. Soldauak zauden, ba, hor zubi gaiñen, ta. Ta, hango fubolistakin ta abar, ta. Ekipo dezentia ote zan Zarautzen. Txatxiyak 'e jokutzen zun. Txatxin hori, Lizasoain, Donostiarra, Realen ta jokautakua. Tenientia o hola izan behar zun, militarra ta. Haua ta, Eleno ta, zeak 'e, Madriko bat eta... Bizkaikua ta abar ta... [...] zeatzen zan. Hamen nausi beti Elgoibar izaten zan, Elgoibar. Hari irabazten zailla zan. Jendia, ta... jo! Bai.

- Pelotan ta ordun ta fubolean 'e bai, gazte...

- [...] nik ez nun, nik ez nun ikasi puntera jotzen bakarrik, punteraz jotzen bakarrik.

2.48. Bertso-saioak; herriko bertsolariak

- **Hizlaria(k)**: Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-031/036
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:52:24. **Bukatu**: 00:54:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Bertso-jaialdiak plazan egiten ziren. Txapelketako saio bat ere izan zen Zarautzen. Festetan balkoitik abesten zuten bertsolariek. Herritarren artean ere baziren bertsotan txukun egiten zutenak. Nekazabal bertsolaria.

Transkripzioa

- Zarautzen in al zan bertso-jaialdirik, o? Gogoratzen al dezu?
- Bai! Asko! Plazan iten zian. Frontoian 'e batian in zan Uztapide, Baxarri, ta geo kanpeonatu bat jokatu zan hamen, Lizaso ta hoiek, Lizaso aita, e! Aita ta hoiek. Ta geo orduan herriko festetan, ba, plazan iten zan balkoitikan, Banco Gipuzcoanoko hortatikan, ta danak han. Ez zeon oain bezela, e!, eztarriya ona behar zan, e!, jolin! Oso, bertsotako afiziyo haundiya izan da hamen, Zarautzen, bai. Ze, karo. Haiñ, haiñ onak ez hua bezelakoik, baiño, bestela 're Saardoteitan ta, bertsolai bastante, [...] politak, e! Orduan, ba, Sasikua ta abar ta. Ta hori berezkua etortzen da, ta. Bazian baserritarrak ondo zeatzen zianak. [...], zea hau, Izeta, Zendoia? Hori gaztexio hori, e, hori. Baiño orduan zeakuak, Nekazabalkua ta, Sasiko Martin... Korderito ezautu al zendun? Haen aita ez zendun ezautu zuk? Nik aurrenengo bertsua Baxarriri entzun niyon biyak manoik mano, Santa Maiñako, Santa Maiñetan in zuen. Ta nik ez nekin artian, ez nitun ezautzen nik, zea, Baxarri ta. Ze bertsolai dotoria zan zea 're, Korderiton aita. Bai! Nekaxabal, Nekaxabal. Ba, aurreneko Basarriri entzun niyona, hantxen gooratzen det nik, zenbat eukiko nitun, ba, hamazazpi bat urte, o hemezortzi, o... holakon bat. Ta, oso ona, e, bertsotan, polita zan oso. Bozik ez, baiño... Korderiton aita.

2.49. Boxeo jai guztietan

- **Hizlaria(k)**: Murua Arregi, Imanol
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-033/010
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:18:10. **Bukatu**: 00:19:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Boxeo
- **Laburpena**: Herriko festa gehienetan izaten ziren boxeo lehiaketak eta beraiek boxeatzeko zuten konbatearen aurretik.

Transkripzioa

- Eta beseuan berriz, hemen, hemen mutil-koskorrak, hondartzan ta. Geo, herriko festetan jartzen ziguen guri telonero bezela aurretik, eta jendiak pentsatzen det, nahiko parre ingo zula, zeatikan nik hamahiru urtekin, uain'e txikiya naiz, hamahiru urtekin atea zazu kontua nolakua izangon nitzan. Eta aurrenengo konbatia gu izaten giñan. Ta orduan festa danetan izaten zian beseokokonbatiak eta. San Pedrotan Oriyon ta Zumaian, ta San Pelaiotan hamen, beti izaten giñan gu. Ta, behintzat, ni gogoratzen naizela, lau, lau aldiz beseatua naiz hola, riñian publikuan: San Pelaion, Munuan, Oriyon ta Zumaian, ni akordatzen naizela, e. Geo, bueno, geure kuadrillan arteko konbatiak eta ixtoriyak kontatzen hasten baldin bagea, jode, ixtori pillar earra, ixtori pillar earra badao hor.

2.50. Goiz eta iluntzetan txibitara egunero

- **Hizlaria(k)**: Lopetegi Arreseigor, Migel

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-036/008
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:11:42. **Bukatu**: 00:12:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Eskola-garaian goiz eta iluntzetan txibitara joaten zen aitarekin. Txibia ondo ordaintzen zuten.

Transkripzioa

- Ta, taillarran hasi aurretik, ze bizimou iten zendun? Eskola, ta...
- Eskola.
- Ta gaiñuntzean, jolasa, ta...
- Jolasa. Eta arrantza aitakin, ta.
- Arrantzan aitakin.
- Goizetan ta, arratsaldetan ta, nola esaten da?
- A, bai, e? Goizetan ta arratsaldetan ta, e?
- Bueno, goizetan, pena baliyo zunian. Zeoze, zea, txibi harrapatzen zanian, ta. Lanea baiño leheno joten giñan. Ba, txibiyak harrapatzen zian, ta txibiya ondo paatzen zuen, eta xoxak, e! Xox batzuek itxeako.
- Ta illuntzean berriz?
- Bai, illuntzian'e bai. Illuntzian seguruo. Illuntzian juteko girua zeonian, egunero.
- Ordun aitak ere ordu mordua sartzen zun taillarrean ta, lehenbizi arrantzuan, gero taillarrean, gero berriz arrantzuan.
- Bai! Orduko bizimoua hala zan.
- Bai, bai, bai. Dana lana.
- Asko aldautu dao uain.
- Bai.
- Orduan hala zan ta, e! Hala zan ordun.
- Jontxo!
- Oaingo gaztiak ez dakiye nola bizi dian, e!

2.51. Eguna argitzerako txibitara

- **Hizlaria(k)**: Lopetegi Arreseigor, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-036/012
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:19:00. **Bukatu**: 00:21:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Aitarekin arraunean joaten zen txibitara. Txalupak "San Luis" zuen izena. Kostatik hurbil ibiltzen ziren. Eguna argitzerako joaten ziren txibitara.

Transkripzioa

- Bueno, esan dezu goizetan-ta joten ziñala aitakin...
- Aita bizi zan arte. Eta aita hil zanian, hamasei urte nazkan nik eta gero...
- Zeure kontura.
- ... bakarrik.
- Ze txalupa zakan aitak?

- Arraunian.
 - Arraunian, e?
 - Txiki bat, bai, txalupa txiki bat.
 - Nola zun izena?
 - San Luis uste det [zula] izena.
 - San Luis?
 - Bai. Beak´e Luis zun izena ta. Ta geo ibili naiz ni –bueno, motor txiki batian´e bai, baiño gehiyenian–, gehiyenian, iya utzi diotenea arte arraunian.
 - Arraunian, e?
 - Bai.
 - Ta aitag berak egiten zun arraunian ala biyok ?
 - Bueno, aitag beak´e bai ta nik´e bai ta biyok´e bai ta. Baiño hur ibiltzen giñan, e!
 - Zenbat millataa?
 - Bueno, Zarauzko hondartzan.
 - A bai, e?
 - Bai, Zarauzko hondartzan. Hurre. Bueno, Zarauzko mollarri emen dao Zarauztikan milla t´erdi o hola esaten due /esateue/. E? Inguru hori. Milla t´erdi inguru hori. Mollarri- ta juten giñan batzutan, egualdiya segurua zegonian ta hola.
 - Ta goizian ze ordutan juten ziñaten?
 - Ba eguna argitzeko! Txipiroita jun ber du eguna argitzeko.
 - Ta egualdiya berdin dio?
 - Egualdiya? Bueno, giro txarra zeonian ez giñan juten. Baiño giro ona zeonian, euriyagatikan-ta bai, xira jantzi ta... Baiño ezin zanian jun, giro txarra, olatu haundiya zeonian ta hola, ez giñan juten.
 - Ordun, San Luisen sartu ta biyok?
 - Biyok. Hamasei urte zazkan... eo... hamasei urte nazkan aita hil zanian. Ta geo, bakarrikan ibiltzen nintzan.
 - Eta aitag juten ziñatenean, goizean goiz jun... zenbat denbora egiten zenuten arrantzuan?
 - Bueno, zortzitan taillarrea sartzeko, etxea. Etxea etorri ta gosalduta preparatu ta lanea.
 - Ta ze erropa eramaten zenuten arrantzuako?
 - Erropa normala.
 - Normala?
 - Normala. Bai.

2.52. Gaztetan zozo-birigarrotan

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZAR-037/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
 Natura » Fauna » Hegaztiak
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Gaztetan zozo-birigarrotan egiten zuten. Hortik beherako txoriei ez zieten tiratzen. Larunbat eta igandetan birigarro-sorta hartu,

eta saltsan jaten zuten etxean. Itsaso aldera joanez gero, kulixkak ere bai. Asko izaten ziren bertan takatuta.

Transkripzioa

- Eta, beste hau?
- Ez dit hoiek holako zeaik iten.
- Huntza ta, huntzak izaten du, ba,...
- Bai.
- ...mahatsa...
- Pepita beltza.
- Bai.
- Pepita gorriya.
- Hor ibiltzen da hori jaten, ta.
- Hor birigarrua, birigarrua ta zozua ta holakua da hemen. Hori dana jardiñetan izaten zan. Eta jardiñetan zozua ta birigarrua. Bere tartian habiya in ta bertan jaiotzen zala, hori bai. Baiña habek, bueno, kasoik in ez 'e bai. Eskupeta txikiyakin juten ziñan, ta, ez ziyozun orduan habe tiako.
- Zuek, umetan eta gaztetan ze, ze izaten zan txori, birigarrua o zozua?
- Birigarrua.
- Birigarrua.
- Bai. Guk eskopetakin ibiltzen giñanian, eskopeta txikiya, hamabiko txikiya izaten zan, tiro txikikua. Eta ibiltzen ziñan jardiñetan, txaletetan, ta galaziya zeon. Ordun Guardia Zibillak eta ibiltzen zian, harrapatzen bazizuen, saltaka in behar. Ordun, tirua [...] ziñunian, beti, o birigarurua gutxiyenez, o zozua. Bi hoietako zea izaten zan. Geo, pixkat mendira juten baziñan, exkiasuak eta, holako zeak. Ordun beste zea habe, kaso gutxi.
- Txikiyei...
- Gutxi, gutxi. Osea, guetzat ez zan holako zea.
- Eta gero, zozuak eta birigarruak eta etxera eraman ta jateko, o, saltzeko?
- Dudik gabe, lumau ta jan. Hori, larunbata ta igandian jun ezkeo, iten ziñun sortaka lumatu ta jateko, itxea.
- Amari eramateko.
- Bai, bai, bai, bai. Norbeak lumatu, zeatik bestela amak ez zitun nahi izaten, ta. Ta hara eraman, han jarri, [...], ta jan, jan iten zan. Bai, bai, bai, konplementoa.
- Prejiuta, o?
- Ez, saltsan.
- Saltsan?
- Jenealian, o patatakin o bestiakin, saltsan jarrita, ugariyo zan, ta. Prejiuta azkar bukatzen zian, aidian. A, ez, ez, saltsan jenealian, patata batzuekin o jarri, ta. Bai.
- Eta, jateko goxuak?
- Hoixe!
- Entretenimentu earra hezur danak apartatzen.
- Apartatzen o jan, jan eiten zian?
- Bai, txupatu ta 're bai, baiña kendu 're bai, ta denboa luzatu iten zan jaten ai ziñan denboa. Geo patata jan puxkat, eta lixto.
- Eta birigarrua o zozua, o ze [...]?
- Birigarrua o zozua, hoiek, hoiek ya pieza dexenttiak dia [...]. Eta baita itsaso aldea jun, itsas aldeko zea horta ta, esan dizuten zea... o kulixkak o holako zea, ya pieza haundiyauak... haiek harrapatzen baziñun ya kazuelan ite ziñun, o hegaberak neguan o...
- Ta hegabera gozua al da?
- Bueno, nik askotan jan det, bai hutsik baita arrozakin ta... gozua da, osea, preparatu in bihar. Hamen hegabera asko izaten zan, kostan takatu itea

ba... ordun, oain ez da gelditzen, oain pasa iten da. Nunbait argi asko o
eztakit zer dakan. Baña ordun aurrian, hondarretan gelditzen zan.

2.53. Lehenago txori asko zegoen Zarauzko kaleetan

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZAR-037/007
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:19:45. **Bukatu**: 00:21:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena**: Lehen askoz txori gehiago zegoen, Zarautzen bertan, kolean. Lorategi asko zegoen, eta zozoak, birigarroak, txantxangorriak, kardantxiloak... Ehiza ere bazen, baina errespetu gehiago, eta txori txikiei ez zieten tiratzen.

Transkripzioa

(Txori-kantuez ari dira)

- Ta lehenoa bai?
- Bueno!
- Kalian bertan?
- Danian, kalian bakarrikan ez. Uain hamen itxiak dian habek danak, dana jardiña zan. Lekuan-lekuan itxe bat, eta bere buelta guztiyan dana jardiña, arbustuak, loriak, bestia. Dana txoriz betia eoten zan. Oain hoiek jun dia. Daben arboletan ta botatzen diyoe zea, ixtori hori, hautsa ta ixtoriya, eta, hor ez da bate gelditzen. Zozua ta birigarrua pixkat bai, zozua bastante.
- Txantxangorria?
- Uain 'e hemen kalian. Txantxangorriya azaldu iten da, pasaakua. Baiño urte guztiyan zozua eoten da, hemengo parke hontan ta, danian zozua, asko. Baiño lehenoko kardintxulo soñua ta hori... Nik aitzen deten lekua, hola, zea da, Oriyoko kostatik hasi ta Donosti aldea hasten zeanian, hor itsasgaiñian, han aitzen da, zea, txoiya. Nunbait hua lekua garbiyo da, o jendia ez du, ez da botatzen han zea, benenoikan o ixtorikan, ta han txoiya sentitzen da. Baiña hemen ezta... Saoi bateko kantik ez da aitzen.
- Lehen 'e eskopetak 'e bai gehio izango zian?
- Baiño, eskopetak ez ziñun... Zenbat tiatzen ziñun, ba? Txoi-txikiyai ez, kardintxulo batei. Birigarro bat arbolan puntan kantari ai baziñan, ez ziyozun tiratzen, aitzen gelditzen ziñan.
- Bai?
- Bai, bai, bai, bai. Horrek kontzientziko karga ematen zun harei tirua ematia! Hoixe!
- Zu fiña izango ziñan?
- Ez, ez, ez. Errespeto hori bazan ordun, e, bai.
- Bai?
- Bai.
- Uain baiño gehio?
- Udaberriyan ta, bedan kantatzen aitu ta, jarri ta aitzen eon, askotan. Bat baiño gehio, hamengo arbolak haundiyak dia, zuhaitz luzia, goi-goian jarri, puntan-puntan ta kantari, goiza, egunsentiya, jarri aitzea. Hori askotan. Harei tirua bota? Bueno, hoixe bakarrik behar deu! Ezta... Ez, ez, hola zan.

Ta ordun, birigarruai ta 're tirua gutxiyo iten zan. Eskopeta txikiyakin ingo ziyozun, baiña eskopeta haundiyakin behiñik behin urtian behin bukaeran, beda sartu baiño lehenoko egun batian o jutun ziñan birigarrota, bestela ez ziñan jutun. Garestiya zan, eskopeta haundiyakin birigarroa botatzeko, ta ez zan jutun.

2.54. Udaberrian kardantxuloak eta txokak harrapatzen ziren

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZAR-037/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
 - Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena:** Udaberri partean txoritarako afizioa izaten zen: kardantxiloak, eta abar. "Reklamo"arekin. Kardantxiloa eta txoka harrapatzen ziren gehien. Iñurritzatik kostarako bidean asko izaten zen.

Transkripzioa

- Eta lehen asko izaten zan hori?
- Lehen udaberriyan, betikua, aste santoko buelta bakaziyotan, danok txoita. Hor, hemen inguruko mendi guztiyak beteta eoten zian, zeakin, jarri arbol koskorak, bere kaiolak, jarri [pixka] bertan, ta hantxe goizian, egunsentiyan han. Hori... Geo asko galdu zan, baiña hasieran... Ta geo umiak, [...]saldu ta danetik.
- Bai?
- Bai, bai, bai, bai. Onenak, onenak...
- Etxe guztietan izango zan.
- Bai, onenak apartatu, bakoitzak beriak jarri reklamoako, ta hortik aurreakuak, kantatzen ez zuenak, saldu.
- Eta kardintxuloa beti.
- Bai, kadintxulua, txoka 're bai.
- Txoka 're bai.
- Txoka 're bai, eta taiña 're bai. Hiru habek zian hamen harrapatzen zianetatikan pixkat zea zuenak, joera zuenak. Berdel hoiek eta habek ya kapritxoko jendia izan behar zun, baiña hiru habek eozeiñetan. Ta taberna danetan jarrita eoten zian zintzilik, bai, onenak haiek dia, txoi danak, askosez fuertio kantatzen due.
- Tabernan?
- Bai, karo, bertako anbientia builla haundikua da, ta beak gehio kantatzen du. Harta ohitzen da. Baiña nabarmena, e!, bai. Txoka.
- Eta hau nun izaten zan, txoka ta harrapatzia? Hemen, e, inguruko...
- Danian?
- Danian, bai. Hamen, e, zeatikan, este... Iñurritzatik kosta nola jutun zea, horko emisaio horko bideko hortatik jutun bazea, uaindik kardintxuloak sentitzen dituzu hor udaberriyan, bertakuak. Txokak 'e bai bertan. Eta hor lehen izaten zan pepita hola, haziya bezela puntan zeakin, este, loria bezelako zea batekin, hua jatea. Pilla eoten zan. Bertan jarri puntan zea pixka-pixkat, txoka jarri reklamua, ta, ttak, bertan, bai. Osea, hau bertakua

da, kardintxulua 're bai. Ta kardintxulua uaiñ 'e bai, gutxi aitzen dezu oso. Baiño kardintxulua bai.

2.55. Lasterketetan parte hartzeko 'Frente de Juventudes'en baimena behar

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/019
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:31:22. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** 18-19 urterekin hasi zen kirola egiten. 11 lasterketa egin zituen bizikletarekin. Parte hartzeko zenbat ordiandu behar izaten zen. Horretaz aparte Frente de Juventudeseke baimen bat behar izaten zen.

Transkripzioa

- Ta deportian ta noiz hasi ziñan pixka bat?
- Deportian hemezortzi urtetik hemeretaira, hemeretzikin nik in nitun, karrerak in nitun.
- Bai, bizikleta karreraduna erosita, ez? Ze karrera edo nundik noa edo?
- Ba, hamaika uste det in nitula, hamaika karrera uste det in nitula.
Zarautzen bat, bi, hiru, Axkoitiyan, Donostiyan beste hiru, Oriyon beste bi, hor zan gutxi gorabehera, hor zan, hor zan.
- (Semea) Ordun federatzeko edo parte hartzeko ze eskatzen zuen?
- Hasiera-hasieran kuota bat, ez dakit bi peza o hiru paatzia dorsalan gasturako o horrela. Ta geo, ya Zarautzen korritu nuneako ta, bai, federaziyan ze behar izaten zan. Baiña iten zuen a punta pala, e! Meikuan zertifikauik eta [...], beno, "tienes que pagar veinticinco pesetas", hemen Zarautzen korritu nunian. "Tienes que pagar veinticinco pesetas" [...] sekretayuak. Hua eaman nun [...], "luego me mandas la fotografía y los nombres y tal, y ya, ya te cursaremos", ta uaindik ez da etorri bueltan hua.
- (S) Baiña nik zuri aituta Zirkulokuan o baimena o zeoze behar zala han...
- A, a, bai, bai, esaten dek este, prueba hartzeko izaten zan "Frente Juventudes"ko baimen bat behar izaten zan, hori ahaztu in zait, "Frente Juventudes"ko baimena. Ta hau esaten zuen "El corredor tal y cual, el atleta tal y cual ha salido por mediación de Frente de Juventudes", "claro, tenías que pasar por el aro". Estranjerira juteko pasaportia atako baldin bazan, "sección femenina"n eondakua behar zun neskak'e izan. Hortikan pasatakuan ordun ematen ziyoen. Baiño iten omen ziyoen kanastilla bat eiñ arazi, [...] izaten zan harako. Horrea etorri zan batian osaba Roman, siestan geundela, jai arratsalde batian. "Ze, nolaz etorri zea?", ta, "zea, gure nausi horren alaba Zarautzen dao zea hor iten eta haren billa etorri naiz, ya bukatu dula ta". "Nola?", ta, "eske, estranjeira juteko pasaportia ateatzea jun da, soltera daolako ta abar, eta esan diyoe que tiene que pasar por un centro [...]. Hortik pasa ta geo kanastilla bat [...], beak jakingo du harekin ze in", ta horrela gauzak. Norma batzuk zeuzkaten.

2.56. Txirrindularitzarako zaletasuna; lasterketak

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/024
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:38:24. **Bukatu:** 00:41:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Bizikletan nahiko ondo ibiltzen zen; etxean utzi izan baliote jarraituko zukeen. 11 lasterketatatik lau irabazi zituen. Baserrian lan egin ondoren joaten zen lasterketara. Lasterketen baldintzak eta sariak. Lasterketa amerikarra (zirkuitoa).

Transkripzioa

- Bestela, afiziyuak eta, ordun hasi hartzen bizikletana ta, ordun, ez? Hemeretzi urtekin...
- Bai, bai. Batea juten ta bestea juten... Geo gertatzen da, gertatu zitzaiten nei, bost, sei ibiltzen giñan kuadrillan. Ta, "noa-noa jun bihar diyau!", ta juten hasi ta, veinte leguas motx, atzian ikusten nitun, atzian, ta. Nola esatea beti, beti, ta erraxtu, erraxtu. Ta horrek sartu iten dizu zea hori, "banauk hoyek aiña, banauk hoyek aiña".
- Harra!
- Bai, bai. Ta etxian nahi izan balie, segiko nun. Anayak ordia, bai, "joe, han haon denboan ez dek iten ezer itxian ta, basarriyan in behar dekela lana". Hamaika karrera korritu ta lau irabazi nitun.
- Kontxo!
- Eta... hor ibiltzen nitzan, hor ibiltzen nitzan. Figura ez nitzan izango, baiño hor ibiltzen nitzan.
- Ze karrera irabazi zendun, ba?
- Zarautzen bi, Axkoitiyan bat eta... bi esan det, hiru Zarautzen, hiru Zarautzen, bai. San Pelayotakua, eliminatoya amerikana ta zeana, San Antoniyona, hiru hoyek. Ta bestia Axkoitikua, ta Axkoitikua iteko in nun goizian bostetan jaiki, "dieciocho de Julio", astelehena, bezpera jaya, hamabitan oheratu. Goizian bostetan jaiki, bi ordu belarra ebakitzen jardun, morroya ta biyok, morroi bat bagenun ordun. Etxea etorri, gosald, Axkoitira jun bizikletan, karrera irabazi, ta geo arratsaldeko hirutan etxea [...] sobrautako babarrunak jatea.
- Zenbat kilometroko zea izaten zan, karrera?
- Ordun... hemen Zarautzen genduna berrogeiko hori zan, berrogei kilometro inguru hori, ba, karrera koskorra izaten zan.
- Ta premiyua ta?
- Premiyua? Bost durokon bat, kopa ta beste... Koñak botilla bat eta korbata ta [...], ta.
- Koñaka? Deportista...
- Koñak botilla.
- Deportistantzat?
- Klaro, eske iten zuen besamanosa zea ta, tabernantzat bialtzen zuen hori organizatzeko ta. Ta klaro, ematen zuena, ematen zuena zabaltzen zan. Klaro.
- Soberano izango zan ordun, Soberano?
- Ez dakit, ya ez dakat hainbesteko...
- "Cosa de hombres".

- Bai, bai. Geo amerikana irabazi nunian'e hamabost duro, udaletxiak organizatzen zun, hamabost duro. Ta aurrenengo urtian in nitun premiyo, sari ta zea hoyek, bestia Ataunen hirugarren in nunakin ta abar, ba, bizikleta paatzeko lain ni nun aurrenengo urte hartan, bizikleta paatzeko laiña.

- Kontxo!

- Amerikana zeba deitzen zitzayon? Amerikana esan dezu, karrera?

- Bai, amerikanua izaten da buelta bakoitzian bat edo bi eliminatuaz.

- A, a, a! Hori da, hola da... A, bale, bale...

- Izen hori ibiltzen zayo... Bueltaka hasten zea zirkuituan ta azkeneko biyak kalea, azkenengo hiru bueltetan eo geatzen dian bost o sei hoyek espriña arte. Hori da, galdera ondo...

- Bai, bai, bai, bai...

- Sistema amerikano horrei deitzen zayo.

- Eta ze, zirkuitua zein izaten zan?

- Zarautzen zan Parrokiko hortatikan San Pelayoko surtidoria daoneko hortaiño. Bastante luzia da, hiru bat kilometron bueltan, [...], holako zean bat.

2.57. Bizikletan entrenatzeko astirik ere ez

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/028
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:47:34. **Bukatu:** 00:48:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Bizikletan ibiltzeko astirik ez zuen izaten; igande arratsaldean entrenatzen zen. Botikan saltzen zen masajeak emateko likido bat, olio, ozipina eta arrautzarekin egina.

Transkripzioa

- Eta nola uztartzen zendun hainbeste ordu lana in ta gero bizikletan ibiltzia ta hori?

- Ez nitzan ibiltzen bizikletan! Korritu behar zanen korritzea jun ta entrenamentua. Jai arratsaldian iten nun entrenamentua, jai arratsaldeko entrenamentua. Astian zenbat aldiz ibili oten nitzan ni... Karrera zan aurreko astian hortxe bi aldiz o ibiltzen banitzan o bi astetan bi [...] horrela o... Baiña gaiñuntzian lanian hala ibillita, eta grasa sobra haundiikan gabe, ta goortua, zaildua. Ez noski behar bezela bere belaunak eta gaiñuntzekuak eiñak, baiña petxuak eta jarrita bai.

- Ordun entrenamentuik eta masajiak eta holako kontuik?

- Masajiak? A bai, ze ibiltzen gendun hasteakon ta, "[Embrogación] Hércules", bai, "[Embrogación] Hércules, era una mezcla de huevo, aceite y vinagre debía de ser...". Baiña botikan saltzen zan, e!, "[Embrogación] Hércules", zea, esnia bezelako hori bat zan, ta "zertako?", [...]. Uain ez da ematen hori, e! Bestelako beroketak iten dia, baiño hori ez due gehio ematen.

2.58. Txirrindularien baldintzak; janzkera, ekipak...

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/029
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:48:36. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Txirrindulari taldeak baziren, baina bera bakarka ibiltzen zen. Taldeek ez zuten ordaintzen hasieretan. Lasterketa gogorrenak Arratera edo Arantzazura igoerak. Bakoitza ahal zuen moduan janzten zen. Propaganda eramanez gero, antolaketakoei ordaindu behar zitzaien.

Transkripzioa

- Eta bizikletan nola ibiltzen ziñan? Ekipotan? Ala bakarka? Edo...
- Ni bakarka ibiltzen nitzan, bakarka. Ordun ekipuak eo, puntan-puntan zeudenak ere ekipuak zeuzkaten, ta. Michelinen ekipuan korritzen zuenak'e uste det izaten zuela desplazamentutako kostia eta tubularrak kamixeta hua eramateatikan. "De leandra nada". Ta hemen Cruz Ganzarain zan andoaindarra pixkat [...] destakutzen zana, ta hua Frantziko ekipo batea jun zan ta hemen ezer ez zeola. Geo hasi zan paatzen ta ziklismua, artian ez zan paatzen.
- Ze karrera hola ezautzen dezu goorra izena edo?
- "A nivel nacional" osea da?
- Ez, ez...
- Ordun, "Subida a Arrate" bat izaten zan. "Subida a Aránzazu" re bai, oain ez da iten hori. Ta "Subida a Aránzazu" nik hemeretzi urte nitunian Frantzitikan lau korredore etorri zian ta zan hurrengo urtian Tourra irabazi zuna, Jean Robic, hori zan bat. Ta geo munduko txapeldun ziklikrosian'e izan zan: Robic, Romeu, Brûlé, [...], lau hoyek etorri zian handikan. Ta ordun Arantzazukua oso zea zan, ospetsua zan. Bestia Arratekua hori zan, [...]. Geo, lehen-lehen, gerra aurretikan "Vuelta al País Vasco" izan behar zun, baiño urte hayetan ez zan eon, geo hasi zan hori're, geo hasi zan.
- Ta hori, jantzi ta, nola jazten ziñaten?
- Bakoitzak ahal zun bezela. Nik fuboleko kamixeta eamaten nun ta galtzak beste laun batek laga zixkialako, nere mallota ta zea hua zan. Eta eamaten bazendun propagandako bat, "tenías que pagar a la organización por hacer propaganda".
- Kontxo!
- Zuk paatu!
- "Sí, sí, sí".
- Norbeak paatu behar, e.
- Norbeak paatu behar. "No, no", "¿Usted qué camiseta lleva?", "No, no, no lleva ningún esto", "Ah, vale, vale". "Usted, pues tal... ah! Cinco pesetas", jo!!
- Ta pintxazoik izan ezkeo, bakarka junda, ze?
- Ahal zunak ahal zuna in behar! Bai, bai. Hola ekipoko lagunak eta horrela ta, ta ez zan ez holako... Batzuekin o bestiakin konfiantza bai, ta "hi, pixkat zeatu dik", eta horrela, baiña bestela...
- Ordun tubularra ta herramientak eta gaiñian eaman behar!

- Eaman in behar! Lehen-lehenokuak izaten zian, ba, hola, bizkarren sartu doblatuta ta, hala ez, baiña atzian lotuta eamaten gendun.

2.59. Garaiko txirrindulari onenak

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/030
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:52:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Orduko txirrindulari onenak: Elgezabal, Loroño, Bidaurreta... Bidaurreta anaiak nafarrak ziren. Txirrindulari asko ez ziren horretara dedikatzen. Expositok, esaterako, tailerrean lan egin eta baserria ere eramaten zuen. Atzerritarrak.

Transkripzioa

- Ze korredore izan dezu garai hartako buruan edo? Zure, zera, maitatuena, edo?

- Bueno, ordun onentxona espriñan Cruz Ganzarain hori zan. Geo Oscar Elgezabal, Loroño bat. Ta Bidaurreta, naparrak zian hoyek, hiru anayak Bidaurretak. Hoyek prepaatu iten zian hoyek, prepaatu iten zian. Ta bestiak mitxelenatarrak. Bi anayak ta lehengusua. Bi anai hoyek [...] Españako txapeldun biyak izan zian ziklokrosian, ta nahiko, nahiko [...], bestiak baiño gehixio prepaatuak zian. Eta Bidaurreta hoyetakua zaharra [...] Felix, astegunian hemen tarteka-tarteka pasaran ikusten zan. Panplonan hasiko zan, baiño taka-taka-taka-taka honea buelta iten, ta. Garai hartan besteik ez zan ibiltzen. Exposito bat'e ibiltzen zan hortan. Acerosen lana in, Basarriyan seme bakarra zan, ta itxian morroi batekin ta andriakin ta ahal zuen bezela basarriya eaman, ta afiziyua, ta, tarteka ibili ta ez zan hola, hortako eksklusibo oain daben bezela, meikuakin ta hola ta hola... "brillaba por su ausencia".

- Bestela, estranjerikoik o hola? Ze korredore zeon ordun?

- Zea, Bartali ta Copi, hoyek zian hortan, Bartali ta Copi zian. Geo izan dia, ba, [...] ta beste zea hoyek, baiña garai hartan Bartali ta Copi.

2.60. Santa Marinako jaiak

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Martija, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-049/025
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:50:19. **Bukatu:** 00:52:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Santa Marinako jaiak urteko onenak zirela dio. Hauen antolaketaz hitz egiten du. Bere aitona eta osabak hartu zuten parte

Santa Marinako ermitaren eraikuntzan hargin lanetan. Berezia da berarentzat.

Transkripzioa

-Santa Marinako festak, zuek Santa Marina ingurukuak zeate ezta?

-Bai, urteko festaik earrenak.

-Bai, ezta?

-Kristonak, baiño guretzako zian, de dios, kristonak. Eta gauza bat esan ber da e, hor bi-hiru familik eukiko due merito bat, konserbatzeko oain arte. Porke oaindikan bakizu, udaran sarrera Santa Marinako festak dia. Baiño Santa Marinako festak lehen zian, erderaz, “la casa por la ventana”. Nik uste det familiya pilla batek urte guztiyan aurrezten zun dana hor gastatzen zula. Bueno baiño hor zauden, karo hor gerran bukaeran “la voz cantante”, ba eramaten zuen “la carlistada”, gure etxeukuak e bai hola zian e osea ke, hor ez deu ezer esango: Kapaxkuak, Agirrezabalaga, Manuel Marinekuak, Aranburus, Joxe de Benito ta konpaiñiya, Patxi pelukerua-barberua, instituziyo bat izan zan hor, instituziyo bat! Eta hoiek festa hori zaindu zuten baiña... baiño, baiño izugarri, izugarri e. Ta ni akordatze naiz beak zian Manuel Marinekuak ta Kapaxkuak eta zian garai hortako guretzat gigantiak “uno ochenta y seis, uno ochenta y ocho”ko mutillak. Garai hortan ba ni “uno setenta y siete” naiz, ba bueno. Eta hoiek jazten zian pailazo ta jazten zian danetik ta iten zian festak, baiño ikusgarriyak e! Ta oain noizian behin esaten dezu “ze festa politak in dituen, lokotxak-ta dena jarri ditue”, ba Santa Marinan korrika in ta premiyo bat etxea eramatia zan... “dios! La de dios” e! Bua, bua, ez ez oso barriyo atsegiña izan da guretzako, sentido guztitan. Ta geo gañea badaka konotaziyo bat. Gure aitona, nik ez nun ezautu, ta nere osaba gerran hil zana zian hargiñak, eta Santa Marinako ermita in zuen, beran taldian in zun, harri lanian. Eta gu beti konsideratu gea Santa Marinakuak. Klaro, nik lehengo baten esaten nion, Mirenei esaten nion bezela, guk oso ondo manejatzen gendun “los tempos” esaten dan bezela, nahi gendunian giñan baserritarrak ta nahi gendunian giñan kalekuak. Baiño kalia, kalia nahiko gaixki pasatzen gendun, burla ta zea asko.

2.61. Kirola lehen eta orain

- **Hizlaria(k)**: Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Loidi Udabe, Aitor
- **Erref**: ZAR-101/006
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:03:43. **Bukatu**: 00:05:59
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Loidi Udabe, Aitor
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kirola » Pilota
 - Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
 - Aisia » Kirola » Herri-kirolak
 - Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Lehen pilota eta apustuak izaten ziren asko: dema, korrika-apustuak... Orain lehen baino kirol gehiago daude. Apustu bati buruzko anekdota kontatzen du. Orain apustuak ez dira egiten ia. Gehienbat pilotan ibiltzen zen bera. Atletismorako zaletasuna ere bazegoen Zarautzen.

Transkripzioa

- Ba orduan kirola pelota zan asko, ta apustua're asko izaten zen proba o dema deitzen zakon hori. Ta gaiñontzian korrika apostuak Zarautzik Aya, ta holakuak izaten zian. Geo, ba, fubola're bazan puskat, baiño oain aiña ez. Ta oain kirol geyo daude orduan baiño: eskubaloia ta abar. Donostitik Aya apustu bat jokatu zan zelebria, zeako, Elkanoko Lertxundikua ta Kantabriko zana: loriya zan oso Kantabrikua, ta in ber zun Lertxundik biyak pixatu, ta Kantabrikon pixua hartu ber zun, bizkarren, o plomuz o abar. Ta jokatu zen Zarautzik Getaya, ta irabazten zijuala ya aillegatuan, gaizkitu zan Lertxundi ta iya hillen hortxe eon zan. Ta galdu ein zun apostua, irabazi ber zun apustua, presaka hasi zalako. Ta gaiñontzian, demak eta're izaten zian orduan, puntu noizbait orain koperatibako plazako onduan hor: frontoia, ta dema plaza, ta korrika apostuak, ta itxuli-bueltaka ta... Hola iten zian deportiak orduan, orain diferentia. Oain ez deu, ahitu zan dema, Zarauzkua behintzat. Orain beste herritan egiten de, baiño hemen ez da egiten. Ta apustuk'e, korrika apustuk ta hoyek'e bukatu zian.

- Zein kirol ziren gehienbat egiten zenituenak?

- Ordura? Ba, pelota eiten zan orduan geyena, frontoian ez zan tokiya eoten, danak elkarren txandan zai eoten giñen. Pelota geyena, lehen esan deten bezela. Ta gaiñontzian, korrika apustua, ta bueno, korrika legian hor ibiltzen zan, Zarautzen atletismoan'e bazan gogo pixkat.

2.62. Donostiako estropadak eta estropada-bertsoak

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Roteta, Balero
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Mari Carmen
- **Erref**: ZAR-106/005
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:05:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Etxabe, Mari Carmen
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kirola » Arrauna
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Lehen, iraileko lehenengo bi igandeetan estropada ezagunak izaten ziren Donostian. Zarautzik ere behin joan zen trainerua hara. Orduan gertatutakoa bertso baten bidez kontatzen du. Estropada-bertsoak abesten zituen gizonari buruz hitz egiten du. Gizon hark abestutako beste bi bertso abesten ditu.

Transkripzioa

Ba, garai hartan, setienbrian lehenengo bi jaitan, estropak izaten zian Donostiyan oso sonatuak. Eta urte batian, hamabostian oker haundik gabe, Zarautzik'e triñerua jutia deziditu zuen. Ta osatu zian zazpi triñero: Getaritik bi, ta "ya que" bi zijuazten, triñeruari izenak jarri xixkoen, Elkanok ta Golondrina; bi Pasayatikan, San Pedro ta San Juan; Donostiya; Orio; ta Zarautza. Ha hor zian zazpi triñeruak. Eta jokatu, ta bertsuan esango det zein nola etorri zian:

Lendabiziko Oriyo eta
Donostiya bigarrena
Hirugarrenengo Getari Elkanok
Zarauztarra laugarrena
Bosgarrengua Pasai San Pedro

Golondrina seigarrena
Azkenengua Pasai San Juan
Hori da zazpigarrena.

Estropa bertso hoyek dozena bat bertsokin hola osatzen zitun, eta etortzen zan Oriyotikan koroko abeslai bat izugarri earki abestea bertso hoyek. Eta estropetako bertso hoyek bezelaxen, ondorengo neska zar batenak igual ekartzen zitun Oriyotikan bertsolai horrek. Eta haek dia bi bertso goatzen zaixkitenak neska zar hoyenak. Holaxen:

Neska zar bat tentatzen hasi naiz lenguan
Umil eta seriyo hitz egin genduan
Izan ere, halako polita zeguan,
Baiña gusto guztiyak ez ziran munduan.

Hixketan hasi giñan biyok goxo-goxo
Ezkontzeko mandatua egin niyon atzo
Leyotikan ujuka ama ta bi atso
Ez dek harrapatuko uste bezin mantso.

2.63. Zarautzen izandako bertso-txapelketa

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Roteta, Balero
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Mari Carmen
- **Erref**: ZAR-106/006
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:08:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Etxabe, Mari Carmen
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Zarautzen behin bertso-txapelketa bat antolatu zuten, eta hainbat bertsolari ekarri zituzten. Oso zaila zen erabakitzea nork irabazi behar zuen, eta azken proban botatako bertsoak abesten ditu.

Transkripzioa

Garai hartan, bertso kontuak indar haundiya zakan, eta pentsatu due txapelketa bat jartzia. Bi bertsolai ekarri onentsuenak Irungo frontieraz hausko aldetik, euskaldun frantsesak: bat Baionatik eta bestia San Juan de Lutzik. Eta hemendikan jarri ditue Txirrita eta Udarregi; eta jarri, hasi dia bertsotan; eta batek bota, bestiak bota, izugarri luze erabaki eziñikan zein onena. Ta deitu diyoe alkarrekin lau bertsolayak ta jurauak, ta erabaki dute bertso banatan eitia azkenengua. Pareja bakoitzak bertso bat bota, ta bota moneda “cara y cruz”, asmatzen dunak deziditu zeñiek lenbiziko bota. Bota due, ta asmatu due hemenguak, eta esan diyoe “bota dezala, ba, Frantzi aldekuak bertsa. Ta honela ziyon frantses horrek:

Hiru ta bi bost dira, bost eta bi zazpi,
hoyek hola dirala ez gabiltza gaxki,
festa bat egiteko, bertsuetan hasi,
Frantzitik etorri eta frantsesak nagusi.

Ta txaloka jendia, ta oso animatua, ta “eon lasai, horrek’e izango du erantzuna ta”, Udarregi horrek. Eta honela diyo Udarregik:

Entendimentu ederra daukat
Jaunari ondo kostia
Honek diyonez Frantziyan ere
Hiru eta bi bost dia.
Bat torri zaigu San Juan de Lutzik
Bayonatikan bestia
Mundu hontako frantses guztiyak
Gaur ni hainbeste ez dia.

2.64. Aristokrazia Zarautzen

- **Hizlaria(k)**: Elozegi, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Erref**: ZAR-108/008
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:07:38. **Bukatu**: 00:08:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Udatiar asko etortzen ziren, eta aristokraziakoak izaten ziren. Fabiola eta hainbat kondesa ezagutu zituen.

Transkripzioa

- Beraneante jende asko etortzen al zen honea?
- Askok. Ta etortzen zan, gaitzez, "aristokraziya" etortzen zan. Ta ematen zun, ba, kosta hayena zala.
- Ezagutu al... Pertsona pertsona pertsona inportanten bat ezautu al zenun?
- Baaai, geo, yxikitan ez e? Txikitan ez giatzen ezautzen, baiio geo nola pelukera izan nitzan, ba, jende askoekin zeatu nitzan.
- Adibidez esango al zenuke bat?
- Ba, esango nizuke bat, orrazten nitunak gaitzez: bat, Fabiola.
- Zer zan hori erregia?
- Oain erregia daona Belgikan eta bere ahizpak. Geo nik ez dakit ba, bestiak'e bazian, danak titulodunak zian: "La Marquesa de Farco" eta beste bat, esango nizuke, " la de Condesa de Montellano", bakizu, ez naiz akordatzen asko, baiio...
- Fama haundia al zenuen pelukera bezela herrian?
- Ez, ez, korriente, korriente, baiio jende haundiya orrazten nun e? Jende haundiya, baiio ez!

2.65. Hondartzako aldagelak

- **Hizlaria(k)**: Epelde Etxabe, Inoxenxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Loiola Harizti, Agurtzane
- **Erref**: ZAR-111/004
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:04:44. **Bukatu**: 00:07:19
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Loiola Harizti, Agurtzane

- **Gaia(k):**

Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

- **Laburpena:** Hondartzako aldagelei buruz hitz egiten dute, eta nola jasotzen zituzten marea igotzen zenean.

Transkripzioa

- (M) Ba, kaxeta habek, bakizue, kaxeta habek, ba, urertzeaiño juten zian maria bihian zeonian, noski, ba, beheraiño...
- (I) Bultza ezkeo...!
- (M) Eta maria goya gora zetorren bezela, kaxetak'e jaso iten zian gora, jaso iten zian, eta zituen pirrillak eo erruedak...
- (P) Errueda astun batzuek...
- (M) Astun batzuek, zabalak, hondarrian ez sartzeko egurrakin iñak, ba, zabalak...
- (P) Beinte zabaleko o hola...
- (M) Ba, horrelako zabalak bai, horrenbesteaiño, beinteiño ez zian izango beiñepin han nunbait; eta, ba, hayek, ba, goraiño jasotzen zian; eta baita maria goratzen zanian arranpalak bazebe, eta goiko malekoia deitzen zakon koxka horrei. Uain malekoi ederra dakau guk, orduan ez bezelakua, zeatik ordutikan asko zabaldu da, asko...! Baiño gora jasotzen zian hayek...
- (I) Itxasuak agintzen zunian!
- (M) Eaa... hori dek arrazoya!
- (I) Itxasuak agintzen zunian, zergatik itxasua arratsaldian, hi! Paeteaiño juxtu-juxtu aillatuko baldin bada, eta bitartian edo ekarri in baldin baik, haunditu in baldin badu, itxasua kaskartu in baldin badu, gaiña juten zan, eta guk... zeara... kaxetak goruo.
- (E) Arranpan behetik gora're Bixkonde kaleaiño.
- (I) Bai, iya zearaiño...
- (P) Arranpala behetik gora.
- (E) Bixkonde kaleaiño [...].
- (I) Altunaneke dendaiño iya.
- (M) Gaiña hori bakarrik ez... Oso detaille polita zan, kaxetak'e pintatuta zeuen, been koloriak zituen baiñeruak, been bandera balue bezela...
- (I) Bakoitzak bere koloria!
- (M) Bakoitzak bere koloria: Paulinonak zuen zuriya, ta...
- (P, E) Horiya, horiya ez al zan ba!
- (M) Horiya ta gorriya al zuen hayek? [...] gorriya. Ba! Ez naiz goatzen oain ondo detaille hori, baiño Txilikunekuak zuen txuriya ta urdiña,
- (I) Urdiña.
- (M) Eta...
- (P) Paxkualitak'e baetz uste det.
- (M) Paxkualita baiño lenuo dao Etxabe. Zuenak Etxabe hituan!
- (I) Epelde Etxabe, bai... Balentin Etxabe.
- (M) Bai, Etxabenekuak ze kolore zuen...
- (E) Berdia, orlegi, zea, orlegiya! Orlegiya, berdía!
- (I) Berdia, bai! Baiña geo panelak, ordia, horrelakuak o, zuriyak...
- (M) Noski, panelak zuriyak eta...
- (I) Armazoia berdía.
- (M) Eta Paxkualitanak'e bazuen, ba, been koloria...
- (Denak) Urdiña! Urdiña zuen hayek!
- (M) Urdiña, berriz, hayek! Aitu al dezu e?

2.66. Udatiarrak eta haientzako zerbitzuak

- **Hizlaria(k):** Epelde Etxabe, Inoxenxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Loiola Harizti, Agurtzane
- **Erref:** ZAR-111/006
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Loiola Harizti, Agurtzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Oporrak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena:** Udatiarrak iristen zirenean, herritarrek borrokan aritzen ziren udatiarrak haien etxeetara joan zitezten. Getariara bidean zeuden "Baños Calientesei" buruz hitz egiten du. "La Perlak" ere nola funtzionatzen zuen azaltzen dute.

Transkripzioa

- (E) Hayek juten hituan estaziyoa, beraneantiak bazitxakiyen, bakoitzak bazitxakiyen zein famili eta noa... Itxiak geyenak beak alkilatzen ziyen hayek... alkilatu beak! Eta hayek bazitxakiyen noiz etorriko zan, ta zein pamili ta dana. Eta ertetzen zian, estaziyuan eoten zian baiñerak beti, e? Eta jeixten zan maletakin, ta han bat lotzagabe samarra zan, zea hori, este, Paxkualita, Joxe Mari...
- (I) Lotzabiena!
- (E) Lotzabia. Eta beria izan ez hartzen... "Hi! Hori neria dek!", eta bestiak eta han dia, zea, etortzen zana bean hanka onduan gelditzen huan, tente gelditzen huan, ze arrayo ote zan; bestiak erdi burrukan hantxe biyak, bata tira ta bestiak tiraka maletai, ta hola! Askotan.
- (M) Ba, Zarautzen garai hartan bazian, ba, "Baños calientes y duchas" ta, eta jendia kanpotik eta etortzen zan, itsasoko ur berua baizan; eta hor, Getai bidian, "Baños calientes" xemenekua...
- (P) Patxi, Patxi Xeme...
- (M) Xemenekua zan, Inoxenxio uste det zala. Inoxenxio, bai.
- (I) Han'e bahuan Inoxenxio ta...
- (M) Aita, aita, aita ta ama... Ba, han, itxe hartan ura jasotzen zuen bonbakin, eskuz jasotzen zuen, bonbakin ura gora. Ta goyan, ba, bazeuzken bere kalderak eta ura berotzeko; eta hantxe, hiru, hiru kuarto, hiru kuarto zeuzken been baiñerakin. Ta hara juten zan jendia, "Baños calientes" hoyek hartzea,
- (I) Reuma zakaelako.
- (M) Reuma o zea zakaela ta, meikuak eta aginduta, ta...
- (P) Kanpotik etortzen zala jendia.
- (M) Geo, La Perlan'e bazan beste bat; eta hayek ura jasotzeko, kostan erdiyan han zeuken alkatxofa bat, osea, nola esango det, ba? Ba, ura hartzeko ta maria goyan zanian betetzen zan deposito bat, La Perlan, La Perlan bazuen han hondar baztarrian deposito haundi bat; eta hura betetzen zan urez maria goyan zanian. Eta geo jasotzen zuen ura, ur hura jasotzen zuen gora, berotu, ta "Baños calientes de agua de mar", e? Ba al dakizu?

2.67. Igandetan zinera

- **Hizlaria(k):** Agirresarobe, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aldaz Odriozola, Maider
- **Erref:** ZAR-113/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:01:54. **Bukatu:** 00:02:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aldaz Odriozola, Maider
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Lehen igandetan zinera joaten ziren, baina ez ezkondu baino lehenago.

Transkripzioa

- Eta leno hola igandetan ta kanpoa ertetzen al ziñazten?
- Igandian? Igandian juten giñan zazpi perro txiki baliyo zitun pelikulak Zarautzen, eta juten giñan jaitan zinea. Baiña ezkondu baiño leno ez. Orduan ez giñakagun diruikan ta, ez giñan juten zinea. Geo, ezkondu ta mutil txikiyak hazi zianian, pues, ordun juten giñan. Zazpi perro txiki baliyo zun pelikulako entradak; Otamendinea juten giñan, eta beste kafia ta esne pixkat hartzen gendun han; eta ordun, zinea. Zinetikan erten, eta itxea, baiña behiñe're ez giñan jun gabekoa, behiñe behiñe're ez. Beti boste t'erditakoa, itxea goizo etortzen zan ta.

2.68. Festak lehen eta orain

- **Hizlaria(k):** Agirresarobe, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aldaz Odriozola, Maider
- **Erref:** ZAR-113/004
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aldaz Odriozola, Maider
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Lehen festetan dantza egiten zuten. Ohiturak galdu baino, irabazi egin dira. Beren garaian, herriko banda zegoen, eta denak joaten ziren hara, dantza egitera. Orain, ordea, beste herrietara joaten dira gazteak dantza egitera.

Transkripzioa

- (Elkarrizketatzailea) Lehen zer-nolako gauzak egiten zenituzten festetan?
- (Pakita) Festetan? Pues, ze ingo gendun? Dantzan, ttunttuna jotzen zuen ta dantzan iten gendun.
- (Iaguna 1) Sano-sano.
- (Pakita) Bai, hoixe, besuak zabalduta.
- (elkarrizketatzailea) Ze ohitura zeuden leno oain galdu dianak?
- (Pakita) Galdu, oain, oain galdu ez; oain irabazi in dia ohiturak, dantzak oain... Leno ez zeon zeaikan, ene itxiturako zea dantzak eta hoyek, eta erbestea jun, ta holakoikan. Han herriyan iten zan, ta ttunttuna jotzen

plazan, ta musika... guk banda earra giñakaun geure denboran. Aiuntamientuan banda, bueno, sesenta, hirurogeitaka zea zian ta. Ordun banda ederra eta zenbat dantza, eta gaiñez ordun herriko jende dan-dana juten giñan, bai. Ni akordatzen naizena da mutil txikiyakin, Banko Gipuzkoanoko leyuan gaiñian jarri tente mutil txikiya, eta gu eoten giñan zeai beira, musikai ta beira.

- (laguna 1) Hantxe danak, danak dantzan.
- (Pakita) Baiña kabitu eziñik, kabitu eziñik, hainbeste jende gau batez!
- (laguna 1) Saka, ta saka, ta saka, ta saka, ta segi.
- (Pakita) Bai, ta gaur, ordia, dana Hernanira. Han daola Uxalume, han daola ez dakit ze, eta gazte guztiya ta gustu guztiya hoyeta dijoa. Itxitako zeara... Ederki. Geyo!

2.69. Aldaketak Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref:** ZAR-114/012
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Gaia(k):**
Aisia » Oporrak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Zarautzera lehen aristokrazia etortzen zen udan, eta haien izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Leno Zarautz nolakoa zen?
- A, Zarautz, esango dizut: hor dakazu gaya, ba: Zarautzek zian, orduan etortzen zian honea zenbat, ba? Berrehun bat dukiak eta markesak; eta hayek hayek gobernatzen zuen Zarauzko herriya. Zauzko herria zan Mendilla Paerna, duke Aginaga (terreno haben jabia) ta “marqués de Cortina”, Flores, kondesa Luis, Lesera, [...]. Hoyek zian, hoyek zian Madriko jende haundiyak zian, gobernadoriak zian, baiña [...] etortzen zian orduan, zea, beraneatzea Zauzko herrira etortzen zian.

2.70. Herriaren merkataritza- eta aisialdi-antolaketa

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Artetxe, Pedro Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria Eizagirre, Imanol
- **Erref:** ZAR-115/009
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:10:31. **Bukatu:** 00:15:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Eizagirre, Imanol
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena:** Zarautzen lehen dolare bat zegoen, eta gerora leku horretan sagardotegi bat jarri zuten. Zarautzen egon zen beste sutegei

bat ere aipatzen du. Leku horretan zeuden denda gehiago aipatzen ditu. Herriaren antolaketari buruz hitz egiten du. Frontoia egin zenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

Konpaziyo bateako, Santa Mariña kalia, Xoaxolanian, tolaria eoten zan, eta geo tabernak jarri zian. Tolaria izan zan lenbizi; beyakin etortzen Soasolatik. Soasolanekok noiz etorri zian akordatzan naiz ni: Andrexek’e ni baiño bi urte geyo ditu, ta nik hamarren bat urte, horrek hamabin bat urte o hola etortzen hoyek Saasolatik. Ta oain larogeita... larogeita bat dauzka Andrexek, larogeita bat, bigarrena [...], bi ingo ditu oain gaiña. Ta hoyek Soasolatik etorri zian, eta geo sagardoteya , ta geo taberna hori ta geo jarri zituen. Baiña beyak eta zazkala saardoteya eukitzen zuen hoyek. Hoyek istoriya. Zeak’e bai euki zun herreroteya, Antxuarrein etxia bakizu zein dan, Barrentzonen parian, Joxe Juakiñ eo Antxon txoferra nola zan? Harek euki zun, herreroteya euki zun, suteya harrek euki zun. Ta hoyek hortako sutei txiki bat eo etxe koxkor bat, eo azpiko suteiya. Geo tarte hortan, tarte hortan leno ez zan ezer’e esateko. Esan dizut, ba, hermanuak nola billatu eziñik? Zuen osabak eta nola daue? Hoyek, hoyen toki hori dana hermanua zan dana hori Xipriñena ta aurreko hortako Zigordi kaleko dana, esateko. Ta geo sartu zien hor taillerrak iten zuen osabak eta zea hoyek, Arruti Arrutitarrak, zea, Xiriakonekuak eta Pepe Kaxinto, eo hola; ez banao oker izango o, Miel Kaxinto zan mutil zar horren anaya, ta hoyek zian horkuak dana ziharo. [...] Ta hoyek in zituen geo zeak’e bai, han daka oaiñ’e garajia, Illarramendik, Altxolanekua dan horrek, Moesto Illarramendik’e. Ta hoyek danak hor balantza hortan iñak daue, oain dala hirurogei urte eo lentxuo, eo danak tankera hortakuak dia. Zea’re bai, hoyek zea eukitzen due, pintura eo ze eukitzen due? Baxarri esaten ziyuen, ba, Loiola, Loiola, hoyek’e bai, ta hoyek danak dia hor hirurogei urte pasatako o horko balantzako lanak danak dia hoik danak ziharo. Geo, dana ez dizut kontatu, ez, egiya esan, ta oaindikan’e badazkau. Hoyek baiño lenagotik, aurretik in zuen Errustaneko frontoia, Frontoi Noizpait. Hori zean zeon, Errekondoneko denda nola? Haren parian entrada zun, barrua sartzan zan. Koperatibako etxia nola dao? Ilario haundiyak indakua nola dao lenbiziko hori? Horren atzetik, hori horren atzetik Frontoi Noizpaitera sarrera zan. Frontoi libria zan e? Tapatu [...], Frontoi Noizpait. Geo dema-plaza ta danak zitun harek, Erraustatarrak in zuen hura, Frontoi Noizpait, bai, bai, Frontoi Noizpait eiten zuen [...]. Geo hau modernua, hau gero in zan. Hau gure etxia ta in ta geoxiokua da; ziharo urte juxturik ez dakit, baiña hau, behar baldin bada, izango dia nik itxia in zanen, hori in zanen, hamasei urte eukiko nitun. Oain larogeigarrenian ta, ba, in zazu kontua “mil novecientas veinticuatron” iña, ta, ba, hamabostetik hamaseira, o hamasei urteko balantzaz neon. Frontoi hau geoxio inda da, baiña frontoia ein zala’re egizu kontua, ba, hortxe, hirurogei urteko balantza ber du; ta hor jarriya euki ber de estadistika, jarriya zeola aitu nun, baiña ez diyot behiñ’e kasuik ez diyot hartu, horrenbeste [...] ez diyot hartu. Herriyan hoyek danak holaxe zian, ta frontoia ordun hua in zanen, gauza ikaragarriya uste genun, ta geo hua kaka zarra baiño okerro. Bestia itxi’re in zan, frontoya, zea, modernua; hau modernua da, hura Noizpait zan neomoderno: frantsesak in zun haren hargintzan, ta akordatzan naiz hori. Geo soziedantiak izan prantseza bea, ta Ulazia nola, zea, igeltserua? Eoten zian Nikolas ta Baiñi Motza, ta Kajutei ta hoyek danak barruan ziala zan hor,

Linterneo Txikiyak aurreko puntan, Linterneo Txikiyan zarran anaya zan hor diruduna: Tolosan zan, oain Ameriketan ta izandakua. Ta hua izango zan potentia, noski, ta orduan in zan frontoi hori. Hoyek danak [...], beste gaiñuntzen hor, kale hori ez zan, kale hori tope jotzen zun, hori Odiozolaneko ta nola taillerra? Harekin tope gelditu, ta akabo gelditzen zan hori. Hola estrate txiki bat bazun honunzko tarten, oin nola dao zea hori... koiño... nola esaten zaiyo... Kaja de ahorrosa ez, beste zea hori... Dios! Ixkiñan do, ba, hura! Dios... telegrafua! Telegrafua! Ta haren [...] hola eskrito txiki bat zun, baiña beste birian, Txabilloneko ta taberna atzetikan nola zeatzen zan, Fraileta aldetik sartzen zeanian kamiño zarra ez dala, Santa Marina kamiñua ez dala, beste bide bat? Oaiñ’e han do, bire hori oindik itxi gabe dao. Hoyek bakarrik zian orduko ixtori guztiyak. Nola izaten dan. Hemen Zauzko gorabehera guztiya.

2.71. Lehengo sagardotegiak eta haien funtzionamendua

- **Hizlaria(k):** Lizaso Illarramendi , Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Díaz García, Elena
- **Erref:** ZAR-118/003
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:04:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Díaz García, Elena
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Lehen sagardotegi ugari zeuden Zarautzen: banan bana aipatzen du zeintzuk ziren eta non zeuden. Sagardoa botilaratu eta saldu egiten zuten, baina inguruan bakarrik, ez atzerrian.

Transkripzioa

- Orduan Zarautzen sagardotegi asko egoten zan?
- Sagardoteya?!! Bai... lau edo bost bat bai. Bai, geyo: Erreustanekua; Anttoninekua, Roialtiko behian; Mirandanekua, santa... zean, estaziyuan onduan; Etxiarrenekua... hoyek biñipin akordatzan naiz. Beste geyo're izango zen. Geo, osaba Manuel Marinekua, guria, eta geo nun zan bestela hola sagardotegiya...? Basarritan ta bai, baiño, ez, bestela, hamen Txulokua o hola zeozer, ez, ez, ez naiz akordatzan.
- Eta zein zekan fama gehien, edo zein zen onena?
- Bueno, onena sagardoteya, danak onak izaten dia, zeatikan geo asko saltzen zan enbotillatzeko. Bai! Eta geo, Erreustanian'ee bai. Oain Erreustanian etxe berriya nola ein due? Hor beyan'e sagardoteya ezagutu gendun. Ta hola konkursoik eta ez zan ezer izaten ordun; baizikan ahal dunak ahal dun bezela saldu iten zun. Ta iten gendun enbotillaketa Pasaira ere bai, hemen ingurua're bai, saltzen zianak. Zeatikan upelak eta... aber, hiru o lau milla litrok eta izaten zian: haundiyak dia, borobillak eta haundiyak.
- Esan dezu zuk sagardua bidaltzen ziñula Pasaia ta hola salduta. Ze iten ziñun, Euskal Herriyan bakarrik saldu, o kanpoa saltzen zenuen?
- Kanpora ez giñun, ez, ez. Geo etorri zen hori, baiño oain hemen, konpazio batea, iten zian, ba, zuk noa bialduko dituzu? Batek kapritxoa zekala ta hartu bai, baiño sagardo botillatu; ta geo taberna, taberneta ta saltzen gendun, zeatikan aurtengo urtekua hurrungo urtian saltzeko botilletan enbotillatu ta hola ibiltzen giñan. Baiño extranjeroa ta hola ez. Geo hasi zan, zea, hori Roke...

2.72. Bertsoak sagardotegian

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Illarramendi , Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Díaz García, Elena
- **Erref**: ZAR-118/004
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:04:44. **Bukatu**: 00:05:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Díaz García, Elena
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kultura » Bertsolaritza
 - Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena**: Sagardotegian bertso ugari entzuten zituen, eta haietako bat kantatzen du.

Transkripzioa

- Bertso edo berri asko entzuten al zenituen bertan?
- Batzuek bai, bai.
- Bertsoren bat kantatuko al zeniguke?
- Han aitzen nitunekuak? Horixe! Bat biñipin:

Neskazar bat tentatzen
Hasi naiz lenguan
Umil eta seriyo
Hitz egin genduan.
Izan ere, halako
Polita zeguan
Baiña gusto guztiyak

Ez dira munduan

Nerekin ezkonduzen
Dala hitz egin du
Gezurra publikatu
Txit gaizki egin du.
Pretenditu ninduen
Baiña ez agindu
Bai gustoko mutilla
Bihartu banindun.

Antonio Goñi zan
Pretendiente hau
Gezurra latsatzen
Erabilitu nau.
Ustez balio ditut
Hark bezelako lau
Ostikuaz joko det
Toriatzen banau.

2.73. Sagardotegiko tresnak

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Illarramendi , Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Diaz García, Elena
- **Erref**: ZAR-118/009
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:10:31. **Bukatu**: 00:13:22
- **Multimedia**: audio online entzungai
- **Transkribatzailea**: Diaz García, Elena
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Hainbat tresnari buruz hitz egiten du: usulak, barrikak... Barrikek nola funtzionatzen duten azaltzen du. Bezeroen zorrak apuntatzeko, klariona erabiltzen zuten.

Transkripzioa

Oain beste gauza asko giñuzen ez dakizkizuenak o nahi dezuenak jakin, aber zertxio jakingo zendueken goguan. Ez dezue jakingo ursula're zer dan? Apuntatu, ba! Ursula: ursula da hogeita bi litroko ontzi bat, fiesta basketan ta hola ikusiko dituzue, hola gerriyan eramaten ditue, ba, [...] hola egurrezko zeakin... Jesus, zer da hori? Burniyakin, uztayakin... Ez dezue ikusi hori? Ezta're. Geo barrikak'e, barrikak'e... Uztayak badakizue nola dian barrikakuak? Bai o ez? Ardo barrikak eta nola dazkae uztayak? Egurra ta geo dake burniya. Bai? Eta nola sagardo iten gendunian, barrika beti iten giñun; barrikak iten du zulua berandu itxi behar zako, tapoya deitzen zakoe, aproposko kortxo batzuek izaten dia. Barrikak hola etzanda eoten dia e? Eta hemen dakae zulua, klaro, sagardua juteko zulua. Eta hori itxitzen bada, itxitzen bada, horrek irakin iten du sagarduak, eta iten ditu itxita baldin badao, burniyak puskatu, ta sagardo dana isuritzen da, egurrak apartatzen zeatzen dialako. Eta iten da honbeste egunian laga tapatu gabe, eta iten du aparra, aparra. Eta ura ya bere galdan behera juten danian, atzea bete iten deu, zeatikan sagarduak indarra, indarra

sagarduak gora botatzen du aparra. Eta geo iya denboraldiya pasatzen danian, ya hillabete o ilbeherak, eta enfin, hola pasatzen dianean, atzea bete iten dia; baiño sagarduak'e bere zea badu. Gero kuadrillak etortzen zianian, danak diruakin ez zian etortzen, zeatikan "geo pagatuko dizut e!" Ta hola. Ta ba al dakizue ze ibiltzen gendun? Oain papera ta lapitza ibiltzen da. Tiza badakizue klareunak zer dian? Tizak txuri hoyek. Hau da barrika e? Eta jartzen gendun hola raia bat, hemen izenakin: o Juanito, o Pedro, o... nik banezkin nola izena zuen. Eta hasten nintzan hola, zenbat zor zian: konpaziyo batea, egun batian etortzen zan, eta lau konpromiso igual izaten zun, beste bat inbitatzen zionakin, sei baso. Perra haundiyan izaten zian, ta iten genun bat, bi, hiru, lau, bost... horrela kakua, ta gero seigarrena hola. Eta hori ba al dakizu zergatik zan? Geo bat, bi, hiru, lau, bosgarrena hola, bost, hamar, hamabost, hola errexo kontatzeko. Bestela, bat, bi, hiru, lau, bost, sei kontatu behar ziñun, "aber in iyozu hor". Gauza asko leno iten zianak, hoyek interesantiak dia, ez? Horrela, hola, eta iten gendun geo bost, hamar, hamabost... hola kontatu.

2.74. Txakolina

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Illarramendi , Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Diaz García, Elena
- **Erref**: ZAR-118/011
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:14:00. **Bukatu**: 00:16:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Diaz García, Elena
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Joxeparen sagardotegia dagoeneko ez dago; haren ondoren, txakolindegia jarri zuten; eta geroago, taberna. Txakolina nola egiten den azaltzen du.

Transkripzioa

- Sagardotegi horrek oraindik zutik al dirau?
 - Guriak ez, guriak ez.
 - Zergaitik?
 - Ba, geo taberna jarri zuen, ta beste beste bizimodu bat hartu zuen ta. Geo txakoliña jarri gendun, txakoliña; ta geo taberna... "así que"...
 - Txakoliña nola iten da?
 - Uf...! Txakoliña bat'e ez dezue konturatuko. Txakoliña iten da, hau da tolaría e? Matzotarrak ba al dakizue nolakuak dian? Ez, ta, ezzz... Matzotarrak haundiak izaten dia, bi eskutzeko o hola. Eta iten da mahatza bitu, aurrena mahatza bitu, eta iten deu oain lega ta dabe; leno, berriz, bizkarrian ibiltzen zan dana; baiño mastitikan jeisteko're, handikan hartu ta bizkarka jeisten zian danak, eta iyo're bai. Tolarea botatzen dezu txakoliña iteko mahatsa, eta iten da hankakin zapaldu. Hankahutsik jarri, eta hanka hankakin [...] zabaltzen. Eta gero, ba, zeatzen danian, ondo-ondo-ondo zapaldu iten danian, labatiba deitzen zako horrelako beste zea bat, gauza bat, labatiba. Dazka gantxo batzuek, ta molde bat balitz bezela, sartzen due han dana patza, eta istutu iten dia. Ta gero makinak dabe hola, hemen daude egurrak horrela, hola jarri, tornilluakin itxi... Ta oain dana automaitko ingo da, baiño ordun palanka batzuk izaten zian, bost gizon ta sei gizonek hola istutzen, hau istutzeko, patza istutzeko ibiltzen zian. Ta geo ematen giñuen afaya, zeatikan aurrenengo istutu, ta han estututa zeola, afaya

ematen giñun, berriz'e beste hainbeste in ber zan: zabaldu, askatu, zabaldu, eta eskobariekin, leno esan dizuetena, eskoba batzuk, belarra biltzen ta ibiltzen ditue, eskobare batzuek holakoak balia bezela, dana atzea xabal-xabal-xabal-xabal in patza, atzea bitu, eta... Hola iten zian. Zailla. Hoiak danak han iten giñun guk, hola...

- Ura nahasten al zan, ba? Txakoliñarekin ura nahasten al zen?

- Bai, esaten zuen ez zula errezibitzen, baiño bai, bai. Geo ursuleta ateratzen gendun, dana ursula, leno esan dizueten katxarro haundi batzuek egurrezkoak. Segun... "así que"...

2.75. Txikitako jolasak eta kirolak

- **Hizlaria(k)**: Hizlari ezezaguna, ZAR-119
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aierbe Iturburu, Gorka
- **Erref**: ZAR-119/002
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:00:44. **Bukatu**: 00:02:49
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Aierbe Iturburu, Gorka
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
 - Aisia » Kirola » Uretako kirolak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 - Aisia » Kirola » Futbola
 - Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Umetan jolasak egiteko erraztasun gutxiago zituzten. Zer jolas eta kiroletan ibiltzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Ze jolas egiten zenituzten denbora haietan? Eta ze kirol?

- Ba, umetan genduzen, ba, jolasak guretzako oso politak, zeatikan ez zeon gaur bezelako erreztasunikan egiteko, han eukitzeko gauzak. Ta orduan egiten genuen pelotan, eta baloian, fubolian, saltaka're bai, ta zeakin, uztayakin'e ibiltzen giñan, alanbre batekin, zea inda, uztayak, barrikai kentzen zizkiyoen uztayak, egurrezkuak. Harekin, ba, Azpeiti Azpeiti kamiyuan gora zihar juaten giñan, eta geo behera, eta oso karrera politak izaten zian. Ta pelotak eta baloiak moldatzen genduzen, ba, bauletik ama zanai, zeak, trapu puskak eta hartu, eta geo hari pixkat'e bai, ta harekin moldatzen genduzen pelotak eta. Eta ordurako deportiak'e bazian, ta normal, zea habetakuak: pelotan ta fubola. Ta bai onak gaiñea afizionautan! Eta geo, oso polita izaten gendun urtetan, gazte denboa haietan, traiñero estropada, Zarausko bertakuak. Zian traiñeruak: "La Golondrina" izena zun batek, eta bestiak "San Antonio". Ta zan traiñero baten arrantzaliak, ta beste traiñeruan lehorrekuak. Ta izaten zan oso festa ikusgarriya. Geo fubola're, fuboleko kanpua bazeon, ez gaur bezelako eleganteikan, baiña guretzako nehikua bazan. Ta gu're haundiyak, baiño ikusten genduzen nola jokatzten zuen, ta oso jokalai politak eta oso dotore egiten zuten, bai pelotan, ta bai fubolian. Ta hortan oso mailla aurre samarrian. Eta saltaka're bazian ekipo ederrak, ederrak oso, ta oso karrera politak ikusten genduzen.

2.76. Ehizarako zaletasuna

- **Hizlaria(k):** Hizlari ezezaguna, ZAR-119
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Erref:** ZAR-119/006
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:06:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Lehen ere bazegoen ehizarako zaletasuna, baina ez zegoen ehizara joateko orain adina erraztasun. Ehiza nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta ehizan afiziyua leno ba... leno bazeon?

- Bai, bazeon. "Desde luego" ez zeon holako zea haundiikan, hainbeste eskopeta ta hainbeste errestasuna juteko, baiña afiziyua bazeon bere tamaiñan. Ta guk'e bagendun bat oso polita, parre igual ingo diazue, baiña zai egoten giñan gurdiyak etortzen zianian gariyakin, ta entregatzea honea Zarautza, e, elizako eta beste graneroako ta ekartzen zituen. Eta haura zakuak hustutzen zituenian, zaitzen genduzen Azpeiti kamiñu gaiñian zihar juten ez bazian, o Salbide aldea juten bazian, noiz ingo zuen kaka pillo bat. Eta orduan zepuak, hori udaan ez, baiña negu aldian, zepuak eukitzen genduzen, eta in ber izaten gendun aurrena egiten zun plastoiaekin artaliak egoten zian tartian, zeatu gabe, txikitu gabe, ta hayek danak apartatu eta gari bitutakoan, zepuai jarri artalia, eta han kurioxo-kurioxo jarri. Ta txolarriak, ño, zailla zian harrapatzen, baiña pintxanak eta holakuak errexo eroitzen zian. Bai, txolarriak'e bai geo, ta harrapatzen dezun dozena erdi bat o zortzi bat, eta hayek zeatzen zian o bazkeitako o afaitako, ta gustoa jaten genduzen. Gure afiziyua ehizeako hori zan. Geo bestiak bere eskopetak bazazkaen, eta hayek hegaberak eta oillaorak eta're ekartzen zituen.

2.77. Kirola herritarrentzat eta kanpotarrentzat

- **Hizlaria(k):** Hizlari ezezaguna, ZAR-119
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Erref:** ZAR-119/009
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:09:26. **Bukatu:** 00:11:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Txikitan futbola eta pilota gustatzen zitzaion gehien. Txapelketak egiten zituzten, eta herri guztia joaten zen partidu haiek ikustera. Jende inportantea herria lasaia zelako etortzen zen Zarautzera. Golf-zelaia ere bazegoenez, hara etortzen ziren.

Transkripzioa

- Txikitan ze deporte gustatzen zitzaizun gehiena?
- Ba, beti fubola eta pelota izan deu, esate baterako, hoixek izan dia gure deporteik politenak. Eta ahal deguna egiten genduzen, ez giñan figura haundiyak izan, baiña oso polita euki gendun hemen bolada bat, pelotan. Orduan frontoi txikiyan oso ederki partidu politak ikusten giñuzen: kanpeonatukuak egoten zian; baiña, bai bestela're Xalegi difuntua, haren abilidadiak, eta geo Felipe Getarikua, ta Mariano Lazkano hemengua, ta eukitzen zituen partiduak, zoragarriya; herri guztiya, esate bateako, han juten giñan frontoira hayek ikustera. Hayek iten zituen, zea, partido politak: alkarren eskua lotu, beste batek igual silla eskuan eraman bihar, beste batek igual sakia in bihar, zea, frontoitik kanpoa, eta holako abar. Baiño kantidadia ta dana porroi bat ardo limonadakin jokatzen zuen, hori izaten zan bere apostua.
- Eta jende inportantea hola, zergaitik etortzen zan honea, deporte bat egiteko edo hola?
- Ez, bestela herrira etorri eta herriya trankilla billatzen zuen. Ta geo "campo de gol" o bazeon han zelai galanta, eta orduan horrea're geu're ibilita gabez kadi o zeak eramaten, makillak golian jolastekuak. Eta orduan izaten zan, ba, dana aristokraziyantzako; baiña geo denboakin, gaurko egunian esate bateako, ba, herriko jendia're kantitaita ai da jolas hori zeatzen.

2.78. Pertsonaia ezagunak Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Sansebastian Izeta, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Santxez, Oskar
- **Erref:** ZAR-121/004
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:06:51. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Santxez, Oskar
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Pertsonaia xeble batzuk ezagutu izan ditu: politikariak, bertsolariak...

Transkripzioa

- Zeure denboretan pertsonai xeble edo garrantzitsuak ezagutu al dituzu? Bertsolaiak, deportistak, politikoak eta abar.
- Bai, ezagutu nittun politikuak'e hemen Zarautzen, ba, izaten zian ta, bertsolaiak'e bai ta... Ezautu giñun "Conde de Romanones", zelebria zan zeatik, guretzako, zeatikan guardaespaldakin ibiltzen zan epoka hartan. Geo hemen Zautzen beraneatzea etortzen zan, etortzen zian, Julian Besteiro politikua, ta zea're bai, Marzial La Landa, Txirrita ta beste bertsolai asko honea etortzen zianak.

2.79. Ezkongabetako aisialdia

- **Hizlaria(k):** Aristi Isasti, Joxepa Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines

- **Erref:** ZAR-123/011
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe Belamendia, Ines
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Ezkongabea zela, Zarautzen ondo pasatzen zuen. Zer egiten zuten kontatzen du: zinera joan, sokasaltoan ibili, txangoak egin, dantza egin...

Transkripzioa

Zautzen'e dibertitu giñan solteretan, eta gazte denbora ondo pasa gendun. Dibertizen giñan, ba, juten giñan launak, hiru o lau laun; eta juten giñan eo pastelei batea, pastela jaten giñun; geo fubolea juten giñan, fubolian pasatzen gendun denbora; ta geo nobiyuakin igual zinea juten giñan. Ta nobiyua ez gendun bitartian, berriz, kuadrilla bagendakan, hain kuadrilla haundiya gaiñeA, Zabalegineko Joxe Gereka bat, eta kuadrilla haundiya izaten zan zea hoyek, Benturaneko ta mutillak, zea, eta neska-mutillak igual sokasaltuan Munuan jarduten giñan. Hartu, ta neska-mutillak neskak bagiña bexelaxe, igual-igual, Munutikan betikan eskailletan gora, ta zean "dos a la vez" iñaz, zea, ta... bestiak sokea ta hola ibiltzen giñan, oso, zea, juerga haundiya pasatzen giñun. Eta esan detena, mutillakin baita eskursiyuak in ditugu zeara, Azkizura ta, o zeara, Erniyoo're, bi urtetan in giñun nobiyuakin ta haren kuadrillakin; nobiyuak batzuek ta bestiak bere launak hauek, kuadrilla, Trastornoko kuadrillo gendun. Eta hara jun, Azkizuraino jun, han euriya, alpargatak berriyak jantzi geo, eta berriz Tolosa jun giñan. Tolosan'e ondo pasa gendun, bazkaldu gendun, etorri giñan Lasartea tranbian, han berriz dantza pixkat in gendun, Lasarten, eta trena hartu, ta honea. Honea etorri giñan, ta berriz'e musika etorri, Musika plaza, ta dantza jota utziz danak, sueltua, oso... Esaten det ondo pasa gendun guk, zean, dibertituak izan gea; batekin ta bestiakin, ta danak lagun, eta danok dantzan iten gendun, jotauzi.

2.80. Koadro batean margotu zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Aristi Isasti, Joxepa Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines
- **Erref:** ZAR-123/015
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:25:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe Belamendia, Ines
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- **Laburpena:** Behin margolari batek eskatu zion ea bazeukan berari margotzea koadro batean. Koadroa egin bitartean, zer-nolako egunak pasa zituen kontatzen du.

Transkripzioa

Ta gauza bat aztu zitxatenan, esango diñat. Esto, Kaperotxipik behin ikusi nitxonan, ta esan zitxanan, hiru laun gitx... guazten. Eta mezetatik erten,

ta hirurok guazten, ta esan zian: “aizu, gauza bat galdetuko dizut: etorri nahi... nik, zure, zu... pintatzia nahi... zure aurpegiya pintatzia nahi det”, “ni? Bai... Hamen guapaguak!” esan nitxonan, “Hamen, ba, guapaguak!”, eta esan zian, “Ez, ez, nik zu nahi dizut zeatu, pintatu”. Eta nere artian pentsatu nula, bere andrian ahizpa nola Maria Kalderon izan nun oso lagun, alkarrekin giñan, eta beti alkarrekin ondo izan giñan, ba, Beistaginian alkarrekin hura kozinera ta ni interina, eta horreatik nahiko ziala, ba, nei zeatu, pintatu. Ta “Bueno, bueno”, ez nitzan... ez nakala gogo handikan, zeatikan bastante makal nabillela, baiña hanketatik eta zea. Eta holaxen, esto... bueno, ba, aindu niyola jungo nitzala. Eta egunero-egunero jun bihar izaten nula iya San Pelayoiño, oiñez jun ta oiñez etortzen nitzala: juten nintzala hirurak aldeako, eta han ordubete hantxe exerita, kontu kontari, e? Beak... kontuak kontatuaz, ta ai, andria onduan, eta harekin hizketan ta, ta ni hantxe geldi-geldi nola eoten nitzan, eta ez nitzala nekatu, klaro, exerita eoten nitzala ordun; baiña bidian asko nekatu nitzala, eon nitzala astebete, iya bi. Jun nitzan jun ta etorri, eta esan nahi niyon “ene, zenbat nekatzen naiz!”. Eta ez siestik in ta ezer in gabe juten nitzala, ohitu siesta iten, eta neke haundiya eukitzen nuala, ta halaxen pintatu nola in zian, eta oso kuadro polita dakatela, zea, kuadro polita pintatuta. Eta geo, gaiñea, kafesnia ematen ziela, ta hantxe eoten giñala hirurok hartzen kafesnia geure gailletakin ta. Ta geo dakat, nerekin batian jarriya beak, jarri zun geo nonbait, banakin hura’re pintatuta zakala, aparte, baiña nere zea batian dakat Manu Zarra, oso majo, oso kuadro polita dakat, errekuerto polita in zian. Eta ze esango det? Zerbait eman zian, eskupeko bat, eta konforme. Ta holaxen pasa nun nik, pasia pranko in nun, baiña nekatuta e? Zeatik ez neon oso zea, hanketatikan ta ibiltzeko. Ta halaxe pasa gendun. Hori’re in deu, hori’re behintzat kuadro polita dakat.

2.81. Beren taberna Kale Nagusian

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oñatibia, Manu
- **Erref:** ZAR-124/002
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:00:24. **Bukatu:** 00:02:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oñatibia, Manu
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Txikitan, taberna bat zuten kale nagusian, Zarautzen oso taberna gutxi zeuden garaian. Apopiloak izaten zituzten tabernan. Jose Manuel Lujanbio Txirrita izan zuen apopilo ezagunenetariko bat, eta bertsoak botatzen zizkien. Txirritari buruzko anekdota bat kontatzen du.

Transkripzioa

Ni mutil koskorra nitzala, kale Nagusiyan, hori nere arrebak dakan mertzeiyan, hor giñun taberna. Taberna hortan eamaten zuen gurasuak, eta nere arrebak eoten zian tabernan. Eta orduan Zarautzen oso taberna gutxi zian, lau o bost: guria, Pionekua, Kojuanekua, Laureano Txerri kalen, neskazar batzuek Frailetako aurrian, ez dakit besteen bat lagako deten.

Gero, berriz, guk eukitzen giñun apopilluak, apopilluak tabernan. Ta geo taberna ere irikitzen zan goizian goizo, ta illuntzian'e goizo itxiko zan... Ez oain bezela, goizeko hirutan eo lautan. Guk euki giñun apopilluak, nik dakitenez aituta, famosuenetakoa izan zan Txirrita. Txirrita etorri zan Zarautza hargintza, ta gure itxian eoten zan. Ta honek tabernan ardo pixkat eaten zunian, bertsuak botatzen zitun, eta nola eskribitzen ez zekiin, nere arreba zarrenak, Manolik, jartzen zitun papelian; eta gero, beak esaten ziyon ze bertso bota zun, ta orduan beak ikasten zun buruz. Ta halaxen, halaxen. Ta... behin batian jun men zan, ba, kumunea gure Txirrita famoso hau, ta gero nere arreba jun zanian: "hamen, ze arrayo dao hemen?". Ta... honek ladrillo puska batekin atzealdia garbitu ez du, ba! Ta holako istoriyak.

2.82. Entierroetako ohiturak

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oñatibia, Manu
- **Erref:** ZAR-124/009
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:11:09. **Bukatu:** 00:14:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oñatibia, Manu
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena:** "Terzerako" entierroa izaten zenean, parrokian abestera joaten ziren hainbat mutil. "Segundako" eta "primerako" entierroetan nork abesten zuen aipatzen du, eta nolakoak izaten ziren entierro haiek guztiak azaltzen du. Meza ostean, jatekoa emateko ohitura zegoen. Batzuetan, Aiara entierroren batera joateko deitzen zieten, eta jaten ematen zieten. Bapo bazkaltzen zuten denek.

Transkripzioa

Geo gu Hermanutatik entierro segunda zanian, juten giñan parrokira kantatzea. Orduan kantatzen zan entiarrua, zea, latinez dana. Juten giñan Nemexio, Luis Etxabe, Pedro Aristi're bai, ta ni're bai, lau bat bai behintzat; ta orduan kantatzen zan terzerako entierrua hori. Geo izaten zan segundako entierrua, ta hoyek danak izaten zian betzitan, goizian. Segundako entierruan, koroa juten giñan, ta ateatzen zuen libro haundi bat, nota haundi-haundiyakin. Maurixio Amilibia zan libruak ateatzen zituna. Denbora haitan'e kantatzen zuen, baita gu baiño leno, Balero Juaristi (jueza ta sakristua ta ez dakit zenbat gauza izan zan hori, Balero Juaristi); Piper kalek Piper Kalek'e kantatzen zun. Eta gu entierruko segunduan kantatzen giñun don Fernando organua jotzen, Felix Amezti, Juanito sekretayua ta ni. Hori entierroko... segundako entierruan, libru haunditikan, hiru abotseta kantatzen zan. Oso polita izaten zan entiarrua. Ta geroztikan izaten zan, primerakon bat hiltzen zanian, entierro primeran izaten zan Perosi, lau bozeta: don Fernando jotzen; ta gu kantatzen Felix Amezti, Jabier Zapatero, Piper kale're bai, ta ni, Manolo Iriondo. Ta geo, hori dirudunak zianak, aurreneko, primerako entierruak eta a tienpoko mezak... A tienpoko mezak etortzen ziran inguruko apaizak eta frailiak. Ta hoyetako jatorrena ta xelebriena zan don Daniel: Urdanetatik etortzen zan hura, taka-taka, Urdanetatik, denbora haitan meza ematea. Eta geo, Zarauzko ohitura zan meza ondoren, meza ondoren izaten zan xeixiya, bai Pionian o

beste tabernan batian, Kojuanian; ta xeixiyak juten zian nahi zuuna, nahi zuuna, ta orduan ematen zuen intxaurrak, eta ardua, ta ogiya. Ta gero, baita're juten giñan, Aya're juten giñan, Ayaa. Aya baserri onen bateko ona hiltzen zanian, deitzen zigun entierrua juteko Ayaa, ta gu juten giñan taxiyan Antxurriteikin, don Fernando, Felix, Juanito sekretayua, Zapatero, Jabier Zapatero ta ni. Ta orduan ohitura zan Ayan bi entierro segiduan kantatzen zian, bi entierru segiduan, bat bukatu ta bestia. Ta aurrenekoa bukatzen zanian, tarte pixka bat zan, ta Juanito sekretayua, bakizu ze izan zan beti, mutil koskorra bialtzen zun: honea ekarri salda, o zeoze ekarri! Salda o zeoze! Ta biyak kantatzen giñuanian, geo jendia, nola goizian izaten zan entierrua, geo basarritakok urrutitik etortzen zian, ta danak (iya geyenak) asko geatzen zian bazkeita, ta gu're bai beakin, bazkaita. Ta ez nolako bazkayak, e! Ordu batian aldian hasi, ta lautan'e oaindik bazkaitan eoten giñan; ta lautan, bazkayak izugarriyak, e! Orduan gastatzen zituen basarrikuak diru pillla earrak! Eta ze esango nuke geyo? Hainbeste bazkaldu ta zurrutian eiten zan; hildakuakin ez det uste iñor goatzen zanik. Iya bertsoan uste det bukatzen ziala entierruak...

2.83. Zinea Zarautzen

- **Hizlaria(k)**: Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Oñatibia, Manu
- **Erref**: ZAR-124/013
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:23:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oñatibia, Manu
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Txikiak zirenean, bi zine zeuden Zarautzen: batean, zinea mutua zenez, gizon bat etortzen zen pianoa jotzera; bestean, dohainik sartzeko trikimailuak erabiltzen zituzten. Behin, zineetako batek su hartu zuen.

Transkripzioa

Oain, berriz, gu mutil koskorrak giñanian Zarautzen ziniak zian, teatruaz apartez. Fronton Zineman zinia izaten zan mudua, zine mudo: letrak agertzen zian, ta txarra-txarra-txarra soiñuakin, ta orduan etortzen zan Oriyotik aitona xarra bizarrakin, ta pianua jotzen zun zine zine bitartian, zeoze musikan partez, pianua jotzen zun. Goatzen naiz pieza hau jotzen zun: lalarara, tirirero, torarara, tirerora, tarorara, tirerora, laroriro, lerorara. Ta geo, berriz, hori Fronton Zineman. Ta ordun, zine Modelon, berriz, zine Modeluan'e zinia, ta orduan'e mudua zan, ta zeoze doiñua, soiñua bihar da, eskaillera gora iyo, ta zeon fonografo bat. Fonografuak jotzen zun soiñua; musika, zea, zine denboran fonografua, fonografo denbora, ta zinia.

Ta orduan gu mutil koskorrak diruakin'e zea ibiltzen zian, ta sarrerak iten giñun guk, tranpan batzuk eiten giñun guk, zinia hurrengo igandian debalde ikusteko: billete bat gora beira jarri, ta bestia behera beira, ta ematen giñon mozteko, ta nola punta motza zuen, hurrengo igandian peatzen giñun atziakin, ta aurriakin bat. Ta hurrengo igandian: "gaur ze kolore da?", "Berdia!", ta peatuta eukitzen giñun, ta "raa! Da!" jartzen

giñun, ta berriya igual, bestia zarrakin, ta berdia gora, ta tata! Guk zinia debalde ikusteko moua.
Goatzen naiz gu mutil koskorrak giñala, egun batian teloyan atzian zine Modelon ez dakit ze pasa zan, ta sua bezela hasi zan. Sua! Ta bai azkar hustu're zinia! Mekatxis! "Sua!" esan zuenian, ze! Ez zan asko! Dana laixte bukatu zan.

2.84. Futbola Zarautzen

- **Hizlaria(k)**: Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Oñatibia, Manu
- **Erref**: ZAR-124/014
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:23:02. **Bukatu**: 00:26:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oñatibia, Manu
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Zarauzko Moillarri futbol-taldeari buruz hitz egiten du. Gerora, Itsasertz futbol-taldea sortu zuten, eta hainbat herritara joaten ziren igandetan partiduak jokatzera. Club Deportivo sortu zen gero. "Tarzan" kirolariari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

Gu gaztiak giñala, hamen fuboleko ekipua zan Moillarri. Aritzbatalden jokatzen zuen orduan'e. Gu gaztiak... hoixen, ba, gaztiak! Ta orduan, onenetakua Moillarrikua izan zan Kririki. Zarautzikan jun zan, hor bili zan Real Soziedadaren ta, oso onenetakua. Ta denbora haitako Moillarrikuak oain bizi dira, bost bizi dia: bat da Xoxo, bestia Murua, bestia Larrañaga, ta bestia Juanito Iraola eta Patxi Urzelai, denbora haitakuak. Ta geo Moillarrik, Moillarri bastante aurrea jun zan Donostiyan, bean dibisiyuan oso aurrera. Ta geo ez dakit ze gertatu zan, Moillarri behintzat bukatu in zan. Ta Moillarri bukatu zanian, Aritzbataldeko kanpua pixkat txikitu're, puskatu're in zan. Bailla, egurrezko bailla bazun; eta guk pentsatu giñun, gure kuadrillan juntatu giñan kuadrilla bat, eta ekipo bat in giñun izena zuna Itsasertz, Itsasertz. Ta orduan zian Altxola anayak, Nemexio Miru, Pikero, Andrex Altuna, Aingeru Berazadik'e jokatu zun gurekin. Geyo zein zian? Ez dakit, bateon bat lagako det, eta tartian ni're bai. Ta Itsasertzekuk guk in giñun, bi urtetan jokatu giñun hemen hamazazpi ta hemezortzi urte inguruan kanpeonatu bat federatuak, kanpeonato federatua. Ta guk Zarautzen ekipoik ez, o kanpoik ez fubolian jokatzeke. Entrenatu iten giñun Aritzbatalden, baiña igandero jutun giñan, bai Deba, Motrikoa, Elgoibarra, Axkoitira, iya igandero. Kamixetak eta danak guk ordainduta: kamixetak, danak; arbitrua're, gure partidua zanian, geuk patzen giñun arbitrua. Ta Txertubikin, Txertubin autobusan jutun giñan herri hoita fubolian jokatzea, geure patrikatik patuta dana. Hori, bi urtian jokatu giñun hola. Eta gero, gu ezkerro izan dia hemen fubola, "Club Deportivo"; oaintxe berrogeita bost urte uste det zala fundatu zala. "Club Deportivon", "Club Deportivon" izan dia, berriz, fubolistak pillak izan dia, pillak hainbeste urtian. Geo plaierua're in zuen, eta gure denboretako onenetakua izan zan guekin Itsasertzen jokatzen zuna, Manolo Urzelai. Gure Manolo hau Debaa ta jutun zanian, jo! Hori Tarzan deitzen ziyoen, Tarzan: horrek atzea ta aurrea geatu gabe ibiltzen zan; horrek zakan sasoya, horrek! Bai pelotan'e, hamen frontoi txikiyan, paletez jokatzen giñun guk, bea Nemexio ta nee

kontra. Baiña paetian gora'e iyotzen zan hua, e! Izerdi earrik ateratzen ziun, baiña kosta iten huan hari erabazia, ta gutxitan erabazten giñun e! Bea bi geyon kontra. Ta geo horrek pelotan ein ditunak Zautzen, Zautzen ta Donostiyan, ta alde guztitan, ta pelotan ta. Hori zan... boxeuan'e kanpeoi atera zan, baiña bizikletan zan izugarri txarra. Ta deporte txarrena, beetzako deporteik txarrena zan dantzan egitia. Munduan ez da gizonik baldarragoik izan Manuel Urzelai baiño dantzan: hankak peatuta eamaten zitun, halako gizona ariña ta pixkorra izanikan.

2.85. Gaztetan, udan futbolean

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref:** ZAR-128/003
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** Hazi zirenean, futbolean jokatzeko zuten udan. Komunioa egindakoan, aitonari laguntzeko gelditu zen. Maila handiko jendea ibiltzen zen futbolean.

Transkripzioa

- Ta gero ya haundiyo ziñatenian, nola pasatzen zenuen denboa?
- Golian, ba, bueno, hori uda parten izaten zan e? Neguan bea zi urte, orduan komuniyua hamarrek egin nun, ta geo aitonai launtzen, bestiak itsasoa ta hasi zian ta, aitonai launtzen izaten nitzan. Ta gaiñuntzian, uda aillatzen zanian, golea hiru hillabete izaten zian. Orduan, hantxe pixkat argitu giñan. Gaiñuntzian, "sí" ta "no" zer zan'e ez giñakiun. Ta hoixe. Golian sartzen zan orduan, gaixki ikasten zala, ta ez, ta horrela. Golian, bai, jende zea haundikua, kategori haundikua ta, hoi danak bai. Ta been bailiak ta iten zuen txaletian, baiña gaiñuntzian ez, beti nik aristokraziya dana jende ondo jantzitakua da, ta gaurtik oso kanbiatuta dao.

2.86. Hondarra obratan erabiltzeko

- **Hizlaria(k):** Aristi Eizagirre, Kontxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** ZAR-131/014
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:27:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Malekoia nolakoa zen azaltzen du. Astean egun jakin batzuetan, guriarekin hondarra hartzen zuten obratan erabiltzeko.

Transkripzioa

-Malekoia nolakua zan, hola?
-Malekoia zan, ba, goiko aldiaren estua, baina Munoa azpiya, oain da Munoa azpiya, holaxe esanda, holaxe. Eta, haren segidan malekoia estuagua

hauskaldea, eta honea, berriz, honea ere bai estuagua. Oseake, bire estua dao esandako palaziyo horren azpiyan. Argazkin batzuek ikusiko zituzun, bide estu batekin, hura zan. Geo, horko jeitsiera zan aldapa, kamiyotikan hondartzara, aldapa zuzen-zuzenian. Ta horren gaiñian erdi parian zeon bada bat, zeatikan gurdiyak ta ganauakin ta juten zian hondartza, hondarra jasotzea obretako ta baserritako ta horrela. Baiño, astian egun batzuek zazkaen. Eta bitartian eoten zan bada bat jarrita, eta ordun ez zeon. Eta jun ber zuenian hura kentzen zuen ta, jesten zian da hondartzara. Baiño, hondarra zabala, hau, hau besteko zabalerua bai, goitikan beheraiño aldapan.

2.87. "Golf"eko festetako giroa

- **Hizlaria(k):** Solaberrieta Arsuaga, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** ZAR-139/006
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:10:06. **Bukatu:** 00:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** "Golf"en aristokraziak festak egiten zituen. Festa haietako giroa eta janzkera nolakoa izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Hura zan... Aristokraziya dana zeon sartuta golfian. Ta gabez iten zituen pesta hoiek eta gero herriko jendia juten zan hara begira hango... Bakizu! Eske gauza ederrak zian hango [trajiak]... Gero argiyak-eta jartzen zituen jardiñian golfian ta dana luzitua-luzitua-luzitua.

-Zer janzkera izaten zuten hola juten zianian... dotore?

-Zoragarriyak.

-Emakumiak ze...?

-Emakumiak danak jantzitzen zian "de largo"; danak luzez jantzitzen zian eta danak eskote haundiyakin eta kola ere haundiya... dana . Eta gizonak "todos de frac y de..." danak guapo-guapo juten zian. Eta gero, han afaiyak iten zituen eta gero dantza iten zuen. Orkestak ematen zituen eta orkestak jartzen zituen eta dantzak-eta iten zituen.

-Orkesta hemengua hartzen zuten edo beraiek ekartzen zuten?

-Bueno, hemen Donostiatik ekartzen zituen. Bai, ekartzen zituen. Beak bazakizkien ze izenak eta hola ta ekartzen zituen. Eta orkesta haiekin geo dantza ta festa. Herriko jendia danak atzetikan, badakizu ze [izaten dan], begira eta hola juten giñan atzetikan.

2.88. Oriotarrak bitan banatu ziren urtea

- **Hizlaria(k):** Makazaga Arruabarrena, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** ZAR-144/029
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:44:40. **Bukatu:** 00:48:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Kirola » Arrauna

- **Laburpena:** 1961ean oriotarrek liskarra izan zuten eta bitan banatu ziren trainerua ateratzeko garaian. Trainerua osatu ezinik, alde bat Tolosarekin elkartu zen eta bestea Zarautzekin. Orduko gorabeherak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Hirurogeita batekua ere, nik jokatu nuna ere, xelebria izan zan. Traiñeruetan-ta oso ondo ibili zian. Geo, Oriyon bi bando in zian trainerillak bukauta. Ta triñaua ateatzeko ez zian /etzian/ bi... bi bando, esan deuan, bi talde hoiek ez zian alkartu triñaurako. Ta hirurogeita bata zan hoi. Ta ordun in zuen oriyotarrak, talde batekuak, Tolosakin-ta in zuen, Tolosan izenen uste det irten ziala. Ta beste Oriyoko taldiak ikusi zun “Hau dek marka hau! Hola ez zeok ezer iteikan Donostiyan!” Ta hamen ni pixkat lagata neon arraunai, urte hartan ez nintzan bat´e ibili. Ta hamen traiñerilla ibili zan Zarautzen. Ta, ordun, oriyotarrak pentsatu zuen, Zarautzen Alvaro Azpeitia ta [orduen] ta haiekin hitz ein ta “Zarauzko izenen ateako al deu triñaua?”, oriyotarrak zarautzarrakin. Ni... Alkarrekin hartan gelditu zian. Eta nei deitu zian. Eta xelebria hoi da: Ama Birjiñan egunian deitu zian entrenamentota aber hasiko nintzan, triñaua Zarauzko izenen ateatzeko. Ta ni, Donostin jokatzeke, Ama Birjiña eunen, abuztuko hamabostian hasi nintzan entrenatzen. Ta jun giñan Zarauztikan bi, lau... bost. Bai, bost. Ta entrenamentuan hasi giñan. Ta entrenamentu gogorrek zian haiek! Ta oriyotarrak ibilita zauden ondo. Traiñerilletan punta-puntan ibili zian, aurrena, ta haiek ondo. Ta hamendik jun zianak ezin zuen entrenamentua segi ta biek laga in zuen ta beste bi suplente bezela eon zian ta ni bak.... Zarauzko izenen ta ni bakarrik nitzan zarauztarra, beste danak Oriyo ta Agiñakuak zian. Oriyo ta Agiñakuak zian beste danak. Pikabea anaiak eta... [Ni gogoratzen naiz]. Ta ni bakarrik zarauztarra. Hoi xelebria hoi da. Zarauzko izenian, hirurogeita batian, oaintxe dia, gaiñea, berrogeita hamar urte, ta ni bakarrikan zarauztarra. Laugarren in gendun. Bai. Ta... Gure afiziyuak holaxe zian.

- Eta Tolosan izenekuak zenbatgarren?

- Tolosa izenekuak, haiek hirugarren in zeela uste det.

- Hortxe, e?

- Bai, bai.

- Ta zeñek irabazi zun urte hartan?

- San Juan, San Juanek hirurogeita baten. Ordun, gaiñea, zian, San Juan ta Sanjuandarra, ta uste det aurrena ta bigarren gelditu ziala uste det. Baiña pena zan, e! Oriyon halako kuadrilla eon, e? ta sesiyo... gertatu... gelditu zan... beren artian ze sesiyo zeatu zan, batzuk alde batea ta bestiak bestea. Ta geo bestiak, oriyotarrak´e Joanito `Altzerri´k-eta ikusten, “Joe, oain Oriyon izenen gu ez gaituk aurrena sartuko ta ze in ber deu?” ta pentsatu zuen “Hobe izango dek Zarautzen izenen jun” ta. Zarautzen ta ni bakarrik zarauztarra. Hura´re marka! Ai ene, haiek dituk kontuak haiek! Oain berrogeita hamar urteko kontuak. Hobe genduke ordungo sasoa [mantendu], baiña... Urtiak jun iten dia /iteiya/ ta. Holaxe kontuak...

2.89. Udako ohiturak aldatzen pixkanaka

- **Hizlaria(k):** Uria Eizagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Eider

- **Erref:** ZAR-149/013
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:21:51. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Oporrak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- **Laburpena:** Lehen bazkaria hartuta mendira joaten ziren udan; udatiar asko etortzen zen kanpotik. Ohitura hura pixkanaka galtzen joan zen: batetik, ETA sortu zenetik, eta bestetik, Frantziatik etortzen zen jendearen eraginez hondartzara joateko ordutegia ere aldatu zenetik.

Transkripzioa

<p>- Ohitura hori noiz galdu zan? Ba nik uste det… ez dakit noiz galdu zan. Ez dakit, ez dakit hori, nik ez nuke jarriko hola muga bat esateko. Gehienbat nik uste det hamen zea hasi zanian, ETAkuak eta mobida hori hasi zanian, Madrid-ko jendiak-ta asko laga ziyoen etortziai. Seguru ez zian sentitzen ta asko laga ziyoen etortziai. Eta ordun hiru hillabeteko jende hori ta nik uste det hor hasi zala atzea, atzea iten. Eta gero gauza guziyak aldatzen dijuazten bezela ba… A! Gero beste ohitura bat aldatu zana asko izan zan e… Garai hartan, gu´re oso hondartza zaliak izan gea beti, txiki-txikitatikan, eta gure aita´re, baserrikua izanagatikan, oso hondartza zalia zan. Gustatzen zitzaion asko baiñatzia. Baiño beti jutun giñan bazkal aurretikan hondartza. Arratsaldian, ordu hontan, egualdi earrakin-ta ez zitzaigun okurritzen. Beti goizeko gauza izaten zan, eta kanpotarrak ere bai iten zuen eguerdi alde bazkal aurretikako zea hori, ta arratsaldian mendira, esan dizuten bezela. Baiño frantsesak-eta etortzen hasi zanian, haiek orduik gabe: hamabitan jutun zian bazkaltzea, hiruretako jeisten zian... Ya… neretzako influentzia haundiya izan zuen… frantsesak-eta etorri zanian hondartzan horariyuai. Bai. Zeatikan gu jutun giñan hondartza eta ya… etxea etortzeko ordua zala, ordubik, ordubi terdik, igartzen gendun hondartza hustutzen ai zalako. Ya… "Jo, ya berandu da, buf! Jendia jutun ai da! Ya jun berko deu!". Beti beandu ibiltzen giñan. Eta gero izan da zea hau, e…</p>

<p>- Arratsaldian...</p>

<p>- Arratsaldia´re heltzia. Ta nik uste det ordun izan zala. Eta ordun ya aldatu iten da dana: mendira jutia´re aldatu iten da, arratsaldian ere hondartza jutun haste bazea, goiz ta arratsalde batzuk... hola. Hor ere aldaketa bat izan zan. Eta, hori, madrileñuak ere lagatziai etorri ziyoenian… etortziai laga ziyoenian, nik uste det hor ere dexente aldatu zala giro zea hori. Guk ezautu iten genitun familia asko urtero-urtero...</p>

2.90. Eskoletan antzerki irakasle lanetan

- **Hizlaria(k):** Iruretagoiena Castro, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eizagirre Agoues, Libe
- **Erref:** ZAR-168/029
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:46:18. **Bukatu:** 00:49:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Antzerkia

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** 18 urterekin begirale titulua atera zuen. Haur eta gazteekin dagoenean antzerkia asko erabiltzen du. Orain eskoletan ere irakasten ari da. 7tik 11 urte bitarteko haurrekin.

Transkripzioa

-Esan duzu baita ere umeakin egiten duzula lan aisialdian

-Bai

-Eta normalian zer dakazu titulu bat edo?

- Bai titulua, bai begirale titulua, hoi da, umiakin lan iteko begirale titulua, hoi da, hemezortzikin atera nun, eta bueno beti gustatu zait gazteekin o bai umiakin lana itia

-Eta hor antzerkia erabiltzen dezue?

- Bai, bai asko, asko erabiltzen det, antzerkia erabiltzen det “a tutiple, a“tutiple”, bai, nik txoakeiak re iten ditut, payaso pixkat, payasoana ere itet ta ordun ondo.

-Lehen esan dezu adibidez eskolak ematen ai zeala, ezt?

Bai

-Nun emate ituzu?

- La Sallen, Ikastolan, Orion eta Donostin

-Ikastetxetan ematen dituzu, ezta?

- Bueno, bai hoi da.

- Eta noiz ematen dituzu klaseak, klase orduetan ala hurrek dakaen denbora librean?

- Klase ordutan

-Klase ordutan?

-Hoi da.

-Zenbat urteko haurrai ematen diozu?

-Hamar-hamaika urtekuai, hamar-hamaika eta zor, sei, bueno zazpi urtetikan gorakoak, hamar-hamaika urteraiño.

-Zenbat denbora osea urte guztikoa?

-Urte guztiko programa bat da, ba Patxikin da iten detena. Patxi ez dakit zenbat urtetan daon klasiak ematen antzerkikua ta bueno ni berekin nao. Ta gero ni aparte, La Sallekuakin oain dala ez dakit zenbat urte hasi zian antzerkia iten gero ez dakit ze mobida eon zan, ta gelditu zian, ta oain berriz´e sartu da ta bueno, oain astian lau ordu ematen ditut La Sallen, eta gero, eta gero Orion ba berdiña, astian ordubete ematen det bueno zerbait da.

-Umien eskolaordutan?

- Hoi da, ordutan.

-Eta nola da hori?

-Eske azkenian umia etortzen dira ondo pasatzera, antzerkira etortzen dira ondo pasatzera. Ez dute nahi liburua, ez dute nahi “pues yo que sé”, bueno ba pixkat askatzia, pixkat tontuana iten, bueno tontuana ez dakit esan, baiño ondo pasatzia, orduan ez dakat helburu garrantzitsuena hori da azkenian

-Ta obra bat prestatzen dezue?

- Bai obra bat ari gea prestatzen, bueno batez ere La Sallekuakin, Romeo eta Julieta, beraiek nahi zuten ta bueno hor gaude Romeo ta Julieta iten

-Ta gero obra hori emanaldia ingo due?

- Bai La Salleko horko areto baten bai, aber ze gertatzen dan.

3. Politika

3.1. Emakumezkoak gerra-ostean erdaraz

- **Hizlaria(k):** Lertxundi Amezttoi, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-001/014
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:27:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Emakumezkoek gehiago hitz egiten zuten erdaraz gerra ostean, baina aurreragokoek euskaraz egiten zuten.

Transkripzioa

- Ta emakumezkuak 'e bai, euskeraz iten zuen?
- E?
- Emakumezkuak ere, hola kalia, ta beaien artian...
- Emakumiakin gutxi ibiltzen nitzan ni ta... Tamalez, ta earra galdu nun!
Baiña, erderaz gehio emakumezkuak, e, bai. Oan, eon zaitez piskaten, gure andria nola iten zuen: gure andriak eta kuadrillan erderaz iten zuen. Bai, hori gootzen naiz. Gure andria ta, e, haren kuadrillakin banun... Haiek beti alkarren artian erderaz iten zuen. Baiño guk mutillak, ni ez naiz akordatzen mutillak hamen erderaz sumatu nitunenikan. Euskeraz. Cachi Bachiko hoiek eta, hoiek dana euskeraz. Ta oaindikan 'e hala iten due hoiek.
- Eta emakumiak erderaz, baiña, ya gerra ostian, ez?
- Gerra ostekuan.
- Zuen, e, zuen, e, ama ta amona ta...
- A, ez, gure amak, gure amak, gure amak gaiñez nahiko euskera ona iten zun zeatikan, e, berez ama zeakua zun, Bidanikua. Eta haren euskera iten zun pixkat. Aitak, berriz, beste moura iten zun, ta guk biyana entzun, ta ez dakit ze ateako zan, aizu! Hibrido bat ateako zan!

3.2. Gerra aurrean abertzaleak eta karlistak ziren nagusi Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozuren, Fernando - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-003/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
Politika » Jarrera politikoak
- **Laburpena:** Sozialistek indar gutxi zuten Zarautzen: Karlistak eta Abertzaleak ziren nagusi herrian. Gerra aurretik, abertzaleek indarra zuten. Batzuek zein besteek dantza-taldeak eta antzerkiak antolatzen zituzten. Karlistek euren lokala zuten, eta PNVren batzokia ere gerra aurrean eraiki zuten. Hiru lekutan izan zuten. Gerran kendu egin zituzten.

Transkripzioa

- Ez, baiña izan zian hor gune batzuk, Eibarren...
- Eibarren, Eibarren bai, hua baita Republika deklaratu 're han lehen in zan beste lekutan baiño.
- Bai.
- Baiña hemen ez det uste holako zeaik izango zanik, zeatikan sozialistak hamen indarra ez due izan. Gerra aurretik behiñik behin ez, ta geo 're neurriyan
- Ta gerra aurretik hamen nagusi zein zan, abertzaliak edo..
- Ta karlistak beti burrukan. Bai, burrukan esan nahi det baita sentido onian 'e bai. Batek dantzai talde bat jartzen bazun, bestiak bestia. Ta batzuek saltaka-apustua juten bazian bi zeakin, biekin, bestiak beste bi. Bai, ta ordun burruka benetakua, burruka benetakua.
- Gerra aurretik, baiña.
- Bai, gerra aurretik.
- Eta gerra aurretikan bazeon, e, partido nazionalistak bazeukan bere lokala eta karlistak 'e bai.
- Bai, bai. Ta dantzaik eta istori guztiya, taldiak eta.
- Ta karlistak 'e baita?
- Baita.
- Nun zeukaten karlistak?
- Karlistak... Ni akordatzan naizela, aurretik ez dakit, ni akordatzan naizela frailetako aurrian, atzian frontoia ta dazkan zea hoietan, guk han, gure laguna giñun hanguk eta han hartu-eman haundiya euki giñun; guk han frontoian pelotan jokatzen giñun, aurretik ez nuke esango nun, ez dakit, ez diyot behiñ 'e kasuik in ta.
- Ta Batzokia?
- E?
- Batzokiya?
- Batzokiya baiño lehen hemen, zeana, emakumian ta lekua, hamen zineko onduan, Carniceria Arozena nola da?
- A, bai.
- Nik hor ezautu det, ezautu... Akordatu iten naiz ta erretratuak ikusi ditut. Gure osaba ta dantzaik zian ta horko eskailleretan erretratuak ateata ta.
- Gerra aurretikan alkatia zer zan, nazionalista Zarautzan?
- Bai, bai. Zean 'e bai, oain Arranua daon hortan 'e bai, hortan 'e bazan. Eta geo, uain Batzokiya daon lokala. Geo hoiek danak kendu in zian gerra etorri zanian, hoiek danak kendu in zituen.
- Orduan gerra aurretikan ya, hemen abertzaletasuna ya nagusi zan.
- Bai, bai. Osea, gehio, karlistak baiño karlistakin burrukan, baiña, zea, gehio.

3.3. Eusko Gaztedia; batzokiaren historia

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Barrenetxea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-005/015
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:37:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
 - Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

- **Laburpena:** Eusko Gaztediarekin ibiltzen zen gerra aurretik. Batzokiaren historia. Jostundegia zegoen lehen. Gerora hamabi mila duroan erosi zuten eraikina. Gerra garaian falangistek espropiatu egin zuten eta geroago eraikina bota egin behar izan zuten.

Transkripzioa

- Eta gerra aurretik orduan, gerra hasi aurretik, esan dezu Eusko Gaztedin, Eusko Gaztediyakin ibiltzen ziñala hemen Zarautzen.

- Bai, Zarautzen, bai, Batzokiyan, hortxe.

- Nun, nun, nun, nun zeon?

- Bai, hamentxe dao Batzokiya.

- Hemengo batzokiya, baiña...

- Hor hauzkaldetik ikusten dezu hutsik nola dao, ba? Hor itxe eder bat zan hor. Sastre Izetan etxia zan hori, sastraiyakin ta danakin. Ta gizajuak, [...] zun batian, saldu in zuen zea, hori. Hori juten zan Parisea, modak ikustea. Eta handikan etortzen zan bakoitzian... Azienda haundiya zan. Horrek 'e txaletak eta terrenuak eta hauzkaldea, beti ere pieza bat saltzen zun, pieza bat, pieza bat. Ta gertau zanian debatian, Azpiazu ta Arrutitarrak eta hoiek, hamabi milla duruan etxia ta hauzkaldeño saltzia, beak. Baiña behar zitun hamabi milla duro, "sesenta mil pesetas", egun hartan. Ta, hor, [Comino] Arruti ta, Manuel ta, Batista ta, Lizundia ta, este... Asporosa ta, Arruti ta, ba, "bai, hori bai [...] bankuak irikita ta badao diru hori, sortuko genduke", fabrikantiak zian danak eta. Baiña igandian, eguardiya, zeñek euki behar du diru hori? Ta gertau zan Erramun Arruti, haren semiak 'e segitzen du, bizi zan han, Azpiazuneko etxian. Ta, Asporosa, bestia, koñau haren arrebakin, Bilbotarra, ta harek esan zun "hemen bazakiyat diru hori nun dauan, honenbeste baiño gehio", ta, "nola?", ta, zakan osaba etxian, Ameriketatik etorrita, ta oindik dirua bankoa eaman gabe. Ta hartu dirua, ta eman ziyoen hamabi milla duro zeai, Izetai, in zuen papela, ta geo, astelehenian, asteartian ya eskriturak, eta holaxe eosi zan hori, hamabi milla duruan. Ta geo gerra...

- Diru asko garai hortako, ez?

- Gerra etorri zanian hor falangiak espropiatu ziun hori, falangistak. Ta, ba, abandonatu ta. Alboko etxia esaten due, alboko etxiak teilla falta baldin bazuen, handik kendu. Handikan kendu, ta geo azkenian berriz jabe in geanien, bota in behar izan deu, ustelduta zeon ta dana. Ta hortxe, batzokiya horrea ekarrita gendukan, gerra hasteako.

3.4. Delegatu gisa aritu zen Eusko Gaztedian

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Barrenetxea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-005/016
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena:** Eusko Gaztedian nortzuk ibiltzen ziren. Bera delegatu moduan ibiltzen zen. Korrikalari eta pilotari onak zituzten.

Transkripzioa

- Zein ziñaten Eusko Gaztediyan ibiltzen ziñatenak? Zu ta zein gehio?

Gogoatzen al dituzu hoi en izenak?

- Jesus! Eusko Gaztediyan ibiltzen giñanak...

- Hola, zarauztarrak...

- Ba, jakin zazu, pelotari bezala ibiltzen zian hamen Iruretagoiena, Kukulunekua o esaten diyoe, horren aita, bestia, harrek 'e Xaguanekua, bestia San Pelaion 'e zea, Aizpurua, Kaxkaxoenekuak. Eta ni ibiltzen nitzan delegau. Geo korrikaian berriz, Unzueta ta, Unzueta, geo Arrua txikiya, Sasi, esto... Beste korrikaiak, korrikaiak onak, e! Guk Irundikan Donostiako, Behobia-San Sebastian hori, rekorra jarri gendun. Ta orduan gendukan Unzuetak, baita zean 'e, Campeonato de Españan 'e irabazi zun. Ta, ekipo ona! Ta zeak 'e bai, este pelotariak 'e bai, ondo. Pelotarian 'e distritokua, zarauztarrak irabazi zuen. Irabazi zuen zestuarrak, Barrena anaiak eta haiek 'e tranpa pixkat ta in ziguen Azpeitiyan, frontoi txikiya, haundiya [...], eta [...] zan, eta haundiyan ikusi zuen. Guk gendun hau, Kukul, Iruretagoiena, ta Arregi ta habek jotzailliak, hoiek 'e galdu in [...]. Ta frontoi txikiyan sartu zigun, ta haren boleaka, galdu in gendun partidua. Jotzen zuen pelota, ta asko jotzen bazuen, kaleaño. Kalia, ta [...] atzian, Azkoitiko... Eta geo, horreatik, finala jokatzeko ein zian haiek suplente ibiltzen zuen Arregi, e, Agirre, Aizarnakua. Ta Arregi, Zarauzko Xagua, aurreale guk, bi hoiek jokatu zuen. Olaizola anaiak 'e kontra zean, Errenteian, batzokiko zean, frontoian. Ta neu jun nitzan delegau, ta juez. Ta irabazi in gendun.

3.5. Gerra garaiko bizipenak

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Buenetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-008/019
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:24:44. **Bukatu:** 00:25:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Soldaduak Pagoeta aldetik pasatu zirela esaten zuten. Amonak astoa ezkutatu egin omen zuen, kendu egingo ziotelakoan. Gerra denboran ez ziren janari eskean joaten baserrira, geroago bai.

Transkripzioa

- Ta orduan, gerra kontukin, gerra kontukin, e, moimentuik eta izan al zan hemen, moimentuikan eta hola.... Zea, soldauak, eta...

- (AZ) Bai. Eta astua harrapatu nahi ziyoen [...] amonai...

- Soldauak.... Ibili zian, hemen ez zuen zea haundiik in. Goitikan, Pagoeta aldetik pasa ziala esaten zuen.

- (AZ) E, ama? Amona sapaian asto txuriya gordetzen, bestela harrapatu iten zituen...

- Bai, eaman ingo ziyoela ta bai, bai.

- (AZ) Ta aber, esnia nun eamango zitun amonak asto hua kentzen baziyoen, ta sapaian gordeta.

- Hemen ez zuen zea haundiik in, ez, ez.

- Ta, bestela, janari eske ez al zian etortzen, jenero eske?

- (AZ) Ez.

- Geo bai, soldauak etortzen zian...
- (AZ) A, bai.
- Hor, este, Oriyoko gaiñen [...] osua pasa zuen, baiño ordun ez. Gerra denboan ez. Hemen azkar pasa zian.

3.6. Gerra Zarautzen, gazte baten begiek ikusita

- **Hizlaria(k):** Iturria Astiazaran, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-012/014
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:27:53. **Bukatu:** 00:30:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena:** Nola gogoratzen dituen gerra hasiera eta azken eguna. 15-16 urterekin egunkaritik jarraitzen zituen gerraren inguruko berriak.

Transkripzioa

- Nola gogoratzen dezu gerra Zarautzan, nola hasi zan, edo ze moimentu, edo?

- Moimentuak, ba, eskopeta pilluak eta guardak ikusten zian, eta... baiño hola organizaziyo jatorrikan ez da, ez zan behiñ 'e eon. Hemen, ni gogoratzen naiz, egokitu nitzan ni 're orduan, este... oain nola dao frailetako aurrian badao ba "Agencia...", nik esaten det Iberia, Iberia ez da hori...

- Halcón Viajes?

- Halcón, hori da, bai. Ba, hor ultramarinuak zian, ultramarinuak, eta oso fiñak. Esan nahi det, e, hortikan zeara juten zan asko, aberatsan txaleteta ta holako jendeta zeatu. Neguan ba gutxiyo saltzen zuen. Ta estankua 're bazan gaiñea, estankua 're. Eta jende asko pasatzen zan zea hortatik. Ba, hura sakeatu in zuen zeak, azkeneko egunian gorriyak. Abertzaliak ez, e? Gorriyak. Nik distingitu iten ditut hoiak.

- A, bai, e?

- Bai. Eta, este... Hala, han, bertako andria erten ta fabores ta fabores, sakeatzen ai diala, ta abar, ta launtzeko, ta abar, ta. Oain ez ziyon iñork kasoik iten zeatikan zailla zan orduan. Eta, ba... denda erdiya o hustu ziyoen, bai. Eta egoardi hartan bertan, egoardiya hartan bertan, han ixkiñan, hura zan abenida, "Avenida de Navarra" uain dana, eta han gudari batek: tan-tara [...] bi aldiz jo zun erretira, nunbait erretirada izango zan. Abertzale zea jantzita hura, gudari jantzita, hura, bai, bai.

- Ta hola gogoratzen dezu gerra hasiera?

- Bai, bai, bai, bai, bai

- Ta gero, ze eboluziyo eon zan Zarautzan?

- Ta nik perioikua eunero letzen nun, e, perioikua, e. Orduan letzen gendun guk zea, "El Diario...", ez, "El Pueblo Vasco, El Pueblo Vasco". Zan "de tendencia independiente". Oain, abertzalia zan zea, Pikabea zan hura dirijitzen zuna. Eta nik eunero, aitaik 'e bai, ta bueno aitaik letzen zuna nik letzen nun. Ta afiziyo haundiya niyon nik politikai, haundiya.

- Orduan edadea polita, hogeita...

- Ez, ez, hamabost, hamasei, hamabost, hamasei.

- Hamabost, bai, bai, hamabost o hamasei. Ta ordurako afiziyua politikara, e?

- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Bai, bai.

- Ta edade horrekin perioikua egunero irakurri, e?

- Baita, ta gaiñea, joño, joño, por ejenplo, hemen Azpeitiyan por ejenplo, [...] abertzaliak, eta poza, ta horiek danak, beti izaten zan.

3.7. Gerra garaia; giro politiko nahasia

- **Hizlaria(k):** Iturria Astiazaran, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-012/015
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:30:36. **Bukatu:** 00:35:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gorri gutxi zegoen herrian. Berak fraideetan ikasi zuen. Apaizak, fraideak... zein alderditakoak ziren. Gerra ez zen gogorra izan Zarautzen, baina hauteskunde garaian giro nahasia zegoen.

Transkripzioa

- Ta, ze eboluziyo hartu zun gerrak hemen? Jentia, nola, o zer moimentu eon eon zan? Ze, gorriyak esan dezu asaltatu zutela hori. Ta, gorriyetan ba al zeon zarautzarrak?

- Ez, ez, ez, ez, ez.

- Danak kanpokuak zian?

- Bai, danak kanpokuak. Ta bazian, Zarautzarrak 'e bazian, hemen manifestaziyoetan 'e batzutan ikusten zian. Ni republika etorri zan eunian 'e in zuen manifestaziyo bat, ta ni frailetan ibiltzen nitzan orduan, orduantxe hasi berriya nitzan, eta aurrian Jerica, zuek ez zenuten ezautuko? Famili hori deseindu zan, Donostiyan euki zun farmaziya batek, eta deseindu zian. Ta hala behintzat, haien aita bizardun bat, ta karlista zaharretakua, "¡Viva la República!", ta, "¡Fuera, qué coño!", [...], manifestaldiak builla gehio ateatzen zuen, ta bestela armatuko zuen. Eta, gu frailetan, frailetan bazan ate bat kanpotikan 'e, erreakin itxitzen zana, eta gizon bikaiña ta zan frailia, baiño, o barroa o kanpoa, itxi in zun atia 're, bai. Eta hor 'e berriz, danetakuak zian, frailetan 'e karlista aldekuak, abertzale aldekuak, hoiek jakiten zian bai baita konfesiyoetatik 'e bai, ta mou askotatik enteratzen zan bat. Ta Parrokiyan 'e bai. Parrokiyan berriz, este, zea bat ekarri zala, este, ikurriña berri bat ekarri zala, ta bedeinkatzea. Bedeinkatu nahi ez zeak, bikaiuak, jo, honbre, [...], polemikak eta.

- Gerra gogorra izan al zan Zarautzan? Gogorra gerra?

- Batez, batez, ezta batere. Ez zan batere izan. Eta aber, fijatu zaitez, gu abertzaliak izan 'e, eta desordena zeon orduan. Azken eunetan, klaro, normala da gaiñea, e, ze in ez zekiyela, ta, ebakuaziyua, ta historiya, ta abar, ta. Eta hala, e, Aian zian zeak, reketiak, Aian zeuden, eta Aia juteko gure ama zanak eman zitun maindire zuiyak, "bandera blanca" nola esaten da, kotxian jarri ta, billa juteko, billa juteko reketiana. Ta gu abertzale izan... Geo berriz multa paatu gendun, multa paatu gendun gure aita "presidente de la..., de la cooperativa" zan garai hartan eta zeak, asko jarri

zitun, Naparroak, karo, Naparroa itxi zanian ez baiño, iriñan billa ta jeneruan billa ibiltzen zian. Eta hoixe bakarrik zeatu zun, ta halare. Bai, ta sekretaiua berriz, zeakua, [...], Abastos bezela jotzen zan, ta sekretaiua zeakua, koperatibakua karlista zan. Ta hura kartzelan zeon, kartzela zeon, eskolan, o sea, udaletxeko azpiyan kartzela. Eta gue aitak zeozar behar zunian o, zerbait, zeoze behar zanean, esan nahi det, gauza haundixio beak zeak zuena baiño gehio, hau udaletxea jun, ta gizona atea zeatik, kartzelatik, koperatiba jun, lana in, ta [...].

- Bai, baiña herriyan izango zian, ba, piska bat txokeak, eta, gerra garaian bi bandoen artean, ta...

- Bai, zeon bai, botaziyoko garaian, botaziyotan bai. Ta, gu berriz, etxian eoten giñan. Ni gaiña batzutan, geroa behintzat, euki nun kargua aber, obserbatu zeñek zeñei nola zeatzen dan, ta. Ze, noa, ze tendentzita jotzen duen ta abar, ta bueno. Baiño bestela berriz ba, han, ba, joka karlistei. Bazan gizon haundi bikain bat, este, hemen salbide o deitzen ziyoena, Teresa, zeon, hemen taberna bat badao, zea, este... hemen ixkiñan, udaletxeko onduan daona, jatetxia 're bada gaiña.

- Bai, bai, Sakana.

- Sakana, Sakana, bai. Ba, hori Salbidenekua zan, Salbiden. Gizon bikaiña oso. Hargiña gaiña. Haundiya gizona; harei hiru juten zitzaixkon, hiru gizon, ta errenditu beharko.

- Ordun, gerra denporan hemen bakarrik frentearen jarraipena izaten zan hemen, bestela ezer ez.

- Ez, ez, ez, ez.

- Jarraitu notiziyak nola...

- Bai, hoixe bakarrik, hoixe bakarrik.

- Hortik aurrea ezer ez.

- Ez, ez. Hemen ez zan tiruik izan gerran, zeon, ezer ez. Esan deten bonba hoitxek. Ez, ez, herriyak ez zun ezer 'e sufritu.

3.8. Giro politikoa Zarautzen gerraostean

- **Hizlaria(k):** Iturria Astiazaran, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-012/016
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:35:36. **Bukatu:** 00:37:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Nazionalak. Zestoan zegoen kuartela edo ospitale militarra eta handik etortzen ziren soldaduak. Frankismoko lehenengo urteak gogorak: gosea eta arriskua.

Transkripzioa

- Ta gero, nola hartu zan nazionalak sartu zianian?

- Ondo, bastante ondo, zeatikan pakia uste gendun. Uste gendun ziharo desberdiñak izango ziala, e! Habek zintzo-zintzo-zintzuak izango ziala uste genduan, bestiak baiño okerro zian. Eundoko astakeiak iten zituen. Eta geo berriz, ba, saldauak 'e formatu gabiak etortzen zian ta asko zeatikan, hori, Zestuatik, hor zea zan Zestuan, este, kuartel jenerala zeana, kuartel jeneral gaizki esan det, este... ta hemen gero Aguila Fuentes ospital

militar, ospital militar fuerte bat. Ta hemen zeatikan, este, Zestuatikan, eundoko jende pilla etortzen zian, ba. Han herriyan, hura uaindik txikiyaua zan ba, zea, Zestua, eta arratsaldia pasatzea ta soldauak eta etortzen zian. Ta, zeak ikusi, arrokak, "¡ai va, qué monumentos!". Batzuek esaten zituen, nundik etorri zian tipo haiek. Bai, geo, ezautuaz ezautuaz antzeman iten da, joño, gizonak habek ez dituk lehen esandako gauzak eta, propaganda mou batea bazan, hitz ein bai, baiño... bai.

- Ta frankismoaren lehendabiziko urteak?

- Hoiek txarrak izan zian.

- Gogorrak?

- Bai, bai, gogorrak. Ta janan billa jun behar hemen batea ta bestea, ta.

- Bai, gosia behintzat pasako...

- Gosia 're bai, bai. Karo, gutxiyokin sujetatzen da bat, baiño, baiño... bai.

Ta arriskua gaiñea, esan deuna. Hemendikan, e, kanposantoaiño jun, basarritakuen billa, hi, zea, este, lakai bat iriñ, o bi, o hiru o; jun ta haiek 'e, konpromesua zeatu, kendu, ta hala juten giñan. Batzuek, e, ahal zuenak. Hori 're ahal zuenak.

3.9. Giro-politikoa gerra ostean. Garai gogorra

- **Hizlaria(k)**: Iturria Astiazaran, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-012/027
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 01:00:59. **Bukatu**: 01:03:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Kuadrillan denak abertzaleak ziren. Harremanak konfiantza handirik gabekoak izaten ziren. Gerra ostean euren artean bakarrik hitz egiten zuten, isilean. Pintadak. Politika-giroa.

Transkripzioa

- Ta, post-frankismua nola bizi izandu zendun politikoki? Post-frankismoa politika maillan.

- Ahal zan bezela!

- Ahal zan bezela. Zuen artean eta bazan konbersaziyoikan ta, ixillean ta...

- Ez, gu, gu gehienak abertzaliak giñan kuadrillan, ta gehien, kuadrillak gehienak holaxe zian, danak, definituak.

- A bai, e?

- Bai. O abertzale, o karlista. Abertzale gehio.

- Behin, hogeitertetik aurrea ya klasifikauta ya.

- Bai, bai, bai, bai, bai.

- Ta harremanikan ez zan izaten?

- Harremanak bai izaten zian, bai, bai, bai.

- Ze eratako harremanak, baiña?

- Ba, normalak, esan nahi det, konfiantza handikoik gabiak.

- Eta zuek, abertzaleok zuen artean izaten zan debate politikuak eta konbersaziyuak eta?

- Bai, bai. Bueno, aurretikan gehio zian, e. Hemen gerra aurretikan hemen

izaten zian eztabaidak 'e bai, este... frontoian hitzaldiyak eta... Holakoik ez gendun ezautu, entzunda bakarrikan.

- Eta gerra ostian orduan zuen artean bakarrik, isilean.

- Bai, bai.

- Eta aktuaziyoikan bai, aktuaziyoikan, ekintzaikan edo zeoze? Edo zeoze publikatu, edo?

- Ez. Izaten zian, ba bueno, aber, hi, ordenak izaten zian: "hi, bihar aberri euna dek, zeoze in ber diyau". Ta bueno, aber, ta pintadak. Pintadak izaten zian ba, Gora Euskadi Askatuta, ta laburua jarri, ta abar, ta holako zeak. Ta, batzuek izaten zian... Nik laun bat banun, hil zan gizajua, este, detektibe zea zun, fama, ta gaiñea izatez 'e zea, zaletasuna zun. Nei esan zian hark meza nausirako giñanian, este, "hi, Getai kamiyuan zeak in omen dixkiye, pintadak, Gora Euskadi Askatuta, ta", "Ez dek egiya!", "Hi hitzan bat!". Ta "efectivamente", ni nitzan bat. Ta abertzalia zan hua 're, e, baiño.

- Ta orduan politika giroa bizi zan?

- Bai, bai bai; bizi bai, bai, bai. Ezkutuan, baiño bizi, bai, bai.

- Eta ya, pixka bat ya, zea, esan nahi det, zirkulo karlista hori, martxan noiz jarri zan hori?

- Hori gerra aurretik.

- Gerra aurretikan?

- Bai, bai.

- Eta gero segitu in zun, noski.

- Gero segitu iten zun ta, este, hau itxiya eon zan, zea, batzokiya, batzokiya itxiya eon zan. Ta bitartian berriz zirkuloa juten giñan gu. Ni hiru aldiz bialduta nao zeatikan, zirkulotikan.

- Zeatikan, ba?

- Batian, aber, aurrenengua nola zan... Aurrenengua zan, ba, hantxe, baiño lehen billarra eoten zan edarra, billarra zean, zirkuluan, oso billar ederra. Hemen zean zan, Royaltiyan zan holakua, besteik ez zan. Eta... hala beira eoten genduan, [...] "hi!"... a! ez!... jokuan ai zian, bestela, mahaitan jokuan ta. Ta ni joku zalia 're izan naiz, eta hala beira geundela, etorri zan zea bat, Manterola, hil da, zea, San Pelaion zea 're euki zuen, arrandeia amak. Eta, este..., "ordena zekau afiliatuan semia bakarrikan zeatzia, asike erten in berko dek". Beno, ni kalea. Ta nei erakutsi zian bizikletan, mutil zahar bat zan, karlista, ta geo, geo gaiñea rekete izango zana, este... Eta hark pena haundiya hartu zun bialdu in zielako. "Hiri bialdu diela? Etorri neekin. Jungo al haiz?", ta "bai". Jun naiz berriro harekin. Harekin jun naiz, baiño geo ni 're zeatu, este, aldendu, ta billarrea beira, billarrekuai beira, ta halako batian presidentiak zea, Aristi, uain zea nola dao, zer da hori... este, municipal nola dao bat, Aristi, haize bat, haize bat... Ba, haren aitak, "hi, Iturria, kalea. Marcelina...", Marcelina, zeai, konserjiari, "faborez, ez gehio utzi honei etxe hontan sartzia". Ta nei berriz, hua nik hamabost hamasei urte, bat 'e inportikan ez hango jendiangatik. Ta orduan 'e gaiñea ni kontuatzen ai nitzan zergatikan hizketan ai zian. "Halakok esan du ez dala jungo botatzea", Amestigmatik, ez zala jungo botatzea, este... Ordura arte beti jun zian abertzaliak eskubitik, eta orduan berriz zentrotikan jun ber zuen, eta [...] , zentrotikan, zentrotik, deretxismuai zea kentzia zala ta, ez ziyola botauko, konbersaziyo haiekin ai zan. Ba, ni orduan bialdu nien. Ta hirugarrengo aldiz, hirugarrengo aldiz, lau laun 'e bagiñan, abertzaliak, zea 're bai, Arruti, Muebles Arruti nola? Hango seme bat 'e bai. Eta Ugalde zan, gerran zea izan, rekete izan ta permisuaikin Zarautza etorri, ta zirkuloa jun ta, "Ay va, dio!", gu, zirkuluan zea ederra dao, frontoi oso ederra dao, bertan iña da, beak iña, oso leuna, ta oso ona da. Paretak 'e ezkerrez o eramateko 're oso ondo zeatzen due. Gu askotan juten giñan halare, geo 're. Han pistola ateata bialdu zien. Bai, bai, bai. Ta uaindik uain hil da zea

hori, rekete hori. Geoztikan nik ikusi izandu det hura jatorduan batzokiyan, ta nik ez det bialdu izandu.

3.10. Batailoia nola sartu zen herrian

- **Hizlaria(k)**: Mutiozabal Begiristain, Bonifazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-023/003
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:03:57. **Bukatu**: 00:06:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Batailoia herrian sartu aurretik, justu-justuan heldu zen etxera. Herriko gizon bat kotxean bandera zuria zuela joan zen. Tiroak egon ziren eta kamioi bat erre zuten.

Transkripzioa

- Ordun, gerra, gerrako rekuerdoik eta gutxi.
- Bai. Guk gerrako rekuerdua, gu itxian giñan ordun. Hamen, honea sartu zianian zeak, falanjistak eo zea hoiek, gu ordun hiru, lau laun eo ez dakit ze jun giñan hondartza, hondartzatik kanalea, kanaletikan San Pelaiotik barrena bueltan, ta han bat azaltzen zaigu ta "Zertan zeazte hemen? Tiroka ta ai dittuk hor, ta zea, etxea jun zaizte hamendikan". Ta, a bai? Itxea jun giñan juxtu-juxtu. Gu itxea jun ta da! sartu zian zea hoiek, falanjistak o gerrako zea hoiek.
- Batalloia.
- Batalloia sartu zian.
- Ta ze in zuten? Ze in zuten?
- Ba, ez dakit ze in zuen. Celestino Albizu o bazan hamen zea elektrizista o? Albizu. Ta hura kotxe bat bazun, kotxe kaxkar bat. Ta kotxia hartu ta hura jun omen zan zehara, zubi gaiñea o ez dakit noa, bandera zuriya jarri zean, kotxian ta jun omen zan hura. Ta geo, sartu zian honea, batalloia. Ba, hamen pixkat eon zian, ta, hor, herri koskorretan ta, soldauak eo zea hoiek hor eon zian, jan ta ean ta iten zuela. Ta geo hamendikan beste batea, ta hola ibili zian.
- Ta, tiruak eta bota zituzten, ordun, e?
- Tiruak, bai. Tiruak baten bat eo beste bota zituen, baiño geo kamionak eta hor kamiyan zabenak erre ta in zittuen. Hor Euromarko aurre hortan akordatzen naiz hor nola erre zuen kamioi bat.
- Joño!
- Bai.
- Jendia bildurtu, ordun?
- Bai, jendia itxian ordun, bildurtuta. Ta, jun zian ta, jun zianian ba...
- Pakia.
- Pakia. Batzuk ikarauta berriz atea in [...] kanpoa ta, [...].
- Ta zuek nola jun ziñaten ba, hondartzatik, kanaletik buelta hori ematea?
- Mutikoskorak ordun, ta! Gerra zan, ba, el treinta y seis o, hamar urte guk. Ta, plaia o zea jun giñan, hondartza. Malekoitikan kanaletik barrena buelta in giñun guk ordun. Ez ba jakin!
- Jakin gabe.
- Jakin gabe. Ta han batek han billau zigun kanaleko hartan ta, "Baiño zertan zeazte hemen?", zean ta, zea, "Hor dabilta zean, gerrako zea hoiek

eta" zean esan ziun, ta "Etxea segi zazue, hobe dezue aguro jun". Ta hala, taka-taka, itxea jun giñan. Ta gu itxea jun ta behala hasi [...], etorri zian.

- Ta etxequak ba al zekiten, aita eta.
- Honbre! Aittak eta ze jakingo zuen?! Batez haiek gu nun giñan. Gu mutikoskorretan kanalea juten giñan, ta.

3.11. Soldaduentzat alkandorak dohainik egiten zituzten

- **Hizlaria(k):** Kaperotxipi Arakistain, Jesus Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-024/018
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:23:52. **Bukatu:** 00:25:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena:** Soldaduak fraideen pareko zine barruan egon ziren kanpatuta. Fiadonchako markesa etortzen zitzairen, esanez alkandorak egiteko gerran zeudenentzat; eta dohainik egin behar izaten zituzten.

Transkripzioa

- Esan dezu, gerran hor akanpauta egon ziala. Nun egon zian akanpauta?

- Hor eon zian, gure zean aurre-aurrian.

- Hor frailetako...

- Frailetako... zinia nola dao?

- Bai.

- Frailetako zinia. Hortxe barruan eon zian.

- A, barruan?

- Barruan, bai. Hor eon zian pilla bat. Ta hortxe. Haiek, batzuek alde iten zuen, zeak izango zian, konpañiyak o ez dakit ze izango zian, ta. Batzuek alde iten zuen, ta, handik puskatea, [...], beste batzuk etortzen zian. Ta guk aurre-aurrian zakaun sastreiya.

- Joe, kaltea zuentzat.

- Bai [...] galanta, joe! Gu gerra denboan... Geo zea etortzen zan, Fiadoncha, Marquesa de Fiadoncha. Hura zan hemengo markesa. Orduan palaziyuak besteik ez zaben. Eta hura etortzen zan, ta bueno, "hay que trabajar pa..., pa los que están en la guerra". Ta alkandorak eta zeak iten gu han, perro txiki bat irabazi gabe hainbeste denboan. Hainbeste denboan, ordia, hillabetiak eta hillabetek, e!, erropa iten. Ez dakit zeñentzat iten gendun, baiño... lanian. [...] Aitak esaten zion, "baiño gu perro txiki bat ez dakau, ez badeu ateatzen...", orduan gaiñea traje bat zeñek ingo zun, iñok ez! Zeak ingo zun gerra denboan traje bat! Ba huraxe zan, La Marquesa de Fiadoncha. Ez naiz hoi sekula ahaztuko. Joe, earra!

- Ta, baiña, tela ta berak ekarriko zun, ez?

- Bai, zeak ekartzen zituen, esto, rollo batzuek haundiyak, alkandorak eta iteko ta, erropak, soldauan erropak iteko. Ta hoixe iten eoten giñan.

- Taillak eta danetatik.

- Bai, bai... Eozein mouz josi ta eozein mouz indakuak, baiño, iñ in behar!

- Ta gero, ezta, ezta, ezta eskerrik askoik ere ez, igual.

- Bai, zea! Ezta ezer 'e!

3.12. Karlistak edo nazionalistak nortzuk izaten ziren

- **Hizlaria(k):** Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-031/025
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:34:36. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena:** Herriko karlistak arotzak, lorezainak.. aristokraziakoentzat lan egiten zutenak ziren. Tailarretakoak, berriz, nazionalistak.

Transkripzioa

- Ta hamengo, neetzako, e, karlistak jenealen zian jardiñeruak, arotzak, markesai ta lana iten ziyoen, ta hoiek zian. Geo tallerretakuak ya nazionalistak. Baiño, karlistak indar haundiya euki zuen lehen, e!, esaten duenez, nik [...] Aitai aitzen diyot eta. Geo, bai, ba! Haiek markesai ta eman behar.

3.13. Gerra garaian aireplanoa jaitsi zen Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-031/028
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:37:53. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Lasartetik aireplanoak ateratzen ziren gerra garaian Eibar bonbardatzeko. Alemanak ibiltzen ziren Zarautzen. Aireplano bat Zarautzen jaitsi zela gogoratzen du. Bertakoak fusilatu egin zituzten. Herrian bazekiten aireplanoa jaitsiko zela eta jendea zain zegoen.

Transkripzioa

- Gerra-garaia nola gogoratzen dezu, gerra?
- Ez, nik orduan... Veintiocho... zortzi urte nitun...
- Baiña gogoratzen dezu zeoze?
- Zeak, Lasartetikan aireplanuk ateatzen zian, zea, Eibar o, Eibar o bonbardatzeko. Hoi bai. Geo hamen ta bueltaka ta ibiltzen zian, ta. Bai. Geo alemanak, alemanak 'e ibili zian hamen. Inberto bazan, kamioi zean ta, haiek ez dakit, Galizi alde hortatikan o. Agustiñek esan zian, esan zun lehenguan, gerrako materiala o zean ta, ta nola eamaten zituen, ta. Ni gootzen naiz aireplano bat hamen jatsi zan, treintaixietian uste det, treintaixiete, treitaiotxo, zeakin, salatu in zuen. Hor aireplano hortan zetorren republikanua ta, bi, hiru o, bat, danak, alde hortakua ta. Hamen Zarautzen geatu zan. Urdiña zan gaiñea, bi-motorra. Eta geo harrapatu ta, [...], ta geo fusilatu in zituen haiek, esaten zuenez, bai. Politikuak zian itxura danez, errepublikanuak, o, bai. Joe, ta, hori da marka, e! Hua, nola... guk bagendekiun aireplanua jeixtekua zala, zortzi urte, betzi. Ta nola jakin zan hua herriyan? Jendia zai zeon asko, e!, zea, aireplanuana. Illunduta

jatsi zan, argiyakin ta, bai, ta. Ni hori harritzen naiz, nola jakin zun herriyak aireplano jua etortzekua zala? Ez al zan txibatazua, o. Bai. Urdiña. Gaua pasa ta geo, hurrengo egunen alde in zun txoferrak nunbait, o zea, pilotua... Koño! Frantziko zein da hori? Kosta... famoso hori, hamengo... Hendaia! Hendaia jeixtekua zan, baiña itxura danez, faltsukeia in ta hamen geatu ta hamen zai. Ta harrapatu zituen hoiek, gauez, izango zan, ba... Illundu ta ordu betea o hola sartu zian, sartu zan aireplano hua, bai. Hua ikuskizuna zan, guk aireplanoikan bestela nola ikusi, ta, bai.

3.14. "Amerikanoen" etxean neskame

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Erref:** ZAR-104/010
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:16:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea
 - Lanbideak » Neskameak
 - Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
 - Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** "Amerikano" batzuen familian ere egin zuen lan ezkondu baino lehen. Han gustura ibili zen, jende arrunta baitziren. Familia hartako amonak kontatutako pasadizoak gogoratzen ditu. Ameriketara joan zen semeekin, eta gero itzuli egin ziren.

Transkripzioa

- Geo, amerikano batzukin eon ziñan, ez? O amerikano famili batekin.

- Bai, ezkontzeko aurrian, berriz'e gure amak berriz'e gure pariente batzuen etxequak zian hayek, eta berriz'e udaan esan zien, ba, hara juteko, udazkenian ezkondu bihar nun ta. Ta uda pasatu nun han, baiño han ondo. Hayek ez zuen dona eta doñaik eta holakoik ez zuen izaten hayek.

- Baiña han, desberdiña, desberdin biziko ziñan, ezta? Amerikanuak bere ohitura raruak eta...

Bai, baiña hayek korrientiak... Ez, hayek korrientiak, amerikanuak ez zian, hayek zian gizona naparra eta andria Segurakua. Jende... Segurako basarri batekua hua're. Eta beste naparra're, berriz, zea zan, aita gazteik hil, eta bi anai gelditu, ta Ameriketa ama alargunak eaman zitun; ama alargun horren, zea, anaye batena eaman zitun bi seme hoyek. Ta amona xar hua zan, laroetabost urte zitun ni han nitzanian, ta esaten zun, ba, gerra karlistako denboran bea nexka gaztia zala Naparruan, eta han nola zeon zea batian, taberna batian neskame bea. Ta ez zala ez urikan etxietan, eta argiikan'e ez, luz elektrikaikan, denbora hayetan. Eta nobiyua in omen zun, kapitana, amonak esplikatzen zun, eta gau batian esan emen ziyon etxeandriak, Joxepa zun izena baiña "Pepa, uran tantoik ez daukau, ta nobiyuak launduko dizu iturrira juten". Eta kandela faola, faol batian, bakizu faolak nola dan kristalezko...? Kanposantua ta nola eamaten dia ba faolak? Bueno ba, estilo hortan etxietan ta izaten zian farolak, kandelan jarri, ta bueno ba, hartu zituen ontzi bat eta farola amona horrek, eta bestek, nobiyuak hartu zun beste marmita... ta ureta, iturrira jun zian, illunpetan. Eta geo, iturrira jun zianian, bere kapitan horrek eundoko

helduak eman dixkiyo amona horrei, eta amona hori, neska gaztia, hasarretu da ziharo, ta eman diyo despeida, hoi in ziyolako. Ta etxeandriak, tarteko jarrita, barkaziyo eske, ta “ni hablar de peluquín!”, geyo ez ta... Eta geo ezkondu zan, ba, amona hori ezkondu zan zea batekin: Vidal apellidua zun gizon bat, mutil bat, oso mutil jatorra zan, igeltserotza ta arotzak eta hola danak iten zitun hola, basarritan ta hola zeakin ibiltzen zana. Eta geo gazteik hil gizona, eta alargun gelditu zan. Ta bea orduan ibiltzen zan, ba, mahastiyetan ta atxurrian ta bi semi hoyek sostenitzeko. Ta hoyek pixkat gogortu zitunian, Ameriketa deitu ziyoen, ta Ameriketa jun zan bi semiakin. Ta bi seme hoyekin jun zan Ameriketa, eta biyak ezkondu zitzaixkiyon. Ta biyak ezkondu, eta geo ba, bat, zean, Irunen bizitzen zan, ta bestia hementxe, Zarautzen.

3.15. Gernikako bonbardaketa

- **Hizlaria(k)**: Madariaga Oar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Silban Iturburu, Leire
- **Erref**: ZAR-112/002
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:04:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Silban Iturburu, Leire
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra garaian, Lezaman egon zen lanean neskame. Eta handik ikusten zuen Gernikatik ihesi zebilen jendea. Gernika bonbardatu zuten egunean zer egin zuen kontatzen du.

Transkripzioa

- Gerra denboran non zeunden? Nola jakin zenuen Gernikan gertatutakoa?
 - Gerran... ba... gu, Bilbotik ni neskame neon seiñorak eta bildurtu, ta Bilbotik jun giñan Lezama. Lezaman... Etxe, etxe batea ta han bizi giñan, eta han, ba, ikusten gendun Gernika nola pasatzen zian jente dana burdiakin, ta beyakin, ta oilluakin ta dana; gaixuak, umiak eta karruan. Ta danak ibiltzen zian, ta gure pena!... Danak ihesika, danak ihesika, eta geo esan zuen, ba, Gernaika bonbardeau zuela. Ta geo Gernikan gauian ikusi gendun sua, suan resplandoria ikusi gendun, eta ene... dana bildurtuta Gernika dana erreta, sutan zeola, ta gure familiya, ze nola astelehena zan, astelehenian danak jutun zian ferira eo plazaa gauzak saltzea. Ta nik esaten nun “ene... nere ahizpa jungo zan,e ta han harrapatuko zun”, ta nere kezka zer zan han zeozer pasako zitzakoan. Ta gero in nun, seiñorak esan zian, ba, juteko, juteko oiñez juteko, ta nola jungo nitzan oiñez? Ta, ba, letxerua zegola goizeko bostetan Lezamatik Larrabezuaraiño, letxerua zeola, letxero hartan jun nintzan, Larrabezuan zeola letxerua. Ta Lezamatik Larrabezura jun nintzan oiñez goizeko bostetan; ta geo Larrabezuan hartu nun, zea, letxerua ta jun nintzan Morgaraiño letxeruakin. Ta gero Morgan, letxeruak utzi zian Morgan; ta ez nekin nundik jun, ze illuna zeon, oaindikan seirak eo, ta illuna zeon; ta in nun, ba, bildurtu, baten baten txakurrak edo zaunka in ta gizonen batek lapurra naizelakuan tiro botako ditelakuan, eta eguna in arte sagar baten azpian egon nintzen. Ta geo eguna in zunian, ba, baserriyan aurrian bidetxu bat ikusi nun, ta handik tapa-tapa-tapa bide txiki batetik tapa-tapa-tapa jun nitzan Errobeitira. Errobeitin ahizpa nakan ezkondata, eta hua bixitatu nun, ta kuiñaua moruak ez dakit ze in ziyoela, ta bai in ziyoela, gaixo zeon. Ta geo handik

jun nitzan etxea, eta etxean billatu nun ama ta ahizpa. Geo esan niyon amai: “Ama, zeñek daka errua Gernika erretzia?”, ta “Ez dakit, ume. Gure jaungoikoak indako lelengo herria Euskal Herriya da” esan zian amak. Eta geo, ba, holaxe eon nitzan han egun batian, ta atzea atzea bueltatu, ta Bilbora jun nitzan.

3.16. Gurasoen jatorria

- **Hizlaria(k)**: Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref**: ZAR-114/003
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:03:16. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Jauregi Aranburu, Ibai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Bere aita frantsesa zen, baina Frantziako gerratik Espainiara egin zuen ihesi. San Pelaion gelditu zen, eta han ezagutu zuen bere emaztea izango zena.

Transkripzioa

Gure aita men zan frantsesa izatez, eta Frantziko gerra aurreneko Republika Frantziyan izan zanian, ihesi iña Frantzitikan Espaiñira. Ta dijuala San Pelayon barrena, ordun esaten zayon pasatzen dianai “Camino de Bilbao”, ta hua’re. Ta gelditu zan San Pelayon. Eta San Pelayon gelditu, ta San Pelayon gelditu zanian, in zun andregaya gure ama no? Zauztik Zauzko guztiyak daki oaindikan zan Zarauzko plaza aurren-aurreneko etorri eta numero zuna, numero uno zun gure amak. “Era” Kristina Sarasola, [...] bezela, Agues y Sarasola: amana det Sarasola, ta Agues det aita frantsesana. [...]

3.17. Momentu onenak eta txarrenak

- **Hizlaria(k)**: Hizlari ezezaguna, ZAR-119
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aierbe Iturburu, Gorka
- **Erref**: ZAR-119/003
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:02:49. **Bukatu**: 00:03:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Aierbe Iturburu, Gorka
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Bere momenturik onenak gerra aurretik izan ziren. 17 urterekin joan zen gerrara, eta larritasun ugari bizi zituen orduan.

Transkripzioa

- Zein izan da zure momentu onena eta txarrena?
- Ba, nere momentuik onenak gerra jun arteraiño, hamazazpi urterekin erten ber izan nun gerra, eta hartaiño ondo. Baiña geo, gerra denboan, larritasun haundiyak pasata. Aurrenengua izan nun Bilboa aillatu eta handikan bigarren egunea, abiaziyua etorri zan, ta bota zun bonba bat. Eta

guk eskola refujiyotzat hartu gendunian, ondo xamarrian erori zan, ta uste gendun danok han hil ber gendula. Bueno, hura pasa zan, eta geo etorri zan Gernikako bonbardeo famoso hori, eta bigarren larritasun haundiya hauxe da. Nik ikusi det telebistatik, eta liburuak irakurri ditut, baiña gauza bat da hori han ikustia, ta bestia telebisiyuan ta irakurtzia. Haura pasa zan ta tira.

3.18. II. Errepublika eta gerrako oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Sansebastian Izeta, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Santxez, Oskar
- **Erref:** ZAR-121/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:01:37. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Santxez, Oskar
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
 - Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Txikia zela, diktadura zegoen, eta, gero, Errepublika iritsi zen. Ordutik Zarautz asko aldatu da: lehen denak ezagutzen ziren. Gerrako denbora guztian egon zen boluntario. Santanderren preso hartu zuten. Gerrako oroitzapen txar asko ditu. Gerra garaian, bitan egon zen kartzelan.

Transkripzioa

- Txikia ziñanian, Zarautzen zerbait berezirik gertatu al zen?
- Bai, gauza batzuek; eta geo, zeana, inportantenak zian ordun Diktadurak eta zian, ta Republika etorri zana “año treinta y unon”
- Asko aldatu da Zarautz ordudanik?
- Asko, zeatikan ordun Zarautza zan txiki-txiki, herri txiki bat, ez zan aillatuko bost milla habitante, eta gutxiyo’re. Eta ordun danok ezagutzen giñan, danok ezagutzen giñan, ta bai izenez ta bai apeillidoz.
- Gerran egon al ziñen?
- Bai, egon nintzan gerra guztiyan. Boluntayo jun nintzan Republikakin. Ta Santanderren agostuan hogeita seiyan prisionero harrapatu niñuen.
- Zein oroigarri duzu gerrataz?
- Gauza txar asko, zeatik, este, hiru urten gerran ibiliya danak oso rekuerto txarrak izaten dittu. Gerra badakigu zer dan, o ondo ikasi giñun behintzat zer zan.
- Gerratean kartzelan egon al ziñen?
- Bai, bi... bitan egon nintzan: aurrena prisionero eraman niñuenen, hartu niñuenen, eraman zien Santanderretikan Monte Albertian barkuan Santoiña. Han zauren kartzelan kuartela, ta institutua, ta hoyek danak kartzelaz ta jarriyak zauden. Geo bigarren aldiz eraman niñuen frentian naola Francokin, zazpi hillabete... beatzi hillabetea reklamututa, Santoñako kartzelatikan informiak hartu zittuelako Zarautzikan oso txarrak.

3.19. Gerran izan zuen zortea

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Izeta, Manolo

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Oñatibia, Manu
- **Erref**: ZAR-124/005
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:05:13. **Bukatu**: 00:06:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oñatibia, Manu
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: 19 urte zituela, gerra etorri, eta beste lau zarautztarrekin batera joan zen Jakara soldadu. Hara iritsitakoan, euskaraz ari zirenez, gizon batek nongoak ziren galdetu zien. Eta kasualitatea, gizon hark txikitatik ezagutzen zuen Manolo. Hari esker, gerra osoan laguntzaile egon ahal izan zen Jakan.

Transkripzioa

Gure tabernakin lotutako gauza batzuek... ze esango dizuet, ba? Guk, nik hemeretzi urte nitunian etorri zan gerratia, ta jun giñan Zarautztikan bost jun giñan Jakaa: bat, Xalbardin; bestia, Santa Barbarakua; bestia, Larrarte, Bordako baserrikua; Angel Usobiaga... Geyo zein giñan? Untsaingo mutilla, Untsaingo baserrikua, ta ni. Ta aurrenengo egunian jun gea Jakaa, ta eman zizkigun zeak, gure erremintak, trastuak, danak galtzak botoyakin lotuta, ta batzuek geatu zian, bai, hankak potoluak zituela, ta kalea... ezin erten kalea... Jun gea taberna batea Jakan, ta euskeraz ai giñan gu taberna batian, ta han karabiñero bat zeon, ta euskeraz aitu ziunean, “nunguak zeate? De dónde sois?”, “Yo de Zarauz. De la... Iriondoneko tabernakua! De la taberna de Iriondo”. “Mekatxis! Yo, si he estado en Zarauz! Yo vine a Jaca de Zarauz! Y te conocía yo desde cuando naciste!”. Txikiya-txikiya zianetik ezautzen zigula, ta haren bitartez, nik euki nun suertia gerrate guztiya asistente eoteko. Porke, Jakako kuartelian erakusten zuen, karabiñeruak erakusten zuen, zea, instruziyua. Ta hurrengo egunetikan entxufia.

3.20. Gerrak tristura ekarri zuen

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Ibarguren, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ZAR-130/011
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:17:44. **Bukatu**: 00:20:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, Zarautzen zegoen umezain. Soldaduak kamioietan pasatzen ikusi zituen. Jende askok alde egin zuen, Bilbora, Nafarroara... Tristura sartu zen. Kartzelaratzeak, emakumeei ile-mozketak...

Transkripzioa

- Hasi zenian, gogoratzen dezu gerra nola hasi zen?
- Bai. Nola ordun ni Zarautzen neon, ni eskolatik irten ta jun nintzan niñera kalera. Eta jun nintzen eta ni Zarautzen neon eta igande illuntze batian hasi zian Guardia Armadak kamionaka, kamionak jo, pasa bat eta pasa bestia eta jende guztia aidian jarri zuten. Zian pues, zeak, este, Guardia Armadak.

- Asaltokuak?

- Bai, kamionkak pasatzen zian ta jende guztiya aidian jarri zeen. Eta geo, ba, hurrengo egunian, pues, jendia martxatu zen; jendia, bertako jendia, kanpoa jun zien, ta ba, batzuk Bilbao aldea, bestiak Naparra aldea, eta hola jendia galdutzen ta hola tristuraz sartutzen. Asiske, hasi zen gerra, baiño tristia. Bela hasi zien jendia kartzelan sartzen, alkarri, alkarri falta billatzen... ta...

- Kartzelarik Zarautzen bertan? Kartzela bazeon Zarautzen?

- Bai, bazen, baiño kanpoa eramaten zittuzten gehienak, kanpoa, ez dakit noaiño, Zarautz... Donostira eo. Eta itten zittuzten... aitte ta, beno, nazionalistak zielako, alabai illia dana moztu ta paseo zea guztiyan, kale batetik besteaiño pasiatu. Egunero eamaten zuten illia moztu-moztu inda neska bat, bere gurasuak nazionalistak zialako. Ta holakuak itten zittuzten. Bela hasi zian gaizki itten alkarri.

- Ta neska hori bera bakarrik? Neska horri bera bakarrik, berari bakarrik, pertsona bati bakarrik?

- Bi guardikin, bi guardikin juten zen kalia barrena.

- Baiña berari bakarrik moztu zioten illia?

- Bai, bai...

- Neska horri?

- Bai, bat bakarrik ikusi nun. Ta hola.

- Ordun, tristia.

- Ooo, ez nuke nahi berriz ikusi, gerra denboako kontuak tristiak oso.

4. Baserria

4.1. Txerri feria

- **Hizlaria(k):** Lertxundi Ameztoui, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-001/023
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:42:13. **Bukatu:** 00:44:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Santa Barbara egunean Txerri Feria izaten zen, eta jai egiten zen Zarautzen. Edozein etxetan hazten zituzten txerriak orduan. Txerri kalea: hiltegia kale horretan zegoelako jarri zioten izena.

Transkripzioa

- Ekonomia ta lana, piska bat, periarik eta ba al zan Zarautzen garai hartan? Feriarik edo holako zearik? Azokaik iten al zan bereziya, edo...

- Bai, bai, bai. E, feri zaharrena gootzen naizena da, txerri-feriya Santa Barbara egunez iten zan.

- Txerri-feriya?

- Bai, txerri-feriya. Eta Santa Barbara egunez Zarautzan jai iten zan orduan. Aspaldiko kontua da hori oso, e! Eta, ta, txerri-feriya, bai, bai. Ta lehen, eozein itxetan zeon txerriya. Guk, itxian behian txerriya hazten gendun beti, itxian behian. Oan hoi debekatua dao sanidadetik, baiño lehen eozein kale basarri o zeatan, patiyo bat baldin bazuen, txerri-jana biltzen

ibiltzen giñan, eta, guk beti, txerriya urtero hazi izandu deu. Oantxe hiltzen genun, San Martiñetan. Earrak eoten zian oolkiyak eta. Ta geo zeak iten, esto, txoixuak iten. Ta etxian ibili [...] ibiltzen giñan gu, bai.

- Ta azoka bereziya iten zan orduan?

- Azoka bereziya, txerri-periya, bai. Santa Barbara egunez iten zan.

- Ta, Txerri Kalek badu zerikusirik, izen horrek badu horrekin zerbait...

- Bai, e, Txerri Kalia, nik ez nun ezautu hori, baiño mataeia hor omen zeon, bai. mataeia hor omen zeon, eta igual hau, ez dakit, hau egitzat o jo laiken, baiño guk, txerriya eukitzen gendunian, geo guk mataeira eamaten gendun. Eta orduan mataeia, mataeia hamen San Pelaiko onduan zeon. Ta, txerriyak earki juten giñan gu, baiño, hor txerritegiya lehen, e, esto, mataeia zeon lekuan txerriya geatu iten zan, ta ez zun nahi aurea jun. Ta eman, eta azkenian karruak in genitun, ta karruan eamaten gendun. Ta guri, guri bezelaxe asko... "bai, bai, hortik ez dek pasako txerriya, hi!", ta, "zer da, ba?", ta, "ba, lehen hor mataeia omen zitxion", ta. Eta Txerri Kale biharbada hortik izango zan, kale, hori azkenengo kalia zan, Txerri Kale. Oan Herriko Barra jarri diyou harrei, baiño hori lehen azkeneko, ba, Herriko Barra bezela, azkeneko kalia izango zan, eta hori, e, kale-bire o baserri-bide bezela. Hortikan eamaten zian mataeira txerriyak, eta nik ez dakit, pentsatzen det horreatik jarriko ziyola Txerri-Kale, o. Ta geo, gaiñez, inguru hortan baatzak zian. Eta baatza hoietako txaboletan, hoiek danetan txerriya eoten zan, danetan txerriya.

4.2. Loreak azokara saltzera

- **Hizlaria(k):** Txurruka Egaña, Maria Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-004/013
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:22:04. **Bukatu:** 00:23:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Azokara joaten ziren Zarautzera saltzera, lehenbiziko lore-sorta berak eraman omen zuen saltzera. Haurdun egon arren, otarre handia buruan hartuta joaten zen.

Transkripzioa

- Ta, azoka ta etortzen al ziñan?

- E?

- Azoka ta, jenerua saltzea?

- Zarautza.

- (Alaba) Plaza? Eunero!

- Azoka, bai. Azoka.

- (A) Eunero!

- Jesus! Ba, azoka...

- (A) Aurrenengo lore-sorta plaza saltzea honek ekarri zun.

- Bai, eta, zea, ni...

- (A) "La primera florista de Zarauz!".

- ...orduan buruan puntan hartu otarraka haundiya, tomatia edo zeoze, eta tripa haundiyakin, eta halare aillatu. "Emakumia, horrela zean ta!", "ez da

behintzat lehertu, ta!". Ta danak Allemen jaio zian, eta Don Ebaristok esaten zun medikuak, alegiya "a, uain danak Donostiarrak dia, baiña lehen danak nerekin Zarauztarrak zian!" esaten zun harek. Eta... inauguraziyua izan zan harena, eta orduan beak esaten zitun kontu hoiek, mahaian jarri zanian. Han izan giñan bere inauguraziyuan, ta halaxen.

4.3. Loreak zaindu eta saltzea

- **Hizlaria(k):** Txurruka Egaña, Maria Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-004/016
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:29:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Bera izan zen loreak saltzera eraman zituen lehenengoa. Gladioloek zer lan ematen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta, orduan, e, lorea 're saltzen zan, lorea 're?
- Loria, bai. Loria saltzen zan, bai.
- (A) Esan dizut, ba, aurrenengua beak ekarri zula aurrenengo sorta, ta danak parre in ziyoen, alegiya, ez dakit ze eta badakit ze, bakizu ze izaten dan lehenengo gauza. Loria kin ta ez dakit ze, ta, bueno, pero mira nola zeatu zan.
- Orduan, baratza beti landu izan da Allemen?
- Bai, baratza pixkat bai, pixkat. Asko ez zan eiten, baratza asko ez zan eiten.
- Ze, lorea oiñ ere badao.
- E?
- Oiñ ere badao lorea hor.
- (A) Hombre! Oain bai, oain...
- A, bai! Asko! Oaiñ bai. Oaiñ inbernadore asko dauzke larrosakin beteta, bai. Eta gladiolua 're asko iten zan, eta, gladiolua ikaragarri...
- (A) Artasorua bezela...
- Baiña moda jun zaio, eta ez du iñok nahi uain. Uaiñ nahi du bata holako, bestia holako, dana diferentia sorta in eta horrela, zein politaua, ikusi ondo ta eramaten ditue. Bai, eta, ba, oaiñ gladioluak gutxitu in due, eta harek 'e lan asko ematen zun. Gladioluak 'e bere bulbuak edo, bere haziak atea in behar izaten zian, sekatu in behar izaten zian, garbitu, eta gorde in behar izaten zian, eta. Baiña halaz ta guztiz 'e, kanpotik ekartzen zan berriya hobeto, zeauak etortzen zian, konserbatuauak, edo indartsuauak. Etxekua beti izaten zan indargabetua edo kaxkarraua. Bai.

4.4. Emakumearen egitekoak baserrian.

- **Hizlaria(k):** Txurruka Egaña, Maria Josefa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-004/026
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:41:23. **Bukatu**: 00:44:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Senarrak baserrian lan egiten zuen. Baserriko lan-egun bat nolakoa izaten zen. Aitagarreba goiz jaikitzen zen eta asko laguntzen zien lanean. Goizean azokara joaten zen saltzera eta arratsaldean hurrengo eguneko prestatu, arropak konpondu..

Transkripzioa

- Ta, bestela, bera, berak baserriyan iten zun lana gizonak?
- Nola?
- Baserriyan lana.
- Bai, baserriyan bai. [...].
- (A) Bost ume, ta baserriyan lana in ta.
- Ta zuk baserriyan ze lan iten ziñun? Danetik?
- Ze?
- (A) Baserriyan ze lan esaten du honek.
- Zeiñek?
- Zuk, zuk, ze lan?
- Nik?
- Bai.
- Baserriyan?
- Bai.
- (A) Danetik.
- Etxe ta kanpo nik lana, ahal deten guztia. Etxeako zeoze izango baldin bazan, eiñ ahalein guztia.
- Kontatu eun batian ze ordutan jaikitzen ziñan, ta ohera jun arte ze iten zendun eun batian.
- E?
- Eun batian, jaiki goizian...
- Bai...
- ...ta oheratu arte ze iten zendun komentatu.
- Nik?
- Bai, aber.
- Ze ingo nitun, ba?
- Ze ordutan jaikitzen ziñan?
- Ordun? Ze ordutan? Zortzirak aldian, edo. Aitaiñarreba gendukan oso ona. Goizo jaikitzen zan, ta bea jardutzen zan sua in ta, han, guri pixkat horrela zeatzen, launtzen goizian goizo, bai. Eta ordun, ba, guk ere ba, umiak in ta nola giñaben, erreztasuna gendukan pixkat ohian gehio eoteko, eta. Holaxe, [...] giñan.
- Gero?
- E?
- Jaiki ta gero?
- Jaiki ta gero? Beno, esan dana. Azoka 're etorri behar gendun, ta! Beste gauza asko. Hura 're prepaatu in behar izaten gendun. Azokako gauzak 'e pronto jarri bihar izaten zian, ta. Ba al dakizu?
- Ta gero, azokatikan ze ordutan etxea?

- Oain baiño goizuo. Oain berandura arte eoten da jendia. Ordun pixkat lehentxuo juten giñan etxea. Ordun jendia goizuo moitzen zan etxea juteko.

- Ta gero, etxera jun ta gero, ze iten zenuten?

- Bazkaldu! Pronto baldin bazeon...

- Bai, ba. Zu azoka etorrita, nork prepaatzen zun bazkaia, ba?

- E?

- Bazkaia nork prepaatzen zun?

- Bazkaia? Bueno, igual goizo zeatuta, edo bezperan edo moldatuta edo igual ta, holaxe. Bazkaia baita ere han gelditzen zana, suegrak 'e bai, han eoten zan da, harek 'e bazkaia zuzendutzen zun. Ez zan bezperan ibili beharrikan. Hura han eoten zan, etxian.

- Ta gero atsaldian ze iten zendun, atsalden?

- E?

- Atsaldean ze iten zendun?

- Atsaldian?

- (A) Arratsaldian!

- A, arratsaldian? Bai, arratsaldian 'e, ba, izango zan ba hurrengo euneako tratua prepaatu beharra.

- (A) Eta berriyak in behar badia ipiñi in behar, letxuak eta ipini behar hua. Eaman in behar bazan[...]. Etengabia!

- Ipiñi in bihar danak, moldatuta, ipini in behar pronto. Ta igual zeoze, astuan pasta puskaute ta haura 're konpondu in behar ta, milla gauza! Konponketa 're in bihar da ta! Harek ere... erropa zaharrak ere igual etenak eukitzen ditue ta, barrenak zeatuta, urratuta igual ta, haiek ere zuzendu in behar, ba al dakizu. Josten ere iñ in behar.

4.5. Kale-baserrietako jendearen bizimodua lurrari eta itsasoari lotua

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Xabier - Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-007/009
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Baratz asko zegoen San Pelaion. Ze baserri eta etxe zeuden. Baserrietako jendea sorotik eta itsasotik bizi zen.

Transkripzioa

- Bai, eta gaiñea hemendikan ya herri aldea dana baatzak, eta...

- Dana baatzak, ez zeon... Eta aleik 'e ez zan. Hamen, aurreko zea hau, honek alboko hori, hori banitun... Horko balkoitako harri earrak neuk jaso nitun, hemezortzi urte izango nitun, hamen San Pelaio etxia in zanian. Monteruana 're basarriya zan.

- (A) Monteruanekua da zea, Rosario, hor, lehenbiziko elizan onduan daon zea hori...

- Hori basarriya zan, bai. Eta, San Pelaio izanda... Geo hurrengo, telefonikatik honea bat, zeakua, Agirrekuak in zuen etxia, eta gaiñuntzian, Arrutineko taillerra ta zian, baiño hoiek 'e, hoiek danak soruak zian. Hoiek

zian Etxe Beltzekuak eta Don Evaristonak eta... hoixe dana, han ixkiña 're bai. Hamen itxura antzeko baserriya Etxe Beltz dia, ta Etxaniztarrak, beste gaiñuntzekuak danak bi behi, eta itsasoa.

4.6. Ermandadeak

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Uranga, Antonio; Uria Mancisidor, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-009/019
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:30:13. **Bukatu:** 00:32:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Zeziñta. Ermandadeak izaten zituzten baserritarrek, elkarri laguntzeko. Ganaduren bat gaixotzen bazitzaion baserritarren bati denen artean ordaintzen zuten.

Transkripzioa

- Zeziña ta iten al zan, ordun?
- (Antonio) Bai, bai.
- Bai?
- (A) Zeziña bai. Hua ganaubai etxeen ta. Zea, [...] uaiñ 'e, ermandariai zea esaten zitzaion, e, hamalau bat eo hamabost bagiñan hemen. Bati ganau bat galtzen bazitzaion hari launtzen ziyoen danak, ta. Geo txahala gaixo zeona [...] baldin bazan, hil hua, ta danan arten partittu, ta hua jan, haragiya, hua, hua izaten zan gehiena jaten zana.
- Zein zan ermandade horren zeregiña edo zein izaten zan?
- (A) Geonek, geuk eamaten gendun.
- Baiña zertako sortu zan hori?
- (Pakita) Ganau, ganauba gaixotzen zanian...
- (A) Ganau, ganau, zea, alkarri launtzeko, zea, ganau... Hamalau, hamalau baserritar zea, juntatzen giñan juntatu ta, batei gaunau bat gaixotzen bazitzaion ta akaatzen bazitzaion, hua danan arten jaso ta paatu itten zan. Iñork zeak ez gendun eukitzen guk, geuk, geonek preziyok in, jartzen giñun hiru komisiyokok, hiru jartzen giñan, hiru, bai, jartzen giñan ta, bai, preziyua in geo. [...] itxekuai ta bestiai tokatzen zitzaiona, harek [...], ta txandak aldatuz, hola eamaten gendun. Ta geo atzea, hoi 're, [...] seitu zun horrek, e!, baiño hoi 're bukatu zan, ta, oain batez.
- Oin ez dao?
- (A) Oain ez do!
- Noiz bukatu zan hori gutxi gorabehera?
- (A) Hori? Nik izango nittun, berroei bat urte nittula, ta oain, oain hoeita hamabi bat urte bai, bukatuko zan hua, hua bukatu zan.
- (P) Orduan, gehienbat zan desgrazin bat ganauakin eo gertatzen baldin bazan, galera haundiya, haundirik ez izateko baserritan, ta...
- (A) Danok [balterua] zeatu, alkarri laundu hua zeatzen.

4.7. Zarautz inguruan mahastiak non zeuden

- **Hizlaria(k):** Lazkano Roteta, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-010/008
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:22:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Txakolina non egiten zen. Zarautzen leku askotan zegoen mahatsa. Hainbat inguru aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta mahastiak eta txakoliña ta hemen inguruan bakarrik izaten da, ez? San Barbara inguruan... edo Zarauzko beste inguru batzuetan izan da?

- Zarautzen mahasti asko zan gu umiak giñan garaian.

- Bai? Kalia eta be bai?

- Bai. Hemen Balentzi aldea beittu, kanposantu pasa ta Kuliñeko mahastiya zan. Ta geo Balentzira iya ailleatu, Balentziko terrenoa Munoako zea horta, Pepena. Errota Zaharren 'e bazan, Antxurrutenen 'e bazan, Etxetxon ta hoittan 'e zeoze bertan bazan, Ittulazanen 'e bai. Ta hemen behera zean berriz, kanposantutik behera, Pantolingua ta hasieran Salbirek [...] zuan. Geo bestia bazun Alfa alde hartan 'e, bazun Pantolinguak. Ta hemen zea Makatzaneko baztar hortan [...] ta hoiek 'e bazituen mahastiak; mahastiya asko. Muntxiyon berriz, Muntxiyon baatz asko zan.

- Baatza gehio?

- Bai. Ta hemen eliz punta hontan 'e bai. Hor 'e Kirkillek [...], ta oain Xantarbak daka parte bat hor baiña, hor mahastia, ez dakit nun dan. Pantolinguak 'e bazun hor zean, Vista Alegrea tartian mahastiya, abonatua o zea ikusi gendun guk baiña, ezautu gendun baiña. Geo hurrena berriz, oain Vista Alegreko obrak ta daude iñak baiña, hor 'e Allemeko izandakua o Rokek hor zun mahastiya, geo.. Izagirrek. Klaudio Izagirren andria Alleme kasta zan ta nola o hala ba, mahastiya zun hor 'e. Ta azpikaldian 'e, Malderreneko zeatik hasita tarte hortan 'e, paeta gaiñian, bi zea arku earrak zian. Mahatsa toki askotan.

4.8. Txakolinaren prozesua I

- **Hizlaria(k):** Lazkano Roteta, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-010/013
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:36:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Txakolina nola egiten den. Prozesua. Lehenbizi mahatsa heldu behar da. Mahatsa bildu ostean itzaletara eramán, freskurara.

Txakolina poliki fermentatu behar da. Txakolina berotzen denean mikatzu egiten da.

Transkripzioa

- Ta, txakoliña nola egiten da?
- Txakoliña? Mahatsakin.
- Baiña, nola? Zein izaten da, nola, batu eta prozesu guztia esplikatuko dezu?
- Bueno, mahatsak heldu in behar izaten du aurrena. Zenbat eta helduo, nik nahio mahatsa. Ta mahatsa heltzen danielan ba, igual denboaldi txarra o zeatzen badu ustelegi o jotzen du ta, hor, hor saiatsu in behar izaten da, ya azkenengo zea hori apurua izaten da, ze giro dan ta, egualdi ona eukitzia hobia da. Ta bitu, bitu, bat bitu da, ta bestia mahatsa tratatu. Mahatsa konparaziyoa, behin bildu ezkeo nik esaten det etxea, itzalea, itzalian prexkuran mahatsa, ez zea, bildu ta euzkitan, zea kajetan. Etxea ekarri ta prexkuran, [...]. Geo, hori ez da beotzen, itxea ekarri ta, ya itzalian, kajetan ta. Geo kaja oso ona da zea, mahatsa eukitzeko.
- Bai?
- Lehen garai batian lepa-otarretan zeatzen zian, ta eitten zan pillia haundiya, igual hirurogei kiloko zeak igual, otarrakak eo gehiokok 'e igual. Ta mahatsa heldu [...] salda zaiola zean ta. Geo hala euzkitan ta eukitzen bazan eitten da beotu ta fermentatzea juten da. Mahatsak ez du fermentatu behar nereikiko txakoliña itteko. Txakoliña 're ya tolaretik ateatzeko ez badek ondo tratatzen beotu ta fermentautu eoten da. Ta fermentaziyua ekarri behar du lasai. Oain txakoliñai, eitten danielan barriketa zeatzea ta hotza jartzen zaio. Bai, ez da hemezortzi bat gradutik behera o gora zeatzen, epeldueazten, handik behera zeatzen da, eukitzen da.
- Poliki fermentatzeko?
- Bai. Ta hola eoten da ba, ze esango dizut nik, hillebete o bi o, behiñ 'e berotu gabe, bero handiik gabe. Irakitiak eta itten ditu baiña irakite hotza, [...]. Bestela guk lehen txakoliña barrikan sartu ta irekiten zan denboan barrikari hola eskua jarri ta iya ekonomikan jartzen bazendun bezela berotzen zan, e!
- Bai?
- Bero-bero, e! Ta hoi itten da, mikatz-mikatz-mikatz itten da, hainbesteaiño beotzen danielan. Horreatikan zian bodega hotzak eta hobiak. Ta piskaka-piskaka ikusi det geo hotzan zea hoiek eta, jarri giñuzen ta oain tenperatura, ba, zaitu itten degu.

4.9. Txakolinaren prozesua II

- **Hizlaria(k)**: Lazkano Roteta, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-010/014
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:36:46. **Bukatu**: 00:40:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Txakolina bildu ahala itzaletara eramaten dute eta lekua badago bertan egunean estutu. Mahatsa berotu ez dadin zaindu behar

da. Dolarea: nola funtzionatzen duen. Barrika bete ostean produktu bat botatzen zaio lodiena dena hondora joanarazteko.

Transkripzioa

- Eta, mahatsa jaso eta kajetan orduan gordetzen dezue?
- Bai. Gorde ez!
- Baiña itzaletan...
- [...] Bildu ahala, e, ba, kariatzen; euzkitan ez euki mahatsik, hartu ta itzalea.
- Eta bertan egunian estutu edo...
- Ta tokiya badao ta... Estutzeko ez da hainbesteaiñoko presa. Bai, seittun hasten dia ya joaldiya itte o zea baldin bada. Bi joaldi ta hiru igual itten da, ta beste joaldi bat sobre badao igual hurrengo euneako igual uzten da. Gauza lasai hartu behar izaten du, ez dao. Jendia gehio baldin badao biltzeko ta, pixkat aurreratzen bada, kajan ondo eoten da. Berroeita zortzi ordu kajan batzeko ez dao kuidadoikan, fermentatu ezian. Ta mahatsa tratu onian baldin badabil, puskatu gabe ta, ondo baldin badabil, ba, mahatsak aguantatzen du. Ta txarra pilla haundira zeatu, otar haunditan ta jarri ta, pixkat mastriatu ta berotu ta...
- Zapaldu...
- Hoiiek dia txarrak. Ta geo 're, ba, geo 're ba, hotzakin ta, [...] berotu gabe ta [...].
- Eta, estutu, tolarian estutu, eta gero zuzenian barrikara? Ero nola eiten dezue?
- Hoiiek automatikuak dia, ikusiko dittugu geo nahi baldin baezue, ezta holako... laixte, ikusiko deu. Tolaria dao oain menbranakin. Horrek itten du labadorak bezala itten du, zea, programa jarri... bai. Lehenbiziko zea izaten da, mahatsa botatzen dezu espaldilladora. Espaldilladorak sustarra, orbela o zeoze zikiña etorri bada, dana fuera, dana garbitu itten du, ta alia ta likidua sartzen da zean, tolarian. Tolaria zilindro zea da ta, barrika bezela, ta hua bueltaka ibiltzen da. Bere saria du ta sarian likidua zeatzen dun bezela, likidua bandeja eroitzen da ta, seittuan, seittun barrika jartzen da hua. Bandeja bete ahala ematen zaio bonbai ta, bonbai eman ta, bandeja juten da. Eo zeara juten da, barrika bandejatik. Ta geo ez da hori bakarrikan. Ya barrika betetzen dezu ta eitten zaio [...] o zea hori botatzen zaio hor. Hori azukre erria o da. Ta horrek itten du zeatuazi, ondua [...]. Loriya erteten du horrek, zeatikan, tolaretikan, ta eitten dio patsa o zea...
- Zikiña?
- Bai, bai, zea, loriya hori ondoatuazi, ta eitten da gaiñeko zea kendu, gaiñeko hori jaso, beste barrika, releatu, ta ondua bota itten da. Ta itten du irakitia o prozesua itten du edari garbiyak, ez zea, lehen itten zan bezela, zea, tolarian nola-hala zeatu ta... Nik, Pantolingo tolaren ta haietan 'e ibiliya na ni, zea, mutilla, eliz puntako mahatsa biltzen ta. Nire koiñau zanak euki zun parte bat eta Ttenttek 'e bai ta, hoiien mahatsak biltzen ta, ailleatzen nitzan ni mutil gaztia. Ta, Pantolingo tolaria tolare earra zan, zurezko tolaria, zea luze bat zun, estutzeko lizar trongo luze bat, ta hiru-lau laun jarri puntan ta haei estutzen ta, bastante azkar gaiñea estutzen zan. Oso tolare earra zan.

4.10. Mahats-klaseak

- **Hizlaria(k):** Lazkano Roteta, Inazio

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-010/031
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 01:24:37. **Bukatu**: 01:26:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Mahats-klaseak. Txakolin beltza ardo beltza da. Bazuten ardo-mahatsa ere lehenago, baina ez zen behar bezala hazten eta aitak txertatu egin zuen.

Transkripzioa

- Eta, e, txakoliña eiteko mahatsa zer da beti, beti klase bera ero klase diferentia?

- Bai, txakolin-mahatsa, txakolin-mahatsa, [...] beltza ta [...] txuiya, hoik dia hemengo txakolin mahats naturalak. Geo beste bariedaden batzuk e sortzen dia, baiña, en general gutxi, izaten da handikan. Nik ez dakit ze klase o zer zan, baiña mordo haundi bat 'e ixaten zan, hola, oso mordo errotua, beltza. Hoi nik ez dakit ze klase ixango zan, handik 'e pixkat ixaten zan, gutxi 'e!

- Txakolin beltzik eiten da?

- Txakolin beltza? Ardua da beltza. Bazan gurian ardo-mahatsa, baiña bihatzak 'e beltz-beltz-beltz eitten zituna, e! Mahats alekua lehertzen bazan, bihatzak o, bihatzak 'e tinta bezala zeatzen zun, belzten zizun, bez-more, bez-more, ta ardua ona eitten zan. Beheko, zean, tokik onian 'e zan ta, gero txertatuta ta abar ta, dana aldatu in zian. Asko ematen zun ta zeatu in zan, dejeneatu o, zeatzen zala, ale ttikiya ta, nik ez dakit ze itten zun.

- Gaitzen bat o?

- Ondo... Ez, bestela... Eo gehio jo, o zeoze pasatzen zitzaion hari, ez zun behar bezelako fruta ez zun hazten azkenean, ta txertatu in zun gure aitta zanak, ta bastante ondo hartu ziyon txertuak. Ta hala oraindik 'e bakarren bat egongo da hamentxe. Itxian ondón dagonak 'e zepa, behekoa, ardo-mahatsa du, ta oso txakoliñ-mahats, txertautu dao ta, mahats zuriya oso earra ematen du.

4.11. Baserritik kalera saltzera

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-011/011
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:37:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Etxean ez zuten ogirik egiten. Ama esnea saltzera joaten zen kalera astoan eta bide batez erosketak egin. "Mendarratzak" (menda-belarrarekin egindako erratzak) saltzen zituzten plazan txakur haundi batean. Zer gehiago saltzen zuten plazan.

Transkripzioa

- (L) Itxian 'e ingo zan ordun? Eingo zenduen itxian 'e... ogiya...
- Etxian ogiya? Ez, ez. Akordatzen naiz, gurian labe haundigiya zan ta bestekuak labe txikiya ta han beak iñoiz eiñ izan zuen ogiya baiño ez, ogiya kaletikan eamaten zan jeneralian.
- (A) Ordun baten bat etortzen zan egunero kalea, tratuak in, eo...
- Esnia! Esnia ta, geo arrautzak, Jesus! Arrautzak jateko 're bildurrak! Arrautzak diruakin zea ekartzen zan, oliyua ta, holako konprak eite zian ba. Ta azukria 're ez zan asko zeatzen, hua 're txarregiya iruitzen zitzaioen, da hantxe zintzo-zintzo.
- Zein etortzen zan, zure ama?
- E?
- Zure ama etortzen zan Zarautza?
- Bai, bai, bai, bai.
- Ta nola?
- Ba, hortxe. Ebiya iten zunen lokatzetan ta, zean, bide txar askuakin ta etorrita...
- (A) Baiña, astua hartuta, ez?
- Astuan, bai, astuakiñ. Geo, zeak, menda-erratzak ekartzen giñuzen, bildu ta amai ematen gendun ta menda-erratzak perra haundi banan saltzen zian plazan.
- Menda landariakin indako erratza. Geo, usaia zabaltzeko itxian, desinfektatzeko ta...
- Erderaz, oaiñ izenak 'e ahaztu iten zaixkit, baiña "menda, lo que es menda...". Bai. Ta babarruna ta hoiek 'e ekartzen zituen plaza saltzea, babarruna, esnezaliak eta 're eskatzen zuen batzutan ta bestetan ba, plazan saldu, babarruna ta, mendak eta... Noiz o noiz azan bat eo aza batzuek o, zeoze ekarriko zuen. Baatza gauza gutxi iten zan basarritan, eta souetako lana. Baatzak lan haundiya du.

4.12. Arropa eta oinetakoak; "Abarkazaliak": abarkak egin eta konpontzen zituztenak

- **Hizlaria(k)**: Iturria Astiazaran, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-012/006
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:09:41. **Bukatu**: 00:11:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Ze arropa eta oinetako erabiltzen zuten. Alpargatak erabiltzen zituzten. Abarkak konpontzeko lekuak ere bazeuden: abarkazaleak. Eta egin ere egiten ziren Zarautzen.

Transkripzioa

- Ta, jantziya ta, zer jantzi, blusa ta apraketakin ta hola ibiltzen ziñaten?
- Alpargatak, alpargatak, alpargatak, zulatuak gehienian, zeatikan zeatzen giñuzten, baiño bakizu. Ta gaiñea pelotan asko nola iten zan, asko urratzen zian zeak, alpargatak, eta nik mou askotako alpargatak zeatu ditut: este, espartuzkuak eta gomezkuak 'e bai; baiño danak puskatzen giñuzten, ta...

Eta zulu a o abar, eta halare segi iten gendun, e, honbre, bai, bai, bai, bai. Garai hartan oso, askoz gutxiyo jazten zan oain baiño. Oain eozein mouz zeatzen dia ume txikiyak eta, eundoko jantzi onakin ta abar, ta. Garai hartan, ta gaiña, urratu arte izaten zan, e, puskatu arte. Erropa bat erosten baldin bazan, ba, puskatu arte.

- Gero, albarkak konpontzea ta 're eramaten zian, ezta?

- Baita, baita, baita.

- Bazeuden hola abarkak eta konpontzen zituztenak.

- Bai, bai, bai, bai, abarkazaliak bazian, bai, bai, bai.

- Abarkak 'e bertan, Zarautzen iten zian, e?

- Bai, bai, bai, bai, iten zian.

- Nun?

- Nun? Ixkiña batian ta holaxe, ixkiñetan ta. Hemen bazan abarkazalia, gehiotan 'e bai! Ta, geoztikan 'e bai, e! Hemen arrandeia dao, hor guk Lauriano deitzen giñon lehen, este... mueble denda 're badao. Hemen, Muebles Hiru bada hemen izkiñan, arrandei bat badao, ze izena dan, e... Arrandeia bakizue zein dan? Ba, han alpargateia deitzen zitzaion. Etxiak alpargateia. Bai, bai, bai, bai. Itulazabalgua, hemen Itulazabal zea da, da basarri bat da, ba, hango mutillak eoten zian alpargatak eta iten, ta. Ta bat baiño gehio 're bai. Beste azpeitiarrak 'e bazian, o, azkoitiarrak, azkoitiarrak, Parrokiko onduan alpargateruanekuak, han 'e... Fabiolak 'e hantxe erosiya 'e baditu, bai, bai.

4.13. Ganadua hil ostean gibela baserritarrentzat

- **Hizlaria(k):** Etxabe Olaskoaga, Jose Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-013/013
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
 - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Baserritarrekin tratuan erosten zuten ganadua. San Jose egunean arkume mordoa hil behar izaten zuten. Ganadua hiltzean gibela baserritarrei ematen zitzairen, baina San Pelaioiko ganaduek gibel txarra izaten zuten belarrarengatik.

Transkripzioa

- Eta, etxian, txahalak eta aita erosten zitun, ala...

- Anaiak eta, aita ta, bai, tratua: baserritarrakin jun, ganaua ikusi, ta bai...

- Nungo baserritarrak eo?

- Hemenguak, hemen... Urteta ta, Elkanokuak eta. Ta San Jose egunian igual ehun ta gehio arkume hil behar, ta larrutu ta 're, geu.

- Eta, zea, ordun, e, zer esan behar nizun, tratuan ere pixkat, e, euki beharko zan arte piska bat, ez?

- Bai, bai. Baiño hortan danak gutxi gorabeheran ibiltzen zian. Beak jakiten zun baserritarrak ze gorabehera ibiltzen zuen, ta, preziyuakin ta, ta, bai. Hemen bazan esaera, igual [...] enkargatu gibela, eta en kanbio, Iñurritzako ganauak eta, gibela txarra ateatzen zitzaioen danai. Nunbait

hoiek jaten zuen belarra, zea, gatz-urakin ibilitako belarra zan, ta nunbait kalte iten ziyoen. Ta, igual... baiño ehunetik, beno, ehunetikan igual larogeita hamabi o danak txarra.

- Gibela txarra?

- Gibela txarra, bai. Belarrak nunbait ura gatz-uraatikan izango zan. Porke askotan, igual gibela ta, ez, txahala San Pelaioquia zan, ta gibela txarra zakan.

- Bai, ohitura zan, matantza in ta gero, gibela jatea jutea, ez?

- Bai. Eske, gibela nekazaiari ematen zitzaion, paiñelu garbiya ekartzen zun, ta gibelan [...] zea, ta hura, Martanea juten zian, oain soziedadia hola dao Iñurritzan?

- A, bai.

- Kapillan ta ermitan aurrian? Ba, hor taberna zan, hori Martanekuak esaten zian. Hor, hor jaten zan gibela, ba, ohitura bai. Baserritarrek eta harakiñak, bai.

- A, elkarrekin?

- Bai, elkarrekin jaten zuen, bai, bai. Ta, ze ta, kobratzen zuen al día, e? Handikan, ra!, harateira jun, ta hainbeste arralde. Beruana kendu, ta. Arraldia bakizu, bost kilo da. Bai, ba. Ba, hogeita hamar o hogeita zortzi arralde. Bueno, oain, preziyua hainbestia zan, taka-taka paatu, ta...

- Gertatu al da lapurretaik eta hola, gero paauta ta hola, nozbait entzun deu guk...

- Behin esan zuen hor hil zuela bat hor, ez dakit, hor Urdaneta aldian, o, baten bat hil zuela, lapurretan ta.

- Dirua kobrau ta gero?

- Bai, dirua kobrau ta geo, bai. Nik aitua dakat behin o hola. Geo, kareta, gorputza kareta sartu o. Istoriya bada hori, kareta sartu, ta... Baiña bestela ez, hemen... Denbora haiek.

4.14. Azokara saltzera joateko prestaketak.

- **Hizlaria(k):** Olaizola Alkorta, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-018/023
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:57:01. **Bukatu:** 00:59:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Noiz hasi zen azokara bakarrik joaten. Egunero-egunero joaten zen. Bi aska handi zituzten barazkiak garbitzeko. Hasieran buruan eramaten zuen tratua eta gerora remolkean. Orduan merke saltzen zen jeneroa.

Transkripzioa

- Ta noiz hasi ziñan ya zeure kontura ya azoka juten, zeu bakarrikan?

- E?

- Noiz hasi ziñan, ze edadekin hasi ziñan azoka juten bakarrikan?

- Ez dakit, baiño, jota, urte batzuekin hasiko nitzan... Nik handik aurrea egunero, egunero, egunero, egunero, "todos los días que había", puestua hartuta gakaun.

- Konta, nola iten zan, aurretik prepaatu beharko zenuten jenerua ta.

Kontatu pixkat hori nola izaten zan.

- Arratsaldian jun, eta aurrena lanian jardun baatzan, ta geo tratua ekarri. Geo, itxea etorri ta hua dana garbitu ta pronto jarri. Lekua jarrita gazkaun aska handi batzuek, oaiñ 'e han daure. Bi aska ta geo balda batzuek kaja jartzeko. Ta garbitu. Bi askatan iturriyak daue. Eta garbitu, jarri pronto. Hurrengo goizian jaiki euna argitu baiño lehen, ta mahastira atxurrea. Ta eguna argitu zai eon, atxurrian jardun, ta zortzirak laurden gutxiko kanpaiak jotzen zunen, korrika itxea. Eta ni karruan tratua jarri pronto-pronto eoten zan, ta jarri karruan, remolkian, ta plaza. Ta hau esnia partitzea.

- Eskuz, karrua eskuz eamate zenun?

- Bai, remolkian. Remolkia gendunian ondo giñan, lehen buruan.

- Buruan, e?

- Buruan, buruan hasi nitzan. Ta geo remolkian. Ta geo batzutan zalduyakin ta karro haundiyakin 'e bai, gauza asko zanian. Geo bi puesto eukitzen giñun, ta... Kukulu karnizeruak dakan aurre hartan, urte pillia.

- Gogoatzen al dezu garai hartako prezioyokan? Ze prezio zeukan jeneruak?

- Ze [...], deskuidatzen bazea hiru per-txiki tomatiak kiluak. Eztakit, e! Baiña urteko gauza merke zan. [...] Sei pezeta hartzeko otarka handiya eamanda? Ta hori zan ta, diru asko zala esan zian aitag, eta bueno.

4.15. Azokako giroa.

- **Hizlaria(k):** Olaizola Alkorta, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-018/025
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 01:00:12. **Bukatu:** 01:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Azokako giroa. Oso ondo konpontzen ziren. Hilero udaletxeari ordaintzen zioten postua, baina ez zen diru asko. Postuaren inguruko kontuak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta, azokan zuen artean ta ze mouzko girua, edo ze... konpetentziya izango zan, ba, zuen artean. Sestrak izango zian, sestraik ez?

- Ez, gu giñan kuadrilla esaten zun, este..., Urbietta, zea, Meltxorrek: "hor eon ta okaziyoik ez dakazue, bata bestiai laundu iten diyoze. Ta zuen atze hortan beti baiñe zeoze", esaten zun. Ta ez giñan... oso ondo moldatzen giñan. Alkarren saldu 're bai, ta alkarren lagunak aldamenian jarri ta danea, e! Oso zea ona euki gendun guk, giro ona euki gendun beti, giro ona euki gendun, bai.

- Ta ayuntamientuakin ta ondo konpontzen ziñaten?

- Bai, harek hillian konbratzen zigun, ta...

- Zenbat kobratzen zun hillean?

- Aurrena gutxi zan, "no sé cuántas pesetas eran". Bestela egunero paatu behar zan. Ta arrautza aparte paatzen zan.

- Zenbat pagatzen zan egunero?

- Ez dakit, hirun bat pezeta o, zeoze hola zan, baiña zea gutxi zan, hillekua

hutsa zan, "luego subieron a ciento cincuenta", baño oso gutxi izaten zan, "no era mucho el puesto".

- Ta arrautza aparte zeatikan?

- Ez dakit zergatik zan. Akordatzen zait arrautza aparte zala, ta hiru per-txiki dozenako kobratzen zun arrautza. Ta andre bat bazan, baatza zekaen, ta ollateia. Ta andre gizonak bakarrik zian, ez zuen familiik. Ta arrautzak eamate zitun plaza. Ta behiñ 'e ez zan eoten bea saltzen. Jarriko zixkian nei, jarriko zixkion beste batei, ta jarriko zixkion beste batei geo. Ta ibiltzen zan Meltxorren ihesika. Ta Meltxor, "de tonto no tenia ni un pelo, e, Meltxor", egiya esan bihar da. Ez zun harek tontoik. Pasako zitzaizkiyon, baño hua akordatu gabe ez. Ikusi du nola dabillen eun batian, ta, "ta arrautza hoiek?", eta, "paatu in bihar al dizkizut? Ez dia neriak", eta. "Zeiñenak dia, ba?", harek bazakiyan zeñenak... "Zeiñenak dian? Hau deskuiduan [...]. Laugarren aldiya, laugarrena bada hau arrautzak honea aldatu ditula", nik esan niyon, ta hasten da parrez. "[...]", ta, "egiya!", urteko zea [...] urtiak eta, esan niyon, zea, este, "bazekiyat zeñenak dian, baño gaur paatu gabe ez den ba libratuko". Egunero iten zian, baño... "aquel no tenía de tonto, nada".

- Enpliatua izango zan, ayuntamientoko enpliatua.

- Ayuntamientoko danak kobratzen zituna. Pero, ezer behar bazenun, puestua behar gendunian o zeatu, harek askotan moldatzen zun, ta. Harek esan zian nei, aurreneko puestuakin izan zan okasiyo bat, batek ayuntamientotik eskatu, ta in, ta bestiak aurrea pasako zala uste kobradoriakin, ta pasa ez. Ta izan zuen okasiyo bat, esan zian "hola zertan ibili zeate? Sartu zazu, ba, ayuntamientuan solizitua, ta iña", esan zian. "Nik biarrena hartuko nuke, ba, nere onduan badao libre, ta", esan niyon, ta, "bueno, seituan ingo diñat. Aman izenian dakazue lehengua", ta "bai", ta "uaingua hirian izenen jarriko det", ta "txoakeia", esan niyon, "gue itxian patrika batetik atea dirua, bestetik atea, berdin da". "Ez, ez", jarri zian. Sartu nun solizitua ta, geo perioikuan letu nun "que cómo me concedían el piso". Ta geo, bi piso euki nitun. Ta geo, jende asko samar etortzen zan denboa eon zan, ta kentzen hasi zian pisuak bi ta hiru zituenai. Ta eaman giñuen eun batian, esan geniyon ta, "batian, metro batian nola sartuko ditut gauza danak, ezin ditut sartu". Eta ayuntamientuan esan zien, "zu eunero-eunero etortzen zea?", ta "bai", "eunero-eunero etortzen dianei, bi dazkanai, laga ingo diou". Ta geo, bikin eon nitzan, haik eta, "hasta los sesenta y cinco fui a la plaza todo todo todos los días", eunik galdu gabe.

4.16. Azokako sal-erosketa.

- **Hizlaria(k)**: Olaizola Alkorta, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-018/026
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 01:04:06. **Bukatu**: 01:07:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Regateoa. Gazteek ez zekiten regateatzen. Bikote batekin gertatutako pasadizoa kontatzen du. Gerora karteletan prezio fijoak jarri behar izan zituzten eta inspektorea etortzen zen.

Transkripzioa

- Regatea ta, ze mouzkua?

- "¡Eso, eso era hinchante! ¡Eso era la juerga!". Regateatu gabe ez zuen eosi nahi izaten. Ta banakan famili bat, Eibartik etorri zian honea bizitzea, matrimoniyo gazte bat. Ta gaztiak ez zuen regateatzen, ez zekiyeen regateatzen. Ta zaharrak bai. Ta eun batian etorri dek gizonakin bat, emakume haundi bat zan, Rosario zun izena, ta illarra garesti zeon orduan, hamar duro baliyo zun kilua, oso garesti zan. Ta, "ponme guisantes", ta "querrás pelaos, pero no tengo pelaos", esan niyon, hola. Batzuek aletuta nahi izaten zuen, ba. "Mientras estás, ¿a dónde vas?", "a la carnicería", "bueno, mientras haces lo de ahí ya me ayudará alguien y ya te pelaré un kilo". Laundu zien, lágunai esan niyen aldamenen, bueno, "ayuda al caserío". Partitu deu, ta aletu deu kilo hori, ta jarri diyou bolsan, plastikozko poltsan ta, etorri zian andre-gizonak. Ta hartan etorri zan beste bat, iller billa. "¿A cómo tienes el guisante?", ta, ez dakit zenbat esan niyon, "cincuenta y tantos era al menos". Ta esan zian, "¿quiere cincuenta y cinco?", ta, "toma", ta eman diyou cincuenta y cinco illar hori, ta beste matrimoniyo hua beira. Nik uste nun beira zeudela, baiño kasoik ez. "Cóbrame, Manoli!", "cincuenta pesetas me tienes que dar". "¿Has visto eso?" andriak gizonai, "¿has visto esto?". "Es que esa no sabe esto, llevar sin eso, tiene que regatear y ha ido feliz, porque le he bajao, y yo he ganao cinco pesetas". Regateatu in bihar zan. Bazian pertsonak erremeio gabe, "si no le rebajabas uno, algo, no te llevaban". "Otra...", gaztiak ez, gaztiak hasi zan ya... Geo jarri zizkiguen zea batzuek, pizarra batzuek eta han gauza dana apuntauta. Tal a tanto, a tanto, jarrita preziyua. Inspektoria etortzen zan. "Era un demonio de persona, era, e, pero...", pixu danak airian ibiltzen zizkigun ta bat. Eta eun batian esan zian, "no tiene letrero", "y", "sí, tiene aquí todo", "y", "falta tal cosa", esan zian beak, "en seguida pondré", esan niyon. "A, pero eso no sirve para nada". "¿Que no sirve para nada?", "no, no, no, señor. No sirve para nada. Mire, va a estar usted un ratito al lao mío, pa que vea cómo funciona esto". Jarri zan dendai kanpotik, eta [...] regateatzen. "Aquí funciona así, y no funciona lo otro". Zaharrak ez zuen...

- Baiña, umetatik ezautu dezu hori, beti, regatea beti izan da.

- Hori beti.

- Zure amak ere bai ezautuko zun.

- Danak. Nik regateuakin plaza ikasi nun. Geo ahaztu zitzaigun, ya jarri giñan hoinbestian, ta... Geo dia gauza batzuek "que bajan poco" eun batetik bestea, "van bien, organizaos". Baiño [...], "hacía, subía hasta el cielo y bajaba hasta debajo de la tierra", lorian hola zan.

4.17. Baserriko lan neketsua

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Manterola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-021/009
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:11:12. **Bukatu**: 00:12:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko lanak » Garia
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

- **Laburpena:** Ganadua izaten zuten baserrian eta baita oiloak eta txerria ere. Txerria urtero hiltzen zuten. Ogiya etxean egiten zuten. Garia eta artoa ereiten zuten. Garia nola jaulkitzen zen.

Transkripzioa

- Animaliyak eta ba al zeneuzkaten baserriyan?
- Ganaua ta bai etxean?
- Ganaua.
- Ganaua?
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Ze euki dezue?
- Bai, bai, bai. Iriyak eta, iri paria ta geo beste hamabi bat behi eo hola eoten zian, bai, ezer gutxi. Ez, hamar, jenealian. Ta geo txahalak, astua ta txerriyak 'e, txerrikumiak 'e hazitzen giñun.
- (Alaba) Ta akaatu 're bai, jo...
- Bai, oillo pillat bat, eta, holaxen.
- Txerriya urtero hilko zan etxian?
- Bai, txerriya urtero hiltzen [zintxien].
- (A) Ta geo, odolkiyak eaman zeai, Nekazabalkuai ta Aitzekuai.
- Bai, ordaiñez izaten hittunan, haiek ekartzen, ematen zitxoenanen, ta!
- (A) Beak hiltzen zuenen ekartzen zuen berenak eta.
- Geo txoixo earrak eta! Oaiñ ez bezelakuak! Ta itxian jaten giñun. Ta ogiya 're etxian eiten zan.
- Ogiya 're bai?
- Bai. Ogiya ta artua.
- Nola, nola iten zan ogiya? Nola egiten zan? A! Gariya izango zan garai hartan, ordun.
- Gariya, gariya, artua ta gariya ta. Geo, arbiya ganauan zeako ta. Gauza asko iten zan, kanpua dana.
- (A) Eta gariya iten zanen zea ekartzen zituen, makill haundi haiek, e! Nola zan, gariya zeatzeko makina haundi haiek eta.
- Gariya jotzeko.
- Gari-jotzeko, bai.
- Bai, baiña kontatu apur bat...
- Baiña, nik ezautu nittun harri luze bat ta han, zarta-zarta, lotu, paketia lotu zeanak, gariyanak, eta han jotzen, han aletzen zuen. Gariya han, jaulkitzen zan.
- Alitua, alitua, bai.
- Bai. Geo garbitu makinakin iten zan. Hautsa pranko.

4.18. Gariaren prozesua

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Manterola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-021/010
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:12:52. **Bukatu:** 00:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia

- **Laburpena:** Gariaren prozesua. Azaro inguruan erein eta uztalean jasotzen zen. Oloa edo belar txarra kendu behar izaten zitzaion. Ebagi ostean lastaikoak egiten ziren.

Transkripzioa

- Piska bat prepaatuko deu ogiya nola iten zan, hasieratikan. Gariya in ta nola iten zan. Lehendabizi lurra landu.
- Bai.
- Gariya erein.
- Gariya ereiñ. Eta geo, gariya indakon zea iten gendun...
- (A) Ta gariya, iriña nola iten zenduen? Zehara, errota emanda...
- Errota jun behar, errota jun behar...
- Baiña lehendabizi gariya in.
- Bai. Ta artua 're bai.
- (A) Artua, taluak, jo, ear askuak jaten giñun.
- Ya. Eta, e, gariya, zenbat denpora behar du gariyak hazten? Gariyak zenbat denpora behar zun? Noiz, noiz iten zan, noiz ereiten zan?
- Zean, noviembere aldian.
- Noviembere aldian.
- Bai, bai.
- Eta gero, jaso?
- Jaso, este... San Juanak aldian. Bai, junio, juniyuan.
- Bai.
- Bai.
- Ta gero...
- Lana, lana, lana zikiña, lan zikiña zan oso.
- Gero, jaso ta gero...
- Bestela lan asko ez zun ematen, e! Jorratu beharrik ez zan izaten.
- Ez, ez.
- Oluak eo belar txarrak erteten zian, ta haiek ateatzen zituen, ta. Jatia onena du hark 'e!
- Eta gero, e...
- Geo errota eaman behar...
- Ebaki ta gero aletu in behar, e?
- Bai. Ebaki, eskuz ebakitzen zan...
- Itaiakin?
- Itaiakin, itaiakin, bai. Ta paketiak in, lotu...
- Nola deitzen zitzaion, pakete hori, nola deitzen zitzaioen? Paketia nola deitzen zan?
- Nola iten zan? Nik nola eakutsiko... Ekarri zan eskoba, ekarri zan, eskoba ekarri zan!
- Ez, baiña nola deitzen zan, deitu, deitu.
- (A) Ama, ama, ordun erratza izango zan ordia, eskoba, erretza.
- Bai, erretza [...].
- A! Harekin iten al zenduen?
- Ez, harekin iñ ez, zea, eakutsi ingo nitxoken nola iten zan haekiñ.
- (A) Ekartzia nahi al dezu? Ze nahi dezu, trapu bat 'e bai?
- Ez, ez, ez, ez baiña izena nola deitzen zun? E, zeak, gariyan paketiak?
- Lastaikua, lastaikua. Bai, hori da, hori da. Ez zaizkit akordatzen ta!
- Hori inportantia da.
- Lastaikua, bai.
- (A) Lastaikua?
- Lastaikua. Lastua zan ta!
- Hori da! Hori da!
- Lastuai kentzen zitzaion gariya.

- Ta harekin ze, tontorrek eiten [...], metak, edo nola?
 - Geo zeak iten dituk soruan gariyak iteakon, lotu, eta geo, garai haitan euri asko iten zun. Ebaki ta jarri, ta. Oso azkar erne iten da gariya. Ta egualdi txarrak baldin bazian, jun ta buelta eman behar haietan. Ze lanak!

4.19. Gari-jotzea eta inguruko errotak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Manterola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-021/011
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:15:18. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Garia
 Baserría » Baserriko lanak » Artoa
 Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Gari-jotzea eskuz egiten zen. Ondoren, garbitu eta errotarako prestatzen zen. Errota ugari zegoen orduan inguruetan. Batzuetan, bi astorekin Aiara joaten ziren garia eta artoa hartuta.

Transkripzioa

- Eta gero gari-jotzea etorriko zan.
 - Gari-jotzea, eskuz iten, ezautu nun nik iten, lehen esan dizutena, ze, haiek zarta-zarta, harri luze bat honela, ta hari juaz-juaz, alea zeatzen zuen, jaulkitzen zuen gariya. Geo garbitu eta errotako prepaatzen zan, bai.
 - Errota nun zeon?
 - Errota nora, nora juten ziñaten errota?
 - Errota eozein tokitan zeon ordun. Olaa, Olaa, goitik behera jetsi ta haragiyanian. Baiña errota kantidadia zan, ordia, orduan. Zazpi o zortzi bat zian hementxe bertan, ta.
 - A bai, e?
 - Zarauzko ingurun, bai. Olaa juten giñan gu, hurrena hua zeon ta. Errota Berri ta...
 - (A) Errota Zahar?
 - Errota Berri ta...
 - (A) Errota Zahar 'e bai.
 - E?
 - (A) Errota Zahar 'e bai.
 - Errota Zaharra...
 - (A) Bai.
 - Abendañon. Zortzi bat eo zian, zortzi bat errota o zeoze bazian.
 - Oriyo aldea 're bazan, Oriyo alden 'e.
 - Baiña gu jenealen...
 - Olaa.
 - A! Aia, Aia 're bai. Aia 're juten giñan. Han 'e errota diferentiak izaten dia, ba, gariyantzat eta artuantzako diferentiak izaten dia. Ta Aian, ta hemen ez dakit zeon ogiyana. Iriña, gariya ehotzen zuenak ez dakit hemen zeon. Aia behintzat juten giñan, bi astoekin. Baten artua ta bestian gariya. Ta hala, handikan ekarri ta geo amasea, holako mouko aska luze bat, hantxe iten zan zeakin, ogiya ta taluak 'e bai. Nik iten nun ogiya, gustatu iten zitzaten ta eittia ta jatia 're bai.

4.20. Ogia etxean egiten noiz hasi ziren

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Manterola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-021/012
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:19:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Garia
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Ogia nola geiten zuten. Bere koinatuak egin zuen labea etxean. Aurretik irinaren truke kanpotik ekartzen zuten ogia.

Transkripzioa

- Orduan, iriña ekarri ta gero nola, nola iten zan?
- Aska hartan...
- Ogiya nola iten zan?
- Ur beruakin. Ogiya 're masa in behar.
- Masa in behar. Ta masa nola iten zan?
- Eskuz?
- Baiña, ze...
- Eskuz, ta geo hankak garbi-garbi in ta hanka azpiyan: zenbat eta gehio zapaldu, ordun ta earro ateatzan zan. Baiña geo, ohian jarri behar izaten zian, zehatzeko, harrotzeko. Nola esaten zaio horri?
- (A) Lebadura.
- Lebadura, bai, lebadura behar izaten den, bestela ez den harrotzen. Lebadura gorde itten da eta geo, hurrengo in behar danian, ogiya in behar danen, lebadura hortatik jartzen zaio. Ta halaxe. Gure aska hortan han eoten zan indakuan, labeko lana indakuan, masa indakuan, beti pusketa bat gordetzen zan hurrengo ogiya in behar zaneako. Eta han eoten zan. Talua, berriz, seitun jan iten zian, jan eo, erre. Erre ta geo, jan.
- Ta ogiya nun, labea izaten zan baserri...
- Labia 're bagendun, bai. Geo, hori gerotxo, bai. Zea, nere ahizpa nuen itxea ezkontutakua, ta haren gizonak beak in zun.
- Ta labea, labeako...
- Labia, labia...
- Labia.
- Beak in zun, bai, bai, bai.
- Baiña, lehendik ere bazenuten labia etxian?
- Nik ez nun ezautu lehendikan, ez, ez.
- Ta ogiya nun erretzen zenuten, ba?
- A, bueno, bai, gogoratzen... Kanpotik eamanda, kanpotik eaman ogiya. Gariya ekarri...
- A, bai.
- Ta gariyan truke, ogiya.
- A!
- Panadeitikan, hemendikan eamaten zan. Ta gu bezela beste askoek.
- (A) Baiña itxian ez al zenduen ba iten ogiya?
- Bai, in, in, geo bai.
- (A) A, geo.
- Baiña lehenoz ez.
- (A) Lehenoz ez.
- Geo laga zitzaien danai haiei 'e.

- Ta geo talua 're ordun artua, iriña ehotu, ta gero...
- Jaulki ta gero masa in. Ta erre, zabaldua, plasta, plasta, plasta, plasta, plasta. Hortxe feritan ta hala etortzen dia, igual-igual, igual-igual.

4.21. Inguruko festak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Manterola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-021/016
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:25:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** 25 urtera arte bizi izan zen baserrian. Festetan bakarrik jaisten ziren kalera. Nongo festetara joaten ziren.

Transkripzioa

- Zenbat urte arte bizi izandu ziñan baserriyan, zenbat urte arte?
- Hogeita bost urte arte.
- Ta kalea ta juten al ziñaten?
- Gaztetan kalera ta etortzen ziñaten baserritikan aste bukaeratan ta hola? Aste bukaeran ta kalea etortzen ziñaten?
- Bai, zea! Festetan ta hola, festan. Ama Birjiñetan agostuan. San Pelaiotan, San Pelaioa. Urtetan San Sebastian festak hara. Ta Oriyoa San Pedrotan ta. Aia 're bai noiz eo noiz. Bueno, San Asentsiyo eunian Aian. Beste tokita ez giñan juten.
- Ta ze mouzko festak iten zian?
- Ba, guetzako primerakuak. Soñua izan ezkeo, gu gustoa. Ezta hanka lotuta geldiik!
- Sasoia ona, ordun?
- Bai, hoixe!
- Ta apaizak eta uzten al zun agarraua iten ta? Dantzan ta agarraua iten uzten al zun?
- Ez giñakiun guk, ez gendun ikasi.
- Ez?
- Utzi... Nik ez nun behiñ 'e iñ, nik ez nun behiñ 'e iñ.

4.22. Bizi guztia azokan

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Agirre, Pepita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-027/002
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Lanbideak » Trenbideko langileak

- **Laburpena:** Gizona treneko "katapaza" (capataz) zen. Bera baserritarra izan da beti, baratzea izan du, eta bere bizitza azoka izan da, "biziya" bezala.

Transkripzioa

- Zer da katapaza, esan dezuna zure gizona...
- Ba, katapaza, lehen, ba, oaiñ obretako katapaza bezela ba, trenbiretako katapaza. Hemen trenbiretako katapaza, e...
- A, konpontzen daona?
- Bai, trenbireko langillak? Ba, haiei aintzen ziyuena, ba, enkargaua bezela, lehendabiziko enkargaua bezela, enteitzen dezu? Bai. Eta, geo ba, oaintxe dala beatzi urte hil zan, eta ni hamentxe nao alargun. Hiruroita bi urtekin alargundu nitzan, eta orduan, ba, bueno, semiak etortzen zaixkit asteburutan lanea batzuek, ahal duenak, eta nik zerbait sortzen baldin badet plazako, ba, beti nere biziya plazan izandu da. Iya-iya esaten det, ba, biarren etxia 're badetela plaza, ta hangotxe jendian tertuliya, diru poxa, lehen beharra, baiño oaiñ hainbesteko beharrik ez. Baiño...
- Entretenimendua.
- Nere entretenimentua bai, hola esan nahi nuke ba, biziya bezela. Hara jun gabe gogo onik ez. Bakizu, hoixen.

4.23. Sakoneta baserria gerraostean

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Agirre, Pepita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-027/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Sakoneta baserrian jaio zen, eta hantxe bizi zen. Anai-arreba asko ziren. Umezaro zorionsua izan zuen. Baserri txikia zen, baina goserik ez zuten pasa: babarrunak, txerria, taloak... Goserik ez. Sei urtera arte jostatu eta itulan egin, besterik ez. Gero San Pelayoko eskolara.

Transkripzioa

- Eta jaio ziñan Sakoneta baserriyan...
- Bai.
- ...eta zenbat senide ziñaten edo zein bizi ziñaten, Sakonetan?
- Ba, lau senire giñen ta aita-amak. Bai.
- Amonik eta ez.
- Zazpi urtekin hil zitzaient amona han, bai, ezautu nuan amona, bai.
- Orduarte Sakonetan bizi zan amona 're.
- Bai, bai. Eta orduan, ba, hemeretzi urte, hogei eiteko neola ezkondu nitzan eta segituan haurdun gelditu nitzan eta hogei urteako ama in nitzan.
- Gaxte.
- Bai, bai.
- Eta, nola gooratzen dituzu zure, e, jaio ta lehenbiziko urte, umetako... ze giro zan itxian, edo...

- Bai, oso polita genduan.

- Bai.

- Aita udaran baserriyan [...] behar izaten zan, baiño neguan basarriyan ez zan hainbesteko lanik izaten eta orduan juten zan ba, ingurutako basarrita ba, ikuilluak konpondu eo [...] ekartzea. Eta, geo ba, aitzak jartzen ziun hau ein behar da bestia ein behar da ta guk eiñ, eta...

- Baserri haundiya al zan, ganaua ta asko, edo?

- Ez, ba, ez. Beti ba, bost sei bat behi eoten zian ta geo txahalak, bai. Hegazti batzuek eta basarri hain haundiya 're ez da, txikiya da, biribilla da polita da, baiño mendik eta ba, ez zun bereikan, eta hantxe bakizu, esaten det ba nik, ba. Talua jan nahikua!

- Bai.

- Goseik ez giñun izaten.

- Ez? [...] juxtu gerra garaiko...

- Bai, bai. Hiru bat urte o hola izango nitun nik.

- Bai.

- Bai, ni gauza gutxi gogoatzen naiz, ezta? Eta, ba, esaten det, goseik eta ez giñun pasa. Txerriya izaten zan, babarruna faltaik ez zan izaten, artua ereiten zan, gariya ereiten zan. Orduan etxeko kosetxakin ba, fameliya mantentzen zuen gure gurasuak eta handikan ba, eskola juten giñan San Pelaioa.

- San Pelaioa, noa?

- San Pelaion eskola, San Pelaion beti eskola bat...

- Hor zahar etxia [...] hortan?

- Bai, bai, bai, hortxen. Eta, orduan, ba sei urtekin hasten zan garai haitan eskolan eta sei urte arte ze ingo giñun, ba? Ezer ez, jostatzen ta, ganauakin soruan ittulan ein ta. Eta geo eskola, ta behiñ hamalau urte ezkeo...

- Ittulan nola ibiltzen ziñaten, nola? Zer zan ittula hori?

- Ittula da ba, sorua ganauakin jiratu behar danen lurra, ta ganauan aurretikan, ba aita atzian jartzen zan herreminta manejatzen eta gu aurretikan ba makil batekin, ba, ganauak arrastuan txuzen eramaten, e, behiak eo iriak o txuzen eramaten. Ittula horri deitzen giñon guk. Gaurko eunian ez da holakoik izaten, dana traktore ta zea izaten da, baiño orduan hala izaten giñuan. Eta ba, aita kriston langillia giñuan, lanen bapo eakutsi ziun, geroztikan 'e beharren, lanen, asko ikasi behar izan det eta orduan ba, lana ta lana eta lana.

4.24. Umetatik esne-partitzen

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Agirre, Pepita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-027/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Umetatik amari esne-partitzen laguntzen zion. Karro txiki batekin egiten zuten; lehenago asto-otarrekin ere egiten zuten, baina bere garaian karrotxo batekin. Hortik aparte, jolastu.

Transkripzioa

-Laguntzen zeniyoten orduan?

-Amai, zea, esniak eta partitzen eta? Bai, bai, bai.

-Eta, nola iblitzan zan, karro batekin?

-Bai, karraikin, bi erruberako karro txiki batekin, asto txuri txiki bat zan eta, aizu, gustora ibiltzen giñan.

-Bai. Orduan asto asko eta karro asko ta izango zian hemen?

-Bai, bai, bai. Nik karra ezaute nuan lehenatikan, ba astotarrakiñ o, otarrak jarrita ta hola, lehen lehenotikan, ezta? Baiño ez, gu beti karra, nik karra ezaute nuan, karro txiki bat, bi erruberako karro txiki batekin ba esniak hartu, euneroko esnia ta haiek partitu, ta geo ba, zian nezesidadiak etxea ekarri behar zianak ba, ekarri ta kaleko bueltatxua hola eiten zan, pare bat orduko bueltatxo hori izaten zan. Eta, hantxe. Bai, eta geo, sorra jun giñan, sorra, ta geo illuntzian, euna luzia zanian, este, bukatzen zanian aita ikuilluko lanak eta eiten zitunian, eta amak afaya prepaatu bitartian ba, kanpua koxketan in ta, entroka in ta, bai, holako zeak izaten giñuzen, xakaponetan ta, bai, kaniketan ta.

- Baita!

- Jolas zea batzuk, sentzillo batzuek, gere artan asmatzen giñun jolasak. Oso diferentziak gaurko eundikan, bai, bai. Osea ke, orduan gauza gutxikin bizitzen zan. Bai, ta gurasuak sekula eskatu behar ezer esanikan ere ez zitzaien iruitzen, ez. Erropa 're askok eman iten zuen eta, bakizu, haundixeua-txikixio, laxaixio, estuxiaua, hua jantzi ta segi!

4.25. Hondarrari baserrietan ematen zioten erabilera

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta sorra
- **Laburpena:** Hondartzako harea ekartzen zuten ganaduari azpiak egiteko, simaur hobia egiten zelako. Patata ereiterakoan ere hondarra botatzen zen gainean belarrik ez irteteko. Hondarra hartzeko baimena atera behar izaten zuten eta bono bat ordaindu.

Transkripzioa

<p>- Eta gero esaten dezu gurdi bat hondarreko. Ze lur klase zeon ba hor?
- Hondarra hondartzatik eramaten zan. Zertarako? Ganauai azpiyak iteko. Iñaurkiña botatzen zanian ganauan azpiyan, esaten dana, “la argoma”, garua edo ota txikiya botatzen zanian, ohitura zan palaka bat hondarra bota eta simaur hobia iten emen tzan. Zea iten emen zan. Eta beste bat izaten zan, patata ereiten zanian, patata zuluian eiten zan garai hartan: atxurrakin zuluia ein eta patata jarri. Eta botatzen zien zuzenian simaurra, eta gaiñian palaka bat hondarra. Gaiñian belarrik gabe hazia [izan zezan]. Ohitura hoiyek zian. Eta hondartzan iten zan, oain frailetako atze hortan Madozeneko estrata zan. Eta hor [aldapa] xuabe-xuabe, hortikan eozeiñek ateatzun hondarra. Ta geo in zuen, ba, hau zala, hori zala... itxi eta zea

jarri, parrokiko hauzkaldetikan, oain Getai kamiyua hasten zeaneko hartan, Narroseko hartan eta oso pika zan han ateatzeko. Behar dezu oso iri pare ona edo bestela atoian ibili ber; bi alkarri lotuta. Hola ibiltzen giñan. [...] Udaran, astian egun bat, ostiral goiza, hondarra hartzeko baimena; bestetan itxita egoten zan, danak itxita. Baiña danak hondarra ber gendun; ohitura hori gendun eta hondarrik gabe, ezin bizi. Ezin bizi. Eta geo danak itxi zian, ta hondarrik iñork ez du hartzen eta lehen bezelaxe bizi izan gea. Ikusi zan hura alperrikan zeola.
- Eta arazoikan ez hondarra hartzeko ayuntamiento aldetikan eta ezer ez?
- Ez; baiña zeatikan bai, marinatikan bai. Zumaira jun eta "Comandancia de Marina" tikan baimena atea behar izaten zan, bono bat, hondarretako, hondarra ateatzeko baimen bat, zedula bat. Justifikante bat izaten zan. Metroko erriala paatzen zan kanona.
- Asko igual garai hartako, ez?
- Bueno, bai, bai... nola esaten da /esatea/, 25 centímos; sí, sí, pero…</p>

4.26. Herrira umezaintzaile

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Erref:** ZAR-104/004
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:05:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** 13 urterekin herrira joan zen umeak zaintzera. Han zer lan egiten zituen kontatzen du. Zer soldata jasotzen zuen esaten du. Gerora, nagusiek Benitaren ahizpa hartu zuten sukaldeko lanak egiteko.

Transkripzioa

- Ta geo, hamahiru urtekin eo hola, honea Azpirozenea torri nintzan umia zaitzea.
- Herrira ya?
- Herrira ya. Bai, hori ba. Torri, ta, ba, hor bi urte pasa nitun Azpirozenian.
- Ta han ze iten zenun, egun guztiya haurrak zaintzen?
- Haurrak zaitu, eta gauian beandu arte, hantxe geo fregaketa, eo erropa umian erropa garbitzen eo jardun. Ta goizian seiretan beti jaiki ber, goizeko seiretako jaiki beti, eta eskaillerak eo zeatu, argizaituta eoten zian eta brotatu eo, geure lanak ibiltzen giñun, beste neskamia ibiltzen zuen arratsaldian jostea juten zana. Ta, ba, hola pasatu giñuzen.
- Egun guztiya lanian ta... zerren truke? Zer ordaintzen zizuen?
Ba... aurreneko urtian, hamar pezta hillian; eta hurrengo urtian, azkeneko urtian, bigarrenguan, hiru duro. Eta geo udaran Hotel La Perlan eoten zian, hotela eukitzen zuen udazkenetik, udaan hasi ta udazkena bitartian, hiru hillabetian eo han eoten giñan zean, Hotel La Perlan. Geo handikan nie etxea jun, ta nee ahizpak ateatzeko gogua zekan, ta etxe horta torri zan, ba, sukaldeko lanak eitea eo hola, ume-zai ez; ume-zai ya beste bat hartu zuen.

4.27. Asto arrosa

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Erref:** ZAR-104/012
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Asto arrosa izan zuten. Ezaguna izan zen asto hura. Haren umeak ez ziren arrosak izaten, eta haren esnea bronkioetarako ona zela zioten.

Transkripzioa

- Bai, bueno, bukatzeko, anekdota bat o bakazue zuek... asto roxa antzeko bat bazeneukaten baserriyan o? Nola zan hori?
- Bai, astua roxa bagendun, baiña horretako ze esplikatu ber dizut nik?
- Nola jaio zan asto hori o... nundik etorri zitzaizuen eo...?
- A, asto hori zeatik ekarri zuen, Motrikotik ekarri zuen, Motrikotikan astua ekarri zuen. Eta...
- Roxa izanda, pixkat famatua ingo zan, ba?
- Hoixe, bai, bai, bai, bai, bai, hola zan, rosa... ez zan, horiya ez zan, rosa iten zuna zan.
- Izenik o jarri al zeniyoen?
- Ez, ez, ez, ez, ta besteik ez det ikusi hain rosaikan iñunen itxe... zeaikan. Eta geo, umiak'e izaten zitun, baiña rosak ez zitun behiñ'e izaten, behiñ'e ez. Eta esnia dezente zun, ta haren esnia bildu ta doña Asuntzionei eamaten giñun, zeantzako, bronkiyuantzako oso ona zala ta. Han jun, ta esnia rasta-rasta basoa atea, eta doña Asuntzionei ematen giñun astuan esnia, bronkiyuantzako oso ona zala ta.
- Beste holako animali raroik o ezautu al zenduen zuen baserriyan o hor inguruan?
- Ez, ez zat eokitzen nei holako gauza zeaikan gendunikan.

4.28. Baserriko janaria eta tresnak

- **Hizlaria(k):** Zubeldia Agirrezabal, Micaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Erref:** ZAR-105/004
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:02:41. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Lehen baserrian sagardoa egitea gehiago kostatzen zitzaien gaur egun baino. Dendetan ez zuten asko erosten: janari gehiena etxean egiten zuten. Orain baserriko tresnak asko aurreratu dira.

Transkripzioa

- Zu gaztea ziñenean, orain bezalako arazoak ba al zeuden baserrian?
- Ez, ez, ez, ez, ez, ez. Guk basarriyan bagendun sagarrak jotzeko o txikitzeo makina zar bat, baiña harei eskuakin eragin bihar izaten giñun. Oain bezela motorrakin? Ezta pentsatu're. Sagardua iten gendun, baiña asko kostata oaingo aldian.
- Orain dendetan erosten duguna zuek etxean egiten al zenuten?
- Bai, guk dendatikan gauzak gutxi eramaten giñun. Ogiya're itxian iten gendun, labeko suan iten gendun zortzi eguneko ogiya, ta geo tartian talua asko. Talua, ta artua ta holakua jaten gendun asko, eta aurreapena gutxi zeon. Oain bezela segadorak eta, zeak, nola da hori, traktoriak eta ordun ez zaben. Burdi zar bat soiñua juaz, eta soiñua ez bazan nahi aitu, eman ber izaten giñun, pues, oliyo pixkat. Ta horrela.

4.29. Baserriko abereak

- **Hizlaria(k):** Zubeldia Agirrezabal, Micaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Erref:** ZAR-105/006
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Baserrian izandako abereak aipatzen ditu. Bi idi gaizto izan zituzten, eta haiekin izandako komeriak kontatzen ditu. Asko maite zuten beren txakur bat, ehiztari ona baitzen. Oilategia ere bazuten, eta oilar bat oso gaiztoa zen. Arrautzak biltzeko izaten zituzten gorabeherak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Ze animalia zenuten baserrian?
- Guk giñun, ba, beyak eukitzen giñun hamar. Ta egun, bolara batian euki giñun lau idi, ta bi zian txikiyak, baiña gaixtuak. Ta batian anayak esan zian "eaman hitzan idi habek larrea han gora", ta eraman nitun, ta geo ba, hamaikak aldian eo etxea ekarri ber nitun. Ta jun nitzan billa, eta batek atzetik segi zian. Uuuu, hua bildurra! Iyo nitzan sagar-arbola baten gaiñea, ta beak behetikan beiratu iten zian; ta harek handik alde in arte sagarran gaiñian han eon nitzan. Ta geo itxea etorri nitzan ni haiek gabe, bai azkar asko korrika. Esan nion etorri zanian: "Aizak, nik ez dizkiyat idiak ekarri e? Han mendiyen daudenak", "Zeatik ez ditun, ba, ekarri?", "Atzetik segitu in ziaak batek". Geo bea jun zan, ta beai "lo mismo", beari're segi in zion. Eta gero ezin uztarriya jarri, ta ezin in izaten zitun. Bai ba, jotzen hasten zan ta. Gero aitak saldu in zitun. Hua poza hayek saldu zitunian beak. Txintxuak izan bazian ez zitun salduko, gaixtuak zialako eraman in ber izan zitun. Ta geo, bagiñeuzkan hiru txakur, bat arratoi-txakur txiki-txiki bat, oso polita. Ta egun batian, sei arratoi harrapatu erreka baztarrian, ta errenka-errenkan jarri zitun. Ez dakizu ze ederki jarri zitun! Ta hua maiteo giñukan! Basoa juten baldin bazan, trikuak'e billatzen zitun. Beste bat katan lotua eukitzen gendun, ta bestia ehizekua. Egun batian bost erbi harrapatu zitun, ta bat txiki xamarra zan erbiya, ta esaten gendun: "Hau? Hau haundiya iten kayolan jarriko deu". Jarri genun kayola txiki batian, eta bazeon, ta bazeon, ai zan ederra iten, baiña igesi in zigun. Ta esan genun: "bai,

hemen eongo den, ba, ta txakurrakin berriz'e billatuko diñau". Ibili giñan, baiña ez genun billatu. Hogeita hamar bat oillo're eukitzen giñun, eta bi oillar: ta bat jokurako eukitzen giñun. Hua gaixtua... danai segika. Bai, hua oillotokitikan ateratzen zanian, hanka jaso bihar izaten giñun guk, mantsuagatik itxea. Ta "Oaiñ'e zer den?", "Oillarra segika". Ta esaten nun: "hori ez baldin badezue oillotegitik kentzen, ez naiz geyo jungo oillotogira". Geo ata pilla bat'e bagendukan, ta hayek joten zian beti erreka, ta ikasi zuen errekan arrautzak iten. Ta iñork ez gendun jun nahi izaten erreka arrautzak jasotzea. "Jan iten dituzue, ba, jan. Ta errekatikan arrautzak ekarri nahi ez. Ala! Goiko errekan hasi eta beheraiño pasa dana, aber zenbat ekartzen dituzuen". Batzutan bost ekartzen giñun, bestetan hamar, ta ba!

4.30. Etxeko abereak

- **Hizlaria(k)**: Zubeldia Agirrezabal, Micaela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sansebastian Mujika, Olatz
- **Erref**: ZAR-105/008
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:09:45. **Bukatu**: 00:13:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Sansebastian Mujika, Olatz
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriri lotutako lanbideak
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Plazan zer saltzen zuten azaltzen du. Oilaskoak saldu bai, baina beraiek gabonetan bakarrik jaten zuten. Etxean untxiak eta txerriak ere izaten zituzten, eta txerrikume gehiegi izaten zituztenean, biberioiarekin ematen zioten jaten aparte gelditzen zenari. Ardiak ere izaten zituzten. Baserrian ateratako barazkiak eta fruituak plazan saltzen zituzten, eta etxerako ere gordetzen zituzten.

Transkripzioa

- Orduan guk arrautzak ez giñun jaten. Ahatianak bakarrik itxian; bestiak saldu plaza ekarrita, gure amak. Bai, ba, hainbeste danantzako zeozer eramateko, ja! Saldu in ber arrautzak eo zeozer. Oillaxkuak'e berdin: itxian hazi oillaxkua, plazaa saltzea, ta guk gabonetan bakarrik oillaxkua jan. Oillo zarren bat eo hiltzen zun, geo hua saltsan ipiñi, ta oillaxkua saldu; ta eguarri egunian oillaxkua etxian jateko. Patata prejitu pillá bat in, bestela gure tripa nola bete hainbeste launei. Koneju pillá bat'e eukitzen gendun, beti-beti ez zian earki eoten, baiña. Ta bat bagenduan, Jesus! Zenbat ume in ete zitun harek! Ta zortzi ta iñ-aldiyan iten zitun beti: "Oaiñ'e umiak in dizkin, ba, gure konejuak. Geo ertetzen hasten zanian habitik, zortzi bat bai. Hori nahiko belarra jan gabe... Oain bezela pentsuakin ta euki ezkeo, jesuuuus! Zenbat, bai, zenbat zea ingo ote zuen hayek? Herri guztirako geuk nahiko koneju haziko giñun. Ta, bueno, hoyek hola pasa zian, bai. Ta geo eukitzen gendun txerriya, ta hua ume itekua; ta hark'e hamar iten zitun, hamar ume. Ta titiak beatzintzako zezkan, ta hamargarrena biberioiokin hazitzen gendun. Ta mimatuta beti hantxe, ta ez dakizu nola segitzen duen biberoyana, gosetzen danian, beak etortzen dia jo ta korrika. Bi ardi're bagiñun, ta beste bi ahariak'e bai. Ta bat jokuan ibiltzen gendun. Jo, hua bai zala ona. Zenbat pezeta ekartzen genun guk harengatikan

etxea. Ahari jokua in, irabazi. Beste batian, Urdanetako ez dakit nungo ahariyakin apustu in zula, “bueno, in zak ba, jun hai, ba”. Jun zan, irabazi. Geo beste batek nahi zun geo jokatu, ta gure anayak nahi ez jokatu. “Zeatik ez diyok, ba, jokatu nahi?”, “ez, oain nekatuta zion, ta deskantsatu in ber din. Hurrungon eramaten danen, berriz’e irabazi dezan”.

- Zer egiten zenuten baserrian ateratako barazki eta fruituekin?
- Hombre, pixkatzuek itxian eukitzen giñun, ta bestiak plaza ekarri, ta plazan saldu. Fruta’re asko eukitzen gendun: melokotoiak, udariak, briñoiak... Fruta asko eukitzen gendun. Ta bestela, ba, bainak, piperra, patata, danetikan... Barazkiyak’e plaza ekarri ta saldu. Ta guk bakarrik ez giñan etortzen zeara, plaza saltzea. Ba ordun jende asko etortzen zan.

4.31. Janaria eta gutiziak

- **Hizlaria(k):** Elo segi, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Erref:** ZAR-108/015
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:17:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Lehen taloa jaten zuten, eta etxean egiten zuten. Herriko gozotegiei batzuei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Esaten due leno, hola, ogiya biharrian, hola, talua ta asko jaten zala ta...
- Bai, bai.
- Hori ze iten ziñuen, etxian zuek?
- Bai, bai, etxian, bai, bai. Eta gaiñez, oso gozua zan. Oain ez det jaten, zeatik gizendu iten da. Bestela jango nuke uaiñ’e e?
- Ta Xerras pasteleya ta leno’re bazeuen?
- Bazeuen, bai, bai. Hamaika inbiri pasa gea geu Xerrasenian. Diruik ez erosteko, ta usaya inda pasa bihar!
- Ze pastelei geyo zeuen? Ze pastelei geyo zeuen?
- Hori, ta bestia zeon Garaioa. Eta ez naiz akordatzen beste izenik. Kale nagusiyan zian bi hoyek. Oso pastel ederrak iten zituen e? Eta guk diruik ez erosteko! Usaya in ta igesi in bihar!

4.32. Azoka eta euskara

- **Hizlaria(k):** Agirresarobe, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aldaz Odriozola, Maider
- **Erref:** ZAR-113/011
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:13:04. **Bukatu:** 00:14:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aldaz Odriozola, Maider

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Euskara » Euskararen egoera

Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

- **Laburpena:** Azoka aldatu egin da: izan ere, orain baratzea gehiago lantzen da lehen baino. Lehen gehienbat abereak izaten ziren baserrietan. Txikitan eskolan, euskaraz hitz egiteagatik eraztuna jartzen zieten zigor gisa.

Transkripzioa

- Lehendik oraindaiño asko aldatu al da azokaren negozio edo lan hori?

- Bueno, gaur batzan lan asko iten da. Leno basarriyan iten zan dana ganaua, eta artua, ta babarruan, ta horrela. Baiña gaur basarriyan berdura're asko iten da plaza ekartzeko; leno ez, baiña oain bai. Horregatikan Zarauzko plazako asko irabazi du herriko, basarriko berdurakin.

- Zure ustez, euskarak ba al du etorkizunik?

Hombre! Beti! Zergatik gu euskaldunak nola gean, pues, nahi deu euskeraz zeatzia, hitz eitia ta gure artian, alkarren artian beti hori. Gu txikiyak giñanian, erderaz ez giñakiun, euskeraz dana. Eta guk nahi gendun eskolan pixkat ikasteko erderaz, erderaz'e bai, erderaz ikastia nahi gendun. Ta ordun jartzen zan anillo bat jarri, euskeraz, erderaz ikasteatikan e? Eta deskuidatuta hitz eiten bagendun euskeraz, esaten ziguen: "anillua! Galdu in dezu puntua ta".

4.33. Lehen txakolina eta sagardoa etxean egiten

- **Hizlaria(k):** Fernandez Urkia, Eugenia Sebera

- **Elkarrizketatzailea(k):** Eizagirre, Ane

- **Erref:** ZAR-116/009

- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:11:50

- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Eizagirre, Ane

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

- **Laburpena:** Txakolina lehen etxean egiten zuen jendeak. Beren etxean sagardoa egiten zuten, eta non eta nola egiten zuten azaltzen dute. Behin Eugenia dolarera joan zenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Bai, bai, hoik danak kale-baserrik. Geo txakoliña're, zeak, Manuel Maik o zeak sartzen zizkiñan ta. Leno basarriya...

- Txakoliña iten al zun leno Manuel Maik?

- ... korrienteo.

- Manuel Maik txakoliña iten leno?

- Beak! Beak zaukena mahastiyak. Leno dana mahasti koskorak bazian hemen! Ta bertan sartu.

- Gure itxian'e iten zan, ba! Gure aita eta ez al zuen txakoliña iten? Txakoliña o sagardua o...?

- Txakoliña, bai. A! Bai. Sagardotegiya beak'e.

- Bai. Tolarea, Pantolingoko tolarian eo ez al zuen, ba, jotzen?

- Nik ez dakit, ba, nun zuen sagardotegiya. “Ya no había”.

- Eeez. Ni txiki-txikiya nintzala goatzen naiz ta oaindik sagardua nola iten zenduen!

- Sagardua beste batentzat ein, ta handikan ekarri iten ziñan aitag etxea.

- Baiño nun iten zuen?

- Zean, Pantolinguan ta, horko zea zan hua, maixua gure zuen aitta.

- (biloba) Nun dao Pantolinua?

- (alaba) Pantolingo!

- Pantolingu, igual da, Pantolingo, Pantolingu... Zean, oaiñ’e han eongo ditun Pantolingu e?

- (alaba) Bai.

- (biloba) Nun?!

- (alaba) Baiña hura’re kendu zuen, etxe berriya inda dao hura.

- Han etxe berriya al do?

- (alaba) Bai.

- (biloba) Nun dao?

- Plaza Musikatik nola ertetzen gea gora, goiko kamiyoa? Han ezkerretan.

- (alaba) Oain jokuak eta nola daude? Han, azpi hartan, leno tolaría zan, Amaia.

- Neu’re jardun niñunan batian, ez zekala launikan, ta aber jungo al nintzan, ta baita jun’e ni. Goitik bota ta [...] zulotik hurbildu, goitik behera aterako balitz bezela sagarra ateratzen hunan. Ta juntu-juxtun hua, ta [...] “Kontuz e? Zuek sartu gabe!”, ta akordatzen naun nola esaten zien gizonak.

4.34. Zarautz lehen eta orain

- **Hizlaria(k)**: Hizlari ezezaguna, ZAR-119
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aierbe Iturburu, Gorka
- **Erref**: ZAR-119/005
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:04:15. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Aierbe Iturburu, Gorka
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Herria asko aldatu da lehendik hona. Lehen dena baratzeak eta ganaduak ziren.

Transkripzioa

- Herria asko aldatu al da handikan honera?

- A, bai, ene! Horixe bai, horixe bai. Zeatikan leno, esate bateako, Zarauzko herriya zan dana baratzak, zoluak eta holako modukuak. Goatzen naiz Makatsaneko etxe hortan ikuillu handi zamarra zakaen, eta ganauak, eta baita Pipaseneko deitzen ziyoeke etxian’e ganauak zezkaen. Beste batzutan eoten zian txerriyak, ta Mixerikordiko aurrian, aska haundi bat egoten zan urakin; ta kalez kalez, bueno, kale asko ez, baiña zaben kaliak behintzat danak ura eratea hara eramaten zituen, oseake danak etortzen zian jun ta etorri, han ura eran, ta atzea ukuillura.

4.35. Herriko plaza

- **Hizlaria(k):** - , Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zurutuza Salsamendi, Idoia
- **Erref:** ZAR-120/002
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:01:01. **Bukatu:** 00:02:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Zurutuza Salsamendi, Idoia
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Herriko plazako giroaz hitz egiten du. Feria bertan egiten zen. Zarauzko bandak igandetan jotzen zuen, eta jendea dantzan aritzen zen.

Transkripzioa

Baita ere herriko plaza oso polita zan, orain bezela. Han zeon konsejua arko batzuekin, eta gu hantxen ibiltzen giñan jolasian, baita ere sakaponetan. Orduan feriya plazan egiten zan, ganauak eta txerriyak, txerriyana. Plaza dana, plaza dana zikintzen zuen, eta gero bazan gizon bat muiñeka motza deitzen ziyotena, eta harek mangakin dana garbitzen zuan. Zarauzko bandak jayetan jotzen zuen arratsaldeko bostetatik gabeko zortziretara. Eta jendia kioskuari buelta emanaz, dantza egiten zuan. Ttunttunak, ttuntuna ere jotzen zuen, juntatzen giñan neska-kuadrilla, ta dantzan egiten genuen.

4.36. Gerra garaiko eta gerra osteko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Aristi Isasti, Joxepa Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines
- **Erref:** ZAR-123/008
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe Belamendia, Ines
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra garaiko bizimoduari buruz hitz egiten du: senarra gaixo ondorenean zegoen, eta kooperatiba batean sartu zen. Egur bila mendira joaten ziren. Errazionamendua hutsaren parekoa zen haientzat. Makina bat miseria pasa zuten orduan. Arraina jaten zuten gosea kentzeko. Beldurrez bizi ziren.

Transkripzioa

- Gerra denborako garaia aipatu dezu, ba: nola izan zan, ba, Zarautzen, Zarauzko bizimoua, eta partikularki zuen bizitza? Ze iten zenuen denbora hartan?

- Ezer gabe geatu giñanan, eta gizona gaixo ondorenian hunan, eta ordun gerra hasteko denboran bertantxe, hastia zitxaztenan lanian, milla pezta bota behar izan zitxanan, hori ingo bage... zeatu... esto... lengo soziyo, nausiya ekarriko bazuen egurra lana lanian hasteko. Eta sartu giñanan batzuek, zea, kooperatiba bezela, eta milla pezta bota bihar izan niñanan. Ta

gerora, ba, esan detena, harrezkeo gauza asko pasatu ditun. Klaro, geo... eraman zian komandantzira're, ta geo egur billa're jun bihar izaten giñanan zeara, mendira o, ta ahal dan bezela bizi giñanan, gaxki. Ta razionamentua're... hutsa, ezer ez, razionamentuik ez giñanan, ze ematen zuen: egiya esan, askotan aza sustarrak, eta txiki-txiki inda jaten, ta holako gauzak. Eta gero, ze pasa zan?... Ez naz gogoatzen. Ba, gizona're bai kartzelan eon hunan, ba, esan detena, hiru hillabeteko. Komandantziya zeon han Narrosen, eta hortikan Mixiikordiya eraman zuen, eta handikan, ba, hiru hillabete pasa, ta don Ebariston bitartez, zeoze harek zeatu, nola mixeriyen gauden familiya, eta atea ziela. Eta jaungoikuai eskerrak gerora lanea hasi zala, eta gauza handik ez gendula izan, ez "puntos ni comas" gaiñea, ez gendula ordun izan, eta mixeriyen biz... pranko pasa nula zea hoyetan. Ta nik bezela, beste askoek pasako zuela. Eta nola ez zan jun aurea, ez dakitela gaiñea; pardela pronto jarri, ta danak in zitxiala, zeatikan jende guztiya, bere laun guztiyak bazijuaztela, ta ze in bihar zun harek, ez zun ezertxo're egin harek. Txipiroita joten zan, txa... txalupa txiki bat bazekan, ta "aunque sea" itxian jateko baik'e zeozar; arroz pilla batekin jan iten gendun hura sikiera. Holaxe ibiltzen gi... holako bizitza izan gendun, tristia. Ta pasa zian, pasa zan hura're, ta pasa han, pasa zian hemen'e. Zeak eta gu, bildurrak aidian ze pasako, baiña itxetikan iya erten gabe eon giñala, ta holaxe.

4.37. Bere familiaren bizibideak

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oñatibia, Manu
- **Erref:** ZAR-124/003
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:02:16. **Bukatu:** 00:03:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oñatibia, Manu
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
 - Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Bere aita abereak zituen; eta ikatza eta egurra saltzen zituen. Beren taberna atzean saloi handi bat zeukaten, eta Zarautzen egon zen lehenengo jolasteko saloia izan zen hura. Fonografo bat ere bazuten, eta askotan jotzen zuen pieza baten doinua abesten du.

Transkripzioa

Eta geo guk, nere aitak eukitzen zun, denbora haitan eukitzen zitun bi behi, ta astua're bai. Ta geo ikatza ta egurra saltzen zun nik oain denda dakaten tokiyan. Ta tabernan atzian giñun guk saloi haundi bat, ta Zarauzko aurrenengo josta... josta... jostatzeko billarrak ta eon zala, aurreneko saloya zan Zarautzen denbora haitan. Beste gauza bat, oain goatzen naiz momentuan: fonografo haundi bat'e bagiñun, fonografo haundi bat, hola guardasola mouko katxarro haundi batekin. Orduan fonografo Zautzen gutxi eongo zian, ez dakit, bakarra izango zan, oso gutxi eongo zian... Eta geyo... goatzen naiz pieza bat asko jotzen zuna: erderazko letra daka, baiño... orain musika bakarrik zeatuko det. Tarali lirilala laralalali, lerolalala, ta tzunpata tzunpata tzunta ta ra ta txunba tzunbarabarai.

4.38. Zenbait anekdota

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oñatibia, Manu
- **Erref:** ZAR-124/004
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:03:24. **Bukatu:** 00:05:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oñatibia, Manu
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 - Politika » Politika eta Franco
 - Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Behin astoarekin aitaren lursail batzuetara joan zirenean, astoak ihesi egin zien. Sagastia ere bazuten. Sagastiko txabolan ikurrina zeukaten ezkutatuta, eta lapurtu egin zieten.

Transkripzioa

Oain, berriz, geyo nik zer kontatuko ber diyat? Zarauzko kontuak? Behin batian, goatzen naiz, nik, astuakin jun giñen, hamen, aurreneko tunelen gaiñian terreno bat ibiltzen zun nere aitak; nik ez dakit ba, nik zortzi-betzi urte eukiko nitun, ta... astuakin jun giñan gora, eta belarra moztea jun zan han gora, eta oain bide txiorra badago Zamaiko zulotik gora? Hortik gora jutun giñan. Ta in diu ihesi astuak, goitikan ihesi, astuak ihesi, ta... mekatxis! Ni mutil koskorra ta: "jun hai atzetik ta aber harrapatzen deken!". Ta iya behera jetxitakoan harrapatu, ta berriz'e gora. Holako ixtoriyak... Geo sagastiya ere bagiñun guk; sagastiya bastante earra gaiñez'e. Orain, orain fabrika einda dao, baiña... sagastiya sagar earrakin, sagar earrakin.

Oain kontatuko nuke beste ixtori bat, baiña... kontatu eingo det gaiñez'e. Guk, gerratian bukatu zanian, Emakume Abertzaleko ikurriña o bandera nere arrebak gorde zun, ta gailleta gailleta kaja baten barruan sartu zun, ta euki giñun urtetan, gerra denboran, Francon denboran, urtetan, txabola baten barruan gailleta kaja paeta zulo batian sartuta. Egun batian, sartu dia mutil koskorrak txabolan... zer gertatuko? Gailletak fabrika, o gailleta kaja ikurriñakin lapurtu ein zuen... Francon denboran zan geo hura e! Guk pasa giñun bildurrak! Mekatxis! Hoixe bakarra bihar diyau! Oain azaltzen bada, ze? Baiño harrapatu zuenak'e ez zian zeakuak e? Frankistak ez zian.

Ta ez zan, behintzat, azaldu; ez dakit orain geoztik azaldu dan. Hori're, hori're gertatutakua!

4.39. Zarauzko lehengo baserriak

- **Hizlaria(k)**: Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref**: ZAR-128/008
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:10:21. **Bukatu**: 00:11:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Zarauzko orduko bizimodua: itsasoa eta baserria. Orduko baserrien izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Gaiñuntzian, hamengo bizimodua, lehen esan dizuten bezela, itsasua ta zea zan, basarriya. Basarriyan izenak esango nituzke orduko Iñurritzakuak: Izpillak bi; Ploesak; Pikatza; Asierreniak; eta Benta eo deitzen giñun hori, Txotxapaindu zun izena horrek, gaur sosidadia daon zea honek, Txotxapaindu; geo Landania; Alparketeronia; Hondartxak; Indineo zaharreneia (hori autopista eo kamiyo berriya in zanian bota zan); ta Zubiaurre berri; Zubiaurre zaharra; Etxebeltzia; Amillui; Etxaniz; Etxe Txiki; ta gue atzian, zean, Zauztiñania zian (prantzesa esanda ezautzen due batzuk); eta Monterua bizi zan itxia (hori're bajua); ta Pedro Lakumia; eta Floresak. Hogeita bost kontatu izan nitun. Barriyo guziya hori zan.

4.40. Animali asko etxean

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Ibarguren, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ZAR-130/005
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:07:50. **Bukatu**: 00:08:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Animali asko zituzten etxean: zortzi behi izaten zituzten, txahalak, astoa, zerria, ardiren bat...

Transkripzioa

-Ta zuen etxian zenbat animali-ta?
-Animaliyak, animaliyak asko. Zortzi behi korriente eoten zian, zortzi behi ta geo txahalak-eta asko osake. ikuillua guk esanten gendun, ikuillua o [eya] hemen. ikuillua ondo betia eoten zen. Astuak, txerriak, ardi bat'e bai, askotan hiltzeko ekarriya. Eta hola izaten zen, baino animaliya asko eukitzen gendun.

5. Familia eta harremanak

5.1. Errepublika garaian, euskal izenak jartzen zituzten: Ander, Kepa...

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-003/003
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** 1933an jaio zen, eta Ander izena jarri zioten. Gerora debekatu egin zuten, baina errepublika garaian lagatzen zuten. Frankismoan, berriz, izena aldatu zioten agiri ofizial guztietan. Zarautzen bazeuden euskal izena zuten beste zenbait ere (Kepa, Ander, Gotzon...). Abertzaleak denak.

Transkripzioa

- Ordun, jaiotza ze urtetan, milla beatzirehun ta?
- Hogeita hamahiru.
- Eta Ander izena, aspalditikan?
- Betitik.
- Ta, nola hori, hogeita hamahiruan bertan?
- Gerra aurretikan lagatzen zuelako.
- Gerra aurretikan... Ta geo ya...
- Geo, ni ibili naiz bueltaka eta geo ematen zituen hamengo ofizina santo, hemengo ofizina santuan ematen zituen zertifikatuetan Andres jartzen zuen. Eta geo garaia etorri zanian mudatzea etorri nitzan honea zeatzea, ta esan zian, "ez, lehen 're hi beti Ander hao hamen 'e!". "Koño! Ta ordun zeatikan iten ziñuen zertifikauko Andres?!". Ta hola [...], Pako [...] ta konpañia. Bai.
- Ta orduan zer zan, e, Errepublika, Errepublika garaian, e, jaiotako [...]?
- Ander. Karo, hogeita hamahiruan hori lagatzen zuen. Ta ni Ander izan naiz beti, eskolan ta leku guztitan, beti. Nei Andres, netzat ez zan izen hori.
- Eta hala 're esaten dezu, zean, jaiotze zera, agiriya eskatzea etorri, ta, zea, Andres...
- Andres jartzen zuen hamen. Hamen bai. Nik karneta ateatzeko hamengo agiriya behar izandu zan, etorri, eskatu eta Andres, ta ixildu in behar. [...] zeatu nun, harrapatu nun etorri nitzanian kanbiatzea, "a ber, ateiak rejistrua, ta beituak". "Bai, beituiko diau". Atea zun, ta "ez, Ander ziok", "ta, zeatik ez ziñuen Ander jartzen?".
- Eta normala zan Errepublikan Ander ta Kepa ta Joseba ta...
- Ordun laga iten, laga iten zuen ordun, oaindik bai. Osea, hogeita hamaseira arte libre eon zan.
- Eta Zarautzen asko daude? Ander...
- Ni bakarrik. Ander nik ezautu det... Bestia Ander ni baiño gaztexiaua Kiriki, Ander Kiriki.
- Ta bestela zure inguruko [...] jente, zure sasoikua hola, euskal izena daukatenak...
- Raruak zian, oso raruak, oso. Kepa ta holako batzuek bai, Kepa Murua ta.
- Patxi ta holakon bat igual.
- Patxi ez ta ordia izena jartzen, geo jartzen dezu Patxi, aurrena Francisco

jartzen dezu, lehen 're. Traduziyua zun, geo deituko zizun Patxi nahi baziñun baiña. Gotzonei, beitu, baiña Gotzon bada bat gure kuadrillakua bazan bat Gotzon zana. Asko zan bere gurasuak ze berotasun zuen ta ze joera zuen, hortik zan, hortik zan.

- Abertzale, zea, jente sutsua, ta ordun apostu iten zuna.
- Bueno, itsu-itsuak o.
- Sutsuak esaten det, itsua ez!
- Ez. Nik bi osaba izan ditut bat batailloian ta bestia Frantziyan "pena muerte"kin, zeakua, ELAko sekretaiua o zan. Eta hua, nik bixitak in dizkiyoet bai kanpo konzentraziyuan eta bai zean, fronteran, Urdaxea jun, Urdaxea jun mendiz ta, osaba ikustea, garai haitan. Zea, joera hori ordutik dator.
- Ya, noski.
- Karo. Ta geo beti giro hortan aita ta 're txistulaiak eta, betikuak hamengo antzerkiyak iten ta, hori... Gerra aurretik eta geo.
- Beraz, zure zaletasuna familitikan dator, gurasotikan eta...
- Bai, bai. Ba, bai. Nik hala ezautu det beti.

5.2. Gerra aurrean abertzale ezagunak Zarautzen

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-003/007
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:13:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Zarautzen, abertzaleen artean, Lizundia oso ezaguna zen. Baita beste batzuk ere, Begiristain, Alberdi, Akilino, Salbide...

Transkripzioa

- Eta nortzuk zian hamen, e, abertzalien artian ta hola pertsonai ezagunik eta?

- Pertsona ezautuak, nik, osea, aituta lehendakaia, zea, Lizundia zana, Testil Gipuzcoanako nagusiya izandakua. Gure osaba sekretai denboa askotan, aita 're bai.

- Osaba, zein zan?

- Osaba, Joxe, Kojua. Alkatia izandakuan aita zana. Fernando Subinas ta, hoiek zian hamen, Beristain ta, bankuan eon zana, bankuko direktore...

- Gerra aurretikan...

- Gerra aurretik, bai. Ta geo hartu-emanak guk hoiekin izan ditugu beti, geo, gerra pasa ta geo 're, bakoitza bere lekutatikan etorri zianian 'e, batzuek kanpotik bestiak kanpotatik danetik etortzen jun zianian, geo ya hartu-emanakin beti. Eskutu samarrian baike.

- Ordun, famili zea batzuk ya bazeuden ya sustraituak eta?

- Bai, bai, bat baiño gehio, zea, hartu-eman fijuak zazkazunak ba, jakiñak zian, Zabalegitarrak eta Akilinetarrak eta, zea, ya zea haundiyakin. Gerekatarrak eta...

- Akilinetarrak zeñek, hauek, azken kale-baserria euki zutenak hemen?

- Zein?

- Azkenengo kale-baserria, ganaua ta hamen kolean euki zutenak oain dala...

- Akilino? Bai.

- Hoiek, ez?

- Bai. Hoiek eta geo hoietako batekin ezkondu zan zeako bat, beak, este... Gernikatik etorritako bat, este Jesus Makazaga. Hua ez zekit tenientia o hola izanda zan hua, o sargentua, zea, este... orduko gerran. Hua horrea ezkondu eta etorri zan, familik ez zun izan, baiña haiekin ta ta 're hartu- emana beti, gure aitan ta kuadrillakuak gelditu zian haiek.

5.3. Emakumearen ardura handia baserrian.

- **Hizlaria(k):** Txurruka Egaña, Maria Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-004/024
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:40:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Ez zuten jolasik egiten, lan asko izaten zutelako. Berak bakarrik zaindu behar izaten zituen umeak, senarra mendian ibiltzera joaten zelako. Ehizarako zaletasuna ere bazuen: usotan eta oilagorretan egiten zuen.

Transkripzioa

- Ta, igande baten ze iten zan garai hartan? Igande... igande baten, ze iten zan igande baten?

- Zer? Igandian zer?

- Ze iten zan?

- Nun?

- Zuek, zuek, ze iten zenuten igande batian?

- Gure...?

- (A) Lanakin [...].

- Ze iten zenuten, atsalde baten esate bateako, igande atsalde batean?

- Lanak in behar, lanak.

- Jokuan ta ez zenuten iten, ta?

- Ez, ez, ez, ez. Ez zeon denboikan. A! Nere gizona ibilkaia izan zan ta harek alde iten zun ta ni bakarrik. Hartu niunian bakarrikan, hor, ta, umeik ez gendun artian alkarrekin. Baiña umiak dianian sobratu iten dia danak, hor konpon! Gizonak libre nahi izaten due, egoistak zeate!

- Ta bera, ze etortzen zan, kalea etortzen zan bera, kalea?

- Ez! Mendiz mendi ibili, nun ze ikusiko ta. Baiño horrela, itxiturak zabezen tokiyan da 're, alantze, txarrantza arantzaduna, eta han katiatzen baldin bazitzaion 'e, tira ta eten, ta aurea. Geo konpondu zani...

- Ehiztariya ez zan, ez zan ehiztariya?

- Bai, ene! Uso denbora zanian etortzen zan ta han, esto, bazeon zeatikan, bandiyotikan atea kanpoa ertetzeko, ta sukaldian bihian, eta habitaziyuak 'e aparte. Ta, baiña, bandiyotikan ate bat bazeon ertetzeko kanpoa, ta, tranga bat ipintzen zitzaion horrela, zea, atiai atzian, ta. Harek ipintzen

ziyon hola tranga, eutsitzeko itxita itxuran, ta aide, ehizea. Eta patata ipintzeko denbora ta, gizona palta. Aitak, berriz, ostea, bere aitak nere suegruak: "a, [...], oaiñ 'e palta deu haura". Bai, etorri zan, "hiri andriak ein beharko dik bai erritan!".

- Ta, ze ehiza iten zun, usotan ala oillagorretan 'e bai, ta?

- Usotan, usota. Uso denbora zanian, hego-haiziero, [...] pasa iten zian ta. [...] urtian, oillagorrek ere igual izaten zian, ta ordun, illuntzian, illunabarrian izaten zan oillagorrek han, ezkututzen ziala ta. Haura 're aprobetxatu behar izaten zun ta. Berak libertadia, andriak lotura!

- Ta arrantzuan ta iten zun, arrantzuan ta?

- E?

- Arrantzuan ta?... Arrantzuan?

- Arrantzuan? Arraia harrapatzen... Arrantzan? Arrantzan?

- Bai.

- Itsasuan? Ez, ez, ez, haura ez zan itsasuan...

- (A) Arrantzan? Ez, olaarrotan bakarrik.

- Olaarrotan bai?

- (A) Olaarrotan bai.

- Bai, olarrota bai, tarteka, batzuetan bai, bai.

- (A) Ta lapeta. Aste Santutan lapetan.

5.4. Euskaldunen arteko harremana

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Barrenetxea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen
- **Erref**: ZAR-005/014
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:32:54. **Bukatu**: 00:34:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Euskaldunak elkartu egiten ziren elkarri laguntzeko, ideologia desberdinetakoak izan arren.

Transkripzioa

- Guk beti iten gendun [...] in deu, euskaldanok juntatu ta politikaik gabe, gaiñea. Zarautzen zeona komunista zan, bestia anarkista zan, ta alkarrekin ibiltzen giñan. Jose Mari [...], Zacarías ta... Eta, guk eiten gendun, batek oliyua ekartzen, bialtzen ziyoen, beste batzuk beste zerbait, eta beste batek, juntatu, ta kozinerua, euskalduna bat, danak euskaldunak zian. Ofizinatana 'e euskaldunak. Gu giñan aurrenak eaman giñuztenak eta, geo kargo danak geuk hartu in genduzen. Eta iten genduan gauzak eta geo partitu gabian. Ta, pentsau deu, zeoze [...]: hiru anaia zaben monitoriak, nausiyak, Madriko ebanistei on bateko semiak, baiña goitik behera jundakuak. Ta haitako bat ibiltzen zan, ta gabian ta etortzen zanian eman ta iten [...], ta lotsatu iten zan hartzia, ta "hartu zak gizona gauza berua!". Ta hartu eiten zun. Hartutzen zun ta: "llevamos seis meses sin cobrar ni chiquita". Ta, horrela pasa zan ha. Beno, ta hor badao... Jesus!

5.5. Herri bakoitzaren izaera

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Barrenetxea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen
- **Erref**: ZAR-005/038
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:26:43. **Bukatu**: 01:27:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Zarautzarrek nolako fama zuten. Zumaiarrak kantuan onak, baina bereziak omen ziren. Getariarrak. Ze auzotan ibiltzen ziren erromerietan.

Transkripzioa

- Ta hola, e, inguruko herrita ta juten ziñatenian, zarautzarrak fama ona al zekaen zarautzarrak?
- Erromeitan.
- Erromeian.
- Gu, erromeitan.
- Ta, zarautzarrak fama ona al zaken? Hola... o ze fama zeken orduan zarautzarrak?
- Ez, Zarautza herri ona zan, konjuntuan herri ona zan, [...]. Zumaiarrak zian espezialak. Kantuan onak, jolin! Getaiarrak 'e bai, baiña ba, Getaiarrak 'e beti azaltzan zan balia zala, ez zala, bazala... ta hasarratu ta. Geo politika sortu zanian bukatu zan balia. Zarautzan jende ona zeon.
- Ta nun ibiltzen ziñaten erromeian?
- Jesus! Barriyo guztitan. Hasi hor zean, Santa Krutzen ta, Elkanon ta, zean, ta hamen, beno, barriyuak, Urdaneta ta, Altzola ta, danak, danea. Geo, bizikletan 'e toki daneta aillatzen giñan. Orduan 'e ez zan, herriyan eongo zian ba, sei bat eo zortzi bat automobil besteik ez zian orduan. Ta gu bizikletan jo ta ke, geo motorrak [...].

5.6. Jolasak eta bestelako gaiztakeriak

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Roteta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-006/006
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:07:47. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Jolasak: korrika, salto egiten, tximili-kuarteka, tiroka... Sasoia zenean, sagarrak eta gereziak lapurtzen zituzten. Parranda gutxi egindakoa da.

Transkripzioa

- Ta zertan jolasten ziñaten? Gogoratzen ahal zea zertan... zertan jolasten ziñaten? Ze jolas edo?
- [Alkarri] korrika o bankuan jarrita bankuan zenek salto haundiyo in ta... E?

Bankuak... holako... [gure etxian] aldrebesak zian bankuak. Bat bestian gaiñian jarrita zeñek iten zun salto gehiyo, hortzak hautsi arte batzutan. E? Ta hantxe! Tximili-kuarteka nola izaten zan? Ezkutatu ta bat bestia... Ta tiroka zeaik gabe, pistolik gabe, pim-pam-pum. [Ze itezu parre neekin]? - Ta gaiztakeriak iten ahal zenituzten? Halako...? - Nola gaixtakeiyak? - Lapurretan ta hola ibiltzen ziñaten? - Ez. Sagar deboan-ta bai, e! Sagar denboan ta geexi denboan ta hor bai. Hori, hori... hori bai! Hortan onak giñan, geexitan ta sagarretan-ta onak! Bai, bai. Korrika saiua iten giñun, e! baiña ez... sekula harrapatu baserritarrek. Batian saio earra iñaazi niyon bati! Errota zaharretikan Antunianoko taillarreaño segitu zin. Ni sagarrez beteta neola ta ni dzi! taillarrea ta harrapatu ez! Korrikalaiya zan, baiño ez zin harrapatu! Ze... Bildurak ze iten dun /iteun/, e? [Ze zenbatak segitzen zigun guri...!] Pentsa zazu [...]. Bueno! Gure bizimodua [...]. Gero, ezkondu ezkeo, ba, horrek esango dizu nere bizimodua zer dan: lana in eta illuntzetan soziedadea jun, tertuliya in ta etxea. Parranda gutxi in det nik, e! Batez. Noizik behin afaiya o baten despedida zala o bat soldautza jun ber zula, haren despedida zala... [...] Baiña, bestela, [...] etxian laga ta afaita noa...

5.7. Mahats-biltzea

- **Hizlaria(k)**: Lazkano Roteta, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-010/016
- **Iraupena**: 0:04:37. **Hasi**: 00:44:00. **Bukatu**: 00:48:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Mahats-biltze egunean, dolarean estututa jarri eta ondoren afaria prestatzen zieten laguntzera joandakoei. Mahats-biltzea nola izaten zen. Familiakoak etortzen ziren laguntzera. Bi egun pasatzen zituzten mahatsa biltzen. Zein garaitan biltzen den.

Transkripzioa

- Joxe Kojua ta egon ohi zian zea, guarda gu giñan garaian, hua eukitzen zun. Ta beti zea itten zan, eun handiya izaten zan mahats bitzeko euna. Ta gabian tolarea, Pantolingo, hor, horrea tolarea, ta afaia ematen zuen. Aurrena hankakin itten zan, txisti-txasta, txisti-txasta, ta hantxe, kontu batzuk esan ta, izerdi batzuk atea ta, jo in behar izaten zan, mahats asko baldin bazan saio haundiya ta. Geo afaia ekartzen zuen. Oaintxe, zean jartzen gendun, tolarian ya estututa jartzen gendun, estutualdi bat ematen giñun, ta berriz beste estutu aldiya prepaatzen gendun, ta berriz estutzeko prepaatzen zan garaian, pixkat estutu ta afaia. Olaarru zopa o zeoze holakua aurretik, ta geo xerrak eta piperrak eo. Ba, gauza hona itten zan, bai, gu gustoa juten giñan.

- Mahatsan lanak, eta...

- E?

- Mahatsan lanak, e, biltzia eta estutzia eta, hori auzo-lanian izaten zan?

- Danetik...

- Danetik.

- Danetik. Segun, ze amistade zaukan ta, ze familiya zauken ta. Gu geu etxeko parientetasunakin ta hola ibili izan giñan.

- Nahikua izaten zan.

- E?

- Nahikua.

- Lehen, bai. Bitzen gendun. Ya etortzen zian, aman jaiotetxequak etortzen zian ta. Geo, esan deana, Txilikuk o zea, hoiek 'e eliz puntan euki zun ta arreba gendun hara ezkondua ta, haiek 'e etortzen zian ta hola alkarrekin bildu gendun zea, hemengo mahastiya. Oain, oain beste modu batea. Oain, hazi 're in dia ta, jende gehio 're behar da ta.

- Lehen zenbat denbora behar izaten zenuten biltzeko?

- Ba, bi egun ta pasa izan ginun, e.

- Bi?

- Bai, pasatzen giñun. Hiru milla metro, baiña geo itxe jiran e, zeoze, [...] pixkat 'e izaten zan ta, denboa juten zitzagun, segun zenbat mahats zan. Beti ez zan igul izaten.

- Ta noiz izaten da hori gutxi gorabehera? Noiz izaten da biltzia?

- Bitzia? Hoi beti diferentia izaten da. Aorren bildu [...], urriñ 'e askotan.

- Agorren 'e bai, e?

- Bai, agorren 'e bai ta urriñ 'e bai. Ta urriya pasata 're, azarun aurrenien 'e bai, noiz o noiz.

- Bai, e?

- Bai. Ez da hori... Ze giro dan ta, heldu in behar izaten du. Hori ez da zea, mahatsa heldu gabia bitzen baezu [...] ateako dezu zeoze, ez txakoliña eateko moukua ateako.

- Eta eguraldi onakin edo txarrakin edo nola izan behar da? Beti eguzkitan, edo... ahal dana?

- Tokatzen dan bezela in behar. Estuatzen danian, behin heldu ezkeo, giro txar askuakin 'e jarduten dia ta, ez dia gustoa jarduten baiña, bitzeko garaya etortzen denian bildu in behar. Bai, lasai baldin badabil ta iruitzen bada, "eguraldi txarra zio ta gaur utzi ingo zioau" ta. Ein zuen aurten 'e, ebi onak zeatu zitzaion ta, "ez zio [...] ta, berriz 'e egualdi ona etorriko dek" eta egun bat laga zuen. Geo, bitzen bada, tolariak 'e lan asko ematen du, pixkat aurreatzen bada, ordenatzia-re behar beharrezkoa da. Txakoliñan traslauak ta gauzak eta denboa eamaten du. Bonba onak eta jarrita daude baiña, ein in behar izaten da. Hauek lo gutxi itten due, e! Nik, ni libre nao baiña badao hemen ein behar izaten duna, ta saiatzen da, ta baliyo du, ta gustoa nago.

- Bai?

- Bai.

- Txakoliñ ona?

- Bai, txakoliña. Txakoliñakin gustoa nao. Proatuko deu.

5.8. Lehenengotako telefonoa zutenez, enkarguak egiten zizkietan aristokratei

- **Hizlaria(k):** Etxabe Olaskoaga, Jose Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-013/015
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena:** Aristokraten etxeetara ere banatzen zuten haragia. Zarauzko lehenengotako telefonoa beraiek izan zuten eta enkarguak egiten zituzten. Gran Hotelak kategoria handia zuen eta Duquesa de Alba eta beste hainbat etortzen ziren. Zarautzen egoten ziren aristokratak. Golf-ean eurak bakarrik sartzen ziren.

Transkripzioa

- E, udan ta banaketa iten zenun etxeeta ta abar.

- Bai.

- Tokatuko zitzaizun, e, jente bereziya ezautzia.

- Bai. Baiño, baiño, guk tratua eukitzen gendun kozineruakin ta, ta. Baiño jende haundiya? Jesus! Ni, nei esaten die, nei Venezuelan esaten zien "El Carnicero Real" esaten zien, porke karo, hainbeste jende, kanpotik etortzen zian ta, jende, tituloko jendiak eta. Ta, karo, nik banakin ze, ze kasta zian, ze tituluak zezkaen, ta izenak nola zezkaen txaletak eta hoiek dana. Porke Zarautzan, telefonua 're lehenbizikotakua izan zana gure itxian jarriko zuen. Oaindik gooratzen naiz telefono numerua: "seis, siete". Ta, ingurukuak eta zeoze, enkargua nahi zituenak, guri ematen ziguen, ba, ta. Guri, berriz, ba, igual esaten zigun, ba, geure klientiak nola zian, esaten ziguen, "bueno, vete a la pastelería, ir a la pastelería Serras y que nos traigan, pues, igual, una docena o dos docenas de pasteles". Ta, ra!, juten giñan, enkargun bat hartu telefonotik, bai. Borguetonekua, Marqués De Borgueto, geo esango dizut zein dan, baiño, "Marqués de Borguetokua abixatu due bi dozena pastel eramateko". "A, bai?", ta ra, guk enkargua eman gendulako, ta, igual pastelak guretzeko. Ta guk pastelak hartu, ta gustoa, bale, enkargua emateko listo. Bai.

- Ba al daukazu esatia ze familiko, ze famili ezautu dituzun, hola, bereziyak eta?

- Puf, Jesus! Pilla bat esango nizuke. Hemen beraneatzen eonda hemen lehenbiziko lehendakaria izan dana Irlandakua, De Varela. Horrek Zarautzan... Nik ezautu det ba al dakizu nun? Muskaria nola daon? Hori! Hori lehen zan Villa Miramar. Hori zaitzen zuen Gerekatarrak zaitzen zuen hori. Ta horko nausiyak nik ez dakit, jarri zuen geo komo, komo hotel, hotela bezela. Ta, De Varela etorri zan honea uda bat pasatzea, uda, udazken bat, bere seme batekin. Semia zan jesuita. Itsututa zeon. Hori, nik ezautu det hori, De Varela. [...] gaur zea da, e, hurrengo itxia, ze izen daka horrek, Eguzki... Hori zan Gran Hotel. Gran Hotelek zakan kategoria. Horrea Duquesa de Alba ta, horrea etortzen zian. Nahiz euki Donostiyan palaziyuak eta, bere alabakin ta horrea etortzen zan. Alaban nobiyua Donositikan Zarautza etortzen zan, e, horrena, nola da, Duquesa de Alba. Horrei, horrena, Zarautza etortzen zan, e! Toreruak hemen nik, Zarautzan bai. Orduan, gerra denboran 'e, pues, toreruak eta hor, baiño hor tituluko, Gran Hotela zan, kategoria. Villa San Luís, Conde San Luís, ta. Conde San Luisen semia bat bakizue zein dan? Sartorius komunista nola? Horren aita Conde San Luís zan. Eta hoiek, hoiek danak zarauztar, zarauztar hoiek, desiatzen eoten zian Zarautza etortzeko. Hoiek, zarauztarrak zian hoiek, porke orduan hoiek iten zuen, [...] arteko uda pasatzen zuen hemen. Sartorius ta Adanero. Acebo nola? Hoiek 'e Villa Deleitosakuak eta, hoiek danak Zarautza etortzen zian danak. Zea, Osborne hoiien aitonak eta, Marqués de Borgueto, ta. Los Domec, los Colón Carvajal, hoiek danak zarauztarrak zian hoiek danak. Danak, e? Hoiei Zarautza aitatu ta lerdia

daiyola geatzen zian hoiek. Nik dakit, jolin, ta oaindikan 'e batzuek bakae pixua dakaenak eta, honea etortzen dianak oaindikan. Marqués de Mariño nola? Sartorius, nola Isabel Sartorius eta, horren aita, hori da Conde San Luisko illoba hori, Sartorius. Marqués de Mariño oain dala denboa gutxi hil da, urte bete. Bere alaba prinsipiakin ibili zala ez zala, ez al zea gooratzen? Zeoze, nobiyuak... "De rosa no sabe" honek, honek.... Ba hori, oaindikan Zarautza etortzen da nei esaten dienez. Nik hasi.... Oain karo, oain itxiak in ditue, baiño, Conde Santillana, Duque de Lecera, Duque de Unión de Cuba, Conde, Conde de Tebas, Zarautzikan campeón mundial geatu zan zian hoiek tiro pitxonian. Conde de Tebas zarautzar, "por el Real Golf Club de Zarauz". Inmobiliaria de Orio nola dao?

- Bai.

- Hoi zan lehen Txoko-Txiki. Ba, hor, Duque de Unión de Cuba horrea etortzen zan. Ta karo, hoiek gutxi gozatzen zuen herriya, porke hoientzat gola zan, "era un... jolin, era un feudo". Han beak bakarrik sartzen zian.

5.9. Zarautzen egoten ziren konde eta markesak

- **Hizlaria(k):** Etxabe Olaskoaga, Jose Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-013/016
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:30:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Hohenloheko printzea. Gurasoek zilarrezko eztaeiak egin zituztenean festa eman zuten Zarautzen, Santillana kondearen palazioan. Duque de Miranda, Conde Adanero, conde San Luis, marqués de Mariño... Zein etxe zen bakoitzarena.

Transkripzioa

- Famoso principe Hohenlohe, nola? Hor, Marbella ta in zuna ta. Hoiek Zarautzan. Hoi en bodas de plata gurasuana, Zarautzan ikaagarritzko festa eman zuen hoiek, zeana, oain nola dao Cruz Roja, ta, Gurutze Gorriya? Hori zan, Santillana zan, famoso Conde Santillanan palaziyua zan hori. Ta hor festa bat eman zuen, Zarauzko banda jun zan, ta danak erdi mozkortuta arduakin ta, ta. Jata eroi zan harriya... Holako harri koskorrak eta, bai. [...] ikaragarriya. Aristokraziya, jo, Conde, Duque Miranda, Alfonso trezen (XIII) ayudantia., ta. Duque Miranda, zeana, finka zea zan, Hotel Zarauz nola dao? Hotel Zarauz onduan, telebisiyua, Zarauzko telebisiyua ta nola eon zan? Hori Duque Mirandana zan. Sanz Eneko hori, hori zan Sanz Enekua. Hori zan, "los de Ligués". Esparrago Txistu ta nola? Hoi en nagusiyak eta hoiek zian, hoi en nagusiyak. Hoiek zian aristokrazikuak hoiek 'e. Ta haren aurrian, Conde de Adanero. Hori ez... Hor finka bat, finka bat zea da hori, autobusa nola geatzean da, e... Donostira juteko autobusa Sanz Enea aurrian? Ba, Gurutze Gorriya? Hori zan Santillana. Bestia zan Villa San Luís, hori zan Conde San Luís. Hori zan "Coronel de Aviación y Capitán de Navío". "Era agregao militar en la embajada inglesa". Zian hiru mutil ta hiru neska, uste det. Danak zian [...], eskandinabuak ematen zuen, rubiyo-rubiya. Ba, hoi en lehengusua zan, ba Conde San Luisen anaia zan Marqués de Mariño. Marqués de Mariño zan alarguna. Ta zazkan hiru seme

ta alaba bat. Hoi en txaleta oaindik hor dao, Villa San Ignacio. Ez dakit zuk ezautuko dezun: harrizko txalet bat, e? Ba, txaleta hoi ena zan, porke nik txalupa hor eukitzen nun, ta. Ta, e..., a! Seme zaharrenak andregaia in du bere arreban lagun bat. Ta, ze in du gizajuak? Aitai presentau diyo andregaia, ta aitak kendu! Aita ezkondu... Ba, ba, hori San Ignacio. Hor uain itxe batzuk badia ezker ta eskubi? Hoi zan, lehen zan Villa Goñi. Ta hor etorri zan behin princesa bat, princesa, monarka bat, ez dakit nundikan [...] beraneatzen. Bueno, San Ignacion onduan dao Villa Gerena badao, hor zan Conde Gerena zan, Gerena, Madrileño bat. Madridko akzionista, ta Zarauzko afizionatu haundiyena fubolian, Zarauzko ekipuakin. Baiño, hola asko, e? Aristokrazi..., aristokrazikuak, Jesus!

5.10. Aristokratentzat egindako oinetakoak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Aranguren, Francisco Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-014/030
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:48:46. **Bukatu:** 00:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Emakume belgikar aberats bati bere aitak egiten zizkion satinezko oinetakoak. Zaldi-karroan etortzen zen.

Transkripzioa

- Ordun, modaik eta holako...
- Ez, ez, ez, ez. Ez, ez, ez. Hori, gure aita artista zan ta guk, gure etxea etortzen zian, Lekeitiyon eoten zian, ez dakit Belgak o zer zian, hango..., ta, hango zea, nola zan heura, aberatsa, zea, Belgikakuak zian... Ta gure aitak iten zizkiyon, zea, emakumekua, zeak, oiñetakuak, satenazkuak. Ez dakit satena jakingo dezun zer dan? Bai, satenezkuak, eta. Etortzen zan hura zaldi-karruan, ta, bai, ta, zapateira, ta, hantxe. Ta aber, nolakua nahi zun, ta gutxi gorabehera beak dibujatu 're iten bazekiyan, ta, bai. Hola.

5.11. Zapata-dendara joaten zen markes bati buruzko istorioa

- **Hizlaria(k):** Aranburu Aranguren, Francisco Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-014/034
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:55:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

- **Laburpena:** Aristokratak ere joaten ziren zapatak konpontzera. Markes bat askotan joaten zitzaien dendara zapata-dendako usaina osasunarentzat ona zela irakurri zuelako. Jendeak erregateatu ere egiten zuen.

Transkripzioa

- Aristokrazia juten al zan zapatak konpontzea?
- Bai, bai, bai, bai. Bai, bai, bai. Guk bagendun Marqués de Brenes. Hura eoten zan, beti silla bat eukitzen gendun, eta etorriko zan, ta "hola, ¿ya estás trabajando?", tal, ta berriketan eoten zan. Ta geo azkenian hainbestero eoten zan hura, ta, nik esan niyon, "¿a qué te sirve aquí venir a un zapatería, un marqués?" y tal, ta, "es que yo leí que el olor de la zapatería" osasunantzako ona zala. Ta, han, zapateiko usaia peatzen, ba al dakizu, larruak badu ba bere usaia, ta hura, ta han eoten zan hura. Bai.
- Ze mouz portatzen zan aristokraziya? Ondo portatzen zan?
- Bai, bai, bai. Beno, hoiek jeneralki neskamian bidez ta ibiltzen dia, baiño, holaxe.
- Regateatzen ta ibiltzen zan jentia?
- Bai, bai, ba, jende pobriak regateatzen zun, bai, bai.
- Ta hori normala al zan? Bai?
- Bai, normala. Bai, bai, hoi daneako, ba al dakizu. Orduko "nivel de vida" zan bajua, ta bizi 're in behar zan, ta...

5.12. Umetakoa jolasak; non jolasten ziren

- **Hizlaria(k):** Markaide Etxabe, Juan Jose; Olazabal Iruretagoiena, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-015/008
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:10:46. **Bukatu:** 00:13:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolasak eta entretenimenduak: amona-saltoka, kaniketan.. Amona-saltoka ari zirela gertatutako pasadizoa. Korrika-saioak non zehar egiten zituzten.

Transkripzioa

- (Markaide) Eta, bueno, geo, hortik aparte... bestela ondo, zea, gustoa bizi giñan, e!, mutil koskorretan, ta gu, jolasian ta...
- (Paxo) Geo, jolasak eta...
- (M) Jode! Geure kontura ateatzen giñun jolasak. Joe!, kaniketan ta...
- (P) Entroka, ta.
- (M) Harrapatuta [...], ta.
- (P) Zean, ta... e, zer zan, hola... Salto zea hoiek nola? A!
- (M) Zea, amona-saltoka.
- (P) Amona-saltoka.
- (M) Amona-saltoka. Bat hola makurtuta jarri ta gaiñea salto iten.
- (P) Makurtu ta gaiñea, ta geo bigarrenak eta geo hirugarrena katiatuta geatzen zan, ta...
- (M) Bai, bai, ta eroritzen zianian, goian zebeak behera!
- (P) Behin akordatzen nauk Ziploneko Inaxio ikaarri...
- (M) Zea ona huan saltuan.

- (P) ...saltuan oso ona zan, ta amona-saltoka zan petril baten gaiñian hola jarri, danak daun-daun iten zizuen salto bizkarrea. Askotan astua bukatu iten zan...

- (M) Bukatu, karo.

- (P) Honenbeste peso, baiño. Hori han, han, hain airosua zan...

- (M) Ariña.

- (P) ...ariña, Ziplo hori, yau!, salto in du petrillan [...], ta beste aldea.

- (M) Danak gaiñetik pasata, muturrez aurea!

- (P) Hoiena. Geo, saltaka-apustuak.

- (M) Bueno, puf!

- (P) Iten giñun guk gure kalia 'e, Txerri Kalia, Txerri Kale dana ez zan baiño. Hasi, Otzarretak nola daka karnizeia hor, paso nibealeko hortan? Hortik hasi ta, e, Caja Laboraleko hortan, lehen Xalegineko taberna zan. Hor kooperatiba plaza sartu, eta berriz 'e Txerri Kalia sartu eta zearaiño berriz 'e, buelta hori izaten zan. Ta [...] orduan zapatillik eta... batzuk alpargata gorriakin, bestiak zeak eta... Ziploneko hoiek zaatak; zaatak, ba al dakizu zer zian? Gomezko...

- (M) Gomezko oiñetakua.

- (P) ...kubierta nola?

- A, bai, bai.

- (P) Holako zeak, eta klaro, gu hazten ai giñan orduan, hamar urte, hamaika, hamabi ta. Alpargatak o eozar gauza igual bi numero haundiyo o hola.

- Honbre!

- (P) Ta Ziploneko horrek holako zaatak. Jarri gea zea, metan, karrera hasteko, ta bat, bi, hiru ta lau ta... Gu aurea, ta beak lehenbizi lau pauso ematen zitun zaata barruan ta geo hasten zan!

5.13. Jolas eta jokoaren inguruko lexikoa

- **Hizlaria(k)**: Markaide Etxabe, Juan Jose; Olazabal Iruretagoiena, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-015/011
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:18:16. **Bukatu**: 00:20:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Lexikoa; orain entzuten ez diren hitzak. Kanikak galtzean: "kribi natxiok". Jolasaren nondik norakoak; arraka kontatzen zen. Edozein jokotan ona zenari "lapatxa" esaten zitzaion.

Transkripzioa

- (P) Nik oan aitzen ez dituten hitzak, hola, konparaziyo batea, kaniketan hola esan det lehen, hori iten giñula. Kaniketan bakizu, no? Jokua. Ta, kanikak galtzen bazituzun, esaten zion "kribi natxiok!", kribi. Akordatzen al haiz?

- (M) Bai, iten zan, bai, jokua izaten zan kanikak, jokuan, ta, danak galtzen zitunian, kribi.

- (P) Zuk igual sei kanika dazkazu, han, jokuan, ta, kaxk eta [arragori], kaxk, kaxk, eta geo arra bi izaten huan, bi kanika. Kaxk, eta geo geatzen bazan arran barruan... Ta [...] kaxk eta arra bi, ta esaten zan orduan kribi. Eta irabazleai, ez zea, bakarrik, kaniketan, e!, irabazleai, lapatxa. "Hi,

lapatxa haiz!", "joe, hi lapatxa", "hi, lapatxa haiz", lapatxa.

- (M) Onai, onai. Ona zanai jokutzen, danian, lapatxa deitzen zitzaion.
- (P) Nik oain ez diyat behiñ 'e aitu.
- (M) Kribi, kribi.
- Nik ez nitun ezagutzen.
- (I) Oain potrosua esaten dek hori.
- (P) Kribi... bai, bai. Esaktamente. Esaktamente.
- (M) Lapatxa esaten huan abildosua, batzuk izaten dia danian abildosua dianak, hoiek dia lapatxak.
- (I) [...] da petauta bezela, ez? Petauta.
- (P) Bai.
- (I) [...] Oain petauta esaten da: "petauta [...]".
- (P) Bai, kribi.
- (M) Kribi, danak galtzen zitunian, kribi natxiok.
- (P) Kribi, joe, "kribi natxiok". Jota!
- Peto, jota.
- (P) Bai, peto. Kribi. Ze, zenbat, baiño... kribi ta. Geo, kaxketa [arragori] izaten zan, esan dizut. Ta geo, bat, kanika bat izaten zan, kanika batek bestia jo behar zenun, ta geo iten zan kanika apartatu, ta, arra, honei arra deitzen zitzaion, arra. Ta igual kanika hemen, juxtuatik aillatzen ez, baiño baliyo zun. Pasaran zijuan batek, "aizu, arra ingo, arra ingo?"...
- (M) Bai, bai, bai.
- (P) Ta askotan, Xebastian Ziotzak holako eskua ziyan, ta hua pasa zai, ta igual bi egun. Jode!

5.14. Zinturaka jolasa

- **Hizlaria(k)**: Markaide Etxabe, Juan Jose; Olazabal Iruretagoiena, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-015/012
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:20:06. **Bukatu**: 00:21:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Zinturaka. Batek gerrikoa gorde bitartean besteak ezkutatuta egon behar ziren. Gerrikoa aurkitutakoan, ezkutalekura joan bitartean besteak jo zitzakeen gerrikoarekin hau aurkitu zuenak .

Transkripzioa

- (P) Ta geo beste joku bat huan, ba, leku askotan eongo huan hua, zinturaka.
- (M) Bai.
- (P) Akordatzen al zea? Zinturaka. Zan zintura, bakizu, gerrikua, e, igual...
- (M) Gorde.
- (P) Gordetzaillia izaten zan. Geo, billatzen zuna zintura hua, hua izaten zan hurrengo gordetzaillia. Ta, zintura bat, zeak...
- (M) Portularrumek.
- (P) Bai, Portularrumek. Ta Revuelta huan gordetzaillia, karabinero baten seme, bueno denboa haietan etorritako launa, guekin ibiltzen zan hua 're, ta. Zintura hori iten zan, zintura hua gorde bitartian guk ezkutuan eon behar genun, ez ikusteko nun gorde zun, eta geo billatzen zunak zintura hua, danak billa jarduten zian, hartzen zun zintura...

- (M) Jode, kristonak...
- (P) Ta han ezkutatuta eon giñan lekuraiño jun behar giñun. Ta bitartian, harrapatzen bazigun, yi-ya, yi-ya, yi-ya! Ba tipo horrek, Revuelta horrek, gorde du zintura hori. Gaiñea holako narrua zun...
- (M) Bai, akordatzan naiz.
- (P) Zea, [...] korrea, taladruai ta nola eukitzen zuen lehenoa?
- (M) Polea.
- (P) Hola, jo! Gorde zun, ta pasa genun eun guztiya [...], oaindik ez due billatu iñorrek zintura hua, hi.
- (M) Tipuai ahaztu nun gorde zun, ahaztu tipuai [...].
- (P) Ahaztu, ahaztu, bai, itxea bai eamango ziyan harek, hi! Billatu ez uaindik zintura hi, jode!
- (M) Bestiak kriston pena, Portularrumek.
- (P) Auskalo nun! Jode!
- (M) Propiyoko zintura, zinturaka, bai.

5.15. Kukaña

- **Hizlaria(k)**: Markaide Etxabe, Juan Jose; Olazabal Iruretagoiena, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-015/028
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:50:59. **Bukatu**: 00:52:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- **Laburpena**: Moilan kukañan ibiltzen ziren. Postea seboarekin igurtzitzen zuten eta muturrean bandera bat jarri. Bandera lehenengo harrapatzen zuenarentzat saria egoten zen. Herritar bat oso ona zen kukañan.

Transkripzioa

- Geo, uretako, hola, jolasik eta...
- (M) Bai. Moillan izaten zian kukañak. Kukaña, badao, ba, palua kukañana? Hori, hori zeatzea... uain ez due iten, baiño orduan izaten zan, Ama Birjiñetan ta festetan, kukaña ze hori, palo hori igurtzitzen zuen zeakin...
- (P) Sebua.
- (M) Este... sebuakin. Sebua iten zan, ze, este... ze, ganauan zeakin, grasakin, haura urtu, ta sebua iten zan, manteka bezelako sebo bat, ta sebo hura, harrekin igurtzitzen zuen. Ta muturrian jartzen zuen bandera bat, ta karo, zaillena izaten zan aurreneko bandera harrapatzia, porke orduan sebua eoten zan, jode, guri-guriya. Aurreneko bandera harrapatzen zuna, ba, ze ematen ziyoen, sariya ematen ziyoen, ez dakit ba nik, bost duro o hamar duro, o ez dakit ze emango ziyoen. Ta geo, ibili ahala, ibili ahala, hankakin ta sebu hori kentzen juten zan, baiño karo, biyan bitartian hartzen zitun jendiak zartaa batzuek, kriston zartaak, e! Eta holaxe izaten zan hura harrapatu arte. Eta bat bazeon Zarautzan kriston fenomenua, Pantolinguanekea, Loentxo.
- (P) Loentxo.
- (M) Loentxo Pantolingua. Hura bestiak baiño pixkat zahartxio zan, ta harrek harrapatzen zitun bandera gehienak.

- (P) Porke harek tatika zekan.
 - (M) Bai.
 - (P) Porke bestiak juten zian...
 - (M) Poliki-poliki.
 - (P) Poliki, ta zi-zi-zi, ta, harek iten zun atzetik hartu, ta, tum-tum-tum!
 - (M) Estirada. Gaiñea geo porterotan ibilitakua zan.
 - (P) Hiru pausuan aillatzen zan punta.
 - (M) Estira inda, gooratzen nauk, di-da!, ta azkenian kriston estirada iten zian ta, tak!, hartzen zian bandera.
 - (P) Bai, ba.
 - (M) Geo, sebua kentzen zan bitartian, zeara, kendu ahala, berriz 'e gehio ematen ziyoen, berriz 'e, ayuntamientoko zeakuak, enpleauak eoten zian...
 - (P) Bai. Eskailera tijera bat jarri ta...
 - (M) Este... txalupa batian eskailera tijera bat jarrita.
 - (P) Ameztoi.
 - (M) Ameztoi, bai, Kirkilla.
 - (P) Han zea jarri, eskailera.
 - (M) Ta tartian-tartian berriz 'e eskaileran gora iyo, ta berriz 'e zebua eman ta zea.

5.16. Arantzazura txangoa. Neska-mutilen arteko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-017/013
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:21:11. **Bukatu**: 00:22:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Urte bukaeran Arantzazura egiten zuten bidaian bakarrik elkartzen ziren neska eta mutilak. Treneko bagoietan ere banatuta joaten ziren. Neska-mutilen kontuak. Elkarri begiratzeko ere beldurrez egoten ziren.

Transkripzioa

- Ta, elkartu ta bakarrik eskursiyota.
 - Bai, eskursiyo horta, zan bereziya! Frailetakuak eta herriko eskoletakuak behin Arantzazura juten giñan, gaur bezela ta bihar arte..., jo! Gustoa!
 Baita bagoian 'e, kotxeko, esto, treneko bagoian 'e, aparte. Batzuek bagoi baten, mutillak bagoi baten, ta neskak beste bagoian. Aitzen al dezu?
 - Baiño, geo Oñatitik Arantzazura autobusean, edo?
 - Alkarren onduan danok. Orduan ya danak alkarrekin.
 - Ta, ze sentsazio sentitzen zan, ze bibrazio?
 - Ba, orduantxe gustoa, askatasuna, o! Ez dakit nik, ya hitz eiteko gogo batekin, bestela beldurrez eoten giñan. "Nei hua gustatzen zaiten, ta hiri 're bai", baiño guk hamendik jun beharra haiek handik jun behar zuelako ta. Bai, bai, gu holakuak ibili gentuzen guk, e! Kale Nagusiyan ibiltzen giñan, kalea jun ta etorri ta jun, hortxe pasiatuaz, mutillak alde batetik, eta neskak bestetik. Eta nik "ikusi al den?", ta "bai", ta kaso iñ iñ al din ta ez al diñ, ta horrela ibili behar izaten gendun. Bueno, bueno... Geo nei esaten dienak "las que hemos pasao"... zuek? Nik esango nizuke.

5.17. Neska-mutilen arteko kontuak; kuadrillak

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/021
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:32:24. **Bukatu:** 00:34:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Aisia » Kultura » Dantza
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Mutiletan. Asko hitz egiten zuten mutilekin eta dantzan egin ere bai, nahiz apaizek utzi ez. 12-13 urte ingururekin hasi ziren dantzan. Bazituzten euren kuadrillak eta jaietan elkartzen ziren.

Transkripzioa

- Ze edadekin eta ze, nola zan garai hartako mutilletan itea ta?
- Bueno, mutilekin hitz ein-eta askotan iten genun. Talde bakoitzak, neskanak, bai neskanak ta bai mutillanak, bagenduzen gure [...] eta hitz ein ta, dantza´e bai nik e, frailliak, o zea, apaizak ez zigun lagako, baiño ez giñun jaramon askoik iten, ta dantzan da iten genduzen da.
- Ze urtekin hasi ziñaten dantzan?
- Hamahiru bat edo hamabikin-edo. Bai, bai, bai, eta geo zea, plaza, esto, ibiltzen giñan Kale Nagusiyan ba jun ta etorri ta jun ta etorri, ba noiz o noiz mutillak hurreatzen zian ta gurekin berriketan ta gurekin pasiatzen ta bai, bai, ibiltze zian, ibiltzen giñan. Guk gure kuadrillatxuak eta bagenduzen, ta euskal jaitan ta alkartzen giñan ta orduan dantzan ta iten genduzen ta.
- Agarrauk´e bai?
- Bai, bai, bai, bai, bai. Pausuak´e bagenduzen, “que hay que poner asi”, bai, bai. Bata bestiai pasatzen gendun abixua. Zeiñekin poliki ibilli behar zan eta zeiñek gehiegi estutzen zun ta hoiek danak.
- Ta dantzan eta nola ikasi zenuten edo?
- Ba plazan, hortxe, bata bestiak erakutsiyaz. Zergatik beti eoten zan batenbat bestiak baiño gehixio zekina; ba harek bestiei pixkat erakutsiyaz ta hola. Orduan dana agarrua zan ee, bai, trikitixa´re iten zan; baina ez oaingo zea dantza moderno hauek, ez. Eta bueno, nik uste det, zea, soiñua bea, konpasa jarraituaz, errex ikasten gendun ee, hortako jarriyak. Besterik ez zeon eta.

5.18. Zertan gastatzen zuten paga

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/025
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:38:19. **Bukatu:** 00:39:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Paga: duroa edo zazpi pezeta. Zinea: 3 pezeta Gozokiren bat erosiz gero, segituan gastatzen zen paga.

Transkripzioa

- Paga ta zertan gastatzen zenuten?
- Ez, ba, paga zenbat zeon, ordia? Zenbat paga ordia? Durua o, zazpi pezta o... Hortikan ez giñan iyotzen ta! Ba, juten ziñan zinea, hiru pezta, geo o txupatxus o karamelo o txikle o zeoze holakon bat erosten zendun, ta ze gelditzen zan? Ez zan gelditzen pagaik. Orduan ez zan diruik gastatzen. Ez zan ibiltzen diruik, eta ez zan diruik gastatzen. Ez zeon pagaik. Paga, ze paga? Ta gaiñea erditan igual esaten zizuen nola lotsagabia izan ziñan, pagaik gabe! Kalian gora, kalian behera, hola ibiltzen giñan, berriketan eta.

5.19. Aristokraten dotorezia hondartzan

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/031
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:46:13. **Bukatu:** 00:47:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
Aisia » Oporrak
- **Laburpena:** Aristokratak "bañerua"rekin joaten ziren. Albornoa eramaten zuten. Kasetak izaten zituzten eta haiei begira egoten ziren.

Transkripzioa

- Gogoratzen naiz aristokraziyak, haiek juten zian baiñeruakin, ta, itsas-ertzian eoten zan gurutze bat jarrita, egurrezkua, honela. Haraiño albornoza haundiyakin. Han albornoza kendu, hantxe zintzilika jarri, ta barroa. Hori aberatsak baiñeruakin. ¡Vaya lote que se daban los baños! ¡Ay, que viene la ola!, heldu, bai, heldu. Ta gu beira. Gu dana kontuatzen giñan, gu tonto, tontotik... txikiyak eta gaztiak eta herrikuak, baiño kontuatzen giñan. [...] eta, "Vixente baiñerua halakuakin zion", ta, "jaaa, ba, lote earra emango diñen orduan gaur!". Eta geo ya eoten zian itsasuaiño jeisten zituen kaseta mouko batzuek. Eta kaseta hoiek izaten zuen sarrera alde batetik eta bestetik. Ta han aldatu iten zian. Txaparruak kendu ta jantzi, ta bustiya zeonen aldatu, ta geo albornoza jarri, ta. Eta eukitzen zituen hola reja batzuek, eta, ja, alde honetatikan sartzen baldin bazan "la duquesa o la marquesa o la condesa o", zergatik kondesa ta markesai buruz hitz eiten hasten bagea, esango dizuet, "mucho Hohenlohe", baiño hamaika kalabaza eman nizkiyon Zarauzko plazan, e! Bai, bai, bai. Eta bestaldetik, baiñeron bat o mutillen bat o pasako zan beiratzea aber ze ikusten zun, ta gu dana kontuatzen giñan. Ta gu Munoatik o, gu beira. "Ikusi al den zein sartu dan?", "bai", "ése, ése es un verde, verde, ése es verde. A ese no hay que hacerle caso, a ése hay que darle calabazas". Bazakan bere..., bere zea bazakan...
- Bere saltsa.

5.20. Neska kanpotarrei "bugatis" deitzen zieten

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe

- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/032
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:47:58. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Oporrak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin
harremana
- **Laburpena:** Neska kanpotarrei "bugatis" deitzen zieten. Zarauzko mutilak kanpotarrei egiten zieten kasu gehiago.

Transkripzioa

- Ta bitartean mutillak kirolean, kukañan, ta...
- Bai, eta neska, neska launtzen. Baiño herrikuai lagundu biharrian, neskame kanpotarrai. Fama handiya zeon, "que las bugatis", bugatis deitzen zitzaion... dejaban...
- Nola, nola?
- Bugatis. Bugatis deitzen zitzaion neskamiai, esto, kanpotarrai. Eta "que aquellas dejaban meter mano", fama hori zakaen, ta, haiei laguntzea haiek. Gui kasoik in gabe, udaan haiekin. Gu... orduan herriko neskak gaixki ikusi... ezta kasoik 'e! Ze iruitzen?
- Geo zuek kalabaza eman.
- Bai, guk kalabaza.

5.21. Loiola-enea, aita egindako etxea

- **Hizlaria(k):** Loiola Antzuola, Agate; Loiola Antzuola, Ignacia; Loiola Antzuola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-019/003
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:02:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1922an euren aita egin zuen etxe hori: Loiola-enea. Aita Itziarkoa zen eta ama aiarra. Gurasoak nola ezagutu ziren.

Transkripzioa

- Bueno, orduan ba, piska bat, e, hariyai jarraituz, e, umetako garaiak, famili-giroa, eta nola, nola gogoratzen dezuen, baiña beharbada, igual, hasi hasieratikan, e, hasi, e, lehen esan dezuten bezela, zuen aita eta nola ein zun etxe hau... - ROSARIO: Bueno! - ... ta pixkat, igual hor, igual, igual hortikan igual hasi liteke. - R.: Gure aita danak ezautzen zuen...
- AGATE: Gure aita in zun, ta klaro, ta hemen, hemen bizi, beak in zun ta. - Ze urtetan in zun? - A.: Esto... gure aita zazkan berrogei urte, el año... - INAZIA: Mil novecientas... - A.: Cuando... Hi txikiya hitzanean, ezta? - R.: Ni jaioberriya! - A.: Bai, ba! Pues, urte hoiek. - R.: El veintidøs. - A.: Bai. - Hogeita biyan in zun etxia. - R., A.: Bai. - [...]
- jaioberriya, ordun? - I.: Bai, ba. - R.: Hillabetekin ekarri niñuen. -

Beaiek nunguak zian gurasuak? - A.: Gurasuak? Aita Itziarkua... - I.: Eta ama Aiakua. - A.: ... ta ama Aiakua, bai. - R.: Aiakua. - Eta nola ezautu zian elkar, edo? - A.: Alkar? Pues, ofiziyua ikastea etorri zan gure aita, ta jarri zan... - I.: Apopillo... - A.: ... apopillo ta... - I.: ... han zeon gure ama... - A.: ...han zeon gure ama, ta... - I.: ... mahaia zerbitzen ta lanian. Han alkar jo zuen. - Oso ondo. - I.: Bai, hala ezaututakuak. - Ta, ordun, e, etxia ein zuten, e, gurasuak, eta orduako ya ezkontuta zeuden. - A.: Esto... bai. - I.: A, bai, ezkontuta, bai! - Ezkontuta bai. Eta ordun ya, zuek ya, hemen jaio ta hemen bizi ta bizitza osuan. - R., A.: Bai.

5.22. Umetatik lanean gozo-dendan

- **Hizlaria(k)**: Serras Azpillaga, Antonio; Uria Aldalur, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-020/007
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:10:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: La Sallen ikasi zuen Antoniok. Ume-umetatik lan egin behar izan du gurasoen gozo-dendan, baina aitak ematen zion ordaina. Gerra aurretik kotxe batzuk azaldu ziren eta aitak 18 urterekin erosiko ziola agindu arren, gerrak dena bertan behera bota zuen.

Transkripzioa

- Ta orduan, e, zuk umetatik ya pastel eta pasta ta saltzan beti bizi izandu zea...

- A.: Hoixen!

- M.: Besteik ez zun ikusi ta!

- A.: Beitu. Ordun izaten zan, ostegunetan izaten zan eskolan, gu hermanotan zeatu giñan, ba.

- M.: La Salle.

- A.: La Sallen. Ta, ordun, ostegunetan iten zan jai arratsaldian. Geo, jaietan meza nagusira hamarretan, ta arratsaldeko hirutan bezpeta. Ta, hillian behin izaten zan primer viernes, Jesusen bihotzantzako zea. [...]. Ta danak jai, mezeta jun goizian ta jai eun guztiyan. Ta ni, berriz, hojaldria itea.

- M.: Pastelak itea.

- A.: Baiño geo bai, e, geo aitak, "ze bizikleta nahi dek?". Ta gerra baiño lehen, etorri zian Alemanitik kotxe batzuek Adler izena zuenak, zazpi milla pezta ta erdiyan. Ta esaten niyon, "aita, ¡que bonito, e!". "Cuando cumplas dieciocho años ya lo tienes", mekaguen! Bai etorri 're hemezortzi urtiak!

- M.: Baiño...

- A.: Hamabost urtekin, ta, behin gerra hasi zan, ta akabo! Dana akabo!

5.23. Gozo-dendako gaiak; ingurua nolakoa zen

- **Hizlaria(k)**: Serras Azpillaga, Antonio; Uria Aldalur, Manoli

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-020/008
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:10:32. **Bukatu**: 00:13:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Lanbideak » Negozioak, dendak
Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Gurasoak 1908an ezkondu ziren eta inguru horretan jarri zuten gozo eta janari-denda Zarautzen. Denetarik saltzen zuten dendan, baina gutun bidez Donostiara eskatu behar izaten zituzten gauzak eta trenez bidaltzen zizkieten. Nolakoa zen ingurua orduan.

Transkripzioa

- Orduan, zure aita etorri zanian Zarautza pasteieia iriki zun aurrenengo...
- A.: Bai, pasteieia ta komestiblia, e!
- Ta hor, lehen zeon toki hortantxe bertan.
- A.: Hortxen bai.
- M.: Bai, bai.
- Gutxi gorabehera ze urtetan?
- A.: "Pues, espera, el año... El año mil novecientos ocho" ezkondu zian, bai.
- M.: Ezkondu... eta gero hortik erten honea.
- Seitun.
- Inguru hortan.
- M.: Geo, itxe hau erosi zuen.
- A.: "Aber, ni, el esto, el..."
- M.: "¿Cuántos años tenías?"
- A.: "... el veinte, doce menos, sí, el ocho."
- Ta umetan ta, hemen zentruan bizi izandu ziñan ordun.
- M.: Hementxe, hementxe.
- A.: Bai, hemen zan dana...
- Dana.
- A.: ...ezker eskubi. Hamen atzetik pentsatzen zuen kalia pasatzia. Geo itxe honei pusketa txiki bat kendu, geo bestia, Juanzito Rotetan 'e bai, zuzen iteko. Eta, esto.... Maza ta Urzelai in zian, bakizu, nola retrasauta daon? Ba, hortako zan, kalia zabaltzeko. Hor argolla hoietan zean, Torre Luzeko argollan, basarritarrak hortxe jartzen zituen astuak eta, maleteruan ekartzen zuen, zean, karruan, esto, gauzak errepartzeko. Beitu nola zan. [...] zendun, ta Donostira por ejemplo, lau, lau barrika... barrika ez, e!
- Barrika.
- A.: Zeanak, arduanak eta ekartzeko, ba, danantzat, danetik.... Karburua 're saltzeb zan gure etxian. Osea ke, hortikan ikusi!
- Danetikan, ordun?
- A.: Danetikan.
- M.: Herri txiki hoietan nola azaltzen dia danetik?
- Bai.
- Eta aita hartu ta [...], "muy señor mío, tenga la bondad de mandarme cuatro barricas de vino tinto", y tal, Donostira. Itxi, sellua jarri, buzaira jun, hara ailleatu, bi o hiru egun. Han leetu, handikan hartu ta zeara eramaten zuen, Amara. Geo Amaran honea ferrokarrillian. Ferrokarrillian maleteruak izaten zian, ta karruakin, "con una burra, aquí, ¡ay va!" Ta dana... "Esto estaba de burros y burras..., ¡menudas juergas!"

- M.: Ta baita Fueruan Plazan, e!
- A.: Azoka hemen bertan, ta astoak eta hemen lotzen zituen.
- M.: Bai, hamen, argollak nola dabe hor Torre Luzian, hor.
- A.: Ta geo, bueno, kotxe gutxik pasatzen zun.
- M.: Eta gero atzeko zea, guk kooperatibako plaza beti esaten giñun.
- Bai, bai, bai.
- M.: Hantxe dana, karruak eta astuak eta. Porke, merkatuko plaza, e, hori dana bete-bete-betia eoten zan, e! Egunero-egunero-egunero. Dana, baiño basarritarrez betia, danak berdurakin. Eske, hau dana berdura zan.
- Baatza, baatza.
- M.: Dana baatza, dana baatza!

5.24. Biografia; 'Txabillo' izenaren jatorria

- **Hizlaria(k)**: Mutiozabal Begiristain, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-022/001
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Jose Mutiozabal, 1930ean jaioa Gipuzkoa kalean.
Txabillo ezizena aitonarengandik datorkio. Txabillo tabernan jaio zen. Non bizi izan ziren.

Transkripzioa

- Igual, e, hasteko igual esan, e, zure izenak, apelliduak eta noiz jaio ziñan.
- A! Nik, zea, dazkat hiruroeita hamabost urte, el treinta.
- Hogeita hamarrian.
- Ta hogeita hamarreko... Sesenta o, ni hortan oso txarra naiz. Bano, hirurogeita hamabost urte dazkat nik.
- Eta zure izena ta apelliduak?
- Jose Mutiozabal Begiristain, bai.
- Ta, e, zu ezaguna zea batez ere jai giroko kontuekin.
- Bai.
- E, barkatu. Nun jaio ziñan?
- Ni, Zarautzan.
- Zarautzan, ze kaletan, edo?
- Kalia, e, Kale Nagusiya zan... eon, eon, eon! Gipuzkoa Kalia uste det, porke... Oan esplikatuko dizuet. Farmaziya pasata San Pelaio aldea guazela, nola dao uan pelukeia?
- Bai, bai.
- " De caballeros".
- Bai, bai.
- Hori zan Txabilloneko taberna, sasoi baten.
- Aaa!
- Ta hor jaiua naizela uste det nik. Bai.
- Ta, Txabillo izena nondik dator, ba?
- Hori aitonanetikan.
- Hemen lehen etxe bakoitzak bere, bere izena zun.
- Bai, bai.
- Gehienak.

- Gu Mutiozabal, bano guri beti deitu izandu digu Txabillo. Aitonak eta nola taberna euki zuen han, ta geo gure aita zanak eta hartu zuen taberna. Ta beti Txabilloneko ixkiña. Geo, Txabillok eta laga zunian, Kukulunekuak hartu zuen hori. Zuek asko ezautzen dezue hori. Juzgauan nola eoten da Inaxio?

- Bai.

- Iruretagoiena.

- Bai, bai, bai.

- Nere laguna. Hoiek euki zuen geo taberna hor. Ta ardu-almazena ta taberna ta euki zuen hoiek. Ta hoiek geo Kukuludeitzen ziyoen, bano beti horrei Txabilloko ixkiña. Hortikan Aia ta karrera ta, jendia ateatzen zan asko. Hor apustuak eta iten zituenian ta, gure aita zana izugarriya izan behar zun, bai, korrika ta. Danak Txabillongo ixkiñatik atea ta, fama hori. Guri beti, guri Txabillo, Mutiozabal gea, bano. Nik nola dazkaten bost seme-alabak, gure itxian bizitzen zianian beti lagunak telefonua: "Txabillo?", "Bano ze Txabillo?", ta. Ta esan giñun, ba, hamendik aurea izenekin deitu, porke... "Joe, aita bezela", ta. Nei gehienek Txabillo deitzen die, guri Txabillo.

- Ta ordun, taberna giroan jaiotakua zea zu?

- Nik, nik, nik ez nizuke seguru-seguru esango... Bano, nik uste det tabernan jaiua naizela. Geo, etorri giñan hortikan, Bar Itxaso nola?

- Bai, bai. Bai.

- Bar Itxasoko parian. Cazalis zapateia nola daka?

- Bai.

- Itxe hori uan parte bat da zeana, Alleme basarrikuana.

- A, bai. Hoiek dia Aginaga.

- Agiñaga, bai.

- Bai, beak apellidua andriak ez dakit nola dun, bano gizona Aginaga. Ta hoi en itxian eon giñan gu. Uan, ni neetzako, tabernatik etorri giñan, ta nik uste det tabernan jaioko nintzala. Ez nizuke esango seguru.

5.25. 10 urterekin hasi zen buru-haundiekin lanean

- **Hizlaria(k):** Mutiozabal Begiristain, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-022/009
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 00:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Nola hasi zen jaien inguruko lanetan azaltzen du. Etxean dirurik ez eta lan txikiengatik ordaintzen zioten. Hamar urterekin hasi zen buru-haundi lanak egiten eta bizpahiru pezeta ematen zizkioten.

Transkripzioa

- Ta nola, nundik, e, e, zaletu ziñan zu pixkat,e, festa kontuan, ta? Kuadrilla, kuadrillan barrun edo bestela?

- Aitu! Gu izan gea, pobriak izan gea ta itxian ez guk pagik eta ez giñun izaten mutikoskorretan. Ta kabezuro, buruhandiyakin ibiltzen baldin bagiñan, zu, ezautu, ezautu, urte asko dia, zenbat urte? Ba, zortzi bat urte o izango dia. Pepe Kale ezautu al zenun?

- Ez, ez.

- Pakito [...] deitzen ziyoen. Oan esplikatuko dizut ta akaso. Urdaiazpikuan denda nola dao hamen, taberna? Jai Txiki.

- Bai, Jai Txiki.

- Hor orduan uan zea dao, botika bat.

- Bai.

- Ta botikan onduan zeon, e, "tienda amarilla" deitzen ziyoen. Hori zan [...] ezautu huan, Juaristi, Gervasio eon zan ba alkate?

- Bai, badakit zein dan.

- Hori eon zan alkate han. Ta horren osaba bat. Ta horrek paatzen zun. Ta, aitu! Kabezuruan zeakin ta atea ta geo, egurra ematen baldin bagiñun, bi hiru pezta ematen zigun. Ta gu, batetik eta bestetik, beti, beti [...] izan gea. Ni hamar urtekin hasi nitzan zeatik, buruhandiyakin, zeatikan, zirkulutik, esan dizut...

- Bai, bai, bai.

- ...Frailetako aurre hortan. Hor zeon, uan 'e saloia earra han eongo da. Entenditzen al dezu? Batzokiyan ta nola dao...

- Bai.

- ...zea iteko? Ba, ni esplikatzen txarra naiz, bano...

- Bai, bai, bai, bai.

- Ta halako zea uan 'e osoik hor eongo da. Gero hori Miramarkuak erosi zuen, ta Hotel Miramar. Hor hiru anai o bizitzen dia hor. Geo hiruan batzuk dentista ta zerbait jarrita dakaye hor. Hortikan. Esan dizut nik, mutikoskorretan 'e, ez nitzan gelditu 're iten. Batian ta bestian ateatzen giñan gu.

5.26. Kaperotxipi abizenaren jatorria

- **Hizlaria(k)**: Kaperotxipi Arakistain, Jesus Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-024/002
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:01:55. **Bukatu**: 00:02:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Kaperotxipi abizena. Bere osaba bat marrazkilaria zen eta Zarauzko Euskal Jaien sortzailea izan zen. Aita jostuna zen.

Transkripzioa

- Eta, Kaperotxipi, Zarautzen zuek bakarrak, ala gehio ba al dao?

- Oan badabez gehio, bai. Kanpoko... Oan listiñian... Lehenok ez zeon, baiño oan listiñian asko azaltzen gea.

- Eta nundik etorri zan zure abizena, ba, honea, Zarautzea?

- Kaperotxipi?

- Bai.

- Ba... nere osabak eta... Nere osaba zan, bat pintoria zan. Mauricio Flores Kaperotxipi.

- Bai.

- Gure osaba zan. Ta harek geo, ze esango dizut, ba, kontuak harenak. Euskal festa beak jarri zun, Zarauzko euskal festa beak jarri zun.

- Ta aita?

- Nere aita zan Leandro Kaperotxipi.

- Zerta dedikatzen zan?
- Nere aita sastria.
- Sastria baita, orduan.
- Bai, ta ni 're bai, ta. Esaten dizut, ba, iya hogeita hamar urte.

5.27. Ermandadearen gorabeherak

- **Hizlaria(k):** Makazaga Agirre , Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-025/010
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Ermandadea egin zenean, kaleko baserriak ere sartu ziren. Ermandadea elkarri laguntzeko elkarte zen. Zer galera hartzen ziren kontuan.

Transkripzioa

- Zer da ermandadea hori, sartu zana?
- Nola esplikatuko dizut... Ba, aingeru guardakuan seillua [jartzen] giñun agarren. Ba, soziedade zea bat, aberiyai, oaintxe behi bat galdu 'o iten bazan ta...
- A, bai...
- ... partitu, alkarren artian paatu.
- Aaa! Elkarri launtzeko...
- Bai, ez dakit nola esplikatu [...].
- Bai, bai, bai. Eta hori noiz sartu zan? Zu gaztia ziñala?
- Nik hori ezautu nun, bai, ni, ni sortzeako bazeon. Galdu, kanpiña jarri gendunen galdu giñan. Kanpiña jarri gendunen segi giñun pixkaten, e! Ni basarriyakin geau nitzan, eta pixkaten. Baiño geo batek gehixio kobrau, bestiak ez dakit zer, ta, holaxe galdu zan.
- Ta ordun, hori izaten zan norbaitek etxian galeran bat o izan ezkeo, danan artian...
- Hori da! Tximistak 'e galdu zigun guri txekor bat.
- Ai, ba!
- Jata, fart! Ta geo behi batek ume iñen zeatutzen zala, fallua izan zula, eo... Geo, ume iñen txahal bat akaatu, o. Baita, zea 're paatzen zan, [...]. Ume hilla bota, sei hillabetekua, lau hillabetekua. Hortakoxe izaten zan ermandare zea hori.
- Earki.

5.28. Inguruko sailak eta baserriak

- **Hizlaria(k):** Makazaga Agirre , Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-025/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:58. **Bukatu:** 00:21:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Eskolako jolas-orduan non jolasten ziren. Inguruko sailak zein baserrirenak ziren.

Transkripzioa

- Jolasten al ziñaten auzokuak, o...? Nun jolasten ziñaten, hemen behian o han kanpiñen o, jolasteko denboraik baldin bazeon, behintzat!

- Bai, ba! Bai, errekreua.

- A, errekreua 're izaten zenuen.

- Errekreua 're izaten gendun. Itxe Txikiko basarriya, hor, bestia esan ez deuna.

- Hoi da.

- E! Famoso!

- Jo, bai, bai.

- Itxe Txikikuak 'e han goien, kanpinko zean 'e bazuen hoik 'e terrenua, ta, Añurbe alden, ta. [...] zala gu mutikoskorretan hau... Hamen 'e, aber... Floreskua, Loinaz, bi. Bi itxe hoikin hartzen zian terreno habek danak. Ta hor, Pikatza. Pikatza. Alde hartan Ispillak, Ispillak 'e hortxe zian. Erregiña orrazten zuen emakumiak eta omen zian Ispilla.

- A, bai, e?

- [...] hala entzun izandu det nik. Ta Zubiaurre Zaharra ta.

5.29. Gaztetako soldata aitona-amonentzat

- **Hizlaria(k):** Gereka Etxaniz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-026/009
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:13:43. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Lanbideak » Arotzak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Aita ebanista zen, oso langilea. Bere gaztetako soldata aitona-amonentzat izaten zen, erretirorik ez zegoen eta. 13 urterekin tailan hasi zen lanean.

Transkripzioa

- Bueno, ta poliki-poliki ofiziyua 're ikasi zendun ordun. Etxeko girua nolakua zan, aita tallista baita 're ordun?

- Ez, ez, ez. Aita ebanista zan.

- Ebanista.

- Ebanista, ta arrantzalia ta ehiztaiya ta atxurrakin, ta gelditzen ez zan makina bat zan hua. Ta zazpi seme-alaba ateatzeko, amigo, garai haitan! Nik lehendabizi, ni hamahiru urtekin hasi nitzan lanian, e! Eta handikan urte batzuta enteatu nitzan neria ta lehengusuan jornala aitonai ta amonantzat. Geroa enteatu nitzan ni. Klaro, orduan ez zeon [...], ezer ez zeon, ta jateko 're ez zeon, eta laundu behar, ahal dan bezala dana [...], geo enteatu nitzan ni hori, kontuak nola dian.

- Baiña politta, ez?

- Bai, bai, detallia da. Geo, ezta enteatu 're ez zea iten, e! Etxeko berriik ez dezu enteatu 're iten.

- Zertan hasi ziñan hamahiru urtekin?

- Taillan, baiño ez nun nik ezer ikasi lau bat urtian, e! Lau urtian ezer ez nun ikasi. Maixuik ez naukan, lanik itxurazkoik 'e ez. Aitak nahi zun, baiño han ez zeon ezer 'e. Eta geo lana hasi nitzanian han zean, ta geo aitak ikasteatikan hau komedoria renazimientokua aitak atea zian hau. Ta geo han ni nabillena, bere kontura iten zunak, ba, dibujatu zixkian habek, eta... Haundi xamarrek gustatzen zaiola sillak eta zean ta bestia, eta bueno, in zun behiñik behin. Eta [...], erakutsi niyonian Alberdi maixuai hori, orduan esan zian hori, ta orduan ikasi nun ofiziyua, orduan.

5.30. Umetako jolasak; sokasaltoan erdaraz

- **Hizlaria(k):** Elola Aranburu, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-028/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Auzoan uztaiarekin jolasten ziren. Eta baita tximilikuarteka, kaniketan, xakaponetan... Sokasaltoko abestiak erdaraz abesten zituzten.

Transkripzioa

- Pixkat umetako ze oroitzapen, ze ze rekuerto daukazu?

- Nik umetakua? ba, bueno, hemen barriyuan, jesus maria, jolasian beti. Uztaiakin. Batzuk egurrakin zekaen, baiño beste batzuk burnizkua, hola zea zana, ta hortxe kalian bueltaka beti. Gero tximilikuarteka dala ta, azeituna, ta lapurrak eta zeak eta, poliziak eta... Bueno, danea ibiltzen zan! sokasaltuan ta sakaponetan ta kaniketan, ta... bueno! Arra bat eta. Bueno, gelditu gabe. Jolasian hola, ta sokasaltuan asko, ta tximilikuarteka ta. Dana hementxe, inguruan bueltaka, Rotetaneko buelta hontan. Diferentia da oain, dana aldatuta dago.

- Gogoratzen al dezu sokasaltoko kanturen bat o holako zeeze?

- Uf... Bueno, erderaz iten giñun danak...

- A bai, e?

- Baii. Geo euskeraz-ta ikasi ditue, baiño guk... "Al pasar la barca me dijo el barquero..." ta holako zea ta "Al cocherito lere..." ta holako gauzak! Askok, baiño nik hola behin 'e ez det [buruikan] zeatu.

- Euskerazkoikan ez, e?

- "Al cocherito lere me dijo... lere". Dana, dana erderaz iten gendun!

- Ya.

- Euskeraz holako gauzikan nei ez zien erakutsi.

5.31. Kuliskako dantzaldiak eta zinea

- **Hizlaria(k):** Elola Aranburu, Karmele

- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-028/022
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:35:48. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Gaztetako zaletsauna dantza egitea zen. Kuliska-n dantzaldiak jartzen zituzten, baina gaizki ikusia zegoen bertara joatea. Zinera ere ezin zen joan 3koa bazen. 17 urterekin senarrari gaztetxoa zela esan zion eta urtebete beranduago berriz itzuli zitzaion.

Transkripzioa

- Bien, ordun, e, geo, ya, pixkat eskola ta geo, ya, pixkat gazte... gazte-aroan sartzen gea, pixkat gazte sasoian.
- Gazte-sasoian? Ba, esaten dizut, ba. Hamabostetik hemezortzi urte arte, zean. Geo, geo, nahiko kontu 're bai [esaten dixkie], esateko kontuak ez dia, ordia!
- Ze dibertsio, ze dibertsio zan gazte-garaian, ze dibertsio euki zenuten?
- Guk? Plaza musikan dantza itia eta geo, hor, Kuliskan o, jarri zuen dantza. Baiño hara jutia zan, osea, pekatu mortala. Ta baten batzuk jutun zian. Ta ni ez dakit behin jun nitzan o horrela. Eta zinea 're ezin zan jun, e! [...], ez zeon juteik, eta sekula jutun ez. Senargaiakin 'e ez. Hemezortzi urtekin hasi nitzan, hamazazpikin nahi zun, ta esan zien, gaztetxua nitzala, ta nahi bazun itxoteko urte betian, ta urte betea etortzeko nahi baldin bazun, ta bestela beste batekin hasteko esan niyon. Urte betea, iten zun urte bete egunian etorri, ta beakin ezkondu nitzan geo. Urte bete eon zan. Esan niyon, ba, hamazazpi urte, ta ez, ez, gaztetxo naiz uaindikan, ta ezta pentsatu 're.
- Gizajua!
- Bai!

5.32. Aitak lanpernatan egiten zuen

- **Hizlaria(k):** Agoues Zubeldia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-029/020
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:41:32. **Bukatu:** 00:42:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Bere aita asko aritzen zen lanpernatan, baina hotz handia pasatzen zuen. Lanpernarik onenak mediku edo apaizentzat izaten ziren.

Transkripzioa

- Ta arraldean ez al zenuten arraldeko zeak...
- E?
- Arraldean ez zenuten arrantzuan iten, arraldean? Beti uretan? Uretan

barruan, itsasuan?

- A, bai! Lehorretikan ez naiz izan afizionatua. Hasi nitzan aitakin, baiña, berehalaxen.... Gure aita bai. Nere aitak arrantza onak ekartzen zitun lehorretikan kaiñaberakin. Earra. Arrai earrikan ekarri du aitak, ekarri zun. Baiña, neguan ta juten zan, ta hotz asko pasata. Bere soziyuak etortzen zian, esaten zian, "ikusiko dek, aurki dek hire aita moillan akaatuta, hilda topatuko diye". Geo etortzen zan hotzak, bihatzak maitu eziñikan. Sugurra luzia zun, ta jata, gorri-gorri inda hotzak. Hola etortzen zan. Ta hala ta guztiz ez, ba.

- Lanpernatan ta ez dezu in, ordun?

- Hura bai.

- Hura bai.

- Nere aita hartan 'e bai. San Pelaio ingurutan [...] gizagaixua, zea iten zuna, ta lanpernetan 'e jata atzaparrak eta hankak eta, kopeta 're bai, danak urratuta etortzen zan hura. Geo zer dek? Eta, lanpernaik onenak meikuantzat, apaizantzat eta holako tipo tunante guztiyantzatzat. Gure etxeako, txikiyena. Itxeako txikiyena. Onenak danak errealo besteei, e?! Bai, ba. Hola izan deu bizimoua. Bai.

5.33. Lehengoa beste bizimodu bat zen, auzotarren artean beti elkarri laguntzen

- **Hizlaria(k):** Illarramendi Arizaga, Pio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-030/004
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Gose garaian jaio zen, gerraostean. Berak ez zuen goserik pasa. Umetako kontua ondo gogoratzen du, oso garai zoriontsua. Etxeak ez ziren ixten, sekula ere ez, ezta ezkatzak ere. Hori ez da berriro itzuliko. Etxean zerbait apurtzen bazen ere, auzokoek beti laguntzen zuten edozer gauza konpontzen. Beste bizimodu bat, auzotarren artean beti elkarri laguntzen.

Transkripzioa

- Bueno, eta ordun, gazte denpora nola gooratzen dezu, gerra ondorena ta, pixkat...

- Gerra ondorenik ez, e, hura baiño pixkat beanduxeokuak giñan.

- Bai, gose garaia, ala pasata ya?

- Gose garaia guk titiya hartzen giñun, ta ondo. Karo! Gose garaian gu titikuak giñan. Oain hirurogeita bi ta hirurogeita bat, bi ta hirurogei ditugunak, ordun ya jaioberriyak.

- Jaioberriyak.

- Bai, berroeta bat, berroeta bi...

- Bai. Ta, nola gooratzen dezu zure ume garaia, etxe giroan ta hola?

- Etxe giruan? Nik nere garaitikan gauza bat dakat beti goguan eukitzen detena, ta, gehio ez geala bizitzan hola biziko. Ta gauza batian basatzen naiz. Guk iten giñun, hau zan, gu garai hartan... Ni gauza askona

Zarauzkuak akordatzan naiz porke zan Zarauzko, guk giñun ixkiñan taberna, hor ixkiñan taberna, hemen jatetxia, goian ostatua, albuan arrandeia izeko batek eta ardo almazena, ta ordun dana herriko dana hemen ibiltzen zan. Ta ni gauza batekin gooratzen naiz ta, heraiñeun batekin hitz eiten jardun nitzana. Ostatua, jendia frantsesa, danetik etortzen zan. Etxeko sarrerik ez zala itxitzen, ezta ezkatzik 'e gabian, ez goiak eta ez beheiak. Nahi zunak bere habitaziyua itxitzen zun ta ez zeon bate peligroikan ez lapurretik izango zanik, ez ezer izango zanik, ta ez da hori gehio sortuko. Makiña aldiz juten giñan hemen lagunak Txortenenekuak, Xalbador ta hoiek eta, "hik zer dek bokaillua", ta "nik txoizo-panplona, atzo 're hoixe jan nin", ta. "Nerian uste diat menbrillua daola", ta haren etxea jun, haren bokaillo danak hartu, hura etorri, neria hartu ta iñor ez zan bate... Ulertzen? Horreatik esaten det desberdiña bizitza.

- Bai, bai, bai.

- Hoiek, gauza hoiek ya... Ta desberdiña beste gauza askotan: izakera, izakeretan. Izakeran nik gooratzen zaizkit, ni mutil koskorra nitzala, aberiyak izan zianian igual gure itxian aberiya, sukaldia o paila o, ordun ez zan ur berua izaten, ta gu giñan aurrenengo, nola ostatu iten giñun, paila... Jentia ez daki zer dian hoiek oain: su barruan izaten zana, etxe guztirako ura berotzeko ta. Ta igual aberiya zulatu ta igual etortzen zian goizeko ordu bitan ta, osea jentia ya erretiatzen zanian, alboko gizonak eta launtzea, jaso ta hurrengo goizian funtzionatzeko. Ta ezer kobratu gabe, e! Osea zan hartu-emana jendiakin, ni horrena gooratzen naiz beti. Mutil koskorretan ta, igual abalantxak etortzen zianian herrira. Adibidez bat, memorabilia ya: Firestone. Firestone, epokaik fuertien-fuertiena izan zunian Firestonek, Zarautza tren espeziala fletatzen zun garai haietan, dieciocho de julio eunian, ta familiko milla pezeta ematen ziyuen Zarautzen gastatzeko. Ta trenak izaten zitun ba, hoge bat bagoi o, ta igual milla o bi milla, ez dakit zenbat jente etortzen zan. Ta holako eunetan, nola abalantxa sartzen zan igual platera pill, ordun ez zan lababajillaz, ez zan itxorikan, dana fregaderan, ta igual alboko gizonak eo zea, ta igual platerak sekatzan laguntzen ta, osea, beste bizimodu bat.

- Auzolan zentzuan.

- Auzolana zan. Ta auzotan 'e danak zeoze bazan, danak bata bestiei launtzea.

- Ze urte zan hori, Firestoneren hori?

- Firestonena? Cincuenta y seis, ocho.

5.34. Pio tabernaren historia - I

- **Hizlaria(k):** Illarramendi Arizaga, Pio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-030/009
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Beraien taberna aitona sortu zuen, 1897ko urriaren 20an. Ameriketara itzuli ondoren, ezkondu eta taberna jarri zuen.

Transkripzioa

- Pixkat aurrerago etorri, aitonak sortu al zun hemengo...
- Hau nere aitonak, bai.
- Ba al dakizu nola sortu zuen?
- Bai, bai, bai. Hura Ameriketatik etorrita, "veinte de octubre del mil ochocientos noventa y siete", badakat dokumentua.
- Ameriketara jun zan, ordun?
- Ameriketa jun zan. Agiñarra zan aitona. Bi anai jun zian ameriketa, ta handik etorri zianian, direkto Zarautzea etorri ta ezkondu in zian.

5.35. Pilota-jasotzaile eta kadien lanak

- **Hizlaria(k):** Murua Arregi, Imanol
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-033/017
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:35:24. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- **Laburpena:** Golfean pilotak jasotzeko lanean aritzen zirenek zer lan-mota izaten zuten azaltzen du. Kadiak egiten zituzten lanak. Kadi on batek aholkuak eman behar dizkio jokalariai. Lanbide heziketan hasi zenean utzi zion golfeko lanari.

Transkripzioa

Rekojepelotas ibiltzen nintzanian, hasi goizeko zortzitan edo beatzitan. Aurrena in behar izaten nin tenisa markatu. Oseake hango bertako langilliekin-ta lagundu markatzen. Egunero-egunero markatzen huan, zeatikan oain dagon lurra zea hori, bestela egunez ibili eta borratu iten dek /itek/ hori, eta egunero hori markatu. Eta gero pelotak jaso, egun guziyan han, ordu pila bat. Eta gero pixkat... Hori rekojepelota nintzanian. Gero kadi nintzanian, poltsa bizkarrian hartu eta, ba, lagundu. Hor iten duena, profesion... Geo, ba, pixkat hi ona baldin bahaiz o ikasten baldin badek o zea, izate haiz, kadiya izaten dek ez poltsa eamateko bakarrik, dek jokalariaian asesoria izaten dek kadiya, ona baldin bada. Jolariyai esan ber tziok ze makil jokatu ber dun, green-an daonian noa jo ber dun patak eroitzeko. Kadi onak izan behar du asesore. Horreatikan hoinbeste pagatzen diyoe hor. Nahiz profesionalak izan, aldamenian kadi ona eukitzia oso inportantia da, zeren bera dudan baldin badao, jokalariai dudan baldin badao, kadiyak dudik ez du in ber. Kadiyak, ekibokatzen baldin bada ere, esan ber diyo dudikan gabe. Zeatikan bestia dudan baldin badao eta kadiya ere dudan baldin badao, buruan dudan jokatzan ai baldin bada, ziur edo probalidate haundiya dao golpe bat faillatzeko edo behar bezela ez jotzeko. Oseake gauza bat inportantia da jokalaizantzako seguridadiakin jotzia. Eta gero noizian behin gertatzen da "Aiba dios, ekibokatu in nauk makillakin, fuertegi jotzeko makilla". Orduan "viene la bronca", kadiyak eman baldin badiyo hori, ba... Eta hori beaiantzako... Baiña zaila da ekibokatzia, profesionalak-eta ya oso... baiño batzutan haizia alde daolako edo zea daolako batzutan pasa iten dia edo motz gelditu, nahiz ondo jo. Hori oso inportantea da hauentzako, hoinbeste diru jokatzan dituen... Guretzako... guretzako oso inportantia zan! Ez guretzako, señoirituantzako, jokatzan zun señoiritua edo señoiritantzako. Guk haiei señoiritua eta

señorita esaten giñan, e! Eta hori, ba, ni kadi izan nit... oseake, rekojepelota bi urtian izan nitzala zortzi eta beatzi urtekin eta kadi lau urtian hamar, hamaika, hamabi, hamahiru. Lau urtian. Gero ya lanbide heziketan hasi nintzanian udaran tailer batea juten nituan, praktikak ikastea. Behin lanbide heziketa hasi nintzanian. Bueno, orduan ez golfea bakarrik Aste Santuko oportetean ni...

5.36. Biografia; baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Juan Zulaika 1929an jaio zen Astazuri baserrian. Azken Portu taberna zegoen inguruan zegoen, baina bota egin zuten 75 inguruan. Baratzeta eta ganadua bazuten. Ama plazara joaten zen saltzera.

Transkripzioa

<p>- Juan Zulaika Lizaso
- Noiz jaiua?
- 18 Noviembre 29.
- 29yan? Zarautzen?
- Zarautzen.
- Zein kaletan edo?
- Caserío Astazubi.
- Astazubia. Nun dago hori?
- Ez dao /eztao/, bota zuten. Azken Portu taberna ezagutu al zendun?
- Bai.
- Handikan, aurreneko itxia. Futboleko kanpua zaneke hara juten hasita.
- Ta ze urtetan bota zuten?
- Sesenta y… [...]?
- (Laguntzailea): Nik ezagutu nun eta hirurogeta hamabosta o holakon bat izan [leike].
- [Izan leike, izan leike].
- Franco hil zan urtian, ordun? Franco hil zan urtian?
- [...]
- Bai, 75ian hil zan..
- Bai? Eske azken xamarrian [bota zan, gaiñea´re]; urbanizaziyan, hor zortzirehun etxebizitza egon zian proiektuan eta azken xamarrian bota zan [...]. Bai, bai, honek esaten duna /esateuna/ [bota zan], bai.
- Ze eratako baserriya zan? Baratzeta [ibiltzen] ziana? ganaua ere bai edo...?
- Bai, baratzeta haundiya, paretaz itxiya, hormakin itxitakua, lau bat milla metroko lurra, igalez betia eta baratzeta lana iten zan. Nere amak plaza eguneroko zea zun, puesto fijua zeukan. Barazkiya, eta gero, ba, lau bat behi egoten zian. Lau bat behi, bere txekor batzuk, zalদিya eta astua, gero iriyak ere egon zian beste 10 bat urtian edo.</p>

5.37. Umetako jolasak eta gaiztakeriak

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/012
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:19:58. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Umetako jolasak: pilota eta sokasalto. Txori-habiak apurtzen ere ibiltzen ziren. Gaztetako beste jolas arriskutsu bat: karburua pote baten uretan jarri, su eman eta potea zeinek gorago bota.

Transkripzioa

- Hala mouzko paeta bat bilatuz gero, pelota. Baloia gutxi. Bazan. Bueno, [...] gure etxetikan nahiko hurbil zan, baiña hori zailla. Gero [...] sokasaltua ere bai, pixkat berotze aldera ta. Gero, zuhaitzian gora iyo ta txolarrian kabiak lapurtzia. Hori´re ya "estaba a la orden del día". Ta beste bat nik noixian behin [...] ikusten nuna zan... peligrosua, eta ez zuen nahi izaten etxeetan´e. Orduan karburua zan, basarri batzuetan argirik ez zeolako, kinkiantzako, karburua. Eta iten zan: hondarrakin zerko bat ein, barruan hueko bat jarri, hara ura bota, ur hortan karburo [...] intxaurren neurriko karburo pusketa sartu, potia jarri gañian, ta [alditikan] aldamenetik halako zulo txiki bat pote horrei. Su eman harei, ta potia zeinek gorago bota.

- Ta karburua izaten al zan bat´e?

- Karburua, bai. Karburua hemen Errekondonian eta geo Pionian saltzen zan. Zer dan badakizu karburua?

- Bai, bai.

- Saltzen zan. Basarri askotan pistoi bateko su horrekin ibiltzen zalako. Hura asko iriki edo gutxi iriki, tantua [eroi] edo asko iriki sua iteko. Hori ibiltzen zan. Basarritan toki askotan [...].

5.38. Musikarako zaletasuna ume-umetatik

- **Hizlaria(k):** Urbietta Beristain, Imanol
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Erref:** ZAR-050/002
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Familiaren jatorriaz. Zarauzko plazan jaioa da Imanol. Jaiotetxean zegoen piano bati esker piztu zitzaion musikarekiko grina. Zortzi urte zituenerako pianoa, txistua eta klarineta jotzen zituen.

Transkripzioa

- Jaio, jaio nai baiño nere baserriak ikusten ditut nere aitonarena eta nere amonarena. Ze aita eta ama ya kalekoak dira, baino ni txikitan euki nuan, benetan gerra re gerra re bizi nintzela harrapatu niñun gerran eta izkutatuta egon giñen, babestuta baserrietan. Herritikan urrutien zegoen baserriyan egon ginen .

- Zarautzen, baiña jaio-jaioatakoa zara?

- Zarautzen, Zarautzen, Zarautzen

- Zein lekutan?

- Plazan, Zarauzko plazan. Han zeon musika, han zeon kioskoa, han zeon herriko zentroa han zegoen ta aitona, aitonarentzat hala zen soziedade bateko, soziedade kultural baiño gehiago, ez dakit nola esplikat, "Obreros católicos de San Pelayo" bere izena hala zan, zentrokoak giñan denok ni

ere bai. Gero, aitak inportantzi gehiago hartu zuenean ba, Meltxorren semea, aita, Meltxor zan, baino, jaio hala in nintzan, zentron. Zentroan, da plazako etxe bat han dago bizirik dago, ba bigarrenko pisuan eta hirugarrena. Eta zorionez, han piano bat zegoen ta hasiera batian, bai neretzat bai nere amantzat pianoa tentaziyo fuerte bat zan. Gerrakin ba danak gelditu in zian, soziyo jarraitzen zuten, baiña aktibidadiak ez nitun ezagutu, bai, antzerkia dela eta. Baiña behintzat pianoa han zegoen. Ta aitonak ba benetan bista ona zeukan ta konturatu zan eskuak nituela, ezta? eta oso umen nintzela, sei urtekin, hasi nintzan nere musikarekin, kulturarekin, hizkuntzarekin, hizkuntza musikarekin, solfeoa dala ta, ohitzen, ezta? Ta oso txikia nintzela, zortzi urterako ya nere pianoko maisua naukan. Txistua ikasi nuen, bandan han aurrian klarinetia jotzen nuen ta, ba ta hoixe.

5.39. Emaztea ezagutu zuenetik, etxea erosi arte

- **Hizlaria(k):** Uria, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Erref:** ZAR-103/011
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:13:04. **Bukatu:** 00:15:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du: ezagun zaharrak ziren, eta nobiotan denbora gutxi eman zuten. Ezkondutakoan non jarri ziren bizitzen azaltzen du. Geroago, etxez aldatu ziren, baina gerra hasi zen orduan. Gerra garaian nola moldatu ziren kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta Benita? Benitakin ezkondu ziñan, ta nola ezautu zendun, ta nola ibili ziñan berekin?

- Benita, bai, Benita hori geure auzokua zan: gu basarri baten ta hoi bestian, ta han ezautu nun nik hori, ta han ibiltzen giñan souan, ta alkarren onduan souak, eta lanian'e hantxe jarduten giñan, hoik'e bai, ta gu're bai, ta beti... Jaitan, berriz, han beste pesta [...] ez zan izaten gue zeaikan, zoeze juntatu alkarrena, ta jokuan in eo zoezer, ta hoyek [...], gu're bai ta, halaxe [...] zan, ta geo alkarrekin, beti ezagun... Ta g eo kalea torri giñanen, hoik han, ta geo hoi're torri da honea serbitzea [...], ta geo alkarrekin hasi hitz eiten, hasi giñan, ta halaxe, alkarrekin, ta... azkenian alkarrekin ezkondu giñan.

- Zenbat denbora eraman zenduen andregai eta senargai bezela? Andregai... ezaututa urte asko, baiña andregai bezela gutxiyo. Ezaututa bai, launak eta beti, baiña tratamentuan ez giñun urte asko ingo, tratatzen hasi giñala. Gaiñuntzen, holaxe, taillarreko baatza, ta [...] guk'e zoeze ezkondu ta zoeze jarri berko zala martxan, ta ezkondu giñan, ta geo hemen, ta geo ezkonduta berela atzea taillarren gaiñen etxia in berko zala, hemen zeola, ta... Ezkonduta bizitzen Belauntzanen jarri giñan, habitaziyo kaxkar baten, ta han eon giñan urte batzutan, ta geo itxia ein gendun taillarran gaiñian, ez dirua gendulako, baiña baten batek laun inda [...] nola hala arrixkatu giñan, ta hala, behintzat, hemen jarri giñan bizitzen. Ta geo hemen jarri ta berehala gerra altxa zan. Ordun, berriz, ze [...] baatzaik ez

zeon, ta gu basarritarrak nola giñan, menditikan eurra ekarri, ta txikitu zerran, ta eurra saldu, ta hola jardun giñan. Ikatzikan ez zan, ta sua ingo bazan eurra ber zan, [...] eta danak eaman zituen zeak, gorriyak, aurea jun zianen. Ta eurra ber zan, ta eurra saldu, ta koopeatibakin tratatuka jardun giñan, ta holaxe berriz muebliakin hasi arte, ta nola hala bizitzeko aiña in gendun, ta holaxe. Ta geo, gerra ondoenen, zeatu zanian berriz muebliak eta [...] eundoko eskia hasi zan muebliakin, ta eozer gauza inda're ona zan ordun, ta orduntxe etxia pagatu gendun, hasi ta behelaxe. Ta geoztikan hotz handiik ez badeu're, behintzat ordun behela eantzun giñun, ta uain holaxe bizi gea geoztikan.

5.40. 7 urte bete arteko bizitza

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Erref:** ZAR-104/001
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k):**
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Lanbideak » Neskameak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Bere burua aurkezten du. Zarautzen jaio zen, Urtetan. 4 urte zituela egin zuten Urtetako eskola. Irundik ekarri zuten maistra. 6 urterekin eskolan hasi zen, eta 7 urterekin Getariara joan zen umeak zaintzera. Etxera itzuli zenerako, maistrarik ez zegoen.

Transkripzioa

- Ni naiz Benita, eta jayo...
- Eta abizenak?
- Eizagirre Ibarguren, eta jayo nitzan Urteta, Zaauzko Urtetan, Gurmendin. Eta nik, lau urte nitula, Urtetako eskola in zan. Eta eskola horta Ziotzatarrak eta zian orduan alkatiak eta holakuak, eta hemen, botuak eta urtetatarrak bota zituen Ziotzantzako, ta Ziotzaneko hoyek in zuen maistra Irundikan ekarri hemezortzi urtekua. Geo Ziotzaneko Pedrokin ezkondu zan, este... Juliana. Hayek etorri zian, ba, Juliana hua hemezortzi urte, geo bere ahizpa Maria, eta etorri zian, ta... nik lau urte nitula. Geo, sei urte in nitunian, hasi nitzan eskolan, baiña zazpi urte in nitunian kumuniyo txikiya in nun, ta Getaiko izebak umia zaitzeko behar zula, ta ni Getaira umia zaitzea. Umia zaitu eta baarruna eosi ber izaten nun, batzutan erre iten nun e? Zeatikan krixpiyan eo suan gaiñian iten zan, ta mahatsan, ze hoyek, hayen hoyekin ta sua in ber izaten zan, ta batzutan lapikua tapatzez han suak, eta bestetan bai, ta bakizu, ni zazpi urtekua, ta ama harek'e ume txikiya, lepuan ibili ber izaten nun, ta haek beti kalea nahi, ta han ibiltzen nitzan behintzat. Geo handikan etorri nitzaneako, maistrak alde in zula: bakaziyotan jun, ta geyo ez zala torri.

5.41. Txikitako gaiztakeria bat

- **Hizlaria(k):** Elozegi, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Erref:** ZAR-108/005
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:03:29. **Bukatu:** 00:04:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Txikitako gaiztakeria bat kontatzen du: ahizpak kopetan zauria egin, eta kopeta-ilea moztuz disimulatu nahi izan zuten. Ez zien funtzionatu.

Transkripzioa

- Kontatuko al zenuke txikitako gaiztakerin bat, o...
- O! Askok e! Nik txikitan asko iten nitun, baiño... ze esango dizut! Bat esango dizut oso polita: jun giñan mendira, ta gure Gillerminak miña hartu zun, ta kopetan eundoko herida in zun. Eta amai ez esateatik, eundoko frekillo elegancia moztu niyon, eta hureungo egunian jakin zuen, zeatik prekillo dana odolez peatuta zakan. Ta geo, ba, bakizu, erritan ta...
- Zenbat urte zenituen orduan?
- Orduan? Ba ze esango nizuen! Hamarren bat o nik; eta Gillerminak, berriz, sei o izango zitun.
- Non bizi zifazten?
- Fabrika Purpurinetan.

5.42. Aisialdia Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Elozegi, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Erref:** ZAR-108/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:06:01. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Mendira asko joaten ziren. Zarauzko tokirik politenak zein diren aipatzen du. Beti ibili izan dira Zarautzen, oso gustura ibiltzen baitziren. Ez ziren inguruko herrietara joaten. Hondartzara gutxi joaten ziren lehen.

Transkripzioa

- Mendira asko joaten al zifazten hemen, hemengo mendira?
- Bai, dexente, guretzako ez zeon hola zineik eta hola, ta beti mendira juten giñan jaitan. Aurrena bezperetan, eta geo mendira.
- Esango al zenuke, hola, tokirik politena Zarauzkoa?
- Ai! Askok dazka e? Askooo! Nik uste det: bat kosta, bestia Mendilauta. Zuek ez dezue ezautuko, baiño Mendilauta esaten giñun guk, han nola

daude oain...

- Kanpiña?

- Ez, kanpiña ez. Este, etxe berri asko in ditue hor. Nola desierto txikiya ta?

- Bai.

- Horrei deitzen ziyoen orduan Mendilauta, ta hori're oso polita zan. Ta beste asko, berriz, aizu. Nola esango dizut, ba, nik? Baita Pagotako mendira! Gurutzea iyotzia oso earra zan.

- Zer nahiago zenuten, hemen herrian gelditu, ala beste herri batzuk ezagutzera joan?

- Ez giñuken holako zeaik. Beti hementxe ibiltzen giñan. Ezta Getaira're ez giñun juden... Oso gustoa, herriyan eoten giñan.

- Udarán hondartza asko juden ziñezten?

- Ez, oso gutxi. Oso gutxi. Orduan iruitzen zitzakun hondartza beraniantiana zala. Eta herriko jendia oso gutxi juden zan. Geo hasi zian, ta hara, oain, oain ya guria da.

- Hondartza ez ziñatenian juden, ze iten ziñuen?

- A, etxealdian, han mendiya gendun, mendiya gendun aldamenian, ta hantxe ibiltzen giñan jostatzen.

5.43. Eskolako kontuak

- **Hizlaria(k):** Elozegi, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Erref:** ZAR-108/012
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Gaia(k):**
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolan non ibili zen kontatzen du. 14 urtera arte egon zen ikasten. Maistren izenak aipatzen ditu, eta moja onak zirela esaten du. Ez zuten txangorik egiten eskolarekin. Gurasoekin ere ez ziren txangotara joaten. Eskolako lagunak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eskolara joaten al ziñen?

- Bai, juden nitzan eskola.

- Noa?

- Noa? Aurrena hasi nitzan, este... Txapelaunditan, txapelaunditan, eta geo herriko eskolan ibili nitzan. Ta oso ederki.

- Zenbat urtera arte egon ziñen eskolan?

- Hamalau urte arte.

- Esango al diguzu monja baten eo izena [...]?

- Bai, gaiñez oso oso monja onak izan nituan: bat izena zun Sor Rosa; ta bestiak Sor Isabel; eta beste bat Sor Concepción. Bazian, bai!

- Orduan iten ziñuen ikastolatikan eskurziyoak eta hola kanpoa?

- Ez, ez, behin akordatzen naiz, este, herriko eskolan naola, Santa Kutzea eramán ziguen, Santa Kutzea. Ta oso ondo pasa giñun, baiño beste ez zan eskurziyoik iten iñua.

- Gero, ba, aitakin ta hola... Aitakin ta nonbaitea juden ziñezten? Igual

egunpasa o nunbaitea?

- Ez, ez, ez giñan juten. Beti hemen eoten giñan.

- Eskolan zein zekazun laun haundiyena?

- Ba, nun launa oso haundiya Maria Dolores Letamendia nun. Eta uaiñ'e uaindik'e bea det launik onena.

5.44. Erregea Zarautzen

- **Hizlaria(k)**: Epelde Etxabe, Inoxenxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Loiola Harizti, Agurtzane
- **Erref**: ZAR-111/007
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:10:38. **Bukatu**: 00:12:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Loiola Harizti, Agurtzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Alfonso XIII.a Zarautzera etorri zenekoa kontatzen dute.

Transkripzioa

- (E) Udazaliak Donostiyan eukitzen zituzten bean itsason jolasak eiteko balandruak. Balandruak dia ontzi batzuek bajuak, baiño oihal luze-luze batekin, eta haiziakin ibiltzen dianak. Eta urtian, ba, bitan o hirutan, ba, iten zuen etorrera, o Getaira o itsaso ona zeola, Zarauzko Ailla punta pareaiño. Ta gogoratzen naiz goiz batian, ba, gu mutikoskorak garai hartan, ba, betzirak ezkeo moilla inguruan ibiltzen giñan jolasten... pilla! Herriko hondartzan baiñeruak ez ziguten lagatzen arrimatzen'e hondartza e? Ta moilla. Gazte jende, mutikoskor geyen moillan. Ta han gaudela, etorri da balandro hori, gerrako barkuan lenbizi, eta geo aillatu dia horrea, Ailla punta muturrea. Eta han, gerrako barko batian, txalupa batian sartu eta moillan desenbarkatu zun beste bien artian, beste bi geyokin, erregia: Alponso hamabigarrena. Eta proresiyo batian juten dan bezelaxe, mutikoskorak bi aldetan ra-ra-ra zeaiño... Gran Hoteleaiño. Gran Hotelian bazkaldu, aldatu o in bihar zuena iteko, Gran Hoteleaiño beakin jun giñan, eta argazkiyak atea, ta izparringietan ta atea zian argazkiyak orduan lelenak.

- (M) Oantxe gauza bat esan dek gaxki!

- (E) Ze ba?

- (M) Alfontzo hamabigarrena esan dek! Hamahirugarrena, ordia!

- (P) Ba, ba, bai! Kontuatu nauk neu're!

- (I) Baita ni're!

- (M) Hamahirugarrena huan, ordia! Honek esan du hamabigarrena, ta zan hamahirugarrena.

- (P) Bai, ni're kontuatu nauk, baiña ixilik geatu nauk.

5.45. Dukearen katuari buruzko anekdota

- **Hizlaria(k)**: Epelde Etxabe, Inoxenxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Loiola Harizti, Agurtzane
- **Erref**: ZAR-111/011
- **Iraupena**: 0:04:28. **Hasi**: 00:17:28. **Bukatu**: 00:21:56
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Loiola Harizti, Agurtzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena:** Txakur batzuei buruzko anekdota kontatzen dute.
Txakurrek dukearen katu bat hil zuten, eta dukeak isuna jarri zion txakurraren jabeari.

Transkripzioa

- (M) Bakiye, Narrosenian, Narrosen hituan, zituen bi txakur: bat "Pelana", ta bestiak nola izena zun...

- (E) "Troski"!

- (M) Troski! Troski Pataki Paloki! Holako izen batzuek zituen, txakur txikiyak zian, eta jutun zian, ba, Narrosenetik Gran Hotelea, digo... zeara, golea zuzen-zuzen jutun zian "Marqués de Narros" ta "Conde Real" ta hoyek, golea jutun zian.

- (E) Nola? Nola jutun zian...

- (M) Ta golea.

- (E) Hoyek kotxia baziye geo!

- (M) Kotxe batzuek... Bai, bazituen!

- (E) Ermiarma, ermiarma.

- (I) Zer zuen?

- (M) Forrak! Ford! "Coches Ford"!

- (E) Ez, ez, ez! Zalduyakin ta ermiarma!

- (M) A bueno! Zalduyakin!

- (E) Zalduyakin! Holako errubera haundi-haundi batekin kotxe bat "echando chispas" jutun zan, zaldi.... Xallan [...]. Donostira... nik ez nun ezautu Donostiraiño jutun, baiño golea kotxe, zea, ermiarma horrekin. Donostira ez dakit zenbat denboan jutun ziala, zea, Zauztikan. Hayek gabian ibiltzen hituan, eta eunez lo iten ziye, ordu bata alde arte lo, ta gabian goizalde arte Donostiyan, ta Donostitik etorri...

- (M) Juergan earki!

- (E) Nik kotxiakin biaye hori ez niyan ezautzen. Golea automobillian ez hituan behin'e automobillia... zean jutun len... len esan deten hortan, ermiarman. Errubera haundi batzuk zitun, txarreta txiki bat.

- (M) Geo hituan, bai, zea, For hayek. For hayek'e zeak hituan, altuak e... Bien! Ba, zituen txakur hoyek, eta kale hortan ibiltzen zian; ta txakurrak, berriz, beti bakizu, katuan ta zean, ta... Hor bazan Txan Pier bat, "Jean Pierre", Juan Pedro izango zan noski, frantzesia zan ta, arotza, hemen bizi zana; ta ya alabak... semiak eta alabak eta izan zitun, ta arotza zan, eta...

- (E) Lutegi.

- (M) Ba, Xan Pier horrek... Bai, Lutegi abizena gairia, abizena hain juxtu Lutegi. Ba, txakur hoyetakuak segitu diyoe katuai, ta kale hortan, ba, Bixkonde kalia, Bixkonde kalen. Klaro, Narrosenetikan Bixkonde kalian zuzen-zuzen golea. Ta kale hortan segitu diyoe txakurrak katuai, ta hil due katu hori! Ta gue Txan Pier jaun horrek, "Duque de Granada" zan zea hoyen "Marqués de Narros" ta "Conde Realen" aita, hoyei pasa diyoe kontua, pasa diyo: "Por matar al gato, romper el plato, daños, perjuicios e indemnización: setenta y cinco pesetas". Dukiak "ja!" parre in, ta klaro, halako zea polita, ezta kasoik'e harek. Ta jun dia Madrida, ta klaro, udaa pasa zanian, beste guztiyak bezela, Madridea jun dia gure duke hoyek eta; ta gure Xan Pier horrek berriz'e Madridea fatura: "Por matar el gato... Por matar el gato, romper el plato, daños, perjuicios e indemnización: setenta y cinco pesetas. Situación al juzgao de Zarauz". "Joño!". Dukiak don Pedro

orduan aministratore, don Pedro, ze, akordatzen al zeate don Pedro txiki hori? Nola zan ba...?

- (I) Bai, zerbait akordatu nauk...

- (M) Don Pedro ez al haiz akordatzen Aginagan...

- (E) Legarra!

- (M) Don Pedro Legarra!

- (I) Motx bat!

- (M) Bai, ba. Zartu in gaituk, eta ezin akordatu abizenak, eta [...]. Eta gure Txan Pier horrek bota diyo, ba, ta dukiak: "Don Pedro, páquele usted inmediatamente". Earki! Gure Txan Pierrek kobratu du hori, ardoz beteta juerga earra harrapatu bere katuan kontura, ta akaso motel, kobratu zun harek "por mátar al gato"...

5.46. Erregeen opariak eta diruaren balioa

- **Hizlaria(k):** Madariaga Oar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Silban Iturburu, Leire
- **Erref:** ZAR-112/007
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:15:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Silban Iturburu, Leire
- **Gaia(k):**
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
 - Landideak » Neskameak
 - Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** 11 urtera arte erregeak esistitzen zirela sinetsi izan zuen. Erregeak gurasoak zirela nola konturatu zen kontatzen du. Erregeek emandako diruarekin zer erosi ahal izaten zuen. Orduan diruak zer balio zuen azaltzen du. Neskame zegoela irabazten zuen dirua amari ematen zion. Jesusaren iritziz, hobe da ahalik eta beranduen igaro heldu izatera.

Transkripzioa

- Eta kontatuko, horrela, gertatu zitzaizuna, adibidez, erregeak edo nola jakin ziñuten, erregeak nola zian?

- Hori leno esan ber nun. Nik hamaika urte arte erregeak ziala uste nun, gauzak ekartzen zitunak, ze beti urtero jartzen zian zeozer; aunke pobriak izan, urtero jartzen zian zeozer. Ta hamaika urtekin'e erregeak ziala uste nun, ez nun uste ama ta aita zianik. Eta jarri zizkian azken hamaika urte nitunian, zapata jarri nun balkoian, eta bi pezeta ta naranja bat. Eta ordun, naranja jan, ama gaixo euki nun, ta nik amai naranjak ekartzen jateko; ta nik'e naranja jaten nun amak emanda. Ta gero ni naranja jarri zienian zapatian, ta naranja jan nun, esan nun: "o! Hau aman naranja da! Hau erregeak ez du ekarri!" Ta "Ez, erregeak ez dia: ama da erregia, ama da erregia" esan zian. Ta ordu arte ez nekin erregeak... ze, ama ta aita zianik erregeak, eta hamaika urtekin enteratu nintzan ama ta aita ziala erregeak.

- Ta triste jarri ziñan jakitian aita eta ama zirala jakitian? Ilusiyo geyo ematen zizun...?

- Ez, ez, ez, bi pezeta ordun asko zan, ta gustoa nintzan nere bi peztakin. Ta bi pezeta hayekin gorde eiten giñun, ze Aste Santuan, santuak santuak esaten gendun prozeziuari, eta Santuak ikustea juten giñan Gernika. Ta Santuak ikustea juten giñanian, ba, errial batekin gauza asko erosten zendun, errial batekin. Erosen nun nik karamelozko txoriya, karamelozko

txori bat, txupa txus bezela, karamelozko txori bat, hua jaten, naranja bat, ontza bat txokolate, errial batekin erosten gendun. Eta goizian lanak ein, arratsaldian Santuak ikustera juten giñen Gernikea txikiyak giñanian'e gu.

- Ba, orduan gauzak asko garestitu dia, porke oain pezta batekin ya ezer ez dakazu.

- Ez, baiña ordun, ba, errial batekin gauza asko zeuden. Ni akordatzen naiz, zea zan, karamelozko txoriya izaten zan ordun... eta karamelozko txoriya hua erosten gendun, ta gustoa ibiltzen giñan geure dirua gastatzen. Amak erriala ematen ziun, bi pezta haiek amak amanak jasoko zitun; niri jarri bai zapatan, baiña amak jasoko zitun, ni ez naiz akordatzen nazkanik bi pesta haiek, eta amak berko zitun eta, ni neskame jundako dirua're amak ber zun ta, gaixuak eta, pobriak zian ta. Len baserriyak ez zun ematen oain bezela... Len ez zan saltzen esneik eta ez zan saltzen oain bezela ta, ordun pobriak eta... ni neskame neola're, nere, ordun urtian kobratzen zan, ta urtia pasatakuan, ahizpak kobratzen zitun nere diruak'e, dirua ber da baserriyan e. Ta horregatik, ba, nik beti neskame, nere denboa guztiyan neskame, ta akabo.

- Ordun zuk lana iten zendun, ta zuk ateratzen zendun dirua bilatzen zendun etxea, baserrirako?

- Klaro, baserrirako. Nik irabazten nuna haientzako; haiek ber zuen ta. Ta beste anai bat morroi nakan, haua baserriyan morroi, ahizpakin zeon hua, ta hua ezar ez. Bestiak'e, ni ez naiz akordatzen, gure etxian hamar senidetatik, ez naiz akordatzen "más que, más que" hirukin. Hiru etxian, hiru bakarrik ezautu ditut etxian. Eta beste danak ya ezkondata: ni jayo baiño lenao zarrena ezkondu zan, ta bigarrena're bai, ta hirugarrena ni jayo ta geo, eta holaxe. Nere bizimodua holaxe izan da. Ondo tristia.

- Zuk jakin ziñun ordun erregiak hamaika urtekin, ezta?

- Bai, hamaika urtekin.

- Eta oain normalian jendiak askoz'e lenuo jakiten du, ez?

- Jesus! Oain ya zazpi urteko badakiye, aita ta ama dianik leno're jakingo due.

- Bai, eta orduan zuk zer nahiko ziñun: beranduo jakitia... Zer da hobe: hobe ala lenuo hobe?

- Hobe berandu jakitzia.

- Beranduo?

- Klaro, ze zu gazteik, umetatik ertetzen bazea gazteik, hamalau urteako zartu zea. Ta zu zartuta, ume baldin bazabe zar, haik eta hamar urte arte eo, zeure burua ume, ba, geo eiten zazu, ba, zeago, motxago, hamar urtetik hoge urtea're motxao. Baiña zu zortzi urtekin o hasten bazea neska haundiya, ta ya pentsatzen haundiya naizela, hoge urte arte luze egiten zaizu, ta aspertuta zaude danakin hoge urteako. Zenbat eta beranduu zertu, hobe asko're.

- Gaiñea esaten due txikitatikan jakin ezkeo ez dila erregiak erregaluak ekartzen dituenak, ilusiyo pixka bat kendu iten duela. Erregaluak jaso arren, ta gustoakin jaso, ba, ilusiyua beti're pixkat galdu iten dala.

- Gutxiyo, asko're ilusiyua gutxiyo askoz'e.

- Ta gurasoantzako're ilusiyua bezela izango da, ez? Umiak jarri ta hoyek ikustia erregiak dila ta.

- Bai, ba. Bai, ba. Gabian gorde eziñik eta. Boltsak eta miatzen ta ibili, ta nun gorde jakin ez, ta holako gauzak txikitan. Ez do.

5.47. Aristokrazia Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Agirresarobe, Pakita

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aldaz Odriozola, Maider
- **Erref**: ZAR-113/003
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:02:44. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Aldaz Odriozola, Maider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Zarautz asko aldatu da: lehen aristokrata eta jende aberats asko zegoen. Baina haiek jauregiak saldu zituztenean, etxeak egin zituzten haien ordez.

Transkripzioa

- Zure ustez, Zarautz asko aldatu al da lenotikan oraiñea?
- Bai. Leno aristokraziya genun asko. Leno jende aberatsa, eta titulo haundiko jendia: dukiak, markesak eta horrelakya giñan. Geo hoyek itxiak eta jardiñak saldu, ta in dia itxe asko zea hoyetan, terreno hoyetan: por ejemplo, dukesa Mirandak'e, zean, oain dukesa Mirandan terrenotan dabez.
- (laguna 1) Hayek hayek burua altxako baldin balue, ze esango ote lueke?
- (Pakita) Negar, negar ingo lueke.
- (laguna 1) Borgeto bat eta.
- (Pakita) Borgetonekuak eta ze palaziyuak eta.
- (laguna 1) Ene, ene, ene, ene, ene.
- (Pakita) Oain danak itxiak dabe inda.
- (laguna 1) "Qué horror"!
- (Pakita) Konde Kantillana, aber, konde Kantillanak'e hainbeste seme-alaba eta halako palaziyuak eta danak danak saldu in zitun, eta dana itxiak inda dabez hor.

5.48. Baserriko bizimodua eta ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Agirresarobe, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aldaz Odriozola, Maider
- **Erref**: ZAR-113/008
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:09:25. **Bukatu**: 00:10:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Aldaz Odriozola, Maider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: 12 urterekin hasi zen amari laguntzen. Baserriari, kaleari eta maiorazkoari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Zu zenbat urtekin hasi ziñan amai laguntzen hola?
- Amai laguntzen? Ba, hamabi urte, komuniyua zeatu gendunian, akabatu gendunian, komuniyua in gendunian, orduan hasi giñan lanian. Ta geo plaza juten giñan egunero tratua saltzea, eta astuakin amai laguntzen juten nintzan tratua saltzea. Ta geo eguardiyan, berriz billa astuakin ta karuakin juten nitzan aman billa.
- Zergaitik usten duzu lengo jendia, baserriko jendia, etxetara etorri dala?

- Ba, lengo basarriko legiak oso diferentiak zian: ordun maiorazkuantzat izaten zan batzak eta lanak. Baiña gaur beste postura batea gurasuak iten due, semiai ematen diyoe itxasoa batzuk, taillerrea lanea... eta hoyek, ta geo ordun, itxiako gelditzen da, itxiako seme maiorazkua, ezkondu ta han martxan, zergatik danantzat ez daolako seme danantzat basarriyan irabaziya danantzako.

5.49. Biografia laburra

- **Hizlaria(k):** Eizmendi Manterola, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Erref:** ZAR-117/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:13. **Bukatu:** 00:01:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bere burua aurkezten du hizlariak, eta bere biografia laburki kontatzen du.

Transkripzioa

- Iñaki Eizmendi 'Basarri' naiz, milla bederatzirehun ta hamahirugarren urtean jaio nintzan Errezilko partean aurkitzen dan Granada baserrian. Sei urte ninduan nituan garaian, gurasoak Azpeitira bidali ninduten lehengusu baten etxera. Sei urtetatik zazpitara, Azpeitiko eskola batean ibili nintzan pixka bat. Gero, zazpi urte nituala, etorri ziran gurasoak honuntza, eta ni ere bai haiekin batera. Ta geroztik Zarautzen bizi naiz.

5.50. Zarautz lehen eta orain

- **Hizlaria(k):** Eizmendi Manterola, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Erref:** ZAR-117/003
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:01:03. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Lehen Zarautz jostailu baten antzekoa zen oraingoaren aldean. Oso txikia zen, eta denek ezagutzen zuten elkar.

Transkripzioa

- Konta iezaiguzu nolakoa zen Zarautz Zarautz herria zure gaztaroan, eta zure gaztaroko eta oraingo Zarautzen desberdintasunak.

- Garai hartako Zarautz jostailu bat bezala zan gaurkoarekin konparatzeko. Gu etorri giñan garaian, hiru milla ta zazpirehun edo zortzirehun bizilagun ziran Zarautzen, gaur hamasei milla diran bezala. Hortatik konturatuko zerate zer alde dagon lehengo Zarautzik gaurkora. Orduan danok alkar ezagutzen genduan, gutxi giñan, familikoak bezela, edo famili bat bezela; ta gaur, berriz, teillatupekorik ere askotan ez degu ezagutzen.

5.51. Zarauzko giroa lehen

- **Hizlaria(k):** Eizmendi Manterola, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Erref:** ZAR-117/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Zarautzen lehen pertsona xeblebre gehiago zegoen. Diru gutxi egon arren, jendea pozik bizi zen. Sagardotegi-giroa zegoen, eta ez zegoen gorrotorik politika zela-eta. Umore ona, kantak eta bertsoak ziren orduan nagusi.

Transkripzioa

- Ezagutu al zenuen Zarauzko pertsonai xeblebre edo garrantzitsu bat?
- Pertsona xeblebreak bai, baziran, eta beharbada orain baiño gehiago. Herri txikia zan, baiña baziran jende xeblebreak. Orain danak hillak dira, ta izenak ematea ez litzake egokia izango; bakarren batzuk ahaztu egingo nituzke, ta ez naiz hortara ausartzen. Baiña diro gutxi zan orduan. Hala ere, jendea alai eta pozik bizi zan, sagardotegi asko, sagardotegi giroa, eta gorrotorik ez zan ezagutzen. Politikarik ere ez zan, esate baterako, ez behintzat orain bezela txartuta jendea. Eta beste sanidade bat: kantu ederrak, bertso ederrak, tokan egin, umore ederra sagardotegitan, ta hoixe, beste Zarautz bat zan. Zuek gaztetxok zerate, eta ez zerate konturatu ere egingo zer aldaketa egin duan urte hauetan.

5.52. Sagardotegiko giroa

- **Hizlaria(k):** Lizaso Illarramendi, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Diaz García, Elena
- **Erref:** ZAR-118/005
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:05:46. **Bukatu:** 00:06:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Diaz García, Elena
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Emakumeak sagardoaren bila bakarrik joaten ziren sagardotegira, ez errondan. Hilean behin barrikotea izaten zuten: barrika txiki batean sagardo onena jartzen zuten, eta lagun onen artean edaten zuten bukatu arte. Festa polita egiten zuten orduan.

Transkripzioa

- Emakumeak ere joaten al ziren sagardotegira?
- Sagarduan billa bai; baiña hola jatea ta ez, rondan ta ez, gizonak

bakarrikan.

- Eta gizonak ze joten zian, lanetik ateratakuan?

- Bai, bai, geo izaten genduan hillian behin o horrela, barrikotia deitzen zan. Izaten zan barrika txiki bat preparatzen gendun, bueno, preparatutzen zitun, ba, gure aitak eta. Sagardo ona puntuan zeonian, enbotillatu ta in biharrian, launan artian jaten zuen, jan ta eran. Geo izaten zan barrika txiki hoyek, ardo barrika hoitakoa; eta dana hustu arte, jan ta eran, ta jan ta eran, ta klaro, geo ba jendia sagardua're ona izaten zan... Ur gutxikua baldin bazan, ba, itxieakuan bi launek laundu ein bihar, bakarrikan tente jun ezin, ta holakuak'e pasatzen zian, bai... Geo esaten zuen lo inda pasa iten zala, ta hurrungo egunian berri-berri etortzen zian, baiño holakuak ibiltzen zian sagardoteyan. Ta geo juerga haundiya iten giñun, joku batzuk 'e bazituen beak eta alkarrekin, ta axeri-dantza ta hor esaten zituenak, eta hola; baiño festa polita iten zuen.

5.53. Zapatagile ofizioa, eta kanpotarrak Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Hizlari ezezaguna, ZAR-119
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Erref:** ZAR-119/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:06:43. **Bukatu:** 00:08:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Gaia(k):**
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena:** Txikitatik izan du bokazioa zapatak egiteko, eta zapatak egiten zituzten artisauen tailer batean ikasi zuen ogibidea. Gerora, bere kontura jarri zen. Lehen ere jende ezaguna eta garrantzitsua etortzen zen Zarautzera, bai eta beste herrietako jendea ere.

Transkripzioa

- Txikitan ze lan egiten zenuen?

- Txikitan, ba, nik beti izan det ilusiyua o bokaziyua zapateritzat iteko, ta orduan suertia izan nun tailer eder batian, Urtzelaieko taillerradeitzen ziyoena, dana artzaleko lana neurrira egiten zana. Horrea etortzen zian aristokraziko jende asko, ta abogau, ta meikuk, eta oso jende haundiya zakaen. Ta baita ere aillatu zan erregiña, zea, zapatak iteko enkargatzea. Eta handikan aurrea, orduan, fama handiyo hartu zun, ta nik hantxen ikasi nun nere ahal nun onena ofiziyo hori. Eta horrekin geo nere kontura jarri, ta bizimodua atera nun familiya aurrera ateratzeko.

- Eta leno orain bezalako jende inportantea joten al... etortzen al zen honea Zarautzea?

- Bai, bai, bai, beti, beti Zarautzak eduki du fama handiya, zeatikan herriya, nik asko'de maite Gasteiz han jaio nintzelako; baiña bai Zarautz'e, zeatikan nere bizi guztiya hemen in det, ta oso egokiya izan da guretzako. Eta jende haundiya beti ezagutu degu: baiñeruak egoten zian aristograziko jendiantzako espesialmente jarrita bere baiñuak, eta igeriyan ikasteko, ta zerian. Eta geo gaiñuntzian, ba, kanpoko jendia beti asko etorri izandu da Zarautza: igandetan ta etortzen zan, plazan izaten zan dantzako festa, eta orduan bai Errentetik, bai Tolosatik, bai Azpeititik, beti-beti-beti ezagutu det mutil koskorretatikan jendia baiña itxurik gabe etortzen Zarautza.

5.54. Zigarroak gaztetan

- **Hizlaria(k):** Hizlari ezezaguna, ZAR-119
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Erref:** ZAR-119/012
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Txikitan jende dezentek erretzen zuen zigarroa. 13-14 urterekin hasi ziren erretzen bere kuadrillan. Zer eta nola erretzen zuten kontatzen du.

Transkripzioa

- Txikitan jende askok erretzen al zuen zigarroa?
- Bai, bai, guk kuadrillan behintzat bastante egiten gendun hamahiru urte t'erdiekin, o hamalau. Hasiera guria izan zan, ba, sorota artua zeon lekura juten giñan, ta artuai bizarra atea, artobizarrak esaten genduna, ta hori uda atzenian, ta motxoka bat hartzen gendun, hartzen gendun, ba, denbora pixkaten eukitzeko, ta zabal-zabal jarrita lagatzen gendun. Ta geo, bazian beste zigarro txotxak esaten gendun, ta hori jun ber izaten gendun, ba, mendira. Ta sastraka tartian ta, zeak izaten zian, txurruan mouko zerian baiña luzian, ta hayek ebakitzen gendun zigarruan estiloa, ta hayek erretzen gendun. Hayek txarrak zian, eztarriyan pikatzen zuen asko ta.

5.55. Eskolatik piper, eta tifusaren indarra

- **Hizlaria(k):** Aristi Isasti, Joxepa Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines
- **Erref:** ZAR-123/003
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:03:17. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe Belamendia, Ines
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena:** Klasetik piper egiten zuenean, bakarrik joaten zen. Tifusarengatik hil zitzaizkion ama eta ahizpa. Entierroak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Bai... gogo gutxi zenekala klasea juteko ta hola, ta piperrak eiten zenitula esan dezu, ba? Eta ze, lagunakin eiten zenitun o bakarrik? Edo lagunak gogo asko zekaten, eta zuk gutxi...?
- Ni gutxi jua nitunan, ni kosta juten nitunan. Arratsaldia pasatzen niñan ta yasta. Baiña noizian behin e? Bestela gogoik gabe, larri estudiatu niñan nik, hoi zeatu ikasi niñan, eta bestela ezar ez. Handikan ez niñan eze zeatu... geo hamabi urtekin kalea.
- Eta esan dezu, komentatu dezu ere ama hil zitzaizula hamabost urtekin,

ta ahizpa zarra hemezortzi urtekua...

- Ti, ti, tifus, tifus izan giñenan, eta hirurok izan giñenan. Lenbizi biyok, ama ta biyok, eleizakuak eman, ta danak inda. Ta geo, ama hil hunan; eta ahizpa, ni kuartutik erten nitzanian, bere kuartura jun nitunan, gaixotu nunan hura, eta ni ikusi nitunian txokatuta geatu nunan gajua, eta esan zitxanan, inpresiyua eman nitxonan nonbait, eta beste aldea beitu zitxanan, ta geyo akabo, hilda geatu hunan. Hirurok eon giñan, ba, tifusekin, eta kanpaik gabe ta ezer gabe enterratzen hitunan orduan. Eta hala jun hitunan hayek biyak, ta ni sendatu nitunan, eta aita ta anayakin hola geatu nitzan. Ta geo, harrezkeo, ba, esan detena, koiñatakin ta bizi nitzan gerora.

5.56. Ezkondutakoan, bizitza gogorra

- **Hizlaria(k):** Aristi Isasti, Joxepa Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines
- **Erref:** ZAR-123/007
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:08:21. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe Belamendia, Ines
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena:** Ezkontzean, 8 ume izan zituen. Baina senarra gaixotu egiten zen, eta soldatarik gabe bizi izan ziren denboraldi batean. Gerra garaian ere senarra gaixo egon zen, eta etxean senide ugari ziren dagoeneko. Senarra itzuli zenean, lanean hasi zen, baina ahul zegoen. 66 urterekin erretiratu zen. Bere senarrari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Uain arte, ba, solterako bizitza nola eaman zenun kontatu diazu, ta hori. Gero, ezkondu ta gero, zortzi seme-alaba euki ta bizitza nehiko gogorra euki zenula kontatu ta hori pixkat...

- Ba, hori ba, ba, ezkondu ezkeo, ba, berriz'e interinatzat hasi nitzan; eta esan detena, zor... esto... haurrak'e sarri izan nitula, eta hasi nitzala, ba, esto... lanian bat eta bestian, baiña geo gizonakin'e suerte handigiya're ez nula izan, zeatikan bastante... geo gaxotuta euki nula, eta urti... zenbat, laugarren haurra izan nunian, hamar hillabete zitunian, gaixo izan zula, mininjitis ote zun zeatuta. Eta sei bat hillabetian behintzat perro txikik gabe, jornalik gabe eon giñala, gaiñea. Eta geo nundikan, handikan bialdu ziela, klinika eaman gendula. Ta klinika jun, ta ba, sartu zizkiyoen zea batzuek, indiziyo batzuek eta gauzak, eta hiltzea itxea bialdu zit... nitula... zitula. Eta ekarri zuela; ta geo handikan puxkatea, handik hillabete o gehio, nun bialtzen dien faktura "viuda de Etxabe" iñez; eta orduko hamen don Leandrokin ta Zinkunegi jaunakin makiña zeatu, alkar ko... zeatu ziala, kontsultatu ziala, eta hayek emandako medikamentuakin ta abar atea zala behintzat. Sei hillabete haundi pasa ziala bai, baiña pasa ziala. Geo, berriz, gerra denboak etorri ziala. Gerra denboetan'e, berriz, hiru hillabeteko zeara eraman ziyela, komandantzira; ta geo gaixotu in zala, berriz handikan Mixeikordira pasa zuela. Hara're jatordua eaman in bihar. Nik hainbesteko familiya, gizonan ama're hartuta nakala itxian, "así que" banakala nik nahiko lana. Eta bosgarrena otubrian izan nula. Ba, ordun'e,

ondorenia nola, zea, mendira jun bihar izan nula egurra, egurreta sua ingo banun. Nee bizitza tristia izan dala. Eta beste gaiñuntzian, esan detena: hiru hillabete pasata, behintzat, etorri zala; ta gerora lanian hasi zala. Baiña gerora're debilla izan zala; geo prostata're izan zula, beste gaxo bat'e izan zula berriz, harekin're pasa zula; ta geo, esan detena, geo, berriz, erretiratu zanian ya gauza ez zala, retiratu zan hirurogeita sei urtekin, eta ordun, ta... Zeatu zan urte pare batian o erten bazan pixkat taberna zulo pixkatea, geyo ez zala erten. Ta hirurogeita hemeretzi urtekin hil zala, nahiko gaixua pasata. Ze esango diñat...

- Ta... zure gizona zein izan zan?

- Nee gizona izan zan gaztetan fubolista, lehenbiziko, zea ekipoko, Moillarriko, zea, porterua izan zan. Urte asko pasa zitun, ta geo ya erretiratu zan. "Así que" da Fidel Etxabe Makazaga hura, Txorten. Eta zean, kuadrilla Trastornokua; eta geo makiña bat urtian Alfan lana indakua. Eta uain lau urte otubrian hil zan.

5.57. Antzerkia Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oñatibia, Manu
- **Erref:** ZAR-124/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:09:39. **Bukatu:** 00:11:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oñatibia, Manu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Aisia » Kultura » Zinema
Lanbideak » Artistak
- **Laburpena:** Igandetan antzerki-lanak egiten ziren fraideetan eta parrokiari. Artista batzuen izenak aipatzen ditu. Parrokiako antzerkiak euskaraz izaten ziren, eta hango artistarik onenak aipatzen ditu. Beste herri batzuetara ere joaten ziren antzerkiak egitera.

Transkripzioa

Ta gero, eskola gauzak pasa ta geo, zer esango det nik hamen? Geo, teatruak. Igandetan eiten zian teatruak bai frailetan, igandero obra diferentia e! Frailetan eta bai parrokiari'e. Biyan artian izugarritzko lutzak! Teatruak izugarri onak, e! Bai!... Frailetako onenak zian artistak Joxe Alberdi, Enrike Miranda, Erzilla, ta beste asko, Eizagirretarrak, eta... Nik'e mutil koskorretan teatrua eiten nun. Geo parrokiari, berriz, parrokiari oso teatro... euskeraz eiten zian oso onak denbora haitan. Don Fernando zan maixua ta artifizea. Ta hango artistik onenak Luis Amilibia "Piper poto", hori izan da Zarautzik artistik onenetakua, Daniel Iruretagoyena, Piper kale eta beste asko. Baiño teatro oso onak eiten zian, e! Ta hoyenetako oso polita zan Jesusen Biyotza izena zun, Jesusen Biyotza, musika ta guzti, pianua ta kantak. Eta... jo! Izugarriyak eiten zian orduan! Baita kanpoa're juten giñan gu teatrua eitea Elgoibarra ta Axkoitira ta denbora haitan.

5.58. Taxiak eta jende inportantea

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref**: ZAR-128/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:06:03. **Bukatu**: 00:07:23
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Taxilari-lanak egiteko, zaldia eta gurdia izaten ziren garraiobidea. Zarautzen nork zuen autoa eta zer jende ezagun etortzen zen aipatzen du.

Transkripzioa

- Automobillik'e... bai, bakarren bat. Ezautu nun nik Zauzko herritikan golea taxisa bezela, zaldiya ta karrua, edo kotxia. Otamendinen zea, Otamendinen hoik'e zea zian, taxisan tokiyan zaldiya ta kotxia ezautu nitun. Ta Donostira're bai! Donostira're zaldi bakarrekua "sixto" esaten ziyona. Ta bestiak bi zaldi eo laukuakin'e bai, zea, kotxe haundiya. Geo automobillak aristokraziyak Granadanekuak ekartzen zituen bi, ta besten bat eo beste. Beste automobillik ez zan.

- Ta ze jende etortzen zan leno honea?

- Jende haundiya. Honea etortzen zian ministruak. Nik ezautu nitun hamen lehendabiziko ministruak "Marqués de Cortina, esto, ministro de economía" uste det. Benjumea: hoyek oain Txapelaunditako mojak nola? Hor eoten zan. Eta bestia ministrua "Conde Gozander", hori Domeken koiñaua zan.

5.59. Erregea Zarautzen

- **Hizlaria(k)**: Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref**: ZAR-128/007
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:10:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Erregearen gaineko kontuak kontatzen ditu. Hura Zarautzera etortzen zenean zer egin behar izaten zuten, zertan ibiltzen zen Erregearen familia Zarautzen, non egoten ziren...

Transkripzioa

- Juan Karlos eo "Conde de Barcelonan" anaiakin'e ibilia naiz ni. Hua zan Alfonso trezen lenbiziko, zea, seme zaharrena, mutua zan: mutil earra zan, altua, ta earra mutilla. Ta zea zatorrela, erregian semia, ta txapela're (txapelakin ibiltzen gendun ohitura), ta txapela're kenduta hua zatorrenian ta, nola ibiltzen giñan. Hor "Conde Barcelonak" honek nee edadia izango du oker haundirik gabe, baleike urte bat gehio eo gatzexeo izan. Bere alabak'e, bai, Alfonso trezen alabak'e etortzen zian: oso emakume bikaiñak zian, haiek tenisian jokatzen zuten, hoixe. Jose Antonio Primo de Riverakin'e bai ibiltzen giñan, hori estudiantia eo, gu baiño zartxio zan, ta asko gustatzen zitzaion hemen euskaldunekin ibiltzia hemen. Ta hola golian ibiltzen giñan. Bere anaia bizitzen zan oain "Casa Azul" nola dao?

Beno, "Casa Azulen" aurrian zein da kozinero...

- Argiñano?

- Hoi da, Argiñano. Ta hor bizitzen zan, zein, este, Jose Antonion anaya ta bere emaztia. Guk torretxe atzian patata iten genun. Patata zailla gendukan hor Mendilautan. Ta hala, bakar-bakarrikan nintzan beyekin junda zakarra biltzen patata ateata, ta etorri zitzaizkiten, ta iaber utziko al niyoen, zeakin, akuluakin ibiltzen, ta bayetz, pozik. Ta hayek aurrian jarri, ta ni atzian nagiakin, hahor. Arrazoin batzuk ateako zituen, ez zuten aillatu baiña. Holaxe, guretzat jende ona izan zan hua: beti, esaten dizut, peza bat eo bi ematen zizkiguen, ta guk harren poza izaten gendun.

5.60. 'Txirrita' eta apaizari buruzko anekdota

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref:** ZAR-128/016
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:22:35. **Bukatu:** 00:24:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Apaiz berriak Txirrita bertsolariarekin izandako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

Bueno, Txirrita sonatua zan bezela, sartu ta eleiza ataian han zeon. Ta hortako Hernanin lehengo bikayo zaharra hil, ta berriya etorrita zeon. Ta hala, hamaiketako mezeta jendia inguratu zitzayon zimitayuan, ta bikayo jaun horrek ezautu in nahi, ta sankristua ta biyak zabiltzan atayan, ta galdetu du "Harako hori zein da?", ta "Hori? Zea da, notayua; ta hua zea da, halako kabaillero; ta beste hua halako...", "Ta han baztarrian brusakin ixeita daon hua zein deu, ba?", ta "A! Hua? Etorri ez, ta ez litzake asko galduko. Sekula ez du perro txiki bat botatzen. Bandejakin nijuan bezela, o kajakin nijuan bezela, burua makurtuta jartzen da lotan, ta pasa arte ez du alztatzen buruikan", ta "Ba! Holakuai, albo aillatzian, burua jasten duen hoyei kajakin da! ematen zayo... dar! dar! hola zeakuan. Hoyek sagardotik'e asko ber izaten diye, ta antza badik Txirritana, baiña badakik". Hala, lehenbiziko mezetan, lehenbiziko zea hua, ba; eta badijua, ta buru bajatu zayo, jarri diyo, eta hala, halako [...] eman diyo kajakin dar! sayetsian, ta: "Zer dek!" eta "Earra eman diak! Earra eman...", ta "San Agustiñen meza argiyantzako", "Nola esan dek? San Agustinen argiyantzako? Ta zein dek, ba, santu hori?", "Han aurrian, bi bastoiekin, ze, buruz aurea daon hua", ta "Ba, esan diyok garaiz erten, eta illundu baiño leno erretiratzeko, ta ez dula argi berrik".

5.61. Plaza Musikako giro ona

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Arruti, Pakita; Unanue Arzelus, Jesus Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider

- **Erref:** ZAR-134/010
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:08:23. **Bukatu:** 00:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Zarauzko Plaza Musikako kioskoan musika izaten zen, eta jende asko ibiltzen zen dantzari. Aguazilak toki egin behar izaten zuten jendearentzat. Euria egiten zuenean ere, aterkiarekin dantzatzen zuten. Garai hartan konfiantza handia zegoen elkarren artean. Musikako atsedenaldia zenean, neskak paseoan ibiltzen ziren eta mutilak txikiteoan; neskak ez ziren tabernatan sartzen.

Transkripzioa

-Jesus Mari: Hemen, musika jotzen zuten kioskoan, Plaza Musikan. Orduan banda zeon ta, bi, bi, ta hiru jotzen zituen, ta pieza jotzen zanian neskak txanda eskatu, dantza in. Hurrengo zea jo arte, han in [dik] tontuana iten.

-Pakita: Ta orduan plazan eoten zan jende asko,

-Jesus Mari: Hola plaza, korruan.

-Pakita: Aguazilla ibiltzen zan korrua iten. Jendia bultzatzen jendiantzat tokiya iten. Ta euriya iten bazun guardasolakin, ta dantzari. Ta geo atertzen bazun, kioskoan laga. Baiño lapurtuko zuenikan bat´e bildurrik gabe. Han laga ta geo hurrena jun, ta hartu, ta bat´e zeaik gabe. Ta musika deskantsuan, neskak ibiltzen giñan, atzea ta aurea Kale Nausiyan: farmazitikan, parrokira, parrokitik zea, adios, adios. Ta hurrena musika hasten zanian berriz´e dantza.

-Ta bitartian mutillak baita ere pasian?

-Jesus Mari: Txikiteuan.

-Pakita: Mutillak hauek txikiteuan. Ez, neskak ibiltzen giñan gehiena. Geo, han baten bat baldin bazan, neskakin nahi o neska-mutillakin, han hitz eiten kuadrillan-ta, zea hori. Baiño han, plazan ta kale nausiyan, ez zeon beste zeaikan, hortxen.

-Ta neskak tabernan sartzia?

-Jesus Mari: Ez! Orduan ez zian sartzen.

-Pakita: Buf! Taberna mutillakin jun ber zenun, bestela sartzen baziñan...

5.62. Telefono gutxi zeneko garaia

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Arruti, Pakita; Unanue Arzelus, Jesus Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** ZAR-134/015
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:34. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Nobiotan zer-nolako planak egiten zituzten azaltzen dute. Lehen ez zen telefono askorik herrian. Udaletxean telefonogunea zegoen, eta gerora telefono-kabinak beste lokal batean jarri zituzten. Orduko giroa gogoan dute.

Transkripzioa

- Ze plan iten zenituzten?

- Jesus Mari: Planak?

- Nobiyotan o.

- J. M.: Plana... lana.

- Zinea jutun ziñaten o...?

- J.M.: A, bai! Jaiero... Jaieroko plana? Eguardian ateatzen giñan ta Royaltyra jun ta bermuta hartzen han egon. Gero bostetan billa jutun nitzanian, berriz kafesne bat edo hartuaz ta gero zazpi t´erditan zinea. Ta zinetik beatzi t´erditan etxea.

- Ta hori, elkar ikusteko, astian zehar ikusten ziñaten o?

- J. M.: Bai. Suerte hori gekaun, nik lana pixkat aurrexio iten nun, tallan, ta hau balkoian ateatzen zan eskobakin ta zeakin ta. Geo jaisten zan ta... Eskoba [...] ta... E?

- Oseake, telefono askorik ez zenuten bihar.

- J. M.: Ez, ez.

- Pakita: Ez telefonorik eta ez kartik.

- J.M.: [...]

- P.: Ordun telefonua ez zeon...

- J.M.: Ke ba!

- P.: Guk han taillarrekua edo zea bat jarri ziguen bat goian, etxian zeatzeko, enkarguak-eta hartzeko o zeatzeko, baiño bestela telefonoik ez zeon. Hemen aiuntamientuan zebe.

- J. M.: Zentrala.

- P.: Zentral telefonika, kabinak eta. Horrea jutun zan jendia.

- J. M.: Zuk hitz ein nahi bazenun, jun horrea ta ordua jartzen zizuen ta “conferencia”, bostetan, ta jutun ziñan ta “al tres” ta hortik hitz eiten zenun.

- Ta noa deitzen zun jendiak?

- P.: A, ez dakit... Beren... Langille... Taillerretako jende asko´re etortzen zan horrea. Gero hemen jarri zuen, oain pelukeiya daon hontan, Lanbroa ta pelukeiya daon hontan.

- J. M.: Zentrala. Zentrala hor.

- P.: Telefonika... Ta hor´e kabinak zebe. Gu hemen lotan ta gabian, osea, “Zaragoza!!!” ta beraneantiak-eta horrea etortzen zian nahi zuenian deitu beren zeara o... Ordua jarri ta...

5.63. Umeak zaintzeko aurrerakuntzak

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Arruti, Pakita; Unanue Arzelus, Jesus Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Eider
- **Erref:** ZAR-134/044
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:07:25. **Bukatu:** 01:09:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena:** Hurrei telazko pixoihalak jartzen zizkieten; hasiera batean, zapi batean biltzen zituzten gainera. Bigarren alaba izan zutenerako, baina, aurrerapenak egon ziren eta asko erraztu zuten lana.

Transkripzioa

- Umien... oain paketiak-eta ibiltzen dianak...

- Pakita: Ez zeon ezer´e holakoik.

- Ordun, ze iten zan hortako?

- Jesus Mari: Sukaldeko sokian... "Pañales" o esaten da.

- P.: Bai, telazkuak iten zien. Dana aurretik preparatu ber zendun, telazkuak eta barrutik felpa zula. Zeakin, ta soka batzuek jarri ta sokakin lotu. Ta geo, gaiñea, txiki-txikiya zanian, zapi batian bitu. Hola, borobil-borobillian. Ta kamiseta zea ta jertse bat. Geo kaleako, ba, zapi hori kendu, ta faldoia o jarri. Ta ordun... Oain? oain erdi lanikan ez. Geo, bigarrena izan nuneako, plastikoko kuleruak hasi zian. Zea jarri, gasak, ta plastikoko kulerua ta zea... Diferentzi bat bai zaharrenetik bigarrene... egundokua!

- Errexo?

- P.: Errexo. Askozez gutxiyo zikindu ta busti ta... Ohiyan ´e, zea, hule jarri ta zea... Bueno, siheskan ta... Zea zan, e! Oain zikiña iruitzen da, e... Hoi gauza, e! Oain beti garbitzen. Siheska...

- J.M.: [... partera] etorri ta zean, hoi, katxarro hoi, garbitu, baiñua, atzea-aurea... buu!

- P.: Zea...

- J.M.: Lehenoko kontuak hala zian ta...

- Zer, nola baiña? Ze iten zun? Nola garbitzen zun?

- P.: Palanka...

- J.M.: Baldian...

- P.: Balde batian ura jarri ta...

- J.M.: Ni orduan ez nitzan egoten, baiña beak garbitu parterakin aurreneko egunetan ta... Hola. Ohian, hor.

5.64. Homosexualek pasa behar izan zituztenak

- **Hizlaria(k)**: Solaberrieta Arsuaga, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: ZAR-140/019
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:34:15. **Bukatu**: 00:36:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQ+
- **Laburpena**: Lehen homosexualak jo egiten zituzten Zarautzen. Behin Getariako bidean mutil batzuk jipoitu zituzten. Lehen homosexualitatea moda kontua zela uste zuen jendeak. Homosexualei jarreragatik antzematen zieten joera sexuala.

Transkripzioa

- Homosexualak-eta lehen bazeuden hemen edo...?

- Ez, hemen homosexualak zianian...

- Eman iten zien? Bai, e?

- Nik ez nakin, nik ez det behin ´e ikusi, e! Baiño nere senarrak esaten zian behin akordatzen zala, akordatzen zala nola Getai kamiyan nola esan zuen baziala ta baziala. Hemen ´e bazian. Nik aitzen nitun "Halako hola da" ta... Oain ´e badabe, ta beti dia. Hori... Baiño... Ta nola behin, hemengo jendia hartu ziyoen ta, hor Getai kamiyoa jun ta kristonak emanda laga zitula ta, hoiek aitu nitun, aitu nitun.

- Ta hoi zergatikan, besteik gabe homosexuala izateagatik, o zeoze probokatu o...?

- Ez, ez. Homosexualak zialako. Porke hemen lehen uste zan hoi zala, zea bat, oain esaten da /esatea/ askotan enfermedadia dala esaten due batzuek; bestiak esaten due "ez", naturala dala, bestiak. Baiño orduan

esaten zebeñ dala, zala, zea bat, ohitura bezelako zea bat atea zana. Entenditzen dezu? Ez zuen konprenditzen jendiak sentitzen zuela hola! Eta hori ez zitzakoen ondo iruitzen, eta kristonak eman. Hori hemen Zarautzen. Nik ez det zeatu, somatu, baiño nere gizonak bai. Hor Getaian, Getai kamiyuan, juten zian eta ematen zizkioen kristonak holako batzuei. Hoi aitzen nitun.

- Eta homosexualak zianeñ urrutitikan sumatzen zitzaien o beaiek esan arte iñor ez zan enteratzen o... beste era batea moitzen zian?

- Zea, nola ibiltzen zian ta, beste... beste batea. "Hori hala dek, hori hala dek" eta seituan beak juzguak ateatzen zituen, iñork ez zitxon esaten ezer 'e. Juzguak-eta beak atea ta geo beak: "Jungo al gea halakotan?", "Bai" ta kuadrilla bat juntatu ta eman earrak eta hola. Eta hola zan lehen. Oain denak errespetatzen dia /errespetatzeia/. Ber dan bezela. Porke oain dakie zein nola dan ta [...] gauzak. Baiño lehen ez zan hori.

- Eta hori, jipoia emanda, gero...

- Jipoiak eman, kristonak eman. Odolduta laga han, eta gero, zeara, hospitaletaa ta hoiek danak. Hoiek danak in zituen. In zituela. Nik... nik ez det somatu.

- Ta geo denuntzin bat jartzen zuen edo...?

- Bai, ba, aber... nundikan... baten batena zan hori. Baiño hori nik uste det zala bean artian: "Emango al dixkiyou kristonak horri?", "Bai. Gaur gabian jungo gaituk ta ingo diau" Hori, astakerkei hoiek zian hemen.

- Ta gero jipoia jaso zuna juten al zan...?

- Eta geo isildu.

- Isildu iten al zan?

- Isildu, isildu, isildu. Porke zea zan, gauza zea zan, gauza isila ta... Enee. Ze era zian, e! Ze era zian.

5.65. "Biyona" denda dagoen etxean bizi ziren

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ayerza, Florentino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** ZAR-146/016
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:24:16. **Bukatu:** 00:25:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena:** 15-16 urtez "Biyona" denda dagoen lekuan bizi izan ziren; lehen hura etxe handia zen eta haren egituraz hitz egiten du.

Transkripzioa

-Etxe berriya in zuen hor... ezagutuko dezu zuk, denda bat dago, Biyona, etxe hori berriya intzuen eta gu sartu giñan horrea inkilino bezela eta bizi izandu giñan ba hamabost bat edo hamasei bat urte bai, ni soldautzara jun nitzan arte, bizi izandu giñan Biyona denda nola da, hori zan gure pisua.

-"Planta baja".

-"Planta baja" bai bai, etxe haundiya zan e etxe haundiya zitun ba, bi, hiru, lau dormitoriyo, aunke bat hola despena bezela ibiltzen gendun eta lau dormitoyo, komedoria, sukaldia, bueno haundiya zan, etxe haundiya zan.

-Beira oain.

-Bai, oain denda. Hara sartzen naizen bakoitzian akordatzen naiz ni, lo nun iten nun ta dana, bai.

5.66. Bulgariako umezurztegitik Zarautzera

- **Hizlaria(k):** Iruretagoiena Kastro, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eizagirre Agoues, Libe
- **Erref:** ZAR-168/003
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:01:17. **Bukatu:** 00:02:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- **Laburpena:** Sei urte zituela, Bulgariako umezurztegitik atera eta bere harrera familiarekin Zarautzera etorri zen. Berarentzat aldaketa handia izan zen, nahiz eta oso ongi ez gogoratu. Hala ere, oraindik zenbait irudiz oroitzen da.

Transkripzioa

- Ta pentsatzen det igual pixkat gogorra dala, baiño gogoratzen zea Zarautzea etorri ziñanian ta nola?

- Zarautzea etorri nintzanian? Imagen txiki-txikitxo batzuk dazkat, baiño, bueno, dia... Ba gogoatzen naiz, adibidez, ba, bost urtekin jun ziala bixitatzea. Eta, ondoren, gero ya sei urtekin ya, bueno, jun zian bixitatzea elejitzeko aber zein... zein izango zan eramateko, ze ume. Eta juxtu nei aukeratu ziyen ta sei urtekin ya eraman in zzien. Eta izan zan, bueno, udara baten edo hola izan zan uste det. Eta eraman zien eta, klaro, ba, hango ume bat inoiz ez duna ikusi kanpoko ezer, beste... osea, dana orfanatokua, ba, pues imaginatu dezakezu dana zala "en plan: ¿Qué es esto por Dios?, ¿Dónde estoy? en un avión. ¿Qué es esto? un avión, nunca he visto un avión...". Osea, dana zan "¡ostra, qué fuerte!".

- Bai, ezta? Gaiñea zuretzat, gaiñea, hizkuntza pentsatzen det' e bai...

- Klaro, hizkuntza're aldaketa... dana. Dana, dana. Osea, ba aldaketa izan zan dana. Orduan, dazkat imajen txikitxo batzuk, ba, ez dakit, ba... ba, bueno, ba, abioia hartzen... Hartu baiño lehen esaten nula "samulet" holako zeoze. Ez dakit ze esaten nun, uste det "samulet" zala abioia Bulgaroz eta hor esaten nun dana emozionauta "samulet, samulet" edo. Ta holaxe.

6. Ohiturak eta bizimodua

6.1. Gerraostean kultur ekitaldiak antolatzeko zailtasunak

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-003/009
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Aisia » Kultura » Dantza
Aisia » Kultura » Musika

- **Laburpena:** Anderren kuadrillak, 14-15 urte zituztenean, zerbait egiteko asmoa izan zuten, eta oso gazte hasi ziren kultur ekitaldiak antolatzen: dantzak, txistua, antzerkiak... Horrelakoak antolatzeko ezinbestekoa zen karlisten edo La Sallekoen laguntza. Bestela ez zuten baimenik ematen. Lehenengo urratsa, orduan, kontaktuak egitea zen. Beraiek kontaktu ona zuten Donostian, eta haren bitartez gehienetan baiezkotako baimena lortzen zuten. Urte batzuetara, inguruko herrietakoek ere zarautzarren bitartez lortzen zituzten baimenak.

Transkripzioa

- Garai haitan gu gertatu zitzaigun aurretikan ezer topatzen ez Zarautzen. Guk ya hamar urte, hamabi, hamalau, hamasei, gora guazten bezela, zeoze in in behar, ta gure kuadrilla zan dantzatan hasi zana, osea, futboletikan hasitako zea bat, ekipo bat futbolekoa, ya kostako partiduak laga giñunian dantzakin hasi giñan, txistuakin hasi giñan, ni txistulaia beti izan naiz, familiko zea izan deu. Geo laukotia prepaatu, solfeua eakutsi ta txistua ikasi, banda in, haiekin dantzaiak atea, dantza-taldia, neska ta mutil azkenea, antzerkiak euskeraz [...], ke garai haietan eundoko zea zan euskeraz itia zea bat, antzerki bat. Osea, hori dana iten ziñun ahal bazan beste bat aurea botata, zeatik zu hauntza juten baziñan ezezkoa ziñun. Orduan topatu behar ziñun baten bat karlistan usaia zuna o, giro hortakua zana o, firmatzeko eskaera. Osea, iten ziñun lana beti beste batzuk aurea botata. Eta, guk garai hartan iten giñuna zan, o frailetan baldin bazan o hermanotan baldin bazan, o bestetan zerbait baldin bazeon haiei bultzatzea jun. Hermanotan dantza taldea jarri nahi zuela? Txistulak jarri. Ta ordun zan grupo de esto, de baile de La Salle, e! Txistulak guk jarri. Parrokiyan o zeon, frailetan baldin bazan Antonianan, berdin. Ta guk dantzaiei karlistak eakusten jardun gea, gu txistua juaz, karo! Ta uandikan primeran eamaten naiz ordun, ordun eakusten jardun zianai. Baiña hua gabe ez ziñun ordia ingo. Entenitzen dezu? Osea, ez da uain bezela, uain zuk zerbait iten dezu ta aurrena hasten zea talde bat in, izena jarri, zeatu dezu, organizatu dezu hura, ta geo talde haren aktibidadia, ordun aldrebes zan. Osea, iten ziñun eozeiñen o zeon sartu, ta azpitik sartu, zeatik bestela ez zakazun iteik eta.

- Baimenak lortu...

- Geo hori, baimenak eta aurrena, aurrena prepatu ta geo hasten zan benetako gerra baimenak eta, antzerkiak iteko baimenak eta. Traduzitu in behar izaten zan, obra hartu euskerazkoa, erdera pasa ta erderakin pasa behar izaten ziñun zeatikan, Donostitikan. Han seilluak eman, autorizaziya eman.

- Eta, eta normalian baietza ertotzen zan edo ezetza?

- Bueno, hori guk sumatuta zekaun. Guk bagiñun bat han zeon, este..., Donostiyan zeona, zeon, Centro de Atracción y Turismo ordukua, zea zana, propagandakua. Eta han zeon geo, este..., Madriden sekretaio izan zan bat o kargo bat zarautzitarra zana, eta persona dextentia zan hixketan in in zeiken pertsona zan. Ukatu ez ziyozun iten, ze harek bazakin gu ze jai-girotakua giñan. Baiña haren bitartez juten ziñan, programak eamaten ziñun, seilluak jartzen zizkizun ta itxea etortzen zan. Eta azkeneako jarri giñan gu harei traduzitu gabe eamanda 're bai. Eamaten ziyozun, "Hi, hau bihar diyau, programa hola dek, hola ingo diyau", ta ba, "Ekarri hoi", ta-ta, seillua jarri ta bla! Ta ailleatu giñan azkenian bai Azpeitiyan, Zumarragan, Mondragoian, han baimenak ateatzen zailla izaten zuen, gure bitartez jun seilluak atea ta han iten. Hortaiño ailleatu giñan! Baiña sekulan esan gabe ze talde zan azpikua, hori... Zeatikan Zarautzen, txarrena Zarautzen bertan zeon, hamengo informaziya ematen bazizuen, ep!, "se acabó"!

- Eta hau guztiya noiz izan zan, ze urtetan?
- Bo, ba behin berrogeita hiru, lau, bost..., hortikan aurea, guk uaindikan hamabost, hamasei urtekin hasita. Ni txistua jotzen ibili naiz zazpi urtekin zortzi urtekin, aitakin ta, ta dantzaiakin ta.

6.2. Santa Barbarako mezak

- **Hizlaria(k):** Txurruka Egaña, Maria Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-004/019
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:31:57. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Bertako egunean bakarrik izaten zen meza Santa Barbaran. Marinelek ere ematen zuten meza euren kontura apaiza ekarrita, baina debekatu egin zieten.

Transkripzioa

- Ta, Santa Barbara ermitan lehen meza izaten al zan?
- Bai, bere eunian, bestela, eunero, ez, ez, ez, ez.
- Bere eunian bakarrik, bere eunian bakarrik.
- Bere eunian bakarrik. Eta gero bestela 're, maiñelak eta bazuen bokaziyua edo gogua, eta horrea etortzen zian aldizka eta ematen zuen meza ordun. Beak ekartzen zuen apaiza ta, eta. Geo, hori 're, ba, prohibitu in ziun bikayuak, bere territorioa zala hori, ta haren berriik gabe, permisoik gabe ez zeola hor emateik mezaik, eta. Bakoitzak bere agintia, izaten den obedientzia!

6.3. Santa Barbarako ospakizunak

- **Hizlaria(k):** Txurruka Egaña, Maria Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-004/020
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Dantza asko egindakoa omen da. Santa Barbara egunean egiten zen erromeria. Apaizaren inguruko kontuak. Ze musika izaten zuten jaietan.

Transkripzioa

- Ta festa eiten al zan, festa? Ze mouzko festa iten zan?

- Ni 're earki dantzatzen nitzan! Gogotsua nitzan eta alegria, eta, geo, baiña oso zea, e, ez [...] batere neure, zea, kontserbatu zun nik nere garbitasuna, asike...

- Erromeia iten al zan, erromeia?

- Erromeia, bere eunian bakarrik iten zan, bere eunian bakarrik iten zan.

- (A) Hori kalian urregi dao barriyotzat kontatzeko [...].

- Toki txikiya ta, jende asko ez zan izaten.

- Ta, agarraua iten al zenuten, agarraua?

- Agarrauan? Azpeitiyan debekatuta emen zeon, agarrauan iten zana pekatua emen zan. Eta geo dana mojak juten zian!

- Ta zuek iten al zenuen agarraua?

- E?

- Agarraua iten?

- Guk? Ba! Ez, librian, ta gero helduta, ta gero librian ta. Tarteka, aldaketan ibiltzen giñan. Batian ein dantzaldiya zean, eta geo agarrauan. Geo ordun libre, ta berriz 'e agarrauan. Hori, toketa hoiek 'e izan zean, jotzen zituela soiñuan, bai.

- Apaiza nor zan, ordun? Nor zan apaiza ordun?

- Apaiza hori? Hor [...] zeon apaiza, eta beak 'e pianuan soiñuak jotzen zitun, e, ta-ta-ta-ta-ta-ta.

- Ta hemen ordun soiñua eoten zan, hemen, Santa Barbaran.

- E?

- Hemen, Santa Barbarako festan soiñua.

- Soiñua ekartzen zuen...

- (A) Zea, filarmonika o. Bai, bere egunian bakarrik, e!

- Bai, filarmonika edo ekartzen zuen, ta geo beste tanbor haundi bat ekarri ziñen urte batian. Ta Joxe Mari Gastakak esan "zeiñek ekarri du tanbor haundi hori?". Hari ez zitzaion gustatu haura. Geo, paatzeko 're harek haundiya nola zan, gehio izango zun baliyua, edo, ez dakit izango zun pena hori edo zer zan...

6.4. Gerra aurreko sendagileak

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Barrenetxea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-005/024
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** 1944an jarri zuten seguritate soziala. Medikuaren bisita bost pezeta inguru ordaintzen zen. Gerra aurreko sendagileak: don Pako Agirresarobe, Goñi, don Leandro.. Lanean hasi zirenean bazuten medikua.

Transkripzioa

- Orduan, berrogeita lauian seguridade soziala?

- Berroita lau. Zeak jarri zun, Quironek, [falangista 're], Francon [pistoleruak 'e]. Meikuak oain bezela ez, oaingo anbulantziyakin, ta bueno... Nik...

- Gaixotu ezkeo 're, meikuana jun, hainbeste ez zitzaion kaso ingo?

- E?

- Zuek umek ziñatenian, umiak ziñatenian, hainbeste kaso in ere ez? Zeoze izan ezkeo...

- Ez, ez. Orduan, ni gaztia nitzanian ta, meiko bat [...] zan, bixita. Bost pezta o ez dakit ze izaten zan, usten det, ta, ba, hori.

- Etxea etorriko zian, ez?

- E?

- Etxea etorriko zian?

- Bai, ba, etxea. Ordun meikua etxea.

- Zein zan meikua? Gogoratzen zea?

- A, orduan zian, gure denboan zan, e, zea, Don Paco Agirresarobe, kantantian anaia, zea, bestia Goñi. Geo, Don Elandro, Don Candido. Ta geo Uranga ta, geo bestiak etorri dia, baiña orduan, orduan Don Paco, Don Leandro, ta Don Candido. Don Candidok meikutza laga in zun meikua izanagatik. Alkate jarri zanian, meikutza laga in zun. Ta anaiak segitzen zuen. Ta gure, gerra aurretik meikuak zian Goñi, Don Paco, Don Leandro,... Don Paco, Goñi, Don Leandro... hiru hoitxek izango zian. Geo etorritakuak dia bestiak, beste, Uranga ta haiek 'e, geokuak dia. Geo, Rubio ta... Baiño lanian hasi giñanian, bagendukan zea, meikua, Pakea o soziyuen, han afiliatuta zeuen enpresak meikua zaken. Ta handikan izan nun nik Rubio [...], ta harekin jaio zan familia.

6.5. Noiz egin zuten San Pelaioiko eskola

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Xabier - Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-007/013
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:30:21. **Bukatu:** 00:34:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Noiz egin zuten San Pelaioiko eskola. Herriko jendeak egin zuen eskola harriak behiekin ekarrita. Haurrak kabitu ezinda ibiltzen ziren eta handitu egin zuten. Ondo prestatuta zegoen eskola, kalefakzio eta guzti. Imanol Murua alkateak asko lagundu zien bera ere San pelaiotarra zen eta.

Transkripzioa

- Ta, noiz jarri zian hemen Iñurritzan eskolak?

- Ba, izango nitun nik, behintzat, [...], orduan dan-dana in zan. Basarritarrak harriya zea, harrobiya bazan, geneukan zean, kostan bukaeran, eta handik harriya ekarri baserrita, Miako hortatik, eta iriya zakena dana, harri ekarri hor. [...], Txindurritakok, Soazukok, eta San Pelaioiko zea, hamen ez zan iriikan. Behiak bakarrik izaten zian hamen: bi behi batek, bestiak hiru behi, Etxe Beltzen ta lau o bost hoiek, baiña beste dana... Eta hamenguak piontzan. Ta hala in zan. Ta eskola bat ein zan, planta batekua. Ta seituan zea, hirurogei ta gehio, ta ezin. [...] ta geo, bestia in beharra zeola, ta geo herriyak in zun goikua. Ta horreatikan dakau guk zea, jubilatuan zea...

- (A) Soziedadia.

- Soziedadia. Zeak eskola berriyakin hasi zianian, [...] in zituenian, hori bota in behar zuela ta, ez, San Pelaioquia zala bat. Ta Imanol zeon ordun, ta Imanolek hua 're San Pelaiotarra zala esaten zun, ta ein giñun zaharrantzako zea. Hortako, zeak, [...] zun ayuntamientuak zeak, bailletak, o, zea, dantzaiñea, zea hori izatea...

- Dantzaiak, bai. Nik ezautzen ditut hor dantzaiak...

- Ez, ez, ez...

- (A) Baleta, baleta.

- Baleta. Bueno, eta Don [...] etorri ta, nada, [...] eta, este, kontratista zein zan hua? Aiakua, hil zan, uaindik uaiñea hil zan.

- (A) Ibarguren.

- E?

- (A) Ibarguren.

- Ibarguren, bai. Hua, ta "ze ai zeate?" esan niyon, ta, "bai, hogeï milla duro prestatu dizkiye zeak", eman zizkiyon ikastolak handik pasa jartzeatikan. Ta jarri zun entrada lehen hiru zeakin, eskolak bihiak jostatzeko ebiya zanian ta. Ta, geo zitun bi piso: bat mútillantzako ta bestia néskantzako. Eta hau zeantzako dek ederra zeak, han, kalia jarriya zio, oain in die, ez.... kalekua baiño lehen konsegitu nun hori. Nik kalia juntako eon nitzan, hango zaharrantzako zea iteako, in baiño lehen, hango juntakuakin. Eta hala, eskatu in giñun eta zeak baietz. Esto... ez, ez, [...] pareteko zeakin, esto, kalifaziyo ta argiya ta dana. Bastante neretzat, bertako baserritarrak juteko primerakua. Ta hala zea konsegitu gendun, halaxe konsegitu gendun. Ta geo, eskola zeon artian, baiña Isidora zeon, Isidora, Ziotza, Aristi. Ta, "ederki pentsatu dezue, Santos, ta gu laiste jun behar deu ta bestia iten badue hara". Ta geo guretzako geatu zan. Ta lehenbiziko pisua hartu zuan zeak, iten zuen hor ba, buziñakin ta artia.

- (A) Zuek ezautuko zenduen, zea?

- Bai, bai.

- Holaxe zeatu zian hoiek, holaxe konsegitu gendun. Orduan zeak asko laundu zigun, e, San Pelaiotarra ta Imanol [...].

- (A) Imanol ordun alkate zan ta, bai.

- Geo, Gran Hotelakuak laga zuen, ta han, bakizu, mahaia ta sillak eta zeak eta... Haiek 'e konsegitu giñun, zeai, Gran Hotelakuai ta, ba, zea, Manolo Aranguren eo hemen zeakin, furgonetakin ekarri, ta, halaxe [...] in giñun.

6.6. Eskolako kontuak; Maxi irakaslea

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Buenetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-008/002
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Juana Lizarralde, 90 urte. Sei urtetik 12 urtera arte eskolan ibili ziren ahizpa guztiak, Maximiliana Orokieta irakaslearekin. Kanpotarra zen. Irakasle guztiek erdaraz egiten zuten. Erdararekin izaten zituzten arazoak.

Transkripzioa

- Bueno, nor zean esan zazu, ze... zenbat urte ta nungua zean.
- Ni hemengoxia. Hementxe jaiua. Juana Lizarralde Buenetxea.
- Zenbat urte dituzu?
- Ba, oain, lehengo hillen larogeita hamar kunplittu nittun, hogeita lauan.
- Hogeita laukua.
- Hogeita lauan, bai.
- Hogeita laukua. Bertan jaiotakua zea?
- Bai.
- Jontxo! Ta, nola gooratzen dezu umetako garaia ta? pixkat, gurasoekin ta nola?
- Gu ondo gurasoekin. Guraso onak giñun, ta eskola 're bialdu giñuen, ba, sei urten hasten zan ordun eskola, seitikan hamabira arte eskolan ibili giñan. Bost ahizpa giñan, ta danok ibili giñan eskolan. Orokieta, Maximiliana Orokieta, horrekintxe ibili giñan.
- Maixua zan hori?
- Maixtra.
- Maixtra.
- Maixtra zan, bai.
- Orokieta?
- Orokieta, Maximiliana Orokieta.
- Eta nun, nun zeon, eskola nun zeon?
- Oain zaharren zea daon hortan.
- A!
- Mutillena auskaldetik zan, ta nexkana alde hontatik.
- Oain jubilaun toki hortan, Udaberriko hortan?
- Bai, bai, bai, bai, hortxe. Hortxe zan.
- Ta, beste maistra izenik eo gogoratzen al dezu?
- Gu harekin bakarrik ibili giñan, ta geo, ume gehiegi zeatu zitzayon, ta geo beste maixtra batzuk ekarri zittuen.
- (Alaba zaharra) Nahi dezu esatia nola izena zuen?
- Zeiñek?
- (AZ) Beste maestrak, porke ni haiekin ibili nitzan.
- A, bai?
- (AZ) Pakita, Felisa, Nikolasa y Maxi, Maximiliana. Orokieta, oain dauden herriko eskolak bean apellidua dake. Bai, zan instituziyo bat Zarautzen.
- Maximiliana?
- (AZ) Bai.
- Bera, nungua zan bera?
- Artajona.
- Artajonakua?
- Bai.
- Ta maistran batek ba al zekin euskeraz? Dana erderaz iten zenuten eskolan?
- A, bai, dana erderaz.
- (AZ) Honbre!
- Nere ahizpak, zaharrenak, ni biarrena naiz ta bueno, eta, eskola hasi ta klaro, ezer entenditzen ez. Hillebete oso-osua nearrez pasa omen zun, nearrez hillabete oso-osua, e. Ezer entenditzen ez ta, baiña handikan aurea ikaagarri lista omen zan, oso lista, e. Monja jun zan ta, Hodarribiyan pasa dittu urte asko ta hill in zan. Hil zan, hil zan nere ahizpa zaharrena.
- Ta, ze oroimen, ze rekuerto daukazu eskolako?
- Ona! Ba, [...] zuen pixkat, e, baiña, ba, ez, gui ez zigun zea txarrik behiñ 'e iñ, e, kastigu txarrik eta hola ez. Zaplazteko batzuk eman bai, baiña...
- Ta, nola juten ziñaten eskola, nola?

- Oiñez, nola jungo giñan, ba!
 - Oiñez. Bizikletan ez?
 - Bizikleta? Ordun ez zan bizikletik.
 - (AZ) Guk 'e ez gendun izan.
 - Garai haietan bizikleta hemen ez zun iñork 'e, ezta iñork 'e. Pentsa zazu, larogei urte, oain larogei urte bizikletaik ez zan izan 'e ingo seguru asko, baserrin ez eta kalia 'e ez, kalia 'e ez. Oiñez, oiñez.
 - Ta, e, zea...
 - Lokatzetan, ta eurtan, ta zean, oaiñ aiña zea, zira ta, oaiñ aiña ezer ez! Holako gauzik ez zan! Abarkak jantzi, abarkak, abarketan gaiñen, eta geo haiek eantzi eskola juteako, ta halaxe.

6.7. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Buenetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-008/004
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:07:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Eskolan ez zuten asko abesten, baina errezatu bai. Jolasak: sokasaltoan, txingoka, kaniketan, xakaponetan..

Transkripzioa

- Garai hartako zeaikan, kantuikan edo zeoze gogoratzen al dezu, kantuen bat, eo... eo, jolasen bat eo...
 - Ez dakit, ez naiz akordatzeko.
 - Kantatu ta iten zenuten eskolan?
 - Ez, asko ez, errezatu. [...] gendun sarreran eta irteran 'e bai, baiña kantatu ez, kantatu ez gendun iten.
 - Ta, garai hartako jolasen bat eo hola gogoratzen dezu, izena edo jolasen...?
 - (AZ) Txingoka.
 - Petrillan gaiñen 'e saltoka ta holakotxek. Halakotxek, bai. Sokasaltan ta, txingotan ta, hoietan bai, hoietan ibiltzen giñan, hoietan ibiltzen giñan.
 - (AZ) Kanikak ez, ama?
 - E? Kaniketan 'e bai.
 - Ta, sokasaltuan kantatzen, kantatzen zenuten zeoze, edo?
 - Ez, sokasaltuan ez gendun kantatzen.
 - (AZ) Bai, kantatuko zendun...
 - Guk ez behintzat, oain ya ez dakit.
 - (AZ) Nei 're ahaztu zaizkit.
 - Ta, neskak kaniketan?
 - (AZ) Honbre!
 - Bai? Neskak kaniketan, neska gaztiak?
 - Iual, iual, zeatik ez, ba?
 - Bai, e?
 - (AZ) Bai.
 - Ta beste, primeratxuk esaten ziyon, holako zea batzukiñ 'e bai, o platera,

o katillu o holakuan pusketakin ta 're bai kanikik ez zunak.

- (AZ) Eta, xakaponetan...
- Guk kaniketako ta diruik eta ez gendun izaten...
- (AZ) Ta xakaponak?
- E?
- (AZ) Xakaponak?
- Bai, xakaponak bai.
- Zer zan hori? Xakapona zer zan?
- (AZ) Ba, da...
- Hori, arkumian hexur bat izaten da, barrutik... horrek lau zea izaten dittu, ta...
- (AZ) Pelota bat bota gora ta buelta eman behar ziñun, ta...
- Hori, bai, hoiek 'e.
- (AZ) Hoiek zian lehengo jolasak.

6.8. Gerraostean zer jaten zuten

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Buenetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-008/021
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:26:44. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Gerra-ostean ez zuten goserik pasatu, babarruna eta ogia izaten zuten eta. Garia egiten zuten eta gero Errota-berrira joaten ziren, etxean ogia egiteko. Zer jaten zuten. Orduan arraina merkeago egoten zen arrautzak baino eta amak arrautzak saldu eta arraina ekartzen zuen.

Transkripzioa

- Gerraostian gosia pasa al zenuen?
- E?
- Gerraostian gona pasa al zenuen?
- Ez, guk ez.
- Baserriya eukita ez, ezta?
- Baserriyan beti zeoze bado ta.
- (AZ) Patata ta babarruna [...], ta itxian ogiya in. Guk goseikan ez gendun pasa.
- Babarruna ta ogiya ta bagiñun ta, haziya 'e bai ta, bakizu, zeoze. Ez, ez gendun goseik pasa.
- Gariya ta iten al zenuten, gariya ta?
- Bai, gariya ihartzen zanen pixkat, Errota Berritan zea zeon, errota, eta zaku-murtzilla horrelakua zeatu ta hara bialtzen gendun, ta geo etxian ogiya in. Ogiya in behar etxen, jango bazan. Bestela [...] hua 're in in behar, ta erre ta jan. Etxian [...] gustoena!
- (AZ) Ta, talua 're, ama? Talua esniakin goxo-goxua.
- Talua ta 're bai?
- Taluak 'e bai, baiño nei bazkaitan talua ez zitzaiten gustatzen.

- (AZ) Ez, hori esniakin jaten genun, ama.

- Gauetan, igual, afaltzeko.

- Goizian ta gauen. Ta, eguardiyan ogiya.

- (AZ) Talo ta esnia, para mi era... Oaintxe jango nuke nik talo ta esnia! Era un manjar para mí. Urtiak ez detela jan hori.

- Gerra-ostean zer jaten zan gehienbat? Hola, egun, egun normal batian? Zer jaten zan?

- Zer jango zan, ba? Babarrunak! Basarrin beste gauzik ez da! Jaien babarrun zuriya o garbantzuk eo hola, haragi egosiyakin. Eta, hoixe, postreik eta ordun ez zan izaten. Eta zean, berriz, astegunian, berriz, babarrunak... Plater haundi bat babarrunak.

- (AZ) Eta gaiñian katuarraia, ama.

- E?

- (AZ) Gaiñian katuarraia.

- Bai, katuarraia izango gendun noiz o noiz. Bai, gure amak, bere arrautzak bere bihotzeko gauzak zitun, klaro, ordun. Oain, arraia askoz garestiyo do, baiña ordun, arraia merkeo izaten zan, arrautzak baiño. Ta ordun, arrautzak saldu itten zittun ta arraia ekartzen zun.

- (AZ) Ta oliyua ta gauzak...

- Jateko zeaik, faltik ez gendun izan.

- (AZ) Eraman in behar zan zeoze.

- Bestela, arrantzaleik eta ez da izan hemen, etxean, familiyan arrantzaleik eta ez?

- Ez.

- Ez.

6.9. Neskazaharren arteko elkarrizketa jasotzen duen kanta

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Buenetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-008/024
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:37:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Zazpi barkilleroen kanta gogorarazten diote. Hiru-lau bertso abesten ditu. Bertso hauei buruzko komentarioak egiten dituzte.

Transkripzioa

- (Alaba zaharra) Ama, ama, zazpi barkillerona ta kantatu zazu, zazpi barkillero ta...

- Bai, zea kantatuko ñau hemen...

- (AZ) Ai! Hori galdetzen ai zazu, ama.

- Bai...

- (Alaba gaztea) Nola zan hua? "Aizan, hi, Manuela, / zenbat urte ditu? / Neriak hogeita hamasei / kunplituak ditu. / Baldin orain... ditun...".

- (AZ) Ama, badakizu.

- (AG) Nola zan, ama?

- Hori oso polita da.

- (AG) Oso politak dia hoiek, dia...

- Bai, bai, bai, bai.

- (AG) Behin nik atera nun letra.
 - Hoiek bertsuak dia! Bai? Idatzita al dakazu?
 - (AG) Ez, ez dakit nun dazkaten. Atea nitun, ba, ez dakit, zea baten o hola kantatzeko, baiña ya ez dazkat. Oso politak dia hoiek.
 - Hoiek bertsuak dia.
 - (AZ) Ama, badakizu.
 - Barkilleruna, barkilleruna, zazpi barkillero.
 - (AG) "Aizan, hi, Manuela...".
 - Ez. "Aizan, hi, Grabiela, / zenbat urte ditu? / Neriak hogeita hamasei / kunplituak dittu. / Baldin oraingo txandan / ezkontzen ez bagaitun, / geure bizi guzian / neskazahartzen gaitun".
 - Hau da polita, oso polita.
 - (AZ) Eta gehio, ama?
 - Oso polita.
 - (AZ) Ez dakit zenbat barkillero ta...
 - (AG) "Hiriak hogeita hamasei / ditun honezkero"...
 - "Baiña neska-zahartzerik / ez diñat espero" ...
 - (AZ) "Zazpi barrendero" ...
 - (AG) Ez.
 - "Zazpi barkillero ta...", ez, ez, ez, nahastu in gaittun.
 - (AG) Ta bat txikiratzaillia 're bai...
 - Nahastu in gaittun, ez din baliyo horrek.
 - (AG) Ba, kotxen juten giñanen, ba...
 - "Nik ere badizkiñat / lau txikiatzaillie, / zazpi barkillero ta / lau harpa-jotzaillie./ Eta gaiñera hiru / kale-garbitzaillie, / bi kabu primero ta / lau harpa-jotzaillie".
 - (AG) Ez, harpa-jotzaillia esan dezu lehenen 're!
 - Ba, hoiek ez, ez, ez dia aitzen iñun, e!
 - Nik ez ditut sekula entzun.
 - (AZ) Ke ba, zahar-zahar-zaharrak dia.
 - (AG) Eta, oso politak dia. Dia...
 - Bai.
 - (AG) Dake txispa bat, bueno...
 - Hori aterako bazenute paperian... fenomeno!
 - Ez ditut sekula entzun nik...
 - "Oso itsusia den / neskazahar izena, / aditu hutsarekin / hartzen diñat pena. / Oiñ eukirikan / sasoirik onena, / hauxe lastimagarri / gu biyok gaudena".
 - Oso polita, e, oso polita.

6.10. Dantza-kontuak; debekuak

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Uranga, Antonio; Uria Mancisidor, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-009/027
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
 Aisia » Kultura » Dantza

- **Laburpena:** Dantza-kontuak. Normalean soltean egiten zuten, baina galarazita zegoela ere egiten zuten. Neskak kongregazioan egoten ziren eta dantza eginez gero bota egiten zituzten. Zarautzen bazen dantza helduaren kontrako bikario gogor bat.

Transkripzioa

- Dantzan ta, ze, ze dantza? Solte?
- (A) Sultua.
- Ta agarraua?
- (P) Biyak.
- Biyak, baiña beranduao, beranduao.
- (A) Beranduo, agarraua uzte ez zan garaia o zea ezautu nun nik Urtetan 'e.
- A bai, e?
- (A) Bueno... Zarautzen hor bazan hor zea bat, bikaio bat, bueno! Haekin ze zea ibiltzen zian hemen! Galaazita eoten zan baltsan ittia, ta zea, Musika Plazan ta jundakuan bai...
- (P) Bai, ba, kongreaziyuan, kongreaziyuan eoten zian nexkak zinta jarrita ta, hillen behin komuniyoa jun ez ta, kongreaziyua izaten zan eta, esaten zitzaiona ta. Geo baltsen ta iñ ezkeo mutillakin ta, hoi bikaiuak kongreaziyotikan fuera.
- E?!
- (A, P) Bai.
- Ta konfesau in behar gaiña!
- (P) Eta konfesau in behar, hombre!
- (A) Konpesatu, bai, hua txarrena! Hua txarrena izaten zan! Beno, ta geo, hemen zearako behintzat, Urtetako behintzat bikaio harek zea haundiya zun, gorroto haundiya o. Hemen baltsen itten zala, ta honei eutsi nahi izaten ziyon xuxen.
- Ta etorri iten al zan bera?
- (A) E?
- Bera etorri...
- (A) Ez, ez zan etortzen, baiño, nolabaitt enteatzan zana zan, izaten zian ba, bertan 'e nunbaitt eo... uain aitzen dittugu...
- (P) Uain, uain txibatua esaten zaie, baiño lehen 're izaten zian...
- (A) Uain, uain aitzen dittugu igual, nola, nola itten zuen, hua enteatzan dana izango zan. Ta oso gogorra zan hua, bikaiua.
- Ordun, gehienbat jaietan dantza kontua.
- (A) Bai, bai.
- (P) Bai, dantza. Gu pexta jun ta bueno...
- Herri kirolak eta izango zian, ba?
- (P) ... soiñuba hasiko zan, eta uain bezela, jendia iñor dantzan hasi gabe ta ez. Ya, kuadrilla jartzen giñan, ta bueno, dantza. Arratsalde guztiyan dantzan.

6.11. Eskola

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-011/003
- **Iraupena:** 0:07:14. **Hasi:** 01:03:23. **Bukatu:** 01:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Zenbat ziren familian. Baserrian nortzuk bizi ziren.

Txikitako kontuak. Noiz hasi zen eskolara. Maisu-maistrak nortzuk ziren.

Urtetako eskola noiz kendu zuten.

Transkripzioa

- Eta, zenbat, zenbat anai-arreba ziñaten baserriyan?

- Gu, hamar izan ta* zortzi hazi, bi txikittan jaio ta beehala hillak.

- Zenbat neska ta zenbat mutil ziñaten?

- Ba... bizi giñan lau neska ta lau mutill, zortzi.

- Eta, zein gehio bizi zan baserriyan zuekin?

- Pues, amona eta aita-amak.

- Eta, gogoratzen dituzu txikitan, zure txikitako urte haiek baserrikuak? Ze iten zenuten ta?

- Ba, eskolan hasi nitzan kumuniyo txikiya in ta, ein ta segituan, eta zortzi urte nittunian jun zan maistra, bakaziyuak hartu zitun, ta gehio ez zan etorri. Hurrena etorri zan hamaika urte nitunian, ta orduan 'e [...] zenbat ingo zitun ba, urte pare bat eo. Albisturko hua zan gaiñea. Ta berriz 'e alde in zun, eta, geo, aitona zahar bat bazan, hola, eskian ez baiña, zea, Parrokiko Santo Kriston eskia ta Urtetako San Sebastianen eskia, bi, neguan bi txandetan ibiltzen zan. Zeakua zan, hor, Lasartetikan, Añorgaldeako horkua, zea, etorrita ta sei duro entregatzen zitun Urtetan. Ez dakit beak gixajuak zenbat irabaziko zun! Ta, hua 're tartietan, hillabetian bat eta zean, baserri baten ta besten ta, ta guri eskola ematen jardutzen zan, baiña, ez zekiyan zean... Dotriña eakusten ziun da, errezuak eakusten zixkigun da, eskribitzen 'e eakusten ziun, baiña kuentetan ez zekiyen beak, eta... hola zeatu giñan. Eta geo, nik zenbat urte nitun?... Hamahiru, hamabost, hamabost urte o, holako bat izango nittun, o igual gutxiyo, ba, hortxe, hamalau urte o, Mugika maistra etorri zan, azkoitiarra bea izatez. Gizona Bergarakua zun, eta pintoria, ta Ameriketa junda ta ibiltzen zitzaion. Harrek in zittun bastante urte, harek ingo zitun dozena erdi bat urte, bai. Ta geo, aldi batian beste maistrik ez zan izan. Ni ezkondu ta geo zeakua, este..., Aiten-Etxeko hortan bazan beste palaziyo legeko bat, nola esaten ziyoen harei?

- (Alaba) Montetxio?

- Montetxio! Montetxiokua, hola, burua 're oso ondo ez zuna, hua 're...

- (A) Oain Montxio...

- Bai...

- (Laguna) Muntxio, bai. Hor itxe bat zan.

- Hua ta, hola ibiliyak zian geo. Hua 're denboa pixkaten bai, ta geo Donositikan etorrita 're bai ta, hola ibilli zian, urte batzuek pasa zituen gure baiño gazteaokuak, ni ezkondu ezkeoko kontuak.

- (L) Baiño, zu ya alde inda handikan...

- Bai, handikan alde inda ni. Eta geo gerra altxa zanian, Mugika hua 're hemendikan alde in zun, ta gehio ez zan bueltatu. Eta geoztikan zeoze maistra o berriz 'e kastillana, euskeraz ez zekiyana o, izan [...] beste urte paren baten eo hola geue gaztiak. Eta geo akabo gehio. Geo, hurrena eleizan da, zean, obrak eta iteko ta, orduan kanbiatu zan, kamiyuak eta Urteta orduan in zian ta, denbora haietan in zuen ba, eskola hori dana erdi ustelduta omen zeon ta hua kendu ta obrak in zituen. Eleiza arreglatu eta zea 're ein ziyoen, portikua 're, zea, Jesus Maria, hori, nola esan behar det...

- (L) Zibitayua?
 - E?
 - (L) Zibitayua?
 - Zimitayua! Zimitayuakin ta, hola prepaatu zuen da eskola hua ya kendu zan, usteldua zeon ta. Eta geoztikan, ba, Zarautza eskola ikasi behar zunak.
 - Euskeraz edo erderaz eman zenun?
 - E?
 - Garai haietan euskeraz o erderaz ikasi zenun? Han lehenbiziko...
 - A! Nik, guk, euskeraz, baiño zeak, zazpi urtetikan ... a, seiekin hasi nitzan, eta zazpi urte tarte hortan zea zan, Juliana, Doña Juliana, Ziotzaneko Pedron andria, irundarra.
 - (L) Hura gero San Pelaion eon zana?
 - Bai, hua zan aurren-aurrena zea etorri zana... Urteta etorri zana. Hemezortzi urteko nexka gaztia, geo, bestia, hamasei urtekua, laguna, ahizpa, etorrita, Maritxu, eta... baiña haiek 'e, esaten due ba...
 - (L) Erderaz haiek 'e, o euskeraz?
 - Erderaz eakusteaagatikan jartzen ziun kastigua, belauniko, besuak zabaldua, euskeraz iten gendulako, ni baiño zaharraua...
 - (A) Baiña beak bazekiten euskeraz?
 - Bai! Baiña gu erderaz ikasteaatikan zan hua. Eta hantxe, danak ibiltzen zian: 'venir y llegar '... euskera batek baiño bestiak baldarrao eiñez, ba, ahal zan mouan.
 - Ta zer zan 'venir y llegar '?
 - Etortzeko 'venir ' eakutsiko ziyoen ta han bazian batzuk hola hitz eiten zuenak, gaizki!

6.12. Garraioa: kotxe landua eta kotxe "sexta"

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-011/021
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 01:01:15. **Bukatu:** 01:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Arrantzaleak Getariatik etortzen ziren. Gaztea zenean ezagutu zituen lau zaldi eta kotxe landua eta kotxe "sexta" Zarautzen. Kotxe bakoitzak bere zaintzailea zuen. Landua dotoreagoa zen eta tapatua, gainera. Getariara halakoetan ibiltzen zen jendea. Getariara bidean olatuek ikaratuta zaldiak okinari pasarazitakoa kontatzen du. Don Leandro medikua.

Transkripzioa

- Orduan, izan 'e, arrantzaliak 'e, arratsaldian Getaitikan nola etortzen zian? Jesus! Bazan espresa esaten ziyoen batei, Benita izena zun. "E, tokaia!", esaten zian, ikasi zun, ikasi zun ta, goizian etortzen zan baldeka zeakin, baldekakiñ o, batzutan otarrakin, eta, "Bai, ze? Getaian arraia gutxi do ta, gutxi do ta" esanez, korrika iñez. Automobill eo zeaikan ez zeon,

Getaikotikan, zalduyakin ibiltzen zian denbora hartan, Pelaiotarrak. Es ke, ez zan orduan zeaikan...

- (L) Autobusik ez.

- Ez. Nik Otamendiñen 'e ezautu nitun lau zaldu. Eta kotxe landua, elegantiaua, eta bestia sexta, kotxe sexta, Juanito Azpirozen bataioa hala jun giñan. Kotxe landua, ta han Martelo txikiya, haren kuidaokua. Eta sextan kuidaokua zan Javier, Kirikin, Luis Kiriki difuntuan andria...

- (L) Hemen bizi zana, ez, Javier?

- Bai.

- (L) Hor, itxe hortan bizi zana?

- Bai. Jexuxita, Jexuxita, Jexuxitan aitona zan beste kotxe sestakiñ ibiltzen zana. Eta haiek zian, Otamendiñekua zan itxe xahar hua. Zean, Pioneko etxian aurrian kastillanua dao, gallegua o, ta haendikan, haendikan Parrokialdea, harei peatzen zaiola Parrokialdea zan beste etxia, hua Otamendiñeko... Ta han ibiltzen zan, han eukitzen zituen zalduyak eta karruak.

- Landua ta sexta ta hoiek zer zian karruak, zalduyan atzian eoten zianak?

- Bai.

- Kotxia baiño aurreakuak.

- Bai, bai. Automobilla baiño lehenokuak.

- Ta han zenbat pertsona sartzen zian?

- Ba, kotxe landuan Juanito Azpirozen bataioa jun nitzan ni, Martelo txikiyan onduan, tartakiñ, eta beheian zian aita eta Mari Tere ta bere umiak eta, huaxe. Eta geo, kotxe sextan madrina ta padrinua ta.

- Eta ze diferentzi dao kotxe landua ta sextan artian?

- Kotxe landua zan eleganteaua. Ta bestia zan sexta, ya... nola dia hemen minbrezko silloiak bezelakuak. Bai, hola, hola, hola indako zea sentzillo bat. Bi lagun aurrian ta bi lagun atzian eo hola. Hua kapotaikan eta gabia izaten zan, hua sentzillua. En kanbio, kotxe landua tapa, zea, kotxe zeakok bezela, eleantiaua hua, ya hua tapatzen zana. Aurria irikiya, e!

- (L) Eta Getaira ibiltzen zian hoiek, ezta? Getaira ta ibiltzen zian hoiek?

- Bai, Getaira ta ibiltzen zianak, zea, Errustanekua, Joxe Maitxo, ogiyakin ta ta jutun zan, eta Getaiko Pelaiok eta 're holako zea zuen, korrienteaua, han ya jendia ibiltzeko ta ya haundixeaua. Geo Joxe Maitxo 're [...] zan ogiyakin ta Getaira, eta olatu izugarriyak, ta, zeara, kamiya hua zeatzen ta, zalduya zeatu zaio, sustatu zaio, eta ogiyak eta zeak bota ditu, ta Joxe Maitxo 're bai, ta hanka hausi Joxe Maitxo Errustai. Ta Don Leandrok jarri, Don Leandro mediku langillia zan, ba, gixajua.

- (L) Hezur danak konpontzen zituna hemen.

- E?

- (L) Hezur danak konpontzne zituna.

- Hamaikai bai, hamaikai bai, Jesus! Eta Joxe Maitxoi 're beak jarri ixtarra, ta geo, bea etortzen omen zan pausuak eta eamatea ta ibiltzea ta, zea, atenditua 're bai gaixuakin Don Leandro.

6.13. Txolarreak harapatzen zituzten kalean

- **Hizlaria(k)**: Markaide Etxabe, Juan Jose; Olazabal Iruretagoiena, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-015/009
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:13:11. **Bukatu**: 00:16:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa

- **Laburpena:** Kale-baserri asko zeuden Zarautzen, eta ohikoa izaten zen ganaduak kalean ibiltzea. "Paxo"-k zepoak jartzen zituen kalean, ganaduen gorotz artean ezkutatuta, txolarreak harrapatzeko. Gizon bati egin zioten adarjotzea.

Transkripzioa

- (P) Hi, hoiak egiya dituk, e!

- (M) Nik, nik, bazekat... Jo, nik honekin, akordatzan naiz ni, kontatu izan diyat askotan. Nola dian gauzak, e? Hau bizi zan, Otzarretaneko nola karnizei hori? Itxe hortan bizi zan, hori zan honek esan duna, hor...

- (P) Bai.

- (M) Eta, pentsa zazu, jo, behiak eta ibiltzan zian kaliaz hemen... Etortzen zian baserriarrak eta behiak ta ibiltzan zian hemen kaliaz, normal, gauzak eta eramatea. Ta, porke, kale baserriyak 'e bazeben hamen. Zeanakua, Makatzanakua ta hamen, zean 'e bai hamen, e, Zigordi kaliaz nola dao hor, kaameluak eta nola dabe?

- (P) Pipas.

- (M) Hor frentenian 'e bai. Hor frentian 'e basarriya zan. Eta, kao, pasaran, zeak, este, ba, behiak eta kaka iten zuen. Ta hau, ni akordartzen naiz, garai haitan, e!, zean, e, bueno, hor, nola dao zea, este... Asador Lagunak? Hortxe frentian, kale hori dana zan adokiña, adokiñakin. Ta behiak eta kaka ta iten zuen, ta hau juten zan, ta zepua jartzen zun txolarriantzako zepua jarri, artaliakin, eta bere itxeko eskatsetikan beira eoten zan hau. Ta, ba, txolarria juten zanian, txolarriak, e!, joe! ta jateko, gaiña, e! Ta, ta!, harrapatzen zunian, korrika jun, ta. Pentsa zazu, jendeik eta ez zan ibiltzen. Kale erdiyan zepua jarrita txolarriak harrapatzen garai haitan.

- (P) Kilometro batea ikusten bazian, jo, "hemen dek!", eta.

- (M) Hau, joe! Txolarretan ta ona.

- (P) Txolarretan, joe...

- Zer da txolarria?

- (M) Txolarria da gorrión.

- Hormatxoiya.

- A!

- (P) Bai, hamen Zarautzan txolarria esaten da, ta geo, beste herri batzuek, igual, patxi zarra esaten da.

- (M) Bai, Zumaian, Zumaian patxi zarra usten det esaten dala.

- (P) Azkoitiyan nola esaten due?

- (Paxoren iloba) Kurloie.

- Kurroia.

- (P) Kurloie, bai.

- (M) Hemen txolarria.

- (P) Ta hemen txolarria.

- Ta ze iten zan...

- (M) Kale erdiyan, hi! Ta harrapatu iten zizkiyan!

- (P) Jartzen zan...

- Kakata zeatzen zian?

- (P) Eske...

- (M) Ez. Kaketan normalian artalia ta hola eoten zan, behiak eta...

- (P) Ganauak kaka... Ganauak artalia jaten zun, eta jarri behar zan han, tak!, eta... hola, batei...

- A! Ta orduan artalian billa, bai.

- (M) Ikusten nitxiok hau, eskatzenetik beira, hi... korrika...

- (P) Batei, batei, adarra earki jo giñun behin. Hola ta, zea, almorranakin zala gaixki, ta, zea, ta. Esan niyon, "hi, horrentzat ona zea dek, hi, hartu ta igurtzi kaka behiana, hola, ta igurtzi". Ta, joe, baijua, ta, joño, jendia, ta... Aurrexio han kaka pilla bat ikusi zun, ta, hala, "iñor ez zatorrek", jetsi ditu galtzak eta jarri du kakatan han, ra-ra-ra-ra-ra, ta, "ai, ai, ai, ai, ai, ai, ai, ai, ai!", ta, "miña, hau dek miña, ta hau dek miña, ta hau dek!", eta, "zeba, ze in dek ba?", ta, "jode! Ez zekiyat zer dakaten!". Ta, jode!, beiratu gea ta, "miña eukiko ez dek, ba, hi! Zepua dakak eta zeatuta, hi!". Zepua, bakizu, txoiyak harrapatzeko laga, arraskatu zunian, jata, ta! Bai!

- (M) Inbentua, inbentua dek hori!

- (P) Hoiek, jode!

6.14. Kanean jolasten ziren; baloiaren jabeak agintzen zuen

- **Hizlaria(k)**: Markaide Etxabe, Juan Jose; Olazabal Iruretagoiena, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-015/010
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:16:04. **Bukatu**: 00:18:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Errepide nagusian jokatzeko zuten futboleko. Baloi gutxi zeuden herrian eta baloiaren jabeak nahi zuen guztia egiten zuen. Orduko baloi baten inguruko kontuak. Kale Nagusiko paretean pilotan ere aritzen ziren.

Transkripzioa

- (M) Baiña bestia egiya da, e!, kale erdiyan, joe, garai haitan... Jo, ze diferentzia daon! Gu ibiltzen giñan fubolian, e, karretera jeneralian. Frailletako hor, zea, esto, Nafarroa Kalia, karretera jenealio fubolian ibiltzen giñan. Ta halako batian, "hi, kotxia, kotxia!", ta, baloia zekanak baloia hartu, kotxia pasa arte geldikan, ta berriz 'e , ta!, baloia bota ta segi beste ordu erdi batian, o.

- (P) Jode, hi, zenbat baloi zaben herriyan?

- (M) Bueno... joe..., meikuan semiak eta hola!

- (P) Bat... ez nitxiak esatea, porke... Esango nuke baiño igual bea [...].

- (M) Bai, bai, ez... Izenik esan gabe.

- (P) Zea, baloi bat zun harrek, ta, hartzen zun, ta, e, beak nahi zun ekipua in: "hi, hi, hi, hi, hi, hi, ta, bueno, zuek alde hontatik, zuek hontatikan", ta beak hartu, ta. Geo, penaltiya jotzen 'e beai laga behar, pentsa zazu ze... Ta, galtzen bazijuan, hartu, ta itxea juten zan.

- (M) Gola sartzen baziyoen beai, baloia hartu ta alde in iten zin.

- (P) Bat, baloia earra zeak ziyen, Ixidro Beltzan. Ez dakit zerrena zan hua, mazizozko, hiru kilo t 'erdi eukiko zun, hola, oker-okerra. Kitaborroiak iteko materiala zan, o. O alpargateruak ematen ziyoen, o, alpargatak hausteko, baiño... Jo ziyon ostiko, pum!, ta joe. Behin batian Txomin, penalti, ta hamaika pauso in, ta, joe, atzea jun dek eta jun dek baloia jotzea, ta hi, hankak zea in zion, hi, baloia moitu gabe, hanka...

- (M) Hanka atzea!

- (P) Egiya dek, e! Kalia hua baloia famosua zan. Ixidro ez zan...
- (M) Zea, Parrokiyan, Parrokiyan paetan kontra, o sea, paetian pelotan ibiltzen zan jendia, karretera jeneralian, zea, parrokiko paetian pelotan. Halako batian, joe, zea etortzen zan, Getaiko autobusa, zabala, bi pisokua, bi pisoko autobusa, baiña goiko pisuan irikita, ziharo. Eta, "e, autobusa, autobusa!", ta!, pelota hartu ta pasatzen zanian, segi, berriz 'e pelotan. Dio! Jun hai oain pelotan ibiltzea. Bai.

6.15. Gabonetako kankak

- **Hizlaria(k)**: Markaide Etxabe, Juan Jose; Olazabal Iruretagoiena, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-015/020
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:37:40. **Bukatu**: 00:39:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kankak » Gabon kankak
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Gabonetako kankak. Olentzeroren inguruko kantua eta Jesusen jaiotzaren ingurukoa bestea.

Transkripzioa

- Kantuik-eta gogoratzen al dezue? Umetako garaiko kantuikan, hola, berezirikan edo? Kantun bat edo hola...

- Juan Jose: Gabonetakua.

- Pako: E?

- J.J.: "Olentzago"! Bai, bai, ni akordatzen nauk Gabonetakua earki!

- Zein?

- J.J.: "Olentzago". Nahi al dek kantatzia?

- Bai!

- J.J.: Hik... akordatzen al haiz?

Olentzago, begi gorri,
nun atxitu dek arrai hori?
Zubi aurreko erreketan
bart arratseko hamaiketan.

Aginaldo! Aginaldo!
Beste kalia San Fernando.

Eguzki dibinuan
etorri zan mundura
gizonaren trajia
Jesus, Maria ta Jose!

Gaur Olentzago da eta
biyar eguarri,
etxekoandre maitia
txanpon bat edo bi.

Gero huan:

Salto ta brinko,

salto ta brinko,
mendiyan barrena,
Jesus adoratzer
ahal dan azkarrena. (bis)

Hori huan euskeraz. Ta geo erderaz [bazekiñun] beste bat, iten giñian erderaz´e.

- P.:
Joxe, ekarri zazu
sortatxo bat egur,
haurra hotzak dago ta
berotu dezagun.
Ta hori zan abesti...

- J.J.:
Ez da ez hotzak hilko
birjiña Maria,
berotzen ai zaixkiyo
astua ta idiya. (bis)

- P.: Ta zaharrak esaten zuen: "Joño, San Jose alperra omen huan, e", ta "Zeba?" ta "Jolin, egurra ekartzeko zeak, Ama Birjiñak. E? Haurra hotzak daola ta egurra, sortatxo bat egur ekartzeko. Ta astua ta idiya berotzen dazkala ta... zea, ta hola egurrik ekarri gabe" ta [...] hala esaten [...].

- J.J.: [...] oraingo abestia, nola da hau? "Olentzero Joan zaigu..." ta hoiak guk ez giñun ikasi, e? Hoiak oaingoak dituk. Bestea, "Olentzago" hau, tankera berdintsukoa da.

- Ta bestela eskolan, hola, kantuikan edo?

- J.J.: Elizako kantuak.

6.16. Murgil egitea; jauzi motak

- **Hizlaria(k)**: Markaide Etxabe, Juan Jose; Olazabal Iruretagoiena, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-015/029
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:52:51. **Bukatu**: 00:55:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
Aisia » Kirola » Uretako kirolak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Ahateak uretara bota eta haiek harrapatzen ere ibiltzen ziren. Igeri-lasterketak eta jauzi-txapelketak ere egiten zituzten. Murgil egiteko moduak: "angel", zaplaska.. Behin udatiar bat hil egin zen jauzi txar bat eginda.

Transkripzioa

- (M) Geo zeak 'e bai, este... ahatiak, ahatiak bota ta ahatiak harrapatzea. Ahatiak harrapatzen zitunak beantzako ahatia, ahatia, klaro. Eta holako

jokuak izaten zian. Ta geo, ez zekit, batelan estropa batzuek noiz eo noiz igual izango hituan?

- (P) Moillan? Moillan ez.

- (M) Moillan ez. Ta geo igeri-karrerak. Moillan bazan igeri karrerak 'e bai.

- (P) Ta zea, geo, saltuak.

- (M) Ta geo murkil, murkil 'e bai, murkil zeñek iten zun hobeto, ta, ta...
 Hola gutxi gorabehera. [...] izaten zan, [...]. Zea, ta geo...

- (P) Murkil, murkil. Batzuek izaten zan, e, nola izaten zan, izenak?

- (M) A lo anjel?

- (P) A lo anjel, ta...

- (M) Bestia karpa, bestia...

- (P) Karpa, ta... Bestia zaplaska.

- (M) Zaplaska.

- (P) Zaplaska izaten zan, zumb! ta, braaa!, ta urai eman, jata... Igual holako ura ta kamiyotik, e!... Ta behin batian baguaz hola, hola ibilita, esan deun bezela, ta, ni ez nintzan, txarra nitzan ni. Ta, batek anjel in zula, bestiak eta, beste horrek petrillian gaiñetik hola, ta baguaz hola, ta, "mekauen sos!", "zer dek?", eta, joe, "zaplaska itia ahaztu zatek!". Pentsa zazu ze...

- (M) Bai.

- (P) Badakik ze [...], no?

- Zaplaska ze, ze, ze, nola izaten da hori?

- (M) Petxua, petxuakin jo.

- (P) Hola, blaaa!

- Tripa.

- (M) Igual, karreteratikan murkil in ta metro beteko urian bakarrik, e!

- (P) Nola... zaplaska. Tripan, blaaa!

- Eta bestea nola esan dezue, bestea?

- (P) A lo anjel, ta...

- (M) A lo anjel, anjel. Ta karpa, bueno, hori olinpiadetan ta iten due.

- (P) Bai, hola, ta. Bestia berriz hankak ikutu, ta. Hori guk, joe!

- (M) Hortan beraneantiak bazian onak zianak. Bueno, pizinan ta ibiltzen zianak.

- (P) Pizinan, pizinatik etorritakuak. Gu...

- (M) Baiño, bat hil in zan.

- (P) Bai.

- (M) Behin zean, hoietako bat maria bihan zeola, zeatikan, morrotikan in zun murkil...

- (P) Bizi, bizi guztiko..., bizi...

- (M) Ta, joe, sartzen zian hoiek, bala bezela sartzen zian, moilla aldian.

- (P) Bizi, bizi guztiko beraneantia.

- (M) Jata, buruakin jo zun hondua ta bertan geatu zan, bai, gazte askua.

- (P) Eske, kanpoko... horrei ez, baiño beste askoek 'e miña hartu diye hor. Kanpoko jende hori etortzen da, zea ikusten due, e, e, ze izaten da hori? Tranpoliña.

- (M) Bai.

- (P) Ta ikusten due tranpoliña, ta ba, tranpoliña, bihan ura, ez due kalkulatzan zenbat daon. Ta maria bihan, bihan daonian, han holako ura eoten da, o, batez. Bu, ta, pla!

6.17. Neska eta mutilen arteko aldea ikasketetan

- **Hizlaria(k)**: Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando

- **Erref:** ZAR-017/012
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:19:14. **Bukatu:** 00:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Neska eta mutilek gai eta azterketa berdinak izaten zituzten. Tratamendu aldetik, falangeak labore-lanak, musika, etab. egitera behartzen zituen neskak (magisterio barruan). Irakasleak ere ia denak emakumezkoak izaten ziren neskentzat eta mutilentzat gizonezkoak.

Transkripzioa

- Ze desberdintasun zeon neska izan, mutilla izan irakaskuntzai begira?
- Ez det uste nik bazeonik, zergatik geo azterketak eta itea Donostira juten giñan ba, e, eta han aula baten eoten giñan, ta tema berdiñak eta ematen zizkiguen azterketak iteko garaiyan, ulertzen?
- Titulaziorako berdin.
- Bai, daneako berdin. Eta juten giñan, ta bueno, ba, lista pasatzen zuenian, ba, neskan tartian mutillak, eta mutillan tartian neskak, eta temak eta dana berdin-berdiñak jartzen zizkiguen.
- Eta, bestela, eskoletan tratamentua, funtzionamentua desberdiña zan? Bakizu, eo?
- Hala izango [...]. Mutilletan ez zan berdiña izango. Guri, guri, gauza bat, hori bai, falangiak obligatzen zigun "a hacer música y a hacer labores", eta...
- Zerbitzu soziala?
- E?
- Zerbitzu soziala deitzen zana?
- Bai, servicio socialan tankeakoa, baiño "era corte y confección", ta ez dakit ze, majisteriyon barruan. Ta hori mutillei ez zitzaioen erakusten, adibidez, entenditzen, ez dakit, beste zeoze eakutsiko ziyoen, ez dakit, ez dakit.
- Ordun majisteriyua izan zan, egoten zan emakumeentzako espezifikua ta gizonezkoentzako beste era batekoa?
- Ez. Nik uste det programa berdiña izaten zala. Zeon hori, falangiak ematen zizkigun hori, haiei emango zizkiyoen "el plan política, eso es más bien en plan de" etxeko gauza bezela, bezela. Baiño nik uste det ezetz, programa berdiña izango zan, baiño haiei gizonezkuak ematen zizkiyoen, ta guri emakumiak. Profesoren bat eukitzen gendun gizonezko, e, eukitzen gendun, bai.
- Bestela emakumezkoak?
- Bai, bestela emakumezkoak o monjak.
- Eta hamen Zarautzan 'e bai?
- Bai, bai, bai, bai.
- Dana maistrak?
- Dana maistrak. Euki gendun latíñezkua, ta ez dakit beste gizonezkoik euki gendun? "No, Fray Vicente", latíña ematen ziguna, bestela dana emakumia, dana emakumia.

6.18. Debeku askoko garaia zen

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/014
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:23:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Debeku asko ziren orduan: prakarik ezin jantzi, mutilekin dantzarik ezin egin, 9tako etxean.. Txaparroak (bainu-jantziak) mojei erakutsi behar izaten zizkieten nolakoak ziren ikusteko.

Transkripzioa

- Guk bizitu giñan "el periodo de la negación", dana no, dana ez. Galtzaik ezin zan jantzi, bestela, este, bikaio jaunak deitzen zizun. Dantza mutillakin ezin zan in, ezta... bestela Hijas de Mariastikan botatzen zizuen. E... kalia erten... bai plazan ta... ezta pentsatu 're, beatzitako etxea, bestela pekatua zan. Txaparruak, txaparruak, "el traje de baño", nik monjai eakutsi, eaman in behar izaten giñon ikusteko nolakua zan, aitu? Eta gona bat eta ez baldin bazakan, "estábamos escomulgadas", ta orduan berriya in behar zan, o berriya o ez zan hondartza juten.

6.19. Bainujantzia eta eskolako jantzia nolakoak ziren

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/016
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Nolakoak ziren orduko bainujantziak: tirante eta gona motxarekin. Eskolako uniformeak, berdina izaten zuten uda eta negu. Bostak ingururako elizara joaten ziren bedeinkaziora. Dantzara ez zuten uniformearekin joan nahi izaten, mutilek ez zietelako begiratzen.

Transkripzioa

- "¿Y el traje de baño?, ¿qué traje de baño tenemos que llevar?", "el que te ha comprado tu madre"... egiya! Ni hasiko banitzan nolako txaparrua eramane behar zuen ta, beso motxa ta, beso luzia, ta, zea, gonakin ta, ... "Zure amak ze erosi dizu? Huaxe jantzi, ta kito!". Jo! "¡Vaya clan! ¡Vaya reunión de las demás profesoras pa echarme a mí el rapapolvo!". Nei bat 'e ajolik ez, ordia!
- Ta nolakoa zan txaparro hura, gootzen al dezu?
- Tirantiakin eta gona txiki motx batekin, e, dexente. Baiño eske hoiek nahi zuen gona belauneaiño! Ezta... horrela nola eamango zenun, ba, ume gajua! Bere amak erosi baldin baziyon beste txaparro hua... Oaingo bikinik

erakutsiko nizkiyoke nik haiei ze esaten duen, oaingo bikini ez, oaingo monokini, o zer dia uainguak... Ai ama! Earra da hau!

- Nolakua zan uniformeak eskolakua, gogoatzen al dezu?

- Bai.

- Neguan izango zan era batekua, ta udakua beste batea ez?

- Ez, guk beti bat.

- A, bai? Ta nolakua zan?

- Beltza! Plisatua, gerriko txuriya eta hemen txalina bat, o sea, lazo bat, este, urdiña, pinta txuriyekin. Ta geo, kapa bat, kapa bat, dotoria zan.

Geora aspertu in giñan txalina hori, lazo horrekin, ta eskatu gendun korbata. Ta orduan aldatu ziguen, ta orduan in ziguen pitxi deitzen giñona, o sea, blusa argi bat eta geo txaleko mouko bat gona plisatuakin, eta korbatakin. Hori polito zan, beti horrekin ibili behar. Eta jun behar izaten gendun "a la bendición" deitzen ziyoena, zea, bostetako eliza, bostak aldea, o lau t 'erdiatik bosteta "a la bendición". Ta uniformiakin jun behar, galtzerdi bel-bel-beltzakin. Ta geo handikan erten ta dantza jun nahi plaza. Ta uniformiakin juten bagiñan mutillak ez zian urreatzen... eta guri ixtillua, zea, saltaka jun behar etxea aldatzea.

6.20. Erlijioaren garrantzia

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/017
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:29:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Zinera joan ahal izateko "tranpak" egiten zituzten. Bezperetara joan beharra izaten zuten, arrosarioa nork erreztatzen zuten begiratzen zuten lehenbizi, hurrengo egunean irakasleak galdetzen zuenerako.

Transkripzioa

- Ta zenbat tranpa iten genduzen. Zinea 're jun nahi izaten gendun, eta noski, zea jun behar ba, aurrena bezpereta, ta bezpereta juten bagiñan, zinea juteko denboik ez. Ta orduan ze iten gendun? Danak iten zuena! Tranpa! Beiratu, "zenek erreztatu du erroaiua?", ta, "a, Don Jorgek". "A, bueno, ondo dao". "Eta ze erropaje eaman due?", eta, "gaur berdía", zea, kasullak eta zer zian, ba? Gorriya, o horiya, berdía, beno. Hurrengo egunian, gu zinea. Zinetik ertetzen giñanian, "a ver, las que ayer estuvieron en la bendición, o las que estuvieros en las vísperas", eta, "¿quién rezó el rosario?", ta, "Don Jorge. Iba con casuilla verde". Ta orduko, zea, batez, tranpa inda. Hola bizi behar, hola bizi behar! Ta oain, oain zea, ez dakaela? Oain gehiegiko askatasuna dao, e, hori 're ez det nahi, guriak 'e bere graziya bazun.

6.21. Dotrina don Juan Azpiazurekin

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/019
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena:** Hileko lehen ostiralean jauna hartu eta aitortu egiten zuten. Zuten paga apurra ere eman egin behar izaten zuten. Astero-astero don Juan Azpiazu etortzen zen dotrina erakustera.

Transkripzioa

- Lehen ostiraletan izaten al zenuten obligaziyoik eta... Nola izaten zan hori?

- In behar izaten gendun, esto, "los primeros viernes de mes". In behar izaten zan, esto, lehenbiziko ostialetan, este, aitortu eta jaun hartu behar zan, eta geo, pues, paga baldin bagendun, paga exkaxa izaten zan, ba, halan ta guztiz 'e, "los cinco céntimos para los chinitos o para los japoneses... y ahora les diría yo que vayan a dar los cinco céntimos a los japoneses", aber ze esaten duen... Beitu nola bizi dian uain! Bai, egiya da, e! Ta eamaten ez bazendun, mekatxis... Ta geo, astero-astero, astero-astero, larunbatetan etortzen zan Don Juan Azpiazu dotriña eakustea, dotriña eunero eman behar zan, e!! Estudiatu behar zan, baiño geo, aparte, harek esplikatzea. Baiño oso atsegiña zan, zergatik oso gizon atsegiña zan hua esplikatzen, ejenpluakin ta, oso... ez, harekin gustoa eoten giñan.

6.22. Zarauzko Euskal Jaia betidanik ezagutzen du

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/022
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:34:19. **Bukatu:** 00:35:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Francok ez zuen Euskal Jaia kendu. Betidanik ezagutu du irailaren 9ko Euskal Jaia. Denak jantzita joaten ziren, baina ikurrina debekatuta zegoen. Lehenbizikoz Iparraldean ikusi zuen ikurrina.

Transkripzioa

- Ta euskal dantza 're iten zenuten, ordun?

- Ez, zea, fandangua ta, zea, plazan, zea tanboliñakin jo, txistuakin, ta holaxe, besteik ezer ez.

- Ta libre zeon hori?

- Bai, bai, bai, hori bai! Hori bai, beitu. Franco ez zan ausartu Zarauzko Euskal Jaia kentzen 'e. Danak kendu zitun eta Zarautzen beti-beti-beti-beti-beti Ama Birjiña Arantzazuko egunian Euskal Jaia in zan, in zan, Franco garaian ta Franco pasa ta Francon aurretik.

- Beti ezagutu dezu?

- Bai. Hua ez zan ausartu hoiek debekatzen. Ta egun hartan danok juten giñan Euskal Jantzi... a, ikurriñik ez, e! Ikurriña nik, Frantzira juten giñan ezautzea, nolakua zan ikurriña. Ez, lehenbiziko aldiz Frantzin ikusi nun ta near in nun. Ta zergatik near nik ez nun ezautzen, ta? Emoziyua! Ta nundik dator emoziyo hori? Barru-barrutikan, zergatik nik ez nun bestela behiñ 'e ezer 'e aitu ta. Hua ikusi nunian nearrez hasi. Ze iruitzen?

- Ze urte zan hori?

- Bueno, ya hamalau, hamabost o, e, ya koxkortuta, e! Aurretik ezta ezautu 're, ezta, ezta, ezta... Ezta, bueno, bueno... "No teneis que hablar el vasco porque sino no tendréis ninguna expresión luego el día del examen".

6.23. Euskararen inguruko debekuak

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/023
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:35:25. **Bukatu:** 00:37:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan euskaraz hitz egitea debekatzen zieten, bestela ez zutela erdaraz ikasiko esanez. Neska askok harrokeriagatik ez zuen euskaraz hitz egiten. Etxean aita eta ama beti euskaraz egiten zuten elkarrekin, baina ama beraiei erdaraz.

Transkripzioa

- Ze urte zan hori?

- Bueno, ya hamalau, hamabost o, e, ya koxkortuta, e! Aurretik ezta ezautu 're, ezta, ezta, ezta... Ezta, bueno, bueno... "No teneis que hablar el vasco porque sino no tendréis ninguna expresión luego el día del examen". Ta ni lotsagabia nola nitzan, hala esaten zuen, "entonces, que, que... ya veo yo aquí chicas que no tienen ni pupa, ni idea de euskera, y resulta que suspenden todas"..., "¡ya está la descarada!"...bai! "Entonces, ¿pa qué estudiamos francés y pa qué estudiamos latín?" Egiya! Baiño, ze nahi dezu? "Eramos las descaradas" hori esaten gendunak. Bestela, danak umill-umill kasu itea. Etxea jun ta, ez, ez zuela, este, euskeraz in behar, zeba?, ta monjak ez zuelako lagatzen. Esan gure aita hori! Esan gure aitai! Harek hitz erdik ez zigun iten, earki zakin, e! Hitz erdik ez zuen iten. Amakin erderaz, aizu! Ta ama baserritarra. Ta amakin erderaz. Nola dian gauzak! Ta hori gehienak, e! Ta Zarautzen orduan iten zan askoz gehio mutillen artian euskeraz, ta neskan artian harrokeriz ez gendun iten euskeraz. Nik etxian nahi ta nahi ez in behar nulako. A! Uain 'e bai, e! Gure itxian hitz erdik 'e, ez seme-alabak eta ez billobak, ate hartatik sartzen dianian ezta hitz erdik erderaz in behar.

- Ta, ordun aita amakin erderaz iten zun, e?

- Ez, beren artian euskeraz, beti beren artian euskeraz. Baiño amak gurekin

erderaz.

- A bai, e? Ta aitak euskeraz dana.

- Aitak beti dana euskeraz, harek dana euskeraz.

- Ta nundik datorrela uste dezu hori, emakumeen joera hori...

- Emakumiak txoruak, harruagatik. Debekatu iten ziguen, hori egiya da, baiño debekatzen ez ziyoenai 're, jo, eske erderaz ite hori... hori euskeraz ite hori, "eso era de kaxeras, eso era ridículo", ulertzen al diazu? Ta, mutillan artian, uain baiño, uain baiño gehio iten zan euskeraz. Uain adibidez Zarautzen behintzat neskak gehio iten due euskeraz mutillak baiño. Neskak asko iten dezue. Zuk eiten al dezu?

- Bai, bai, bai, bai.

6.24. Garaiazen arabera jolas ezberdinak egiten zituzten.

- **Hizlaria(k)**: Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-017/028
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:45:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: 14 urterekin hasi zen kolegioan. Jolasak: garaiazen arabera: xakaponetan, kaniketan, txinguan, tximili-kuarteka...

Transkripzioa

- Kolejiyoa zenbat urtekin jun ziñan?

- Hamalauekin.

- Hamalauekin.

- Bai, urruti iten zan, e!

- Umetan, kolejiyoa jun aurretikan ez deu komentau jolasen... Ze neska jolas zeon ordun, ba, ez dakit, hamar hamabi urtekin?

- Ba, adibidez, ibiltzen giñan garayan, e, garayan garaikua. Garai bat izaten zan igual xakaponetan ibiltzekua. Kaniketan ibiltzekua, hori gehio mutillak, guk baiño gehio, mutillak gehio. Txinguk, txingua deitzen giñon, in horrela marra batzuek plazan o lurrian, eta harri koskor batekin. O txinguan, o bestela tximilikuarteka, e, geure taldia, geure lagunak: mutillak, neskak... Miramarkuak, adibidez, eta alkatia nola izan zan, Juaristi ta, hoiek gure kuadrillakuak zian bai, ba, inguruan bizi giñanak, eta horta. Ta sokasaltua. Negu-negua sokasaltua izaten zan. Ta xakaponak eta udaberriyan izaten zian, ulertzen al dezu? O sea, garaian garaiko jolasak zian. Ta geo hondartza, ze esanik ez. Behin garaya, behin udabarriya aurreatu ezkeo, hondartzan, gu beti hondartzan. Kixkilletan ta hor ibiltzen giñan beti, danak busti-busti inda etxea!

6.25. Ospakizunak. Aste Santuko mutilen entretenimendua

- **Hizlaria(k)**: Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-017/035

- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:50:56. **Bukatu:** 00:54:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** San Pelaioak, Euskal Jaia, Gabonak, Jesusen Bihotza, San Antonio.. Azken hau oso polita izaten zen, prozesio handia egiten zuten. Erramu egunean mutilek trajea estreinatzen zuten. Aste Santuan dena debekatuta zegoen eta luze joaten zitzairen. Aste Santuko baraualdia ez zaio gustatzen.

Transkripzioa

- Urtean zehar jaiak eta, ze jaia ospatzen izan zan orduan? Hola...

- San Pelaiuak, Euskal Jaia, hori ze esanik ez, geo, ba, Gabonak eta Aste Santuak eta... Jesusen Bihotza, oooo, izugarritzko prezesiyuak. San Antonio, oso prozeziyo dotoriak. Corpus Christi, hori 're bai. Gaiñea, San Antoniona oso dotoria izaten zan. Mutillak jantzi batzuekin, terziopelozko batzuekin, hola, luma batzuekin ta, jazten zituen, jartzen zituen geo. Oain Alberdiñeko etxia bota zan, han altaria jarrita. Gu larrosak botatzen, gu larrosak botatzen, bai. Jo, dana elizko, elizako gauzak, e! Prozeziyuak eta danak, e! Jesusen Bihotzanak 'e oso dotoriak izaten zian, izugarritzko estandartiak. Aingeruz jantzi ta, ez, honela eramaten dana bakarrikan ez, hola, luzia, banderan eramaten dianak eta. Ta geo danak hola kaja bat, danak larrosak botiaz ta. Oso apaiña. Festa haundiya izaten zan, prozeziyoa jutia, ta hua ikustia ta. Gaiñea, erramu egunetan, mutill iya danak o gizonezko danak trajia estreñatzen zuen. Ta gu beira "quién se ha puesto briches y quién no se ha puesto briches". Britxes, bakizu, orduan zeaiño zian zian orduan, belaun azpiraiño, "estilo inglés", ta dotoriak eramaten zuen britxis. Guk, ez dakit nola esaten dan baiña guk britxis esaten gendun. Izena inglesa eukiko zun, ta auskalo nola esaten dan, baiño guk britxis. Eta... britxis jazten zuna apaiña zan, ta, "harek halakuak britxis erosi dizkin, jantzi dizkin".

- Ta Corpusean iten al zan jairikan hemen?

- Bai, jo, jai haundiya gaiñea. Penik haundiyena eukitzen gendun Aste Santuan, ai, ze txarra zan Aste Santua! Ze luzia zan! Ez zan jan behar, ez zan dantzik in behar, zineik ez zeon, dana gaixki ikusiya zeon. Zuk ez dakizu ze aste luzia izaten zan huaxe! Mutillak jutun zian lapeta, hori bai, moda zan, e! Ostiral Santu egunian lapeta jun, ta haiek lapa-jana. Ta emakumiak batez. Ze iruitzen? Aste Santua zan oso txarra. Zinia 're ez ziguen lagatzen jutun, ez zala jun behar. Ta geo, baraua eta haragi uztia, ta zer ez ziguen... jo... Zu ez ziñan, ez, ez, ez zea, ba, apaiz tartekua izango, ezta?

- Ez, ez.

- Ez, hobe, hobe. Nik uaindik oaiño batekin hola erritan in nun, zer zan hori, barau ite hori, aberatsa zanak bulak o erosi, eta harek astian, o zea, ostialetan haragiya ta jatia bazakan, bakarrik Ostiral Santua, ez, ostiraletan haragiya ez, baiña bestela gu asteazkenetan 'e bai, haragiya janai laga in behar geniyon. Haiek libre, ta pobriak ordaindu bihar ezin zunak, harek in behar zitun barauak eta haragi uztia eta danak in behar zitun, e! Eta haragi uzte hori oso parregarriya zan. Zergatik aberatsa zanak langostak eta angulak jaten zituen, bai, ba! Hua bai, ta bestiak? Gizajo, pobre gizajuak, talua besteikan ezin zunak, hua zea, urdai pixkat euki ta hua 're ezin zula jan. Hori erlijiyua al da? Hori? Bueno, ixo, ixo...

6.26. Aste Santuan mutilek lapa-jana egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/036
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:54:39. **Bukatu:** 00:56:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin
harremana
- **Laburpena:** Mutilek Aste Santuan lapa-jana egiten zuten elkarteak. Baziren elkarte asko: Gure Kabia, Eizmendi... Txaletetan ere egiten zituzten lapa-janak. Aristokrata eta herritarren arteko harremana.

Transkripzioa

- Lapa-jana esan dezu, mutillak lapa-jana iten zutela... Nun eiten zuten lapa-jana?
- La pajara?
- Lapa-jana. Lapak...
- A, lapak, bai. Hoi soziedadetan.
- Soziedadeik ba al zeon?
- Uuu, Zarautzen? Aber, Gure Kabiya eukiko ditu ehun ta gehio urte. Gure Kabiya seuru eongo zala, orduan. Ta besten bat 'e bazan. "Codorniz", bestia, Galeperra, hoi 're bai. Ta geo, urte asko jarri zuela bestia, Arkaitz-Mendi. Bazian hoiek, famosuak zian. Eta bestela, eske, orduan jendiak.... a, hor zioke beste gauza bat... a, orduan guatekiak 'e presente, jartzen, iten zian, e, eon pixkat. Eta gaiña txaletetan. Bai, ba. Txaleak asko zian orduan, ta aristokrazi asko etortzen zan. Eta famili askok zauzkaen, gorde, giltzak eta [...] zakaen, ta noiz o noiz leihuak ireki ta, etorri behar zuenian apaindu, ta. Etxe hoietan iten zituen geo lapa-janak eta. Han sukaldiak eta dana zauden ba, saloiak eta dana.
- Ordun nahastu iten zian hemengok eta horkok? Aristokraziako jendea hemengoakin ta?
- Ez, lapa-janak eta iten dianian, aristokrazikoik ez zeon hemen! Orduan ez zian oraindik etorri. Haiek itxiak zazkaen, baiño aristokraziko jendia, bai, udaan herriko jendiakin asko tratatzen zuen, e!
- A, bai, e?
- Bai. Herriko jendiakin bai, kanpotar jendiakin gutxiyo. Guk, nik, nik, ez dakit zenbat markesekin ta zenbat dukekin ta, plazan dantza indakua, ta ni bezela, ni baiño gehio, asko.
- Sortu al da parejaikan, hola, matrimoniyoikan eta hola?
- Ez, ez, "luego aquellos eran la aristocracia", ez. Militarakin ta bai. Militarrek eon zianian bai.

6.27. Nolakoak izaten ziren Club Deportiboko mendi-irteerak

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando

- **Erref:** ZAR-017/042
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:04:20. **Bukatu:** 01:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Kantei buruzko azalpenak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Club Deportiboko irteerak nolakoak ziren. Herrian denak elkartu, bakoitza bere bazkariarekin eta kuadrillan joaten ziren. Zenbait mutilek abestu ere egiten zuen bidean. Bazkaria poltsetan eramaten zuten. Oinetakoak, arropa.

Transkripzioa

- Eta, georo, ya hasiyo, ya senargaiakin ta, zeak, este, Club Deportivok antolatzen zitun igual eskursiyuak Adarra, ta beste mendira ta, hola, bai, bai, jun izandu gea. Bazkaia hartu ta mendira, mendira ba eun pasa itea kuadrillan, e, beti kuadrillan.

- Hori, ya milla beatzirehun ta berrogeita hamar, hamabi inguru hortan?

- Beatzirehun ta... berrogeita hamar, berrogeita hamabi?

- Bai, bai, bai.

- Nola zan orduko mendi irteera bat Club Deportivoakin, kontatu zazu apur bat.

- Ni hemen inguruan. Ez, ez, ez, herritik ertetzen giñan. Plazan o alkartu, alkartu plaza, o bestela zitatu Azken Portu aldian, hori esaten zan herriyan bukaera bezela zan, ba. Eta geo handikan, ba, ba, tortillakin eo, e, juten ziñan ba mendira. Ba, gaur, e, haraiño, Pagoetaiño iyo behar ta, bakoitza bere [...] juten giñan kuadrillan, hixketan jun. Gero han exeri danok lasai, geue bokadilluak eta jan, eta geo, geo etxea. Ezer ez. Ez musikik eta ezer ez, e! Ez zeon ezer 'e!

- Kantuan eta iten zenuten bidean, ta holako gauzak?

- Nik ez dakat, aizu, zea, goorapenik, nik neuk. Bueno, beti euki det, iztarriya beitu ze gaixki dakaten, beti euki det, e, beti izan det "mi punto flaco". Uain okerro, gripe pasa detelako, baiño beti izan det eta. Ez det izan kantuako... Bai, bai, baten batzuek gogoratzen naiz "Eusko Gudariak gera" nola abesten zuen, bai, bai, bai. Mutillak, nola, mutillak. Ta hori ausartzen zian, ba, kantatzen e, eta nundik, zeñek eakutsi? Baten bat bazeon eakusten ziyoena. Baten bat bazeon.

- Motxilaik eta ez zan izango, ordun?

- Ez.

- Ordun, tortilla ta nola?

- Poltsatxo baten, poltsa alu baten. A, lehenoa bakizu, "papel de estraza"ko poltsak eta izaten zian, ta holako baten. Motxilak? Zer zan 'e bagenkiun, ba? Ez genkiun zer zan motxila. Ta geo motxila relacionatzen gendun de todas todas militarakin. Ez dakit petate o zer zan, baiño, ez, ez. Ta botak, ba, bortzegiyak eta, katiuskak gomazkuak, eta. Holako gauzak. Galtzaik eta? Bai... nik nere ama hil arte ez nun geo galtzaik jantzi, e! Gure ama [...], ta gure aitak beti esaten zun, "eske emakumiak galtzak jantzi in beharko lituzke, askoz 'e epelo ibiliko litzateke ta". Oso ezberdiñak zian biyak.

6.28. Eskolako obligazioak

- **Hizlaria(k):** Arruti Abendibar, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-017/050
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:20:15. **Bukatu:** 01:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Eskolako kontuak. Sarrera eta irteeran erretratzea eta Cara al Sol abestea ziren obligazioak.

Transkripzioa

-Eskolan erabiltzen al zenuten ba ez dakit esaldi bereziak o holako?
-Egin behar gendun, adibidez, sartzen gñanian errezatu eta irtetzen giñanian re bai eta "Cara al sol" abestu behar zan, besua altxa ta horrela umiekin irakurri oi, abestu, "Cara al sol" eta kalera. Hoiek zian zerak obligaziyuak. Eta geo...
-Hortik aurrea?
-Ez programa bat ematen zizuen eta programa hua bete behar zenun. Eta Agiñan, hemen Usurbillen egon nintzanian, ez programaik ezta ezer ez. Aber ze programa eman behar zien nei sei urteko umiantzako eta geo hamalau urtekuantzako, aber ze programa eman ber zuen. Ta ze iten nun nik? ahal nuna.
-Ordun obligaziyu sarreran eta irteeran errezatu?
-Bai
-Eta tartian "Cara al sol"?
-Bai, hori bai egin bihar zan e! Jakiten bazuen hori ez zendula iten... Nei banderarik ez zien obligatu behin´e jartzea, beste leku batzutan obligatu eiten zioen ikurriña jartzera, bueno bandera jartzera, nei ez zien behin´e, behin´e, nik ez nun jarri.

6.29. Zalbideko garbitokia

- **Hizlaria(k):** Olaizola Alkorta, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-018/015
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:36:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Garbitokia bazen Zalbiden.. Jende asko elkartzen zen bertan. Batak besteari laguntzen zioten arropak amaitu ezinik zebiltzanean. Nola garbitzen zuten arropa. Gero etxeetako balkoietan edo han bertan sasietan jartzen zituzten lehortzen. Etxe batzuetan lixiba egiten zen.

Transkripzioa

- Ordun, auzoa asko aldatu da, e? Poliki-poliki, e?

- Hau dana, ezta arrastoik 'e ez daka honek!

- Hor bazan ba hor errekan garbitzeko tokiya edo... Nola deitzen zan hori?

- Salbideko erreka deitzen geniyon. Zea, aurrena zitun harriyak alde batetik eta erreka. Ta geo, jende asko joten zan, in ziyoen beste aldetik 'e harriyak jarri. Hori in zan, ba, hori bete gendun ba urez. Ujalak hor jarri giñun bestia irikita, goiko depositua irikita. Horrea jende asko jute zan, porke hoteletakuak 'e jun iten zian ta.

- Ze urtetan in zan hori, gogoratzan al dezu? Ala inda zeon hori?

- Inda zeon erreka, gu jun giñaneako erreka bazan.

- A, bai?

- Zian alde batetik harriyak, eta geo, zubi azpiyan 'e bazian bi harri.

- Baiña garbitzeko tokiya 're inda zeon?

- Bai, inda zeon.

- Ta hor, jentea elkartuko zan hor, herrikuak eta...

- Hantxe, batzutan erritan ta bestetan zean.

- Ze giro eoten zan?

- Gehienian ondo moldatzen zian, e! Nik askotan ikusi ditut erropa garbitzen ibiltzen dianak, ibiltzen zianak, illuntzia etorri ta bukatu ezinik igual, ta bukatuta zakaenak, "bueno, illuna etorri den ta ez den iteik izango", ta laguntzen. Hortan izugarriya zan jendia, alkarrei launtzen, nahiz hurrengo egunen alkarrei erritan jardun, laundu 're bai.

- Ta zuek ere joten ziñaten horrea garbitzea?

- Gu 're bai, han ikasi gendun erropa garbitzen, labadorak hasi zian arte.

- Nola garbitzen zan erropa? Esplikatu pixka bat, aber, nola garbitzen zan? Nola hasten zan?

- Diferentia zan: batzuek lixiba iten zuela esate zuen, gurian jaboia eman ta jabondu eskuakin, ta ondo jabondu ta geo erreka jun.

- Lehendabizi beheratu in beharko zan erropa, ez?

- Ez, bertan, beheratu gabe 're bai. Beste batzutan beheratu 're bai. Geo, lejiatan jarri, ta geo errekan aklaratu. Aklaratzeko erreka hori oso ona zan. Ur korritua zan ta beti ur garbiya ta asko.

- Ta jente asko pasatzen al zan egunian hor?

- Bi aldiak beteta 're eote zian ta. Ta eztakit zenbat harri izango zian alde bakotxetik, bastante.

- Ta, konbersasiyuak eta danetik eongo zan hor.

- Konbersasiyuak eta hasarriak eta danetik.

- Kantuan 'e bai?

- Kantuan behiñ 'e ez nitun ikusi.

- Ze edadeko jentia joten zan?

- Danekua: sasoikua 're bai, zaharra 're bai...

- Ta gero, hortik eamandako erropa nun lehortzen zan?

- Itxetan, balkoitan o. Batzuek han bertan gaikaldeko sasiyan 'e jartzen zituen, azkar behar zituenak. Eta geo, Eguzkikuak eta hoiek karruakin joten zian. Karruan barreiñuak hartuta ta. Haiek ez dakit nun zeken sekatzeko lekua. Eguzkira etortzen zian erropa bustiyakin. Eguzkik 'e beti han garbitzen zun.

- Ta, lixiba ta etxean iten al zan?

- Leku batzutan bai.

- Nola iten zan hori?

- Hori katxarro batian ura sartu ta, eztakit nik hori nola iten zuen. Ikusi nun iten, baiño nola iten zuen ez dakit. Venturanian ikusi izandu nun lixiba.

- Ta ondo garbitzen zan erropa, oain baiño hobeto, edo?

- Danetik. Bazian ondo garbitzen zuenak, eta batzuek errezo pasatzen zuenak 'e bai.

6.30. Janaria: ze barazki eta lekari izaten zituzten.

- **Hizlaria(k):** Olaizola Alkorta, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-018/021
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:49:04. **Bukatu:** 00:51:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Zer jaten zuten baserrian. Urte guztian izaten zuten tomatea. Asko izaten zuten eta enboteilatu eta saldu ere egiten zuten. Barazki ugari izaten zuten: eskarola, ilarrak... Gosaltzeko taloa eta esnea. Artoa eta babarruna hartzen zituzten soroan. Ganaueri

Transkripzioa

- Ze jaten zan etxian garai hartan, baserriyan, zuen baserriyan, ze jaten zan? Ze, hor Urdaneta aldean ta eon gea ta egunero babarruna jaten omen zuten hor.

- Gurian 'e bai.

- A, zuek 'e bai?

- Aurrena zopa, berdura, itxian ona iten gendun berdura, ta babarruna, hoiek beti izango zian. Ta babarrunak izango zun o zeziña, o txerrikiya o zerbait, eta, hua haiekin. Ta beste batzutan haragi pixkat [...], baiña jeneralian jayian bakarrik salda, orduan fideo iten zan. Baiña gaiñuntzian baatzui zopa, zeozen zopa in, o berdura... ta egunero babarruna. Ta geo gaiñian o tomatia, urte guztiyan eukitzen gendun tomatia.

- Urte guztiyan?

- Bai, porke tomatia iten zan saltzeko, ta geo [...] ta [...] plaza eaman, ta bestia enbotellatu ta itxian. "Y luego aquello aguantaba todo el año".

- Ordun, baatzan ze jenero hartzen zenuten, epokaz? Esate bateako, udaberriyan...

- Letxuak, eskarolak, azelgak, danetik, bainak, illarra, patata, patata asko iten gendun. Patata 're urte guztirako izaten gendun. Asi ke gosia ez gendun pasa. Nik, esango bagenduke gosia pasa gendula, gezurra! Jan nahi genduna ez, e!

- Babarruna 're bai, ordun?

- Bai, ta nei ez zitzaten gustatzen. Ez zait gustatzen. Baiño izango zan zerbait, berdura o... jateko. Jateko ez, jarriko zien. Taluak eta esnia afaitan ta gosaitan igual.

- Ta ordun barazkiya ugari?

- Baazkiya ugari.

- Etxean jan ta saldu baita.

- Saldu bai. Etxian nola iten zan barazkiya beti izate gendun, sasoyan sasoieko gauza.

- Ta gero udan ze iten zan, udan ze barazki?

- Udan? Ba, oaintxe bezela, igual.

- Ta, eskarola 're bai, ordun, garai hartan, eskarola 're bai, e?

- Eskarolak 'e bazian.

- Lorea ta erabiltzen al zenuten?

- Ez, behiñ 'e ez gendun loreik in. Geo karduk 'e baita. Hori gero.

- Eta ganauentzat? [...].
- [...] eta belarra. Eta geo, artua ta babarruna iten zian, soruan, eta artua, eta geo han arbiya iten gendun eta erremolatxa sartzen gendun tartian, ta hua 're ganauantzat.
- Ta artua?
- Artua, iriña iten genduna taluak iteko, ta gaiñontzekua ganauantzat.

6.31. Emakume Abertzaleen Batzan euskaraz ikasten zuten

- **Hizlaria(k):** Loiola Antzuola, Agate; Loiola Antzuola, Ignacia; Loiola Antzuola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-019/011
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:18:26. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Emakume Abertzaleen Batzan ibili zen eskolan Rosario. Klaseak ematen zituztenak ez ziren irakasleak berez. Miren Garate irakaslea. Dena euskaraz irakasten zieten. Hainbat gai irakasten zizkieten: eskola kontuak, pianoa..

Transkripzioa

- Lehen esan dezu batzokiyan antzerkiya iten zenula.
- R.: Bai!
- Ikasi 're han iten zenuen? Eskola harea joten ziñaten, o noa joten ziñaten eskola?
- R.: Ez, ez, ez, ez, ez!
- A.: Han ikaste zuen.
- R.: Ikastola zeon hemen Errustanekua, ez al da? Itxia nola dao! Arrandeia ta zea, hemen, ixkiña hontan.
- Bai.
- I.: Harateia ta arrandeia.
- R.: Hori zan Emakume Abertzale Batza. Hua zan emakumiena.
- Aaa!
- R.: Eta hara joten zian, ba, maestrak ez zian baiña, denbora zakaen erakusteko, ta hoiek erakusten ziun, Miren Garatek, [...] izango dezu zuk, hua berez andereñua zan, eta hoiek danak guri euskeraz erakusten ziguen: geografia, zea, [...], baiña geo gerra etorri zan ta hala geatu giñen.
- Euskal Herriko kontuak haiek.
- R.: Bai! Haiekin, bueno!
- Ta kantaik eta zerbait ikasi al zenuten haiekin, kantan bat eo hola.
- R.: Kanta?
- Bai.
- R.: Irakurtzen ta zeatzen ederki asko. Nik ederki...
- I.: Idatzitzen.
- R.: Bai.
- A.: Euskeraz haiek erakusten ziyoen.
- R.: Haiek erakusten zien.
- I.: Bai.

- Bestelako eskoletan erderaz ein behar.
- R.: Bai! Baiña gu giñan zea bat, kuadrilla bat, hamar o hamabi giñan ta gendukan gure maestra idazteko, bestia hitz eiteko, bestia... pianuan zeak ematen zizkiun. Ni hasi nitzan pianua ikasten, baiña gerra hasi zan ta akabo, [...] giñan.

6.32. Euskaraz ikasteko aukerak Emakume Abertzaleen Batza eta gau-eskolak

- **Hizlaria(k):** Loiola Antzuola, Agate; Loiola Antzuola, Ignacia; Loiola Antzuola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-019/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:21:55. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- **Laburpena:** Emakume Abertzaleen Batza batzokiarena zen, umeei dantzak eta bestelakoak irakasteko sortua. Inazia eta Agate gau-eskoletan ibiliak dira Iturria fraidearekin.

Transkripzioa

- Ta Emakumeen Batza, zea hortan...
- R.: Emakume...
- A.: Abertzaleen Baratz.
- R.: ...Batza.
- Abertzaleen, Abertzaleen Batza, bai.
- R.: Hori zan zeakuak, este... Zer deu? Este...
- A.: Batzokikuak.
- R.: Batzokikuak zakaen hori hartuta umiai erakusteko kantuak...
- I.: Tokiya.
- R.: ...este, dantzak eta zeak. Eta juten zian boluntadez, ba, maestra esaten dizut, Garate, pianokua Lizundia, uain dala... Danak hilda dabe, e! Lizundia zea, Ausilio, nere lehengusua Kostan Landaburu esan dizutena. Haiek danak guri erakusten. Gu giñan zortzi bat mesan, eta kantatu 're bai. Baiña idatzi primeran, bueno! Nik irakurri earki iten det euskeraz.
- A.: E, guk, e, ba uan, uan erakutsi digue.
- R.: Baiña nik gehio dakit porke ni denbora gehion eon nitzan ta!
- I.: Bai.
- A.: Bai, geo frailliak hasi zian euskaraz erakusten, idatzitzen ta letzen.
- I.: Aita Iturriak, Aita Iturriana juten [...].
- A.: Gabian juten giñan.
- R.: Gabian.
- A.: Eskolatik ateatakuan ta juten giñan.
- Gau-eskolata.
- A.: Bai, gau-eskoletan. Hauek 'e boluntaio erakusten zun.
- R., I.: Bai.
- A.: Leheni dana boluntaio zan.
- I.: Fraile Iturria.

- A.: Ta zakaen zea bat, erakusteko gogo bat...

- R.: Bai!

- A.: Eta ederki hitz eiten zuen.

- Zein, Karmelo?

- I.: Bai, Karmelo zan.

- A.: Bai, hori zan.

- Ezautu nun, ezautu nun.

- I.: Bai, harrek bazekin ba dana euskera galtzen zeola, galtzen. Intuiziyo haundiyakin hasi zan lanian.

- A.: Hoiek erakusten zuen zea batekin, maitasun batekin, eta hizketa bat, eta... Pozik juten giñan.

- Ta, ze ikasten zenuten, baiño?

- Pues, idatzitzen.

- Ta, kantuak eta holako gauzak ez?

- A.: Ez, horrek eskola.

- R.: Bai, bai, eskolan 'e bai, e!

- A.: Horrek eskola. Horrek kantuik ez...

- Baiña hori erderaz zuek?

- A.: Guk bestela dana erderaz, dana, dotriña 're bai. Gu dana erderaz.

- I.: Bai.

- A.: Baiño geo hasi giñan, horrek jarri zun hori gabetan, ta horrena juten.

- Juanen anaia hori.

- A.: Hori, bai!

- I.: Bai.

- A.: Bai, hori, Juan baino gaztio zan hori.

- Gaztio, bai.

6.33. Sorginkeriaz sendatutako gaitzak

- **Hizlaria(k)**: Serras Azpillaga, Antonio; Uria Aldalur, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-020/021
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:35:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena**: Santa Marina elizako Ama Birjinari eskatu zioten aita sendatzeko eta miraria balitz bezala sendatu zen. Aitak gingilak izan zituen eztarrian eta emakume batek sendatu zuen hitz batzuk ahoskatu eta gatz botaz.

Transkripzioa

- M.: Eta ama 're beakin hantxe, ta sukarra zeatu ezin, ezin. Eta Santa Maiña ermita badakizu, baiño orduan...

- A.: Kalia erdiyan zeon.

- M.: Kalia erdiyan zan ermita, e. Eta han erdiyan daona da Ama Birjiña Sokorrokua, Santa Maiña aldamenian dao, Ama Birjiña Sokorrokua. Eta, zea, e, martxuan hogeita bostian, Ama Birjiña martxokua deitzen giñon guk, egun hura izaten zan. Bueno, meza, meza ateako zula, ba. Eta jun zan

hara mezeta, ta aber nola eskatuko ziyon, ba, porke laga omen zun aita, baiño hilda bezela, e. Ta etorri zanian txoriya bezela, txoriya bezela.

- Milagrua!

- M.: Ta, orduzkeo guk, zea, urtero-urtero-urtero meza ateatzen giñun han, urtero, e!

- A.: Geo itxian 'e kuadruak eta danak, eta Perpetuo Sokorron zeanak...

- M.: A! Beak medallan, katian eramaten zun Perpetuo Sokorron ama birjiña, ta kuadrua 're bai, ta.

- PAKO (semea): Ama, kontatu, ez dakit, beste... edo sukarrarena, oso gauza bitxia da. Edo bestela nola egiten zuen gatzarekin ere, nola iten zenuen...

- M.: A, bai!

- Tifusa tratatzeko?

- M.: Ez, ez, oain beste gauza bat da.

- P.: Ez, ez, beste gaitz batzuk, baiña, baiña dira gauza oso bitxiak.

- M.: Ateatzen omen zian hamen bulto batzuek bezela...

- P.: Ganglioak, edo.

- M.: ...ta ezerrekin ez... gingillak deitzen zitzaioen.

- P.: Gingillak, bai.

- M.: Gingillak. Eta ateatzen zian, ta orduan zeik, botikik ez haiek zeatzeko, eta Txapartegi ezautzen dezu zuk? Txapartegi. Harren aitona, aitona, bizitzen zian, Parrokiko onduan, eta andria zun arrantzalia. Deitzen ziyoen Ana "Gexurti", ez dakit, gezurak esango zitun o, ta Ana "Gezurti" deitzen ziyoen, behintzat. Eta, hara juten nitzan. Harrek zazkan gatza, gatza, ez dakit ze klase izango zan. Ta harrek kontaktzen zakiyen. Ta hola hasten zan, ta "gingillak dira betzi, betzi, zortzi, zortzi, zazpi, zazpi, sei, sei, bost, bost, lau, lau, hiru, hiru, bi, bat, gingillak dira zart!". Ta gatza botatzen zun, zea, basurta, ta hola in behar gendun beatzi egunian, ta desaparecido.

- A.: Bestela, ez zeon botikik, ta [...].

- M.: Gatz haiek bazuen zeoze, o kontatzeko moua, eo, ez dakit.

- Eo sorginkeia.

- M.: Sorginkeia!

6.34. Sorginkeriz sendatutako gaitzak

- **Hizlaria(k)**: Serras Azpillaga, Antonio; Uria Aldalur, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-020/022
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:35:03. **Bukatu**: 00:38:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena**: Manoliren anaiak sukar handia izan zuen egunetan eta amona batek harri batzuen eta ur beroaren laguntzaz sendatu zuen.

Transkripzioa

- M.: Eta nik anai bat, zaharrena, Errenteian bizitzen zan, baiño hil zan. Eta hura berriz, etorri zan soldauzkatikan eundoko sukarrakin. Egunero, e, egunero, baiño... Ikusten zitun fantasmak eta gauzak eta, sukarragatik. Meikua ekarri gendun, ta, eundoko galderak in zizkiyon, ta aber ura nundik

ean zun, ba, soldauskan zeon bitartian, ta, aber hau ta bestia ta bestia, ta. Orduan eman zitun zea batzuek, orduan penicilina zan, zeantzat, sukarrantzako. Eta segitzeko haiek hartzen zortzi egunian ta alde iten ez baziyon, pentsatuko gendukela igual tifus zala eo holako zeoze. Eta, ni akordatzan, akordatu nitzan orduan, amak nola esaten zun ni neska koskorra nitzala nunbait, amona horren alaba umezai, nere, ni, nei zaitzen omen zian. Eta nonbait euzkitan euki nitun denboa dexentian pasian, eta hartu zitzaiten meningitis bezela, e. Eta amona horrek zazkan harri txiki batzuek ta harri txiki hoiek, ta akordatu nitzan horrekin. Eta esan nion "amona horrei deitu behar diyot, aber oaindikan harri hoiek badazkan". Eta bai, han zazkala. Bueno, hartu behar zan eltze bat, baiño lurrezkua, e, lurrezkua, eta palankana bat jarri hamen, palankana bat. Eta harriyak sartu eltzea, urakin, e, eta bota palankana horta, eta iten zun urak hola! Ta eltzea sartzen zan berriz. Eltzia buruz behera jarri behar zendun, e! Eta barroa! Hori zan seiñalia dana hartua zakala burua, dana, e! Eta egunian-egunian gutxiyo, ta gutxiyo, ta gutxiyo. Lehenbizikuan erre iten ziyon, e. Kendu iazue nei hamendikan, kendu iazue nei hamendikan.

- P.: Irakiten? Ura irakiten?

- M.: E?

- P.: Ura irakiten.

- M.: E?

- P.: Ura berua? Ura irakiten?

- M.: Bai, ura irakiten harriyakin.

- A.: Irakiten.

- M.: Eta bota hara, eta ura sartu iten zan eltzea.

- A.: Beak ez zun ezer sentitzen.

- M.: Eta... Bai, erretasuna.

- A.: Geo, geo, geo.

- M.: Eta geo, egunian-egunian gutxiyo ta gutxiyo ta gutxiyo. Ta azkeneko egunian ez zitzaion [...].

- A.: Ta, gaiñian jartzen ziyon, "ai, ai, ai, ai, ez detela aguantauko, [...] berua!".

- M.: Ta lehenbiziko egunian ez zun ezer antzematen beak. Ez zun sentitzen ezer. Ezta ezertxo 're! Ta geo azkeneko eguneako ya, ezta jarri 're, ene!

"Kendu iazue nei hamendikan, erre iten dit eta!". Eta ziharo, ziharo zeatu.

Etorri zan meikua ta esan zun, "¡Ay va! ¡A éste ya le ha desaparecido toda la fiebre! Ze ondo daon! Segi, segi, uaindikan egun batzutan zea hori, hori.

Hori eman al diyoze, penizilina hori?". Ta, "Bai", esan niyon, bestela esango zian sorginkeia zala, eta bai, bai, bai. Oain semiak esaten dit askotan, ez ziyozun hori esan behar, esan behar ziyozun egiya, jakiteko...

- A.: Ez due nahi, baiño, ez due nahi.

- M.: ... bestela, beste batei 're hori emango diyo geo harrek eta.

- A.: Bai, esango ziyon, ba segi bai, aide jungo zan, bueno.

- M.: Baiño, buf...

6.35. Don Ebaristo sasimedikua

- **Hizlaria(k)**: Serras Azpillaga, Antonio; Uria Aldalur, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-020/023
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:38:06. **Bukatu**: 00:40:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

- **Laburpena:** Don Ebaristo petrikiloaren (kuranderoa) inguruko gorabeherak. Antoniori paperak sendatu zizkion. Lagun bati bihotzeko infekzioa nola kendu zion kontatzen dute.

Transkripzioa

- A.: Hamen oso ona gendun kuranderua Don Ebaristo. Don Ebaristo meikua zan, Don Ebaristo hori, ta...

- M.: Kuranderua zan, Aiakua zan.

- A.: Kuranderua zan. Ta beitu nolako zea zan. Behin estaziyan zan, ta bat hola, gaixo zeon, ta esan ziyon, jo, oso grabe zeon ta, esan ziyon, este...

"Emiliano!", Emiliano Alberdi zan, ba, jefia ta. Jun zan zeana, Emiliano zeana, Don Ebaristo horrena, ta esan ziyon hau ta hau ta hau ta, "hortxen dakazu, beitu, hor baxtarrian, ta [...] hoiek eta sendatuko da". Esan ziyon, "ni ez naiz hasiko, trena geldituko det". Trena gelditu zun, bea jetsi zan, hartu zitun belarrak, eta bueno, pi!, aide trena! Ta geo... "y cuéntale lo de la cruz de aquí también".

- M.: Hura zan... hura... hura zan batez 'e pasmuan kontrakua, belarra, belar, dana belarrakin iten zun. Dana-dana-dana-dana belarrakin.

- A.: Ta behin bihotzen...

- Ta hori nor zan?

- A. / M.: Ebaristo!

- M.: Ebaristo deitzen giñun. Zeakua zan...

- A.: Oriyon bizi zan.

- M.: Bai.

- A.: [...] oso-oso-oso majua zan, e!

- M.: Uaindikan semia ta biziko dia.

- A.: Bai, nik 'e paperak hartu nun. Ta paperak bakizu zer zan lehen: "un bulto así grande te se quedaban estériles si no se quitaban bien, luego de mayor". Eta amak esan zion, "Honbre! Don Ebaristo! Earki etorri zea. Etorri barroa! Semia hola dakat, ta", [...] eman ta, bero-beruan, ta itxetik atea gabe, ta, aide! Seituan sendatzen zun.

- M.: Jende askok ekartzen zun, jende askok ekartzen zun hura.

- Ta besoko hori?

- A. / M.: Besoko hori...

- M.: ...hori lagun batena zan. Ba, infeziyua ta infeziyua ta infeziyua, ta bihotzian euki behar zun. Ta meikuak ez zian atrebitzen, orduan ez zeon oaingo zea, aurreapenik eta, eta ez zan atrebitzen ezer iten, eta deitu ziyoen Ebaristoi. Esan ziyoen, "hola ezin laike eon, deituko diou". Eta esan zion, aber, hola ta hola, ta bai. "Bihotzian dakazu, baiño hamen jarriko ditugu enplastuak". Ta horko infeziyua honea pasa ziyon, besoa. Ta hortikan ya dana garbitu zun, ta neskaa primeran gelditu zan, ezkondu, familiya ta dana.

6.36. Gaixotasunak eta sendabelarrak

- **Hizlaria(k):** Serras Azpillaga, Antonio; Uria Aldalur, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-020/024
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:40:13. **Bukatu:** 00:42:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena:** Osaba bat nola hil zitzaion infekzioarekin kontaktzen du Antoniok. Pasma-belarra erabiltzen zen asko orduan. Tifusa oso hedatuta egon zen garai batean.

Transkripzioa

- A.: Baiño danak ez dia. Danak ez dia hala sendatzen, e! Nik nakan osaba bat, hogeit, berrogeita bost urte zazkan, Juanito Azpilla zan, anaian, aman anaia, herrera zan. Eta honen aitan launa osua, ta beitu, tifusekin ta zanian beak kendutzen ziyon maindiriak eta hori iñork ez zun iten, e! Ikutu, tifus... bueno! Eta ni jartzen nitzan, hola [...] e, baiño han aita ondo ematen zian.
- M.: Vete a lo que vas, vete a lo que vas.
- Noizbaiteko aurrian jarri ta, aita, "osaba!", ta, ba, "segi barroa!", ahari jokok eta ikustea. Ta behin holaxen amak esan zian, "ez dao, gaixo dao osaba, ta, jun zaitez zeara, ikustea". Eta jun nitzan ikustea ta esan niyon, meikua etorri zan ordun. Ez det esango zein meiko, e, meiko bat etorri zan, bere launa gaiñez, ta esan zion, "Juanito, que eso no es nada, que lo que te ha pasado, eso, eso tienes aquí reuma, esto es de la infección, pero esto es reuma". Ta nunbait hori txerri janak eta garbitzen ai zala, "se metió un esto de pescado, un..."
- M.: Bai, zea bat, arantza bat, arantza bat.
- Arantza.
- A.: Eta ordun infetatu. Eta amak esan zian, "ze mouz dao osaba?" Ta, "hil ingo da, ama". "Zer esaten diazu?", ta, "bai, bai, hura ez dao ondo". Ta, mezeta juten zan ama, goizeko sei t 'arditan, geo lanian hasteko, eun guztiyan lanian, ez zun hura etxeik eta konpontzen ta ezer, dana lanian bihian. Eta jun zan ta "arrazoi zendun Antonio. Eibarrea eamango due". Ordun [Trucuma] o zan izena, [Trucuma], harek, baiño hil zan.
- M.: Bai, baiño oso hartuta zeon, ta ya...
- A.: Berrogeita bost urtekin gizona.
- M.: Pasmua bakizu zer dan, pasmo-belarra izaten zan ordun.
- Ta ordun kalia tifusa eo hola komentatzen zan, eta bildur hori bazeon tifusan inguruan?
- M.: Bai! Tifus asko zeon!
- A.: Jo! Tifus era como la lepra o algo así.
- M.: Nere, nere, nik ez nun ezautu, e, osaba bat, aman aita... zea, aman anaia, Oriyon panadero, hura 're tifusekin hil zan. Tifus oso-oso zea omen zan...
- Ta zuek... Umiak ziñatela, kontuatzen ziñaten Tifusak... ez ziñaten kontuatzen...
- M.: Ez, ke ba, ke ba.

6.37. Jostundegien arteko harremana

- **Hizlaria(k):** Kaperotxipi Arakistain, Jesus Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-024/011
- **Iraupena:** 00:02:56. **Hasi:** 00:12:36. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** 10-12 jostundegi zeuden Zarautzen eta denak ondo konpontzen ziren. Santa Luzia egunean bazkaria egiten zuten. Denek izaten zuten trajeren bat 40ko hamarkada inguruan. Ostegun Santu Egunean estreinatzen zen trajea.

Transkripzioa

- Eta zer esan behar nizun..., e... Orduan esan dezu, e... txaketak, e, galtzak, txaketak...
- Bai, sastrei baten iten dana herri batian, normala. Abriguak eta.
- Ba al zeon sastreri gehio?
- E?
- Ba al zan...
- Jesus! Pilla...
- Bai, e?
- Zarautzen?
- Bai.
- Ba, izango giñan hamabin bat, bai. Hamar o hamabi bat bai. Zarautza izan da herri bat sastre gehiena eon dana.
- Kontxo!
- Bai. Ta danok ondo alkartzen giñan, gaiñea. Santa Luzian egunian iten gendun halako bazkai earrak eta danok alkarrekin iten gendun. Bai, Santa Luzia egunian.
- Ordun, konpetentziya 're bazan.
- Bai, bai, bai, haundiya. Baiño orduan ba al dakizu zer pasatzen zan? Konparaziyo batea, zea, Aste Santua, Ostegun Santua, Ostiral Santua, eta geo, zean, jayian, osea, nola da? Este...
- Pazkua?
- Pazku Eguna. Aurreatzen gendun, "bueno, Ostegun Santoako lixto eukiko dek", eta ezin, ta Ostiral Santuan, ta hala 're, ailleatu eziñik. "Bueno, zea, Pazko Eguneako eukiko dek trajia". Orduan trajia danak iten zuen, azkenengo zeak 'e bai. Trajiak, e! Iñor ez zan juten zea, esto, entierrota o zeata, zeakin, trajeik gabe. Beti, bi urtetik behiñ o esto, ta urterokuak asko zian Zarautzen trajia iten zuenak. Orduan zan trajia... Ta kandelak bezela, igual-igual.
- Gerra ondorenean diru asko ez zan eongo, ba?
- Baiño, hori ya beanduxio esaten dizut, e!
- Bai, ze urtetan, berrogeita bostian?
- Bueno, gu han lana iten gendula. Bai, orduan 'e bai, e! Orduan 'e jende asko zeon, zea, trajiakin ibiltzen zana, asko gaiñea.
- Zer preziotako trajeak zeuden, ordun?
- U, u, u, u, u! Oaintxe bai! Nik ez dakit, ba. Orduan zenbat... zazpi milla pezta, o.
- Dirua, e!
- Onenak zazpi milla pezta o hola, baiño beranduxio esaten dizut, e! Geo, aurretikan, ba, ez dakit ba nik zenbat paatuko zan! Bi milla pezta? Bost milla pezta? Ez dakit, ez naiz gootzen. Papelak badazkat etxian, baiño.
- Noiz estrenatzen zun jendiak ordun arropa, edo?
- Hori, Zarautzan zan Ostegun Santu Eguna.
- Ordun estrenatzen zan.
- Ta bestela, San Josetan 'e bai.
- San Josetan.

- Baiño, Ostegun Santu Eguna. Ezin bazan Ostegun Santuan, ostiala. Ta bestela, zean, Pazko Egunian, baiño danak. Gu lanian, ta akordatzen naiz beti guri tokatzen zitzaigun ostiala, eo osteguna o ostiala ta lanbata lana itia. Ta orduan antxo-denboa izaten zan, bueno, oain 'e bai! Eta antxoa batzuek jan ta berriz 'e segi lanea, hurrengo egunea arte! Bai, bai, gelditu gabe, e! Erropa, puf, orduan iten zan...

6.38. Jostundegien arteko harremana

- **Hizlaria(k)**: Kaperotxipi Arakistain, Jesus Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-024/014
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:18:48. **Bukatu**: 00:20:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Santa Luzia eguna nola ospatzen zuten. Batzuetan Zumarragako Santa Luzietara ere joaten ziren. Behin beste jostun batek eta biek asto bat erosi zuten. Honen inguruko gertakizuna. Omenaldiak ere egiten ziren jostunen egunean.

Transkripzioa

- Eta, orduan, e, ze esan behar nizun, geo esan dezu, ospakizuna eiten zenutela zuen artean, sastreen artean, Santa Luzia egunean.

- Bai.

- Ze eratako ospakizuna izaten zan hori?

- Ze edadekoa?

- Ze eratakoa. Ze eratako ospakizuna?

- Osea, había... Goizian ateatzen giñan ta meza. Eta geo hamaiketakua. Ta geo bazkaia soziedade batian o zea batian, hoi izaten zan.

- Eta...

- Geo, urte batzutan 'e juten giñan zeara, Santa Luzira...

- Nora Santa Luzira?

- Zeara, esto... festak nola izaten dia Santa Lucia?

- Zumarraga?

- Zumarraga, hoixe! Zumarraga juten giñan. Aparte, danok ez, e, aparte juten giñan. Ta anekdota bat esango dizut. Batian jun giñan Antonio Urbina, hura 're sastia zan, hil zan, ta biyok. Ta han ibili giñan txikiteuan ta zean, ta. Asto txiki bat eosi gendun. Asto txiki harekin, ijituai erosita asto txiki harekin eguerdiyan ta ibili, bazkaldu ta zea, ta. Arratsaldeko seirak aldian o zazpirak, "bueno, Zarautza jun behar diyau, ta", astoik ez, soka bakarrikan! Ijituak eaman! Hori, hori detalle hoiek earki akordatzen naiz!

- Ze asmokin eosi zenuten, ba, astua?

- Bueno, hantxe ibiltzeko, jostatzen. [...]. Gaiñea, nahio kendu ziguela, bestela, guk ze ingo deu? Laga in behar han! Ta ez naiz, ez naiz gootzen zenbat paatu gendun asto hura, baiño batez.

- Ta, ospakizun hortan, zerbait irakurtzen zan, esaten zan, omenaldiren bat eiten zan, kantatzen zan? Zeoze?

- Gure denboa hontan?

- Bai.

- Bai, izaten zian homenajiak, omenaldiak, baiño ez dakit ze izen, hola, esateko zeñei, ta. Nik buru txarra dakat eta. Izaten zian, bai. Ba, denboa hartan [...], nere osabai 're in ziyoen etorri zanian, etorri baiño lehen, omenaldi bat in ziyoen ta hola askoei, baiño ez nizuke esango zeñei.

6.39. Otordu asko olagarroarekin

- **Hizlaria(k):** Makazaga Agirre , Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-025/018
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:29:46. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Harrapatutako arraina etxerako izaten zen. Olagarroa kontserbatu egiten zen barrikan usteldu ondoren. Otordu asko egiten ziren olagarroarekin.

Transkripzioa

- Ta etxeako izaten al zenun arraia?
- Bai.
- Bai, ez?
- Bai. Bai. Negoziatzeko ta ez zan. Ez zan aillatzen horrenbeste!
- Etxian gustoa asko jango zan.
- Bai! Pamilya 're dezentia... Zu! Nik ze [...]. Olaarro bat o hoiek, hoik konserban iten zian, e! Hoiek iten dia usteldu. Oan ni, oain zeatzen dittue, e, konjeladoren 'e bai oain, hori asko zeatzen due. Baiño lehen guk iten gendun barrikan usteldu, ta geo eualdi ear samarra [...] sekatu ondo, ta pakete baten biltzen zendun ondo, ta olaarru-patata, olaarru-zopa, zer? Makiña aldiz! Jatordua. Makiña aldiz, e! Hua zanen gustoa.

6.40. San Pelaioiko eskola eta irakasleak

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Agirre, Pepita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-027/004
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** San pelayoko eskolara joan zen. Neskak eta mutilak banatuta izaten ziren. Irakasleak, Josefa Lekuona eta Aurelio Gonzalez.

Transkripzioa

- Ta eskolan, ze, hor San Pelaioiko eskolan, nexkak alde batetik ta mutillak bestetik...
- Bai, bai, behian izaten zian mutillak eta goian izaten zan... bai, bai, bai.

- Gooratzzen al zea maistran baten izena, edo?
 - Bai, Ziotzakua, Ziotzakua, Josefa Lekuona zan, Ziotzaneko alaba zan. Eta, maixua berriz, behian orduan Aurelio Gonzalez, bai. Eta, kalea juteko goguakin eoten giñan, ama esniakin juten zan karruan hartuta etxetan partitzeko eta, orduan, ba, etxen gelditu ezkeo lana in behar izaten giñuan, eta, aunke sea, goizian pare bat ordu amakin esniak eta partitzen ta.

6.41. Arropa berriak jai egunetarako bakarrik

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Agirre, Pepita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-027/006
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Arropa jai egunetan estreinatzen zen, Ostegun Santutan-eta.

Transkripzioa

- Badao hor, e, erropa berriya iteko egunen bat eo, zuek iten al zenuen halakoikan, Ostegun Santuan edo?
 - A, erropa berriya? Hua jaitako ta zan, e!
 - Hua jaitako.
 - Jaitako, jaitako ta. Zapatak beti, bai zapata izaten giñuan. Ni ez naiz konturatzen, ba, kalea albarkakin juten nintzanikan. Zapatak, baiña haiek beti jasota. Albarkak eta horrela ba, etxian ibiltzeko, e! Ta oiñetako zaharrak eta beti. Zapatak gomazkok izaten zian ta haiek etxian ibiltzeko baiño kaleako beti, o Ostegun Santutan ta orduan ba, beti erropa bat, aizu, jaitako. Hua prexixo, jaitako, mezeta juteko, ta holako izaten giñuan.

6.42. Komunio handia pozez egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Agirre, Pepita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-027/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** Komunio handia eta txikia (zazpi urterekin). Komunio handira pozez joaten ziren, arropa berria, soineko zuria... Permanentea ere egiten zen. Bikarioa don Meliton zen. Jaunartzeak parrokian egiten ziren. Orduan parrokia bakarra zen Zarautzen, eta elizkizun guztiak bertan egiten ziren.

Transkripzioa

- Ta gooratzan al zea zure lagunkidiak o ikaskidiak o zein zian o?
- Bai, bai orduan ez zan izaten adin batekua bakarrikan...
- Bai, danak nahastuta, ezta?
- Danak nahastuta izaten zian ta, asko! Hillak 'e badia mordoska bat eta. Geo lehendabiziko jaun hartzekuak ere goguan izaten dia zein izan zian, halakua bai, alkarrekin komulgatuak gea, komuniyo haundiya iten zan orduan, e, hamabi urtekin.
- Komuniyo txikiya noiz izaten zan?
- Ba zazpi urtekin.
- A! Zazpi ta geo...
- Bai, uan ez naiz asko gogoatzen zeintzuk ginan, baiño komuniyo hanundikuak bai, batzuk bai, bai, dexente gogoratzan naiz. Hua hamabi urtekin iten zan, ta orduan ba, beti pozak eoten giñan, bai. Bakizu, erropa berriya in ta, aizu, soñoko zuriyakin ta. Komuniyo haundiya eitea ta, bai, ta ondo. Ta, txikiya zuriz ez giñun in, txikiya izaten zan bestelako erropakin, normalakin. Baiña komuniyo haundiya ya orduan ba soñokuakin izaten zan. Bai, gustoa ta, geo, ba, permanente 're eiten zan orduan ta, permanente inda ta, bai.
- Nun ein zenuten komuniyo txikiya ta haundiya, hor San Pelaioko elizan?
- Ez, ez Parrokin.
- A! Parrokiyan iten zan orduan.
- Bai, bai, bai. Parrokiyan iten zan, bai. Orduan Zarautzen Parroki bakarra zan daneako. Entierruak eta danak Parrokiyan iten zian.
- Ta, ze apaiz zan orduan, goatzen zea?
- Don Meliton, bikayua zan; geo Don Luis Azpiazu, eta... Don Luis eta Don Juan. Don Luisek ez dakit ze apellido zun, Don Juan Azpiazu ta geo Don Juan "Xarra" ta, hola zian apaizak, bai. Bai, geo beste batzuk ere bazian baiña ez naiz oso... gogoatzen oain izenakin ere. Holaxe zan.

6.43. Pagoetako gurutzearen inaugurazioa

- **Hizlaria(k):** Elola Aranburu, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-028/029
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:50:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Pagoetako gurutzearen inaugurazioan egon zen 10 urte zituela. Eguraldi txarra egin arren, jende asko aritu zen dantzaz txistu eta danbolinarekin.

Transkripzioa

- Pagoetako inauguraziyuan esan dezu. Nola izan zan...
- E?
- Pagoetako gurutzean inauguraziyuan egon ziñela.
- Bai.
- Nola izan zan egun hori? Nola...
- Oi! Ederra! Dantzaz ta esaten ez dizut, ba, izugarrizko korro eder

haundiyakin, ta gu erdiyan txikiyokuak dantzán. Ta euriya han jo ta ke in zun. Eta, euri hori dana, busti-busti-busti in nitzan, eta ordun hamar urte t 'erdi nezkán. Bueno, hamaika iteko neon, uztaillan. Eta, jaun hartzia hamaikakin in behar izaten zan. Baiño, este, esan zun, karo, e, uztailla, ekaiñan azken arte bakarrikan izaten zan. [...] urte guztiya hartzen da, ta ekaiña [...] arte, sei hillabete arte izaten zan. Ta nik uztaillan bostian iten nun. Ta esan zian hurrungo urtian in beharko nula. Eta esan niyon, Jesus Maria! Neska hazitzen, osea ke, gazte-haziya nola esaten da? Gazte-haziya izan naiz. Nei igual hamabost urtekin esaten zian hemezortzi urte nezkaela. Eta geo, hemezortzi ta hogeí iten nitunian, hamazazpi igual esaten zien nekala. Bai, egiya, e?

- Jende asko jun al zan hemendik Pagoeta? Zarauztik jende asko?

- Nik uste baietz.

- Bai?

- Ni behintzat, ni neska-koskorra nitzan hamaika urtekua ta neetzako asko zan jendia han.

- Oiñez jungo ziñaten, noski?

- E?

- Oiñez, noski.

- Bai, bai, bai. Oiñez, oiñez. Geo beste behin o bitan o bakarrik jun naiz, e. Karo, hamabost urteako horrea sartu nitzan, ta...

- Ze musika zeon ba, soiñua ala txistua, edo?

- Bai, txistua ta danboliña uste det zala han. Bai, ta danak dantzán ta.

6.44. Umetan pleurarekin gaixoturik

- **Hizlaria(k):** Elola Aranburu, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-028/030
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:50:22. **Bukatu:** 00:52:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena:** Neskatoa zenean anaiaren bizikletarekin ibiltzen zen, baita euripean ere. Azkenean, gaixotu egin zen pleurarekin eta hamabost egunean ohean egon zen. Linaza eta mostazarekin egindako kataplasma jartzen zioten sendatzeko.

Transkripzioa

- Esaten dizuten dana busti. Ta geo anaiak zakan bizikleta, karreristak eukitzen zun bezelako, zea behera duena. Ta hemen hola dana libre zeon, hura hartuta beti bizikletan ni, beti bizikletan ibili in det. Kimua jotzen ai nitzan eta, e, hura in ta geo 're dana bustita etorri, eta eskolatik etorríta beti, benga ta benga ta. Geo, eskolatik etorri ta beti bazkaitako beti pronto jartzen omen nitzan. Eta etorri ta, danba!, ta ohian etzaten omen nitzan. Eta "etorri hai jatea!", ta, "ez dakat, ba, gogo haundiikan", ta. "Etorri hai jatea!". Ta esan zien, "bueno, Don Leandroi deituko zionau", ta. "Ez, nik Anetxun aita nahi det", Zinkunegi, "Anetxun aita nahi det". Eskolan Anetxu, ta, meikua zun aita, ta, "Anetxun aita nahi det nik". Eta bueno, "ba, ekarriko deu". Ta bueno, pleura, pleura o nekala o ez dakit ze. Hamabost egunian deskantsuan eukitzeko. Ta hamabost egunian euki eta pixatzea eramateko, gizendu in behar nula. Eta kataplasma jartzen zien. Hor ez zan

ez injekziyoik eta ez ezerre. Jaten ondo emateko ta fruta 're emateko.
 - Zer zan hori, kataplasma?
 - Linaza ta mostaza. Osea ke, mostazakin kataplasma hola paiñuan bitu, eta hola zea bota geo linaza pixkat. Hementxe, ezkerraldia nun, eta geo jartzen zin kataplasma hori, ta "oso ondo dijua, e. Ya sendatu da, baiño beste hamabost egun... Txikiya ta da, eskola jun ta jolasian ta izarditu ta hoztu ingo da, ta berrizkatu ingo zako ta, zean, ta". Ordun komedorea jun ta, "ze, esan diazu garbi, e, noabaitea moitu behar baldin...", "ez, ez, lasai, e, lasai". Ta geo amak eraman zian, zein zan meiku hura? Geo 're jun nutzan ni, [...] izan naiz ta beti jun iten nitzan, urtian behin.

6.45. Oheko arroparekin Zalbideko garbitokira

- **Hizlaria(k):** Elola Aranburu, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-028/032
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:56:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Salbideko garbitokira joan izan da. Batzuek leku finkoa izaten zuten. Etxean xabotzen zuten arropa eta garbitokira aklatatzera joaten ziren. Zenbat oheko arropa egoten zen garbitzeko.

Transkripzioa

- Zalbideko garbitokia ezautu al zenun?
 - Bai, jun 'e bai izandu naiz.
 - Ta nola gogoratzen dezu?
 - Ba, Jesus, Maria! Han bazebe batzuek beti toki bat behar zuenak. Haiek errespetatu in behar zian, porke hango garbiya. Bestiak jaboia kendutzen ta, jaboia hura hartzeko ez zebela, ta. [...] tokiyan, bai, askotan juten giñan. Baiño itxian jabontzen gendun guk dana, e. Gendakaun mahaian jartzen gendun sinkazko zea bat, hola. Eta han jartzen zan erropa dana, eta, han dana jabontzen zun amak. Amak dana jabontzen zun, ta nere ahizpa zaharren honek hartzen zun zean, goian horrela. Nik txiki bat hartzen nun, baiño.
 - [...]
 - Bai. Aklatatzea juten giñan gu. Han, bertan juten zian jabontzea hamarretik betzi, dana bertan iten zituen. Eta, klaro, ba al dakizu ze pasatzen zan? Langilliak mekanikuak eta zianenen erropak, haiek zikiñ asko, ta jendiak haien onduan nahi ez eon. Guk dana itxian iten gendun, e, aklatatzea juten giñan. Geo ya labadora zea hoietakua zeatu zanian, aklatatzeko eo zeatu giñan, baiño dana itxian. Eske, hiru pixu prepaatu behar izaten gendun. Betzi ohi, hamar matrimoniyuakin jotzen gendun, eta gaiñea, siheska jartzen gendun. Koltxoi hoiek danak dinbili-danbala, dinbili-danbala, ta danak arrotu ta in behar izaten giñun danak. Eta manta guztiyak eta sobrekama guztiyak eta, han, beste hoientzako erropa dana jartzen zitzakoen, [...] eta danak jartzen zitzaixkioen. Oaiñ ez, oain erropa beak ekartzen duela askok. Batzuek erropakin 'e bai, baiño ordun dana jartzen zan.
 - Ze giro eoten zan han? Zera, Zalbideko garbitoki...
 - Han, ondo! Nik ondo ibiltzen nun. Baten batzuk bazian pixkat raruak

zianak, baiño ez, ez, ez, ondo. Ni, ni behintzat juten nitzanian oso ondo. Ez dakit garaia hartzen gendun, o eguna hartzen gendun, o zer, ba, askok izango zun ohitura igual astelehenian bertan dana iteko, ta.

6.46. Auzoko mojekin harremana

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/005
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Mojen lurretara joaten ziren lanera, idi parearekin. Arratsaldean errazioa ematen zieten langileari eta ganaduei. Bi moja egoten ziren kanpokoekin harremanetarako, eta besteak klausuran. Pilotan aritzen ziren elizako horman. Pilotak alde egin eta mojetara joaten ziren bila.

Transkripzioa

<p>- Hara juten giñan, goldian, itulan, hango lanak itea juten giñan. Konpetentziya hori gendun. Hara jun ta [jardun...].
- Ta lanan truke zerbait jasoko zenuten baita?
- Lanan truke, beak bestetan bezelaxe, bere sariya diruz ordaintzen zuten.
- Bai, e?
- Bai, "Bestetan bezelaxe?", ta "Bai, bai, [...] hola eitten du /eitteu/" ta "Bale" ta [...].
- Ganaui paria...
- Iri paria laun batekin.
- A! Iri paria?
- Iri paria laun batekin juten zan hara. Eta arratsalde erdiyan arraziyua launantzako eta artaburu bana iriyantzako, izaten zuten haiekere sariya.
- Eta zer raziyo, ze ematen zuten raziyan?
- Raziyan, ba, [...] bokadilo koxkor bat eta litro laurden bat ardo. Eta gero udare pare bat edo hola, ganbaran eondako xehe hoitakuak.
- Orduan, portatzen zian?
- Oso ondo. Oso ondo, bai.
- Gaztiak izango zian hor mojak?
- Danetik, danetik. Orduan zeudenak, oain ez al dia egongo baiña… bat edo beste bai. Errezilenekua, osaba Juaniton lehengusua, [...] hor zeon]. Ta gu hara juten giñan leno, mojan horman kontra pelotan gebiltzala, pelota paetaz gaiñetik juten zanian baratza… ni hara jun eta: “Zea, pelota erori zaigu...” eta: “Biyar etorri emango dizuet eta”. Zeatikan hor daude kanpoko lanak iteko bi edo hiru eoten zian jendiakin komunikatzeko eta erosketak iteko. Ta beste batzuk klausuran barruan. Aparte bizitzen zian. Kanpoko hoiei esaten giñun ta haiek barrukoi abixua pasatzen zien eta hurrengo egunian-edo pelota ekartzen zuen eta hara hamaika aldiz juna.
- Orduan, pelotam jarduten zenduten hor, e?
- Hor paeta pasa... Horma haundiya zun, oso altua. 3 metro eta erdi inguru izango zan horren altura. Baiña mutil-koxkorrak pelotan ai giñala, baloia o... “Pelota erori zaigu” eta “Zein paretan?”, "Makalan onduan, han zean…," "Bale!". Ta hala ekartzen ziguen. Askotan juten giñan. Oain eliza garbitzea juten gea, hillian behin edo horrela. Eta esaten diet

nik: "Lehen honea kanpanila jotzea etortzen nitzan, pelotan bila ta oain eliza garbitzea etortzen naiz”.</p>

6.47. Eskolara baserriko lanik ez zenean

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/011
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:19:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Gerra-aurretik hasi zen eskolan. Gerra garaian irakasleak joan egin ziren eta irakasle madrildarrak etorri ziren gero. Baserrian lanik ez zegoenean bakarrik joaten zen. 12 urterekin gau-eskolan hasi zen.

Transkripzioa

- Gerra aurretik hasi, en el año 36, eta gero gerra etorri zan, maixuak alde ein zuen, eta hillabete batzutan, ba, dalako zea hua pasa eta gero horratikan e, maixuik nola ez zeon, neska gazte batzuk, madrileñuak, udara pasatzera etorri zianak, zean zeudenak, oain Hotel Zarauz dan hortan [zeuden batzuk], 2 ahizpa, berrogeita lau-bost mutil koskorrentzako. Batzutan etortzen nitzan, itxian, basarriyan zeaik ez bazan eta hola. Baiña gutxi, gutxi. Tonto xamarra izan´e bai. Eta geo hamar urterako geatu. Aita hil. Bi anaia zaharrak soldadu. Hamasei urteko mutil koskorra, [...] eta ni etxian amakin. Geora, hamaika urte iteko, komuniyo haundiya esaten zana, "comuni6n solemne". Ordurako etxian neon, geatuta. Hau zala, hori zala eta maixuakin zea izan zala eta [...] eta anaiak: "Ondo zio, hi, [pixkat badakik]". Hark´e launa ber, bakarrikabn zeon bestela eta, [etxian geatuta]. Ta geo in nuna zan, hamalau urteako hasi nitzan gau-eskola etortzen. Ez, hamabi urtekin hasi nitzan gau-eskola etortzen. Frailletan urte batzutan, ta gaez ematen zan eskola ordun, basarrikontzako eta bertako batzuntzat´e bai illuntzian neguan izaten zan lau bat hillabetian-edo gau-eskola, eta horrea etortzen nitzan. Urte batzutan frai Bitorrekin ibili nitzan; beste batzutan zeakin´e bai: Sorasu, maixu kojua zan, profesionala, baiña hanketatik-eta gaizki geratu zan. Ta bestia [...] Xan Pierren alaba batekin, [...]. Hogei urtea arte neguan, eta hiru bat hillabetian edo eunian ordubete, ordu ta erdi edo hola. Eta eskerrak horrei ba

- Horra jun aurretikan eskribitzen eta irakurtzen jakingo zendun.

- Bai, ordurako lau zeak... lau operaziyuak, nola esaten da /esatea/? "las 4 reglas" edo. Ba horreaiño aillatzen nitzan, aillatzen nitzan.

- Eta hori ikasi zendun hain gutxitan junda?

- Bai, askotan ez nitzan jun; askotan ez nitzan jun.

- Orduan, tontua ez; azkarra behar zendun.

- Esatia ez da errex. Se6orita batek oso estimatua nindun, oso estimatua nindun, bai. Hori esan bihar da.

6.48. Fraideen toldoak lehenengo

- **Hizlaria(k):** Epelde Lizaso, Hilario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZAR-047/015
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Igandero, toldoak jarri aurretik, mezatara joaten ziren. Meza ostean ipini beharreko lehendabiziko toldoak, fraideenak izaten ziren. Fraide eta apaizak ez ziren gainontzeko guztiekin batera hondartzan egoten. Ubideko zuloan, aparte egoten ziren.

Transkripzioa

- Tolduak jartzeko, igandia baldin bazan, gu seirak laurden gutxiko mezeta juten giñan, Aita Zabala izaten huan. Bai, aurrenengo meza, seirak laurden gutxiotan. Ta geo korrika tolduak jartzeara, ta normalian jartzen giñen Ostemarreko aurrekuan. Ostemar dek oain Muskaria.

- Hori dek

-Hor aurrekuan, zergatik, frailleen nobixiyuak baiñatzeko tolduak jarrita euki ber izaten zizkiyen. Bai, bai eta Ubideko zulua ere Fraillen hondartza huan, gure garaian.

-Baita, oraindikan ere batzuk edade pixkatekuak hola deitzen die / deitzeye/.

-Frailiak hemen hondartzan ordu normaletan atrebitzen ez zianak- edo, han nola iñor ez zan pasatzen ba, Ubideko zulua huan Frailleen hondartza. Hara juten hituan.

-Eta hara bai eh

-Bai, frailiak hara juten hituan.

-Baiña hara nobixiyuak ez.

-Ez, ez ya fraile iñak, fraile iñak juten hituan Ubideko zulua.

-Ubideko zulua, hori dek Getari bidean daon...

-Bai Zarauz ta Getariko mugan.

-Muga iten dun.

-Buelta hoi iten una, zea pintaute nola dao, zea han bukatzen dek Zarauzkua, han bukatzen dek bueno ba hoixe dek, atze alde bat iten dun hori. Eta, ordun, hondartza juten giñen, aurrena biek iten ziye batek karrua ta karrua kargatu hustutzen berriz ´e kaxetatikan zea, toldua, ta karrua hartu eta behera bota, tapa-tapa bakoitza bere makil parian. Bitartian behekuak jarduten hituan aulkiyak ta inguratzen, bakoitza bere tokiyan jartzen, aulkiya eta silla, bakoitzak aulkiya ta bi silla beste batzutan.

6.49. Gaztetako anekdotak

- **Hizlaria(k):** Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Loidi Udabe, Aitor
- **Erref:** ZAR-101/011
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:07:49. **Bukatu:** 00:08:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Loidi Udabe, Aitor

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena:** Behin gurdi gainetik erori, eta usaimena galdu zuen. Beste batean, euritan zihoazela lagun-taldean, mandoa irristatu eta han izandako erreakzioak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta zure anekdotikan?

- Ba anekdotak, badakizu, beti izaten dia, baiño momentu hontan ez dia asko gogoratzen... Ba, batian goatzen naiz, [...] nentorrela, karro gaiñetikan erori nintzan, ta zortzi egunian klinikan eon nintzan kokotian kolpia hartuta, ta usaya galdu nun, ta harrezkeotikan usaiikan gabe nao. Bai, beste batian'e, goatzen naiz, mutil koskor mordo batekin banijoan, ta euriya hasi zan, ta azkarregi guazen, ta labaindu zan mandua, ta erori, ta nahiko larri. Han danak umiak nearrez batzuk, eta besteak parrez, ta holaxe gertatu zan. Holakotxe batzuk bai, baiño momentu hontan ez dia, ez naiz geyo goatzen.

6.50. Lehengo janzkera eta ikasketak

- **Hizlaria(k):** Bonetxea, Maria Asunción

- **Elkarrizketatzailea(k):** Aristi, Gorka

- **Erref:** ZAR-102/008

- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:07:01

- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Aristi, Gorka

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- **Laburpena:** Lehen hondartzara joateko nola janzten ziren azaltzen du. Lehengo kultura eta oraingoa oso desberdinak direla esaten du: lehen maila gutxiagoko ikasketak izaten zituzten.

Transkripzioa

- Eta leno ze janzkera mota ibiltzen zan hola kostan?

- Ba, gonakin. Oain bezela bikinikin ta hori ezta pentsatu're. Eta gaiñea albornoza jantzita, baiñeruak ibiltzen zian hor, Fafai, ta Lazkanotarrak eta, hayek guri zaitzen, gu baiñatzen ibiltzen giñan, hayek guri beira zerbait gertatzen ote zitzaigun. Baiño gonakin.

- Eta ze materialetakuak izaten zien?

- Algodoya. Orduan ez zan...

- Ta geo lehortzen zailla eingo zan?

- Hua bai, egun guztirako zan hura.

- Zea, lehengo kultura eta oraingo kultura igualak al zian?

- Oso desberdiñak. Lengan matematikan tokiyan, guk nahikua izaten genduzen lau reglak, ta horrekin defenditu gea. Oain zuek multiplikatzekeo tabla ez dezue jakingo, zeatikan kalkuladorakin iten dezue dana, ta guk'e bai, askoz ez errezagoa da ta.

6.51. Eskola

- **Hizlaria(k):** Bonetxea, Maria Asunción
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aristi, Gorka
- **Erref:** ZAR-102/011
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:10:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aristi, Gorka
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Miserikordian egon zen 6 urtera arte, eta gero eskola publikoan sartu zen: maistra batekin 100 ikasle. Neskak eta mutilak elkarrekin egoten ziren txikitan, baina gero bereizita.

Transkripzioa

- Lehenoko eskola motak, hola grupotan eta, igualak izaten al zien?
- Ez, ni oso txikitan, bi urtekin o horrela, jun nintzan Mixerikordira. Han eon nintzan sei urte arte, zeatikan artian ez zuen erten “escuela pública” esaten zitzayon hori, eta ni “escuela públicasetan” sartu nintzanean, maistra batekin ehun giñan. Orduan, zahartsuenak gaztiari, txikiyai, erakusten ziguen; eta horrela juten zan. Geo neskak alde batian eta mutillak bestian. Oaiñ’e ezautzen dezue eskola mutillena, zeako aldian daona, bolatokiko (bueno, bolatokiya oain), leno , este... artzaiñak nola daude, Munizipalak?
- A bai.
- Hori mutillan eskola zan; eta jubilatuan toki hori neskana.
- Zea, Mixeikordiya [...]?
- Hori neskana bakarrik. Ez! Txikiyak, neskak eta mutillak. Baiño geo ya neskak bakarrik.
- Oaiñ’e hala da.
- Oaiñ’e hala al da?
- Txikiyak, zea, neskak eta mutillak.
- Baiño iya bost o sei urte arte. Ta geo ya, neskak beste klase batea juten zian, ta...
- Oaiñ’e...
- Oaiñ’e bai?

6.52. Mezak eta hiletak

- **Hizlaria(k):** Bonetxea, Maria Asunción
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aristi, Gorka
- **Erref:** ZAR-102/013
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:14:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aristi, Gorka
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena:** Elizara lehen ia egunero joaten ziren. Gerora gutxiago joaten hasi ziren, ospakizun berezietan bakarrik. Bederatzurreren

inguruko azalpenak. Hiletetara nor joaten zen eta zer meza mota izaten ziren kontatzen du.

Transkripzioa

- Ta leno eliza ta hola egunero o jaitan eo, oain bezela juden al da?
- Leno joaten giñen eliza iya egunero mezeta. Baiño geo ez dakit zergatik gutxiyo. Eta Nobenak eta baldin bazian, Ama Berjiña Kontzesiyoko ta San Josen Nobena, ta Arantzazuko Amana ta... jendia juden zan erruz, baiño uste det frailiak bakarrik izaten dila.
- Nobena zer da?
- Beatziurren bat, iten zayona Ama Berjiñari edo santuari San Josei. San Pelayoi're bai iten zitzayon... Santu guztiyai nik uste egiten zitzayola.
- Baten bat hiltzen zanen, intiarruta o ze... zer jende mota juden zan?
- Ba parientiak, mantuakin gaiñea. Zuek hori ez dezue ezagutu. Hala jartzen zuen, gerriyan lotzen zian zea batzuekin, lurreaiño, eta mantilla mantelin tupitutako hoitakuak, lutozko hoitakua, eta geo han probuan juden zianak, eta probuan juden ez zianak, parientiak, probuan zijuana seguru mantudunak. Eta geo parientiak'e bai, mantuakin juden zian. Ta geo lagunak ta hoyek ez, kaleko eran, o...
- Ta espezialki eongo zian inda [...]?
- Bai, jantzi hoyek espezialak zian.
- Bodetakuak ta bezela.
- Bai, baiño hoyek gordetzen zian, hoyek geyo serbitzen zuen. Bodetakuak hartako bakarrik. Eta geo gaiñea, oain bezela meza batekin ez zan izaten entiarrua; "a tiempoko" meza deitzen zitzayon meza izaten zian, ta zenbat eta geyo ateratzen zian, ba, hobe.
- Ta zer da "a tiempoko" meza?
- Zean, entierroko denboan meza ateatzen ai dian bitartian, beste altare batzuek eoten zian bueltan, eta altare haitan beste meza zebratzen zituen.
- Danak berdin?
- Ez, danak berdin ez. Segun zer ordaintzen zendun.

6.53. Komulgatzeko gorabeherak

- **Hizlaria(k)**: Uria, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Murua Uria, Imanol
- **Erref**: ZAR-103/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:01:36. **Bukatu**: 00:02:56
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
 - Ohiturak eta bizimodua » Erligioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Komulgatzeko zer egin behar izaten zuten azaltzen du. Komulgatzean, baserrira joan ahal izaten ziren lanera.

Transkripzioa

... Geo komulgatzeko urtiak etorri zian, ta komulgatzea torri giñan, ta nee launak eskolan... bestela... kalia ta hola ibiltzen zianak eta hola zian, ta hayek burla iten zien, zeak... Denboa hartan izaten zan, ba, komulgatzeko dotriña aurretik enayatu ber izaten zan, ta zea, ta... Hara jun ta batzuk kalabazero ateatzen zian, ta geo, hurrengo urte arte ez zeuken

komulgatzeikan. Ta nei launak burla iten zien askotan, “zeak, begi mogikok kalabaza galantak jan ber dizkik datorren urtian”, ta holako kontuak, ta... zea, ta geo, dotriña hasi giñan sakristira zeatzen. Ta don Pelipe dipuntua gizon zazkar zea bat zan, ta hasten da galdezka, ta aurrena galdetu zian nei, ta nik eantzun niyon, ta izuarri eokieran bat izan nun... “Bueno, hi, komulgatuko haiz”, ta “ez daukak kuidauik”. Eta handik aurrea goiko bankuan jartzen niñun ni, ta beste batzuk, geyo zekiyenak ustekuak, han galdatzen hasi, ta gaixki atea, suerte txarra eo zeatu ta, nerbioso o, ta hayek aurreko illaan jarri, ta hayei beti lata ta lata, ta gu trankil eoten giñan goyan jarrita, trankil, gu argi batzuk eo asko ikasitako batzuk bagiña bezela. Zea, ta geo komulgatu giñan, ta behin komulgatu ezkeo, lanea basarrin, ez zeon beste zeaikan.

6.54. Soldadutzan denbora gutxiago pasatzeko

- **Hizlaria(k)**: Uria, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Murua Uria, Imanol
- **Erref**: ZAR-103/007
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:10:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Soldadutzara denbora gutxiago joateko ordaindu egin behar izaten zen. Afrikara joatea tokatu zitzaion, eta denbora gutxiago egoteko zer egin behar izan zuen azaltzen du. Afrikan zer egin zuen kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta aipatu dezu soldaduska Afrikan bete zendula; soldaduska hori nola izan zan?

- Soldau, zea, etorri zanen, ba, soldauzka ta geo, zean, pagatu in ber zan, bestela hiru urteako jun ber zan. Soldauzka, milla pezta paauta hamar hillabete pasa, ta holako kondiziyua zeon ordun. Ta gu soldauska kintua hartu ta zeatu bitarte denboan... Aprika alden ordun’e molestiya batian, gerra zean, ta ez zeola paatzeikan, ta [...]... Geo halako batian, soiñu hoyek atea, ta geo uste nik apropos iten zuela. Geo kaja iriki zala, ta ordun ia jota danak ordun paGatzeara amorratzen hara ez juteatikan. Han soldauzka pagatu, ta zeak, gue etxeakuak, amak eta, geo bi anaik serbituta geneuzkan orduako. Ta bi anaik aurretik serbituta baldin bazaben, erdiya paatu ber zan, eo bestela, denboan erdiya pasa osua pagauta. Ta nik in nuan, ba, milla pezta pagau, ta hamar hillabete pasatzen zan tokiyan milla pezta pagau, ta bost hillabeteekin geatu, bost hillabete pasatzeko. Hala, kinta zeatu zanen, jun giñan Donostira, ta hortikan, gaiñea, aurretikan hiru hillabeten istruziyua ikasten ibili giñan, zea juteako. Orduan lege hori zeon: soldau juteako, aurretik istruziyua ikasi ber. Ta geo, istruziyua ikasten ibili ta geo, han sartu giñan kintan, jun giñan Donostira, ta han pasa giñun hiru hillabete lenbiziko txandan; ta geo, hurrengo urtian, beste bi pasatzekotan etxea torri, ta etxian lanen jardun, ta, han eonda, berriz, hurrenguan, hillan aurrenetik ... kunprittu: hillan aurrenian o erdiyan, o azkenian, eo beak nahi zun zean. Ta gu hillan aurrenian, bai ba, basarrin lanik gutxina ordun izaten da ta... Ordun, in ta geo, udaako laneako libre izateatikan gu, han sartu giñan. Hiru hillabete pasa, ta torri, ta geo, pasa gendun zea, hurrungo

zeatzia, ta ordun beste bi hillabete pasa ber. Urtian aurrenien, urtian aurrenien Donostira jun ta beste hiru hillabete pasa, torri, ta itxian jardun nitzan lanian, nee ustez orduntxe, ba, morrontzan soldata irabazi o zeoze iteko ustetan, ta handikan zea... Abuztua baiño leno, berriz, atzea Aprikako mubimentua zala, gerra... ta danak deitu, ta hartu abixua, ta Donostira eaman giñuen; ta Donostiyan “Xixiliako” numero sieteko batailloia zan guria; ta handikan lenbizi batailloi bat eaman zuen, ba kinta, hiru kintatakok eo gazteenetakua. Ni zarrenetakua nitzan, zea nola [...] gu geatu giñan bertan zeatzan, ta bestiak jun zian batailloia bitatikan osatuta. Ta geo, berriz, beste batailloia juteko zea torri zan, ta ordun, han jun giñan danak hara. Geo han, han ibili giñan, jun, ta mendira zeatu giñun ba lenbizi, nei pasa zitzaidan suertia eo launtza o zerbait izan nun, intendentziko zean sartu nitzan mendira jun biharren, panadeiko launtza, panadeikoei launtzen. Han ogiya karriatu, ta zea, ta aparte iriña eaman, ta ... panadeitzan ez giñan aritu, baiña zeoze, hango lanetan. Han’e pasa giñun bost hillabete eo, ez dakit zenbat pasa giñun han, bost hillabete o geyo. Geo handikan destino danak, zea, jundako batailloia juntatzeko o konpaiña juntatzeko ordena etorri zan, ta hala juntatu giñan berriz danak elkarrena, ta geo handikan danak destakamentuan fortzitu giñan. Gu “Taranez” esaten ziyoen destakamentu txiki baten, zortzi-hamar soldau o ez dakit zer giñan, handik ibiltzen giñan, gaua pasa ta [...] mendira erten deskuidotan, ta han mendiyan guardiyak iten, o zean, moruak etorri ez zitezen eo, ta handikan bueltaka han ibili giñan. Geo handikan hala gabiltzala, aillatu zan ba guk hiru urte kunprittu giñula han, ta lizentziatzeko ta hola, torri giñan udaan, abuztuan aurrenen eo.

6.55. Eskolako gorabeherak

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Erref:** ZAR-104/002
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:02:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Maistrarekin zer eta nola ikasten zuten azaltzen du. Euskaraz hitz egiteagatik zigortu egiten zituzten. Gerora beste irakasle batekin hasi ziren, baina gripe-bolada etorri, eta bertan behera gelditu zen.

Transkripzioa

- Ta zuek maistra horrekin ze ikasten zenduen?
 - Ba, paluak ein, ta pal... zea, zazpi urtekin o sei urtetikan zazpira ze ingo gendun guk? Palo batzuk eta aatak eta, geo zean, katonan letzen ikasi, ta holakuak. Eskola juteako ia, errezatzen ta ikasi gendun, amonak erakutsi ziun errezatzen. Ba, geo erderaz... euskeraz hitz eiten zunai kastigatu iten zun maistrak, eta erderaz ta asko hitz eiten zuen hango ume jendiak, gu

baiño haundiauak'e; eta guk'e ba erderaz'e orduan ikasi nitun nik errezatzen, gure ahizpa zaharrau ta. Nee anaya ta ahizpa nitun zaharrauak, eta hayek eskola geyo zeatzen zuen. Eta geo handikan... ez dakit zenbat urte izango zian, hurrena behintzat berriz'e, jain... kasan zean, ferreteya... Emilioneko denda horta eskola, nexka zea bat zan, matrimoniyo xahar bat zan ta. Patrox izena zuna, ta harek harekin ibili... hasi giñan eskolan, baiña gripe bolara ikaragarriya altxa zan, ta hamabost egunian bakarrik ibili giñan hor eskolan.

6.56. Irakasle ugari, baina garrantzitsuena dotrina

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Murua Uria, Imanol
- **Erref**: ZAR-104/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:49. **Bukatu**: 00:04:04
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Irakaslea baserri guztiek hartzen zuten apopilo denbora baterako, irakasle izan zedin Urtetan. Hark dotrina erakutsi zien gehienbat. Gero Albisturreko andereño bat etorri zen; baina baserrian lana baldin bazegoen, ezin izaten zuten klaseetara joan. Garrantzitsuena komunioa egiterako dotrina ondo jakitea zen.

Transkripzioa

Ta geo handikan beste urte batzuetan, Karlito're izena zun agure xahar bat ibiltzen zan, zean, San Sebastianen eskian ibiltzen zan, ta Zarauzko parroko santokristuantzako're bai, ta bea hor bizitzen zan, Jasaste alde hortan eo. Hortik etortzen zan, ta geo, neguan behintzat pentsatu zuen hua hartzia, Karlito hori. Etxe baten hillabete, beste etxe baten beste basarri batian beste hillabete pasatzen zun, ta gu, basarri batetik bestetik bestetik, hola neguan ibilli giñan, bi negutan hola ibilli giñan haekin. Dotriña, dotriña ikasi, ta zoeze eskribitzen jardun behintzat. Kuentak iten ez zun jakingo zergatikan ez ziun iñoi erakutsi, beak'e ez zun hainbeste jakingo. Ta geo etorri zan, maistra bat ekarri zuen, Albisturkua nik hamaika urte nituanian; ta harek'e bastante eakusten ziun, baiño, basarriyan noiznahi beti lanian gelditu ber izaten gendun, ta eskola gutxi juten giñan. Baiña komuniyua, ba, haundiya iteako, ba, dotriña ondo ikasi behintzat. Hua, hua ondo ikasi ezkeo, bale, bestela ez zuen komuniyua iten uzten, kalabazero lagatzen zuen. Ta bueno, komuniyua in gendun behintzat. Ya hamaika urtekin komuniyua in gendunian, pues, yasta, ya bukatu zan gure eskola.

6.57. Arrautza gordina jan zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Zubeldia Agirrezabal, Micaela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sansebastian Mujika, Olatz
- **Erref**: ZAR-105/007
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:08:48. **Bukatu**: 00:09:45

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Behin arrautza gordina jan zuten, eta ez zitzaion batere gustatu. Ordutik ez du berriro arrautza gordinik jan.

Transkripzioa

Beste behin in genun, ba, guk polita: oilluak arrautzak jartzen zituela, ta habiya billatu gendun belar pillan, ta esan genun: "Oi! Behiñ'e arrautza gordiña ez diñau jan, ta arrautza gordiñak jan ber dizkiñau". Ta "Bai, ogi gabe ta nola jango diñau?", "Hi jun hai, ta ekarri zan ogi koxkor bat, etxian harrapatu zan". Hala ekarri zun batek, ahizpa batek belar pilla, ogi koxkorra. Ta esan genun: "Bueno, hartu arrautz bana, ta arrautzak jan ber dizkiñau". Ogi pusketa sartu arrautzetan, ta arrautz gordiña jaten ai giñan ta baaa! Hua nazka azkenian! Akabo gure arrautz-jatia, han bukatu zan. Gordiñik nik geyo ez det jan arrautzik, hua nazka hua! Enteratu baldin bazian gure itxian, guk han belar pillan, orduan, arrautza jan giñula...

6.58. Eskolako maisuak

- **Hizlaria(k):** Odriozola Roteta, Balero
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Mari Carmen
- **Erref:** ZAR-106/003
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:00:53. **Bukatu:** 00:02:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe, Mari Carmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Herriko maisuari buruz hitz egiten du. Hura gaixo egoten zenean, haren alabak etortzen ziren. Gerora, maisu berria ekarri zuten; baina udaletxera bere burua aurkeztera joan zenean, eskale bat zela uste izan zuten, eta asko haserretu zen orduan.

Transkripzioa

Garai hartan, maixua herrikua gendun don "Servando Solis Machín", eta bastante edadekoa, eta gaixo zabillen. Eta bea gaixo geatu, eta bere bi alabak etortzen zian: bat Dolores Solis, eta beste ahizpa Amiana. Eta hura ibildu zan tenporada piskatian, baiña ikusi zanian maixua ez zala geyo gauza, maixu berriya nonbratu zuen honeako. Bialdu dute honea, ta presentatu aiuntamentuan. Eta begira ze tankera ekarriko zun, zeuden aiuntamentuan sekretayan alkatia, don Pedro Gurrutxaga, eta bere sekretayua don Juan Beristain, aiuntamentuko zerbaite arreglatzen, alkarrekin beren entrebixta iten. Ta ze tankerako gizona presentatuko zan, iruitu zaio alkatiai maixu hori sartu danian, eskekua dala, "camino Bilbao" hoitakua, ajatutako, gastatutako bixera bat, eta abrigua lepuan bizarra zeyon holako abrigo zatar batekin. Eta papeleta eman, ta aiuntamentuan dirua eman biharrian, hasi dia poltxikotik bi errialekoa ta ematen, ta ziharo molestatu, ta erantzun ziyon maixu horrek ez zala etorri hura limosna billa, baizikan maixu nazionala Zarauzko herrirako nonbratua zala, eta presentatzea.

6.59. Elizako gertatutako anekdota barregarria

- **Hizlaria(k):** Odriozola Roteta, Balero
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Mari Carmen
- **Erref:** ZAR-106/008
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:09:19. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe, Mari Carmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Elizan gizon batek puzkarra bota eta disimulatzeko egindakoa kontatzen du.

Transkripzioa

Eleizako beste gertaera bat'e: badaude eleizan ixil xamar, eta gizonai etorri zayo haizia botatzeko gogua. Baiña ez zaixkiyon ta ahal zana heldu, ta heldu, eta ezin zunian, eman dio egundoko bultzazua, egin du ikaragarritzko puzkerra, ta aurrian zakan mutil koskorra jo masaillian, eta iya lurrea bota biharrian. Ustez disimulatuko zula, ba, mutil koskorra masaillian jo zunian hari kulpia emanda; eta geratu omen zan len baiño nabarmeno gizon hori.

6.60. Apaiza eta meza-laguntzailearen anekdota barregarria

- **Hizlaria(k):** Odriozola Roteta, Balero
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Mari Carmen
- **Erref:** ZAR-106/009
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:11:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe, Mari Carmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Apaizak meza-laguntzaileari zerbait eskatu zionean gertatutako anekdota barregarria kontatzen du.

Transkripzioa

Garai haitan, baita ere "a tiempo"ko mezak o ematen zian altare txikitan, hola eleizan dauden albotan. Eta apaiz bat dijuala bere laguntzailliakin haitako batea meza ematea, beste asko bezela aita-seme batzuk'e arrimatu dia. Eta jarri da meza emateko apaiz hori, librua iriki du, eta ikusi du altarian zerbait falta zayola. Monagillo horrei begira jarri, ta esan diyo holako falta dala. Monagilluak kasoik ez. Bigarren aldiz esan dio fuertiago, libruai beida, holako ta holako falta dala, ta "e?" monagilluak erantzun. Ta "majadero!" esan, ta geratu da apaiz hori. Eta mutil koskorrak aitai: "Aita, apaizak majadero esan du". Aitak semiai ordun: "Zu ixo, libruak hala jarriko du ta".

6.61. Herriaren antolaketa lehen

- **Hizlaria(k):** Elozegi, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Erref:** ZAR-108/013
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Beren etxea nolako zen eta non zegoen azaltzen du. Lehen ere bazegoen Musika Plaza, eta dantza egiten zen han. Taberna asko zeuden plazan orduan ere, baina jende gutxiago ibiltzen zen tabernan. Soziedadeak ere bazeuden ordurako, eta izen batzuk aipatzen ditu. Eliza berri bat egin da Zarautzen bere txikia zenetik.

Transkripzioa

- Basarriyan bizi ziñazten?
- Ez, ez zan basarriya; oso itxe polita zan. Txalet bat bezela zan. Baiña fabrikan onduan bizi giñan. Zeatik gure aita zan hango... Nola esango nizueke? Iya han hantxe aintzen zuna beak.
- Lehen plaza Musika ba al zegoen?
- Baaaai, bai, bazeon.
- Ta musika ta hola ematen zuen?
- Baaaai, txistua, ta banda, ta orduan banda izaten zan.
- Ta dantza egiten al zenuten neskak?
- Bai. Baiña ya txikitan ez e? Uaindik ez giñan jetsi're iten. Ya, geo ya, neska koskorrak pixkat hazi giñanian, orduan bai.
- Ta taberna asko ta zeuden, oain bezela? Plazan ta...
- Baaaai, bai, bai. Uain asko daude lenokuak e?
- Ta jendia... jendia uain bezela ibiltzen zan tabernan ta hola?
- Ez, ez, ez, ez.
- Gutxiyo?
- Gutxiyo, bai, gutxiyo.
- Leno zer zian gehiago: tabernak ala sagardotegiyak?
- Aizu! Danetik zeon, ta baiño nik uste det taberna geyo zala.
- Zearik ba al zegoen, soziedaderik o...?
- Baita, bazeuden, bai. Uain dauden soziedadiak'e ya lenokuak dia.
- Esango dituzu izen batzuk?
- Ba, Arkaitzmendi; bestia, nola dia ba hoyek, Trinitade kalia daben hoyek? Momentu hontan ez naiz akordatzen.
- Elizak leno zeudenak leno zeudenak uain badaude o badao oain berri bat?
- Berriik, bai, badao. Bai, berriya in zuen hor, Santa Klara aldian o in due bat berriya. Beste gaiñuntzian ez, lenokok eongo dia.
- Santa Barbara juten ziñazten?
- Baai, askotan gaiñeaz. Asko gustatzen zitzaten Santa Barbara iyotzia.
- Uain baiño geyo ematen zuen han eliza?
- Ez, meza beti bezela eman ditue, baiño gutzako eskurtziyo bat bezela zan arratsaldian hara jutia.

6.62. Lehengo jendearen ohiturak eta janzkera

- **Hizlaria(k):** Epelde Etxabe, Inoxenxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Loiola Harizti, Agurtzane
- **Erref:** ZAR-111/002
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Loiola Harizti, Agurtzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Inoxenxioren aitona izan zen balea Zarautzen harrapatu zutenetako bat. Lehen nola janzten ziren azaltzen du. Hondartzan zer janzten zuten eta nola moldatzen ziren arroparekin azaltzen dute.

Transkripzioa

- (I) Nere aurretikan nola ama eta itxequak baiñerotzako zea hori zuen, asunto hori zuen, lenotikan, ba, hartaka nik jarraitu nun beste urte askuan. Nere aitona're baiñerua zan... aitona Etxabe Roke... balia Zautzen harrapatu zuna. Fetxa ta bazekiyek hoyek. Aztu zaizkitek nei. Batzuk izaten dituk igeiyan ondo dakiyenak: inportikan gabe aurea jun deyela nahi baldin badu, ta nahi baldin badu ito dayela. Baiña, baiña bestelako guztiyai lagundu: batzui lepoaiño, beste batzui honeaiño... lagundu eta igeiyan eakutsi ez baldin bazekiye. Zian jantziyak, baietazko eo galtzak...

- (M) Franela o zer zan... hik ez al dakik tela hayek ze izena zuen? Sastria haiz, ba, hi!

- (E) Ez dakit ba!

- (I) Baietazko eo holako galtzak zian. Eta geo txaketa, sira, geuk eindakuak itxian; oliyua, aseite linasa ematen giñun. Eta ez zian txukun-txukunak, baiña behintzat hayek zian gure jantziyak.

- (M) Ba, baiñutik erteeran, gure baiñista hoyek, ba, etortzen zian lepoaiño tapatuta kaxeta bitartian, zeatikan jendiak ez zitun, ba, ikusi bihar...

- (I) Bai, bai, bai, egiya dek gaiñea hori...!

- (M) Hortako, gaiñea, kaxetan sartzeako, bazuen balde bat, egurrezko baldia, ura ekartzen ziyoena bidian hondarrakin hankak zikinduta ekartzen bazituen; eta ur hortan sartu, ta geo kaxetea sartzen zian.

- (I) Aaaa, hori dek!

- (M) Oso txukunak zian, e?

- (E) Baiño emakumiak bikiniyakin orduan'e, baiño ez uaingo bikiniyak e? Dana ageri hori ez... Txaketa bat, haundiya, iya belauneaiño, eta azpitik galtzak txorkatilleaiño. Buruan kapera bat illiak ez bustitzeko, eta baiñotik urteeran baiñeruak o baten batek zea jarri... albornoza ez... kapa moura zea bat, toailla mouko haundi bat, eta harekin ya hotzak hoztu ez dein kaxeta sartu arte.

6.63. Udazaleen kotilioiak

- **Hizlaria(k):** Epelde Etxabe, Inoxenxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Loiola Harizti, Agurtzane
- **Erref:** ZAR-111/010
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:17:28

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Loiola Harizti, Agurtzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin
harremana
Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- **Laburpena:** Gau batzuetan udazaleek kotilioiak egiten zituzten jauregietan.

Transkripzioa

- (E) Egiten zan, ba, jende horrek, ba, gau batian, palaziyo batian, jauregi batian, hurrenguan bestian, bakoitzak beak zeatuta, moldatuta, "Cotillón"! Jantziyak erdiyak papelezkuak o...

- (M) Kotillioiak e?

- (E) Eta batzuek era batea, "Carnaval" bezela. Gazte jendia, gazte sasoikua, pixkat dantzatu ta hantxen, beren herriko jendianetikan aparte pixkat, bean artian ta [...]... Hamentxe, urtian, ba, udaran, ba, bi o hiru bider ingo zian, bi o hiru txaletetan ingo zan. Ta herriko jendia, ba, nola jantzita nola juten zian, hantxe beira hayei nola nola zijoazten ta...

- (M) Akordatzen nauk batian kotilloi haietako bat Santillananeke palaziyan...

- (E) Zeiñena?

- (M) Zeiñena? Ba, kotilloia o bai... hoitakua izan ber zian, "del príncipe heredero de Fustemberg". Goatzen al haiz? Eon hai pixkat! Eon hai pixkat! Eon hai lasai. Ze! Ze! Fustemberg huan! "Príncipe heredero del Fustemberg"!

- (E) Oneloe! Ze arrayo!

- (M) Ez, ez, ez!

- (E) Ze ezetz!

- (M) Oneloe baiño leno. Fustemberg o zea hori... Ta, hala, batian, hortxe dabilzala, festa hortan dabilzala: "Viva el príncipe heredero de Fustemberg!" batek, ta "Y su xofer!" bestiak. Hi, "tócate"... Zer dizkiyok! Hori're pasadizo bat da...

6.64. Balea harrapatu zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Epelde Etxabe, Inoxenxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Loiola Harizti, Agurtzane
- **Erref:** ZAR-111/012
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:21:56. **Bukatu:** 00:23:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Loiola Harizti, Agurtzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena:** Balea harrapatu zuteneko abestia abesten du batek. Balea harrapatu zutenek ez zituzten kobratu anoak.

Transkripzioa

- (I) Milla ta zortziregun

Setentaiotxuan
Zarauztikan txalupa
Baletara juan.
Anton getariarra
Lagun hartu zuan
Gizon balientia
Hura zalakuan.
Hobe zuen Kaperok
Ikusi ez bazuan.

- (M) Gogoratzten naiz ni nere osabak eta... neuk ez nun ikusi, baiño... A! Ta gaiña, uste det ikusi nitula! Kontuak, balia zala ta ez zala, ta eraman zituen erraziyuak oraindikan ordaindu gabiak Pantolinguak... Bai! Goatzen naiz, ta hayek, klaro!... Gure osabak eta hil zian, eta ni oaindikan bizi naiz Jaunai eskerrak...

- (I) Kobratzeko lixto!

- (M) Baiño... bai! Neu kobratzeko lixto nao orduko erraziyuak!

6.65. Gabonak

- **Hizlaria(k)**: Madariaga Oar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Silban Iturburu, Leire
- **Erref**: ZAR-112/008
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:15:17. **Bukatu**: 00:16:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Silban Iturburu, Leire
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Lanbideak » Neskameak
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Gabonetan eta Santa Ageda egunean etxez etxe joaten ziren kantari. Gabonetan zer jaten zuten azaltzen du. Gabonetan eta festetan bakarrik joaten zen etxera oporretan, Bilbon neskame zegoen bitartean.

Transkripzioa

- Eta Gabonetan ta, atez ate kantatzen juten al ziñazten orain bezela?
- Bai, kantatzen gendun, ta etxerik etxe, baserrik baserri, ta basarriyak urrutik eta ibiltzen giñan. Eta geo, ba, Santa Ageda egunian'e bai, Santa Ageda kantatzen'e bai ibiltzen giñan. Danian ibiltzen giñan.
- Eta Gabonetan ta horrela, ze afari ta iten ziñuen?
- Ba... Gabonetan, ba eiten gendun, oriyo aza aurrena, aurreneko platua, oriyo aza; eta geo bakaillua, ta intxaur-saltza. Ordun ez zan turroirik eta otxokuartoik; ez zan ordun turroirik, eta ez zan diruik eta etxian zeon gauza. Eta Gabonak earki pasatzen. Ni neskame eoten nintzanian urtero-urtero Gabonetan etxea juten nitzan, urtero-urtero.
- Ya gogua eukiko zendun familiya're ikusteko?
- Gustoa etxea, Gabonak etortzeko etxea juteko, ze gabonetan eta festetan bakarrik juten nitzan, urtian bitan bakarrik juten nintzan etxea Bilbotik.
- Festetan. Eta festak noiz ziran ba?
- Festiak? San Bernardo egunian, abuztuan, abuztuan hogeyan.
- Ta ze moduzko festak eiten dia?
- Oso, ba, baserriko kontuak. Ordun ez zan tanboliñik eta otxokuartoik;

bazkaiak eta inbitauak, eta akabo; besteik ezer ez.

- Baiña festa polita, ezta?

- Bai, jateko. Astian ez zan jaten, ta jayetan ondo jaten zan, eta jateko poza.

6.66. Frantziatik kanporatutako erlijiosoak Zarautzen irakasle

- **Hizlaria(k):** Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref:** ZAR-114/005
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:05:03. **Bukatu:** 00:08:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
- **Laburpena:** San Pelaioiko eskolan ikasi zuen. Gero, Hermanotan ibili zen eskolan. 1902an Frantziatik erlijioso asko bidali zituzten, eta batzuk Zarautzen hasi ziren lanean hezkuntzan. Gero fraideetan ikasi zuen, eta han zer irakasle izan zituen aipatzen du.

Transkripzioa

Oain esango dizuet ofiziyoa hasi nintzana. Gu txikik giñan, eskolan hasi giñan San Pelayon Saustinenian, ni bizitako basarriya zan. Ta basarri batian geu, ta bestian zian orduan (nola zuen izena hayek? Eizagirre apeliyua baiña... Eizagirre apeliyua)... haien ama zan gure maistra. Guk aurreneko aitaguria han ikasi giñun han. Hamalau... Geo ibilli nintzan eskolan hermanotan, mil novecientas dosian Frantzitikan bialdu zituen relijioso guztiyak: apaizak, jesuitak, monjak... danak bialdu zituen Espaiñira. Hamen gelditu zian asko zien orduan, bai monjak, bai hermanuak ere. Hermanu hayek hasi zian orduan kolejiyua ematen. Gaur nola dabe “San José, Colegio San José”, hermanuana? Klase hayek zian orduan. Bueno, gaur ez [...], baiña orduan baberua ibiltzen zuen hemen, babero zuri bat. Hara eskola hasi nintzanian. Anaya, bi anaiyok, handikan hasi giñan, “el año” zenbagarrenian giñan? Antonianako, gaur Antoniana dakena Frailetan, Antoniana. Han dibujua jarri zuen, eta profesorez giñun bat Txapartegi (oain hor do etorrita Ameriketatik), Maurizio Txapartegi; ta bestia, berriz... Maurizio Txapartegi. Beno, han lagunak nizkun San Pelayotikan orduan bi anayak frailiak: Mitxelena, bat Juan Luis, ta bestia Santos. Santosek zun nere edadia; Juan Luis bi urte gazteo.

6.67. Soldadutzara joan behar

- **Hizlaria(k):** Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref:** ZAR-114/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:11:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

- **Laburpena:** Soldadutzara joateko garaia iritsi zitzaion. Zozketan 29tik 5. gelditu zen, eta hiruk bakarrik joan behar zuten. Baina bere aurreko bi libratu egin zirenez, joan egin behar izan zuen. 3 urte pasa zituen Hondarribian soldadutzan.

Transkripzioa

Soldauzka etorri zuten, soldau jutia, soldau. Hogeita beetzi mutilletik atea nun “número sinco”, eta “número sinco” hayetatikan, hiruek bakarrik jun ber zuen soldau; hogeita betzitikan hiru mutillak jun ber zuen soldau, eta nik atea nun “sinco”, ta “sincotikan” hiruek jun ber zuen. Nik libre gelditu ber nun, baiña zein jun zian? Zumaiko bi mutillek inutillak zian: bat kojua, ta bestia begiyan eo faillo zuna. Ta bajatu nintzen de “sinco” hirura, bostetikan hirura, ta katiau atera nintzan. Libre izan ber nuna, atera nintzan katiu, eta eaman niñuen Ferrola. Marinan serbitu nun. Nik atzo Makazaga izan nun etxian, bueno, etxea etorri zuten, zea hori itea. Arrantzaki hori ingo nuke arrantzako hori. Ba, hortako preparatu in ber. Zergatik nik Marinatikan izugarrizko istoriya dakat nik Marinatikan. Hiru urte pasa nitun Hondarrubian, hiru urte.

6.68. Jesuiten "matematikak"

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Artetxe, Pedro Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria Eizagirre, Imanol
- **Erref:** ZAR-115/003
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:04:13. **Bukatu:** 00:05:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria Eizagirre, Imanol
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Urteberri goiz batean, jesuiten txabola erori egin omen zen. Eta jesuita bat falta zen. Baina kontua zen bere burua kontatzea ahaztu zitzaiola jesuitari.

Transkripzioa

Ta hori, len zana, jesuita hoyek eon zianen'e, hau're ipuriya da ba. Ipuriya esanda ber dezue noski ta. Jesuita hoyek Urte Berri goiz baten, mezeta jun zortzitako mezeta, erten giñanen, erten giñanen, erori in zala jesuitetako txabola. Jun gea saltaka, ta jun gea saltaka, ta jesuitak honenbeste kontatzen zituen, hainbeste jesuita, honenbeste jesuita, hau, bat, bi, hiru, lau kontatu zituen, ta bat palta. Bat palta, bat palta... Ta fuego harri-kentzen ta zakar-kentzen ta txabola erorita han. Ta in ahalak in, ta jesuitik billatzen ez. Hori earra zan, ta billatzen ez, in ahalak inda, jesuitik. Oin dala hirurogeita pare bat urte eo hola da hori, kontu hori zala. Txiliku ume jaioberri xamarra, geo Txilikura jun zian hayek Txiliku zarretik; eta Txiliku zarren zian zian arte. Ta gu orduko sasoiko mutillak esate bateako, ta in ahalak billatzen ez gure jesuita hori... Zer ta kontua, ta beste danak kontatzen, ta bere buruik ez kontatzen, kontatzen ai zen horrek. Ta geo baten batek hortan: "heorren burua kontatu al dek, ba?", jesuita horrei baten batek. "Koiño, ta egiya", ta bueno, ta hoi zan; geo danak hoi zan [...]. Hoik pasatzen zian leno're istoriyak e? Segi ta segi hura kontatzen, [...] horri're kontau, ta [...] hark kontatzen zunian, bestek geldi, danak geldi, ta hori pasa zan. Ta geo jesuita hoyek hortik alde in zuen, ta hola izan zan istoriya, hoyek istori hoixe zian hor.

6.69. Lehengo kontu ugari

- **Hizlaria(k)**: Fernandez Urkia, Eugenia Sebera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eizagirre, Ane
- **Erref**: ZAR-116/002
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:01:12. **Bukatu**: 00:02:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Eizagirre, Ane
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Lanbideak » Neskameak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Txikitan euskaraz hitz egiten zuen. Neskame ibili zen lanean, apaizaren etxean. Apaizaren lehengusuarekin ezkondu zen. Zarautz lehen txikia zen, eta orain asko handitu da. Orain ederra dagoela dio.

Transkripzioa

- Txikitan, txikitan euskeraz hitz egiten al ziñuen?
- Bai, erderaz baiño geyo guk euskeraz.
- Eta Francok ez al zun iten ezer'e?
- E?
- Ez al zuen debekatzen?
- Zertako? Ez baigiñakigun erderaz! Euskeraz geyo guk erdera baiño.
- Eta non in zendun lana hemen?
- Hemen iñon ez; hor, don Pedro apaizan etxian in nun neskametza.
- Zein zan don Pedro?
- Hil zan don Pedro, nere gizonan lehengusua.
- Baiña zer zan?
- Apaiza.
- Apaiza?

- Frailetan meza ematen zuna.
- Ta han ezautu al zendun geo? Han ezautu zure gizona?
- Bai, geroxio, bai, han ezagutu. Hara juten zan bazkaita, eta han egin giñan adiskide.
- Zuk ezaututako Zarautz eta oaingua berdiñak al dia?
- Lehen nik ezautu...?
- Zuk ezaututako Zarautz eta oraingoak berdiñak al dia?
- Ez, orain handiyagua zion ordun baiño.
- Eta ordun, zer diferentzi daude?
- Ordun ttikiya zan, eta oain doblatua do hau're!
- Zertan diferentziatzen da?
- Ze diferentzi? Haundiya oain. Oain zea ya, zea do oain, herri bat bezela oain.
- Baiño leno politao izango zan ez? Txikiyo eta polito? O oain dao polito zuretzat?
- Oain ederra dao oain: polita ez, ederra oain...

6.70. Txikitako ipuinak

- **Hizlaria(k)**: Fernandez Urkia, Eugenia Sebera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eizagirre, Ane
- **Erref**: ZAR-116/004
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:03:19. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Eizagirre, Ane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Amak sorginei eta Tartalori buruzko ipuinak kontatzen zizkion, eta egiak omen ziren. Lehen baserritarrek elkarri laguntzen zioteneko garaiko istorio bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Zuk dazkizun istoriyak, sorgiñanak ta Tartalonak ta, amak kontatutakuak al dia?
- Bai, hayek nei amak kontautakuak, eta nik zueri kontatutakuak.
- Baiña gezurretazkoak dia ezta?
- Egiyak ziala esaten zuen gure amak, ez dakit. Bai, sorgiñanak eta hoik egiya ziala, Tartalona're bai.
- Ta beste polita're bakizu, ba? Yan ba yan, ase bai ase?
- Bai.
- Kontatu.
- Ja, ja, ja! Guk jarriko diñau baserrin bertsuak baiño geyo. Yan ba yan, ase bai ase, ni bai behiñik behin, zuek'e bai noski. Nik ez det geyo nahi, zuek'e ez, noski. Akabo.
- Baiña hori zeñek esan zun, zeñei? Zeñek zeñei?
- Hori egin zun, zea, alkarrei leno baserritarrek lagundu egiten omen ziyoen soruan, laitan, zeai, lurrai buelta ematen layakin. Ta jun dia gizonak [...] laguntzea, eta gero bazkaya: bere orduan, hamabiyak o ordu bata-o, bazkaita jun dia, laita jun dian etxe harta. Eta han hasi dia baskaitan, ta geyo jango zukenak langille hoyek geldi emen zeuen. Eta jarri da etxeko andria mayan erdiyan hemen, oain ni naon bezela, ta "yan, ba, yan!" esan diye. Gizonak geyo jango luekeñan, eta ez ziyonan zeatzen etxekoandriak,

eta andriak esan diye “Yan, ba, yan! Ase, bai, ase! Ni bai behiñik piñ, zuek’e bai noski. Nik ez det geyo nahi”. Altxa ta ixil-ixilik lantokia jun bihar berriz, ta geyo zuekenan gizon hayek!

- Ta hori ze ematen ziyoen, soldatan trukan?
- Debalde alkarri laguntzea!
- Soldatik gabe ordun, geo bazkaya eman ta listo?
- Debalde! Bai, debaldekoa zan hoi, alkarri laguntzea.

6.71. Sorginei buruzko ipuina

- **Hizlaria(k)**: Fernandez Urkia, Eugenia Sebera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eizagirre, Ane
- **Erref**: ZAR-116/006
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:05:23. **Bukatu**: 00:06:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Eizagirre, Ane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Sorginak bazirela sinesten ez zuen bati gertatutakoari buruzko istorioa kontatzen du.

Transkripzioa

- Sorgin baten istoriya kontatu.
- Ba, esaten omen zun sorgiñik ez zala esaten emen zun batek, “eeee, ez zeok sorgiñik! Ta txoakeyak dia hoyek” esaten emen zun. Ta hala, baatzan lanian jardun dia andre-gizonak neskamiakin, ta etxea etorri dia, atxurra baatzan lagata. Ta sorgiñik ez zala esaten emen zun harek, “ke ba, eee” hoik txoakeyak ziala, ta ez zala sorgiñik. Etxea etorri dia atxurra baatzan lagata. Ta [...] atxurran billa baatza, etxea etorri ta geo. Jun da neskame hori, bai ba,nagusiyak [...] esan emen ziyoen, ta jun in bihar izan zun, ta han jun zan. Baiño geyo ez zan etorri etxea. Etorri zan (hoi’re polita den, ba), ta leyuen onduan esan ziyen: “sorgiñik ez dala esan dezue? Baiño milla ta zortzirehun hemen gaittuk. Ta gaba, gaba gabazkuentzako, ta eguna egunezkuentzako, ta zuen neskamea guetzako”. Ta beak hartu ta eramane omen zuen neskame hori. Ta akabo, geyo ez emen zuen ikusi. Ez zala esaten zuela, baiño milla ta zortzirehun!
- Baiña hoyek ipuiñak dia, amona.
- E?
- Ipuyak dia hoyek!
- Ipuriya?! Hoixe, ba! Zer dia, ba?!

6.72. Euskara lehen eta orain Zarautzen

- **Hizlaria(k)**: Eizmendi Manterola, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Jauregi Letemendia, Mikel
- **Erref**: ZAR-117/005
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:04:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Jauregi Letemendia, Mikel

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Zarautzen euskara hutsa egiten zen lehen. Gutxi batzuek erdaraz egiten zuten, baina gainerakoak euskaldun huts-hutsak ziren. Orain kanpoko jende asko dagoenez, asko galdu da euskara. Ikastolei esker piztuko dela espero du.

Transkripzioa

- Zer hizkuntz hitz egiten zen gehien zure gaztaroko Zarautzen?
- Zarautzen euskara hutsa hitz egiten zan. Egongo ziran mojatxoren batzuk, juezen bat, ta karabiñero batzuk eta guardia zibillak, eta eskola-maixu batzuk erderaz zekitenak, bueno, egiten zutenak besterik ez zekitelako. Gaiñuntzian, herri guztia huts-hutsik euskalduna zan, euskaldun huts-hutsa; baita karabiñero kumeak ere, karabiñeroen umeak ere euskeraz ikasten zuten, beste herrikoekin behar bezela konpondu ahal izateko.
- Eta orain?
- Orain kanpoko jendea ere erruz dago hemen. Orain, alde hortatik, asko galdu dala esan behar. Ikastolari esker ta abar, beharbada berpizkunde bat etorriko da, eta etorri dedilla; baiña euskerari dagokionez, orduan askoz gehiago hitz egiten zan. Baiña herria ere konturatu zaitezte lau millakoa zala, ta gaur hamasei millakua, ta kanpotarra arrotza dagola hemen asko, ta euskerak ez daukala lenoko indarrik eta kemenik, era hortatik begiratuta.

6.73. Sagardotegiko janaria eta edaria

- **Hizlaria(k):** Lizaso Illarramendi , Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Diaz García, Elena
- **Erref:** ZAR-118/007
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:09:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Diaz García, Elena
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserría » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Sagardotegian sagardoa bakarrik edaten zen. Sardina zaharrak eta arraina jaten ziren, eta haiek nola prestatzen zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

- Nahiz eta sagardotegia izan, sagardoaz aparte beste zerbait edaten al zuten bertara joaten zirenek?
- Ez, ez, ez, sagardoteyan ez. Sardiña zaharrak eta arraya ta hoyek bai, baiño bestela ez. Geo sardiña zarra're asko saltzen zan. Txorixua ta'e bai, paperian bitu, estrasan bitu, ta berotasun bat eman, zeau, brasan, papera kendu ta barrua berua, berotuta geatzen da. Ta geo, beste askok iten zuen, berriz, sardiña launa o bosna platera batian jarri, guk gatzeta ematen giñun, baiña garbitu ta ezer in gabe, eskama ta guzti e! Jartzen zun, ta hartu ahala jarri. Osea ke ogiyan gaiñian zuk jartzen dezu zuria, eta plateretikan

zuk hor jarri, bakoitzak beria jarri, ta iten da, zu jaten ari zean bitartian, bestia erre iten da, entenditzen? Ta gutxitxo iña baldin badao're, ba zuk zuria zaitu, ta hola're asko. Baiño burua ta tripak eta ezer kendu gabe jartzen gendun guk. Hori norbeak iten zun. Txarra izaten zan bixigua ta ekartzen zituenian: bixiguak lana haundiya du garbitzen... Ta danak presa nahi izaten zun, berriz. Ta bixigua erre ta geo, txitxarruak'e bai, txitxarruak'e berriz hola hezur bat eukitzen due gaiñian. Hori're kendu iten giñun, beti gustu txarra ematen ziyola o... ta lan haundiyak iten giñun, bai. Ta geo, hola, sagardua edan, ta sagardua edan iten zuen, ta nehiko ogiya jan, ta holaxe. Intxaurrak asko, intxaurrak... ta gaztaa...

6.74. Herriari buruzko zertzeladak

- **Hizlaria(k):** - , Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zurutuza Salsamendi, Idoia
- **Erref:** ZAR-120/005
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:05:34. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Zurutuza Salsamendi, Idoia
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Aisia » Jai-giroa » Zezenak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- **Laburpena:** Kanaleko ontziolaren uretaratze bat ikustera joan ziren behin. Fraideen komentuan herriko pobreei bazkaria ematen zieten. Zezenak egiten ziren herrian.

Transkripzioa

Akordatzen naiz astillero bat zala kanalian, eta han egiten zituen barko haundiyak, haundi bat, han egin zuen barko haundi bat; eta haren botadura ikustea joan giñan.

Baita ere, Frailetan, Frailetako konbentuan eguardiko hamabitan, herriko pobriari bazkaria ematen ziyoten. Juten ziran kapaxo... kapaxua eta lapikuakin. Galdetzen ziyoten zenbat, itxian zenbat lagun ziran, hainbeste jan ematen ziyoten.

Zezenak ere iten zituen Munuan, egurrezko plazara, plaza're, egurrezko plaza're jartzen zuen, eta Zarauzko seiñoritik juaten ziran "mantón de manilakin" plazari buelta ematera. Jende asko juaten zan ikustera.

6.75. Gabonetan kantari diru eske

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oñatibia, Manu
- **Erref:** ZAR-124/010
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:14:59. **Bukatu:** 00:16:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oñatibia, Manu
- **Gaia(k):**
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

- **Laburpena:** Gabonetan etxez etxe kantari ibiltzen ziren. "Olentzago" kanta. Gerora, korukoak jaiotza eskuan zutela, dirua biltzen joaten ziren.

Transkripzioa

Orain, Gabonetako gauzak. Gu mutil koskorrak giñala, oain'e ibiltzen dia bazkalonduan seituan hartu, zea, almuhada zuri bat, eta da! Etxez etxez kantari, etxez etxez kantari. Ta orduko kantak, Josuuuus... asko zian. Baiña bat hau zan:

Olentzaro begi gorri,
Nun atxitu dek arrai hori,
Zubiaurreko erreketan,
Bast arratseko hamaiketan,
Aginaldo, Aginaldo!
Beste kalia San Bernardo!

Holako gauza batzuek eta beste batzuek'e kantatuko zian. Eta geo, lautan, lautan botatzen zuen diru pixka zuenak, lautan botatzen zuen balkoitikan naranjak eta intxaurrak... eta danak "oain Xerrasenea!" ta "oain ez dakit noa!", eta danak han ibiltzen zian saltaka, ta balkoitik bota ta, tarraaaa tata, parra parra harrapatzen gauzak.

Eta geroztikan don Fernandok Gabonetako gauzakin pentsatu zun... Aurrena ateratzen giñan korukuak naximentu bat eskuan, eskuan hartuta, naximentua eskuan hartuta, ta herriko ixkiñetan kantatu, ta diru pixkat biltzen zan. Ez dakit, Mixikordirako izaten zala uste det diru hura.

6.76. Gabonetako postaria

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oñatibia, Manu
- **Erref:** ZAR-124/011
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:16:13. **Bukatu:** 00:18:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oñatibia, Manu
- **Gaia(k):**
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- **Laburpena:** Postaria jartzea bururatu zitzaion apaizari, umeek erregeei idazten zizkieten gutunak biltzeko. Urte batean, postariaren astoak ihes egin, eta bizikletaz etorri behar izan zuen. Denborarekin, postariaren ohitura nola joan den hobetzen azaltzen du.

Transkripzioa

Geroztikan pentsatu zun karterua jartzia Errege Errege bezperan, karterua, karterua jarri behar zula umientzako kartak biltzeko. Ta karterua jarri bihar, ta iñok jarri nahi ez karterotzat, ta Axkoititik ekarri giñun: gizon bat Axkoititik, aurrenengo urtian gixon bat Axkoititik etorri zan, ta kartero jantzi giñun, bizar haundiyakin, ta Bizar Zuri; eta Lezeraneko jardiñetikan ertetzen zan ertetzen zan karterua, ta ni nitzan hura jatzeko, zea, ordenakua. Ta San Pelayotik etortzen zan zaldiya're bai. Zaldiyakin etortzen zan gizona're jantzi, ta plaza etortzen zan, ta kartak bitu. Ta

geroztikan karteruk izan dia asko, baiño geroztik izan dia danak Zarauzkoak, zarauztarrak. Ta gerokua... urte batian jun giñan, ba, Lezeranea: ordua etorri zan, Errege bezpera zan, ta zaldiyakin etorri zan bat San Pelayotik; eta iya presto gebela, iges egin digu zaldiyak San Pelayoa, jata aidian dijoala! Jo ta...! Ordua ertetzeko, ta “oain ze ein behar deu!? Mekatxis! Ze ein behar deu oain?”, ta bizikletan etorri zan, zea, karterua jantzi ber zuna, ta bueno, “bizikletan jun berko yat, ba”. Urte hartan, karterua etorri zan herrira bizikletan gaiñian Bizar Zuri, bizikletan gaiñian. Ta orduan, pues, plazan, plaza Musikan, zea, Musika plazan izaten zan karterua. Geroztikan karterua pixkat hobetu dia, gauzak hobetu dia, ta etortzen da Lezeratik erten, herriz herri plazatik pasa, ta Fronton Zinema. Fronton Zinema etortzen zan. Eta oain azkeneko urte habetan, karterua etortzen da Aiuntamentuko aurea; hor jartzen da estalpe bat, eta han biltzen ditu herriko umian gauza guztiyak, eta halaxen.

6.77. Gabonetako erregeak

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Izeta, Manolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oñatibia, Manu
- **Erref:** ZAR-124/012
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:18:01. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oñatibia, Manu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena:** Gerora, erregeen ohitura sortu zuten: erregeek herrian zehar abesten zuten bandarekin batera.

Transkripzioa

Ta gero, don Fernandok pentsatu zun Erregiak Erregiak Erregiak jartzia. Ta oaintxe urte asko dia. Oaintxe Errege nik abestu nula berrogei bat urte izango da. Orduan Erregiak kantatzen zuen herriko ixkiñetan: don Kandidoneko ixkiñan, plaza, koperatibako plazan, ta Xalegineko ixkiñan kantatzen zuen Erregiak. Eta nik uste det Erregiak Zarautzen bakarrik abesten dutela e! Ez det beste iñun kantatu duenik e! O zeatu duenik. Hori Zarauzko gauza izan da. Oain nik musika ta letrak ez dakit zeiniek eiñak izango dian; baiña orduan, aurrenengo urtetan, bandakin izaten zan, bandakin, oaiñ'e bai. Banda jun, jo, zea jo, hasiera: tararariri, tararariri tarararire tararariri tararire, tarararire torerai. Erregiak hola kantatzen zuen. Meltxorrek kantatzen zun:

Errege nautela ta mendekoa neri,
Ekarri ohi diyote urria bai lori.
Erregien Errege izanik haur hori,
Ukatuko ez diyo Meltxorrek estori.

Geo, Gaxparrek:
Intzentsua nik zuri, goi bihen Jainkoa,
Hasierarik gabe beti betikoa.
Gaxparrek erregu belaunikatua,
Ukatuko ez diyot gizon honratua.

Geo Baltaxarrek, beltzak, holaxe, holaxe:
Gure Jaungoiko maite, zure izatea,
Ludi lurraren jabe, danen Erregea.
Baltaxarrek miltza mirra zuri eskeintzea,
Ukatuko ez diyot, agur da maitea.

6.78. Umetan dirua lortzeko moduak

- **Hizlaria(k)**: Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref**: ZAR-128/002
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:00:38. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena**: Gazteak zirenean, eskolara 7 urtera arte joaten ziren. Miserikordian ikasi zuen. Kantuan joaten ziren diru eske. Aitonak erakutsi zien kanta batzuk abesten. Umetan golf-era joaten hasi zen lanera, txanpon batzuk irabazteko.

Transkripzioa

- Zuek gaztiak ziñatenian, nola pasatzen zenuen denboa, ze iten zenuen?
- Gu gaztiak giñanian, eskola zazpi urte arte, hantxe Miseikordiyan ibilli nintzan; Santa Ana edo esaten zaiona, guk Miseikordiya esaten giñun. Egualdi txarra zanian, abarketak, zean, bi muturretan lotu, [...] gerrin hartu, ta eskola jundakuan jantzi. Hori egi haundiya da.
- Eta dirua ateratzeko ta Santa esketan ta ibiltzen al ziñaten?
- Askotan ibili izan giñan han'e dirua ateratzeko. Ta egiya zan aitona gendun bastante moldatzen zana; ta akordatzen naiz, ez nitun zazpi urte izango, artian bosten bat urte, eta "aitona, aitona", ta "eakutsi idazu kantatzen Etxanizenea juteko", ta alboko itxia, Etxe Txikitik hurrengo itxia Etxaniz, "hoi're ba al deu, ba?" Ta "Eakutsiko yat, ba". Ta han zauden matrimoniyo zarrak, larogeiren urte, tankera hortakuak, ta aitona eo aita zaharra zan, Erramun izena zun, ta etxeakoandria Madalen. Ta hauxe esan zion:

Kariñosua bisitatzen da, bai, egunian bi aldiz
Etxe hontako nagusi jauna degu Erramun Etxaniz.

Geo etxeakoandriai hurrengua ber ta:

Erramun degu nagusiya ta etxeakoandria Madalen
Orain gugana etorri bedi limosnarekin lenbailen.

Hoixe zian lehenbiziko holaxe. Geo, gaiñuntzian, urten bat eo besten ibiliko nintzan. Behin, egiya esan, zortzi bat urte giñula golea hasi giñan, ta golea hor ibiltzen giñan aristokraziko jendiakin, hantxe. Ordun ogiya jango bazan, dirua ber; ta hala, jun ta lehenbiziko sei errial irabazi nitun. Ondo gogoatzen naiz itxea etorri nintzanian, beste anayak'e bai, ta "ez esan, ez

esan amai e? Ez esan amai ibili haizenikan”. Ta ezin ni eon, ni jun, ta da! Mahaien gaiñian sei errial, ta “Jesus! Bejondeikela! Eguneke ogiya danontzako irabaziya diu, eo eguneke ogiyen ordaintzeko gaiña”.

6.79. Herritar bati buruzko anekdota

- **Hizlaria(k)**: Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref**: ZAR-128/011
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:14:00. **Bukatu**: 00:16:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Aitonak ipuinak kontatzen zizkion. Zarauzko pertsona batzuen ezizenak aipatzen ditu. Haietako bati buruzko anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

Ba, ohitura haundiya nun nik, zea, zelebrokeian ta aitonai hola “Aitona, ipurik eta ba al dakizu?”, eta “Bai”. Ta hola, ta halaxen buruan hartuta asko dauzkat. Bueno, Epurdibikonekuak’e bazian Zautzen, Zautz mote haundikuak izan dia: Ipurdibiko, Txarribuztan, Xagua, Otzarretak, Xaraxolak... Danak basarri izenak, nunbait, dana Ayatik eta Aizarnazabaldik, inguru hontatik juntatutakua Zautzen. Errekondo habek danak Aiarrak dia, ba, izatez. Ta hala, Epurdibikoneko hau oso xelebria izan behar zun, ta hala, ardozale pixkat’e bai. Eta leno ohitura haundiya zan gurasuak hiltzian, etxeko maiorezkuei eo etxia animan eunian ta, zeak, responsuak ateatzeko danak zerbait senide guziyak. Ta nola zan etxeko maiorezkua Ipurdibikoneko hori, eman dizkiyoe batek eta bestiak: guztiya errial bana izango zan, baiña igual da, bi pezta eo osatu bazitun’e. Ta ardua gustatzen, ta ze in du? Ba, ardotan gastatu diru hori erresponsuan hori. Eta hala, parrokira eo eliz nagusira emateko palta ta kezka ematen. Baiña, aidanez, bere zeakin iten zun responsuak eo errezuak beak in. Hala, kezka ematen, ta jun da konfesatzea fraile batena, ta esan diyo kezkan zeola. Ta zer zun, ta hola, ta hola, bere senidiak responsuak ateatzeko dirua eman ziyoela, ta oso urri ibiltzen zala hortatik, eta ein zula haiek gastatu, ta ardo pixkat, eo bere arrantxua iten, baiña erreztatu in zitula, ta iaber nola in zun, ta patrikan paterna hartu, eta paternosterra erreztatzean beste aldea pasa. Ta danak erreztatu al zituan, ta “Bai, danak”, oso ondo gaiñez, zea, deboziyo handiyakin... Ta, ba, ez zakala zertan bat’e kezkaik euki berrikan, alegiya, hark erreztatu eo frailik erreztatu, berdin baliyo zula, ta lasai juteko. Ta hortxe trankildu gizona.

6.80. Beste herritar bati buruzko anekdota

- **Hizlaria(k)**: Leunda Eizagirre, Santos

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref**: ZAR-128/012
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:16:37. **Bukatu**: 00:19:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Herriko beste batek apaizarekin izandako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

Beste bat'e bazan holaxe aitortzea jun zana kontratista eo hola, gizon zea zamar bat, sueltua eo herri txiki hauetan gutxi izaten zian holakuak, eta horrela. Hua're urtian behin juten zan hoietakua. Eta hala, San Jose inguratu zanian, han dijua. Eta erretore jauna han omen zabillen zimitaiuan bueltaka. Ta hala: "A! Hamen haiz horreatikan! Oaintxe zai nitxion laiste azaldu ber dekela ta", "Bai, baiña belaxe bialduko nauk aurtan, belaxe!", "Belaxe?", "Bai, hiru bakarrik dakarkit. Hiru bakarrik!", "Beno, ala, guazen ba". Ta hala juten dia konfesonayoa, ta "Beno, beste gaiñuntzekua hiru baldin badakik, aitatu gabe esan zak, ba, bat". Eta, pra: "Eunero mozkortu iten naiz, ta itxea juten naiz". "Jesus, hi haizen gizon moua, eta eunero mozkortuta?". Eman diyo eundoko artua: "Gaixki hartu, gaixki hartu. Denoi gustatzen zaigu gutxiyo geyo, baiña eunero hori gauza latza dek". Hala, eman diyo, ba, bere zea, ta sayatuko zala pixkat eo, baiña... "Ta bigarrena esan berko dek, ba, bigarren hori're"; ta "Ba, bigarrena, handik eta hemendik hau, ta hamar kostatzen dana, hamabi". Ta "Jesus!", berriz'e ekin diyo hori ez dala behiñ'e ondo, hamar baliyo ta hogei kobratu, ta hola. Ta gaizki hartu du, oso gaizki hartu du: "Jo, ba, gaizki hartzen al dek...?", "Bai, ta ez zakit absoluziyua emango diyaten e? Honezkeo esan zak, ba, hirugarrena're", ta "Hirugarrena're esan berko diyot, ba: etxetik kanpo're ibili iten naiz. Emaztia're bat utzita". Eta "Jesus! Oaindikako txarrena hori, berriz. Jesus!" Ez diyola emango absoluziyoikan, ta "Jesus!", "Absoluziyo gabe bialduko nau?", ta "Bai, hori ezin leike... hiru ditukela!". "Sayatuko nitzake, ba, bat lagatzen, ta danak batian haundiyoik ez zeok; baiña bat lagatzen", ta "Bueno, hitza ematen al diak?", "Bai, bai"; ta "Beno, zein kenduko diyau?", ta "Beorrek nahi duna, beorrek nahi duna", "Bueno, nik nahi detena ordun?", ta "Bai", ta "Ba, laga diyok, ba, zeai, zeak hamar baliyo duna hogei kentzia, zea, kobratze horri laga diyok. Baiña zintzo in hoi geo e?", "Bai, bai. Ordun lasai jun naike?", ta "Bai". Eman diyo bere absoluziyo hori, ta hala, handik zortzi egun baiño lehen, beti bezela, han men zabillen eliza inguruan gure bikayo jaun hori, ta hemen dator "don Jose!" ta "Zer dek?", ta "Ez do eskubideik beorrek nei in ditena iteko", ta "Ze ba?", "Ze ba esaten dit? Nik bat esan niyon kentzeko", "Ta zenbat kendu dizkiyat, ba?", "Hirurak!".. Daneako falta...

6.81. Herritar baten kezkari buruzko anekdota

- **Hizlaria(k)**: Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref**: ZAR-128/014
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:19:51. **Bukatu**: 00:22:17

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Gizon bat hil zenean, hura janzen hasi, eta arropa txikiegi zeukan. Hori konpontzeko moduarekin lasai ez, eta apaizarengana konfesatzera joan zen haren alaba. Apaizak nola lasaitu zuen kontatzen du.

Transkripzioa

Beste bat: zeak, aita-alabak bizi zian, ta aita hori oso sonatua zan kontratista eo hola, herriyan haundizki zamarra. Ta harrei're heriotza aillatu, eta hala, hil danian, hasi dia erropak jazten, trajia jazten, ta pixka bat gizona haundiya berez, eta ez dakit, trajia're aspalditxo indakua igual izango zan eo, kuestiyua da haunditu in zitzakon ta ezin lotu. Jesus, Jesus, atarramentua noski. Baiña baten bat izaten da, ta "hau belaxen moldatuko dezue hola". Atzetik iriki diyoe txaketa, rast, eta aurrian lotu diyoe botoyak, ta jarri diyoe kajan dotore, ta hala bialdu due mundu hontatik. Eta alaba hua're kezkakin, ba. Ta hortako misiyuak eo zian, ta gure zea hoi, alaba, zea hori, andre hori, jun da ta han bakizu, "...Bai, hamen bagabiltza gabiltzan mouan, zea, hara ta honea geoko gauzik pentsatu gabe, baiña, ba, han azaltzen geanian Josepetan, han izango dia alkarren aurrian, han, lotsak eta gaiñuntzekuak". Hala, akordatu da bere aita nola bialdu zuen, ta Josepetan azaldu ber dala hamendik junda bezela... Jarri zayo buruan, eta ez dula loik ingo gure zea horrek, ez dula loik ingo, ez dula loik ingo, ta jun da konfesatzea. Hala, esan diyo: "Oso kezkatuta bizi naiz", "Zer dezu, ba?", ta "Ez det loik iten. Jatiai're iya laga diyot, ta ez dakit ze atarramentu", "Ta zer dezu, ba?", eta "Hor nabil, misiyota junda, ta han non esaten duen hamendik junda bezela azaldu ber degula Josepetako zelaian, eta gure aitakin dakat kezka", eta "Zer daka, ba?" eta "Hara, hau ta hau pasa zitzaigun: trajia jazten hasi giñan, ta txaketa lotu ezin. Ta atzetik iriki, ta aurrian lotuta bialdu deu; baiña oain, han azaltzen dianian hemendik junda bezela, lotzagarri azaldu ber dula. Ta hoixe daukat kezka", ta "Aaaa! Zuen aita... ez kejatu. Hartu lasai. Zeatikan hamen'e ez zan atzea eoten zan haitakua, ta han izango dia pendizak eta pondokuak, ta bea jarriko da baztarran kontra, ta iñok ez dio igarriko". Orduntxe lasaitu omen zan.

6.82. Igeldoko tximuaren anekdota

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref:** ZAR-128/017
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:24:24. **Bukatu:** 00:26:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Igeldoko zoologikoko tximuari buruzko anekdota barregarria kontatzen du.

Transkripzioa

Beste bat, hau're istori polita. Igeldon, bakizu nola daon, zea, zoologiko zea hori? Parke hori? Ta hala etorri dia ingles batzuk, matrimoniya ta... Ta hala, ikusi due tximo oso elegantia omen zan, oso elegantia. Beira aspertu ezin, ta: "Hau zein da gauza! Majiña bat lekutan ibili gea, baiña horren ederrikan ikusi deunik'e...". Ta hala, eman diyo tentaziya etxekoandriai, ta poltza iriki du, ta karamelua bota diyo, dak! Ta gure tximu horrek hartu diyo karamelua, dak! eskuakin, ta papela kendu, ta atzian pasa ta tragatu. "Jesus! Hauxe jestu itxusiya. Hau dan eder... osea, honek dun edertasuna, ta horrekin dana galtzen du, dana galtzen du". Hala, berriz bota diyo, ta berdin: papela kendu, atzian pasa, ta tragatu. "Jesus, bere edertasun guztiya galtzen du". Haik danak kunplituta, hala badijuaz aurreo [...], ta han guardari han zabillena galdetu diyo: "Aizu, esto, zu hamengo guarda al zea?", ta "Bai", ta "Oso tximu elegantia ederra dakazue. Elegantia horixe!", "Bai, majiña batek esaten du, ba. Ikeragarri gustatzen zayo jendiai", "Baiña ez al zea fijatu? Oso jestu txarra iten du", "Ta ze ba?". Ta "Toz, toz". Ekarri du, ta bota diyo karamelua, hartu du, peatu, atzian pasa ta danga! Ta: "Aaaa! Bai! Oaindik oaiño jarri zayo hori; leno ez zun. Beok bezelaxe, estranjeru batzuk eo holaxe etorri, ta intxaur haundi bat bota ziyoen; ta tragatu zun, ta ez dakit bizirik nola atea dan, hilko zala uste nun. Ta oain... Oso gaizki ibili gendun. Ta oain iten du lehenbizi neurriya hartu, ta geo sartzen du".

6.83. Bizkarreko arazoengatik ezin eskolara joan

- **Hizlaria(k):** Illarramendi Larrañaga, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** ZAR-135/003
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:05:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena:** Eskola nazionalean ikasi zuen eta 11-12 urte zituela ohean egon behar izan zuen urtebete baino gehiago, bizkarrean arazoak izan zituelako. Garai hartan denbora nola pasatzen zuen azaltzen du. Eskolan galdutako urte hura ezin izan zuen errekuperatu.

Transkripzioa

-Eskola esto nazionalea, "escuela publica" o esaten zana. Eta nik hamaika urtekin, hamaika urte ta hamabi ohian in nitun, porke bizkarrezurra esto indarra zeozer, sagardoteya esan dizut amai laguntzeagatik botellak eramaten, entregatzen ta nunbait indarra in nula "algun esfuerzo" esaten zian meikuak eta bi bertebra atea eitn zitxaizkiten. Eta oain ez nintzake baiño orduan ohian sartu, in zien eskaiola dana itxi gabe, atzealdia bakarrikan, ta urte terdi o iya gehio hamahiru urte arte iya.

-Dana eskaiolatu!

-Bai, atzia eskayolatu, baiño geo garbitzeko ta hortik ateatze zien, osea. Ta geo sendatu nitzanian ohian jartzen nun eskayola ta eskayolan sartzen nitzan, bai ohituta ohian ezin nun.

-Eta miñikan edo eukin zenun?

-Gero ez, baiño aurrenien bai izuarritzko oiñazia bai.

-Ta gero bere onera etorri zan.

-Bai. Bizkarrezurran "dos vertebra" erten zian ta oain'e juten naizenian

meikuana zeozer beiratzzen ta “¿qué ha pasado aqui? Que ha habido aqui?” beti esaten hori gauza, hori hamaika urtekin izandare.

- Ta ze iten zenun horrenbeste denporan ohian?

-Ohian aitag in zian kaja bat [...], kaja bat egurrezkua in zian han koltxoyak etan esto ta geo hor atzian batza gendun. Ta hartzen zien anayak ta aitag biyan artian ta batzan igual jartzen zien. Bai ta geo eskolak oain jubilatuta daon horrei batza ematen zuen ta eskolako launak ta kaso iten zien ta denak bera etortzen zian jolasea ta horrela, geo aurreko aldian balkoyan jarri ta kaleko jendia ikusi.

-Ta bitartian baten bat etortzen zitzaizun etxeko lanak edo...

-Hori esaten nizun ba nik, oain bai lehenoz ez zan holako gauzikan. Oain bai oain etorriko liake ta erakutsiko ziaketen. Nik nere launak hasten dianian geografiya ta Ameriketako kontuak esaten ni isil-isilikan eoten naiz, ta esaten diot “que tonta soy, verdad?” Ez.

-Galduta urtia gero ez zendun errepikatu?

-Ez, karo geo zan gerra ondoren ta dana ber zan etxian. Ta hamalau urte kunplitu nitunian, urte terdi ohian eon ta geo, kurso bat in nun eskolan gero,eta hamalau urtekin lanea.

7. Herria, azpiegitura

7.1. Hirigunea eta inguruak nolakoak ziren

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Roteta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-006/017
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:26:43. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Kuadrilla inguruko lagunek osatzen zuten. Zein zen hirigunea. Inguruan baratzeak eta soroak zeuden.

Transkripzioa

- Ta zure kuadrilla, kuadrilla, nungo kuadrilla zan, auzokua kuadrilla? Kale igualeko...

- Bai, gehienak itxe aurreko, urte samarrekuak izaten zian kuadrillakuak.

- (E) Eske herriya paso nibeletikan honea zan, e.

- Bai, beste herriik ez zan.

- (E) Geo Azken Portu, eta geo dana baatzak, baatzak eta kale baserriyak.

- Behin, Azken Portu, [...] pasa ezkeo, zea, bi o hiru itxe bakarrik zian hor.

Taberna Azken Portukua, Otzarretaneko itxia, ta Azken Portuko taberna, han bukatzen... Horrei deitzen ziyoen Azken Portu, Azken Portu. Ta geo handik aurrea futbol kanpuak, Aritzbatalde, ta beste dana sorua ta baatza, hamen ez zeon. Herriya zan trenbiretik honea, hau zan herriya. [...] Ta orduan launak izaten zian danak ingurukuak, etxen aurrian bizi zianak, goian bizi zianak, eskolan hasitakuak, danak. Gutxi giñan ta! Herriya txikiya zan, ta jende gutxi.

7.2. Lau-bost taxi herrian

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Roteta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-006/020
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:32:55. **Bukatu:** 00:35:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Moila orain bezalakoxea zen. Non ibiltzen ziren igerian.
Kotxerik ez zen ibiltzen orduan, Getariatik korreoa eta jendea geltokira
ekartzen zuena bakarrik. Baina lau-bost taxi bazeuden herrian.

Transkripzioa

- Ta lehen moilla esan dezu, moilla juten ziñatela.
- Gu moilla.
- Eta oso differentia izango zan orduan moilla? Uaingo moilla...
- Igual-igual.
- Igual dao, e? Bai, e?
- Igual-igual. Gure garai [...]. Uain, orduan txalupa gehio uain baiño, baiña gu beste aldian ibiltzen giñan, e, paetan berrian, han, beste partian, igeiyan, txalupa tartian ez giñun ibiltzeikan, baiño beste aldian. Eun guztiya hantxen, kamiyotikan salto in ta, [...] murkil in ta hantxe...
- Orduan kotxeik ez zan pasako. Ordun kotxeik...
- Ordu batetikan o bi ordutik behin. Zabalan automobilla, zea etortzen zana, Getaitikan korreuakin. Ta jendiak hantxe, estaziyan, ta arrantzaliak baldin bazakaen diruik paatzeko, arraiakin etortzekuan, haiei ekartzea. Bi ta hiru ordutik behin, goixian behin ta hola Zabalan automobilla, hura ikusi bakarrik iten giñun. Automobilla orduan? Bixikletikan ez geneuzkan ta, automoilla nola eongo zan, ba?
- (E) Ta taxiak 'e plazan. Musika jotzen dan tokiyan.
- E?
- (E) Taxiak, Jose Mantsua ta Lazkano ta...
- Taxiak bai, taxiak. Zarautzen herriya izateko taxi dezente zeon. Lau, bost taxi bazaben garai hartan, e! Oain gehio dabe, baiña orduan lau bost taxi bazian, e, bazian.
- (E) Lazkano, Jose Mantsua.
- Jose Mantsua.
- (E) Geo bestia...
- E? Lazkano.
- (E) Lazkano.
- Antzuolaneko Lazkano. Beste madrileño bat 'e bazan...
- (E) A, bai, bai, Mari Fran Fernandez aita.
- Geo, andria hil zitzaiona.
- (E) Bai, Fernandez aita, bai.
- Bestia Zapatero deitzen ziyoena 're, gerra denboan alde in zun harek 'e. Iñok, ez zuna sinisten ezerrekin, ta Ezkirozko Ama Birjiña atea zanian, "[...] ba al da?", ta, "bai, zeoze izango dek, zeatik hara jendia jun dana errezatzen ta...". Taxiakin, auto, trenik eta besteik ez zeon ta taxiyan jun behar Ama Birjiñai Ezkiozea ikustea. Ta dana sinisten zun ordun. [...] zapaterua bai. Txertubinekuak 'e bazekaen...
- (E) Txertubinekuak 'e bai, bai.
- Zarauzko herriya, zea izateko, taxi asko zan.

7.3. Hirigunea eta inguruak nolakoak ziren.

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Roteta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-006/021
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:35:04. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- **Laburpena:** Hirigunea noraino iristen zen. Behin Gran Hotel-a ezkerro dena txaletak ziren. Bizkondearen etxea: villa San Jose.

Transkripzioa

- (E) Bai, porke Frailetatikan hauntza 're ez zan ezer, e. Dana txaletak eta dana, zea, Frailetako... San Francisco kaletikan herrira, paso nibeletikan herrira, eta...
- A, bai, oain... Behin Gran Hotela ezkeo...
- (E) Gran Hotela, hotela haundiya, ta... geo dana...
- Gran Hotela ezkeo dana txaletak.
- (E) Dana txaletak.
- Txaleta hemen, txaleta han, ta dana... hutsa.
- (E) Dana aberats jendiana, e.
- Han Mendilautan 'e danak, bueno...
- (E) Bai, "unos chalés"...
- Oaintxe bakarrik [...] desierto txikiya o gelditzen dan hori, zeaik gabe, itxeik gabe. Baiña orduan 'e txaletak kantidaden. Hamen terrenua besteik ez da! Geo perretxikuak bezela hasi zian hemen itxiak iten, perretxikuak bezela. "Oi, noiz in due itxe hau?", [...].
- (E) Euromarko hortan 'e... Hori zan Villa San José. Dana terrenuak eta txalet bat.
- Bueno! Hori dana... Hor zea bakarrik zeon, Bixkonde bakarrik zeon, etxe haundi bat barruan, beste dana amurallatuta, [...]. Euromar zan hori dana. Itxe bakarria zeon, palaziyo bat.
- (E) Bakarria, Villa San José, besteikan ez.
- Bestela ez eon ezer.
- (E) Hor, neuk ezautu det, hori dana.
- Ezer ez zeon.

7.4. Zaldi-karroak, Zarautzik Donostiara joateko garraioa

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Xabier - Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-007/015
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:38:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Markesak eta kondeak etortzen ziren udan. Zaldiekin tiratutako karroa erabiltzen zuten Zarautzik Donostiara joateko. Zaldiak nork erabiltzen zituen garraiorako. Lehenbiziko kotxea nork ekarri zuen Zarautzera.

Transkripzioa

- Negutikan udaa ziharo kanbiatuko zan anbientia, ezta?
- Hoixe!
- Kanpoko beraneantiakin, ta...
- Bai, udaa... udazkenen eoten zian hamen Marqués de Narros y Conde Real. Ta Duque de la Vega zea hoiek, bixki hoiek eoten zian zeon, gabonak

arte iya. Automobilla 're beayena zan hamen lehenbiziko... Ni zaldiya ta karruak, geo zaldiya ta kotxiakin, Zarautzik Donostira ezautu nun. Ez zan automobillik Zarautzen. Txertubik lehenbiziko ta geo zeakuak, Marqués de Narros y Conde Real, Marcelino ta Javier zian hanguak. Mutil zaharrak biyak. Geo...

- Txertubi hua kamionakin ta ez al zan ibiltzen?

- Zein?

- Txertubi kamionakin ta ez al zan ibiltzen?

- Bai, geo... Geo kamiona lehenbiziko ekarri zun zeak, Salbidek zeara, furgoneta, bueno, zea, remolkeko txiki bat. Beste dana lehen zea, iriyakin: [...], Telleikuak iriyakin, Manuel Mari, danak iriyakin, zean [...]. Eta geo, zeak, este... Goletikan 'e zea, zea, Otamendin 'e zaldiyak zaben. Ta San Pelaion bertan zian Telleikua, hamen, estankera honen aita, aita ez, aitona. Ta, hiru San Pelaiokuak zian, zeak, kotxeruak, Zarautzik Donostira. Zaldi bakarrekua izaten zan, zea, kotxe [...], partikular jun nahi zunantzatzat. Ta bestelakua bi zaldiekin [...], lau launekua o. Hoixe zan Zarautzik Donostira. Hori zan. Lehenbiziko...

- Zarautzik Donostira 're uain bezain sarri ez ziñaten ibiliko garai hartan...

7.5. Aitz-bailara, santurik gabeko bailara

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Buenetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-008/010
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Mezara kalera jaisten ziren. Urtetarekin ez dute harremanik izan. "Haritz-bailara" da euren, santurik gabeko bailara.

Transkripzioa

- Ta, mezeta ta Urteta ala, ala Zarautzea?
- Ez, ez, behiñ 'e, Urteta ez. Gu Zarautzea.
- (AZ) Gu zarautzarrak gea.
- Bai?
- (AZ) Honbre! Por favor!
- Parrukira. Parrukira o Frailleta, Zarautza.
- Bai? Urtetakin ta ez dezue harremanik izan, Urtetako jentia ta?
- Ez, hau Aitz-baillara da.
- Nola, nola baillara hau?
- Aitz-baillara.
- (AZ) Baillara, baiña, esaten zaio Olaerreka.
- Olaerreka?
- Baiña, Aitz-baillara da hau.
- (AZ) Hor dao erreka bat...
- Santuik gabeko baillara.
- Hori da!
- Santuik gabia baillara bai.
- Santuik eta ermitaik eta ez dao hemen.
- Ez, ez, ez da.

- Harritzekoa da, ez do, ez do.
- Holaxe [...], ta.
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai.

7.6. Auzolana

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Uranga, Antonio; Uria Mancisidor, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-009/020
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:33:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Auzolana. Garia edo belarra ebakitzeko elkarri laguntzen zioten auzokoek. Ondo konpontzen ziren elkarrekin.

Transkripzioa

- Ta, bestela, auzolanikan ta izaten al zan, auzolana?
- (A) Bai, auzolana asko.
- Ermandadeen bitxartez ala zuen artean?
- (A) Ez, ez, ez, bestela, alkarren artean. Ordun, e, ba, auzokuak bakarrik [...], ordun ez zian danak ondo eraman 'e itten, ta gaizki eamaten zianak 'e aparte, baiño bestela, bai, bai. Hor, gariya [...] bazan, ta belarra ebakitzeko 're bai. Batek lana haundiya baldin bazaukan, danak, lau o bost bat juntatu, ta han [...] hurrengo egunen beste baten, ta hola. Hola asko ibiltzen giñan, bai. Geo jun gauen ta eguardin 'e bai ta, apaiya o zea lana zan tokin, ta. Beti 're itxeako baiño [...] izaten zan hua 're, ta.
- Ta gaiñea, elkartu ezkeo ta beti 're tertuliya in, ta...
- (A) Tertuliya, hoixe! Ta igual...
- Aarra jo 're bai, alkarri, igual.
- Bai, ta parrandak han ta igual, saardua eanaz, hantxe, goizalde arte eon 'e, ta holakotxek in behar, ba.
- Bai, bai, in in behar. Bizitzan holakok 'e in in behar dia.
- (A) Hoitxek izaten zian.
- Orduko dibertsiyua hoi izango zan, gari jotzeak eta.
- (A) Baita, hura 're.
- (P) Baita 're.
- (A) Gari jotzen 'e bai. Hua 're holaxe iten gendun.

7.7. Gerra aurretik alkate karlistak

- **Hizlaria(k):** Iturria Astiazaran, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-012/013
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:25:02. **Bukatu:** 00:27:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

- **Laburpena:** Beraneanteekin arazoak izaten zituzten gerra aurretik. Alkatea karlista zen eta "guardias de asalto" etortzen ziren babestera, herriak ez zuelako nahi, baina ez zuten kentzen. Hauteskundeetan abertzealeek irabazi zuten. Gerra aurretik beti karlistak ziren alkateak. Gerra garaian San Pelaioako Aburuza jarri zuten.

Transkripzioa

- Hemen gerra aurrian, Eibarren ta hogeita hamaluan, treintaikuatruan ta egon zan rebueltak. Ta hemen Zarautzen ez zan ezer eon?
- Ez, ez. Bueno, eon zian. Hemen rebueltak bastante izan zian, beraniantiakin ta.
- A bai, e?
- Bai, bai. Beraniantiakin enfrontamentuak askotan izan dia hemen.
- Gerra aurretikan 'e bai?
- Bai, bai, bai, bai, bai. Eta seriyuak, e! Udaletxea jun, udaletxian, hemen etorri izandu zian zeak 'e bai, "guardias de asalto" protejitzea alkatia. Alkatia karlista zan, baiño hemen indarrak ez zeken orduan. Indarra ordura arte nahikua euki zuen zeak, karlistak. Baiño geo abertzaliak zeatu in genun ta, beti etortzen zian botaziyuak eta abar, atzeatu iten zian, ez dakit nik nundik noa. Eta hori botaziyuak jeneralak izaten dia, bakizu zean, España guztiyan, baiño, bai, atzeatu iten zian. Ta hala, este..., gaiñea, pertsona bat zan nahi ez zuna, herriyak nahi ez zun pertsona zan, Urriza. Ez dakit behin 'e entzun dezuen... Tolosarra zan ta familik ez zuen, ze andria Naparra zun. Eta, ba, hura zeon alkate, ta abertzaliak [...]: "Alkate ez deu nahi gizon hori, jarri zazue beste beste eozein, beste eozein. Ba daukazue aukera". Ta ez zuen kentzen. Eta horrei protejitzeko guardia asaltuak ekartzen zituen. Eta hori bizi zan hementxe ixkiñan, eta hemendikan plazaiño, hantxe, bere orgullo guztiyakin ta jutun zan alkatia zean.
- Botaziyuak ingo zian, ba?
- Gero ein zian, gero irabazi zuen abertzaliak. Errex gaiñea. Horregatikan [...] zan zea, bai. Eta, bueno, nik abertzale moura 're esaten dizut, baiño, ez det uste bat 'e zeatzen detenik, esajeratzen detenik.
- Eta guerra aurrian alkatia abertzalia eongo zan?
- Ez, ez, behiñ 'e ez. Gerra denboran interinamente, orduan bai.
- Gerra aurretikan ez, e?
- Ez, ez, ez, ez, ez. Hemen beti-beti karlistak aindu due. Hemen abertzaliak esan detena, e, ta geo gaiñea gerra jun ta oso gaizki pasa 're bai, e, zea, San Pelaioako bat jarri zan, este, alkate, lehen independiente ateatzen zana hemen Zarautzan, o sea, konzejaletan independiente moura ateatzen zan, eta hura jarri zuen, Abruza, Abruza, San Pelaioako Abruza.
- Gerra garaian hori?
- Gerra garaian? Bai, gerra garaian. Zeatikan hura gaiñea alde in in zun geo, gerrakin batian jun in zan, ta, geo gaixki xamar ibili zan etorri zanian o zeatu zanian 'e.

7.8. Harategiaren inguruko kontuak: ganadua hiltzea eta banaketa

- **Hizlaria(k):** Etxabe Olaskoaga, Jose Agustin

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozgueren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-013/012
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:15:32. **Bukatu**: 00:18:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Bizikletarekin haragia banatzen ibiltzen zen. Zumaiaiko ospitale militarrean 20 kilo haragi eramaten zituen. Hiltegia non zegoen. Norberak hil eta larrutu behar izaten zuen ganadua. Hasieran borrarekin hiltzen zituzten; gero puntilarekin.

Transkripzioa

- Bueno, ordun hamalau urtekin hasi ziñan lanean?

- Bai, Itxaropenanian, bai.

- Eta gero, bizikletakin banaketak iten etxean.

- Bai, haragi-partitzen ibili gea.

- Haragi-partitzen.

- Ni, ni gerra denboran Zumaian zeon, ospitala bat zeon. Italianuak zaken "Hostpital Militar" eo, hotel famoso bat zan hor Zumaian... Bueno, kuestiyua, hoge kilo haragi hartu ta bizikletan...

- Hoge kilo?

- Karo! Parrillan hola hartu, bizikletan ta, ta, Zumaiko bizkarreko aldapan, ta oiñez jetsi ta gora ta. Ba, holakua asko...

- Ta mutil, mutikoa ordun?

- Bai, hamalau urtekin.

- Ta, txahala ta nun, non, nun...

- Hemen mataayak zian, hamen... Hemen talleres, hor..., San Pelaioko... bonberuak nola? Hor aurrian zan, mataaya hor zan. Mataayan 'e ni gerra denboran, karo, ni, karo, anaiak itxian iten zuen lana, bi anaiak harateiyan, itxian, baiño ni kanpuan. Baiño, ganaua hil behar zanian ta, o ganaua hiltzea ez, baiño bakaziyuak baldin banitun, laundu in behar itxian. Esaten dizut ba, udaan, udan haragi-partitzen. Ta, ta desiatzen baiñatzea juteko, ta...

- Eta, nun, nun, txahala non erosten zan, edo nola...

- Tratua, ba, e, norbeak erosten zun baserritarrakin, ta. A! Gerra denboran, rasionamentuko denboran basarri danak, danak zea zauzten, registrauta, ta bazakiyen zenbat txahala zeon, ta nun, ta zenbat txahala, zenbat arraldekoa, gutxi gorabehera zenbat, dana patentao. Geo, hasi zian estraperloko denboran ya, orduan ya kanpotikan ekartzen ta. Ba, mataayan norbeak hil behar, ta larrutu ta norbeak. Geo, ekarri zuen, matarifia ta hoiek geo hasi zian. Porke Zarautzan zauzeten aurrena zazpi harakin zauzeten hemen Zarautzan, zazpi harategi. Ta txahalakin tratua in, ta jolin!, puntillakin ta, ta. Gure aita hortan oso aurreauta zeon, pistolakin ta hiltzen genun. Txarriya ez det hil, laundu bai, baiña txarriya, ño!, ikara ematen zian, marruka. Baiña txahala, puntillakin ta. Ta lehendabizi porrakin, e? Hola jarri, burua altza [...], ta porra honekin, dan!, ta, jo hamen kopetian, ta bla! Baiño puntilla zeon, polito zan puntilla: tak eta hala. Goatzen naiz, nik gutxi larrutu, gutxi in izan det, porke esan dizut, lana iten nun, baiño, zea zan, behi gazte bat oso gaixtua, bueno, ba, ordun, bastante basuan ibilitakua ta. Nere ustez hilda zeon, tripaz gora, bueno, hankaz gora. Ta ni, atzian jarri naiz ta, sartu diyot kutxillua [...] hasi

naiz, ta nunbait uaindikan biziik, eta, a!, eman zin zarta bat, ta tak, hementxe eman zian. Hoi dakat anekdota nik, ganaua larrutzen.

7.9. Bizikletarako zaletasuna, baina bizikleta gutxi

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Olaskoaga, Jose Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozgueren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-013/014
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:20:35. **Bukatu**: 00:23:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena**: Banaketa non egiten zuen. Gehienbat herrian ibiltzen zen; auzoetara bide oso txarrak zeuden. Jende gutxi izaten zuen bizikleta orduan eta gehienek alkatatu egiten zuten. Beraiek hiru zituzten eta bat karrerakoa zen, Eibarko BH-tik bereziki ekarria. Nolakoa zen bizikleta. Bizikletan ibiltzeko zaletasun handia zegoen eta lasterketak ere egiten ziren.

Transkripzioa

- Eta, banaketa, e, ze lekutan eiten zenun zuk mutikotan, hamalau hamasei urtekin, bizikleta hartu ta ze lekuta? Ospitalea esan dezu Zumaira. Hortikan aparte?

- Bizikletan, ba, ibili, herriyan. Eske, orduan, txaletak eta uain dare, baiño hor dana txaletez beteta zeon, ta udaan, ta ni ez, baiño nere anaiak eta, bizikletakin ta, Miara igual jun ta, biria, zea, txarra zian, gurdi-biriak eta. Igual, Elkanoa juteko, ba, bizikletan zeara jun, e, Miara, ta Mian bizikleta laga, ta handikan oiñez ta jutun zian. Hemen, Zarautzan, pentsa zazu, bi o hiru tailler bazauzten alkilerrekuak. Hemen bizikletak hola, kontatzeko mouan zazkan jendiak, e! Bizikletan ibili nahi bazenun, alkatatu in behar izaten zan, in behar izaten zun. Gure itxian beti eoten zian bi eo hiru bai, bat karrerakua, gaiñea. Beno, karrerako hau ez zan guria, baiño Lasak eo, hoiek euki zuen taillerra nere aurretik. Oain hotel Alameda nola dao? Eskaillerak eta ditu. Hor itxe txiki bat zeon, ta hor zekaen garajia. Ta nere anai bat, zaharrakua, oso ona zan bizikletan. Ta hura launtzea jutun zitzaion tailler hortan, mekaniko launtzea. Oso afizio haundiya zun mekaniko. Ta, in zion behin hango nausiyak Eibarrea eaman, be hatxen fabrika. Ta han eman ziyoen bizikleta bat karrerakua, zea, Bizente Trueban neurrikua, kamixetak, zapatillak, dana. Llantak eta zian egurrezkuak. Orduan, egurrezko [...] ta. Bere bizikleta bere kanbiyuakin ta. Ta, karo, hori zan... Gure itxian eoten zan. Ez zan guria, baiño guria zan, esateko. Gerra bukatu zanian, bueno, gerra jun zanian, haiek pixkat republikanuak zian, haiek aurea ju zian. Ta gure itxian geatu zan bizikleta. Gure itxian eon zan hori, guria balitz bezela, gu ibiltzen giñan: ni, anaia, ta... Gerra etorri zanian, ba, in gendun, ba, guk bizikleta beai entregatu. Ta esan zigun, ez, ez, guria zala, ta. Orduan hemen bizikletako afizio haundiya zan, e! Hemen karrera onak iten zian, e! Ta Zarauzko, herriyan... Orduan kanbiyuakin, nik nun bizikletak kanbiyo ta guzti zakan, e! Ez pentsa, nik korritu nun kamiseta orbeakin.

7.10. Zarautz, nekazarien herria

- **Hizlaria(k):** Aranburu Aranguren, Francisco Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-014/004
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:04:08. **Bukatu:** 00:06:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Zarautz nekazarien herria zen. Bi alderdi nagusi zeuden: karlistak eta abertzaleak. Aberatsak karlisten aldekoak izan ohi ziren. Ingurua nolakoa zen. Herrian bertan 3 ukuilu ezagutzen zituen berak. Ez zegoen ia industriarik.

Transkripzioa

- Umetako garaian gogoratzen al dezu hola ohitura berezirik?

- Ohiturak? Bueno, hau herri zea izan da, herri apala. Hemen izaten zan, lehen, bi alderdi zian politika aldetik: karlistak eta abertzaleak. Zian. Eta karlista aldiak izaten zian, ba, bakizu, hemen aristokrazia etortzen zan beraneatzera ta zenbaitek komertziua o zea zuna, ba, karlista aldekoa. Aberatsen ipurgarbitzaileak. Bai. Ta gaiñuntzekuak, berriz, ba, abertzale aldea. Ta geo, berriz, pixkat hola politikan sartzen ez zianak asko. Zarautza izan zan, ba, nekazari herri bat, zeatikan hor, esan deuna hor [xaguaneko] kale hortan [in dituen] hor nik hiru ikuillu ezautu nitun. Eta gu azkena bizi izan gean... Ziprineko tabernan aurrian, oain zea dao, Agencia... guria da hori. Han nere aitonak, ama aldeko aitonak, lau behi eukitzen zitun han. Ta sag... Bi etxe zian hor, ta batian sagardotegiya eta bestian ikuillua. Zeatikan nere aurrekuak, aitona Florentino nekazai... o zea, zapaterua zanez, beste aldetik giñan basarri aldekuak, ama aldetik.

- Eta, ordun, ikuiluak ezautu dituzu Zarautzen hemen kalia?

- Baiii! Konziertoa ai zala plazan Makatzeneko ikuiluan tiraka txahala ateatzen ta. "Hau dek hau! Honei omenajia ein beharko [zioau] txahal honei, musika aituaz [edozein herritan....]". Ta plazan konziertua ai zala. Eta ai zian, ba, lehen atia zabalikan, ta zea hortan dedikatzen zian nekazariyak etorri ta "Ño! Oaintxe ohitu dek ba, ta tira!" ta tira ta halako baten "raaa" atea zuen gure txahal hori ta... Bai. "Ta, bueno, Oain, ze ingo deu ba?", ta "Oain? Botilla bat ardo eman behar ziou behiai" ta muturretik botilla bat ardo tragatuarazi ziyoen. Gu beira, mutil koskorak, han ta. Bai, bai, Zarautza zan... industria gutxi zan hemen, industria gutxi. [...] holako zea etxepe batian ta... Hemen ez zan holako...

7.11. Santa Marina ingurua

- **Hizlaria(k):** Olaizola Alkorta, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-018/012
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena:** Iluntzetan, batzuetan, Santamairana joan eta jolasean ibiltzen ziren. Santamairan neska eta mutilak batera ibiltzen ziren. Zalbide bideari kanposantu bidea deitzen zioten. Bidea nahiko iluna zen, argi gutxi zeuden.

Transkripzioa

- Bueno, eta geo ya hamabi, hamabi urte arte ordun bizimou hori: Santa Maiñan jolasian, eskolan ta gero etxian laguntzen.

- Etxian launtzen. Illunduta etortzen bagiñan igual illuntzian ihes ingo gendun Santa maiñaiño.

- A, baita, e?

- Behin baiño gehiotan bai porke bestiak 'e gu bezela izaten zian, e? Gu bakarrik ez giñan hola. Zea, Orbegozotarrak, mutil bat due ni baiño zeoze zaharro, neska zan nere edadekua, este... Faustino. Ta hua fundiziyuan hasiko zun aitak lanan sei urteako. Hamalau-hamabost urteako fundiziyuan gizonakin lanian zabillen hua. Ta handik ertetzen zanen, tximilikuarteka ibiltzea o izango gendun, korrika.

- Tximilikuarteka 're bai? Neskak 'e bai?

- Danak, neska ta mutil ibiltzen giñan.

- A bai, e?

- Santa Maiñan bai. Santa Maiñatarrak beti alkarrekin ibiltzen giñan. Ta nahiz horrea jun gu 're, Santa Maiñatarrak bezela jotzen genun. Hau ez zan, hau kanposantu biria deitzen geniyon orduan. Oain Salbide biria o du izena, baiño.

- Ordun, lehen Salbide bidea baiño lehen, kanposantu bidea.

- Hala deitzen ziyen, ez zun izenik eta. Zan argi bat Belauntzaneko parian. Belauntza ba al dakizu zein dan? Zea, itxe hor, zea, linterneia daon hori, hor zan Belauntza. Ta geo hamen, hor, zea, honeao, beste itxe bat, txale Garate esaten deten, hor matrimoniyo bat neska alaba haundi batekin. Ta geo hurrengo etxia guria, ta hurrengo Salbire. Ta argiyak hamen. Bide txikiya nola dao? Pare hortan bat, baiño bonbilla txiki batzuk zien ta, bestiak, zeanian, Manuel Maiñeneko aurrian, ta hurrengo gure etxian parian. Asi ke, argi illun-illun-illuna biria 're. Argiya bazeon, baiño illuna zan.

- Bonbilla txikiya, gaiñea.

- Bonbilla txikiya. Gure zea haundiyena zan, hamen bire txikiyan hontan haundiyo. Ta akordatzen naiz batian nola esan zian nei Azken Portu aldian bestek, "zuek argi hobia dakazue Azken Portu aldian baiño", "ta, zea eukiko diyau argiya", zea, argi, zea zaben ta, ipurtargiyak eta ta. "Galanta ikusten den", ta "bai, bueltako hori". Hori pixkat haundiyo, baiño bestiak? Argi txikiya". Ta geo guria pasa ta zean zan bestia, Baxilioneke txabolan parian. Ta hurrengo Salbiden, geo jarri zuen errekan parian, errekan parian ez zan argiik. Zan honea erreka ta honea 're erriyua, lehen erreka izanda izango zan porke erdiyan harriyak zitun harek.

7.12. Patxiku anaiaren omenez jarri zioten kaleari izena

- **Hizlaria(k):** Loiola Antzuola, Agate; Loiola Antzuola, Ignacia; Loiola Antzuola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando

- **Erref:** ZAR-019/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:04:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Patxiku kalean dago etxea. Beraien anaia zen Patxiku eta jendeari ez zionez uzten bertatik pasatzen, bere izena jarri zioten kaleari. Anaia gerra-denboran atzerrira joan zen.

Transkripzioa

- Nola, nola gogoratzen dezue piska bat kale hau...
- R.: Uu!
- ... orduan, garaian? Hau, Patxiku kalia.
- I.: Bai.
- R., A.: Patxiku kalia.
- Ordun 'e bai?
- A.: Bai, ba. Gure mutilla zan Patxiku, eta...
- R.: Gure anaia zan Patxiku.
- A.: ... ez ziyoen lagatzen pasatzen honea, kale honta.
- I.: Beti mandamas iten ibiltzen zan bere kalia zala ta, ta hola.
- R.: Ez ziyoen lagatzen mutil koskorrai hemen pasatzen.
- I.: Beti Santa Maiñatikan, Plazatikan buelta eman behar Patxik ez ziyoelako lagatzen pasatzen.
- R.: Patxin kalia deitzen ziyoen, ta horreatik jarri diyoe. Lehenoz zakan zea zeatu ta, Patxiku kalia.
- I.: [...] "hau nere kalia dek, bai? Eta zuek..."
- A.: "Zuen kalea!"
- I.: "... jun zuen kaletik nahi baezue".
- R.: Etortzen zian eskolatikan, e! Ta gizajuak jun behar izaten zuen plazan bueltatik been itxea, gure mutillak lagatzen ez hemendik pasatzen.
- A.: Bueno, ez bazeon, gure mutilla ez bazeon, mutilla baldin bazeon, ordun.
- R.: A! Ez bazeon...
- I.: Bai.
- A.: Klaro, mutilla ez bazeon.
- R.: Ta gero, igandetan libre.
- I.: Ta geo, hartaka du honek izena. "Ordun, hiria baldin bada, ordun Patxikun kalia". Ta, "bai, hola dek ba kale hau, hau dek Patxiku kalia!". Ta ordutik uaindik izena daka.
- Bai.
- R.: Ez, baiña jarri in ziyoen bere izena, e, jarri [...].
- I.: Bai, hua Ameriketatik etorri honea udara pasa o itea ta, sinistu [...], "¿Es posible? Nola?" Patxiku kalia. Lotsatu in zan bea bere konportamentua nolakua zan...
- R.: Eske zan oso...
- I.: ...mutikoskorretan.
- Ta hori zein zan, zuen... zer zan?
- R., I., A.: Anaia!
- Anaia!
- I.: Bai, Patxi.
- R.: Oain hiru urte hil zan han Mejikon bertan.
- A.: Bai, Mejikon bizi zan.
- R.: Baiña etortzen zan honea sarri.

- I.: Bai.
- Osea ke, zuen anaian zea, izena damaki kale honek orduan.
- R., I., A.: Bai, bai
- I.: Bai, hori danak ezautzen due hua. Patxiku Loiola...
- R.: Bai, Patxiku kale, Patxi.
- I.: ...hori esan ta ya está. Geo, gerra denboratikan hara jun zan. Lehenbizi Frantzira pasa zan, geo Alemanak eta berriz beste gerra atea zuenian honea etorri behar zun ta hemen [...] txarrak zeuzkan, ta in zun Ameriketa jun, bai.
- R.: Dazka bost, bost alaba.
- Bost alaba, e?
- I.: Bai.
- R.: Danak neskak.
- Jontxo!

7.13. Herriko bizi guztia kale nagusian

- **Hizlaria(k)**: Serras Azpillaga, Antonio; Uria Aldalur, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-020/009
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:13:08. **Bukatu**: 00:14:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Manoliren aita harakina zen. Kale nagusia nolakoa zen orduan. Inguru horretan zegoen guneko guztia. Kale-baserri asko zegoen lehen.

Transkripzioa

- A.: Beitu iozu zeai, karniazeia. Honen aita karnizeia zan, Inaxio karnizerua.
- M.: Bai, Otzarretaneko karnizeia nola da? Gu hortxe jaio giñan.
- Bai, bai, bai, bai
- A.: "Habla un poco más fuerte, e."
- Bai, bai, bai. Eta orduan, Kale Nagusiya adokiñakin, edo nolakua zan?
- M.: Bai, bai.
- A.: Bai, ez, zea...
- M.: "¡Adoquines!"
- A.: Bai. Hola, "la acera de adoquín", adokiña...
- M.: A, bueno, geo hor, nola deitzen zitzaion, ba? Erretenak, erretenak.
- A.: ... geo erreten bat zakan ura zeatzeko. Zulotan botatzen zuen zea, benenua, ez arratoik eta ateatzeko. Ta, hantxe jarduntzen giñan gu, kaniketan, jode, gustoa.
- M.: Gustoa asko!
- A.: Geo, zea, asfaltatu in zuen dana. Ta geora, peatonal in zanian, ba, hori Muruak eta in zun, ta ya dana zeaik gabe.
- M.: Eske hamen zirkulaziyua bat zan.
- A.: Honea etortzen zianian Realak jokatzea Donostira, gelditzen zian hamen. Hamen zea zan, juerga...
- M.: Eske, orduan zenbat jende gendun, ba? Hiru milla, hiru milla...
- A.: Dana hamen. Hamen zaben pasteleiak, hamen zaben las tiendas de

comestible, haben zaben meikuak, haben zaben.... Dana haben zeon!
 - M.: Eske Kale Nagusia!
 - Bai, ba.
 - A.: Ta geo Makatzanian 'e hor behiak eta, ta haben 'e, panadeian aurrian ahari jokuak eta, bueno!
 - Hemen bertan?
 - A.: Bai. Ez, zean, ahariyak eta eukitzen zituen, txerriyak eta dana.
 - M.: Baiño hor, atzeko aldian 'e! Baiño iya kale guztitan zian ukuilluak.
 - A.: Polita zan zea...
 - M.: Makatzaneko itxia bakizu, plazan bertan?
 - Bai, bai, bai, bai, bai.
 - M.: Han 'e ukuillua ezautu gendun. Esne billa gabian han joten giñan gu. Gero, hor, kale Zigordian 'e Pipaseneko hortan, hor 'e ukuillua zan. Eta gero...
 - A.: Xaguanekuak 'e bai.
 - M.: Xaguanekua, han atzeko aldian, hura, Xaguanekuak, eta. Ukuilluak haben? Kale baserrik, kale baserrik zian, kantidadian.

7.14. Urteberri eguneko gonbidautza

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Manterola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-021/017
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:25:38. **Bukatu**: 00:27:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
 Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Aitze bailara santu eta elizarik gabeko auzoa zen. Urtetara joaten ziren mezara. Urteberri egunean gonbidautza egiten zen.

Transkripzioa

- Apaizak eta ordun, e, e, zea, eragiñ haundiya izango zun apaizak ordun, e!
 - Bueno, gu, gure baillaran ez zan, ba, zeaikan, elizaik ez zan.
 - A, ez?
 - Ez zan. Ez gendun patroiarikan ballarakoikan. Ze, beste danak baitue, baiña gurian ez zan, Aitz baillaran ez zan. Eta...
 - Eta, noa joten ziñaten, mezeta ta noa joten ziñaten, ba?
 - (A) Urteta.
 - Urteta?
 - Urteta eta honea gehienian. Ta beste tokita... horraxa, Urteta ta honea, beste tokita ez giñan joten.
 - Ta, ordun, auzoa, auzoko festaik eta ez zan eoten ordun zuen auzon?
 - Ez, ez gendun... Gure zean ez zan festaik.
 - (A) Mandiyotan ta iten zituen, ba, festak. Mandiyuan ta.
 - Bueno, konbidauak zianian. Konbidauak urtian behin, ta.
 - (A) Bodan baten o...
 - Ordun soiñu-jotzaillia, ta. Gazte pusketa juntatzen zan, ta. Etxeko fexta.
 - Gonbidauak noiz iten zian, ba? Gonbiautza?
 - Urte berriyan, urte berritan, urte berritan.

- Ta ze izaten zan hori, gonbidautza hori?

- Gobidatuak? Ba, jende, auzuak eta launak eta juntatzen zian, kuadrilla dexentia juntatzen zian.

- Ta ze iten zan?

- Ba, bazkai galanta ta. Afaia 're bai, ta. Dantzan in, ta. Bestiak lana sukaldian, ta. Hauxe bizimoua!

- Ta ordun gonbidautza urtero iten zan?

- Bai.

- Urtero.

- Beno, lutun bat eo ez baldin bazan, bai. Gure itxian berriz 'e lutua askotan izan zan, ta urte asko izan zian in gabiak.

- Ta, gonbidatuak jan ta ean ta dantzan ein, ta...

- Bai, geo txandaka, e, iten zan hori, e.

7.15. Jostundegiko tresneria; ikatzezeko plantxa

- **Hizlaria(k):** Kaperotxipi Arakistain, Jesus Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-024/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Bi makina Singer eta plantxa zituzten hasieran eta josteko behar diren tresna oinarrizkoak. Hasierako plantxa ikatzezekoa zen.

Transkripzioa

- Ta zenbat makina, o? Makinak eta eukiko zenituzten ba han, ez?

- Guk orduan zazkaun bi makina, bi makina zazkaun, Singer. Eta geo, ba, ya, denboa pasa zanian ta aurreatu zanian, geo beste lagun batekin soziyo in giñan. Baiño hori ya berandu. Bai.

- Ta, orduan hasieran bi makiña Singer.

- Bai, bi makina Singer.

- Ta hortik aparte ze tresna erabiltzen zenuten orduan? Ze tresna erabiltzen zan?

- Ezer ez! Titaria, ta...

- Orratza.

- Orratza.

- Hariya.

- Hariya ta besteik ez.

- Metrua.

- E? Metrua.

- Ta kitto.

- Kitto! Han ez zeon beste ezer 'e. Ta plantxa.

- Plantxa.

- Plantxa. Hasieran ikatzezkua. Ta amak egunero sukaldea jun ta hamar bider o hoge bider, tak!, ikatza sartu: hola, tak!, altzatzen zan ta ikatza sartu, eta hura bero-bero jartzen zanian, plantxatu. Gure aitai kostatu zitzaion plantxa ikatzezkuatik kanbiatzia zeara, esto..., elektrikua. Jo! Bueno!

- Zeatikan, ba?

- Harekin ohituta! Puntua 're bai hobia. Ta elektrikuakin bildurra 're beti erretzeko, ta. Bai, aitai asko kostatu zitzaion.

- Baiña harekin akzidentiak eta gertatuko zian harekin lanean, e? Erre, zeoze erre...

- Ez, ez, ez, ez. Plantxak zian, kategoriko plantxak zian. Pena dakat danak bota genitula. Halako plantxa earrak eta, bop, hua irekitzen zendun eta lau o bost ikatz koskor sartu, tapatu ta seituan bero-bero jartzen zan plantxa. Ta oso gozotsua zan gaiña, zea, plantxatzeko.

- Baiña, ekonomika 're eun guztian piztuta euki behar, ez, etxean?

- E?

- Ekonomika 're piztuta euki behar.

- A, bai! Beti sua euki behar han! Bai, bai, bai. Ta gaiña askotan, ba, bi eukitzen gendun ta bat ekartzian ta bestia, tak!, kanbiyua iteko.

- Ta harekin pixkat keia ta, kea ta ez zun sortzen, e?

- Ez, ez, ez, ez. Bueno, problemak izaten zian zeñei ikatza erosten ziyozun 'e bai. Porke, gu gure klientiai esaten giñoun "Ikatza ona apartauta ekarri zak", porke bestela kia botatzen bazun harek...

- Kontxo, kontxo, kontxo, kontxo...

7.16. Aristokraziakoen etxeetara neurriak hartzera

- **Hizlaria(k):** Kaperotxipi Arakistain, Jesus Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-024/019
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:25:38. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Zarautz nolako dotorea zen palazioz beteta zegoenean. Konde eta markesei ere arropa asko egiten zieten eta euren etxeetara joan behar izaten zuten. San Luis palazioaren inguruko kontuak. Aristokraziako frantses batekin gertatu zitzaion pasadizoa.

Transkripzioa

- Orduan zan Zarautza polita, zeak zabenian, palaziyo guztiyak, eta, jo! Hura elega... Zarautza zan orduan elegantia, Zarautza. Ixkiña batetik hasi ta beste ixkiñaiño dana palaziyuak, baiño palaziyuak kategorikuak, e! Eta, aitakin, hori, esan detena oan esango dizut. Aitakin juten nitzan ni esto... aleman hori famosua nola zan... Conde de Hohenlohe, harena juten giñan gu. Goizian jun ta probatzea trajiak iteko, e, probatzea. Eta, "espere un momento porque..." ta, beti zai, beti zai. Probatu ta geo handikan bi egunea berriz best prueba o hiru in ta. Erropa dexente iten zuen ta, hola, aristokraziko asko. Conde Tebai 're guk erropa asko iten giñun, Markes de [...]. Baiño kantidadia, erropa kantidadia. Baiño nere aita orduan tontua zan, eta ez zun ondo kobratzen. Ze, geo pentsatzen det nik ze tontuak izan giñan gu orduan. Baiño zea, aristokraziko jendia, Jesus!

- Bai, e? Honea etortzen zian erropa itea, e?

- Ez! Hemen udan etortzen zian ta.

- Ta hemen iten zuen erropa.

- E?

- Ez zuten eiña ekartzen?

- Ez, ez. Bueno, beak 'e ekarriko zituen, baiño beti zean, erropa. Ta askoz merkio, Jesus! Jakin nahiko nuke, erdiya baiño gehio merkio ateako zitzaioen ta.

- Bai, ba. Bai, ba.

- Ta zuek juten ziñaten ordun beaien etxeta neurriyak eta hartzea?

- Bai, bai, bai, bai. Ni zenbat bider jun naiz, Jesus! Hohenlohen zea, zea, palaziyua, jun ta hantxe, errezibitzen zigun ta, bueno, "un momento porque esto...", ta, bai. Geo beste batian jun ta, beste batena ta, "no, porque el señor está con jaqueca". Bezperan zea, mokoillo ear haundi bat harrapatu, ta geo, jakekakin zeola ta gu mozkortuta. Jakeka. Ta geo San Luisen...

- Neskamiak eta...

- E?

- Neskamiak eta eukiko zituen, ez?

- Haiek?

- Bai.

- Neskamiak eta, [...] eta, holako belarritako haundiyakin ta orduan hoiek... [...] San Luisek, porke ni San Luisen asko eon naiz. Nere amona zan administradora San Luiskua, eta han, Villa San Luis, ez dakit aituko dezuen. Hor zean dao, parada zeakuan. Eta han, hango...

- Han lehenoz zer zan palaziyo bat baita 're?

- Bai, bai, palaziyua, eta haundiya gaiñea, Jesus! Barruan zea bat zakan, pizina bat bezela, ta zeak eta, ikaragarriko palaziyua zan. Hor, Zarautzan palaziyuak izan dia, baiño bueno, kategorikuak, e! Geo, bat saldu zan, ta inmobiliariak eta zeak eta hasi zian, ta, drak!, eta danak saldu, danak kendu. Oain bat 'e ez dao.

- Anekdotak ta ba al dakazu aristokrazia jenteakin?

- Anekdotakan? Ze esango dizut, ba, nik, hola. Batian probatzen frantses bat zan, eta urtero, urtero, urtero etortzen zan. Ta batian probatzian, zea, neurriyak hartzen hasi niñun ta, "aquí tiene usted un bulto" ta, tak, eta. Pistola haundi bat atea zian ta. Krupierra o holakon bat izan behar zun, zeakin ta, Frantziyan jokuak eta iteo ta beti pistola haundi batekin ibiltzen zan. Anekdotak asko, baiño oain ez det... Nik 'e burua txarra dakat eta, ta gehio..

7.17. San Pelaioko baserriak

- **Hizlaria(k)**: Makazaga Agirre , Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen
- **Erref**: ZAR-025/009
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:17:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: San pelaioko eliza beti ezagutu du dagoen lekuan. Inuruan baserri asko zeuden; baserri izenak.

Transkripzioa

- Ta zuk, e, San Pelaioko eliza hau ezautu al zendun han Mollarri inguruan zanian, o? O hori lehenuo zan...

- Hori ezautu dunikan ez dao hemen.

- A, ez! Hori aspaldi, askoz zeago zan.

- Hori ezautu 're ez. Xantosek 'e ez du esango.

- Ez, ez, ez det uste, ez, ez. Ez niyon galdetu 're in, e, oaintxe okurritu zait. Eliza hau zuk hemen ezautu dezu?

- Bai.

- Baiño inguru hau ziharo dezberdiña izango zan?

- Uain asko meiorauta daola.

- Bai.

- Ordun baserriyak eta bazian hemen ingurun, ez?

- Bai. Hamen aurren 'e Pikatza. Hau 'e basarriya zan, Flores.

- Flores.

- Hasi kamiyo batetik eta besteaiño. Ta dabe, zenbat itxealde, hiru itxealde eongo dia. Hausko partetikan, geo Loinazen atzen hau in da, ta hau. Beittu zenbat... Eta, joe, Pikatzak baldin badia... Etxanizak, Etxanizek eta nun dao, ba? Zenbat itxe ta zea daon!

- Bai.

- Itxe Beltza.

- Itxe Beltz bestia, bai. Hor Landatarrak 'e bazian, ez?

- Baita, baita. Zubiaurre Zaharrekok. Hamen biziik dabenak oaindikan Raku ta hoitxek dabe, Rakunekuak, pelukeia dakan zea.

- Bai. Laiste bota behar omen due hori 're, ba.

- Aspaldin hortan dia!

- Hartan ai dia, ez, aspaldi?

- Bai. Bestia zea zan, Manterola ta, baiño bota zituen haik 'e danak.

- Baita.

- Ta noa jungo gea, ba? [Axierrei / Asier Rey] ta... [Axierrei / Asier Rey] bizi dek. [Axierrei / Asier Rey] lehengo itxia dao. Bakizu zeinena dan hori?

- Ez dakit zenena dan.

- Hori, ba, Bilboko porteruan andria horkua: Makatza, Makatza...

- A!

- Makatzan andria horkua zan. Bai. Oaindik oaiñ 'e hil dala usten det gaiñea, Gabriel gizona. Hor, [Martania] taberna. Geo bestia [...] ez zan zeatu. [Axierrei / Asier Rey], baserri koxkorra, harek 'e bi behi zean, landa baten, baxarri hori. Nee izekok eta 're iñoiz euki izandu zuen haik 'e behiak eta [Aparetero]. Hamentxe zean, alkarren gaiñen. Geo, hermandaria o jarri zanen, ba, sartzen zian Xalbardin ta, o... Sartu zitzaizkigun kalekuak 'e. Beste batzuk, berriz, hemenguak, beste ekipon baten eoten zian igual.

7.18. Asti inguruan tabakoa ereiten zen

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Agirre, Pepita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-027/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Asti inguruan tabako asko egiten zen. Sekadore bat ere bazen. Berain ingurua nahiko behean zen, eta uholdeak izaten zituzten sarri.

Transkripzioa

- Ta hau, hemen Sakoneta baserriyan, hemen Asti inguruan orduan, nola gogoratzen dezu umetan, e, inguru hau?
- Bai, inguru hau ba, dana oso behian zan eta uholde haundiyak, ebite haundiyak iten zitunian ba, ujalak harrapatzen zitun asko.
- A, bai, e?
- Bai, ujalak harrapatzen zitun asko. Eta, orduan ba, tabakua ereiten zuen hor kanpo futbol alde hortan, tabakua ereiten zuen eta oain txiringitua daon hortan ba, zea zan, sekadora [...] deitzen ziyoen pabelloi haundi bat, ba, tabakuak sekatzeko ta, bai, tabako asko eiten zan. Eta, geo ba, aizu, tabakuak kendu zianian hor beti herribeherak Astikuak zian, Asti basarrikuak zian herribehera asko hor, eta ba, urak asko hartzen zitun. Eta...
- Gogoratzen al zea zuk hola, uholde haundin bat, edo?
- Bai, ni akordatzten naiz behin ba, herribeherak kanpo fubolian herribeherak zian, soro haundi xamarrek zian eta izugarritzko eurtia ein zuan. Eta hor goian Ibaia, eta hortxe setienbre aldea o hola zan, eta sagar urtia zan han ta izugarritako sagar pillak ekarri zian goitik behera etorri zian urakin, egurra ta abarra ta. Akordatzten naiz ba, sagarra jasotzen ta nola ibili giñan, ba, aita "sagarra jaso behar deu!" ta, hoiek akordatzten naiz. Ta geo ba, hor, Barrentzo azpi hortan, Sakeletzeko baserriya ta, hor berriz txalupakin 'e asko ateatzen zian, uholdia etortzen zianian eta marea iyotzen zianian, urak iyotzen zian eta orduan ba, txalupaz ta ateatzen zituen ganauak eta ta, bai, bai, bai, bai, bai. Oso beheian zan. Oaiñ ere, oaiñ ere, hor behian etxe txiki batzuk daude, ez? Bi etxe, ta ura, baria danian ta euriya asko-asko iten dunian, holako ebite haundiyak ez ditu oaiñ hola iten, lehen bai bezela baiño, ura dexente iyotzen da hor, e! Ura... zakarra ta abarra dao hor, baiño ura asko sortzen da hor, bai.
- Galera haundiyak orduan, e?
- Bai, orduan bai, hoixen, hoixen, bai, bai, bai, bai, bai.

7.19. Zarautzen hiru inguru berezi: herrigunea, Iñurritza eta Azkenportu

- **Hizlaria(k):** Illarramendi Arizaga, Pio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-030/002
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Gaztetan batez ere igerian egiten zuten, kostara beti. Zarautz barrualdekoek mendira zuten joera, baina berak ez. Zarautzek hiru auzo handi zuten, oso ezberdinak: kostaldekoak, Azkenportukoak eta Iñurritzakoak.

Transkripzioa

- Ordun, igeriya ta, arrantzua...
- Igeriya, arrantza ta danea. Pelota.
- Pelota 're bai.

- Pelota.
 - Mendiya?
 - Mendiya ez, gutxi.
 - Gutxi.
 - Mendikuak gehio zian Azken Portu aldian bizi zianak.
 - A, bai, e?
 - Bai.
 - Kontxo!
 - Hori da, hori zan hemen itsasondokuak ta hura, nahiz oain herri barru-barru-barrua izan, pixkat aparte iten zan. Hura mendi, osea, oso desberdina... Ni gehien harritzen naizena, nere edade bertako jendia, Azken Portun jaiotakuak igeian ez dakiye askoek, Zarautzen jaiota. Gauza kuriosua ez al da hori?
 - Bai, nahiko.
 - Bai, bai, baiño ez zan... Herriya desberdina zan ta!
 - Bi parte izango balia bezela, ezta?
 - Hiru parte!
 - Hiru.
 - Hamen, Santa Maiñatik barroakuak, Txerri kaletikan Azken Portu ta geo Iñurritzakuak.
 - Kontxo, beira, iñork ez digu esan hori, e?
 - Ez.
 - Hiru [...] bizi zan hamen jendia, osea, herriya zan, sortuta zeonian. Ari naiz hitz eiten de los años 50.

7.20. Auzokoen arteko harremana; auzolana

- **Hizlaria(k)**: Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-045/007
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:10:22. **Bukatu**: 00:11:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Auzokoen arteko harremana. Gurdiak elkarri uzten zizkioten eta txahala jaiotzeko zegoenean ere auzora laguntzera joaten ziren. Gari-jotzea ere auzolanean egiten zuten.

Transkripzioa

<p>- Etxe bakoitzian bazan gurdi bat. Gurian bazan gurdi bat belarra ibiltzeko; beste bat zimaurre ibiltzeko eta beste bat hondarra ibiltzeko. Eta eun batian behar bazian bi ganau parekin belar ondua ekarri menditikan… gurdi bat falta. Auzoa [edozeiñeta] jun "Hi, zea, gaur gurdiya behar nikik ba horrela" eta "Bai, bai", edo “Gaur ez zekat /etzakat/ ba; bestiana jun berko dek” eta. 4 edo 5 auzo hor ingurun giñanak oso ona. Baten bat behi bat ume iten ai zanian edo: “Hi, holako tokitan behiya...” eta "Lau-bost laun ekarri itzak eta jun hai, zea, behiya ume iten da ta". Ta [han etortzen] zan. Auzo artian.
- Benetako auzolana, beraz.
- Oso. Gariya ebateko ere, auzolana. Eta gero gariya jotzia izan tzan urte batzutan. Gerraosteko urte haiyetan eta. Eta mojetako paetan kontra hor bazan ean toki bat ganauantzako, [lehen esan deana], komunala, auzoko zortzi etxentzako o

horrela. Haren onduan makina jarri, matxaka, eta auzoko danak alkarri launduz, eun batian jotzen zian gari danak. Auzo artian jotzen zan.
- Orduan´e izango zan ba alkarri adar-jotziak eta holako kontuak, ez?
- Ahal tzan guztiya. Bai, honbre, eso...
- Ardo pixkat edan ta...
- ... a la orden del dia. Eta hola ardo pixkat edanda zeonak are eta gehiyo…</p>

7.21. Auzolana; auzo-alkateen aukeraketa

- **Hizlaria(k)**: Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-045/008
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:11:32. **Bukatu**: 00:13:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Bideak konpondu behar zirenean auzo-alkateak errazioak eskatzen zituen udaletxean. Auzo bakoitzak alkate bat zuen. Auzo-alkatea udaletxeko onespenearekin aukeratzen zen.

Transkripzioa

<p>- ... klase danetikan. Eta batik bat gari-jotziak zianian eta bestia izaten zan bide-konpontzia. Danda! Baserritako biria in ber eta udaletxea eskatzen zan, zeak, "alcalde de barrio" k iten zun eskabide bat: “erraziya”. Holako bide konpondu behar da eta erraziyuak [behar dituu /behaituu/] hartarako. Eta ematen zuen litro… ez dakit litro laurdena o litro erdiya. Hainbeste ardo eta ogi zea bat, ogi [zerrenda] bat, barra erdiya-o izaten zan bakoitzantzako. Eta askotan, ba, "Bai, 15 bat lagun-edo izango gaituk. Eta ekarri zak gehixio". Eta garrafoika ardua eta ogiya izaten zan erraziyoako. Eta hua jan ta ean eitten ai zan bitartian, [...] alkarri nundikan adarra jo, euskeraz esaten dana. Hori...
- Eta ogi hutsa eta ardua, besteik ez?
- Ogiya eta ardua. Hoiyek zian erraziya. Udaletxiak ematen zuna.
- Lehen esan dezu auzoko alkatea.
- Barrioko alkate, bai.
- Eta hori nola izaten zan? Nork aukeratzen zun o...?
- Hori... Barriyuak Zautzen dituk: San Pelayua, Haitzgaña, Urteta, ta Elkano. Ta bestia, Miakua, ez takit hor [sartzen] zan. Eta barriyo bakoitzian eoten zan “alcalde ped´neo”, barriyoko alkate bat. [Hori izaten zun] barriyoko gorabeherak gai hoietako, eskabide hoiyek iteko-ta eoten zan.
- Eta hori nork aukeratzen zun? Nola aukeratzen zan?
- Barriuan bertan; baiña herriko baimenakin o herriko launtzakin, o herriyan zauden alkate edo komisiyokuak beste hoiyek pixkat zeatzen zituzten zein izan.
- Botaziorik gabe orduan?
- Botaziyo zeaikan ez, auzotan-ta ez zan izaten. Osea ke, bertako bakarren batzuk eta udaletxekuakin iten zuen zea hori. Udaletxetik izaten zuen batik bat, horren onspena behar izaten zuen. Osaba Pelaio urte askotan egon zan [...].
- Laguntzailea: Bere anaia.
- A...</p>

7.22. Ermandadeen inguruko gorabeherak

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/009
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:13:24. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Baziren ermandadeak auzoan, baina beraiek ez zuten parte hartzen. Ermandadeetako tirabirak. San Pelaioiko gizon batekin ermandadean izandako gorabeherak.

Transkripzioa

<p>- Gu ez giñan ermandadekuak, baiña ermandadia bazan. Terrama batzuk esaten ziyoen, bestiak ermandadia. Bai, biyeta. Biyeta izaten zan. Zautzen izango zian, ez takit: bi edo hiru.
- Baiño zuek ez?
- Gurian ez zuen nahi izaten, zeatikan izan zian lehenok kasun batzuk, abusatzen zuelako batzuk eta bestiak ez eta, [dan suertia dala, eta ...] eramaten zan. Eta San Pelaioikuak zuen ganauan adarrian burni gorituakin eindako sellua: “Angel de la Guarda”. Anjel, kofradi hori zan: Aingeru guardakua. Ta hor izaten zian batzutan, “Nei behiyak ume-hilla bota dit”;, o sea, “expulsi&ocute;n del feto” esaten dana /esateana/. "Zea hori esan dit" eta... batzuk bai, "ba al dek ba?", "ez al dek?", "ez [...] ta... Eta katalaguan jarrita zeon hainbeste bakoitzeko bere zea eta batzuk han izugarri sartzen ziala; beste batzuk ez zuela iten, beste batzuk beren kulpaz izaten zituela, eta... izaten zan. Geo gertatu zan, San Pelaioiko hortan, gizon bat zeon beti polemikua –zein ez det /eztet/ esango, hil zan eta zea…. Eta juntako askoek esan: "Hori? Hobe giñikik bialdu bagendu! Alde eingo balu…"; ta "Joe, bialdutzia... bialdutzia... gizonai esatia ez zioke ba hori..." ta "ez zion ba hori..." ta... Hala ein omen zuen juntaiza, urtekua ein zuenian, batek: “Hi, ni urtero hemen jaleua izaten diau bai, eta ni baja ematea nitxiak. Neria borratu zak”. Bestiak´e: “Nik´e hoixe ingo diat. Honek in duna ingo diat /ingoia”. Beste batek´e: “Zuek baldin bazuazte, ni hemen ez nitxiok ba…” ta "ez nitxiok ba..." ta bakarria geatu terraman! Bota nahi zuen hura. Hua geatu! Ta “Beno, zuek danak bai, ni ere borratu ingo nauk ordun” ta "Bueno, bale". Eta borratu. Eta orduan batzuk, orduan hasi prepatzen, eta: "zeatikan, hainbeste urtian alkarrekin eon gaituk eta" zea ta, zea ta... "Beno, berriya ingo diau ordun, berriya. Estatutu batzuk aldatuko dixkiyau eta berriya ingo diyau". Ta batek izena eman –lehenagotikan hori planeatuta eongo zian, nunbait–; batek izena eman, bestiak´e bai, eta bestiak´e bai ta... "A! baiña gauza bat: hemengo folloiak danak hik in dittuk bai –beai esaten zioen–;, danak hik in dittuk. Hi ez haugu onartuko”. "Joe, ni laga ber al nazue hola?", eta "Bale". Baiña "sin voz ni voto” tipo hori, "sin voz ni voto". Hori gertatutakua. </p>

7.23. Gaztetako bizikletak zenbat ordaindu zituen

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/014
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:22:44. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Lehenbiziko bizikleta 16 urterekin erosi zuen. Bigarren eskukoa zen eta 60 duro inguru ordaindu zuen. 19 urterekin txirrindulari batena izandako karreretakoa erosi zuen.

Transkripzioa

- Bizikletak eta bai garai hartan... Zenbat urtekin lehenengoa?
- Ba, hamaseikin o horrela lehenengo bizikleta.
- Ze eratako bizikleta?
- Ze eratakua? Frantsesa, ona, [...]. Apellanes pintorian semiana hartu nun nik hura, bigarren eskutikan eo. Ta geo hemeretzi urtekin ya karreretakua, bigarrenengo eskukua. Eta geo harekin ibiltzen nitzan [...] iten.
- Zenbat paatu zendun lehenbizikua?
- Hirurogei duro uste det zala.
- Hirurogei?
- Hirurogei duro, “trescientas pesetas” esaten dana. Ta geo handikan esan deana, hemeretzi urtekin “setecientas cincuenta” karreratakua, tubularra, ya...
- Manillarra karreratakua ta dena.
- Bai, ta kurpillak eta kanbiyuak eta hor zeona, “lo que se estilaba”, korredoria izandutako batena hartu nun.
- Zeiñena? Ze korredore?
- Xuaina, Herculeno Aldaz. Ta hark beste bat hartu zun hobia eta hori errifatu in zun, ta erten zion Kepa Zinkunegiri, erten, ta hark “zertako [...] bizikleta hau?”, eta, “hi, nik paatuko nitek, baiña...”, eta zortzirehun pezta behar zula ta, “holakuak esan ziak emango ditela”, “emayok, ba. Nik zazpirehun t’erdi emango yat, baiño bizikleta hartu baiño lehen, e?”, ta, “hartu zak, ba!”. Hala eman zian, halaxe eman zian. Ta geo harekin karreretan ibilli nitzan.

7.24. Telebista ikustera dendako eskaparatera

- **Hizlaria(k):** Zulaika Lizaso, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-045/031
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:52:04. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Aisia » Kirola » Txirrindularitza

- **Laburpena:** Egunkaritik jarraitzen zituen txirrindularitzaren inguruko berriak. Lehenbiziko telebistak etorri zirenean, jendea dendetako eskaparateetara joaten zen aulkiak hartuta.

Transkripzioa

- Nola, nola jarraitzen zenun jente horren ibilkera eta aktualidadea ta?
- Honbre, astian behin eo perioikua hartzen zanian hola ordu erdi batian beitu ta afizionau, ta begiyak jun iten dia harta, dakazun harta jutun dia, ta horrela, horrela.
- Eta radiyua ta?
- Radiyua geoxio, baiña bai, laixte. Hori nik... hogeita bat urte nituneako bazan radiyua, bai, bazan.
- Etxian haundi hoitakua, Telefunken edo hola?
- Ez, zer zan hua? Ez, Telefunken ez zan...
- Beno, berdin dio.
- Kauen la puñeta... Ez, Telefunken ez zan...
- (S) Bestela, nik entzutea, futbol partiduak eta elektrizidade denda saltzen zitunak telebistan, etxetikan aulkiyak eaman eta kalia danak, eskaparate aurrian ta.
- A, zea, telebisiyua jarri zianian, zea, telebisiyua jarri zianian, Zarauzko Iribar seleziyuakin Rusuan kontra. Ta nik ordun lana iten nun mueble-etxeko alabak hoitakuan denda zaukan. Ta orduntxe aurrenengo telebisiyuak. Geure nausiyak beak'e ez zeukan telebisiyoik etxian. Eta dendan propagandantzako in zuen fonduan jarri hoyetako bat, eta bere aita, ama ta bere sendiya ta langilliak zean, eskaparatian barruan, zea, esertokiyakin. Ta publikua etxetik alkiyak eta ekarri ta bi illara o in eta kaletikan beira. Hori ez da zea, Iribarrek Europeoko zea hori irabazi zueneko ordun.

7.25. "Camino del cementerio" deitzen zen Salbide kalea

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Martija, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-049/004
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Gaur egungo Salbide kalea "Camino de cementerio" deitzen zen. Inguruneari, orokorrean, Salbide deitzen zitzaion. Fabrikak eraikitzen hasi zirenean, bertako iturri eta aska lekuz aldatu behar izan zituzten.

Transkripzioa

- Inguruak ze izen zeukan? Salbide?
- Ez, e bueno kale horrek porke nik pixkat delimitatu det baserria hemen dao ta oain hasten naiz kalea beira. Kale horrek izen zun "Camino del cementerio". Ez zaukan beste izenik ta guri esan "Camino del cementerio número veinticinco", hogeita bosta. Baiño orduan dana erderaz nola in ber zan... Eta ni gogoratzen naiz gero obligatu zituen baserriyak bakoitzai bere izena jartzea. Eta eman zizkion bakoitzai hola tables batzuk izenakin ta hori jartzen geñun izenakin ta hamen dao ikusi itea gaiñea nola daon.

Baiño zan “Camino de Salbide número veinticinco, oi digo Camino del cementerio número veinticinco”.

-Baiño beste izenik ez zeukan inguruak? Salbide esaten zan.

-Bueno ee bai Salbide, Salbideko erreka, Salbideko iturriya ta gero Salbideko fabrikak.

-Eta iturriyak zer zan beti hor izandakoa edo...

-Iturriyak daka bere historiya. Niik ezagutu nunian, Salbidetik ehun bat metrora desplazatuta Arzallusenea, ferrokarril aldea. Baiño horrek bere esplikazioa daka: Salbiden onduan oain rotonda daon lekuan, ba rotonda nola da erdiyan txalupa batekin ta? Han zeon gure etxian onduan, gure terrenotan aska behiak-eta ura edaten zuena. Ta iturriyan muturra re bai. Baiño fabrikak in zianian, kamioiak pasatzian nola puskatu iten zuen, in zuen hartu, desbiatu, bi fabrikak pasa eta Arzalluseneko aurea eaman, ta iturriya oain daon lekuan gutxi gorabehera han zan. Ta Zarautzen kriston restrikziyuak eta hola izaten zian, udaran iturri harta ba eunak zianigual eon ber zenun berrogeita bost minutu botella bat ura betetzeko.

7.26. Irratia eta telebista

- **Hizlaria(k):** Bonetxea, Maria Asunción
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aristi, Gorka
- **Erref:** ZAR-102/012
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:10:56. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aristi, Gorka
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Lehen egunkaria bakarrik zegoen. Irratia pixkanaka sartu zen, eta gerra inguruan dagoeneko bazeuden batzuk. Irrati haiek nolakoak ziren azaltzen du. Telebista oso azkar sartu dela dio.

Transkripzioa

- Leno, zea, eoten al zen, hola, notiziyak jakiteko ta radiyo...?

- Ez, periodikua bakarrik; eta telebisiyua kosta zan sartzia asko. Telebisiyua gaizki esan det: radiyua asko kosta zan sartzia. Telebisiyua askosez axkarro sartu da.

- Ta ze urtetan o hola sartu zan radiyua?

- Radiyua? Gerran bueltan, zea, oso gutxi zian. Nere etxian’e ez zan radiyoik sasoi hortan.

- Ta nolakuak zian?

- Txikiyak, entxufatuta... Oain bezela transistoriak ez.

- Ez zian izaten haundiyak hola?

- Haundiyak izaten zian, zatarrak, antena bihar zuen.

7.27. Gaztetako ibilerak; festak, mutil-kontuak

- **Hizlaria(k):** Elozegi, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Erref:** ZAR-108/014
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:14:22. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Cuenca Urdanpilleta, Yolanda
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Txangoak nora egiten zituzten azaltzen du. Zarautzen festa asko egiten ziren orduan ere, eta non egiten ziren azaltzen du. Beste herri batzuetara ere joaten ziren festetara, bizikletan. 18-19 urterekin hasi zen maitemintzen. 27 urterekin ezkondu zen. Gurasoek baimena ematen zioten mutilarekin ibiltzeko.

Transkripzioa

- Menditikan ze eskursiyo iten zenituen? Getaira ta hola jun eo...
- Ez, Getaira ya urruti zeon. Santa Barbara, ta Bista Alegrea, ta Miaño, ta hola ibiltzen giñan gu.
- Hemen Zarautzen festa haundiak egiten al ziren, o...?
- Bai, bakoitza bere garayan. Festak oain, klaro, ez dia uainguaikan konparatzeko, baiño festa asko iten zian orduan'e!
- Ta nun iten zian?
- Ba, hara, plazan iten zian; ta geo ni akordatzen naiz, txikiya nitzanian, miradorian'e iten zuela, hola festetan.
- Non, Munoatikan?
- Munoan, bai, Munoan. Geo, San Pelayon ta.
- Ta Euskal Jaiak eta?
- Baita, baita, baita, iten zian danak.
- Eta ez zituen iten uain bezela, hola, barriyo bakoitzian ta hola? Igual Bista Alegren ta hola?
- Ez, ez, ez, ez, ez zan iten.
- Beste herriren batzuta joaten al ziñezten jaiak zirela eta?
- Bueno, ya geo neska gaztiak giñala bai e? Bizikletan jutun giñan, ba, Loiola; geo jutun giñan, ba, Donostira're bai jun nitzan behin; eta, jesus, ba leku askota bizikletan. Bizikletan jutun giñan gu orduan.
- Jende askok zekan bizikleta?
- E? Bai, bai, bai, automobilla bezela uain, leno bizikleta!
- Zenbat urtekin hasi ziñen maitemintzen?
- Aaaa! Oi! Ez naiz akordatzen, aizu! Ba nik uste hemezortzi-hemeretzi urte o hola izango nitula.
- Zenbat urte euki ziñuten ezkondu ziñenean?
- Nik hogeita zazpi, hogeita zazpi nezkan.
- Ta gizonak?
- Ba harrek zazkan hogeita hamahiru.
- Amak eta baimena ematen al zizuten mutillekin ibiltzeko?
- Baai, bai, bai, bai, ona zan ta, bakizu. Laga iten ziguen ibiltzen.

7.28. Bizikleta eta lasterketak

- **Hizlaria(k):** Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref:** ZAR-114/008
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:13:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Aranburu, Ibai

- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena:** Soldadutzako soldatarekin, bizikleta bat erosi zuen 1923an. 6 bizikleta bakarrik zeuden orduan Zarautzen. Lasterketak jokatzeko hasi zen bizikletarekin. Lasterketa nondik nora izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa

Ta handik etorri, ta Hondarrubiko barko hartako ematen zien soldatakin ahorratu nun bizikleta bat erosteko moua Frantziyan. Ta Frantziko bizikleta harrekin, hiru urte pasa ta geo, Zautza. Eta Zautzen [...] zan nik hartu nun hori, sei bizikleta bakarrik zauden Zautzen orduan. Ta esan nizkiyon orduan zein dian: Hendaya, Manuel Etxabe, Juan Gias, Gias, Juan Gias, neu. Zein da? Atzo esan nizkiyon, ba, atzo nik. Hoyek zian bizikleta hori, bizikleta ekarri nunian. Geo hasi nintzan, ba, sei bizikleta zian, ta geure burua haundik in nahian bizikletakin, kalea etorri, ta berri-berriya zan, ba! Berrogei duro pagatu bizikleta hua Parisen, ta hemendik hara, “eso fue el año veintitrés”, bizikleta ekarri nuna. Nik [...] beintitrestikan aurea, karrera jokatzeko hasi nintzan orduan, baiña holako oraingo bizikleta klasiakin ez e? Bizikleta korrientiak. Segun gaurko piñoiak [...]... Seiko piñoya zun nere bizikletak. Ta karrera itten giñun Zarauzko zeatikan, kale barrenetikan Laurkaiña karrera izaten zan, baiña behiñ’e ez nun irabazi nik.

7.29. Batzokiak eta dendak Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref:** ZAR-114/013
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena:** 1914rako bazeuden batzokiak Zarautzen. Zarauzko okindegi bati eta altzari-dendei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Euskerak zer aldaketa egin ditu Zarautzen?
- Euskerak, orduan’e, orduan’e bagiñun batzokiyak e? Del año “mil novecientas... Ze, zenbat urte nitun, ba, nik orduan? Hamalau? Hamalau urtekin o holakon batekin in zan aurreneko batzokiya. Zeatikan batzokiya in zan, habek... panadei bat badago bat “veinte de septiembrian”? Panadei bat hor, “siglo veinte” zan hori, “siglo veinte” izena zun panadeyak. Eta panai harren itxalpan zeon ebanistei bat, Zauzkuak zian ebanistak; eta Gabilondo, muebles Gabilondo, hango langillia zan hau. Ni ez nitzan, nik ez nun ezautu hau, hau, Gabilondo, ba, hua zan aurren-aurrena Zautzen, mueblia hasi zana zan Mutiozabal “y” Gabilondo. Mutiozabal zan, Mutiozabal “era” Orio. Eta Zautzen estaziyoiko aurrian, Pieloz gaur inprenta eo dago jarrita? Han jarri zun, zeak, Pielofek. Pielof Zautzen ekarri zun aiuntamentuak kondiziyo batekin: hogeia langille sostenitzekotan; hogeia langillei lana eman ber zion Pielofek. Eta hala konsegitu zun fabrika: hogeia

langillei lana eman nahiñian zea iteko Pielofek.

7.30. Nola aldatu den Zarautz

- **Hizlaria(k)**: Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref**: ZAR-114/015
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:19:24. **Bukatu**: 00:20:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Jauregi Aranburu, Ibai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Zarautz asko aldatu da: lehen San Pelaion ehun lagun inguru bizi ziren, eta harako bidean zuhaitzek tunel itxura egiten zuten.

Transkripzioa

- Zarautzek zer aldakuntza egin ditu?
- Zarautzek zer alda...?
- Aldakuntza, zertan aldatu dan?
- Alkatia?
- Ez, Zarautz herriya zertan aldatu dan? Len nolakoa zen, eta orain nolakoa dan?
- Ba ordutikan, Jesus, orduan giñan, aber, eon, eon [...]: San Pelayon, San Pelayoaiño, San Pelayon eongo giñan gu ehun ehun lagun San Pelayon biziko giñan. Ta kaletikan, San Pelayotik kalea, San Pelayo kamiñoan, arbolakin tunela bezela zan: arbolak bi aldetatikan'e bat inda. Ta tunel bat bezela zan hua, San Pelayoa, [...] bidian. Hor etxeikan bat'e ez zan. Ez zian aleikan'e, kaletikan hasi ta San Pelayo bitartian.

7.31. Zarauzko garai bateko tailerrak eta fabrikak

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Artetxe, Pedro Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria Eizagirre, Imanol
- **Erref**: ZAR-115/002
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:01:05. **Bukatu**: 00:04:13
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria Eizagirre, Imanol
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Zarauzko kaleak garai batean nolakoak ziren deskribatzen du: zer tailer eta fabrika zeuden, zer denda, zer familia bizi ziren...

Transkripzioa

Geo hortikan abitu, ta hortik ze [...] dezu? Hor kale-kalian gauza taillerrik eta ez zan. Ze tailler izango zenun? Akaso baten batek txutxein bat iten zun, zulon bat eo izango zan, baiño besteik ez. Geo hortikan sartzen zea Santa Maril;ña kalea, ta Azpizutarrak, alegiya, Joxe Ramonenekuak; geo Pedro Mai ta're bai, oiñ'e hor dakae taillerra. Hoyek, bikote hori, ta hoyek, bikote hori dala konpaziyo bateako, geo handikan hurrena eiten dezu, ba,

tela-fabrika Berasaiñeko hori, tela-fabrika hori. Tela-fabrika hori kontra, len esan deuna, hoyek Orbegozotarrana, zea hori, Zumarra jun zian hoyek, hoyekin txinuetar hoyek Orbegozo hoyek fundiziyua ein zen. Bestaldetikan, espaloian bestaldetikan, Aerraxun taillerra: lenbizi Aerrexun taillerra egin zan. Geo taillerra in zanen, haren kontrako etxe haundi hori in zuen, Letamendineko etxe hori. Geo aurea etortzen zea, ta aurea etorri, ta beste Xaguaneko ta itxe hoyek bai, baiña hoyek ez due inportantzik izango. Hoyek daue kale hortan bi aldetatik zianak, ta Laudianon erreroteya, len esan dana, erretoreya, Laudianon erreroteya, sutei hori, burniko lan hori. Hunuzka atzea etortzen zea, ta paso-nibeleko kontra etortzen zea, ta buelta iten dezu, ta Itxetxu herrera, Miel Etxetxunekua... Danenanekeo taberna nola zan? Han eoten zan Etxetxa herrera: haure tripaundi bat, lodi bat, ardua gustatzen zitzayon, baiño hoge bat baso ardo eango zun eunen harek. Ta objeto hortakua tripaundi hura. Ta handikan gora bueltatzen zea, ta Ziotzanekuan ta kontra, len esan deun Beraistegiñeko tailler hori, tailler hori, ta hori Berbistaiñen taillerra. Geo aurea etorri, ta ez dago, zu Zigordi kalea sartzen zea han, ta Zigordi kalia, gue etxetan ta bezela, beyak eoten zian. Biraolanekua ta nola zuen? Han'e beyak zian, aldameneko oain Leokadioneko dun etxia nola hura? Makatzanekua zan hua. Makatzanekuak saldu ziyon Leokadiori, han'e beyak eoten zian. Beste hau're txiki bat, Iraingo Errena eo ez dakit nola esaten ziyoen, han'e beyak. Ta bestia geo, Kukulunekuak zian hurrena Gaztakaneko etxen, Gaztakanekon etxen, Kukulunekuak. Geo, zea, Patximayanekuak, bai, Patxi Luzenekuak beste aldetikan, zeatikan, Toreouxaxitikan itxia ta nola? Han, Patximayanekuak. Baiña hayek'e beyakin e! Dana nekazaya zan orduan. [...] Geo hortikan aurea etortzen zea, ta zeak eukitzen duena, beste itxe txikiyak nola dao zea hoyek? Bizitzen dia hoyek, Urdaingarain eo nola hoyek? Zea ta ibiltzen due, limonada ta zea ibiltzen due ba? Hoyek bizi zian etxe hortan Caballero ta bizitzen zian geo, Ayatik eta etorri, eta Caballero ta hoyek zian oain dala hirurogeita hiru o lau urte igual, Caballero mutil koxkorra zan behintzat ta, ni baiño urte gutxiyo du, eta hoyek zian hor. Aleran gora abitu, ta Pantxonekuak nola neskazarrak denda hor hariya ta zea eukitzen zuen? Han sagardoteyak zian, Pantxok sagardoteya eukitzen zun Sonbrero zuriya ta zinta beltzekuakin bea, eleantia zan hua gizona oso, oso gizon amerikanua ta eleantia ta. Geo Errekondonekuak ta hoyek. Beste aldetik, berriz, leno esan deuna: oain nola do Xiprinekua ta hori? Ta bestia hotel Navarro Arozenan aldamenen. Han jesuitak eoten zian, jesuitak, Zautzen eskolako jesuitak e? Eskolak ematen zituen jesuitak. Ordun ibili zian danak eskolan ikasitakok dia, gutxiyo geyo. [...] Jesuitak eon zien. Geo hayek alde in zuen, ta hurrengo butzaldiya, hurrengo motzaldiya izan zan, gu bezelakuen tartia, txarra izan zan.

7.32. Herriaren antolaketa lehen

- **Hizlaria(k):** Hizlari ezezaguna, ZAR-119
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Erref:** ZAR-119/008
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:08:23. **Bukatu:** 00:09:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

- **Laburpena:** Lehen gurdibideak ziren gehienak Zarautzen. Herriaren antolaketa nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta leno orain dauden ze etxe ezagutzen dira... ziren?
- Etxiak? Ba leno etxiak, leno esan deten moduan, gurdi-biriak zian asko, geyena, kale nagusira kendu ezkeo. Kale nagusiya zan dana harri kuadratu batzuekin eindakuak, aintxiñako mouan, ta geo plaza're oso polita. Ta geo biriak, Salbide hortatikan etortzen zian, lehen esan deten mouan, gurdiyak bere garia ta artuakin, eta Azpeitia kamiya're bai, ta baita kanposantu aldea're iyotzen zian asko. Ta oso... oso alde haundiya in du oain. Oain oso alde haundiya in du. Leno Gran Hoteletik hasi ta Goleaiño, ba, dana zian txaletak; ta Azken Portun, ba, dana, esate bateako, batza ta soruak. Ta gaur haura gogoratuta, gaurkua ikusi, ba, ikeragarritzko, ikeragarritzko aldia dago.

7.33. Herriko giroa oro har

- **Hizlaria(k):** - , Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zurutuza Salsamendi, Idoia
- **Erref:** ZAR-120/003
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Zurutuza Salsamendi, Idoia
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** Santa Marina eliza lehen non zegoen azaltzen du: festak egiten ziren han. San Simon egunean zer egiten zuten kontatzen du. Udan aristokrazia etortzen zen uda pasatzera. Eskola publikoak non zeuden azaltzen du. San Pelaioei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

Santa Marina eliza leno plazuelan erdiyan zeon; orain kale berdiñan, baiño toki ezberdiñan, orain bezela festak egiten ziren.
San Simon egunian, joaten giñan Zarauzko ume danak parrokira, eta han bezperak egiten zituen. Hura bukatzian, joaten giñan "Marqués, Marqués de Narrosko" palaziyoa, eta han maten zuen merienda txokolatia, txokolatia bizkotxuakin, eta espon... ura esponjakin.
Udaan aristokraziya etortzen zan beraneatzera, eta txaletak zauden Mendilautan, esaten ziyoten toki harei. Gabian etortzen ziran musika plazara dantza egitera. Kale nagusiyan zauden eskola publikoak.
San Pelayo egunian festa egiten zan San Pelayoko zelayan. Juaten giñan perkalezko soiñeko loreunakin, eta alpargeta zuriyakin. Jotzen zun bandak: dulzinak eta txistulariyak. Oso ondo pasatzen genduen. Baita ere egoten ziran txurreruak eta barkilleruak, jolasketa ere bai, deitzen ziyoten txuri-gorri. Han diruakin jolasten zan. Festa bukatzian, pasakaillian etortzen giñan plazara.

7.34. Zarautzen egindako berrikuntzak

- **Hizlaria(k):** Sansebastian Izeta, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Santxez, Oskar
- **Erref:** ZAR-121/005
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:11:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Santxez, Oskar
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
 - Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Gaztea zenean, Zarautzen zer eraikuntza eta erreforma egin ziren aipatzen du.

Transkripzioa

- Zeure denboretan ze erreforma edo konstruzio inportante egin zituzten Zarautzen?

- Zarautzen egin zian hasierakuak urak Igeldotik ekarri; ta gero adokiñak jarri zizkien gaur printzipal dian kaliei: konpaziyo batea, San Frantzisko kale erdiyai, Txerri kaliai, Santa Marina kaliai, gaur Ipar kalea plazatikan Santa Mariña aldea, ta Zigordi kalia. Hoyek danak obra adokiña jarri zizkioen. Gero printzipalak izan zian abenida Alameda, Alameda iriki zuenen, Ataneronetikan Iñurritzaiño karretera zabal bat, Zautzek oso biharrekua zakan. Ta hua iriki zan, ta gaur danak hor do ikusteko ze mejora izan zun. Handikan, beste Iñurritzan in zuen basurero baten parke parke koskor bat, basurerua aprobetxatu, ta gaiñontzekua gero basurero geatu zan errekaíño. Parke hua oso oso zea geatu zan, zeatikan San Pelaiotan, ta festak iten zienen, ta Euskal Festetan, ta septienbreko euskal festetan, ta hoitan, han iten zan erromeya. Gero obrak'e inportantiak in zian kamiyua, bueno, Alberdiñeko palaziyo hori bota, ta pasua in zuenen, zea, esto, plaia, kostara. Geo, handik aurrea geo in zuen tunela, baiña hori geroko kontua. Geo Getai kamiyuan izugarrizko obrak in zituen, balkoiakin tuneleraíño. Balkoiak asko; balkoi pilla haundiya. Ta geo moillan barruan dana, esto, rebestimento bat oso oso polita jarri zuen baldosak, baldosakin. Ta ya han kukaiñak eta festak, pizina izango balitzake bezela. Geo urte haietan in zituen beste obra batzuetan, esto, jardiñak eta lore asko Zautzen, ordun dana herri guztiya dana lorez beteta egon zan, zuen. Geo gaiñuntzen, esan leike, ba, poligonuak eta in zianen, aber ze kanbiyok etorri zian honea, ze kanbiyok etorri zian honea... Zeatikan, esto, bigarren partia, Alamedako bigarren partia bota, ta parrokiraiño jarri zanen, Zautzek irabazi zun ordun, ba, asko. Ta geo, San Pelayon'e, Iñurritzan, in zuen parkia hasi, leno basurerua zan, ta konpletua dana parkia oain han do oso oso earki. Gero, Gipuzkoa kalia're mejora haundiya in zizkien. Hori ia oaingo kontuak dia. Ta poligonokua ze esango deu, ba? Poligonuak izan dia Zauzko herriyan, leno Zautzek lau milla o bost milla habitante baldin bazitun, poligono bakoitzak dazka hoyek baiño geyo habitantek bizi dianak.

7.35. Zarauzko etxeak eta kaleak lehen

- **Hizlaria(k):** Sansebastian Izeta, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Santxez, Oskar
- **Erref:** ZAR-121/006
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:11:52. **Bukatu:** 00:13:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Santxez, Oskar
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Lehen Zarauzko etxeak eta kaleak nolakoak ziren azaltzen du. Ukuilu eta sagardotegi asko zegoen. Askok aldatu da herria.

Transkripzioa

- Eta bukatzeko, zure garaian nolakoak ziren etxeak, kaleak eta abar? Hemen denboa hartan, zian kaliak, leno esan deten hoyek, adokiñatuta zianak, hoyek lurrezkuak zian; ta ebiya iten zunen, ba, lokatz haundiyak. Eta herriya holaxe zan: herriya txikiya, lokatza, ukuillu asko e? Kale printzipaletan'e ukuillu asko... Ta geo, sagardoteyak'e asko zian, tabernak baiño geyo; konparazyuan, tabernak ez zan honbeste hemen, sagardoteyak dana. Dana, hemengo jendia ordun, sanua zan, ta sardiña zarrakin sagardotegira. Sagardotegiyan sardiña zarra librako opillakin jan, ta beste sagardo mordo bat edan, ta listo. Hemen bezela, oain bezela ez zan: ordun kuba-libre eta Mejiko Lindo, ta holako edaririk eta [...]. Oseake sentido hortan, ziharo kanbiatu da herriya. Sentido hortan ez daka zeaik.

7.36. Zarautzen egindako hobekuntzak

- **Hizlaria(k):** Sansebastian Izeta, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Santxez, Oskar
- **Erref:** ZAR-121/007
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:13:02. **Bukatu:** 00:15:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Santxez, Oskar
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Zarauzko bideetan egindako hobekuntzak aipatzen ditu. Altzola menditik urak ekarri zituzteneko lanak oso garrantzitsuak izan ziren Zarautzen. Azken urteotan herrian egindako obra batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

Ta geo, beste zea bat leno esan ez deuna... Ta, ba, geo herriyan in dian meyorak zian geo, leno aztu in zat esatia: Urtetako kamiya, Urdanetako kamiya, ta esto, Elkanoko kamiya. Ta hoi danak meyoa haundiyak izan dia Zautzako, zeatikan baserritar guztiyak leno astuakin etorri ber izaten zutenak kalea, ta oain danak badake kotxia, "dos caballos" eo holako kotxe bat badake, eta berdurak eta gauzak hartu, ta egunero etortzeko moduan

Zauzko plaza. Barkatu berko diazu, zeatikan gauza batzuek aztu zaizkit esatia, jartzia: hemen obra printzipala izan zan, jende asko zai zeona, urak ekartzia Altzola menditikan; ta hua izan zan hemen Zarautzen oso inportantia. Gero ez dittut sartu hemen oain azkeneko urte hoitan herriyak in dun buelta izan da izugarriya. Hemengo San Pelayoko kanala iriki; desaguiak danak berritu; urak eta, esto, zikiñak apartatuta dijuatzela herri guztikuak; hemen plazan in dan kiosko berriya; hor trafikoik ez dakan kaliak arreglatu dittuen bezela, harri... harri kaliz, harri oso oso elegantiakin, ta bai baldosak'e oso politak. Ta herriya oain atzeneko urte hoitan, ziharo kanbiatu da. Horixe aztu zitzaten jartzia.

7.37. Zarauzko alkateak

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Erref:** ZAR-128/009
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:11:38. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Laburpena:** Bera gaztea zenetik, Zarautzen zer alkate egon izan diren aipatzen du.

Transkripzioa

- Eta akordatzan al zea zu gaztia ziñanian zein zan alkatiak?
- Ni Luxia zeoze aitzea badaukat. Luxia. Eta geo ondorenen, handik hurrungo alkatiak, esango dizut ba... Bernardino Izeta're ezautu nun; don Kandido're bai; Digurtxio Legorburu're bai; Urritza're bai, hoi're geo gerra denbora haitan, Urritza; ta harren gerra zan denboan harrek alde in zulako bitartekua, Aginaga're bai; ta besten bat'e hor tarte hortan leno, zea, Felix Amestin ta aita (oain izena ez dakit, Txomin Txikinekua eo deitzen ziyoena). Hoik danak uste det ezautu ditutela alkatiak. Ta geoztik, berriz, Imanol da.

7.38. San Pelaioiko jaiak eta ingurua lehen

- **Hizlaria(k):** Solaberrieta Arsuaga, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** ZAR-139/024
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:39:22. **Bukatu:** 00:40:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** San Pelaioa arratsaldean joaten ziren festak zirenean. Lehen San Pelaio nolakoa zen azaltzen du. San Pelaion Zarauzko bandak jotzen zuen orduan musika.

Transkripzioa

- Ta geo arratsaldian San Pelayoa juten giñan, ta San Pelayoa jute giñan

eta han ze abesti. Lehen San Pelayo zan zulo haundi bat, ta pradera, baiña holakua ez zan, hola. Zan bajada bat, eta dana zan uzta. Ta han zeon estanke bat txorro batekin, txikidxa, eta arbola haundi, zuhaitzak haundiyak, zuhaitzak, zuhaitz haundiyak zian. Gero bete in zuen /intzuen/, San Pelayo, ta geo oain dao al ras, baiña leheno zan zulo haundi bat. Ta leheno gu eskola juten giñanian zulo haundi bat.

- Ta han musika eoten zan?

- Eta han, hoixe musika, Zarauzko banda juten zan, Zarauzko banda ta geo txuntxuna tanboliñakin eta hoiek zian. Hura zan haundiya, dantzak eta. Ta geo pasakallian etortzen giñan San Pelayotikan kaleaiño, segi ta segi ta segi ta segi.

- Zarautzetikan jendia ere juten zan San Pelayoa-ta?

- Bai bai, danak bueltan.

7.39. Zarauzko bizimodua lehen

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Josu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** ZAR-142/001
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Zarautz lehen nolakoa zen deskribatzen du: orain baino etxe gutxiago eta fabrika gehiago zegoen. Fabriken eta tailerren izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

Gu gaztiak giñanian, ziharo diferentia zan Zarautza. Oseake oain ikusten dian /ikusteian/ bloke hauek eta, “no había nada de eso”. Txaletak, arbol earrak... osea, txikiya zan. Ta gero, industria bazan mueblia asko, mueblia kantidadia zan. Geo sartu zan pixkat burniya, eta orduan in zian fabrika dezentiak: Antuñano, ta “Talleres auxiliares de fundición”, Alfa muebletakua... asko, asko zauden. Ta hori geo ta... behera jun da, mueblia ya desapareztu da ta burniya´re ya fabrikaik gabe geatu da herriya. Oso... Sentido hortan jaitsi in da. Oain, kamareruak eta hotelak eta... zea hoiek bai, “pero lo demás, fuera”.

8. Lanbideak

8.1. Kooperatiba: nola sortu zen, eta bilakaera

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Roteta, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-006/039
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 01:07:10. **Bukatu:** 01:11:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

- **Laburpena:** Amak kooperatibatik erosten zuen janaria. Bere aitak-eta sortu zuten lehenbiziko kooperatiba bera jaio aurretik. Dendariak elkartu eta janarien prezioak igotzea erabakitzen zuten tarteka. Orduan gazteek beraiek beste denda bat sortzea erabaki zuten. Merkeagoa zenez, poliki-poliki jende ugari bildu zuten. 500-600 bazkide izatera iritsi zen kooperatiba.

Transkripzioa

- Eta, karo, baserritarrak beaiek babarruna ta esnia ta dana eukiko zuen...
- Dana!
- Bai, ba. Eta zure amak, zu txiki-txikiya, zu jaiotakuan, zure amak, e, erosketa eta nun iten zitun, babarruna ta nun eosten zun?
- Koperatibatik gehiena.
- Koperatiba.
- Koperatiba jarri zuen, gure aitak eta jarri zuen koperatiba.
- Hemen, denda hori, koperatiba.
- Ez.
- (E) Uain dana ez, hori bota in zuen. Hor zeon, e! A, aurrena koperatiba nun eon zan?
- Aurren-aurrenengo koperatiba hemen gure aitak eta jarri zuen zortzi launen artian, oain nola dao kutxilleia, zea...
- (E) Iglesias.
- Bai.
- Iglesias nola? Denda hartan. Hoiek, gazte hoiek, Arin ta nere aita ta zortzi o omen zian. Ta, hamen lau bost denda zian handi samarrak. Ta iten zuen tartian-tartian juntatzen zian laurak, esaten zuen "hi, litro oliyua perro txiki bat iyoko al deu?", eta "bai", ta handik pixkatea "azukria iyoko al deu beste perro txiki bat?". Ta, gaztiak bestiak esaten zuen, "[...] eskubideikan. Ez da iyotzeik zea, ta hoiei gogua eman diyoela ta ez dakit zer ta badakit zer ta. Geuk jarri behar genikek denda bat", "nola ingo deu?" ta, "hara, dirua sortuta". Sortu omen zuen bakoitzak hamarda euro. Ta denda hura libre, ta "zein jarriko deu?" ta, "Lino"...
- (E) Juaristi.
- Juaristineko Lino. "Hura, jarriko diau", bea gizona zerbitzen ta. Gauzak eosi, hasi sartzen ta jendia, merkio. Geo hasi zian soziyo iten, zea, eman ezin, tokiik ez. Orduan pasa zuen uain kaja ahorros nola dao, zean, ixkiñan...
- Ta ze urtetan iriki zuen Iglesiaseko...
- Hori? Ba, gure aita oaindikan ezkondu gabe. Ni baiño... ezkondu baiño pixkat lehentxio. Bea zeon, numero kuarto zun zean numerua, ta.
- Oseake, zu jaio aurretik.
- (E) Aurretik.
- Zu jaio aurretik, ordun?
- Bai, baiño geo hura, han hartuta, hor ezautu nun. Oain nola dao kaja ahorros ixkiñan?
- (E) Farmaziko beste aldetikan?
- E?
- (E) Zein kaja de ahorrosa?
- Kutxa!
- Kutxa, bai.
- Botika Matias baiño lehen jarri zuen.
- (E) Lehen? A!
- Han eon zian Sinforosa ta Petra ta... lau bost neska jarri zituen orduan, e!

- (E) Ya, ya. Hura nik ez nun ezautu.

- Ta ordun berriz oaindikan aujia haundiyo, auje haundiyo. Ta ordun pentsatu zuen, oain zea, linterner txikiyaneko ta itxe hoiek nola daude Rekondoneko onduan, itxe bat? Zea, hori tintoreia Lakuana zan, ta iñor ez zan bizi. Ta pentsatu zuen hua erostia, bihian lokal bat, linterner txikiyan ta dendak eta hantxe, oain ajentziyak eta jarri ditue. Bihian beste lokala, hirugarrenguan ta beste lokala ta itia. Ta hemengo tabernaia ikusi zuen, zean, dendaia, gehio ez zuela salduko ezer 'e. Bostehun ta seirehun soziyo ta gehio in zian, e, koperatiban. Ta, ordun bat engaiñatu zuen, ta itxe hau iñ arazi ziyoen.

- (E) Uain koperatiba nola dao...

- Itxe hau dana zorpian, dirua, koperatibak in zun itxia dana goitik behera. Fijatu, berrogeita hamabi, berrogeita hamabi pezta baliyo zun, zeak, alkilerrak hillian. Ta iñok nahi ez zun, garesti zala ta. Gu nola zea haundiya giñan, famili haundiya, jun in giñan, ta zorretan sartu zan. Azkenian beste presidente bat urtian [...] esan zun, "hau ez zio sostenitzeikan sosiyuan kontura". Guk maizterrak bezela ez giñun ezer 'e paatzen, ez fatxadak eta ez teillatuik eta ez ezer ez, alkilerren. Orduan pentsatu zuen saltzia. Orduan erosi giñun pixua, merke gaiñea, mou onian. Baiña ordun koperatiban, urtian azkenian, libru bat ematen zizuen juten ziñanian. Ematen zizuen ze eosi zendun, libruan bi, bat beak gordetzen zuen, ta bestia zuk. Zu itxea juten ziñan, eamaten ziñun kontuak eta urtian azkenian zenbat erosten zendun zinko por zientua.

- (E) Bai, hori nik ezautu det.

- Ofizina jun barroa, ta zea batian...

- (E) Poltsa batian, sobre batian...

- Horrenbeste eosi dezu aurtan, poltsa batian horrenbeste diru. Jolin, jendia!

8.2. Itxaropena inprentan lanean

- **Hizlaria(k):** Iturria Astiazaran, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-012/018
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:40:27. **Bukatu:** 00:43:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Inprentaren prozesua. Emakumeek ere bazuten beren lana. Geroago Editorial Zelaiarekin lotu ziren. Gerra garaia arte euskaraz argitaratzen zen. Ondoren, miatu ere askotan egiten zuten. Kulixka sorta eta Yakinekoak argitaratzen ziren bertan.

Transkripzioa

- Ze prozesu zeukan inprentak lehen? Ze prozesu zeukan inprentak lehen?

- Inprentak lehen zeukan, ba, bueno, aber, ebakitzeko hori normala, zea, gillotina, hori normala. Baiño zeukan...

- Papela pixkat moldatu...

- Bai, papelak ekartzen zian fardotan, haiek txikitu, bere neurriya jarri, eta karo, hor zian bat plana, plana, haundiya, hemen, hua perioikua iteko

moukua, ta bestia berriz txikiyaua, Minervak, Minervak, ba, hoiek azkarrauak eta hoiek zean ibiltzen zianak, e, fakturak eta milla gauza txiki xamar iten zianak, programak eta milla gauza. Eta, ba, zea hortan, hoiek, horrek molde pillla haundiya eukitzen zun, zeak, planak esan detena, perioikua iteko haundiko zea horrek, haundiya izaten zun, ta hoiek korrejitu iten giñuzen, ze falta zitun, nik letzen nitun zea guztiyak, eta bueno, honek holako zeak dauzka ta zeatu, ta berriz 'e konfrontatu, ta beno, bale. Ta orduan martxan. Ta geo berriz, ba, handikan plegatua, plegatu, doblatu, emakumiak izaten zian hortako. Doblatzen zian, ta geo berriz josi zeakin, gehienian zeakin, eskuz hura 're garai hartan. Eta, extua baldin bazan berriz, ba, grapadora haundiya bazian, fuerte samarrak ta haiekin.

- Ta, Itxaropenan ze iten zan liburua gehienbat, eo...

- Dana.

- Danetik.

- Dana, dana. Hemen geo konbinaziyo bat euki zuen, Editorial Celaia eta Itxaropena, alkarren hurre 're zeuden eta Celaian ibilitakok zian batzuek zean Itxaropenan 'e, langilliak eta nagusiyak 'e usten det baietz. Eta alkar zerbitu 're bai iten zuen. Bai, biyak 'e abertzaliak zian, ta...

- Euskarazko liburuik iten al zan?

- Dana! Garai hartan bai, geo ez. Geo atea zian, este, Emiliano Eizagirre, zea, "Tuberculosis Pulmonar" libro haundiya iten zian, ta bolumen haundikuak, eta. Eta geo [...], "Revista Geográfica Española" 're bai, bazan Valeriano Salas zea bat, Madrikon bat o etortzen zan honea ta, beak redaktatu 're iten zun ta. Ta zea, guztiya, azaltzen zan guztiya.

- Orduan, gerra garaian zu Itxaropenan ziñan.

- Ez, bueno gerra garaian bai. Gerra garaian bai, gerra aurretik ez.

- Ta gerra garaian ya ez zan inprimitu, euskeraz ta ez zan inprimitu, ez zan inprimitzen, ez?

- Gerra garaian ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez. Hura gaiñea miatua ta izan zan, ta, askotan, ta, bai, bai, bai, askotan. Ta geo 're, geo 're, gu ibiltzen giñan garaian 'e.

- Ordun euskerazko lehendabiziko liburua Xabierto ta hoiek hor eingo zian?

- Ez, ez, Tolosan. Tolosan, bai. Hor izan zian, este, Kuliska sorta.

- Juan San Martinen Zirikadak, Eztenkadak eta hoiek?

- Juan San Martinek trato haundiya zun, honbre, askotan etortzen zan.

- Zirikada eta Eztenkadak eta hoiek, hoiek ez?

- Ez, ez, ez. Ez. Hor bolumen, zea asko zian, zea, kapitulo zea asko zian, este... Yakin 'e bai, Yakinek ere hor iten zitun, ta asko zan zea.

8.3. Jertseak egiteko negozioa eta denda

- **Hizlaria(k):** Loiola Antzuola, Agate; Loiola Antzuola, Ignacia; Loiola Antzuola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-019/033
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 01:02:26. **Bukatu:** 01:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Lanbideak » Sastreak, jostunak

- **Laburpena:** Hasieran josten aritzen ziren eta geroago 1941 inguruan denda jarri zuten. Rosariok eramaten zuen negozioa. Hariak ekartzen zituzten eta jertseak egiten zituzten neurrira. Orduan denek ezagutzen zuten elkar. Rosario ezkondu zenean, besteak umeentzako materiala saltzen hasi ziren. Suizako makinak erabiltzen zituzten.

Transkripzioa

- Bueno, eta gero ya piska bat ya, zuek ya nagusi iten zeate eta denda kontu hori noiz hasten da?
- R.: Gu jubilatuta gea... A! Hasi? Hasi? Gu jubilatuta arte han eon gea lanian.
- Baiña noiz, noiz jarri zenuten denda hemen?
- A.: Hor denda?
- R.: Nik hogeitun.
- A.: Gutxienez, e?
- R.: Gutxienez...
- A.: Geo josten lehenuo.
- Bai, lehenuo josten. Ta gero denda ipini zenuten.
- R., A.: Bai.
- Ze urtetan izan zan hori, denda jartzia?
- A.: Denda, aspaldi.
- I.: Bueno,... ochenta kendu iozue, zenbat urte eukiko hitunan ordun, hamazazpi?
- A.: Hogeitun, porke...
- R.: "Yo digo, unos veinte tendría yo, no, o menos".
- A.: Hogeitun, hogeitun. "Quítale a ochenta veinte..."
- I.: "Ya está".
- Oain dala hirurogeitun urte.
- I.: Bai.
- R.: Bai, holakon bat.
- Beraz, milla bederatzi zehun ta berrogeita bostian.
- A.: Holakon bat, ez dakit. Fetxak ez zian hartzen.
- R.: No, [...] leheno. Cuarenta y uno ama etorri hunan ta seituan hasi niñunan ni.
- A.: A, bai.
- R.: "Cuarenta y uno."
- A.: "El cuarenta y uno."
- I.: Bai.
- Orduan amak eamango zun negoziyua hasieran, ez?
- A.: Ke ba!
- R.: Ez, ez, nik...
- A bai, e?
- A.: Ikasi in zun honek, eta.
- R.: Nik hasi nun negoziyua, nik.
- A.: Ta geo nei 're erakutsi zian, ta geo hau 're bai, ta. Hola juten zan leheno, hola juten zan.
- Ta hasieran denda ze, ze saltzen zenuten denda hasierako, hasierako urte hartan?
- R.: Lana iten gendun.
- I.: Lana, lana.
- R.: Jertsiak iten giñuzen neurrira.
- A.: Makinan, makinan.
- I.: Neurriyak hartu ta...
- R.: Esan dizut, makinak genduzkan iteko. Hariya ekartzen gendun eta neurrira in ta. Lan asko eukitzen gendun, lan asko.
- Orduan jertsiak, arropa.

- A.: Jertseteiya zan, jertseteiya...

- Jertseteiya.

- A.: ...denda baiño gehio.

- R.: O itxiya, o irikiya, o.

- I.: Hariyak ekarri, kolore danetakotik, eta aukeratzen zuen. Etortzen zianian, neurriyak hartu ta in, ta.

- R.: Ta udaran, uaindik gehio.

- I.: Bai, lan asko iten zan.

- Ta horrek balio izango zun jentia ezautzeko, harremanak eiteko ta.

- A.: Bai, bai.

- R.: Guri danak ezautzen ziguen! Danak! Zarautzen ez da iñor gu ezautzen ez gaitunik!

- I.: Ez, uain hazi da Zarautza 're, lehen, alkar, alkar, osus!

- R.: Baiña ordun gutxi giñan. Zenbat izango giñan ordun, zortzi, hamar habitante? Gehienez.

- I.: Bai, bai, bai. Danak ezaunak, ezaun haundiyak danak. Oaiñ ez. Oaiñ holako ta halako ta bai, ezautu bai, baiña... ez.

- Ta jertsiak beti, ta gero, gero jertsiak ondoren, zer, anpliatu in zan negoziyua, aldatu in zan zerbait?

- A.: Ez, ez, ez.

- R.: Ez, ez.

- Beti testilla?

- A.: A! Geo kotxia jarri genduzen.

- R.: A, hori bai, hori.

- A.: Ume kotxiak geo.

- R.: Ni ezkondu in nitzan eta jun nitzan, eta ordun habek ezin zuela zeatu ta in zuen kanbiatu, ume kotxiak...

- I.: Ez, más que ezin, kanpotik hasi zan, Bartzelonatik jertsiak indakuak.

- R.: Hori bai.

- I.: Han industrialak jarri zituen makinak, fabrikak, eta handik hasi zianian jertsiak ekartzen honea dendeta, ba ordun lana ez zan osatzen. Ta geo jarri gendun ume kotxian... ta bean deribaziyo dana.

- A.: Bai, siheskak eta kotxiak eta...

- R.: Siheskak eta...

- A.: ...dana ume kontua.

- I.: Bai.

- A.: Ume gauzak. Sillak umianak eta gauza asko.

- I.: Oihak, oihak, siheskak, danetik, danetik, kolonpiyok...

- R.: Baiñerak, ohiak, erropak, danetik.

- Ta nun hori? Nun zan?

- Hor behian.

- I.: Itxe behian.

- Etxe behian.

- I.: Bai. Jertse itia laga gendunian.

- A.: Makinak kendu eta jarri.

- I.: Bai.

- A.: Jarri.

- Makinak nunguak zian?

- R.: "Suizas".

- A.: Makinak?

- Bai.

- A.: "Suizas".

- Suizakuak.

- I.: Bai.

- A.: Bai. Bueno, Donostiyan saltzen zituen.

- R.: Bai, baiña suizak [...].

- A.: "Eran suizas. Claro que sí eran suizas."
 - I.: Bai, baiña más que todo, Bartzelonak hartu zun lantei hori.
 - R.: "Sí, cambio."
 - I.: Bai. Gu ordun, ba...
 - R.: Makina automatikok zezkaen, ta [...].
 - I.: Geo hau 're ezkondu zan ta gutxi josteko...
 - R.: Hori ba!
 - I.: ...ba, ezin [...] lan asko...
 - A.: Ez, kotxiak, kotxiak euki giñuzen.
 - R.: Eta ordun ba, kotxiak jarri giñuzen.
 - A.: Hogeita bost urtian euki giñuzen denda.
 - Hogeita bostian.
 - R.: Hogeita bost urtian.
 - A.: Hogeita bost urtian euki gendun.

8.4. Gabonetan bezeroei opariak egiten zizkieten

- **Hizlaria(k)**: Serras Azpillaga, Antonio; Uria Aldalur, Manoli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-020/006
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Gurasoek gozodenda jarri zuten Zarautzen. Gabonetan bezeroei opariak egiten zizkieten eta egun guztian denda bete-beteta izaten zuten.

Transkripzioa

- ANTONIO: Geo Zarautzan, ba, han ez zan gustoa ta andriakin, ta esan zion amak, hoi, dendatxo bat jarri zagun, hamen.
 - MANOLI: Zarautzen [...].
 - A.: Ta amak Donostiyan nahi zun, baiño, ba, zea, azkenian Zarautzen. Ta hamen Zarautzen. Zarautzen, ba, baserritar guztiyak etortzen zian konpra itea, aldatu 're hamen iten zian, zeatikan ordun ez zeon ez bideikan ta ez ezer, ta...
 - M.: Astuakin, ta.
 - A.: ...goizeko zazpitako ta. Geo ematen giñun zean, gabonetan, karta bat botella batekin, ta kliente onai, ba, otarka bat bezela.
 - M.: Parrokianuai.
 - A.: Ez, ez zianak etortzen 'e ematen giñun, zea, pikuak, pikuak o zerbait. Ezer gabe iñor... Goizeko, gabon egunian, goizeko sei t 'arditan, seitako iriki atia, hamarrak arte gabeako denda bete-bete-betia, jolin! [...] gabonak haiek, mekauen!
 - Sekula sartzen ez zianak orduan etorri!
 - Behiñ 'e ez gendun guk gabonez libratzen, aber! Asper-asper inda... Geo pastelak in behar, ta zeatu in behar, ta... Ba, holaxen!

8.5. Tailatzen emandako lehen urratsak

- **Hizlaria(k):** Gereka Etxaniz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-026/010
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Lanbidea nola ikasi zuen. Alkorta izeneko bat omen zen inguruetako onena tailan. Erramintekin ikasi zuen marrazkiak egiten.

Transkripzioa

- Eta lehendabiziko mahai, despatxua renazimientokua taillatzen hasi zian han, hor, Madrilko jendia haundiyantzatzat, ez dakit zeifientzatzat izan zan. Biarrena bai, biarrena Orbegozontzatzat zan, zea, in gendun Luis XVko (quinceko), esto, konsola zoragarriya, e! Zoragarri... bueno! Alberdi, zea, [...] muebles ta, Arruti Muebles, Palacio del Mueblekuak hua ikusi zunian, "seguridade sozialetan bakarrik zenbat baliyo ote du honek?", esaten zun, "seguridade sozialetan bakarrik zenbat baliyo ote du?" Ba, hua iten hasi giñanian, ba, hor, ni baiño urte bete gehiokuak, ta gaiñea taillarrian 'e lan hobiak iten ta ibilitakuak eta gehio ikasitakuak, eta nik ezer ez nakin, han zian. Eta haiei iten hasi ta nik handik urte betea, geo laga in zuen haiek dirua irabazteatik, hortik fuera, nahiko lana zeon orduan, ta benga, ta ni hau iten hasi nitzanian orduan han 'e bai. Siniste al dezu handik urte batea aprendizan lanak geatu ziala haiek indako lanak? Ta ikutzen ez zian laga. Ta haitako batek ikusi zunian hori, jo ta ma, lurretikan zeruaiño diferentziya in du. Laga irabaztai diruai, ta atzea, eskola sartu zan. Ta punta-puntako tallista atea zan. Hamen muebliak ta tailla ta konpleto iten zuna, hamen ingurutako onena atea zan gero.

- Zein zain hori?

- Pablo Alkorta. Ingurutako atea danikan onena hori, ebanisteian hasi ta bukatu lanian. Ta haiek ikusi zunian, nere lana ikusi zunian, leheni ni ezer ez ta geo bea ezer ez geatu urte batian? Eske... erreminta ebaki... egurra ebakitzen ta ikasten dezunian, orduan aurrian jartzen dizunak ze jartzen dezun, ikasten, ikasten, ikasten, derrepentian iten dezu hor. Ta nik gabeko beatzitatikan hamaiketa inda dao, e!, habek danak, e! Hor lana izugarriya dao, e!

- Ta orduan...

- Ta hau 're bai, hau 're bai. Hori, ta habek, danak.

- Ordun, lehendabiziko la urtietan...

- Ez, ez, ez. Lana in baiño ikasi ezer ez. Ez zeon... Ematen ez baizue ikasteko lanikan ez dezu ezer ikasten.

- Ta dibujua ta behar da holako lanetako, ez?

- Bai, baiño iten dezu dibujua, baiño tailla diferente, ezberdiña da tailla, erremintakin ta. Lehengusua zan oso ona bat, Iparraldia, zea, Frantzi aldean jun zan hua. Hemezortzi urteako maixuakin beakin iten zun lana, taillarrian, ta ez zan antzematen maixuana ta beria. Eta behiñik behin, harek esan zian, erremintakin ikasi behar nula dibujatzen. Ta geo dibujua lapitzakin baiño askoz hobeto iten det nik ingudiyakin, erremintakin, askoz [...]. Hobeto iten det erremintakin lapitzakin baiño. Bai, bai, bai, bai.

8.6. Tailista ugari Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Gereka Etxaniz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-026/011
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Lanetik aparte arituta ikasi zuen tailatzen. Bera hasi zenean 76 tailista zeuden. Bera izan zen azkena. Asko etortzen ziren Zarautzera. Tailista on batzuen inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Ta ordun, zer lan, ze enkargu egoten zan hor? Zer lan izaten zan tallista batentzat?

- Tallista bat? Itxian... taillarrian zeona! Taillarreako lanakin, ta taillarreko lanakin ez dao bireik ikasteikan, e! Ez dao bireik ikasteikan. Norbeak, orduz kanpo hasi behar du.

- Ordun, taillarrean produziyua.

- Produziyua. Baiño ikasi nahi baezu, geo in behar dezu, e!

- Aparte, aparte.

- Bai, ba! [...] geo. Nola ba, bestela? Orduz fuera. Ta geo ikasi nun asko han, bi ordu tallan hasi nitzan han, lan onakin. Ta itxian beste bi ordu, e, bi urtian ofiziyua primeran, derrepentian.

- Talla, tallista asko al zan ordun Zarautzen?

- Ni hasi nizanien kontatzen hasi giñan, ta hirurogeita hamasei. Ta azkena ni nitzan, e! Nekin bukatu zan, e! Nekin bukatu zan hamengo talla. Eta gerra aurretik larogeta hamar Zarautzan. Eta etortzen zian Zarautza orduan, baiña sinixtu ezinak, e! Real Madrillea nola juten dia oan? Igual! Bai, bai, bai, bai. Castilla herrikoik onena. Betzi, hamar pezta irabazten zuenian, hemezortzi pezta paaute ekarri zuen, e, handikan! Zeon onena, e!, Castilla herriyan. Zean, bestia, Alfa zeatu zun hortan 'e, ekarri zituen, horrek Madril aldetik oso onak. Beste Granadino bat 'e, fenomeno hoitakua. Harek lapitzakin... dibujo plantillak eta ez [...], di-da, lau raia bota...

- Egurran gaiñian.

- ... ta gubiyakin iten zun talla sortu, hainbesteaiñoako abildadia zakan. Linea jeneal txiki batzuek bota, eta plantillik eta ezer 'e gabe, di-da... Izugarriya izan behar zun, efektuak eta, beldurgarriyak. Ta harek atea zun bat Zarautzan izan dan onena, ta hogeita lau urtekin eo petxotik hil zan. Gauerdia arte lan iten zun, ta geo Bartzelona jun zan ta eskulturan nahi zun [...], baiña hala esaten zian gure maixuak eta, "halakuak, tallistak Espaniyan, kandela [...] halakuak, e!".

8.7. Lanbideak behera egin zuen altzari lisoak sartzean

- **Hizlaria(k):** Gereka Etxaniz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-026/022
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:33:26. **Bukatu:** 00:34:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Umetatik hasi zen tailutik bizitzen. Eskua landu egiten dela uste du. Lanbidea gainbehera hasi zen altzari lisoak modan jarri zirenean.

Transkripzioa

- Ze urtetan hasi ziñan zu taillatik bizitzen?
- Taillatik bizitzen? Ba, hamahiru urte ta erdi o, izango nitun, eta ni hogeta betzikua naiz, oseake...
- Umetatikan ya...
- Umetatik! Ez, neure afiziyoik, gurasuak esan zien hua in, ta in. Ta geo eskua, eskua berezkua behar dula... Eskua, eskua etorri iten da, nere ustez etorri iten da.
- Jardun...
- Honbre! Ni hasi nitzanian han ni baiño hobiak pilla bat zian, ta geo aprendiz geatu zian.
- Ta ofiziyua nola etorri zan behera? Mueble lisua hasi zalako? Hala...
- Bai, ba! Bai, ba! Aldatu zan. Eboluziyuan hasi zanian dana, mueble liso-liso-lisua, tallista dan-dan-danak sobran, danak sobran! Dan-danak sobran.
- Ze urtetan izan zan hori, pixkat hori, jetsiera hori?
- Hori? Ba, hirurogei inguruan?
- Bai, hirurogei, hirurogeita biyan. O, hor jun zan dana pikuta. Ta geo, esaten dizut, libroik ez zeon norbeak iteko ezerre, norbeak iteko 're ez zeon ezerre. Hor ze izaten dan kontua. Ez zeon norebeak iteko 're.

8.8. Tailugileen gainbehera

- **Hizlaria(k):** Gereka Etxaniz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-026/028
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:38:29. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Tailugileak ez ziren elkartzen normalean. Azkenean behea jo zuten, baina bera gaztea zela tailugileak ziren gehien irabazten zutenak.

Transkripzioa

- Zuen artean, tallisten artean, ba al zenuten egunik ospatzeko urtean zehar, edo? Hola, juntadizoik iten al zenuten?
- Ez, ez, ofiziyo pobreegiya hortako, ofiziyo pobreegiya.
- Ez al ziñan juntatzen, edo zuen artean, edo?
- Geu, ez, gutxi. Ez zan hor zea... dana galdu zan ta!
- Tertuliya in edo zuen artean...
- Bai, bai. Baiño ze ilusiyo behar zendun ofizuyua desgraziatua gelditu zan azkeneako, ta. Azkeneako arotza gehio zan, ta. Horrenbeste urtian ikasten ibili dezu, eta bestia zea, gehio irabazi azkeneako. Gure aita pentsatzen zun alrebes. Gure aitan garaian, tallistak irabazten zuen, Arrutiñen bazian bi hamasei peza irabazten zituna egunian, Vitoritik etorri zian. Oso onak, e! Oso onak! Gerra aurretik, e! Eta ebanistei oneana, onena, bat han zeon,

esaten zuenez, eta harek hamahiru, ta bestiak hamabi, hamaika, horrea.
- Ordun, tallista gehien irabazten zuna.
- E?
- Tallista...
- Tallista gehiena irabazten zuna, askoatik. Baiño euneko berrogeiak gehio irabazten du, baiña ikastia, ehuneko hogeita hamarra gehio irabazi, baiño ikastia ehuneko berrogeia o berrogeita hamar igual gehio kostatzen da, e, ikastia, e. Amigo, e! [...] irabazi hainbeste denboan lanian jardun in behar du, ez pentsa broma danikan, e! Ez pentsa broma danik. Irabazi gehio, baiño zea. Ta geo zer? Hainbeste gehio kostatzen da ta ezertako baliyo ez. Ezertako baliyo ez.

8.9. Dontzeila-lanak eta janzkera

- **Hizlaria(k):** Elola Aranburu, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-028/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Orduan normala izaten zen umeak hazteko inudeak izatea. Bera dontzeila lanetan jarri zuten. Nola janzten zen. Dontzeila-lanak nolakoak izaten ziren.

Transkripzioa

(Besteen hurrei bularra emateaz dihardu)

- Ta, ordun, normala izaten zan orduan norbaitek ezin [...], ba...
- Bai, ahal bada, bai, bai, bai. [Iruiñak], ez, e... ["Añas"] eta nola esaten zian. "Aña seca" ta, hala esaten zian erderaz. Hemen nola udako jendia, aristokratiko asko ibili dan, hor haurrak hazteagatikan hasten zian, haurrak izan zituenak, haurrak. Beste batzuk amak izaten zian, batez, gu eon giñan bezela neskame, umiak ateatzan. Ta geo dontzeilla jarri zien. Eta geo atea zuen beste ume bat eta seituan jarri zien nei dontzeillatzat. Eta, graziya iten zien: "No te prepares demasiao, e! Que viene el marqués de no se qué y no se quién ta no se cuánto", aristokrazikuakin asko ibiltzen zan. "Y también viene un cura que es un poco...". "Jolin! Ze esaten ai da hau?", esaten niyon nik. "No te prepares demasiao, e!". Geo, kofia ta jarri ta kapakin ta erteten nitzan, eta esaten zien, este... Nik, ajatu in zitzaiten euzkiyakin, ta, ez nun jazten, ta bate gabe erteten nitzan. Ta balkoira erten ta, "¡sube!", esaten zian. Ta iyotzen nitzan, ta zea, e, jartzeko, [...], "ba, berriya in diazu, ba. Ajatu-ajatu dao ta hori lotsagarrikeia da, bate gabe hobia, hobeto nao. Eta, "askoz guapao zabezela danak esaten due". "[...], beak esango due, ni nahio det hori gabe ibili, baiño ibili beharra dakatelako ibiltzen naiz". Jaitako ya dotoreauak nezkan, ta asteako [...]. Geo aldatu zixkien, bai.
- Ordun, ume zain hiru urte in zenun etxe berean?
- Bai, bueno, dontzeillatzat jarri zien geo, e. Eta umiakin ertetzen nitzan. "Baiño hortikan erteera zeik ez dun, e!", txikiyakin hartu, ta Gran Hotelea. Beti Gran Hotelian eon behar izaten nun [...], eta han. Geo eguardiyan etortzen nitzan, eta hor katxarrera esaten zizakoen bat eoten zan, eta karameluak eta 're saltzen zitun, e, Azara kalia zekan itxe bat. Eta harei lagatzen giñun, itxeatzen ez zan haur hori. Eta hantxe [...] jeisten giñun,

eta nik bazkaldu o zeatu ta in bitartian, eta geo berriz jetsi, ta horrei lagatzen giñun, ta nik ya jun behar banun, pixkatian jartzen zuen, ta geo dontzeilla zeonak eramaten zun. Ta geo ni dontzeillatzat gelditu nitzan, ta. Geo bi urte hala in nitun.

8.10. Ume-umetatik lanean dirua ateratzeko

- **Hizlaria(k):** Illarramendi Arizaga, Pio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-030/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Negozioak, dendak
 - Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Oso gazte hasten ziren lanean: herri ingurukoak hondartzan toldoak jartzen; estazio ingurukoak maletak eramaten turistei. Azkenportukoak repartuan lan egiten zuten, etxera repartitzen. Eta Iñurritza ingurukoak Golf-ean cady izaten ziren. Behin zortzi urterako denek egiten zuten zerbait.

Transkripzioa

- Geo beste gauza bat anekdotikua Zarautzen, anekdotikua ta kuriosua, lehen esan deuna: Alde Zaharra, Txerri kaletikan Azken Portu ta Iñurritza. Uda etortzen zanian, Alde Zaharreko hamen hondartza ingurukoak ibiltzen giñan batzuk repartuan Kale Nagusitik txaleteta gauzak, tolduak tiratzen launtzen, pezta, pezeta ematen zuen, e!, garai hartan, que era diru asko, porke bi errial baliyo zun Antonianon ziniak eta. Ta hori ta bestela batzuk arrantzan, o zea, osea, eskolan ibili arren, nahiz zazpi o zortzi o betzi urtekin hori dedikatzen zian. Geo hor pixkat, ordun Victor Pradera zan, oain Zigordian alde horta, estaziyo aldea, hori zan Arrabal de Oriente, deitzen zitzaionian. Horko kazkar, osea, gazte zeak, la famosa palabra: "señorito le llevo la maleta?" Hamasei hotel zaben Zarautzen, hamasei, milla ta zortzirehun plaza. Ohiana aparte, itxe danak ohiak ematen zituen, ohiak. Itxeta? Esan deuna, giltzik ez zan, konfiantza osua. Etortzen zan ta, "konfiantzakuak dituk", eta sartu ta ondo pagatzen zun gaiñez. Gaurko aldian asko paatzen zan. Osea, ohia, porke zeon diruik ez ta gauza bai, herriyan. Ta, ordun zona hortakuak juten zian trenea, trenez ibiltzen zan ta "señorito le llevo la maleta" Gran Hotelea, bestea... propina tal. Azken Portuak ibiltzen zian berriz, repartuan genealian, o ardua, hau dala, bestia... txaleteta, dana partiketean. Iñurritzakuak berriz, danak kadi golfian, danak. Ta hamen, udaan ez zan mutil koskor bat behin sei eo zortzi urte ezkeo zeoze dirua ateatzen ez zunikan.

8.11. Hondartza eta arrantza

- **Hizlaria(k):** Bonetxea, Maria Asunción
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aristi, Gorka
- **Erref:** ZAR-102/006

- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aristi, Gorka
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Lehen herrikoak oso gutxi joaten ziren hondartzara. Baina orain denak joaten dira, denek eskubide berdina daukate. Lehen arrain freskoa jaten zuten.

Transkripzioa

- Hondartzan zein diferentzi billatu duzu lehendik eta orain arte?
- Jendia askozeg geyago. Herrikuak oso gutxi juten zian, juten giñan hondartza. Oain herri guztiya juten da, eskubide berdiña daukau. Eta kanpoko jendia're askozeg geyo etortzen da, baiño bertakuak: Gupuzkoakuak eta Euskal Herrikuak geyena oain.
- Ta leno zer zan, haundiyo?
- Ez, leno jende gutxiyo. Leno jende gutxiyo, zeatikan etortzen zian txaletetakuak eta hoyek, baiño oain txalete-tokiak aber zenbat habitaziyo, zenbat bizilagun daon.
- Arrantza zer do oain, gutxiyo?
- Zer?
- Arrantza.
- Arrantza orduan izaten gendun arrai freskua Getaitikan oso ederra. "Espresa" etortzen zan, "Espresa" deitzen giñun arrantzale bat, hamaikan bueltan, panekak ta...

8.12. Nagusiak errieta egin zionekoa

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Erref:** ZAR-104/007
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Neskame zegoen etxe batean non egiten zuen lo deskribatzen du. Etxe hartako nagusiak behin errieta egin ziola kontatzen du.

Transkripzioa

Ta, akordatzen naiz, Anjel Azkueneko hortan, zean, Musika plazako hortan bigarren habitaziyuan bizitzen zian, ta txakurra eukitzen zuen. Txakurra eukitzen zuen been kuartuan, ta ni eoten nintzan quarto illun-illun bat, leyo bat sukaldea ta beste leyo bat kumunea, leyuko, sukaldeko argiyakin kumuna argiyo izateaitikan nunbait, leyo haekin han eoten zan. Ta eun batian, jai batian, ba txipiroita... jaitan'e juten zan, ba, hemengo jendia orduan; ta jai goizian karri ditue txipiroiak, eta jaien anayea zean zeon, este... Hernanin. Eta haren launak etorri zian Zaaoutza nunbait, eta Hotel Otamendiñen afaitan. Ta esan zien, kartoizko kaja batian, han jarri zitun txipiroiak, baten batei eosi zixkiyon, eta esan zian: "jun zaite

Otamendiñea, ta Juakiñen launak hor daude, ta esaiozu txipiroi habek gaur arratsian sin falta emateko Joakiñei". Bueno, hartu ditut ta jun naiz: "Esan dit Anjel Azkuen partetikan, ba, Juakiñ Azkuei, faborez, sin falta emateko txipiroi habek". Bueno, etorri nitzan etxea ta esan zian: "eman al dezu enkargua?", ta "bai"; "nola eman dezu?", ta "ba, Anjel Azkuen partetikan Juakiñ Azkuei txipiroi habek sin falta gaur emateko", "Jesus! Nola izan litteke hain edukaziyo gutxikua ta basarritar..." ez dakit ze... bueno, nik nehiko nearra in nun, begiyak haundi-haundi... "jun zaitez, eta esayozu: Don Anjelen partetik txipiroi hoyek señorito Juakiñei emateko sin falta". Begiyak honenbeste haundi in, ta han nua, ta hoyek zean emen zaben, Pioneko ixkiñan emen zauden, nik ez nitun ikusi; hoyek ikusi emen ninduen. Jun naiz, ta berriz jun naiz, ta: "zea, Don Anjelen partetik, faborez, sin falta gaur entregatzeko señorito Joakiñei". Parre in zien neskamiak, eingo ez zien, ba!

8.13. Albaitariaren ohitura txarrak

- **Hizlaria(k):** Odriozola Roteta, Balero
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Mari Carmen
- **Erref:** ZAR-106/007
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:08:01. **Bukatu:** 00:09:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe, Mari Carmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena:** 11:30tako mezara joaten zen herriko albaitaria. Eta karkaxa botatzen zuen elizako atarian. Bazegoen kartel bat hori egitea debekatzen zuena, baina berak ez zekien irakurtzen.

Transkripzioa

Denbo hayetan, Zarautzen Karmelitetan bakarrikan ematen zan hamaike t'erditako meza. Eta Joxe Mari Sarobe bazan betenayo bat, sasibetenayo holakua estudiantu gabia, baiño asko ibiltzen zan. Eta nola larunbat arratsian berandu askotan erretiratu, mezeta're berandu xamar etorri, ta ohitura zun hamaike t'erditako meza horteja jutia. Ta baita ohitura txarra're karkaxa plast botatzia eleizan. Eleizan sarreran zeon letrero bat aspalditikan, jarriyaz erderaz: "No escupir en la casa de Dios", ta erregu iñez. Eta aspertu zan monja hura ikusten, eta hartu eta kartel hori eraman diyo, jarri diyo aurreko aldian, ta hartu du bi eskuakin, ta egon da begira. Ta nola ez zakin irakurtzen, harentzako alperrikan zan hura, aspertu da kartel horrekin, ta hartu kartelai, ta musu eman dio, ta bueltatu dio monjai. Hor bukatu zun gure Saroben festa.

8.14. Zarautzen arrandegia jarri

- **Hizlaria(k):** Madariaga Oar, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Silban Iturburu, Leire
- **Erref:** ZAR-112/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:06:29

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Silban Iturburu, Leire
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Zarautzera etorri zenean, senarraren jornala nahikoa ez zenez, arrandegia ireki zuen. Etxeko egoera ekonomikoa hobetu zenean, ordea, senarra hil zen, eta lan asko egin behar izan zuen. Gehien gustatzen zaiona inork berari ez agintzea da. Orain ondo bizi da, baina osasuna ahuldu egin zaio.

Transkripzioa

- Ta hemen ze lan egin dezu? Ze lan mota egin dituzu Zarautzea etorri zihanetikan?
- Ba, ezkondu nitzanian, ba, etxekolanak. Ta geo, gizonak ekartzen jornalakin ezin aillatu, pobre, ta neuk beste illoba batekin arraindeya jarri nun. Ta arrai-saltzen, eta geo arraya saltzen ta pixkat bizitzen hasi giñanian, gixona hil. Ta gixona hil ta geo, ba, lan asko in bihar: goizian lau t'arditan jaki eta zortzirak arte ofizina garbitzen, ta zortzitan plazaa... ta lan asko in bihar.
- Horixe. Orduan zuk lan asko in dezu? Zein dezu gehiena gustatu zaizuna hola?
- Nik kaleko lana nayo baserrikua baiño.
- Bai, baiña arraindeya o neskame o ze nayo dezu?
- Arraindeya, nere kontua. Hua iñork ez zian agintzen, ta neskame seiñorak aintzen zuen.
- A, hark iten zun guztiya in bihar?
- Bai, ba.
- Ta oain zer moduz bizi zea? Gustoa o?
- Oain ondo, oso ondo, baiña oain zahartu in naiz; ta orain jaten badet, gaixotu iten naiz. Ta gustatu iten jaten. Ta ibiltzen nekatu. Ta, oain ondo bizi naiz. Baiña nik hau lehen ber nun, gatzia nitzanian, ondo bizitzia. Oain akabo!

8.15. Tailerrean lanean

- **Hizlaria(k):** Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref:** ZAR-114/006
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:08:17. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** 14 urterekin tailer batean hasi zen lanean, ofizioa ikasten zuen bitartean. Urtebetean ez zuen soldatarik jaso.

Transkripzioa

Hermanota [...] giñanian, hasi nintzan ofiziyua ikastea. Ofiziyo hori ikasten ai giñala, San Pleayon hamalau urtekin etorri nintzan “a donde” Tomas

Murua Zarauzko tailler batea. Ta Zarauzko tailler hartan, gaur eiten ez dana: urtebetian aprendizajia debalde eon nintzan, soldatik gabe. Ta bigarren urtian eman zien, kintzenian, eman zien botoi hau bezelako moneda txiki bat, errial bi balio zun zillarra. Kinzenan hua zan ematen ziena Tomas Murua horrek. Hala hasi giñan.

8.16. Senarraren ogibideak eta hondartza

- **Hizlaria(k):** Fernandez Urkia, Eugenia Sebera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eizagirre, Ane
- **Erref:** ZAR-116/010
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:12:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Eizagirre, Ane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Senarrak non egiten zuen lan azaltzen du. Hondartzan toldo asko egoten ziren.

Transkripzioa

- Ta ze ogibide zeneukaten orduan? Baratzako lanakin bizi al ziñaten?
- Ez.
- O taillerrea juten zan?
- Zean ibiltzen zan, estaziyoko maletero.
- Gure aita?
- Baai. Felix moxuakin ibiliya zan hua. Ta geo udaran, berriz, baiñero kostan berriz. "De esa forma vivíamos".
- Igari ba al zakin?
- Jakingo zun, ez zakiñat nik ez zakin. Kostako guardaplaya izana zan hua.
- Ta tolduak eta eoten al zian garai hartan?
- E?
- Tolduak eta kostan eoten garai hartan?
- Dana betia. Geyegi, geyegi eoten zan. Bigarren illaran'e bai jartzen zula esaten ziñan. Bat bukatu zana, ta geo berriz jende jendia nola etortzen dan izaten da tolduan kontu hori.
- Ta baillak?
- Beak etxeako patatak eta oaintxe bezelaxe danak ekartzen zitun. Dana porruk.

8.17. Sagardotegian egiten ziren jolasak

- **Hizlaria(k):** Lizaso Illarramendi , Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Diaz García, Elena
- **Erref:** ZAR-118/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:06:49. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Diaz García, Elena
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Udal langileak
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

- **Laburpena:** Sagardotegiko gizonak zer jolasetan ibiltzen ziren kontatzen du: jokoan aritzen ziren, apustuak egiten zituzten... eta batzuetan baita haserretu ere. Orduan borrokak izaten ziren. Etxera joateko presarik ez zutenak eguna argitu zain han egoten ziren, eta gauzainak bidali behar izaten zituen kalera. Beste batzuk, ordea, goizeko seietako meza entzutera joaten ziren zuzenean, etxera joan aurretik.

Transkripzioa

- Esan dezu jolas batzuk'e iten zituela. Kontatuko al zeniguke bat?

- Ba, gizaseme bat jartzen zan eskuak behien jarri, horrela, tente, ta hankak, hankak bi hankak'e alkarren hola euki bihar izaten zian, tente. Ta jartzen ziyoen baso sagardo bat, basua hola bete-bete-betia ez, hola, koroyakin pixkat falta zula. Ta jartzen ziyoen buruan, eta ordun dantzan in ber izaten zun, osea, ipurdiyak in lurra jo bihar izaten zun basua erori gabe. Aber... holaxen. Ta festa egiten zuen geo, batzuei ondo ateratzen zitzakoen, eta besteei gaizki ateartzen zitzakoen; ta geo, berriz, esaten zuen, "bueno, nik in baietz, eta ezetz". Ronda igual zeatzen zuen: dirurik ez, baiña ronda bai, jokatu ta bai. festa politak iten zituen, pakian. Geo haserriak eta izaten zian: gehitxo eraten zuenian, galdua min, eta jokuan iten zuen, musian iten zuen bi-bitan. Ta bakizue, galtzen zunak, ba, min; haserretu iten zian, ta geo kanpoa atea, ta borrokan'e bai, ta... Geo periya zanian, berriz, bakizu perikuak etortzen zian hara, ta sagardo ta bixigu erria jan, ta etxea juteko presikan gabe, eguna zabaldut zai hantxe eoten zian; jun ber zunak baserrita, ataira atea, serenoak kalea bialtzen zitun ta. Ta batzuek, berriz, batzuek iten zuen seitako meza entzunda jun Fraileta. Geo hurrengo egunian etorri gabe Elkanotikan, ta... ze, hamabiyak arte eoten zian, ta parranda iten zuen, eta hauntza ta honuntza. Ta geo seitako meza entzun, ta ordun itxea. Oain parrandak nola iten dituen gaztiak, ordun'e hala iten zituen.

8.18. Gauzainak

- **Hizlaria(k):** Lizaso Illarramendi , Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Diaz García, Elena
- **Erref:** ZAR-118/008
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:09:47. **Bukatu:** 00:10:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Diaz García, Elena
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena:** Sagardotegian gaueko hamabietan zuten ixteko ordua; baina jendea etxera bidali ezinik ibiltzen ziren, eta gauzainak lagundu behar izaten zien. Gauzainen funtzioa zein izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Sagardotegia noiz arte egoten zen irekita?

- Uf! Hamabiyak arte zun ordua, baiña ez zan errespetatzen. Serenua etorrita're... uff! Bialdu eziñikan ta horrela, presikan gabe ibiltzen zan jendia, zapatua baldin bazan behintzat.

- Esan dezu serenua, ta serenua zer nahi du esan horrek?

Ba, serenuak esan nahi du, uain alguazillak nola ibiltzen dia hor? O ertzaiñak. Ordun zian bi gizon herriya zaitzen zuenak gabian: baten bat

gaixotzen bazan, o mozkortuta borrokan hasten bazian, hartu, ta ispezioa eramaten zituen. Serenua hori da. Oain taillerretan nola dabe gizonak eoten dia gaba pasatzen, sua iten bada, o makinak zaitzen... ta serenuak, ordun serenua zan.

8.19. Bokazioak txikitan, eta udatiarren txaletak

- **Hizlaria(k):** Hizlari ezezaguna, ZAR-119
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Erref:** ZAR-119/010
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:11:09. **Bukatu:** 00:13:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Aierbe Iturburu, Gorka
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Negozioak, dendak
 - Lanbideak » Sastreak, jostunak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
 - Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena:** Txikia zenean, zapatagina izan nahi zuen handitan. Besteek zer bokazio zuten aipatzen du. Kanpotarrek Zarautzen zer egiten zuten kontatzen du. Haiek non egiten zuten lo azaltzen du: hoteletan, txaletetan...

Transkripzioa

- Txikitan zer nahi izaten zenuen izan haunditan?
- Ba, bakoitzak bere eukitzen gendun. Gaur'e nik uste det danen estiloako egongo dala. Nik esaten det, ba, nere ofiziyo hori; beste batzuek... Orduan ez zan orain bezela meiku ta itia, ta haura jendia dirudunantzako izaten zan estudiyo hoyek. Ta bestelakuan, zea: mekaniku, ebanista, sastre... enfin, holako zeak izaten zian. Bakoitzak edukitzen gendun geure bokaziyo bat; beste batzuk igual fraile juten zian... Ba, danetik zeon, danetik.
- Eta jende inportantea noa juten zan bizitzea? Noa juten zian?
- Jende inportantiak hori, ba, hoyek zazkaen bere txaletak, bere etxiak, bere terrenuakin. Eta serbidore, osea, kriaui pilla batekin etortzen zian, ta hamen iten zuen oain bezela udaa, udaa iten zuten. Ta uda pasatzen zan, ta dana hori itxi iten zan, ta juten zian, ba, bere o Madrira o Bartzelona o... Danak ya alde iten zuen. Bakarrikan, oain bezelaxe geatzen giñan. Orain jende asko dao hemen e? Oain ez da, oain hemen udaan'e, aber ordutikan honea ze jendiak etortzen dian, oain handitu in da ta.
- Eta txalet horiek nun edukitzen zituzten?
- Ba, txalet hoyek hasten zian Frailetak aurrian, esate bateako, hahor zeon Gran Hotela deitzen genduna. Ta hortik hasten zan ya, osea ke hori, Gran Hotela hori zan, ba, etxiak ez zazkaenak etortzen zian hotel horreta uda pasatzea. Hori oso kategori haundikua izan da beti. Oain ez dao, ya bota zuen, ta in ditue, konplejo bat in due; baiña orduan zan ikusgarriya. Eta geo ya hortik hasi, eta goleaiño, zea, Burgetoneko etxiak txaleta deitzen genuneaiño, han dana zeatuta zaben txaletak inda. Hahor ez zeon beste zeaikan: txaletak bere zelai handiyakin, ta dana jardiñeruak eukitzen zituen espezialak hortako, ta beak etortzen zianeako ia dana lorakin... Ta izaten zan herriko lekuik politena ikusteko, zeatikan danak eukitzen zuen prepara-prepara in, ta dana loriakin eta kamiyuak eta danak kurioxo jarrita, arbustuakin ta bere arbol politakin ta.

8.20. Madrilen neskame

- **Hizlaria(k):** Aristi Isasti, Joxepa Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines
- **Erref:** ZAR-123/004
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:06:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe Belamendia, Ines
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Madrilen neskame aritu zenean lanean, gehiago ordaintzen zioten euskalduna izateagatik. Madrilgo esperientziari eta bizimoduari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Bai, eta beste gauza bitxi bat'e bai esan dezu: Madridea jun ziñala neskame bezela; eta han, ba, kasteillanai edo kanpotarrai, baiña euskalduna izateatik geyo pagatzen zenituela eo...

- Bai, hori esan diñat.

- Ta zergaitik hori edo...?

- A, ba, euskaldunak giñalako, nunbait, geyo pagatzen ziun.

- Eta nola izan zan zure esperientzia Madri aldian, hemen, Euskal Herriyan bizi izan beti ta harrea junda?

- Hara junda, ba, erderaz bagendakiun, euskera, nola zean Mixiikordiyen erderaz, zeatzen zun, esto, ikasten gendun, ba, handik gendakiun. Ta launak izan nitun getaiarrak, eta banitun Altunaneke andrian ama, eta Joxepa Antoni Ola're bai Illarramendi, geure bizilaunak izandakua zan gaiña, eta hura're bagendun. Ta holaxe dibertitzen giñan ondo, jaiero ertetzen giñan ta, nere bizimoua holaxe izan zan: beatzi hillabete eo pasa gendun, ta honea atzea, hoixe. Gure bizimoua Madrilen, ba, seiñoritakin goizian ertetzen nitzan konpreta, ta geo ya jatordua dala ta, itxia garbitzia dala ta, iten genduzen. Eta geo zeatu, geo ostegunian eta zapatuan eamaten nitun zeara, zinea, seiñoritak beak. Halaxe jutun nitzan, ta bapo. Ta beste jaitan berriz'e ertetzen nitzan beste laun hoyekin. Ba, jutun giñan baile batea, eta dantzan in, eta itxea. Gure bizimoua hoixe izan zan han beatzi hillabete haietan.

8.21. Egindako lanak

- **Hizlaria(k):** Aristi Isasti, Joxepa Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines
- **Erref:** ZAR-123/006
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:08:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe Belamendia, Ines
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Ezkondu aurretik eta ezkondu ondoren non eta zertan ibili zen lanean kontatzen du.

Transkripzioa

Lenbizi solteretan'e izaten nitzan Getayan ere: bazkaldu ta korrika han juten giñan, eta illuntzian zazpitan lagatzen gendun lana, ta jun ta etorri oiñez etorri giñan, iten genun. Eta gerora, ba, ezkondu nitzanian'e segitu nun hainbeste urtian, segitu nun lanian han, eta beste itxetan, ta han txaletetan, ta ba, esaten detena, alde guztitan lanian. Koltxoi iten bada, makiña koltxoi urtian-urtian iten nitula, makiña tokitakuak. Eta beste gaiñuntzen, ze esango det? Ze esango diñat? Lana iten gendun, zeakin, esto.. antxua zeatzen txo... e... zeatzen jartzen txiri... zea jartzen, jesus! Esango diñat! Latetan, hamar kiloko latetan. Ta Txuekanian, berriz, jardun nitzanian, txortetan; eta txortak hainbesteko barrilla handiyakin han sartu eziñikan ibiltzen giñala, makiña lan hortan'e in deula, makiña primaberetan ibili geala hortan'e. Ta beste gaiñuntzian, txaletetan, ta beste alde guztitan, llengusutan ta danetan, Beisteginian ta danian... hainbeste tokitan in detela, ez dakitela zenbat tokitan in deten, o... holaxe.

8.22. Guardia zibilarekin izandako gorabeherak

- **Hizlaria(k):** Aristi Isasti, Joxepa Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines
- **Erref:** ZAR-123/009
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe Belamendia, Ines
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** Guardia zibilak senarrari egindakoa kontatzen du.

Transkripzioa

Geroa, lanian hasi zan gizona, eta behin etorri zan garbantzu pilla batekin, zea, fabrikatikan. Eta gaiñea azukre ta hoyek ematen zizkiyon, han, zean... Graziyak harei, nere seme-alabak patrika sartu, ta jan iten zituela azukriak baik'e, ta holaxe zeatzen ziala. Eta, ba, gizona behin eman ziyola garbantzuak, rasionamentuko zea hauek... eman ziyoela, zatorrela guardia zibillak nola geatu zuen, ta guardia zibilleta eaman zuela, eta nola geo esan ziyon nola zakarkiyen rasionamentu zeatikan, taillerretik, eta esan ziyola ordun "ah, bueno, ya preguntaremos". Ta Alfa nola deitu zuen, ta egiya zala, nola danak eaman zituen, eta zea, eta horigatikan bakarrikan libre laga ziyoela. Baiña hogeita bi hillabetia osuan egunero-egunero presentatu in bihar izaten zula eguardiyan, taillerretik bueltan datorrela. Bei... hori're in ziyoela, ta ezer ez zula hark ezertxo're in: idea nazionalistana zula, hoixe bakarrikan, ta hemen bi guardio zeeze erainazi ziyoela, besteik ez zula izan, harrek, zea...

9. Iritziak

9.1. Lehenagoko zarauztarrak, lurrari eta itsasoari lotuak

- **Hizlaria(k):** Leunda Eizagirre, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Xabier - Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Erref:** ZAR-007/006
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Hamaika anai-arreba ziren. Zarautzen lehenago kale-baserri asko zegoen eta kalean bertan ere ganaduak ikus zitezkeen. Zarautzen ez zegoen komertzianterik, denak itsasoari eta soroari lotuak ziren.

Transkripzioa

- Ordun, zu jaio, ordun, Etxetxiki baserriyan.

- Bai, ta nere aita 're bai, ta aitona 're bai.

- Ta zenbat anai-arreba ziñaten zuek jaio...

- Gu hamaika.

- Hamaika. Ta zu zenbagarrena?

- Ni, nitzan, laugarrena omen nitzan, nere aurrekua hil omen zan, Mauricio. Anaia, Xaguanea ezkondu zana, Manuel. Hor, geo, Donostiyan bestia hil zan, Joxe. Ta Santos, ni hirugarrena.

- Ta nola gooratzen dituzu umetako garai hoiek? Hola, jaio, ta baserriyan jende asko izango ziñaten...

- Orduan hamen bakarrik ez, e, kalia 're dana basarriya zan orduan, e! Zarautzen nik ikusi ditut behiak, Estanix Makazaga, [...] ta, hoiek dana [...] ta, ikatza partitzen...

- Alaba: Kale Nagusiyan ta zea...

- Bai...

- Kale baserriyak ordun.

- Kale basarriyak. Gaiñez, ni junda nao mutil koskorra aitona laguntzen. Aitonak ordun larogei bat urte o izango zitun, ta behiakin umatzea. Nola daka zeak, Garronekuak nola daka denda? Horren albuan uste det zala, este... alkortia, [...].

- Alaba: Karruaneko denda zaharragatikan ai da...

- Orduan...

- Alaba: Lehen Kale Nagusiya o, botika alde hortan...

- Zan [...] holakua, Garro. O, Garro esan badet, e, zea..., este..., alkortia. Eta hara, behiai atzetik launtzen, pentsa zazu. Zea, Iri..., Patxi Iriondok 'e bai, zea zun, behiak eukitzen zitun, zean, este, zer dao uaiñ han, botika ez, botikatikan, botika [...], beste aldia zer da? Kaja de ahorrosa, han albuan behiak. Bai. Eta zea, han, este, Xalegineko albuan [...] 'e behiak, Kukuluk 'e zea, este, Zigordia kalia. Kolonen 'e bai. Kolon taberna bat zan, zean, oain zein dao, zer dao gaiñea, berriya... Errekondoneko aurrian. Zarautzen negoziantiak danak zeak zian, kanpokuak. Zarautzen bertako semeik 'e ez zun izan, itsasua ta sorua. Zarautzen ez zan izango iya itxeikan, Asti aldian o hola, baiño zea, soruik ez zunikan. Han [...] sorua, ta geo udaberriyan itsasoa.

9.2. Euskaldunak izatearren, isuna

- **Hizlaria(k):** Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-031/027

- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:37:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Isun asko jartzen zen orduan. Beraiek ere bazuten 500 pezetako isuna, eta orduan diru asko zen. Dena den, gaur egun, gorroto handiagoa dagoela uste du.

Transkripzioa

- Orduan, jo, multak eta asko azaltzen zian ordun, e! Geuk 'e geure itxian bostehun pestako multa gendun. Orduan bostehun peza, behi bat baliyo, behi batek baliyo zun [...], ta ze, ta. Bost milla peztako asko nazionalistak. Semiak frentian zauden gurasuai multa asko.

- Zeatikan?

- Nazionalistak zialako.

- Besteik gabe?

- Karo! Holaxe zeon ordun hamen, joño! Tristia, egoera tristia. Bueno! Ba, geo hori pasa ta, nei iruitzen zat, uain ordun baiño gorroto gehio daola, netzako, e! Orduan sikiera, ba, berdin gatxabek danok eta esan ta, joño, oain... Oain politikak asko izorratu du, e. Gazetik ya 're, joño! Ta, nei, ikusten deten bezela, e! Bai.

9.3. Baserriko lanak eta lehengo Zarautz

- **Hizlaria(k):** Zubeldia Agirrezabal, Micaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Erref:** ZAR-105/003
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:02:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Baserriko lana gogorra zen. Zer tresna erabiltzen zituzten aipatzen du. Oraingo Zarautz gehiago gustatzen zaio. Lehen etxe gutxiago ziren, eskasagoa zen, kanpotar gutxi etortzen ziren.

Transkripzioa

- Baserriko lana oso gogorra al zen?

- Uf! Horixe bai dala gogorra baserriko lana. Goldiakin, segakin, ta danakin lana in ber izaten gendun guk, ta atxurrez asko.

- Zer gustatzen zaizu gehiago: oraingo Zarautz edo lehenokoa?

- O! Oraingua. Oain oso polita dao Zarautza. Leno itxiak'e gutxi zian eta oso exkaxa zan Zauzko herria leno. Kanpotarrak'e gutxi etortzen zian; ta oain, uf, ikusi in bihar da kanpoko jendia nola etortzen dan.

10. Euskara

10.1. Euskararen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Buenetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-008/026
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Kaletar eta baserritarren arteko alde hitz egitean. "Egon" aditzaren larregizko erabilera kritikatzeko dute.

Transkripzioa

- Kaletarrak eta baserritarrak desberdin hitz eiten al zuen, ba? Bai?
- (AZ) Honbre!
- (AG) Baserritarrak hobia, e!
- (AZ) Ta, nik uain berrogeita bi urte damaxkit Zarautzen bizitzen, ba, kaletarrak bezala hitz eiten det.
- (AG) Behintzat, "daka" hori...
- Hori kaletarra?
- Nei amorraziyua ematen die, "lanian dao". Eonda, ez du lanik ingo! Hara, behin esan nion, "aizu, jardun in beharko dezu ikasiko bazu, eon ez!".
- (AG) Hori ez da Zarautzarrena, e? Hori da erderatik itzulitakua!
- Bai, bai, bai, ba. Oain, hoixe ikasten due, euskera hori ikasten ai dittun, e, euskera hoixe ikasten ai ditun.
- (AG) Eskolan ez, ama.
- "Euskeraz ba al dakizute! [...] eonda, ez dezue ikasiko, jardunda". Eske, amorraziyo bat... Hori da, hori da, erderan zea da hori!
- Nere amak 'e hori esaten du, egonean ez dala jarduten!
- Ez, ba! "Soruan dao" [...], "soruan dao", ta ez dakit nola dao... "jun da" eo "ai da", eo beste mou bat. Hori ez da euskera, hori. Zeak esaten, Basarrik esaten zun, euskera martirizatza da hori, esaten zun. Basarrik esaten zun hoixe.

10.2. Euskararen gorabeherak; esne-saltzaileen inguruko lexikoa

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ibarguren, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref:** ZAR-011/012
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:39:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Nola deitzen zitzaion esnea erosten zuenari: kaleko esnezalia eta saltzen zuenari: baserriko esnezalia. Tolasako euskara.

Transkripzioa

- (A) Lehen esan dezu esnezaliak eskatzen zula, bezerua zan?

- Bai, hemen esaten zan kaleko esnezalia esnia hartzen zuna 're, eta saltzen zunak 'e bai. En cambio, Tolosan, denbora hartan esaten zan, Tolosan ondoena hitz eiten zala. Esnezalia kalekua eta esneduna basarrikuei. Tolosan zala zeaik onena esaten zuen, hizketa edarra zala oso Tolosan.

- (A) Ta bezerua, nik uste det bezerua 're aitu izan dizutela. Ez al zendun esaten bezerua?

- Bai, bezerua 're esaten zan, noski. Hori esaten zitzaion kalekoei, basarriko zeak: "bai, esnezaliak... bai, bezeruak... bat gehio dakate hau ta [...]" Esnezalia, basarrikuak esnezalia behekuai, ta behekuak esnezalia, basarriko esnezalia. En kanbio, Tolosan ez, Tolosan esneduna eta esnezalia. Eta horregatik esaten zuen Tolosan oso hizketa ederra zala.

10.3. San Pelayoko eskola eta irakasleak

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Agirre, Pepita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen
- **Erref:** ZAR-027/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolara ez zen gogotsu joaten, baina ez zuen piper askorik egiten. Bere anaia nagusiek gehiago, mendian laguntzeko... Eskolak erdaraz izaten ziren. Eskola ez zen gogorra izaten, eta etxeko lanik ez. Adin guztietako umeak batera.

Transkripzioa

- Eskolan zenbat urte arte ibili ziñan?

- Hamalau urte arte.

- Hamalau urte arte.

- Hamalau urte arte, bai, bai, bai. Hamalau urte arte.

- Eta kontinuo edo piper asko iten zan? [...] askotan...

- Ez, nere senire zaharrauak, bi zaharrauak, lau gea ta bi zaharrouak, haiek igual ba mendira jun behar zanen ta beti zea gehixo, ezta?. "Ez dao juteik gaur" ta, "hau dao in beharra" ta hola, baiño ez, ni ez nitzan gogotsu eskola juten, ez. Kobardia nitzan. O batek burla ein ziala ta, "ai, burla in die aita, ta ez det nahi jutia" ta erdi nearretan ta abar ta, ba. Baiño ez, piper asko ez giñun iten, ez.

- Ze erakusten zizuen, euskeraz?

- Bai, bai, bai. Bai! Euskeraz ta erderaz ere bai. Ez, erderaz, zean, eskolan erderaz eiten zan, e!

- Bai.

- Bai, eskolan erderaz. Gaiñuntzeko etxeko bizitzan euskeraz. Baiño erderaz. Eta, ba gaurko eunian ez dakit, ez erderaz ta ez euskeraz.

- Euskeraz, bakizu, emakumia, hoixe!.

- Ez, ez baiño ni bi illobakin hasten naizenian hizketan ez [...] ulertzen.

- A, bueno, baiño diferentia...

- Ta esaten dioet, "aber, hori esan diazue erderaz porke nik ez det hori ulertzen, ta". Eta, [...] oaintxe ez dakit ez erderaz ta ez euskeraz. Erderaz ere fazilidade gutxi xamar dakau, eta bueno, baiño defenditzeko lain

bakigu, bai.

- Oso ondo. Ta, garai hartan eskola zuk nola gooratzen dezu, gogorra, e, asko [...] zuen edo zuei ez zitzaizuen holakoik tokau?

- Ez. Ez, ez. Eskolan eiten zian [...] debereak bakarrikan, etxeako ez zian izaten ezertxo 're. Ez, ez, ez, ez, ez. Eskolan, bakizu, sumar ta restar ta problemak eta handikan atzea, ba ez, multiplikat ta.

- Eta hola bronka haundikan eman 'e ez, ta...

- Ez, ez, ez, oso maixtra ona giñun, e! Oso goxua zan ta, ona. Behiñ 'e kastiguik izan unikan ez naiz gooratzen eskolan, e! Ez.

10.4. Arrantzaren inguruko lexikoa

- **Hizlaria(k)**: Agoues Zubeldia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-029/019
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:38:38. **Bukatu**: 00:41:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Euskara » Lexikoa
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Arrantzarako tresnak. "Koaña" erabiltzen zen txipiroitarako. Amutarako zer erabiltzen zuten: izkirak, antxoa eskabetxatuak, loiorra (zizarea)..

Transkripzioa

- Ze tresna erabiltzen zenuten orduan arrantzuan? Ze aparejo edo ze tresna, edo...

- Zea bat, aparejo zea txiki bat, eta, bakizu, nola dan, koiña zer dan, arrantzako koiña? Peruna, jostorratz zea batzuekin, hariyakin bueltatua, koiña. Hura txipiroitako.

- Ta besteikan?

- Eta txitxarroto, ba, lehen, ba, deitzen zan beste bat, hola kutxarila bat, zea, kromatua, hiru amoko zeakin, degoilla deitzen zienana. Hoiek uan, hoiek 'e uain milla klasetakuak dia, lehen. Beste batzuk berriz, illia, illia. Amua, amua, ba, ille pixkat, zea, ille pixkatekin tapatuta. Ta hura arraiak heltzeko izaten da.

- Ta bestela, sare txikikan, ta holako...

- Ez, ez. Hoiek, hoiek, motoko.... motorrak eta bai, zean, baiño geuk, hamengo ontzi txiki huakin, ezer. Hoiekin ez dao sareik eta ibiltzeik.

- Ta karnata mouan?

- Garnata mouan? Ba, ba, este.... Igandetan ta, e, hori astian ez gendun iten, [...]. Igandetan, este, txintxola deitzen ziogun zea bat izaten zan, ba, perun lori hola, astun samar batekin, holako alanbre bat. Ta alanbre bakoitzan zintzilika, ba, metro bateko beste puntera bat. Han bi amo, ta beste aldi bestea bi amo. Ta, perunakin, zean. Ta han, ba, antxoa eskabetxatua, ixkira onena, ixkira bakizu zer dan? Zea, quisquilla, kixkilla txiki hori, arraldian ta eoten da kixkilla txiki hori, ixkira, hura garnata bezela, ixkira ona da. Loiorra, loiorra bakizu zer dan? Beste hitz batian, txitxaria, txitxaria, lokatzetan eoten dan txitxare zea, mehe, mehe gorrixka hori.

- Nola esan dezu izena? Loiarra?

- Loiorra. Loiorra, guk hamen deitzen gendun, loiorra, zea, zea. Atsuak

hamen deitzen diyoe aizarra, aizarra.

- Zeiñek deitzen diyo horrela?

- Hemen, guk, "noa hua?", ta, "aizarreta, aizarreta". Ta joten giñan orduan ba, o, han moillan sarreran daben arroka txiki hoi azpiyan, udaran ez [...]. behiñ 'e eokitu ikustia han launak nola jarduten dian hondar azpitik ateatzan txixare hoiek ateatzeko? Aizarra hori da. Aizarra. Gu joten giñan, ba, gehioatikan ba, zeatikan, ba, lñurritzako zea, erriyuan sarreran daon lokatz zikiñ horta. Han gehio eoten zan, aizarra deitzen diyot. O, loillorra. Hori, beste leku batian beste gauza bat deituko diyoe.

10.5. Herritarren arteko giroa: jendea elkartuago zegoen

- **Hizlaria(k)**: Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref**: ZAR-031/014
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:17:26. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublika garaiko aldaketa eskolan. Karabineroek eta denek euskaraz ikasi behar izaten zuten orduan. Ez zen arazorik jendearen artean, giro ona izaten zuten elkarrekin. Gerraostean ere orain baino elkartuago zeuden, eta nahiz eta dirurik ez izan, tabernetan kantari ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Sentituko zan errepublika garaian ta, pixkat, e, frankismoan baiño hobeto, eskola irikiyagua izango zan, ez?

- Errepublika garaian? Kendu in zituen sotanak eta. Traje, trajiakin ta hola ibiltzen zian ta hermanuak 'e bai, bai. Ta hemen orduan ze, errepublikanuak zenbat izango zian, ba? Danak euskaldunak eta erdaldunak 'e karabiñero ta holakuak eta ikasi beharko euskeraz. Danak earki ikasten zuen! Muxarra ba al dakizu zein da, Muxarra? Potxotan ta ibiltzen dana, aguazilla? Haren aitona karabiñerua zan, baiño earki ikasi zun euskeraz, joe! Beharko! lñork ez zekin erderaz, guk ez gendekiun erdera. Ta, hantxe, karabiñeruak zeatan, nola, domino o esaten zuen o hortan, ttak eta tak ibiltzen zian hoiek. Ta, ez zeon gauza haundiik, ez eztabaidik eta. Bat zeon hamen, e, karlistak eta nazionalistak euki zuen pixkat zea. Baiño geo, gerra honek hondatu zun dana. Gerra ezkeo dana nahastu zan ta, ... Ta orduan, gerra bukatu ta geo, halare jendia alkartuta ibiltzen zan. Ta beste ambiente bat oainguan aldian. Launarte gehio. Diruik 'e ez gendukan. Paga ze emango ziun, ba? Ta, tabernetan kantatzen ta kuadrillak eta. Ta beste kuadrilla juntatu ta danak kantatzen, ta.

10.6. Zuka, hika, berorika; norekin bakoitza

- **Hizlaria(k)**: Zulaika Lizaso, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Muniozguen, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Erref**: ZAR-045/002
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:03:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Berorika
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Pertsona nagusiei zuka eta gurasoei berorika hitz egiten zitzaien bera gaztea zela. Anai-arreben artean nahastea sortzen zen. Senar-emazteen artean hika egitea arraroa egiten zaio.

Transkripzioa

<p>- Zuen itxian...</p>
 <p>- Ez, pertsona helduai "zu", eta gurasuai [berriz] "beori" zan, gure gazte denboran.</p>
 <p>- Ta anai-arreben artean?</p>
 <p>- "Zu"… arrebai bai; baiña anaian tartian, nere aurrekuai “zu” oso gutxitan, "hi". Zaharraguai ez, beste anaia zaharraguai "zu".</p>
 <p>- Errespetu kontua...</p>
 <p>- Nahastuta ibiltzen giñan, nahastuta. Nahastuta ibiltzen giñan orduan.</p>
 <p>- Bai, beste batzuk ere... kasuak, holako kasuak topatu dizkiau, e. Anai-arreben artian batzui "zu" beste batzui "hi"...
- Bai, oseake, hor...
- ... nahasketa...
- … edadian, ni gazteena senidetan nitzan, ta ni baiño 10 bat urte [zaharraguak´e bai ta haiei itia] batzutan... zea iruitzen zatan, baiña bestela bai. En kanbio, koñatai ta, nahiz... neu baiño gaztio, haiei beti "zu". Ya beste zea bat ibiltzen gendun haiekin.
- Eta [hemen], bestia, zuenian hainbeste ez dakit, baiña Gaztakan-ta, errespetuz, 3. pertsona erabili, amai-eta: "Ez al du ikusten?" ta "Ze moduz dago?" ta...
-Bai, bai, [...] beori ta...
- "Beori" hitza igual ez hainbeste entzun ez, baiña amai... nere lehengusuak bere amai-ta: "zer moduz dago, ama?" eta "pasa al zaio?" ta...
- Pertsona helduai "beori" batzuei ez zitzaien gustatzen. [Eta esan ohi zuen]: “Beori esan dezu?, behorrak mendiin izaten dia /izateia/” esan ohi zuten batzuk. Ez zuten [...]... haundiegiya bezela.
- Baiña zuei behintzat hika errespeto falta dan zea hoi gelditu zaizue.
- Bai, bai. Nik hemen Aian ikusi det, neska-mutillak alkarrekin nobiyo ta ezkonduak´e bai hika! Eta "Hi! [...]" ta eundoko kolpia iten ziun guri, eundoko kolpia iten ziun. Eta [beak, ba, ohituta horrela].</p>

10.7. Euskara eta erdara

- **Hizlaria(k)**: Uria, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Murua Uria, Imanol
- **Erref**: ZAR-103/008
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:10:01. **Bukatu**: 00:11:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Murua Uria, Imanol

- **Gaia(k):**

Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Erdaraz gutxi bazekien ere, Afrikan euskaldun ugari zeuden, eta ez zen alferrik galdu. Han ikasi zuen orain dakien erdararik gehiena. Familian euskaraz egiten saiatu izan dira beti.

Transkripzioa

- Han nola konpondu zifan? Zu beti baserriyan ta kalia beti euskeraz iten, ta hara Afrika jun, ta erderaz nola konpondu...?

- ... Baiña euskal jendia, ordia, geyena gure artian, euskaldun jendia jun giñan Donostitikan, ta han danak beti euskeraz, hara junda euskeraz beti elkarrekin. Tartian, tartian kasteillano batzuk izaten zian, baiña kuadrilla geyena iya mayoriya euskalduna. Ta guk'e euskeraz o erderaz ikasteko probabilidade gutxi.

- Han ikasi al zenuen erderaz dakizuen apurra?

- Ikasi, dakitena han pixkat, han bai geyentsuna; han, ta geo kalea torri ezkeo're pixkat beti. Sayatuko banintz geyo ikasiko nun nik, baiña ez nintzan hortaiño... apiziyoik ez nun izan erderaz ikasteko. Euskerakin nahiko zeatzen nitzan.

- Zure etxian ere euskera nahiko ondo mantendu dezu, ezta? Nahiz eta kalia zure alabak eta askotan erderaz in, hemen beti euskeraz.

- Euskeraz... nik hala eraiten niyen ta. Hemen'e, zeak, umiak erderaz hazi zian gure Juanita ta Maritxu ta hoyek, benga erderaz, ta "ixo!", nik, "euskeraz hemen!", sukaldian, ta hola hartzen nitun, ta... Hayek uain esaten due, eskerrak nei, haatik ikasi zuela hainbeste euskera, bestea gaixki ibiliko ziala. Hola izan zan gure gorabera. Geo hementxe seitu deu, ta estuasuna etorritakon zeoze zeatzeko aiña erdera bakiu zeoze, jana eskatzeko aiña behintzat eta, zeoze zeatzeko aiña, beste korrienteik ez. Baiña, hola, gaiñuntzen gue denboa uaintxe zartu da, ta hola pasa deu guk.

10.8. Euskara Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Madariaga Oar, Jesusa

- **Elkarrizketatzailea(k):** Silban Iturburu, Leire

- **Erref:** ZAR-112/006

- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:10:20

- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Silban Iturburu, Leire

- **Gaia(k):**

Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Euskara » Euskararen egoera

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

- **Laburpena:** Zarautzen beti egin izan da euskara asko, baina orain gehiago, eskolan ere euskaraz ikasten baita. Bizkaitarra izanda, ondo ikasi du Zarauzko hizkera, senarrak eta koinatak erakutsita. Barre egiten zioten bizkaiera egiten zuenean.

Transkripzioa

- Eta esan dezu, orduan, eboluzionatuz jun dala. Eta euskera're bai?

- Euskera? Ez dakit, nik gutxi entenditzen det euskerakin. Baiña nik ez dakit, euskeraz Zarautzen beti in izan da asko, beti in da. Oain gure umiak txikiya zanian baiña oain geyo eiten da euskeraz asko're. Ze gure umiak

txikiya zanian, gutxi hitz eiten zan euskeraz. Hermanuetan ibiltzen ziran gure mutillak, eta Hermanuetan dana erderaz eiten zan. Eta guk euskeraz eiten gendulako etxian, ba, euskeraz ikesi zuen. Baiña oain euskera geyago eiten da lengo aldian.

- Oain euskera iteko, hola, libreo dia ez? Leno, adibidez, hor Hermanotan ta hori dana erderaz in berko zuen?

- Dana erderaz egiten zuen.

- Ta oain ikastolakin ta askoz hobe ezta?

- Askoz hobe, oain euskera geyago.

- Aizu, ta euskeraz hitz eiten, zu Bizkai aldekoa ze, ta nolatan ikasi zendun gipuzkera horren ondo hitz eiten?

- Ez det ondo eiten gipuzkuan nik oaindikan.

- Bai...

- E, oindikan ondo ez det egiten gipuzkoako. Baiña neri iñok esaten zien: “Zu ze, bizkaitarra al ze?”; ta “Bai”; “Ba, ez dezu ematen bizkaitarra. Zuk euskera ondo iten dezu, hemen bezela iten dezu” esaten zien ta. Bai... baiña ez dakit, gixona hemengua nun, ta gixonakin ta. Geyena ikesi nun koiñatakin ta gizonan amakin, ze hoiek hemengo hizkera eiten zuen, ta erderaz ez zekiyen hoiek, koiñatak eta zeak ez zekiyen erderaz, ta guk erremeyo gabe euskeraz. Ta koiñatak nei gaizki hitz eiten nunian, bizkaitar bizkaitar hitz eiten nunian, koiñatak burla iten zian: “Hori hola ez da esaten, hola esaten da”.

- Orduan ikasi in ziñun?

- Klaro.

- Ez burla egiteko.

- Eske, ez, ba. Neri koiñatak esaten “Hori hola ez da esaten, hori hola esaten da”. Horregaitik geyo ikesi nun nik, ze hoiekin ez zeon erderaz egiteik. Nik gixonakin erdera asko eiten nun lelenguetan, haik eta ikesi arte, ze ez niyon entenditzen.

10.9. Txikitan beti euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref**: ZAR-114/009
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:13:16. **Bukatu**: 00:14:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Jauregi Aranburu, Ibai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Txikitan beti euskaraz hitz egiten zuten. Erdaraz Frantziatik bidalitako hermanoeak bakarrik hitz egiten zuten.

Transkripzioa

- Gazteak ziñetenean, nola hitz egiten zenuten?

- Euskeraz beti. Erderaz, erderaz hasi zian Hermanuak, Hermanuak hasi zian. Frantsesak zian Hermanuak e? Frantzitikan bialdu zituen, ba, gerrako zeak? Ta frantsesak zian Hermanu danak, eta monjak’e bai, dana frantsesa zan. Herriko eskola bakarra zeon, han han ibilli zianak erderaz egiten zuten, zeatikan maixua bea erdalduna zan. Baiña frantsesak, erderaz hitz egiten zigun guri, baiña guk euskeraz. Herriko umiak nola giñan, euskeraz hitz egiten giñun guk beti, guk beti euskeraz [...].

10.10. Euskara batuari buruzko iritzia

- **Hizlaria(k):** Eizmendi Manterola, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Erref:** ZAR-117/006
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:07:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Euskara » Euskararekiko sentimendua
- **Laburpena:** Euskarak beste bide batzuk hartu dituela dio; eta ez zaio gustatzen gaur egungo "laborategiko" euskara. Euskara batuari buruzko iritzia ematen du.

Transkripzioa

- Zer iruditzen zaizu euskerak egin duen aldakuntza?

- Aldakuntza, ez dakit onerakoa edo txarrerakoa. Orain bide berri batzuk hartu dira, ta guk beste era batea ikasi gendun. Orduan ere bazan Euskaltzaindia, baiña ez gaurko jokaerarekin. Eta hizkuntzaren aldetik, nik askoz gogozkoa det lehen ikasi nuana, orain ezarri nahi dutena baiño. Laboratorioko euskera iruditzen zait gaurkoa, naturaltasun gutxikoa.

- Orduan zu euskara zaharraren alde zaude, eta euskara batuaren aurka?

- Euskara batuaren premia danok ikusten degu, baiño euskara batua egiteko beste molde batzuk hartu zehar zirala usten det, herriari gehiago kaso eginda; ez erabat herria baztatu, zokoratu, hankaperatu, eta herriak orain egin diro, egin dio euskerari bizkar eman, ez det ezer jakin nahi. Penagarria da, baina euskaldun huts-hutsak, beste hizkuntzarik ez dakitenak, zenbatek eta zenbatek esaten dute gaur irakurtzen hasi, "gaurko euskera ez det entenditzen"; telebistan edo radiyoan entzuten jarri, ta "ez det ulertzen, ez dakit euskera besterik". Hori baiño tristeo ta negargarriagorik ez dago.

- Esan dizut ez naizela euskara batuaren etsai eta kontrario, euskera batua behar da. Baiña hartu diran molde edo metodo hoiek ez zaizkit onak iruditzen. Herriari jarraituz, herriaren hizketa poliki-poliki orraztuaz ta apainduaz egin behar zan batasun hori, eta herria alde bat utzi degu. Eta gaur ere, euskeraz jatorren egiten dutenak baserrietan eta herri koxkorretan daude, ta zenbat eta zarrago diran, haiek eta hobeto. Haiekin ikasten det nik euskera.

10.11. Euskararen egungo egoeraren kausak

- **Hizlaria(k):** Eizmendi Manterola, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Erref:** ZAR-117/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:09:08. **Bukatu:** 00:10:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Politika » Euskara eta politika
Euskara » Euskararekiko sentimendua

- **Laburpena:** Euskararen gaur egungo egoeraren kausak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Zeinen errua da euskera horrelako egoeran egotea?
 - Milla gauza esan ditezke. Zorigaitzeko hogeita hamaseiko gerra hura izan ez balitz, gaur beste era batera egongo zan euskera. Jangoikuak bakarrik daki zenbat lan egingo zan. Etorri zan etorri zana, ta alde guztitik zigorra, kastigoa, ta ezer egitterik ez. Ta moztu, ta orduko gazte dana euskerantzat galdua gelditu zan. Gaur hasi da pixka bat, hasi da, baiña hainbesteko indarra hartu du erderak, ta hainbeste erdaldun daude; eta beste aldetik, euskaldun asko bat'e ajolarik gabeak, euskerarenganako maitasunik gabeak, hotzak, holakoak'e asko daude. Eta horrek kalte ikaragarria dakarkigu.

10.12. Bertso bat

- **Hizlaria(k):** Eizmendi Manterola, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Erref:** ZAR-117/010
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:12:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Letemendia, Mikel
- **Gaia(k):**
 Euskara » Euskararekiko sentimendua
 Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
 Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Bertso bat botatzen du euskararen gainean.

Transkripzioa

- Bukatzeko, orain hitz egin duguna ikusiz, bota, mesedez, bertso bat.
 - Euskera maite irten zaitea
 Orain zauden katepetik
 Gazte maiteok bazetozte, ta
 Poz hartutzen det gogotik.
 Arreta biziz jarraitu hemen
 Bakoitza bere aldetik
 Gure herria ateratzeko
 Arrotz kulturen mendetik.

10.13. Euskara eta gerra

- **Hizlaria(k):** Sansebastian Izeta, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Santxez, Oskar
- **Erref:** ZAR-121/003
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:06:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Santxez, Oskar
- **Gaia(k):**
 Euskara » Euskararen egoera
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- **Laburpena:** Euskaraz hitz egiteko, kartzelan arazoak izan zituen. Horri buruzko anekdota bat kontatzen du. Lehen euskaraz asko hitz egiten zen; baina, gerraren ondorioz, jendeak kanpora joan behar izan zuenean, erdaraz gehiago egiten zuen euskaraz baino.

Transkripzioa

- Zure garaian problema gehiegi eduki al dituzu euskeraz hitz egiteko?

- Kartzelatik atera ta bastante kuarteletan ibili giñan tokitan bai, kuarteletan. Hortako badakat anekdota txiki bat esplikatzeke moukua. Gu presuak nola giñan atzeneko turnuan, kuartelen jaten giñun bazkaya, ta otordua ematen ziguen azkena. Ta formatuta gauela patiyuan, sei lagun giñan hemenguak, euskaldunak; ta bat zan bizkaitarra, ta erderaz ez zakin batere, ezer'e. Eta in ber izaten giñun, ba, haren aurrian euskeraz. Ta kapitan batek ikusi giñun, ta galdetu zigun ze hitz egiten ai giñan. Ta esplikatu giñun esanez, ba, euskeraz hitz eiten ai giñala zergaitikan gizon batek ez zakilla erderaz, ta horreatikan hitz eiten giñula. Ba, haren kontestaziyua izan zan, ba, kastigatu in giñun bazkai, bazkaldu gabe.

- Zer aldaketa eduki ditu euskerak?

- Haundiyak. Gure gazte denboran euskeraz asko hitz eiten zan, nahiz gaizki. Baiño gero gerrak'e jende asko gelditu zan gerra jun, ta ez giñun ordun erderaz ondo hitz eiten. Ta gerra jun eta hor baztar hoietan kanbiyo asko ikusi giñun. Ta ordun, ba, han hitz ein ber zan erderaz. Nere kasuan, berriz, ni eon nintzan burgalesak eta palentinuakin danak, ta euskeraz neu bakarrikan izango nintzan batailloyan. Ta horregatikan, jende askoek geo bueltan, guk bezala zazpi urte pasa ta etxea etorri giñanen, erderaz geyo iten giñun euskeraz baiño. Orain, oain kanbiyo honek in dunak, guk euskera oain don euskera berri hau ez deu ezautzen, ez dakigu batua o esaten diyoena. Baiño, lehengoko euskera baiño gaur o biharko, oain dauren gazte jendiantzako askoz hobia, zeatikan hemendik urte batzuta, euskeraz danak jakingo due ondo. Esaten dan bezela, "gramaticalmente" ta...

11. Itsasoa

11.1. Arrantzaleen gorabeherak

- **Hizlaria(k):** Agoues Zubeldia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Erref:** ZAR-029/018
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:37:34. **Bukatu:** 00:38:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- **Laburpena:** Arrantzaleen inguruko gertakizunak. Zarauzko moilak sarrera txarra du eta batzuetan ontziak irauli egiten ziren.

Transkripzioa

- Bestela, gertaerarik eta hola ezautu dezu zure garaian? Izanda holako gertaera...

- Ez, ez, ez. Ba, moillan bai, moillan gu izandu ditut, ba, gizonak ontziya bueltatu ta, zean moillan azpira sartzen 'e bai. Ta, beste batian, hori bitan o hirutan gertatu zat, zea, ontziya, moillak sarrera txarra du, Zarauzko

moillak baja marrian, ta itsaso pixkat danian. Ta, guk ikasi gendun, baiña dexkuiatu iten zian, ta. Eta, ba, este... Ezautu nun, hil zan, Rikardo. Eta hura ontziya bolkatu ziyon, ta, ez zakiyan igeriyan. Eta moillan azpiyan hola zulua zan, ta han azpira sartuta eon zan hura. Ta geo, jainkuak hala nahi zulako, erten zun kanpoa. Heldu ziyoen, kanpoa, bai. Ta holako, bai, urtian zihar eokitu izandu dizkigu ikustia.

11.2. Arrantza lehen eta orain

- **Hizlaria(k):** Iturzaeta Martija, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Loidi Udabe, Aitor
- **Erref:** ZAR-101/016
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Loidi Udabe, Aitor
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
 - Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- **Laburpena:** Arrantzan zer harrapatzen zuten azaltzen du. Lehen arrain gehiago zegoen, eta hobia izaten zen. Nola egiten zuten arrantza azaltzen du. Olagarroa asko jaten zen lehen.

Transkripzioa

- Ta lehen arrai gehiena zer zegoen?

- Orduan, ba, oraingo aldian olarru asko harrapatzen zan eskuz, ta gaiñuntzian lupiya ta holakuak. Txibiak, berriz, oraingo aldian askozez geyago. Ta antxua, berriz, ze esanik ez: ya bertatikan harrapatzen zituen antxua. Ta oraingo aldian arrai asko, garbiyo zeon. Ta oain gaiña tranpa're ez, arrantzaliak'e sariakin ta askozez aberatso zan orduan. Orduan arrai geyo jaten gendun, ta arrai hobia oain baiño.

- Lehen zerrekin harrapatzen zen arraia, kaiñaberakin edo?

- Bai, danea, ba olarrotako ba makil batei jarri trapua muturrian, ta harei heltzen ziyon, ta gero eskuakin heldu, ta kanpoa, ta akabatzeko hortzak hagin beai kendu, beak zeukan hagiñak, ta holaxe. Ta oso janari ona, askoek ez due nahi izaten, baiño oso janari ona da olarrua.

- Ta orduan orain bezela ez da, lehen eskuakin eta oain amuarekin?

- Oain ez dao, oain ez dao. Olarruak gutxitu dia, oso gutxi dao. Horko, esaten duenez, otarrak jartzen ditue nekoretako, ta txokorruak eta harrapatzeko, ta hoita sartzen da olarrua, ta hor galtzen da. Ta orain ez dao len bezelako... Len olarrua ikeragarri harrapatzen zan hamen. Ta hor ez zun kiatsa earra eukitzen, usteltzen o sekutzen, baiño geo oso pobriantzat janari ugariya ta oso ona zan, olagarro-zopa ta patatakin'e bai, ta jendiak asko jaten zun oaingo aldian.

11.3. Arraina saltzen

- **Hizlaria(k):** Odriozola Roteta, Balero

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Mari Carmen
- **Erref**: ZAR-106/011
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:11:17. **Bukatu**: 00:13:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Etxabe, Mari Carmen
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
 Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Arrantzaleek arraina nola saltzen zuten kontatzen du. Eta haietako batean gertatutako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

Baita garai hartan, arrantza kontua masiyakua esan izandu zan. Ba, San Pedrotikan aurea, Ama birjiña setienbreko arte gutxi gorabehera. Ta juden zian bazkalonduan been otarrak hartuta. Zian hiru grupo: Kintanatarrak, Japonesak eta Portugesak izendatzen zian. Ta juden zian arrantza, ta Moillarriz ta San Antongo mendiaz bazterrea. Zarauzko hondartzatik bertan ikusten zian. Ta oaintxe egiten zuen lehenengo etxada arratsaldeko lau t'erdia bostak aldian, hartu arraya, eta batelian beren salabardua tente zuela zan siñalia arraiakin zetoztela. Juden zian emakumiak dozenardi bat, arrai-saltzaillak kaletan ibiltzen zianak, ta jendia're bai, sagardotegira meriendetako sardiña eramateko. Eta batian, ba, atera due arrai hori, ta bentarako jarri due. Ta garai hartan arrua ta kiloka egin beharrian, egiten zan zientua, millarra, eta gero dozenaka saltzen zan. Ta egin due benta, ba, eta zai zeon jendia: "Tira, ba, zenbatian deun dozena o...?". Eta emakume hoyek alkarrei belarrira hitz egiten jardun dia, eta erabaki due hoge xentimuan dozena jartzia. Ta hango erostunai garesti irudituz zayo, eta erantzun zion seituan: "Bueno, zer da hau? Lapurreta mendira e?"

11.4. Bere aitonaren garaiko arrantza-ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Roteta, Balero
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Mari Carmen
- **Erref**: ZAR-106/012
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:13:03. **Bukatu**: 00:14:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Etxabe, Mari Carmen
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
 Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: Bere aitonari entzundakoa kontatzen du: 130 urte lehenago zer ohitura zeuden arrantzan.

Transkripzioa

Baita oain dala ehun ta hogeita hamar bat urte're, neronek neure aitonai aituta nola zan arrantzako ohitura, oaindikan egongo dia argoillak Dukianeko paetari egotzita. Eta txikotan muturra lotu sariana, eta txalupa batekin eman buelta hondartzan, eta oaintxe baztertzen zuenian txikotan muturra, arrastaka-arrastaka lehorreko gizon-indarrakin baztertu sare hori, ta egundoko arrantzak: horko borondia, arraigorri eta kantidadia. Eta baztertzen zuenian, ba, zenbat lagun zian han soziyo ta sare-tiraka...

hainbeste pilla egin, ta jarri ikusten ez zuela albuari bestia, eta hola iten emen zuten beren benta: “Hau zein entzat?”, eta “Holakontzat”, “Ta hori zein entzat?”, eta “Holakontzat”. Been partilla egin, jaso beren arrayak eta saria, eta beste egun pare batian o hiruan beren arrantzan zai, arrain frexkua etxea bi edo hiru egunetik behin eramanez.

11.5. Patroi azkarrak

- **Hizlaria(k):** Odriozola Roteta, Balero
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Mari Carmen
- **Erref:** ZAR-106/013
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:14:26. **Bukatu:** 00:15:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Etxabe, Mari Carmen
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
 - Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
 - Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- **Laburpena:** Eskola handirik izan ez arren, patroi azkarrak zeuden lehen ere. Behin, arrantzara zihoazela, erlojua itsasoan erori zitzaion marinel bati, eta geroago topatu egin ahal izan zuten.

Transkripzioa

Baita ere, garai hartan, eskola haundiak ez baldin bazuen'e, bazian gizonak, patroiak, argi askuak been lanian. Batian, arrantza zijuaztela, ba, badijuazti ta erori zayo batei relojua urrezkua boltxikotikan urta, ta “hauxe gertatu da ta alto!”. Ta patroia horrek “da!” beitu bi o hiru puntuta, ta “aurrea!”. Ta jun dia, ta egin ditue beren itsasoko lanak; pasa hiru-lau ordu itsasuan, ta badatoz bueltan. Ta, aber, relojua billatzeko lehengo puntuan billa: “aurreoxio, atzeoxio, honea, bueno, hi, Tximo, jo zanuilla!”. Ta jo du zanuilla horrek, arnasia ikaragarri ona, eta agiri ez, ta agiri ez, ta halako batian “dra!”, erten da urrezko errelojua eskuan dula.

11.6. Francoren garaian hotza

- **Hizlaria(k):** Agoues Sarasola, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Erref:** ZAR-114/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:15:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Jauregi Aranburu, Ibai
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Txikitan pilotan ibiltzen ziren. Francoren garaian hotza egiten zuen.

Transkripzioa

- Zer egiten zenuten ondo pasatzeko?

- Pelotan.
- Pelotan jolastu?
- Pelotan, ta fuboleko ekipua eraiki nun nik, futboleko ekipua neu jarrita.
- Franco garaia nolako denborak izan ziren?
- Leno, oaingo aldian, hotz iten zun garai haietan e? Hotza, zeatikan neguan'e jelak eta zea... Ni Ferrolea soldau eaman ninduenian'e, zeatikan torpedero kuarentaiunon eon nintzan ni Ferrolen. Eta torpedero kuarentaiunon neola, han jela, jela ete zan orduan, [...] loriko jela iten zan orduan. Eskola etortzen giñanean'e harri koskor bana izaten giñun txoriyai botatzeko no? Ta ezin, soltatu ber izaten zan harri montoian, jelakin peatuta harriya no? Eta ezin libratu izaten zan harri koskor hua.

11.7. Hondartzako giroa

- **Hizlaria(k):** - , Margarita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zurutuza Salsamendi, Idoia
- **Erref:** ZAR-120/004
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:05:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Zurutuza Salsamendi, Idoia
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Hondartza beti izan da polita, eta zer giro izaten zen han azaltzen du. Aberatsak ez zirenak goizean goiz bakarrik joaten ziren hondartzara. Emakume aberats batek herriko umeen alde egindakoa kontatzen du. Itsaso zakarra egon zen egun bat gogoratzen du.

Transkripzioa

Hondartza beti bezela polita izan da. Han egoten ziran kaxetak eta baiño... baiñoko erropak alkilerrian. Aberatsak baiñaderuakin baiñatzen ziran, eta gero kaxetara joaten ziran aldatzera. Gu nola ez giñan aberatsak, neska-kuadrilla joaten giñan goizeko zazpiretan moilla baiñatzera. Toldoak ere aberatsak jartzen zituen, baiño bazan seiñora aberats bat, Unzurrunekua esaten ziyoten. Harek toldo handi bat jartzen zun, zuan, Zarauzko ume danentzat.

Leno Munua ez zan oain bezela, eta hondartzan bajatzen, baja... bajadan, arranpalak ziran. Egun batean itsasoa oso txarra eta hasarria zeon, arranpala iyo, eta goitik behera Ipar kaletik Musika plazaraiño jetsi zan. Nahiko zakar ekarri zuan.

12. Natura

12.1. Iñurritza inguruan itsasoko hegazti ugari

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZAR-037/003
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:03:17. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**
Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena:** Martin arrantzaleak asko izaten ziren, batez ere Iñurritzatik itsasora bitartean. Janari asko zegoen, ixkirak, zizareak, arrainak... Eta hegazti asko sartzen zen jatera: txilipotak, kulixkak...

Transkripzioa

- Eta hau, horrelakoik [...]?
 - Bai, izaten zian hamen. Martin arrantzalia, igual, traduzituta bezela, arrantzalia. Hau argi-oillarra, hori 're normala zan. Eta habek desde luego hamen izaten zan, hamen erliberetan ta ibiltzen zian.
 - Martin arrantzalia.
 - Martin arrantzalia, o arrantzalia.
 - Eta Martin polita?
 - Ez.
 - Ez.
 - Arantzalia gehio, Martin gabe, arrantzalia, o Martin arrantzalia.
 - Arrantzalia.
 - Bai, bitako bat. Bai.
 - Eta honek izaten zian, asko izaten zian?
 - Hau, bai.
 - Bai?
 - Bai. [...], zean, este, ...
 - Iñurritzan, o...
 - Iñurritzatikan itsasoako zea hortan, kaiñaberetan, hor asko izaten zan, asko. Osea, jun ezkeo goizian beti parejan bat harrapatzen ziñun, bai.
 - Han ze izaten zan, e, arraiñak eta izango zian, ez?
 - Arraia beti eoten da hor, uaiñ 'e eongo da. Hor korrokoa ta holako, ta, ixkira ta 're bai. Ta lehen aizarra izaten zan asko.
 - Zein?
 - Aizarra, "lombriz". Hua ateatzen da, arraia 're dana sartzen zian. Gu hara juten giñan. Hua amoako geo, harekin ibiltzeko. Eta han 'e ixkira, amarrai txikiyak, holakua dana. Eta ordun sartzen zan hegaztiya jatea hura, itsasoko zeak, txilipota ta, holako pilla bat, hanka-luze hoitakua.
 - Txilipota zein da?
 - Ba... ze esango nizuke...
 - [...] ikusiko deu, baiña.
 - Bai, igual bai.
 - Bai, ikusiko deu geo.
 - Bueno, geo aillatuko da, akordatzen bazea geo.

12.2. Iñurritzan eta Astin zingirak eta hegazti asko: ahateak, istingorrak, kulixkak, txilipotak

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arregi, Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZAR-037/008
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Natura » Fauna » Hegaztiak

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- **Laburpena:** Eskopeta handiarekin frankolinak, "kulixkak", istingorrak... Trenbidearen atzeko alde guztia zelaia eta zangak ziren, eta hegazti asko izaten zen. Iñurritzan, Sakeletxen, Astin... zingirak zeuden, eta txori asko. Ahateak ere izaten ziren. Goietan oilagorrak, eta behetan istingorrak. Udazkenean eta neguan izaten zen, gehienbat. Eta maiatzean "maietz-kulixkak" (zarapito).

Transkripzioa

- Eskopeta haundiyakin, e, istingorretan o oilagorretan, o?
- Ixtingorrak, oilagorrak, itsasoko zea, ahatiak, kulixkak, frankoliñak, holakuak bai.
- Ta nun izaten zan hemen tokirik onena?
- Danian, erribera dana. Uain ez da. Uain dana itxiya dao, zeak, itxiak iñak dabe, hamen, San Pelaioiko hortatikan, ta. Baiño lehen hori dana zea zan, zelaia.
- Zelaia ta...
- Zangak. Lekutik lekua zangak, zangak, zangak. Zangetan ixtingorra [...]. Hara urta sartzen zan, urertzea. Txakurrakin botatzen ziñun haiek. Baiña arratsalde guztiya pasatzen ziñun hor haien atzetik. Hori ona, osea, polita, ta ehiza earra.
- Eta, ze izaten zan, zelaia izaten zan, zaindutako zelaia, o? Kaiñaberak, o?
- Belarrantzat. Jenealian belarrantzat.
- Belarrantzat.
- Ordun belarra ebaki ta berriz 'e zelaia, ta zelaia belar berde-berdia.
- Ganauantzat.
- Sastrakik eta ezer gabe. Bai, bai, ganauantzat eta eamaten zuen belarra. Eta geo, bakoitzak bere hainbeste metrotik behin apartatzeko izaten zun goitik behera zanga haundi bat, urakin, ta saltatu in behar ziñun. Juxtu ibiltzen ziñan salta iten. Ta hara sartzen zian ixtingorrak, baiño bandaak, e!
- Bai?
- Bai, bai, bai, bai, pillá. Hortikan hasi ta uain fuboleko kanpo berriya Astikua daon horiraiño, hori dana zea zan, zelaia.
- Zelaia ta zingira...
- Zingira leku batzutan, zean, Sakeletxeko bueltan ta, zingira.
- Atzekaldian.
- Bai. Asti baiño pixkat lehentxioko zea hortan, hor zingirak bazian. Hor danian ehiza. Ta ordun, negu aldian egualdiya nolakua zan, hegabera. Hegaberak horrea sartzen zian, baiña, lurra beltz jartzeko lain.
- Bai, e?
- Bai, bai, asko. Ta geo golian 'e bai. Oain gola daon hortan, horrea 're asko ehiza neguan. Eta juniyuan hor ahatiak eta danetik. Oain argiya ta dana pixtua dao, moimento haundiya dao, ta orduan ez da gelditzen, pasa iten da. Hori galdu zan.
- Eta ahatá eta sartzen zian barruraiño, o... Golian geratzen zian, o...
- Ez, erriyuan.
- Erriyuan.
- Hor 'e bai, ta baita goiko erreketan 'e bai, erreka-ahatiak.
- Bai?
- Bai, bai, bai. Oain daben horko errekek lehen zabalo zian, zikiño 're bai, sastraka ta zea ta, hor sartuta, [...] eta. Entretenimentu ona izaten zan larunbat arratsaldeakua, primerakua.

- Larunbatetan izaten zan, o?

- Bai, bai. Larunbat arratsalden guk jai baldin bagiñun, ordun... Nei, gaiñea suertia nun, ni bankuan eoten nitzan, arratsaldian erten, arratsaldia jai sapatua. Beste danak, lan danak lanian, sapatu arratsaldetan lana. Ordun erribera guztiya neretzat. Ni, o beste bi eo hiru, baiña libre. En kanbio, jai goizian, ordun ya jendia pillu. Baiño, ordun lasaixio hartu ta aurea. Baiña neguan, horkua zea zan, [...] ixtingorretan.

- Eta ze izaten zan, neguan izaten zan...

- Bai, bai, bai. Behin udazkenea orduko, usuan pasaak eta bukatu ta zeatu, ta ya ixtingorak. Goitan oillagorak zian bezela, behetan ixtingorak. Eta segun ze giro, ifarreko haizetikan o jotzen bazun, hegabera sartzen zan, hegabera, frankoliñak eta holakuak.

- Frankoliñak.

- Frankoliñak asko. Kulixkak.

- Kulixkak nolakoak? Txikiyak, o...

- Ez, ez, ez. Haundiyak. Bere moko haundiya doblatuakin, bai. Maietz-kulixka gaiñekuak, hortxe nunbait, neguan 'e.

- Maietz kulixkak?

- Maietzian beti, uaiñ 'e bai, tak, etorriko dia.

- Eta izena ere...

- Maietz-kulixka.

- Maietz-kulixka.

- Bai, bai, bai, bai. Igual-igual, kakuakin. Ta hori, aurten 'e, urtero-urtero-urtero-urtero maietzian golian azalduko da bandaa bat. Iten dia kosta jetsi, gora iyo, atzea haruntza jun, atzea etorri, hortxe ibiliko dia hamabost bat egunian.

- Orduan kulixkak dia, maietz-kulixka...

- Maietz-kulixka, udakua, osea, udaberrikua, ke harei...

- Mokua...

- Mokua doblauta. Harei ez ziozun tiroik ingo, zeatik ya bedan zeon, ba. Baiña ikustea bai jun, bandaa altxatzea. Golea jun, golian ai zian lekura, alde batetik altxa, kosta jetsi, kostan altxa, beste alde pasa, hortxe.

- Eta gero beste kulixkak dia, kulixka txikiyak.

- Pasaako hori, haundi, zea, motzo, zea, koxkorro, koxkorro, e. Mokua 're luzia, zuzena, negokua. Haiei eman iten ziyozun.

- Eta izena, kulixka?

- Kulixka.

- Denak. Mari-kulixkak, o?

- Ez, ez.

- Ta gero, frankoliña esan dezu?

- Frankoliña. "Frankolf" erderaz. Berdexka, motakin ta.

- Bai.

- Hua 're asko.

- Eee, hori da, akabana, edo?

- Ez, akaban-zuiya ta akaban-gorriya beste bat da.

- Gero, gero ikusiko ditugu.

- Beste habek zeak dia...

- Jungo gea ikusten, ta.

- Hoiak zian guk ehizian ibiltzen giñun zeak, piezak.

13. Bestelako kontuak

13.1. Baserritarrak kalean

- **Hizlaria(k):** Uria, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Erref:** ZAR-103/009
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:11:29. **Bukatu:** 00:12:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Murua Uria, Imanol
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Garaiak aldatu egin dira. Lehen baserritarrak nabarmen geratzen ziren kalean, baina gaur egun ez hainbeste. Lehen lotsatu egiten ziren baserritarrak izateagatik.

Transkripzioa

- Eta uain ikusten dezue gauzak nahiko aldatu dila. Zerk deitzen dizu geyena atentziyua lehen zuek gaztetan nola bizi ziñaten ta orain jendia nola bizi dan? Gauzak asko aldatu dia, ezta?

- Gu bizi giñan denboatikan dana ziharo aldatu... ziharo aldatu're gaiñea. Ordutikan honea difeentziya, a, nundik hasiko naiz... Basarritarrak nabarmen-nabarmen giñan ordun: kalea etortzen giñan [...]. Gaur kaletarra ta basarritarra ez da notatzen, berdintsua dia: kaleko, basarriko mutillak eta neskak honea torri, ta hemengo danan tartian jarri, ta iñork ez zun ezautuko. Geo, ordun, nahiz jazkera, ta nahiz hitz eiten, ta nahiz zean, nabarmen-nabarmenak giñan. Gu handikan alkarrekin etortzen giñan, hemenguakin ez gendun orduan zeaikan. Batzuk bazian gui kaso iten ziuena, eta [...]; gu hemengo jendiakin lotsatu iten giñan zeatzen, tratatzen eo elkarrekin zeatzen, honea torri arte... honea torri giñanen, geo hementxe hasi giñan danakin berriketan, danakin... hementxe tartian oin, besten tartian.

13.2. Gazteak lehen eta orain

- **Hizlaria(k):** Zubeldia Agirrezabal, Micaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Erref:** ZAR-105/002
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:00:49. **Bukatu:** 00:01:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Sansebastian Mujika, Olatz
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Oraingo gazteek askoz askatasun eta aurrerapen gehiago dute. Txikitan trapu zaharrekin egindako panpinekin jolasten zuten. Kaniketan ere ibiltzen zuten, baina kanikak buztinarekin egiten zituzten.

Transkripzioa

- Oraingo eta lehengoko gazteen artean ba al dago diferentziarik?

- Jesus! Horixen baietz. Oain askoze libertade geyo eukitzen due gaztiak guk gendun baiño. Eta aurrerapen geyo're bai: guk ez gendun eukitzen ez

telebisiyo, ta holako gauzak ez giñun eukitzen guk.
- Txikitan nola jolasten ziñeten?
- Txikitan gu jolasten giñan trapu zar batzuek hartu, barruan jarri zea batzuek, ardiyan illia, burua iteko; ta geo gaiñetikan beste trapu zar batzuekin iten gendun, pues, apaindu. Harekintxe jostatzen giñan gu. Guk ez gendun izaten... Eta kanikak, uf! Kaniketan'e iten gendun, baiña kanikak kristalezkuakin ta oin bezela ez e? Buztiñakin iten giñun borobilka batzuek, eta haiekintxe.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Pakistandik etorria (101-170/002)

Pakistangoa da. Zarautzen bizi da. Goizetan Zumaian egiten du lana eta arratsaldetan Zarautzen, fruta denda banatan.

2. Valentzian bizi izan zen (101-170/004)

Bi urte daramatza Euskal Herrian. Aurretik Valentzian bizi izan zen, 4-5 urtez.

3. Dakizkien hizkuntzak (101-170/005)

Punjabera, urduera eta gaztelania hitz egiten ditu, eta euskarazko hitz batzuk.

4. Urduerari buruz (101-170/006)

Urduerari eta punjabierari buruz. Desberdinak dira.

5. Pakistandar gutxi Zumaian (101-170/007)

Pakistango asko dago Euskal Herrian, eta ezagutu zituen beste toki batzuetan ere bai. Zumaian, berriz, gutxi.

6. Gustukoa du Zumaia eta zumaiairrak (101-170/009)

Zumaiakoa jende ona dela dio, eta herria asko gustatzen zaiola. Mendia eta itsasoa, adibidez.

7. Hitz batzuk dakizki euskaraz (101-170/011)

Euskaraz dakiena dendan ikasi du, lanean. Hitz batzuk esaten ditu euskaraz.

8. Oinarrizko hitz batzuk urdueraz (101-170/013)

Urdueraz oinarrizko hitzak esaten ditu.

9. Hitz bat euskaraz (101-170/015)

"Eskerrik asko" esaten du.

10. Urduera eta arabiera (101-170/017)

Urdueraz eta arabieraz hitz batzuk berdinak dira.

11. Erraz egokitu da (101-170/019)

Ez zaio zaila gertatu hona egokitzea.

12. Sta Marina kalea. (ZAR-001/001)

1932an jaioa Santa Marina kalean. Bera jaio zen urtean egin zuten Santa Marinako ermita. Emaztea ere bertakoa da. Ez da asko aldatu Santa Marina kalea. Eskolan non ibili zen.

13. Eliz-giroko lagunak izan ditu (ZAR-001/005)

Beti eliza giroan ibili izan da eta ez du kuadrilla handirik izan. Eliz-giroko Arrasateko bi lagun zituen kooperatibak sortzen ibili zirenak. Zarautzen tailer handi bat jarri nahi izan zuten, baina lurrengatik diru asko eskatzen zieten. Oso elizkoiak ziren.

14. Gaztetako zaletasunak: billarra, ajedreza eta mendi-irteerak (ZAR-001/006)

Emaztea auzoan ezagutu zuen. Gaztetan billarrean eta ajedrezean jokatzen zuen. Mendira ere asko joaten zen, bai bere kontura eta baita antolatutako bidaietan ere: Azpeitiko Olatzera, Arratera..

15. Gose denborako lapurretak. (ZAR-001/009)

44 urte inguruan errazionamendua eta gosea ziren nagusi. Aldapetan zain egoten ziren kamioietatik janaria lapurtzeko.

16. Zinearen inguruko gorabeherak (ZAR-001/016)

Askok gustatzen zitzaion zinera joatea. Zinea degeneratzen hasi zenean, jesuitek Aspa izeneko produktora sortu zuten.

17. Hoteletako arropa etxeetan garbitzen zen. (ZAR-001/019)

12 urtera arte kadi lanean aritu zen golfean. Gran Hotelera etortzen zirenei ez zieten bertan garbitzen arropa eta etxeetara eramaten zituzten. Bere ama eta izeba ere aritu ziren lan horretan. Aristokratek erabiltzen zituzten arropak.

18. Lehengo bizimoduaren eta oraingoaren arteko aldea (ZAR-001/020)

Bizimodua nola aldatu den komentatzen du. Amak 6 seme-alaba eta lan izugarria izaten zuen eta hala ere kantuan ibiltzen zen. Bizimodu gogorra izan arren zoriontsuak ziren.

19. Lehenagoko medikuak familiengandik hurbilagokoak (ZAR-001/022)

Don Pako medikua. Orduko medikuek mediku lanez gain bestelakoak ere egin behar izaten zituzten. Orduko eta oraingo medikuen arteko aldea. Familiarekin erlazio hobea izaten zuten.

20. Aroztegian eta jertseak egiteko tailerrean lanean (ZAR-001/025)

Bere emazteak aitarek tailerrean (aroztegian) lan egiten zuen hasieran. Gerora jertseak egiten zituzten tailerrean aritu zen lanean.

21. Garbitokietako arazoak eta txutxu-mutxuak (ZAR-001/026)

Zalbideko garbitokia. Bere ama ere hara joaten zen. Hara eraman aurretik etxean txukuntzen zuten arropa zikin guztiak han ez uztearren. Bertara biltzen ziren emakumeak nolakoak ziren: batzuk txukunagoak, narratsagoak. Hoteletakoak joaten ziren asko.

22. Gerra hasierako pentsakera (ZAR-001/027)

Gerra bukaera nola gogoratzen duen. 15 urtera arte uste izan zuen Franco salbatzailea zela, gerora enteratu zirelako alemanek nolakoak egin zituzten. Irakaslea ere falangista zuen eta alemaniarrek salbatzaileak zirela uste zuen. Zarautzera etorri ziren alemanak nola gogoratzen dituen. Bere senide batzuk boluntario joan ziren reketeekin.

23. Eliza eta Franco (ZAR-001/029)

Eliza ere Francoren aldekoa zen eta eskolan ere hala irakasten zietenenez, berandu konturatu zen ze gauza egiten zituzten. Gerora hasi zen euskararen inguruko mugimendua. Orduko gazte gehienak preso egondakoak dira.

24. Zirkulo karlista (ZAR-001/032)

Zirkulu karlista non zegoen. Frontoia zuen atzealdean eta zinea eta antzokia ere bazituen.

25. Haurtzaroa kalean jolasean (ZAR-002/002)

1924. urtean Zarauzko Kale Nagusian jaio zen Agustin. Kalean jolasten pasa zuen haurtzaroa. Orduko jolasak dakartza gogora. 32 urterekin Ameriketara joan zen eta 36 urte egin zituen bertan

26. Amona-saltoka (ZAR-002/003)

Amona-saltoan plazan jolasten zutela kontatzen du. Bi talde behar izaten ziren. Jolasari buruzko azalpenak

27. Zarauzko azokan hortzak apurtu (ZAR-002/004)

Eguraldi txarra zenean, Zarauzko azokan jolasten zuten. Garai hartako haur gehienek hortzen bat bertako harmailetan hautsiko zuela kontatzen du.

28. Errespetua zor zitzaien helduei (ZAR-002/007)

Gurdi artean, kalean jolasten ibiltzen ziren haurtzaroan. Orduko umeei edozeinek, nahiz eta ezezaguna izan, kargu hartuz gero, errespetuz men egiten zutela kontatzen du.

29. Galtza motzetan baita neguan ere (ZAR-002/008)

Galtza motzak erabiltzen zituzten umetan, baita neguan ere. Orduan ez zegoen gaur bezalako ez arropa ezta oinetakorik ere. Hotzak eraginda ospelak ateratzea oso ohikoa zen.

30. Arroniztik olio estraperloan (ZAR-002/011)

Arroniztik olio ekartzen zuen Antonioren aitak estraperloan. Guardia Zibilarekin erlazionatutako anekdota bat kontatzen du

31. Gerraosteko gosea (ZAR-002/012)

Gerraostean, nahiz eta dirua eduki, gosea pasa zutela gogoratzen dute. Babarrunen zomorroak, batata eta algarrobo-lekak dituzte hizpide.

32. Ikasketak euskaraz edo gazteleraz egiteko aukera (ZAR-002/017)

Gerra aurretik, La Sallera joaten ziren haurren gurasoei seme-alaben ikasketak euskaraz edo gazteleraz egiteko aukera ematen zitzaien.

33. Gerra zibilaren eraginez Zarautzik Southamptonera (ZAR-002/018)

Gerra hasi zenean, frontean aurrera joan zen Iñaki Muruaren aita. Handik hiru hilabetera amak herria utzi behar izan zuen. Iñaki eta honen anaia zaharrena, amarekin batera, frontea pasa eta Gernikaraino iritsi ziren. Bonbardaketa ostean Southampton-era bidali zituzten Habana itsasontzian. Hamabi urterekin itzuli zen Zarautzera.

34. Gerraosteko gosea (ZAR-002/019)

Gerraosteko egoera gogorrari buruz ari da Iñaki. Ohikoa ez izan arren, etxetik kanpora egin behar izan zuen lana amak.

35. "Gerrako umeekin" Southamptonera (ZAR-002/023)

Hamaika urte zituen gerra hasi zenean. Bilbora joan zen sendi osoa baina, 1937. urteko maiatzaren 21ean Ingalaterrara bidali zuten Habana itsasontzian beste 4.000 ume ingururekin batera. "Gerrako umeak" ziren. Kanpamentu erraldoi bat izan zen lehenengo bizilekua. Southamptonen zegoen moja-etxe batean egin zuen urte bete ondoren. Frantzia elkartu zen atzera gurasoekin. Baionako eskola garaia gogoan du. Euskal Herrira itzulera zaila izan zen. Etxerik ez zutenez, herri desberdinetan sakabanatuta bizi behar izan ziren hasiera batean.

36. Lau ikastetxe zeuden zarautzen (ZAR-002/024)

Lau ikastetxe zeuden Zarautzen. "Hegozabalena" edo Urtsulatarrena zen horietako bat. Haiek erabiltzen zuten buruko handi eta zuriek kaioak ziruditela kontatzen dute barre artean.

37. "Munoazpira joanez gero, hotza ez dena bero!" (ZAR-002/026)

Heziketa mistorik ez zegoen garai hartan. Bekatuaren mehatxuarekin bizi ziren neska-mutilak.

38. Maisu-maistren zigorrak (ZAR-002/027)

Garai hartako maisu-maistrek zigor fisikoak ezartzen zituztela kontatzen dute. "Otsoa" ezizena zuen maisu bat dakarte gogora. Zakarrak izan arren, maisu onak zirela aitortzen dute.

39. Mendigoizaleen abestia (ZAR-002/028)

Gaur egun Athletic futbol taldearen ereserkiaren doinua zuen mendigoizaleen kanta irakatsi zien 30. hamarkadan. Honela dio: "«Goizetik altza gaztiak, sasoi dezuten guztiak, jai eder hontan bildu zarrak eta gaztiak».

40. Zarauzko zinemak (ZAR-002/029)

Eskolatik piper egiteko aukerarik ez zuten izaten. Eskolaz gainera, hainbat elizkizunetan parte hartu behar izaten zuten. Don Melitonen sermoi luzeen erruz zinemara berandu iristen zirela kontatzen dute. Modelo zinemako sarrerak 25 zentimo balio zuen.

41. Soldaduskan ogi faltarik ez (ZAR-002/036)

Latza izan zen gerraosteko bizimodua. Jaki eskasia handia zegoen. Afrikan suertatu zitzaion soldaduska egitea. Etxean ez bezala, ogia eta dirua eskura izan zituen han egon zen bitartean.

42. Gerraosteko itzulera gogorra (ZAR-003/012)

Gerra aurrean jende ugari kanpoan zegoen, atzerrian edo "Batallón de Trabajadores" delakoetan. Urteak behar izan zituzten herrira itzultzeko; itzultzean ere lana lortzea zen lehenengo kontua, eta hori ere zaila. Gerra ostean kultur ekitaldiak antolatzen jardun zuten gehienak gazteak ziren, berriak.

43. 'Irrintzi' taldea, 1953tik dantzak eta antzerkiak antolatzen (ZAR-003/013)

1953an Irrintzi taldea sortu zuten. Lehenago ere taldean lan eginda, baina ofiziala 1953an. Hasieran, txistuarekin; gero, dantzariak; eta, ondoren, antzerkia. Zarautzen hasi ziren, baina kanpoan ekitaldi ugari egin zituzten: Donostia, Zumaian, Azpeitian...

44. Hiru hilabetez Martuteneko espetxean (ZAR-003/014)

1964-1965 inguruan taldeko gehienek Martutenen amaitu zuten, gaizki ulertu baten ondorioz, eta sasoi batean arazoak izan zituzten, berriro zailtasunak baimenak lortzeko, astean behin kuartelera joan behar... Batzuek hiru hilabete, beste batzuk urtebete edo gehiago.

45. Zarautzen txistuak indar handia izan du (ZAR-003/015)

Zarautzen txistuak indar handia izan du beti. Beraiek 60 txistulari izatera iritsi ziren. Dantzak ere izan du. Txistulari bandan zegoen bitartean, igandetan goizero jo behar izaten zuten, eta arratsaldetan, musikaren atsedendietan ere bai. Gainera, noizean behin, kontzertua kioskoan. Bestela, auzoetan, erromerietan... eta mendira joaten ziren bakoitzean. Baita beste jai batzuetan ere, Getarian, eta abarretan. Zarauzko ekimenaren ondoren, Getarian, Aian eta Orion ere dantza-taldeak sortzea lortu zuten.

46. Gerraosteko lehen urteetan gaizki ikusita zegoen dantza soltean egitea (ZAR-003/018)

Dantza sueltoan ez zen egiten. Urte batzuetan galdu egin zen (1940-1955 inguruan). Gainera, ez zegoen ondo ikusia. Pixkanaka hasi behar izan zuten. Gurasoen sasoiak dantza asko egiten zen, baina belaunaldi oso batek galdu egin zuen ohitura.

47. Emakumeek beraien artean beti erdaraz (ZAR-003/019)

Euskaraz egitea ere sasoi batean zaila zen, baina beraien kuadrillan beti egin izan dute euskaraz. Emakumeen artean beti gaztelaniaz hitz egiteko joera edo ohitura izan da Zarautzen. Gerra aurrean ez, baina gerraz gero, horixe izan da

arruntena. Gizonezkoekin euskaraz, baina emakumeek beraien artean erdaraz.

48. 'Basarri', Agirre eta Lazkano bertsolariak (ZAR-003/020)

Kabia elkartean bertan Basarri zegoen, eta beti izan zuten bere laguntza. Agirre eta Lazkano ere beraiekin hasi ziren bertsotan, kuadrillakoak ziren. Edozein ekitaldirako bertsolariren bat behar zutenean, beraiei deitzen zieten. Eskolarik, baina, ez zegoen, eta Zarautzen bertan bertsolaririk ere ez. Sekula ez da zaletasun handiegirik izan.

49. 'Basarri' bertsolaria (ZAR-003/021)

Basarri jatorra zen. Edozein ekitaldirako deitzen zioten. Ez zen langile porrokatua, ez zion lanak azpian harrapatuko. Plazaz plaza ibiltzen zen, gehienbat kostaldean. Manuel Olaizola Uztapide eta Iñaki Eizmendi Basarri izan ziren garai luze batean jai guztietan izaten ziren bertsolariak. Anderren taldean bertsolariren bat edo norbait behar zuten bakoitzean, Basarri deitzen zioten, eta beti zegoen laguntzeko prest.

50. Santa Ageda eskea. Gerran galdutako tradizioa berreskuratzen (ZAR-003/022)

Gazteak zirela Santa Ageda eskean ibiltzen ziren. Gerra aurretik egiten zen, baina beraiek hutsetik hasi ziren, tradizioa berreskuratzeko. Goizean goiz irteten, eta gero kalean, txistulariekin eta bertsolariekin. Gero baserri-inguruan taldeak agertzen hasi ziren, eta beraiek kalean bakarrik kantatzen zuten, arratsaldeko 7etatik aurrera. Diru gutxi biltzen zen, eta gainera bertsolariei ordaindu behar.

51. San Joan suak (ZAR-003/024)

San Juan suak antolatzen ere hasi ziren. Aurrena, sua egin eta txistua jo. Ondoren dantzak egiten ere hasi ziren.

52. Hondartzako futbol partiduak 1947 inguruan hasi ziren (ZAR-003/026)

Ander gaztea zela hasi ziren antolatzen hondartzako futbol partiduak. Hasieran ez zegoen organizazio handiegirik; gerora Club Deportivoak hartu zuen, inguruko herrietatik ere jendea etortzen hasi zen, eta playeroek indar handia izan zuten. Lehen ez zegoen gaur egungo konturik: erdiak zuriak eta erdiak urdinak. Eta baloiak, hasten zenetik eta bukatu bitartean, bi kilo gehiago hartzen zituen.

53. 1946 inguruan hasi ziren trainerillak Zarautzen (ZAR-003/027)

Arraunean ere gaztetan hasi zen, 1946-1947 inguruan, Anderrek 13-14 urte zituenean. Trainerillak jarri zituzten, uda Zarautzen pasatzen zuen madrildar baten ekimenez, Rocamora izeneko baten ekimenez. Hasieran Zarautzen bakarrik egiten zen. Arraunak, baina, ez du Zarautzen indar handirik izan. Aitenetxeko txabolan izaten ziren trainerillak. Zarauzko moila txarra da trainerillekin irteteko; eguraldi txarra zela, eta askotan geratzen ziren entrenatu gabe. Errekan entrenatu izan zuten batzuetan.

54. Familia aberatsak Zarautzen uda pasatzen (ZAR-003/028)

Turismoa beti izan dute Zarautzen. Gerra aurretik ere bazegoen, nahiz eta diferentea izan. Orduan ez zegoen diferentzia handirik jendearen artean; kanpotarrak ondo integratzen ziren herrian. 40-50 familia izango ziren, baina uda guztia pasatzen zutenak eta dirudunak. Anderrek banketxean egin zuen lan, eta han ezagutu zituen gehienak. Familia handiak etortzen ziren, kasu batzuetan 60 lagun ere elkartzen ziren egunero bazkaltzen, familiakoak eta zerbitzariak tarteko.

55. Zarautzen auto gutxi, eta bizikleta asko (ZAR-003/029)

Lehenengo kotxea Don Evaristok eta botikariak izan zituzten. Taxiak ere bai. Zarautzen bizikleta zen normalena. Bizikleta tailerrak jartzen zuen: BH edo Orbearekin kontratua egin, eta horiek bitartez lortzen zuten bizikleta. Bizikleten alkilerria ere izaten zen (Bastida eta Lasa), orduka. Bizikletan ikasteko Estaziora joaten ziren, Kondeak edo besteren batek han utzitako bizikletarekin.

56. Mendira taldean beti: erromeriak, musika, jaiak... (ZAR-003/030)

Mendirako zaletasun handia zegoen. Hasiera batean organizatu gabe ("joango gaituk?"). Gero, taldeak sortzen hasi ziren, eta herri ezberdinetakoak biltzen. Anderrek goizeko 9etan txistua jo behar zuen jaiero, baina moldatzen ziren mendira joateko. Giro ederra izaten zen, festa, erromeria, txistua... eta noizean noizean Ikurrina jarri. Beraien gurasoek ez zuten ohitura hori. Inguruko jende asko ezagutu zuten horrela, eta herri guztietako jendearekin elkartzen ziren. Denekin harreman ona izaten zuten.

57. Musika egiteko bideak (ZAR-003/031)

Musikako partitura guztiak kanpotik edo Txistulari aldizkaritik ekartzen zituzten. Handik atera eta eskuz kopiaitzen zituzten. Askotan entzunda ikasten zituzten dantzak.

58. "Matraka ederra" txistuarekin (ZAR-003/032)

Beraien etxean beti izan da txistua, eta auzoko guztiak aspertu dituzte. Egun guztian, egunero-egunero, txistuko klaseak. Eta normalean pieza bakarra jotzen, aspertu arte. "Matraka ederra!"

59. Kanturako ohitura handia (ZAR-003/033)

Etxazpietan txakolindegia izaten ziren. Txisturik ez zen jotzen, baina kantuan asko. Ohitura zegoen kalean eta edozein tabernatan kantatzeko. Kantatu, eta ondo kantatu. Normalean euskarazko kantak abesten ziren.

60. Zarauzko sagardotegiak eta txakolindegia (ZAR-003/035)

Sagardotegi asko zegoen Zarautzen: Royalti azpikoa, Zabaleginekoa, Mirandanekoa, Zaharren egoitza atzean, Xaxolanekoa, Manuel Marinekoa eta Sanpelayokoa. Sagardo asko edaten zen. Etxean eskatzetan ere izaten zen. Sagardotegiak bakoitzak bere dolarea izaten zuen. Sardinak izaten zituzten, eta norberak bat hartu eta beste bat jarri parrillan. Bakoitzak bere kontua eramaten zuen, sardinena eta basokadena, eta amaieran dena ordaindu.

Motza izaten zen, pare bat hileko kontua. Txakolindegia ere bazeuden, eta antzera izaten zen, baina gutxiago izaten ziren.

61. Lan-baldintza gogorak zireneko garaia (ZAR-003/036)

Tailerretan lana handitzen hasi zenean ordu estrak hasi ziren. Gogorra zen. Konpromiso bat hartuz gero, bete egin behar zen. Bera sasoi batean hiru lanetan egon zen: enpresa bateko kontabilitatea eramaten, banketxean lanean, eta denda bateko kontuak eramaten.

62. Gazte-gaztetatik txibitan hasi zen (ZAR-003/037)

Txalupa txikitatik izan du etxean, aitarekin erdibana. Iluntzean irten txibitara, 12-14 urterekin, eta ilunduta itzuli. Lortzen zuten dirua erdibana aitarekin. Aitak Getariara saltzen zituen, baina beste zarauztar askok azokan saltzen zituzten. Aparejuak eta txalupak asko aldatu dira, batez ere txalupak. Lehen arraunean joaten ziren; egurrezkoak, bertan egindako txalupak.

63. Zarautz eta Getaria bitarteari Arraldea deitzen zaio (ZAR-003/038)

Zarauztikan Getariarako guztiari Arralde deitzen zaio. Aitanetxe parekoari Arralde txiki deitzen zaio. Lehen bidea barrurago zihoan, eta oraingo bidea berria da, zeharo aldatu da inguru guztia.

64. Getariatik Zarautzera astoz edo autobusez (ZAR-003/039)

Getaria eta Zarautz artean astoz egiten zen. Gero, autobusa ere jarri zuten. Orain modan dago oinez joatea, baina lehen ez.

65. Zarauzko euskara eta inguruko herrietakoa, ezberdintasunak (ZAR-003/041)

Zarauzko euskara eta inguruko herrietakoa, ezberdintasunak, "ziharo diferentia". Orain Getariakoak eskolara Zarautzera etortzen dira eta aldatu egin da, baina lehen oso deferenteak ziren. Aia eta oriokoek antzekoa, baina getariarrek azkar eta ezberdin. Inoiz gertatu zaio Getariara joan eta ulertu ez.

66. Hika eta zuka tratamendua. Non, noiz eta norekin. (ZAR-003/042)

Hika eta zuka tratamendua. Non, noiz eta norekin. Etxean beti zuka egin izan du, eta ezezagunekin ere bai. Lagunartean beti hika. Anaien artean ere zuka egin izan dute, eta semeei ere zuka egin izan die. Aitak ere zuka egiten zion. Amonari berorika egiten zion.

67. Gorrien erasoak Vista Alegreko markesei (ZAR-004/005)

Gorriek Vista Alegreko palazioa hartu zuten eta liburuak erre. Bertako familiari gertatukoa kontatzen du. Bertako markesekin harremana zuten hauen etxea euren mahastitik gertu zegoelako.

68. Vista Alegreko markesak (ZAR-004/006)

Vista-Alegreko markesa. Neskameak izaten zituzten. Inbernaderoak ere bazituzten. Pobreei lana ematearren zenbait eraikin eginarazten zituzten. Oso elizkoiak ziren.

69. Sta Barbara ingurua (ZAR-004/008)

Sta Barbaran asko aldatzen ziren familiak. Getari alderako inguruari "Aldarria" deitzen zioten. Ingurua nolakoa zen. Baserriko bizimodu gogorra.

70. Baserriko bizimodu gogorra (ZAR-004/009)

Baserriko lanak: 4-5 behi eta baratzeko lanak: porruak, babarruna.. Bizimodu zaila zen baserrikoa, baina kalean ere dirurik ez eta baserrira joaten ziren morroi edo neskame lanera. Garai txarrak ere pasatu zituzten: rekisak. Ogirik ez eta garagarra jaten zuten haren partez.

71. Jatekoaren inguruko kontuak (ZAR-004/011)

Zer jaten zen: olagarro-zopa, baratzxuri-zopa, txerrikia.. Medikua etorri zeneko pasadizoa kontatzen du. Bere aurrekoei entzundako janariaren inguruko kontuak. Gaur egungo zenbait herrialdetako egoera.

72. Baserrietako aurrerapenik eza (ZAR-004/012)

Alleme baserrira etorri zenean ez zegoen argirik eta kinkearekin ibiltzen ziren. Gerora argia jarri zutenean, behar baino indar gehiago jarritakoan zarata ateratzen zuen.

73. Kalera mezara jaistean gertatutako pasadizoa (ZAR-004/023)

Santa Barbaran ez zuten lagunarterik, lanean ibiltzen zirelako. Igandetan kalera jaisten ziren mezetara. Biderako oinetakoak eraman eta kalean aldatu egiten zituzten. Auzoko bati gertatutakoa.

74. Berdura-plazako kontuak. (ZAR-004/028)

Plazako erosleek beti regateatzen omen zuten. Merke saltzen ziren produktuak. Hasieran lehenengo joaten zenak hartzen zuen postua, baina gerora postu fijoak izaten zituzten plazan.

75. Ogia irinaren truke erosten zuten. (ZAR-004/029)

Ogia kalean erosten zuten irinaren truke.

76. Gerra garaiko eta osteko bizipenak (ZAR-004/032)

Gerra garaian, udaletxea bota egin zuten eta bertako paper guztiak erre. Plaza nola aldatu den. Gorriek Itziarren apaizari belarria moztu omen zioten. Alabak kontatzen du txikia zenean estraperloa pasatzeko erabiltzen zutela bera.

77. Etxeko jeneroa ezkutatu beharra (ZAR-004/033)

Gerra denboran ez ziren plazara etortzen, etxeko jeneroa ere kendu egiten zieten eta. Etxea miatzera etortzen zitzaizkien eta dena ezkutatu egin behar izaten zuten. Errazionamendua. Beste gizon baten inguruko kontuak.

78. Eskolako kontuak; lehenengo hitza erdaraz (ZAR-004/037)

Mutrikuko umetako kontuak. 10 urterekin eskolara joaten zen. Nola ikasi zuen lehenengo hitza erdaraz. Ordubeteko bidea zuen eskolara.

79. Biografia; jatorria (ZAR-005/002)

1911an jaio zen Elgoibarren eta 11 urterekin familia Zarutzera etorri zen aita hil ostean. Lehenbizi anaia etorri zen arotzeria ikastera. Familia lehenbizi Azpeitira joan zen bizitzera eta gero Zarautzera. Eskolan non ibili zen.

80. Eskolan dena erdaraz (ZAR-005/004)

Piper egiten zuten eskolatik. 300 lagunetik gora ibili ziren batera. Serafin Cuadrado zen irakaslea. Erdaraz ematen zuen dena. 13 urterekin Arrutinean sartu zen lanean.

81. Loiola batailoian ibili zeneko kontuak (ZAR-005/005)

Gerran, "Loiola" batailoian ibili zen. Buruak "ertzain" lanak egiteko izendatu zituen zenbait lagun. 4 konpainia zeuden eta bat mendian egoten zen. Bonbardaketa baten inguruko kontuak.

82. Nondik nora ibili zen gerran; Bilbo ingurua (ZAR-005/006)

Nondik nora ibili zen gerran. Behin Camsara bidali zituzten Santurtzira gasolinatara Santanderrera eramateko. Bilbo hartu zuteneko kontuak. Gorriek Zubiri familia harrapatu nahi zuten, eta txaletak erre zituzten. Anarkisten konpainiak.

83. Nondik nora ibili zen gerran; italiarrekin zuten harremana (ZAR-005/007)

Italiarrak etorri zireneko kontuak. Sarjentu batek pistola aldatu nahi izan zion bere errebolberraren truke. Santurtzitik pasatzen ari zirela guardia zibilek harrapatu zituzten. Botak eta bestelakoak baserritar bati eman zizkion.

84. Nondik nora ibili zen gerran; Gasteiz, Murgia (ZAR-005/008)

Gasteizera joan ziren. Lagun batek andregaia eta arreba zeuzkan "Hotel Fronton"en eta bisitatu egin zituzten. Handik Murgiara joan ziren. Bertako komentuan apaizak eman zien sermoia. Diru apur bat bazuen eta ogia eta sardinak jan zituen. Lurrean lo egiten zuten ilaran jarrita.

85. Gerran harrapatu ostean 12 urteko kartzela-zigorra (ZAR-005/009)

Murgian, jendea aukeratu eta sakabanatu egin zituzten. Bera Gasteizera bidali zuten. Geroago, Bilbon egon zen. Epaketak hasi ziren. Gizon bati heriotza-zigorra eman zioten euskalduna zela esatearren. Berak espainiarra zela esan behar izan zuen; eta, hala ere, 12 urte eta egun bat eman zizkioten.

86. Astorgan preso egon zeneko kontuak (ZAR-005/010)

Astorgara bidali zuten kontzentrazio-esparru gisako batera. 5.000 lagun bildu ziren bertan. 13 gradu zero azpitik izaten zituzten eta arropa askorik ez. Kapilau ona tokatu zitzaien eta, denentzako koltxoirik ez zegoenez, lastoa eramane zuten. Gero, ganadua eramateko, bagoi batzuetan Madrilera eramane zituzten "obreros seleccionados" zirela eta.

87. Alcalá de Henaresera lanera eramán zituzteneko kontuak (ZAR-005/011)

Madrilera eramán zituzteneko kontuak. Alcalá de Henaresen gazteentzat kartzela zegoen eta tailerrak. Nahastuta, penalean sartu ziren eta presoak balira bezala tratatu zituzten.

88. Alcalá de Henareseko lanak: karabelak egitea (ZAR-005/013)

Bera tapizgile lanetan jarri zuten. Zer lan egiten zituzten Alcalán. Gerora, karabelak egiten jarri zituzten. Lehenbiziko egin zuten karabela Francoren zako oparia izan zen.

89. Anaia Afrikan soldadu zegoela hil zitzaion (ZAR-005/018)

Bera ezpata-dantzari gisa ere ibili zen, baina anaiaren lutoagatik utzi zuen. Anaia Afrikan soldadu zegoela hil zen peritonitisarekin. Ezaguna zen herrian eta marmolezko panteoia egin zioten.

90. Zarauzko Euskal jaiaren antzintasuna (ZAR-005/019)

Orduko Euskal Jaiak sanoagoak izaten ziren, baina aristokratek asko edaten zuten. Bere ama gazte zela Elgoibartik oinez joan zen Zarautzeraino neska kuadrilla batekin.

91. Euskaraz/erdaraz nork hitz egiten zuen (ZAR-005/025)

Zarautzen beti hitz egin izan da euskaraz. Esaera: "bi gona juntatuz gero erdaraz". Askok abesten zen bai sagardotegietan eta bai bestela. Emakumeak leihoak irekita entzuten egoten ziren.

92. Sagardotegiak non zeuden (ZAR-005/026)

9 sagardotegi ezagutu ditu irekita Zarautzen. Non zeuden. Ardorik ez zuten edaten, beti sagardoa.

93. Sagardotegietako janaria (ZAR-005/027)

Jan ere ondo egiten zen sagardotegietan, batez ere txitxarroa, arraina merke zegoen-eta. Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen.

94. Kuadrillako giroa; igandetako denbora-pasak (ZAR-005/028)

Gerra garaian gosea pasatu zuten. Igandetan denak trajearekin janzten ziren. Txaketa poltsikoak kakahuetz bete eta zinera joaten ziren. Gerora estraperloa hasi zen. Neska kontuekin hasi zirenekoa. Kuadrillan ezkontzen zenari bazkaria ordaintzen zioten.

95. Ezkontzen zenari arreoak nola egiten zitzaion (ZAR-005/029)

Trinidad egunean ezagutu zuen emaztea. Ezkontzen zenari arreoak nola egiten zitzaion. Altzariak egiten zitzaizkien ezkontuei. Gero pregoiak egoten ziren.

96. Alcalá de Henareseko burua hil zeneko kontuak (ZAR-005/030)

Gerratik itzultzean, Zarautz aldatuta ikusi zuen. Alcala de Henaresen jesuita bat zuten buru, ingeniaria. Burua hil zenean, hainbat euskaldun eraman zituzten autobusez hiletetara Madrilera.

97. Aske utzi zuteneko kontuak (ZAR-005/031)

Gipuzkoako Eusko langileetako nagusia zegoen Madrilan eta hark esaten zien miloi bat preso euskaldun zeudela. Epaiketen ostean, igandero GUardia Zibiletan aurkeztu behar zen eta kanpora ezin zen atera. Bi urte egin zituen horrela. Gero libre utzi zuten.

98. Herrira itzultzean tapizero lanetan aritu zen (ZAR-005/033)

Zarautzera itzuli zenean tapizero ibili zen. Lehenbizi Arrutinean aritu zen lanean. Bera etxera iristerako bere lehengo nagusia bere zain zeukan etxean.

99. Gerraosteko pizkundea industrian (ZAR-005/034)

Industria sortzen zegoen bera herrira itzuli zenean: textilak hiru-lau, jostailu-denda, Arrutinekoa, Alfa... Arrutinetik erretiratu zen lehenbiziko gizona. Arrutinean "Eguzki" altzariak egiten ziren. Bi herritarrek denuntzia jarri zuten erretiratutako gizona lanean zebilelako.

100. 1932 inguruko industriako krisia (ZAR-005/035)

1932 inguruan krisia egon zen industrian eta 3 egunetan jarri zituzten lanean. Altzariak egiten zituzten baina ez ziren saltzen. Gero pixkanaka egoera hobetuz joan zen. Herriko jendea lana ematearren egin ziren herri-lanak.

101. Ezkioko Ama Birjina ikustera joan zireneko kontuak (ZAR-005/039)

Ezkioko Ama Birjinaren inguruko kontuak. Ama Birjina agertuko zela egun hartan eta tailerrean jai hartuta Ezkiora joan ziren bizikletan.

102. Eskolako kontuak; irakasle erdaldunak (ZAR-006/003)

Eskola publikoetako irakasleak erdaldunak izaten ziren, baina fraideetan irakasle abertzalea izan zuten. Mutilak bakarrik egoten ziren bertan. Ez zen erraza piper egitea.

103. Don Isidro Otaegi irakaslea (ZAR-006/004)

Irakaslea: don Isidro Otaegi. Lan handia egiten zuen gazteentzat. Ezer ez zegoen tokian frontoia eginarazi zien. Dirua zuen jendea eskatu eta gauza asko antolatzen zituen: txirrindulari lasterketak, adibidez. Gerra garaian ihes egin behar izan zuen.

104. Gaztetan gurasoei lagundu behar lanean (ZAR-006/005)

Etxeko zaharrena zenez, eskolatik ateratakoan gurasoei laguntzera joan behar izaten zen, tailerra zuten eta. Merienda hartu eta plazara joaten zen tximiloak hartuta.

105. Gerra garaian gose handia pasa zuten (ZAR-006/010)

15 urte zituen gerra hasi zenean. Gerra garaia nola bizi izan zuen. Justu-justu libratu zen gerrara joatek. Gose handia pasatu zuten. Ahal zena egiten zuten eta inoiz baserritarrei ogia lapurtu ere bai.

106. Gaztetako lehenengo lanbideak (ZAR-006/011)

Aitak ebanisteria zeukan. Non ibili zen lanean. 14 urterekin egiten zuen lana nolakoa zen. 16 urterekin enkargatu egin zuten karamelu-fabrika. Fabrika non zegoen.

107. Igande arratsaldeetan joaten ziren sagardotegira (ZAR-006/014)

Sardina zaharrak eraman eta parrillan erretzen zituzten sagardotegietan. Igande arratsaldeetan joaten ziren sagardotegira, astean zehar berandura arte lan egiten zen eta. Kantuan ere egiten zuten. Bizimodu alaiagoa zen ordukoa.

108. Emakumerik ez zen sartzen tabernetan (ZAR-006/015)

Emakumezkorik ez zen joaten sagardotegietara eta tabernetara ere ez. Elkarrekin ere hasieran gizonak bakarrik sartzen ziren.

109. Diru-kontuak: pezeta batekin egiten zuten festa (ZAR-006/016)

Sagardo baso batek txakur txiki bat balio zuen. Orduko dirua. Duroa zeukana aberatsa zen. Pezeta batekin egiten zuten festa.

110. Igandetako apaintzeko dirurik ez (ZAR-006/018)

Igandetako apaintzea: larunbatean alkandora kendu eta garbitu eta igandean berriz jantzi. Aitaren jornalarekin bakarrik ez zitzaie askorako iristen. Oinetakoak. Anai-arrebak adin ezberdintasun gutxiok.

111. Hondartzan gehienak kanpotarrak (ZAR-006/019)

6 urterako bazekien igerian. Herritar gutxi izaten zen hondartzan, gehienak kanpotarrak: Valladolid, Madril.. Nola jantzen ziren emakumeak. Aberatsak albornozaekin joaten ziren urtereraino, eta aldatzeko kasetak izaten zituzten. Bañeruak.

112. Igandero musika izaten zen eta udan ia egunero (ZAR-006/023)

Gazteek ondo zekiten dantzan orduan. Igandetako bakarrik egoten zen musika. Udan sarriago: uztailan bi egunetik behin eta abuztuaren egunero. 11 urterekin "botones" lana egiten zuen hotelean eta handik ateratakoan plazara joaten zen.

113. Neskatan nola egiten zuten (ZAR-006/024)

Neskatan. San Sebastianetan Urdanetara joan eta neska-laguntzaiek egiten zituzten. Gizonak izaten ziren dantza eskatzen zutenak. Inguruetara ere joaten ziren erromerietara: Meagasea, Getariara.. Zer moduz konpontzen ziren getariarrekin.

114. Zinean plikula "pikante"-ren bat ikusiz gero, eskolan zigortuta.u (ZAR-006/028)

Zineak non zeuden. 3 txakur txiki balio zituen. Antonianoetako zinera joaten ziren gehien. Cantinflasenak, bakeroenak edo mexikarrenak izaten ziren pelikulak. Eskolan "vale de disciplina" izaten zituzten eta behar ez zen pelikularen bat ikusten zutenean kendu egiten zizkieten. Bale asko zituztenean jai ematen zieten.

115. Orduko diziiplina zorrotza: zinearekin lotutako gertakizuna (ZAR-006/029)

Diziiplina askoz zorrotzagoa zuten orduan. Eskolan errespetu handia zegoen irakasleekiko. Behin maisu batek bi ikasle kalera bota zituen. Haien senitartekoak kargu hartzera joan ziren, baina irakasleek indar handia zuten.

116. Medikuak etxez etxe ibiltzen ziren (ZAR-006/032)

Gerra aurretik mediku bat baino gehiago zegoen herrian: Zinkunegi, don Leandro eta don Pako. Mediku partikularrak ziren, urtean hainbeste ordaintzen zitzairen. Farmaziak non zeuden.

117. Zirkulo karlistan gertatutako pasadizoa (ZAR-006/035)

Fraideen aurrean, zirkulu karlista egon zen. Eraikin handia zen; frontoia zuen atzeko aldean, billarra.. Behin zirkulura pixka bat "epelduta" joan; eta, don Karlosi burla eginez, txapela buelta emanda, barruko forru gorria bistan zela, jantzi egin zuten. Frontetik etorritako karlistak joan zitzaizkien gero kargu hartzera.

118. Erljioaren indarra Zarautzen (ZAR-006/037)

Zarautzen ia denak fededunak ziren orduan. Ama Birjinaren bederatziurrenean eliza goraino beteta egoten zen. Aste Santuko debekuak. Arratsaldea libre izaten zuten eta mozkorrik handienak orduantxe harrapatzen zituzten.

119. Zer jaten zuten (ZAR-006/038)

Gerra aurretik haragi gutxi jaten zuten. Babarrunak, garbantzuak, lentejak, makailoa edo antxoa jaten zuten gehienetan. Gosaltzeko esnea. Baserritarrak ibiltzen ziren etxez etxe esnea saltzen.

120. Arraina iritsi bezain laster kalean salgai (ZAR-006/041)

Berdura plazan baserritarrak egoten ziren, baina bazeuden bi harategi eta arrandegia ere. Orduan kalean saltzen zuten arraina. "Expresa" deitzen zioten arraina saltzen zuen emakumeari. Baldekada arraina ekartzen zuen buruan Getariatik. Santa Barbara egunean txerri feria egiten zen eta bisigu ederrak ekartzen zituzten. Baporeak Gran Sol-era joaten ziren egunero bisigutara.

121. Gabonak eta errege eguna (ZAR-006/043)

Gabonak nola ospatzen zituzten. Afaria: aza-olioak eta bisigua. Batzuek turroia ere izaten zuten. Konpota ere jaten zen. Oparirik ez zuten izaten. Errege eguna ospatzen zen.

122. Inauterietan karrozak (ZAR-006/044)

Inauteriak ere ospatzen zituzten gerra aurretik. Karrozak egiten ziren.

123. Santosen jaiotetxea (ZAR-007/002)

1912an jaio zen Etxetxiki baserrian.

124. Festen inguruko kontuak; lagunarteko bazkariak (ZAR-007/005)

Bazkalostean Villa San Pelaia joaten ziren, don Evaristoren etxera. Nondik nora ibiltzen ziren. Iñurritzara bueltatutakoan aureskua. Nortzuk egiten zuten aureskua. Bildutakoarekin hamarretakoa, bazkaria eta afaria egiten zituzten.

125. Lorazain lanak Alberditarren etxean. (ZAR-007/011)

Komunio handia 10 urterekin egin zuen eta horren ondoren lanean hasi zen. Azkoitiko Alberdi familia aberatsarentzat lan egin zuen hasieran. Baratzea eta fruta-arbolak zaintzen zituen eta 10 erreal kobratzen zituen eguneko. Familia honen inguruko kontuak.

126. Eskolako kontuak; erdararekin izaten zituen arazoak (ZAR-007/012)

7 urterekin hasi zen eskolan miserikordian eta 9 urterekin herriko eskolara. Irakasleak erdaldunak ziren eta berak erdaraz ez zekienez, amak laguntzen zion eskolako kontuetan. Gau-eskoletan ibili zen. San Pelaion noiz jarri zuten eskola.Oinutsik ibiltzen zen sarritan.

127. Gaztetako lehenengo lanpostuak (ZAR-007/014)

Anai zaharrenak okin lanbidea hautatu zuen. Lehen tailer gutxi zegoen Zarautzen. Beste anaia tailer baten hasi zen lanean. Bera batarekin eta bestearekin ibiltzen zen lanean eta udan golf-ean lan egiten zuen.

128. Bere aita izan zen trenbideko lehenengo goarda (ZAR-007/016)

Trenaren inguruko kontuak; brigadak. Brigada bakoitzean 6-7 lagun egoten ziren: kaltzadorea, kapataza.. Bere aita izan zen lehengo guarda trenean eta goizeko lauretan jaiki behar izaten zen. Ez zuten ez argirik eta ez erlojurik eta aitonak despertadore bat ekarri zion. Berak ere lan horretan bukatu zuen.

129. Trenbideko langileen lan-baldintzak (ZAR-007/017)

Goizeko bostetako Aiako eta Orioko kanpaiak entzuten zituen. Ze eginkizun izaten zituen. Orduan ez zegoen segururik, baina beraiek medikua eta jornala izaten zituzten gaixotuz gero.

130. Herriko medikuak (ZAR-007/018)

Zarauzko medikuak: don Leandro, don Pako... Euskaldunak ziren.

131. Evaristo sasimedikuaren ikendu eta erremedioak (ZAR-007/020)

Behin behia erosi ferian eta gorputzean tanto batzuk atera zitzaizkion. Sasimedikuak eman zion erremedioa kontatzen du. Evaristo sasimedikuaren ukendu eta erremedioak.

132. Medikua eta sasimedikuaren arteko kontuak (ZAR-007/022)

Askotan don Evaristo medikuarengana joaten zen jendea konfusioz, Evaristo sasimedikuarengana joan beharrean. Medikua kexatu egiten zen ez zutelako ondo tratatzen. Xantosen aitonak kortan baratxuri-buruak izaten zituen, ebakiren bat egiten zenerako.

133. Gaztetako entretenimenduak (ZAR-007/023)

Umetan erre kara joaten ziren jolasera. Zaborte g ia zuten inguruan eta eskolatik irtendakoan [primeratxoak] eta [kalakalak] biltzen zituzten bertan. Kanikak buztinarekin egiten zituzten. Futbolean ere egiten zuten, mutil guztien artean baloia erosit a. Pilotan egiteko frontoirik ez zuten.

134. Zarauzko okindegi eta dendak (ZAR-007/025)

Ze janari-denda eta okindegi zeuden Zarautzen. Dendari eta tabernari gehienak inguruko herrietakoak ziren. Sagardotegiak.

135. Bertsolaritza eta sagardotegiak (ZAR-007/026)

Anaiak eta aitonak ere bazuten bertsotarako zaletasuna. Anaia 14 urterekin mozkortuta etorri zen etxera sagardotegitik.

136. Txakolindegietako ohiturak (ZAR-007/027)

Txakolina ez zen botiletan sartzen, txotxetik edaten zen. Txakolindegia k. Meza ostean bi basoerdi edan eta panpota janda gustura gelditzen ziren.

137. Sanpelaiotarren izakera eta kaletarrengandik zuten aldea (ZAR-007/032)

Kalekoekin zituzten ezberdintasunak. Futbolean San Pelaiokoek irabazten zuten eta baita bizikletan ere. Futbol taldeak: Moillarri eta [Demarri]. Kalekoek basati gisa ikusten zituzten sanpelaiotarrak.

138. Baporeak nola itsasoratzen zituzten. (ZAR-007/033)

Bapore berriak nola botatzen zituzten uretara.

139. Golf-eko kadi lanak (ZAR-007/034)

Bera ez zen apustuzalea. Golf-e an bederatzi urte egin zituen. Propina ematen zieten kadi lanetan ibiltzen zirenei. Golf-eko lexikoa dena ingelesez da. Berak ikusitako apustuak.

140. Kirolerako zaletasuna: korrikalariak, txirrindulariak eta futbol taldeak (ZAR-007/035)

Korrika egiteko zaletasun handia zegoen orduan eta baita bizikletan ibiltzeko ere. Moillarri futbol taldeaz gain beste zenbait ere baziren herrian.

141. Gerra garaian bi arreba galdu zituen (ZAR-007/037)

Gerra hasiera nola gogoratzen duen. Burgosen egon zen eta ondoren Iruñe;ean. Han zegoela egunkarian irakurri zuen bere arreba hil zela. Egin ahalak egin zituen Zarautzera joateko, baina ez zioten utzi. Handik gutxira, Teruelen zegoela, beste arreba bat hil zitzaion.

142. Villapadiernako markesentzat lan egiten zuten neskameen egoera (ZAR-007/038)

Beste bi arreba, Kuliskaneko alabarekin batera, Vista Alegreko markesarentzat neskame lanetan ibili ziren eta desagertuta egon ziren denbora luzean. Nagusiak Madrilen hil zituzten. Bera Teruelen zauritu zuten. Ondoren Bilbora joan ziren.

143. 'Kaperotxipi' margolariaren inguruko kontuak (ZAR-007/039)

Kaperotxipi margolariaren inguruko kontuak. El Pueblo Vasco egunkarian idazten zuen. Elgetan bizi zen, baina ihes egin behar izan zuen, lehenbizi Frantziara eta ondoren Argentinara joan zen. 40 urte egin zituen kanpoan.

144. Ezkontza eta bikoteen arteko kontuak. (ZAR-007/040)

1940an bi anaiak batera ezkondu ziren. Don Benito apaizaren inguruko kontuak. Jainkoari zuka hitz egiten zitzaiola eta berak ez zuela merezi berorika hitz egitea esaten zuen. Ezkontzaren inguruko kontuak. Lehenagoko bikoteak; emakumeak asko sufritu arren, ez ziren banatzen.

145. Baserriko lanak: baratzea eta abereak. (ZAR-008/008)

Sagardoa egiten zuten. Zer hartzen zuten: pagatxa, [berga-belarra], ailubrea.. Sagarrak saldu ere egiten zituzten. Urtean bi txerri hiltzen zituzten. Senarra Bidarte baserrikoa zen. Ardiak ekarri zituen eta beste batzuk erosi ere bai.

146. Ama astoarekin plazara joaten zen (ZAR-008/009)

Ama falta izan zen arte ez zen inoiz joan plazara saltzera. Astoa hartuta joaten zen ama plazara.

147. Neskame-lanak nolakoak ziren. (ZAR-008/012)

12 urterekin izebanera joan zen ume-zain. Anjel Urriza alkate izandakoaren etxean ere egon zen lanean. Ze lan egiten zituen: bazkaria egin, arropa garbitu. Azken Portuko erreka joaten zen arropa garbitzera. Gero etxera bueltatu zen eta han baserriko lanak egin behar.

148. Gerra garaiko giro gatazkatsua (ZAR-008/016)

Alaba gorrien tiroketa batean desagertu zitzaion 36an, eta hurrengo urtean senarra gerrara eraman zuten. Mutil gazte asko hil zirela inguruan dio. Infanterian tokatu zitzaion senarrari.

149. Auzokoen arteko harremana (ZAR-008/028)

Auzolanean gizonetakoak ibiltzen ziren. Elkarren beharra izaten zutenez, elkarri gehiago laguntzen zioten lehenago. Auzokoen artean korrika-apustuak ere egiten zituzten.

150. Ohiko feria eta txerri-feria (ZAR-008/029)

Aita Zarautzera joaten zen feriara. Ganadu-feria izaten zen eta bertan erosi ere egiten zituzten behiak. Santa Barbara egunean txerri-feria egiten zen.

151. Urtetako festak (ZAR-008/032)

Urtetara bakarrik joaten ziren erromeriara. Hiru igande ospatzen ziren hasiera batean, geroago igandero. Ez zuen lotuta dantzarik egiten. San Pedro jaietan Oriora joaten ziren urtero oinez.

152. Astoak non lotzen zituzten (ZAR-008/035)

Lehenago kooperatibako plazan egoten ziren astoak, baina gerora astotegia jarri zuten.

153. Gabonetan jaiotza jartzen zuten. (ZAR-008/042)

Gabonak. Jaiotza jartzen zuten. Behin oilo batek arrautza egin omen zien jaiotza gainean. Erregalorik ez zen egiten orduan.

154. Biografia; jatorria (ZAR-009/003)

Non jaioak diren. Pakitak 67 urte ditu. Antonio Izagirre Gurmendi baserrian jaio zen 1933an.

155. Baserriko bizimodua: umetatik lanean (ZAR-009/004)

Pakitaren bizimodua. Aita gaztea zela hil zitzaion. Baserrian lan handia izaten zuten eta eskolara gutxi joaten ziren. Ganadua zuten eta garia eta artoa ere jorratzen zituzten. Ittulan egitea zer den.

156. Dotrina garrantzitsuena eskolan (ZAR-009/005)

Komunio txikia zazpi urterekin eta komunio handia hamabirekin. Hau egin ostean ez ziren eskolara joaten. Eskolan gehien dotrina ikasten zuten. Erdaraz ikasten zuten dena.

157. Urtetako eskola (ZAR-009/006)

Eskola Urtetan bertan zeukaten, sukalde eta guzti prestatua. Inguruetatik jende asko etortzen zen eskolara. Landarbidetik joera handia zegoen Urtetara.

158. Urteta auzoa; bertako festak (ZAR-009/007)

Asteburuetan bakarrik jolasten zuten. Urtetako festak errege inguruan hasi eta inauterietan bukatzen ziren. Auzoko amona bat igandero gazteei kalbarioak ematen hasi zen. Kalera joan zenean neskame ia ez zekien erdaraz.

159. Esne-partitzera kalera (ZAR-009/009)

Pakita Gurmendira ezkondu ondoren esne-partitzen hasi zen eta orduan trebetu zen erdaraz.

160. Umetako jolasak (ZAR-009/010)

Astean zehar ez zuten jolasten, lana izaten zutelako. Jolasak: gordeketan, sokasaltoan... Sokasaltoko abestiak denak erdarazkoak ziren.

161. Euskarazko kantak: bertsopaperak (ZAR-009/011)

Euskarako abestirik ez zegoen jolasetan. Bertsopaperak egoten ziren euskaraz.

162. Auzokoen arteko jolasak (ZAR-009/012)

Auzoan elkartzen zirenean jolasten zuten.

163. Eskola kontuak; irakasleak. (ZAR-009/013)

Antonio oso goiz hasi zen lanean. Komunioa egin zuenean sega eskatu zuen opari gisa. Dotrina erdaraz ikasten zuten. Irakasleak.

164. Mutikoen entretenimendua gazte-denboran (ZAR-009/014)

Zertan jolasten zuten mutikoek: pilotan, futbolean... Non jolasten zuten. Hamalau urtez gero festatara joaten ziren Urdanetara eta Altzolara.

165. Oinetakoak (ZAR-009/015)

Abarketak erabiltzen zituzten normalean eta egualdi txarra zenean gomazko zapatak. Etxean abarkak erabiltzen zituzten. Festara joateko neskek aldatzeko oinetakoak eramaten zituzten.

166. Eskola kontuak. (ZAR-009/016)

Eskolatik piper egiterik ez zuten izaten. Ez zirenez egunero joaten, ez zitzaientzatzen eskolara joatea.

167. Arrosarioa egunero; Santa Ageda eskea (ZAR-009/017)

Iluntzero arrosarioa errezatzen zuten etxean. Santa Ageda egunean kanpoko talde asko etortzen ziren.

168. Baserriko ohiturak; janaria (ZAR-009/018)

Zer jaten zuten: babarrunak eta azak bazkaltzeko eta porru-patatak afaltzeko. Taloa eta esnea ere egunero jaten zuten. Txerria hiltzen zen urtero baserrian eta etxeko txorizoa eta odolkiak izaten zituzten.

169. Ganaduaren inguruko kontuak. (ZAR-009/022)

Zenbat ganadu zuten. Esnea kalean saltzen zuten. Behi klaseak: suizak izaten zituzten; gerora pintoak ere bai. Nola deitzen zaien txahalei jaiotzean: emeak urrixak eta arrak idiskoak.

170. Basoko lanak (ZAR-009/023)

Basoko lanak. Neguan egurra bota eta txikitu eta kalean saltzen zen.

171. Sorgin kontuak (ZAR-009/024)

Sorgin kontuak. Istorio asko entzuten ziren, baina beraien auzoan ez.

172. Gabonetako ohiturak; janaria. (ZAR-009/025)

Gabonak nola ospatzen zituzten. Oilaskoa edo ardia jaten zuten. Konpota ere egiten zen. Afaldu aurretik arrosarioa errezatzen zuten, baina ez dute abesti berezirik gogoratzen.

173. Herri-kirolak (ZAR-009/028)

Auzoetako festatan izaten ziren herri-kirolak. Herri-kirolean aritzen zirenak. Urtetan ez zegoen kirolerako zaletasun handirik. Auzoetakoen arteko pikeak. Entzun izan dute halako konturik, baina ezagutu ez.

174. Auzo-bideak nola egin ziren (ZAR-009/029)

Auzorako bidea noiz eta nola egin zuten. Diputazioak egin zuen, baina jornalaren truke joaten ziren bertara lanera. Baserrietarako bideak gero bakoitzak egin behar izan zituen.

175. Eskolara kalera hasteko arrazoia (ZAR-009/032)

Eskola elizaren ondoan zegoen. Maistra bertan bizi omen zen bere familiarekin. Gerora bota egin zuten eraikin hau. Auzora biderik ez zegoenez, irakasleek ez zuten hara joaterik nahi izaten eta auzoetakoak kalera hasi ziren eskolara.

176. Arropa non garbitzen zuten. (ZAR-009/034)

Beti ezagutu dute ura etxean, baina udaran agortu egiten zitzairen. Garbiketak egitera beheko putzura joaten ziren eta mantak garbitzera errebara astoarekin.

177. Emakumeak/gizonezkoak baserriko lanetan (ZAR-009/035)

Baserriko lana ez zen hain desberdina emakume eta gizonentzat. Emakumeek denetarik egiten zuten. Gizonezkoak 16 urte ingururekin tailerrera hasten ziren.

178. Mutil-ardoa; bertsolariak (ZAR-009/036)

Mutil-ardoan kantuan eta bertsotan ere egiten zuten, eta sarri borrokan ere bai. Urdanetan baziren bertsolariak, baina Urtetan ez.

179. Auzokoen arteko harremana (ZAR-009/037)

Ez zuten beste auzoetakoekin inolako arazorik izaten eta izen berezirik ere ez zuten auzo desberdinetakoek. Urtetan bertan ondo konpontzen ziren auzokoak elkarrekin.

180. Ezkonduak mutil-ardotik kanpora (ZAR-009/038)

15 urte bete ondoren sartzen ziren mutil-ardoan, eta ezkondu arte. Mutilzaharrek jarraitzen zuten, baina behin ezkonduz gero kanpoan gelditzen ziren.

181. Apustuak (ZAR-009/039)

Apustuak. Proban egindako apustu bat gogoratzen du: idi batek sei gizonen kontra jokatu zuen. Beste behin, apustua jokatzeraz zihoazela Guardia Zibilak agertu eta debekatu egin zieten jokatzea.

182. Guardia Zibilen inguruko kontuak. (ZAR-009/040)

Guardia Zibilen inguruko kontuak. Lasai ibiltzen ziren orduan.

183. Esne-partitzea eta plazako salmentak (ZAR-009/041)

Esne-partitzea. Gaztetan, amak egiten zuen beti esne-banatzea eta gerora ezkondu eta gero hasi zen Pakita. Nola joaten zen esnea saltzera. Lehenago jende gehiago joaten zen plazara.

184. Esne litroak eta ilea mozteak prezio bera (ZAR-009/043)

Esne litroa zenbatean zegoen ez dute gogoratzen. Umeak zirela, esne-litroak 6 errial balio zituen eta ilea mozteak ere berdin. Geroago Pakita plazara joaten zenean ze prezio izaten zuten barazkiek. Astoarekin joaten ziren esnea partitzera emakumeak.

185. Asto emeak erabiltzen ziren tratua eramateko. (ZAR-009/045)

Astoarekin pasatutako pasadizoak. Normalean asto emeak erabiltzen ziren otsanagoak zirelako. Animalia bakoitza altan dagoenean nola esaten zaion.

186. Gerraosteko gosea; gauez errotara. (ZAR-009/050)

Gerraostean gose handia pasa zuten. Ogia asko estimatzen zen arrazionamendu garaian. Etxean egiten zituzten taloa eta ogia. Errotara joatea debekatua zegoen eta gauez joaten ziren errotara. Kalekoak okerrago egon ziren baserrikoak baino.

187. Umetako bizimodua; nola egin zuten baserria (ZAR-010/002)

Baserria non zegoen. Berak hiru urte zituenean kalera joan ziren. Aitak non lan egiten zuen. Zuen jornalarekin ez zuten nahikoa eta lur-saila erosi zuten baratzea jartzeko. Gerora baserria bertan egin zuten 1930 inguruan: "Basa-lore". Izena nondik jarri zioten.

188. Ingurua nolakoa zen (ZAR-010/003)

Inguru hura nolakoa zen. [Arkamorka?] eta sasia eta sagastia zegoen azpialdean. Sagasti asko zegoen. "Gillermo alemanak" erosi zituen terrenoak inguruetan eta sagardoa egiten zuen. Geroago aitzurtu egin zituen lurrak eta fruta-arbolak jarri.

189. Nola hasi ziren txakolina egiten (ZAR-010/004)

Mahatsarekin etorri zitzaien etorkizuna. Nola hasi zen bere aita txakolina egiten. Zenbat urtean itxaron zuten emaitzak ikusteko.

190. Txakolina (ZAR-010/006)

Aitak lehendik bazuen txakolinaren inguruko ezagutza, Antxurtegi bere baserrian ere egiten baitzuten. Inguruetan beti ezagutu dute txakolina. Mutikotan aitzurran egitera joaten ziren auzora eta dirua ere irabazten zuten.

191. Baserriko bizimodu gogorra (ZAR-010/007)

Ganadua ere izan zuten. Azpeitiko feriatik behia nola ekarri zuten oinez kontatzen du. Behiak gobernatu ondoren joaten zen aita tailerrera lanera.

192. Mahatsarentzat erabilitako botikak (ZAR-010/009)

Mahatsaren gaitza sartu zenean produktuak behar izan zituzten. Sulfatoa erabiltzen zuten. Likidoa prestatzen ari zirenean paperezko zinta batzuekin kontrolatzen zuten karearen neurria. Gerra denboran izan zituzten arazoak.

193. Bide-egitea auzolanean; auzokoen arteko harremana (ZAR-010/018)

Bideak noiz egindakoak diren. Mutikoak zirenean auzokoen artean egiten zituzten bideak, ogia eta ardoaren truke. Galtzada askatu eta harria jartzen zuten. Lan horri "danda" deitzen zioten. Lehengo garaiekin konparaketa egiten du. Lehenago auzokoak hobeto

194. Baserriko bizimodua: abereak eta baratzea (ZAR-010/019)

Izan zuten lehenengo behi pareak. Aitak uztarriak egiten zituen. Behien inguruko pasadizoak kontatzen ditu. Mendi zati bat ere erosi zuen aitak eta luberria egin zuten. Lehenbizi patata hartu zuten, gero arbia erein zuten. Garai batean antxoa botatzen zioten arbiari.

195. Gerrara joan zeneko kontuak (ZAR-010/020)

Gerrara joan zeneko kontuak. Urtezahar egunean abiatu zen; eta, Norteko trenean zihoala, txokea izan zuten tunel mutur baten kontra. Ferrolera joan ziren. Nolakoa izan zen bere hasiera soldaduskan. Geroago, Crucero Canarias ontzian enbarkatu zen. Bi kanoi handi zeramatzaten eta haiek lehertzeko beldurrez egoten zen. Bere osaba baten bitartez, Bilbora joan nahi izan zuen ministro batekin lan egitera. Instantzia egin zuen, baina ezezkoa eman zioten.

196. Mahatsaren prozesua (ZAR-010/023)

Martxoa-apirila aldean hasten da mahatsa ernetzen. Batzuetan [ailendu] egiten da eta beste batzuetan loratu. Beharrezkoa izaten da loratzea; lorea erne aurretik usteltzen bada, edo aillentzen bada, ez du balio.

197. Txakolina saltzea (ZAR-010/027)

Txakolina botiletan saltzen zuten. Probatzera etortzen ziren Donostiatik lehenbizi eta gero bukoia bat bi-hiruren artean hartzen zuten. Botilaratzeko garaian laguntzera etortzen ziren eta beraiek eramaten zuten sagardoa. Pasadizo bat kontatzen du, erosle bat.

198. Txakolindegia eta sagardotegietako giroa eta ohiturak (ZAR-010/028)

Zarautzen bertan tabernetan baino gehiago txakolindegietan edaten zen. Txakolindegia asko zeuden Zarautzen orduan. Sagardoarekin ere berdina izaten zen. Kuadrillan joan arren, batek atera eta besteei pasatzen zien. Sagardotegi eta txakolindegia inguruetan arrain usain ederra egoten zen.

199. Zarauzko usainik onena non sortzen zen (ZAR-010/029)

Non egoten zen Zarautzen usainik onena; plaza inguruan: Sukiak kafea erretzen zuen, Rotetak ogia egin eta Klaranean txerria hil eta odolkiak egiten zituzten. Sukia, jatorriz, kanpokoak zen, amerikarra.

200. Txertatzeak (ZAR-010/033)

Txertoak nola egiten diren: brea eta argizaria eta nahasten dira. Botikaren funtzioa egiten du. Arbola mugitu aurretik egin behar izaten da mendua. Abuztuan ere egiten dira menduak. Txertaketak bere garaiak izaten ditu. (moztu egiten da)

201. Baserriko bizimodua (ZAR-011/004)

Baserriko lanak: ganaduekin, itulan... Nolakoa zen bizimodua baserrian. Iturrik ere ez zuten. Petrolioarekin egiten zuten argia. Karburoa. Honen inguruko pasadizo bat kontaktzen du. Kaleak nolakoak ziren: galtzada zegoen kaleetan.

202. Zarautz ingurua eta bertako jendea (ZAR-011/006)

Baratze handirik ez zuten; baratzeak San Pelaio inguruan gehiago. Soroa bai. Kalea nolakoa zen: oso etxe gutxi, beste guztia baserriak. Makatzanekuak.

203. Neskame lanak (ZAR-011/007)

13 urterekin neskame joan zen Azpirozenera. Ze lan egiten zituen. Plantxa nolakoa zen. Azpiroztarrak. Udarari "Hotel La perla"n egoten ziren, hango nagusiak ziren eta. Kanpotik jende asko etortzen zen, batez ere abuztuan.

204. Zarauzko Hotelak; beraneanteak (ZAR-011/008)

Beraneanteak zertara etortzen ziren. Hotela nolakoa zen. Gelak nolakoak ziren. Gosaria: kafesnea, panpota... Zenbat hotel zeuden Zarautzen: Gran Hotel, Hotel Alameda, Hotel Zarauz...

205. Astoarekin esnetara jaitsita gertatutakoa (ZAR-011/013)

Esnea etxez etxe banatzen zuten. Nola izaten zen esnetara jaistea herrira. Astoarekin pasatutako pasadizoa. Animalien azkartasuna.

206. Bideen egoera; baserritarrek kalera egindako ibilbideak (ZAR-011/014)

Urtetatik herrirako bidea. Auzolanean konpontzen zuten bidea. Gonak jasota ibiltzen ziren neska gazteak lokatzatan ez zikintzearren. Kalera jaitsi ta oinetakoak aldatzen zituzten.

207. Gaztetako janzkera (ZAR-011/015)

Nola janzten zen gaztetan: tergalazko soinekoa normalean eta jaietarako lanazkoa. Bota luzeak erabiltzen zituzten. 15 urte ingururekin jarri zuen moñoa.

208. Denda eta sagardotegiak (ZAR-011/020)

Dendak. Taberna eta saltokia biak batera zituzten dendak ere bazeuden. Sagardotegiak: Zabalegi, Roialti... Roialti atzean sardinak erretzen zituzten eta bodegatik sagardoa aterata, afaria egin. Emakumeak ez ziren sagardotegira joaten.

209. Baserriko bizimodua (ZAR-011/023)

Jai egunetan aprobetxatzen zuten baserritarrek lo egiteko edo siesta egiteko. Baserriko bizimodua.

210. Eguraldia; gerra garaian negu gogorak (ZAR-011/028)

Eguraldia: udan beroago eta neguan orain baino hotzago egoten zen. Gerra denboran, negu gogorak egin zituen: elurra eta ondoren izotza. Kanean elurra ia belauneraino egin zuen. Soldaduak hotzez hiltzen omen ziren.

211. Arropa garbitzera garbitokietara; uholdeak (ZAR-011/031)

Astean pare bat arratsaldetan, Zalbideko erreka joaten zen arropa garbitzera. Emakume asko elkartzen ziren bertan, baina ez zuten tertuliarako astirik. Garbitokiak non zeuden. Arropak terreina zabaletan eramaten zituzten buru gainean. Azken Portuko garbitokia.

212. Familia, "Iturria" abizenaren jatorria (ZAR-012/002)

Noiz jaiotakoa den, bere aita Seguran jaioa zen. Abizena nondik datorren.

213. Nolakoa zen Zarautz garai batean (ZAR-012/003)

Nola gogoratzen duen lehenagoko Zarautz. Kaleak nolakoak ziren.

214. Eskolan neska eta mutilak banatuta (ZAR-012/004)

Eskola. Nora joaten zen. Emakumeak eta gizonezkoak banatuta. Irakasleak. Karabineroek ze entretanimendu zuten. Guardakostas-a.

215. Umetako jolasak eta jolastokiak (ZAR-012/005)

Non jolasten zuten. Pilotan aritzen ziren. Garai hartan pilotari onak zeuden. Futbolik ez. Emakumeak sokasaltoan. Mutilak korrika apustuan, borrokan eta lapurretan ere bai. Estazio aurrean, Beistegiren finka zegoen (Beistegi anaietako batena).

216. Bazkaltzeko egunero babarrunak (ZAR-012/007)

Ettxeko ohiturak. Gosaltzeko kafesnea zopekin eta bazkaltzeko egunero-egunero babarrunak. Postrerako etxean egindako zerbait. Berdura gutxi jaten zen. Etxean apopiloak izaten zituzten eta haiekin ikasi zuten berdura gordina jaten.

217. Kantuak, bertsoak eta antzerkia (ZAR-012/008)

Kantuan asko egiten zen. Kantuan egitera parrokiara joaten zen. Don Fernando zen organista. Antzerkiak egiten ziren, bai fraidetan eta bai parrokian berak 12 urte inguru zituenean. Bertsoarako ez zegoen zaletasunik Baserri agertu arte. Eskolan ez zuten kantatzen. Santa Ageda eguna ere ez zen ospatzen.

218. Zarauzko Euskal Jaiaren bultzatzaileak (ZAR-012/009)

Ospakizunak: San Pelaioak eta Euskal Festa irailean. Mujika pintorea eta emaztea Urtetako maistra: Euskal Festaren bultzatzaileak. 5-6 karroza egoten ziren eta txistulariak. San Pelaiotan musika, estropadaren bat.. Santo Tomasak eta Santa Ageda eta halako festak ez ziren ospatzen.

219. 'Pedro Mari' antzezlanak (ZAR-012/010)

Batzokietako taldeak. Karlistekin txoke handia zegoen. Antzerkiak indarra zuen: Pedro Mari obra herriz herri ematen zuten.

220. Herria nolakoa zen; udaletxea erre zutenekoa (ZAR-012/012)

Auzoetan, denek ezagutzen zuten elkar. Azoka non izaten zen. Plaza dagoen lekuan, lehen finka bat zegoen. Udaletxearen eraikina alondegia zen. Udaletxea erre egin zuten gorriek. Honen inguruko kontuak.

221. Lanean lehen urteak (ZAR-012/017)

Lanean Arinen hasi zen 15 urte ingururekin eta ondoren Itxaropenara joan zen. Gero aitari laguntzera altzari dendan. 3 sozio ziren: makinazalea, biajantea eta kajakoa.

222. Sagardotegietako giroa, ohiturak eta apustuak (ZAR-012/020)

Denbora librean sagardotegira joaten ziren. Sagardotegi asko zegoen orduan; non zeuden. Sagardotegietako giroa, ohiturak, jokoak eta apustuak. Apustu bat kontatzen du. Mutikotako pasadizo bat kontatzen du. Errazionamendua.

223. Aisialdia: igandetan musika, mendira... (ZAR-012/021)

Igandetan zer egiten zuten. Bandak jotzen zuen igandero plazan. Auzoetako festak: Urteta. Mendira ere asko joaten ziren: Pagoetara, Itziarrera, Xoxotera, Nafarroara... Auzoetako artean ez zen pikerik egoten.

224. Herriko kirolari ezagunak (ZAR-012/023)

Pilota. Ezagunak: "Zaporra", Elustondo, Izagirretarrak... Futbolearen ere nahiko onak ziren. Urzelai: denetarik egiten zuen: futbola, atletismoa, pilota...

225. Zakar-biltzailea eta barranderoak (ZAR-012/025)

Garro:kamioi batera zakarrak biltzen ibiltzen zen txintxarridun behi batekin. Udarentzat lan egiten zuen. Barranderoak ere ibiltzen ziren palak eta otarrak hartuta asto-kakak baratzetara eramaten. Zakarra ontzietan uzten zuten etxe ondoan Garrok jasotze

226. Zirkulo karlistatik hiru aldiz bota zutenekoa (ZAR-012/028)

Zirkulura joaten ziren batzokia itxita egon zenean; hiru aldiz bota zuten bera handik.

227. Ehungintza (ZAR-012/030)

Egurretik aparte, mekanikoak, tela fabrikak... "Textil Zarauz", "Textil Berazadi"...

228. Giro-politika (ZAR-012/031)

Politika kontuak. Aristokraziako jende asko zen Zarautzen eta langile asko kanpotik ekartzen zituzten. Abertzaleak. 1934-35-36 ingurua.

229. Frankismo garaia (ZAR-012/032)

Aitak nola bizi izan zuen frankismo garaia. 5.000 pezetako multa jarri zioten aitari abertzale izatearren. Aitari buruzko kontuak.

230. Aristokrazia (ZAR-012/033)

Aristokrazia. Dirua eta indarra zuten. Ezaguna: Jose Maria Hendaia, Hotel Alamedako nagusia. "Jefe de Falange" izan zen.

231. Gaztetako zaletasuna: kirola (ZAR-013/002)

Bere zaletasunak. Oso kirolzalea izan da beti. 10 urterekin txirrindulari lasterketa korritu zuen. Pilotan ere ibilia da eta baita igerian edo murgilka ere.

232. Gurasoen harategian ibili da lanean gaztetatik (ZAR-013/003)

Gurasoek harategia zuten eta txikitatik lanean ibili izan da. 14 urterekin Itxaropenako lana eta etxekoa tartekatu behar izaten zituen.

233. Kale Nagusia eta jendearen bizimodua (ZAR-013/004)

Kale Nagusian bizi izan zen 33 urtera arte. Umeek kalean egiten zuten bizimodua. Ez zen kotxerik pasatzen eta kalean jolasten zuten. Langileek lan-orduetatik kanpo zer egiten zuten.

234. Hermanotan euskal ohiturak zaintzen zituzten (ZAR-013/005)

Lehenbizi miserikordian ikasi zuen. Irakasle onak izan zituen eta denak euskaldunak. Eskolak erdaraz eman arren, abestiak euskaraz ikasi zituzten. 34an ikasitako mendigoizaleen inguruko abestia. Santa Agedetan kuadrillak osatu eta eskean abesten irten ziren. Gero hermanotan bazkaria. Eskolan euskal ohiturak asko zaintzen zituzten.

235. Gerra-garaiko aldaketa irakasle kanpotarrak etortzean (ZAR-013/006)

Gerra garaian kanpoko irakasleak etorri ziren. Kalean ilaran eramaten zituzten eta "Arriba España" esanarazi. Batzokia, "Juventud antoniana" eta beste hainbat itxita zeuden eta Zirkulora joaten ziren gaztetan.

236. Herritarren zaletasunak: antzerkia eta zinea (ZAR-013/007)

Antzokia zuen Zirkuloak. Zaletasun handia zegoen antzerkirako. Gerra aurretik lau konpainia zeuden euskaraz. Zinerako ere zaletasun handia zegoen. Bi zine zeuden Zarautzen. Zineko atezainari egiten zizkioten gaiztakeriak. Irakurtzea asko gustatzen zitzaion. Zentsura. Jendea lehenago irteten zen zinetik Francoren nodoa ez ikustearren.

237. Kontzierto bukaerako "himno real"a (ZAR-013/008)

Zarauzko musika-banda. Kontzierto bukaeran "himno real"a jotzen zuten. Txapela kentzen ez zuena jo egiten zuten.

238. Gosea eta errazionamendua (ZAR-013/009)

Garai gogorrak izan ziren. Harategian errazionamendua jarri zutenean, jendea goizeko 4tako zain egoten zen. Arraina nahikoa izan arren oliorik ez zuten izaten.

239. Elizaren indarra; derrigortzeak (ZAR-013/010)

Hermanotan zigortu zituzteneko kontuak. Ze elizkizun entzun behar izaten zituzten: meza nagusia, bezperak... Elizak zuen indarra.

240. Tabakoa errazionamenduan (ZAR-013/011)

Etxean inork ez zuen erretzen, baina purua erretzen zuten egun berezietan, eta gero mareatuta. Errazionamenduan tabakoa hartzen zuten eta gero saldu.

241. Cristobal Colon eta bere sendiaren inguruko kontuak (ZAR-013/017)

Domec-enekoak. Pilartxoenea. Colonen ondorengoen inguruko kontuak. Cristobal Colon Pasaian eta inguruetan egon zeneko pasadizoak. Aguila Fuenterenean ere ospitale militarra egon zen. Etxe izugarriak izaten zituzten, sukalde handiekin eta zerbitzari ugari izaten zituzten.

242. Aristokraten bizimodua Zarautzen (ZAR-013/018)

Non egiten zuten bizimodua aristokratek: zinean eta golfean. Gazteek kadi izan nahi izaten zuten. Hondartzara ere joaten ziren albornozekin. Zarauzko neskek debekatuta zuten moilan bainatzea.

243. Foru Aldundiak erosi nahi zuen eraikin baten inguruko gorabeherak (ZAR-013/019)

Markes baten inguruko kontuak. Donostiarekin pikea izaten zuten. Foru aldundiak Argiñanoneko eraikina erosi nahi zuen langileen haurrek bertan oporrak pasatzeko, baina udalak eta aristokratek ez zieten utzi. Ingurua nolakoa zen.

244. Aristokraten ohiturak eta aberastasunak (ZAR-013/020)

Aristokrata gazteak bizikletan joaten ziren zinera eta mezetara txoferrarekin joaten ziren. Emakume batzuk txakurra urrezko eraztunekin erabiltzen omen zuten. Beste familia batek "Mariposa" izeneko kanoa zuen eta auto deskapotablea. Familia honen inguruko kontuak.

245. Aristokraten inguruko kontuak (ZAR-013/021)

Marques de Brenes. Beste aristokrata batzuk non bizi ziren. Proportzioan Donostian baino aristokrazia gehiago egoten zen Zarautzen. 50. urte ingurura arte iraun zuen honek.

246. Narros palazioaren eta bertakoen inguruko kontuak (ZAR-013/022)

Bere emaztearen ama sukaldari egon zen palazioko kontuak (Narros). Bertako markesaren inguruko kontuak. Garai batean komandantzia militarra izan zen.

247. Komandantzia militarra eta Zarautzen egin zen ituna (ZAR-013/023)

Komandantzia militarra. Bertako komandantea nafarra zen: Uharte. Itun bat egin zen Zarautzen 40-41 urte inguruan eta baporeak sirena joz etorri ziren.

248. Zarauzko zenbait villa eta bertako familiak (ZAR-013/024)

Aristokratek etxe handiak izaten zituzten eta zerbitzari asko. Villa Delitosak villa Tarifa zuen izena lehenbizi. Bertako dukea markes baten alabarekin ezkondu zen. Beste villa batzuk.

249. Aristokraten inguruko kontuak (ZAR-013/025)

Batzuetan bere amaginarrebari otarra kendu eta eraman behar zuen villaraino eramaten laguntzen zion. Aristokratek gastuak sortzen zituzten, baina langile gehienak kanpotik ekartzen zituzten. Bertakoek hotelean egiten zituzten zerbitzari lanak.

250. Aristokraten inguruko kontuak (ZAR-013/026)

Asko edaten omen zuten aristokratek eta elkarren artean harremanak izaten zituzten. Beste zenbait aristokraten inguruko kontuak.

251. Aristokraten eta herritarren arteko harremana (ZAR-013/028)

Carnicero real deitzen zioten berari. Zarautzarrak aristokratekin txikiteoan eta euren bodegetan ere ibiltzen ziren. Gran Hotel-era ere asko etortzen ziren. Autostopean ari zen bat famoso batzuk nola eraman zuten kontatzen du. Azpeitiko Bastida txirrindulari izandakoaren inguruko pasadizoa.

252. Aristokraten eta herritarren arteko harremana (ZAR-013/029)

Aristokratek ez zuten herriko bikoterik izaten, ondo begiratzen zen zein familiatakoa zen. Baina mutilek izaten zuten herriko jendearekin harremana. Euren arteko harremanak golfean izaten zituzten.

253. Sagardotegietako ohiturak (ZAR-014/005)

Sagardotegi asko zegoen. Amona sagardoa saltzera joaten zen eta sagardoa egin ere egiten zuten. Jendea txikiteoan bezala ibiltzen zen sagardotegietan. Erramua erabiltzen zen, kupela husterakoan, seinale gisa. Tokan jolastea ere ohitura zen.

254. Sagardoaren prezioa eta saltzeko era (ZAR-014/006)

Sagardo basoak 5-10 zentimo balio zuen. Parrillean sardinak erretzen zituzten. Asteburuetan joaten ziren normalean. Eguerdietan familiek litroko botila eramaten zuten etxera bazkaltzeko.

255. Irakasleak eta euskara hainbat ikastetxetan (ZAR-014/011)

Herri-eskolako irakaslea: Esteban Ruiz. Kanpotarra zen eta ez zekien euskaraz. Antonianoetan eta fraideetan euskaraz bazekiten eta, gainera, euskara zaleak ziren.

256. Herriko eskolako kontuak (ZAR-014/012)

Herri-eskolan "Salve bandera de mi patria.." eta halakoak abesten zituzten.

257. Errepublikanoen inguruko gertakizuna (ZAR-014/013)

Errepublika garaiko anekdota. Kooperatibara joan zen enkarguak egitera eta bueltakoan errepublikanoen manifestazioarekin beldurtuta korrika ihes egin zuen etxera. Udaletxera joan eta errepublikaren aldeko oihuak botatzen zituzten. Giro-politikoa.

258. 'Sabin euskalduna' irakurketarako liburua (ZAR-014/014)

Eskolan ere nabaritu zuten aldaketa errepublika aldarrikatu zenean. Aurretik erdarazko liburuak zituzten eta euskarazkoa atera zuten: Sabin euskalduna. Bi pezeta balio zituen liburuak eta irakurketarako erabiltzen zuten. Gero, Xabiertxo atera zuten.

259. Eskolen arteko aldea (ZAR-014/015)

Euskarazko kantu gehien "hermanotan" entzun zituen. Herri-eskolan irakasleak ez ziren asko ahalegintzen, "hermanotan", oster, ondo irakasten zuten. "Hermanotan" bertso-doinuekin abestiak ikasten zituzten.

260. Eskolako jantzia (ZAR-014/016)

Antonianoetan uniformeak erabiltzen zuten, baina "hermanoetan" ez. Txukun joan behar izaten zuten eskolara. Oinez joaten ziren.

261. Eskolen eta irakasleen arteko aldea (ZAR-014/017)

Goiz eta arratsalde izaten zituzten klaseak. Irakasleen arteko ezberdintasunak. Salletarrak prestatuago zeuden irakaskuntzarako. Txangoak ere egin izan zituzten, baina bera ez zen sarritan joaten.

262. Kuadrillak eta parrokiako korua (ZAR-014/018)

Kuadrillak nola elkartzen ziren; normalean auzokoak ibiltzen ziren elkarrekin. Kantura joaten zen parrokiara, baina laster utzi zuen. Kantuko lezioak izaten zituzten eta haren arabera aukeratzen zuten jendea korurako.

263. Mutilen jolas edo jokoak (ZAR-014/019)

Denbora libre zutenean pilotan egiten zuten; futbolerako ez zegoen zaletasunik. "Binaka" jokatzeko zuten: tantoa galtzen zuena kalera. Udan moilan ibiltzen ziren igerian ikasten. Bestelako zenbait jolas neskenak izaten ziren.

264. Kukaña-festak (ZAR-014/020)

Kukaña ere ibiltzen ziren 12 urte ingururekin. Kukaña-festa zenean, txistulariak joaten ziren, eta kanpotar guztiak moilara joaten ziren ikustera. Sariak ere izaten ziren.

265. Gerrari buruzko kontuak (ZAR-014/022)

Gerra hasiera nola gogoratzen duen. Zapata-dendan lanean zegoela gizon batek esan zion Afrika aldean gerra hasi zela. Gobernuak laguntza eskatu zien nazionalistei. Orduan sortu ziren batailoiak. Gerra-denboran milizianoak fusilatu zituzten.

266. Gerra garaiko miaketa eta hustuketak (ZAR-014/023)

Aireplano batek Zarautzen lur hartu zueneko kontuak. Beti beldurrez ibiltzen ziren. Gudari joan zen jendeari etxeak miatu eta husten zizkieten. Errazionamendua.

267. Gerrari buruzko kontuak (ZAR-014/024)

Egunkaritik jarraitzen zituzten gerraren inguruko berriak. Irrati gutxi zegoen orduan eta sarri erosteko beldurra izaten zuten errexisatu egiten zizkietelako. Karlistak nolakoak ziren.

268. Herritik irteteko baimen-eskatzea (ZAR-014/025)

Gerra-ostea. Batailoietan harrapatutako semeak kontzentrazio zelaietara eramaten zituzten lanera. Haiek ikustera joan nahi izanez gero komandantziara joan behar zen baimena eskatzera. Herritik ateratzeko ere baimena eskatu behar izaten zuten.

269. Mutilekin dantza egitearren neskek izaten zituzten arazoak (ZAR-014/039)

15-16 urterekin hasten ziren dantzan musika-plazan. Neskak kongregaziotik botatzen zituzten mutilekin dantza egitearren. Bikario gogorra izan zuten. Sermoi gogorrak botatzen zituen, gazteria bide txarretik zihoala esanez.

270. Korrika-apustuak Zarautzik Aiara (ZAR-014/041)

Jaietan pilotari onak ekartzen zituzten eta jendea joaten zen erremontea ikustera. Apustuak ere egiten zituzten: Zarautzik Aiara korrika. Bazeuden korrikalari onak. Atzetik jarraitzeko zaldi-karroekin joaten ziren.

271. Biografia; 'Paxo' ezizenaren jatorria (ZAR-015/002)

Pako Olazabal Paxo 1936ko uztailaren 3an jaio zen. Biton Pradera kalean jaio zen, baina orduan "Txerri kale" deitzen zioten. Nondik datorren Paxo ezizena.

272. Biografia; Kale Nagusia eta inguruak nolakoak ziren (ZAR-015/003)

Juan Joxe Markaide kale Nagusian jaio zen. Ingurua nolakoa zen eta nola aldatu den. Baserria zegoen kale nagusian. Txerriak hondartzara eramaten zituzten bainatzera. Aita Arrasatekoa zen; ama zarautzarra.

273. Kale Nagusia eta honen inguruko pasadizoa (ZAR-015/004)

Kale Nagusian alde bietara egoten zen zirkulazioa. Kartelak gehiengo abiadura markatzen zuen. Honen inguruan gertatu zitzairen pasadizoa.

274. Gerraosteko familiako giroa (ZAR-015/006)

Paxoren amak paso-nibelean lan egiten zuen eta aitak ferrokarrilean. Baratzetxiki bat eta abereren batzuk ere bazituzten. Trena debalde zutenez Gasteizera joaten ziren patata bila.

275. Arrazionamendu garaia; ogi-eskasia (ZAR-015/007)

Arrazionamendua. Egunero babarrunak jaten zituzten, baina ezer gabe, oliorik ere ez zegoelako. Ogi zuririk ez zen egoten eta garai batean arto lokotsekin egiten zuten ogia. Orduko janariaren inguruko kontuak.

276. Etxeetako ateak zabalik egoten ziren (ZAR-015/013)

Etxeak irekita egoten ziren eta lasai joaten ziren bata bestearen etxeetara. Ateek soka izaten zuten irekitzeko. Bizikletak ere kalean uzten zituzten. Langileek lanera joateko erabiltzen zituzten bizikletak.

277. San Pelaio ondorenera arte bainatzeko debekua (ZAR-015/014)

San Pelaio ingurura arte debekatua zegoen bainatzea, txaparroak gordeta izaten zituzten, eta bilutsik bainatzen ziren kanalean edo errekan. Baserritarrak harrapatuz gero jo egiten zituen.

278. Monagilo zela gertatutako pasadizoa (ZAR-015/015)

Txapel handitan hasi ziren eskolan eta 6 urte ingururekin fraideetara pasa ziren. Monagilo ere ibili zen Paxo don Juan apaizarekin. Monagilo zela gertatutako pasadizoa.

279. Elizkizunak (ZAR-015/016)

Hilean behin "Juventud Antonianako" meza izaten zuten. 08:00etan meza eta 09:30ean meza nagusia izaten zuten. Garizuman kalbarioak. Larunbatetan, hilean behin, konfesioa izaten zuten. Mezetan isilik eta errespetuz egon behar izaten zuten.

280. Eskolan jasotzen zuten tratu txarra (ZAR-015/017)

Eskolako "diktadoak". Hirugarren errepasoa elkarri egiten zioten ikasleek eta hutsen bat egonez gero masailekoa eman. Eskolan ematen zieten tratua. Makilarekin jotzen zituzten eskolan esku puntetan.

281. Euskara/erdara eskolan (ZAR-015/019)

Eskolan dena erdaraz ematen zieten, baina baserritarrei dotrina euskaraz ematen zieten. Emakumeentzat ez zegoen herriko eskolak besterik eta erdarara jo zuten asko. Irakasle gehienak kanpotarrak ziren.

282. Eskolan ikasitako kantuak (ZAR-015/021)

Eskolan elizako kantak ikasten zituzten gehienbat. Aita Altuberekin euskarazko kantak ere ikasi zituzten. Erdarazko kantuak eta latinezkoak ere ikasten zituzten.

283. Baloi baten inguruko kontuak (ZAR-015/023)

Lehenagoko baloiak nolakoak ziren. Herriko batek baloi on bat ekarri zuen. Honen inguruko kontuak.

284. Olentzeroren abestiaren inguruko iruzkinak (ZAR-015/024)

Gabonak. Erregeak bakarrik egoten ziren orduan. Olentzerorik ez zegoen, honen inguruko abestiak abesten zituzten arren. Beraiek "Olentzago" esaten zuten.

285. Gaztetako entretenimenduak: itsasoa, arrantza... (ZAR-015/025)

Gaztetako entretenimenduak. Markaidek uda moilan pasatzen zuen eta "Paxo" kadi lanean aritzen zen golfean. Surfean bezala ibiltzen ziren txalupen oholekin. Arrantzan ere ibiltzen ziren, pantxotan.

286. Golfeko kontuak (ZAR-015/026)

Paxo kadi lanean ibiltzen zen golfean. Lagunartean egoten zen eta sei pezeta jasotzen zituen. Aristokraziako jendea ibiltzen zen bakarrik golfean.

287. Aristokraziaren inguruko kontuak (ZAR-015/027)

Abaituanekoak ere egoten ziren golfean nahiz aristokraziakoak izan ez. Aristokratek lurrak bai, baina diru gutxi zuten. Abaituaneko aita Bilboko bolsako sindikoa zen. Zarautz inguruko hainbat lur, soro eta baserri aristokraziarenak ziren.

288. Beraneanteak (ZAR-015/030)

Ez zuten beraneanteekin jolasten, baina ezagutzen zituzten urtero berdinak izaten ziren eta. Beraneanteak nondik etortzen ziren eta egunean zehar zer egiten zuten.

289. Gaitzizenak (ZAR-015/031)

Zarautzen gehienek ezizena zuten. Gaitzizen zatarrak ere bazeuden. Markaideri "Alkortianekua" deitu izan diote.

290. Arraunlarien entrenamenduak (ZAR-015/033)

Orduko arraunlarien entrenamenduak nolakoak izaten ziren. Entrenatu ostean bakoitzak kiloko txuleta jan behar izaten zuen.

291. Pilotako jokoak (ZAR-015/035)

Pilotan ere aritzen ziren frontoi txikian, baina gerora kanpoko jendea sartu zen frontoian. Beraiek fraideetako frontoian jokatzen zuten "biten". Nola jokatzen zuten.

292. Herriko jaiak; dantza kontuak (ZAR-015/036)

Herriko jaietan buruhandiak jartzen zituzten. Suzko erruberak ere izaten ziren. Jaietarako dirua biltzen ibiltzen ziren aurretik. Dantza kontuak.

293. Dantza kontuak; gaztetako anekdota (ZAR-015/037)

Neska bati egindako gaiztakeria. Dantzan hasi zirenean eskua gorde eta egur zati bat eman zion neskari, eskurik izango ez balu bezala.

294. Sagardotegi eta tabernetako jokoak; bolatokia (ZAR-015/038)

Mutikoak zirenean baziren sagardotegiak, baina beraiek ez ziren asko ibiltzen. Non zeuden. Tokan eta zakelean jokatzeko zuten. Beste taberna baten bolatokia ere bazegoen. Bolatokian apustuak nola egiten ziren.

295. Kuadrillan kantuan ibiltzen ziren (ZAR-015/040)

Kuadrillan kantuan ibiltzen ziren tabernaz taberna eta jendea beraien atzetik ibiltzen zen. Sarasolanean egindako ziri-sartzea.

296. Otxotea nola eta nortzuk sortu zuten (ZAR-015/042)

Hasiera batean ottxotea nola eta nortzuk osatu zuten. Paxok eta beste kuadrillako batek tangoak abesten zituzten. "Coral de Zarauz" zuten izena eta otxotoen lehiaketan parte hartu zuten. Bigarren urtean finalera iritsi ziren eta diskoak ere ateratu zituzten.

297. Oleskariak; ottxotea nola joan zen indarra hartzen (ZAR-015/043)

Oleskariak taldea sortu zuten ottxotetik 1963 inguruan. Manolo Urbietak hartu zuenean taldea finalerako klasifikatu ziren lehiaketan 64an. Gerora Luis Amilibia sartu zen beraien taldean. Otxotearen eta abesten zituzten kantuen inguruko kontuak. Herri txikienetan ere aritu ziren kantuan.

298. Aristokraziakoei ere abesten zieten (ZAR-015/044)

Belgikako erregea txalet batean egoten zen Zarautzen eta harengana ere joan ziren abestera eta baita Donostiako zineko jaialdira ere. Fabiolaren ezkontzaren ere abestu zuten Bruselan. Aranburu zen zuzendaria orduan.

299. Zarauzko lexikoa (ZAR-017/002)

[Tximili-kuarteka] ibiltzen ziren. Txaparroa (bainujantzia). Zarauzko hitzak. Erdarazko hitzak erabiltzeko joera.

300. Zeledon Zarautzen (ZAR-017/003)

Gasteiztarrek uste dute Zeledon euren pertsonaia dela, baina beraiek gaztetan "Zeleron" abesten omen zuten, aitona zaharren bat edo eskalaren bat ikusten zutenean.

301. Bere buruaren aurkezpena: izena, jaioteguna, zaletasunak (ZAR-017/004)

Irakasle izandakoa da. Zaletasunak: pintura, mendia, hondartza, sukaldaritza.. Maria Mercedes Feliciano Arruti. 1931n jaioa irailaren 24an, orain Ifar kalea denean. Zergatik deitzen dioten Feli.

302. Amaren jatorria (ZAR-017/005)

Gerra Bizkaian pasa zuen, ama Mallabikoa zelako. Hizkeran antzematen zaiola komentatzen dute. Ama Mallagarai zen. Aitona oso aberatsa zen.

303. Gerra garaia nahiko ondo pasa zuten (ZAR-017/006)

Nola gogoratzen dituen gerrako egun haiek. Janari nahikoa zuten. Gerran baino okerrago pasatu zuen frankismo denboran. Osaba bat hil zieten. Aitak

ez zuenez erretzen, amak tabako-orrien truke janaria lortzen zuen. Ez du oroitzapen txarrik.

304. Euskaraz hitz egitearren isuna (ZAR-017/007)

Zaharragoek nola gogoratzen zuten gerra denbora. Bere gurasoei euskaraz hitz egitearren 60.000 pezetako isuna jarri zieten Donostian guardia zibilek. Don Leandro medikuak utzi zien dirua isuna ordaintzeko. Orduko dirua.

305. Eskolako kontuak: ikasketak nahiko aurrera eraman zituen (ZAR-017/008)

Lehenbizi Miserikordian eta gero Herriko eskolan ibili zen; ondoren, Maria Inmakuladara pasa zen magisterio ikastera eta Donostian bukatu zuen karrera. Valladoliden eta Madrilén izan zen ondorengo prestakuntzetarako. Eskolan jende asko egon arren, gutxik egiten zuten karrera. Adinaren arabera aldatzen ziren eskola batetik bestera.

306. Arantzazura txangoa (ZAR-017/010)

Eskoletan neskak eta mutilak banatuta egoten ziren. Urte bukaeran Arantzazura bidaia izaten zuten elkarrekin.

307. Beste irakasleekin ika-mikak ikasleei askatasun gehiago ematearren (ZAR-017/015)

Oposizioak egin ostean Zarautzen egon zen irakasle. San Inaziori egindako bederatziurrenean euskaraz abesteko eskatu zien bere ikasleei. Zuzendariak izugarritzko bronka bota zion. Neskei manga motxean ibiltzen ere uzten zien, eta beste irakasleek ez zuten ongi ikusten.

308. Apainketa-lanak: janzkera, orrazkera (ZAR-017/026)

Neguan ta udan antzeko arropa erabiltzen zuten, aukerarik ez zegoelako. 18 urtera arte ez zen hasi makilatzen. Ze orrazkera erabiltzen zen: melena eta kopetak.

309. Aristokraziakoekin nolako tratua zuten (ZAR-017/033)

Alfonso de Hohenlohe. Aristokratak ere gaizki ibiltzen ziren diruarekin eta inoiz lagundu ere egiten zieten zinera sartzen. Txartela apurtu gabe pasatu eta leihotik bera bidaltzen zioten gero behean zegoenari.

310. Ez zegoen neskontzako kirolak (ZAR-017/034)

Ez zegoen neskontzako kirolak eta, gainera, gaizki ikusita zegoen. Igerian bakarrik ikasten zuten, euren kasa edo etxekoren batek lagunduta.

311. Normal-normal tratatzen zuten aristokratekin (ZAR-017/037)

Aristokratekin zuten harremana. Normal-normal tratatzen zituzten, baina ez ziren festetan elkarrekin ibiltzen.

312. Zamaiko-zulua non dagoen eta zer zen garai batean (ZAR-017/039)

Zamaiko-zulua, orain Aitenetxe dagoen lekuari deitzen zitzaion. Tximili-kuarteka ibiltzen ziren bertan eta arrantzaleek batelak ere hortxe gordetzen zituzten. Eliza azpiari beti "zimitaiua" deitu izan diote, "cementerio"tik omen dator.

313. Marrazteko zaletasuna izan du beti (ZAR-017/040)

Betidanik izan du marrazteko afizioa eta ikasten ere ibilia da.

314. Etxetik kanpora egiten zuen lana eta etxean gutxi (ZAR-017/043)

Etxean lan gutxi egin du amari laguntzen. Donostiatik etorri zenean eskola partikularrak ematen zituen goizetik iluntzera arte. Jende askori laguntzen zion oposaketak prestatzen.

315. Fraideetako liburutegitik hartzen zituzten liburuak irakurtzeko (ZAR-017/045)

Bazuen irakurtzeko zaletasuna, baina asti gutxi. Tebeoak eta errebistaren bat besterik ez zen egoten irakurtzeko. Fraideetan liburutegia zegoen. Igande goizetan joaten ziren liburuak hartzera. Erreal bat edo bi ordaintzen zuten eta nobela arrosak irakurtzen zituzten.

316. Lehenbizi Zarautzen izan zen irakasle eta ondoren Aginagan (ZAR-017/046)

55.urtean hasi zen lehenengoz irakasle lanetan Zarautzen. Urtebete egin zuen Herriko eskolan. Gero Usurbilgo Aginagara joan zen. Irakasle gogorra zen baina jende askok estimatzen omen du. Nola izan irakasle ona azaltzen du.

317. Irakasleak aurkitu behar izaten zuen klaseak emateko material egokia (ZAR-017/047)

Eskolak emateko ministeriotik zetorren programa bat izaten zuten. Bertan eman beharreko temak agertzen ziren eta irakasleak aurkitu behar zuen material egokia. Partikularretan, lehenbizi berak ikasi behar izaten zuen, gai desberdinekin etortzen zitzaizkion eta. Kontabilitatea ere eman zuen.

318. Zarauzko eskolen egoera; inspektorea etorri zeneko gorabeherak (ZAR-017/048)

Zarautzen 11-12 urte inguruko ikasleak zituen eta Aginagan 6tik 14ra bitartekoak. Zarautzen ikasle asko zituzten eta ahal bezala garajetan ematen zituzten klaseak. Crespo inspektorea etorri zeneko kontuak. Aginagako eskolako egoera: eskola zaharra, haur asko, adin desberdinetakoak..

319. Ezkondu ostean, lanpostu finkoa utzi zuen (ZAR-017/049)

Gero Eibarko Aginaga auzora joan zen. Asko gustatzen zitzaion lekua, baina ezkondu eta eszedentiza eskatu zuen. Eta ez zen gehiago itzuli, "eskalafoian" gelditu zen.

320. Umetako kontuak (ZAR-018/003)

Umetako kontuak. Non jolasten zuten.

321. Gurasoen inguruko kontuak (ZAR-018/004)

Gurasoak. Aita eta ama biak baserrikoak. Baserriaren inguruko kontuak kontatzen ditu: aitak terrenoa erosi zuen eta ondoren etxea egin zuten Zalbiden zenbait lagunengaz. Ama langile handia omen zen.

322. Eskola (ZAR-018/005)

Umetan eskolara eta ondoren lanera joaten zen. Lehenengo miseriak eta gero herriko eskolan ibili zen, komunioa egin arte. Lehenbizi komunio txikia egiten zen eta geroago handia. Maistra oso ona omen zen. Zer ikasi zuten. Josten ere egiten zuten eskolan.

323. Baserriko bizimodua (ZAR-018/006)

Noiz etorri ziren etxe berrira. Ze animalia zeuzkaten baserrian. Terrenoak, mahastiak... Txerriak hazi eta saldu egiten zituzten. Herriko merkatariek saltzen zituzten produktuak eta geroago Donostian ere bai.

324. Josten ikastera joaten zeneko kontuak (ZAR-018/007)

Bere bizimodua dena nekazaritzatik. Gero josten ikastera joaten zen jostundegi batera. Bertako kontuak.

325. Umetako jolaslekuak eta bihurrikeriak (ZAR-018/008)

Txikitako kontuak. Finka bateko zelaian jolasten zuten eta gaiztakeria asko egiten zituzten. Uraren depositua ireki eta errekan arropa garbitzen ari ziren emakumeei ur-uholdea bidali zieten. Mutikoekin ibiltzen zen eta bera ere, haiek bezala, arboletan puntarik punta. Lorazainari egiten zizkioten gaiztakeriak.

326. Umetako jolasak. (ZAR-018/009)

Jolasak: txingoka, sokasaltoan.. Orduan ez zegoen jostailurik.

327. Santa Marinako elizaren inguruko kontuak (ZAR-018/010)

Santamariak. Jaiak noiz ospatu ziren lehenengo aldiz. Meza izaten zen goizean. Gero eliza bota zuten eta ez zegoen lekurik eliza berria egiteko. Administradorea Don Jose Joakin Fort zen. Honen inguruko pasadizo bat kontatzen du.

328. Euskara/erdara (ZAR-018/011)

Umetatik egin du erdaraz. Miseriak euskaraz ikasten zuten, ez zekitelako erdaraz. 9 urterekin herriko eskolara joan zen eta han erdaraz. Eskolan ez zuten kantatzen, elizan bai.

329. Jostera joaten zeneko kontuak (ZAR-018/013)

Eskolatik atera eta gero josten hasi zen. Goiz eta arratsalde egoten zen bertan. Hamabi lagun juntatzen ziren. Jendearen arroparekin lan egiten zuten, baina ikasi bitartean eurak ordaintzen zituzten klaseak.

330. Santa Agedak (ZAR-018/014)

Ospakizunak. Santa Agedak. Patxi pelukeroak eta bere lehengusu batek egiten zuten bertsotan. Zalbidera joaten ziren bertsotan egitera eta bera entzutera joaten zen.

331. Hiletak (ZAR-018/016)

Hiletak. Elizatik bizkarrean eramaten zuten gorputza hilerriraino. Gurutzea aurrean jarrita joaten ziren. Kanpai ezberdinak egoten ziren. Herriko hileta entzutetsua izan omen zen Martinez Campos-ena, baina berak ez zuen ezagutu. Konde baten semea ere Zarautzen lurperatu zuten eta hura hilerrira etortzen zenean haren atzetik joaten ziren.

332. Santa Marinako ermita egin zutenekoa (ZAR-018/017)

Santa Marinako ermita auzolanean egin zuten. Zalbideko bi nekazarik egin zituzten gurutzeak eta ontzia. Egunero-egunero joaten ziren lanera. Santa Marina egunean bakarrik egoten ziren elizkizunak. Apaizarekin haserre ibiltzen ziren.

333. Gerra hasiera (ZAR-018/018)

Gerra hasi zenean 18 urte zituen. Nola gogoratzen duen gerra hasiera. Jendea etortzen zen ihesika. Ez zuten ezer jakiten, irratirik ere ez zutelako. Udaletxea erre zuten.

334. Gerraren inguruko kontuak (ZAR-018/019)

Gerraren inguruko kontuak. Hildakoak ekartzen zituzten eta musikarekin egiten zieten entierroa. Sakeoak. Non zeuden ospitaleak. Ez zuten irratirik, eta egunkarian hitz asko tatxatuta egoten ziren jendeak berririk ez jakiteko.

335. Azokara joaten ziren saltzera. (ZAR-018/020)

Normalean ama joaten zen azokara, baina berak ere joan behar izan zuen inoiz. Lehenengo egunean 6 pta. hartu zituen.

336. Errotak eta ogi egitea (ZAR-018/022)

Errotak non zeuden. Berak joan beharra izaten zuen astoarekin. Kiloko hainbeste kentzen zuten errotan. Gero garia egiten hasi ziren. Amak ogia egiten zuen etxean. Geroago ogia panaderian egiteko eskubidea ere atera zuten. Santio errekan errota asko zeuden

337. Umetako burutazio bat (ZAR-018/024)

Diruaren inguruko pasadizo bat kontatzen du.

338. Gaztetan nola dibertitzen ziren. (ZAR-018/030)

Nola dibertitzen ziren. Neskek dantzan egiten zuten kioskoaren inguruan eta mutilek tabernatik begiratu. Umetan zinera joaten ziren. Neskak eta mutilak aparte jartzen zituzten. Igandetan 6 pieza jotzen zituzten plazan. Udan astean 3 egunetan egoten zen mu

339. Erromerietako kontuak (ZAR-018/031)

Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen. Aizarnazabalera erromeriara joan zeneko pasadizoa kontatzen du. Sasoiz joaten ziren beti etxera.

340. Elurte eta uholdeen inguruko kontuak. (ZAR-018/034)

Eguraldia. Elurteak. Berak ez du ezagutu elurte handirik, baina orain baino gehiago bai. Uholde batzuetan txalupan ibili omen ziren kalean, Alfa egin eta handik gutxira. Geroago ere 1949-50 inguruan eurite handiak izan ziren. (zarata handia entzuten da)

341. Baserritarren ermandadeak eta auzolana (ZAR-018/035)

Baserritarrek ganduaeren ermandade bat izaten zuten. Hilean behin elkartu eta kuota bat ordaintzen zuten. Zerbait pasatzen zenean elkarri laguntzen zioten. Baserri bat erretzen zenean etxez etxe ibiltzen ziren eskean. Auzolana.

342. Txakolina eta sagardoa egiten zituzten etxean. (ZAR-018/036)

Mahastiak. Bera umea zenetik izan zituzten mahastiak. Txakolina egiten zuten etxean. Txakolina nola egiten zuten. Txakolin botila pezetatik behera egoten zen. Sagardoa ere egiten zuten. (zarata handia entzuten da)

343. Etxeko giroa umetan (ZAR-019/005)

Gurasoak oso elizkoiak ziren. Aita egunero-egunero joaten zen mezara. Aita oso ona omen zen eta ama ere izakera onekoa. Kantu eta bertso ugari zekizkien amak.

344. Umetako entretenimenduak: jolasak eta antzerkia (ZAR-019/007)

Umetan eskolara joaten ziren eta gero etxe inguruan jolasten zuten: kaniketan, sokasaltoan.. Rosariok antzerkia ere egiten zuen batzokian gerra aurretik. Zein antzerki egin zituen.

345. 'Amonaren esanak' antzezlanak (ZAR-019/008)

Batzokian egiten ziren antzerkiak, eta jende asko joaten zen. Beste behin, Amonaren esanak antzezlanak egin zuten. Nolakoak zen antzezlanak. Donostiara, Getariara eta beste herri batzuetara ere joan zen antzerki hori egitera.

346. Rosariok dantza-ikastaroak eman zituen fraideetan (ZAR-019/009)

Pospolinetan ere ibili zen dantzari eta denek ezagutzen zuten. Fraideetan ibili ziren dantzari irakasten eta talde bat osatu zuten. Bukatutakoan Arantzazun astebete pasatzera gonbidatu zituzten.

347. Moilara joateko neskek izaten zituzten debekuak (ZAR-019/014)

Umetako jolasak. Rosario mutil artean ibiltzen zen eta futbolean eta igerian ere aritzen zen. Kaniketan, tximili-kuarteka.. ibiltzen ziren. Kosta gustatzen zitzaizkien baina neskei ez zieten uzten moilara joaten.

348. Hondartza eta bertako giroa eta ohiturak nolakoak ziren (ZAR-019/016)

Emakumeak nola entretenitzen ziren hondartzan. Pilotan aritzen ziren. Rosario hondartzatik moilara ere joaten zen igerian. Nolakoa zen orduko hondartza. Bainu-etxea. Herritarrek arroka inguruetan egoten ziren eta aristokraziakoak beste aldean.

349. Dirurik ez zen gastatzen; entretenimendu merkeen bila (ZAR-019/018)

Rosario kirolzalea izan da. Pilotan aritzen zen normalean, baina baita futbolearen ere. Pilotan eskuz eta raketarekin jokatzen zuen. Ez zen dirurik gastatzen orduan. Gozodenda bakarra zegoen.

350. Jatekoa; arraina Getariatik zuzenean ekarria (ZAR-019/020)

Ohitura handia zen etxeetan babarruna jateko. Porruak, lentejak... ere jaten zituzten. Etxeko ohiturak. Arraina eta txerrikia ere jaten zuten. Arrandegirik ez zegoen eta Getariatik zuzenean ekartzen zuten arraina etxeetara. Espresa deitzen zioten arrain-partitzaileari.

351. Garraioak: bizikletak, kotxeak eta "ahí te pudras"-ak (ZAR-019/021)

Kotxerik ez zegoen ia. Beste pertsona bat alboan eramateko moduko motorrak baziren eta "Ahí te pudras" deitzen zieten halakoei. Bizikletak bazituzten, baina txandaka ibiltzen ziren.

352. Gerra-garaiko egoera gogorra eta beldurra (ZAR-019/023)

Gerra garaian beldur handia pasa zuten. Kalera gutxi irteten ziren. Aita eta ama kartzelan izan zituzten, bi anai gerran eta hirugarrena Eibarren armekin lanean. Anai bat hil egin zen eta besteak Ameriketara ihes egin zuen.

353. Razionamendua; goserik ez zuten izan (ZAR-019/024)

Goserik ez zuten pasatu. Neurtuta jaten zuten baina oliorik, babarrunik edo ogirik ez zitzaien falta izan. Razionamenduko ogia beste batzuei ematen zieten.

354. Arropa garbitzera erredera (ZAR-019/025)

Zalbideko erredera joaten ziren arropa garbitzera. Etxean egiten zuten xaboia olio zikina eta kaustikarekin. Arropa eta xaboia hartu eta errekan garbitu ondoren etxeko terrazan lehortzen zuten. Bertara joaten ziren emakumeek zertaz hitz egiten zuten.

355. Jantziak eta oinetakoak (ZAR-019/027)

Arropa berriak noiz estreinatzen zituzten. Aste-egunean soinekoa, jertsea eta zapatak edo alpargatak erabiltzen zituzten. Igandetarako jantziak gordeta izaten zituzten. Pelukerira ez ziren inoiz joaten, amak moztzen zien ilea.

356. Santa Marina eguneko ospakizunak (ZAR-019/028)

Santa Marina egunean ze ospakizun egoten ziren: soinujolea, bertsolariak, lasterketak umeeekin.. Festak ondo aprobetxatzen zituzten goiz bukatzen ziren eta. Goizeko zazpitan izaten zen meza eta ondoren txokolatea banatzen zuten.

357. Gerraostean fraideak hasi ziren kultur-giroa indartzen (ZAR-019/030)

Gerraostean, nekez hasi ziren berriz ikuskizunak. Manolo Urbieta izan zen bultzatzaileetako bat. Fraideak hasi ziren antzerkia egiten, baina beldurrez ibiltzen ziren. Asko joaten ziren antzerkira. Pedro Mari antzerkia gogoratzen du Rosariok.

358. Neska-mutilak berandura arte ez ziren elkartzen (ZAR-019/031)

Neskak eta mutilak banatuta ibiltzen ziren. 22-23 urterekin hasten ziren elkarrekin ibiltzen. Musika-plazan elkartzen ziren dantzara joaten zirenean. Ze jai ospatzen ziren.

359. Euskal Jai eguna (ZAR-019/032)

Euskal Jaia. Karrozak egiten ziren eta txistulariak ere ibiltzen ziren. Goizean Meza nagusia egoten zen San Pelaion. Bandak jotzen zuen. Kalejira beti izan da garrantzitsua. Dantza-soltean egiten zuten gehienbat debekatuta zegoelako mutilekin dantza egitea.

360. Barre egiteko pelikulak botatzen zituzten zinean (ZAR-019/035)

Zinera ere joaten ziren Modelora eta Antonianoetara. Barre egiteko pelikulak botatzen zituzten.

361. Baserri guztietakoak ibiltzen ziren esne-partitzen (ZAR-019/036)

Baserritarrekin ondo konpontzen ziren. Esnezalearekin izan duten harremana. Amak mantekila etxean egiten zuen eta esnezaleari eskaini. Izetakoa etortzen zitzienez beraiei, baina baserri guztietakoak ibiltzen ziren esne-partitzen.

362. Ogi-beltza nolakoa zen (ZAR-019/037)

Okindegiak. Lehenago ogi beltza egoten zen eta gerora hasi zen ogi zuria. Latza eta txarra izaten zen ogi beltza eta askotan poztu egiten ziren errazio txikia ematen zietelako.

363. Ordukoek askoz osasun hobea zuten (ZAR-019/038)

Jendeak osasun ona zuen orduan. Beraien gurasoak ez ziren inoiz gaixotzen eta beraiek ere ez. Orden batean bizitzeak osasunari mesede egiten diola diote. Ilargia irtetean etxeratu eta eguzkiarekin jaikitzen ziren.

364. 'Xabiartxo' liburua (ZAR-019/039)

Ez zegoen liburu asko irakurketarako. Xabiartxo liburua gustatzen zitzairen, eta hura irakurtzen zuten. Zer kontatzen zen Xabiartxo liburuan.

365. Etxeko giroa; diziplina, konformidadea (ZAR-019/040)

Gabonak nola ospatzen zituzten. Afari ederra egin ostean abestu eta kartetan egiten zuten. Aita diziplinatua zen bere buruarekin eta bere egunerokotasunetik ez zen irteten. Ez zuen koparik edaten eta erre ere ez. Orduan konformidade handiagoa zegoen.

366. Gabonetako menua eta etxeko giroa (ZAR-019/041)

Bisigua jaten zuten beti Gabonetan. Azalorea edo aza izaten zuten lehenbizi, gero kroketak eta ondoren bisigua edo angulak. Gaietan konpota eta turroiak. Baserrietatik ekarritako sagardoa edaten zuten. Afalondoan jaiotzaren inguruko kantuak kantatzen zituzten.

367. Neska-mutikoak jaiotzarekin etxez etxe eskean (ZAR-019/042)

Herrian neska-mutikoak jaiotzarekin kantuan ibiltzen ziren etxez etxe. Aitak laguntzen zien jaiotza egiten. Etxe ezagunetara joaten ziren. Kantuan egin eta trukean dirua edo beste zerbait ematen zieten.

368. Noiz hasi zen galtzen plazako regatea (ZAR-019/043)

Azokan erregateatu egiten zen, baina fraide batek pulpitutik eskatu zion jendeari baserritarrei ez erregateatzeko eta orduan hasi zen ohitura hori galtzen. Orduan konformidade handia zegoen.

369. Denak zeuden maila berean; gutxirekin konformatzen ziren (ZAR-019/044)

Karta-jokoa. Aitak eta anaiek musean jokatzen zuten; beraiek zazpian eta partxisean ere bai. Gabonetan, erregeen oparia beti eskolarako materiala izaten zen. Diferentziarik ez zuten elkarren artean, maila bereko jende ibiltzen zelako elkarrekin.

370. Ameriketatik ekarri zizkieten irratiairen inguruko gorabeherak (ZAR-019/045)

Egunkaria hartzen zuten etxean. Irratirik ez zen egoten orduan, baina beraiek bazuten bat Ameriketatik bidali zietena. Behin, pilota partiduko finalaren egunean, argia joan zen eta ezin entzun partidua. Beraien irratia ez zuen argirik behar, eta jende ugari joan zitzairen etxera partidua entzutera.

371. Euskara ahaztu zitzaion gaztetan (ZAR-020/003)

Antoniori gaztetan euskara ahaztu zitzaion aita katalana zuelako eta kalean erdaraz hitz egiten zuelako. Amak ze irtenbide aurkitu zuen. Katalanez ez zuen ikasi.

372. Aitaren bizimodua, alde batetik bestera (ZAR-020/004)

Aitaren inguruko pasadizoak; aitaren esaerak. Antonioren aita gazterik umezurtz geratu zen. Kartero lanetan hasieran eta pastelero gisa ibili zen gero Bartzelonan. Donostiara lanera etorri zenean ezagutu zuen emaztea.

373. Garaiko moda: Lezon ezkontzea (ZAR-020/005)

Garai batean modan zegoen Lezon ezkondu eta Amasan bazkaltzea.

374. Arratoieng inguruko apustua Noizbait frontoian (ZAR-020/010)

Noizbait frontoia. Behin arratoiak kaiola handi batean sartu eta zein katuk akabatu arratoi guztiak apustuak egin zituzten udala ere tarteko zela. Gobernutik 25.000 pezetako isuna jarri zieten.

375. Etxe garestia eta "Vino de mesa" (ZAR-020/011)

Amari gustatu egin zitzaion etxea eta garestia izan arren erosi egin zuten. Apaizek mezetarako erabiltzen zuten ardoari "vino de misa" deitzen zioten. Donostiatik ekartzen zuten.

376. Manolik abestu egiten zuen mezetan (ZAR-020/013)

Manoli miserikordian ibili zen ikasten. Goizean ikasgai ezberdinak ikasten zituzten eta arratsaldean josi. Santa Ana eguna nola ospatzen zuten mojek. Meza egoten zen goizean eta ondoren Manolik "Et incarnatus est" abesten zuen.

377. Zangotzara dantzara joan zireneko pasadizoa (ZAR-020/015)

Dantza-taldean ibili zen Manoli. 12 urterekin Zangotzara joan ziren dantzara. Bertan gertatutako pasadizoa.

378. Neska eta mutilen jolasak (ZAR-020/017)

Eskolatik irtendakoan, merkatuko plazara joaten ziren jolasera. Amona saltoka, tximili-kuarteka.. aritzen ziren. Neskek xakaponetan jolasten zuten. Igandetako eskupekoa txakur txikia izaten zen.

379. Jolasen inguruko kantak (ZAR-020/018)

"Tres navios" kantua. Gatibu nor geratzen zen erabakitzeko abesten zuten kanta. Neska eta mutilak elkarrekin ere ibiltzen ziren, baina bakoitzak bere jolasak zituen. Kanpora erortzen ziren golfeko pilotak etxera eramaten zituzten.

380. Tifusak eragindako kalteak (ZAR-020/019)

Iloba bat tifusarekin hil zitzaien eta jendea ez zen dendara sartzen kutsatzeko beldurrez. Manolik bi hilabete zituela gurasoek tifusa harrapatu zuten eta urtebetez beste familia batek hazi zuen.

381. Aste eta jaietako menua (ZAR-020/025)

Babarruna jaten zuten egunero eta garbantzuak eta oilaskoa jaietan. Esnekiarekin egindako postreak jaten ziren.

382. Hasieretan laberik ere ez zuten (ZAR-020/026)

Eraikin osoa erostea zenbat kostatu zitzaien. Hasieran laberik ez zuten bertan eta Errustanera joaten ziren. Errekondonekoek ogia Aizarnazabalera ere eramaten zuten.

383. Errustaneko labea; horren inguruko pasadizoa (ZAR-020/027)

Errustaneko labea nolakoa zen. Egurra ekarri eta harekin brasa egiten zuten. Horrek mantentzen zuen beroa. Katu bat labe barrura sartu zuteneko pasadizoa.

384. Umetan asko ibiltzen ziren bizikletan (ZAR-020/028)

Antonio umetan anaiaren bizikletarekin ibiltzen zen. Anaiak berak egiten zituen bizikletaren konponketak. Donostiara joaten ziren bizikleta eroatera; prezioak. Manoli ere 12 urte ingururekin hasi zen bizikletan.

385. Beste herrietatik jasotako enkarguak; telefonoa (ZAR-020/033)

Antonioren aitak pastelak bidaltzen zituen Getariara, Oriora eta Azpeitira. Zein gozo-denda zeuden Zarautzen. Eibartik ere deitu zien emakume batek San Blasak eskatuz. Telefonoak nola funtzionatzen zuen.

386. Lapurrak aitarengana (ZAR-020/034)

Behin aitari eta beste lagun bati, farolarekin zihoazela, lapurrak bidera atera zitzaizkieneko pasadizoa.

387. Getariarrak (ZAR-020/036)

Getariarrekin harreman ona zuten. Arrantzaleak goizeko bostetan etortzen ziren arrain freskoa saltzera. Getariarrekin lotutako kanta.

388. Plazako dantzaldiak (ZAR-020/039)

Plazan bandak jotzen zuen eta tartean "ttunttuna" (txistua) egoten zen soltean dantza egiteko. Aguazilak jendea zaintzen zuen dantzarietara lekua uzteko. Galtza luzeak jantzi arte ezin izaten zen dantzan egin.

389. Gaztetako entretenimenduak; neska-laguntzeak. (ZAR-020/041)

Jendea kale nagusian paseatzen ibiltzen zen. Herrian zeini jartzen zitzaion fama txarra. Musika amaitutakoan neska-laguntzeak izaten ziren.

390. Aiarren inguruko pasadizoak (ZAR-020/042)

Aiarren inguruko zenbait pasadizo.

391. Neska eta mutilen arteko kontuak; dantza; debekuak (ZAR-020/043)

Neska-laguntzeak egiten ziren auzoetara. Bikote baten inguruko pasadizoa. Kuliska kafetegian dantzaldiak izaten ziren. Don Meliton apaizaren debekuak. Igeldon ere orkestra egoten zen jotzen.

392. Biografia; familia giroa. (ZAR-021/003)

Hamar anai-arreba ziren guztira, bi ama desberdinenak, baina txikitan hil ziren asko. Aita hiru aldiz ezkondu zen. Aita eta aitona Nekazabal baserrikoak zituen.

393. Ikasketak erdaraz eta euskaraz (ZAR-021/005)

Urtetan ibili zen eskolan. Euskaraz eta erdaraz ikasten zuten. Izeba batekin ere ibili ziren ikasten eta miseriak ere bai 14 urtera arte.

394. Aita gurea nola ikasi zuten (ZAR-021/006)

Izebak sukaldeko lanak egiten zituzten bitartean erakutsi zieten "Aita gurea" errezatzen. Beste mutiko batek "Aita gurea" nola errezatzen zuen.

395. Aurrerapenik eza: urik eta argirik ez (ZAR-021/008)

Eskolatik irtendakoan etxean lanak izaten zituzten. Urik eta argindarrik ez zuten. Kandelak eta petrolio kinkea erabiltzen zituzten.

396. Eguneko jatorduak (ZAR-021/013)

Gosaritan artoa eta esnea eta zartaginean egindako zerbait jaten zuten. Taloak ere egiten zituzten. Bazkaritan babarrunak eta zezina edo urdaia. Postrean gaztainak edo sagar-erreak.

397. Josten egindako lanak (ZAR-021/015)

Akarrenetakoan ibili zen josten ikasten. Besteak oheratutakoan josten aritzen zen. Bi ezkontzako soineko ere egin zituen eta "Bonbas Itur"-ekoentzat buzo eta amantalak ere josten zituen.

398. Negu hotzak (ZAR-021/025)

Orduko neguak gogorragoak izaten ziren. Esne botilak izoztu egiten zitzaizkien bidean.

399. Plazako kontuak; prezioak (ZAR-021/029)

Larunbatetan plazara jaisten zen tratuarekin. Donostiatik emakumeak etortzen ziren oiloak erostera. Salneurriak. Beraneanteei gehiago kobratzen zitzaien.

400. Zestuako Lizaso hotelean neskame (ZAR-021/030)

Neskame ibili zen hotelean. Hamabostean behin ordubete izaten zuten libre. Zestuako Lizaso hotelean ere ibili zen. Nolakoa zen hotela. Bertan egiten zituzten lanak. Gerora madrildar batzuen txaletean aritu zen, baiña bertako lana lasaia zen.

401. Txerri-feria (ZAR-021/031)

Txerria Santa Barbara eguneko txerri-feriara eramaten zuten saltzera.

402. Kotxe gutxi ikusten zen orduan (ZAR-021/034)

Umetan Aiako errepidera igotzen ziren kotxeak ikustera. Kotxe asko ikustean erregea zetoirela esaten zen.

403. Bere aitaren zinegotzi-lanak (ZAR-021/035)

Bere aita kontzejal izendatu zuten Primo de Rivera-ren garaian. Bilera asko egiten zituzten. Honen inguruko kontuak.

404. Ezkondu osteko bizimodu gogorra (ZAR-021/037)

25 urterekin ezkondu eta lehenbizi maizter gisa bizi izan ziren. Gero etxea egin zuten baina espropiatu egin zieten eta baserrira joan behar izan zuten. Nola hil zitzaizkien hainbat senide azaltzen du.

405. Abereen izenak (ZAR-021/040)

Astoarekin jaisten ziren kalera. Animaliei ze izen jartzen zieten.

406. Boletan bederatzi txirlorekin (ZAR-021/042)

Auzoko mutikoekin bola-jokoan aritzen zen, bederatzi txirlorekin. Garizuman dantza debekatuta zegoen eta bestelako jolasak asmatzen zituzten.

407. Urtetako irakaslea (ZAR-021/043)

Eskolan ikasi zuen euskaraz idazten. Irakasle ona izan zuen Urtetan, irundarra.

408. Fabiola zine mutua (ZAR-021/045)

Behin joan ziren zinera "Fabiola" zine mutua ikustera. Sarrera ordaintzeko lanak izan zituzten.

409. Janariaren truke egindako lanak (ZAR-022/007)

Mutikotan lan ugari egiten zuen janariaren truke. Festetan bokadiloak saltzen zituzten tabernetan afari-pasara egiteko.

410. Dirua eskatzen zen etxeetan jaiak antolatzeko (ZAR-022/015)

San Juanetan sua egiten zen. Baserrietan ohitura handia zegoen lehenago eta kalean ere egin izan da. Dirua eskatzen zuten etxe eta tabernetan. Txurreroaren inguruko kontuak.

411. Jendeari maletak eramaten egindako lana (ZAR-022/016)

Jendea trenez etortzen zen lehenago maletekin. Mutikoa zenean treneko atean egoten ziren maletak eramaten laguntzeko zain. Soldaduei ere laguntzen zieten patata-zakuak eramaten. Ez zuen goserik pasatu.

412. San Pelaioetako giroa (ZAR-022/018)

Dultzaineroek musika-kiosko ondoko tabernan bazkaldu eta lo egiten zuten. Gaueko ordu bat eta erdietan bukatzen zen festa. Serenoa ibiltzen zen. San Pelaio bigarrenengoan lasterketa egoten zen eta jendeak hamaiketako egiten zuen.

413. Ama Birjinaren eguneko festak (ZAR-022/027)

Ama Birjinetan ere jaiak ospatzen ziren. Gran Hotel parean, kostan, egiten ziren lehenago su artifizialak. Munioan lapikoak apurtzen aritzen ziren eta bertan ateratakoarekin afaria egiten zuten.

414. Kanpotarrak Euskal Jaia pasa arte ez ziren joaten. (ZAR-022/028)

Kanpotarrak zain egoten ziren Euskal Festak pasatzeko beraien herrietara itzultzeko. Lehen txalet ugari zegoen.

415. Kanpotarrak trenez etortzen ziren (ZAR-022/033)

Reketeek uztailaren 18a ospatzen zuten. Bezperan buruhaundi eta erraldoiak egoten ziren. Kanpotarrak Euskal Jaia pasatzeko zain egoten ziren Zarauztik joateko. Jendea trenez etortzen zen lehenago. La Bergaresa.

416. Txistulariak; euren jantziak (ZAR-022/037)

Txistulariak nola jantzita ibiltzen ziren. Asko ibiltzen ziren garai batean txistua jotzen. Erregetan zaldiekin ateratzen ziren.

417. Kanpoko koruak etortzen ziren abestera (ZAR-022/038)

Koruak ere etortzen ziren inguruko herrietatik, kanpotarrei asko gustatzen zitzaien eta. Bukatutakoan afaria ematen zien berak abeslariari.

418. Trinitade kaleko jaiak (ZAR-022/042)

Trinitade kaleko jaiak. Asteburuan jartzen zuten festa eta musika egoten zen. Gure Kabiak antolatzen zuen festa.

419. Errekadista lanean ibili zeneko kontuak (ZAR-022/046)

Ez da egongo bera ibili ez den etxerik. Lehengo igogailuak non jarri ziren.

420. 8 urterekin eskabetxerian lan egin zuen. (ZAR-022/047)

Getaria eta Zarautzen arteko ez-ikusia. Anaia eta biak eskabetxerian aritu ziren lanean 8 urterekin, antxoei burua kentzen. Nola lan egiten zuten.

421. Orioko San Pedroak; boxeolariak. (ZAR-022/050)

Juaristi anaiak boxeoan aritzen ziren. Orioko San Pedroak. "Toro" deitzen zioten boxeolari bat ikustera jende asko joaten zen. Zarauzko heladeroak Oriora joaten zen saltzera eta arrakasta izaten zuen.

422. Zamaketa eta errekadista lanak umetan (ZAR-023/002)

9 urterekin, eskola utzi eta lanean hasi zen aitari laguntzen. Errekadista lanetan ibiltzen zen, eta zamaketa lanetan aita eta anaiarekin batera.

423. Mutikotako lehenengo zigarroak (ZAR-023/004)

Mutikotan, kanalera joaten ziren bainatzera. "Txorteko zigarroak" erosten zituzten txakur handi baten truke.

424. 13 urterekin errementari-lanean (ZAR-023/005)

13 urterekin hasi zen errementari lanetan. Errementariak begia jo zion eta aitarekin hitz egin ondoren, lanean hasi zen tresnak zorrozten. Soldatak.

425. Antonianoneko tailerra (ZAR-023/006)

Geroago Antonianonera joan zen lanera, hobeto irabazten zelako. Egur-lana egiten zuen, baina tailerrak denetarik zuen. Nortzuk ziren tailerraren jabeak.

426. Tailerretik irtendakoan beste hainbat lan (ZAR-023/007)

Irina partitzen ere aritu zen. Tailerrean ze ordutegi izaten zuen. Tailerreko lana bukatutakoan beste hainbat lan egiten zituen.

427. Iruñera laguna bisitatzera bizikletaz joan zeneko pasadizoa (ZAR-023/009)

Arrauneko diruarekin, bizikleta erosi zuen. Asko ibiltzen zen bizikletan. Behin Iruñea ingururaino joan zen soldadu zegoen laguna bisitatzera.

428. Zarauzko txapelketako irabazleak (ZAR-023/016)

Zarautzen ere egin zen bola-jokoko txapelketa, baina bera oraindik ikasten zebilen. Añtako bi anaiak irabazi zuten.

429. Arraunlarien entrenamendua eta jatekoa (ZAR-023/025)

"Arin-txikia" animatu zuen arraunera eta lau urte egin zituen. Egunero entrenatzen ziren. Ze patroibili izan ziren. Entrenamenduak nolakoak ziren. Jatekoa ez zuten zaintzen, txuleta jaten zuten.

430. Zumaia eta Zarauzko traineruak azken posturako lehian (ZAR-023/026)

Estropadetan Orio eta Pasaia ziren onenak. Zarautz eta Zumaia beti azkenak ibiltzen ziren eta pikea izaten zuten. Azken traineruarentzat ere diru dezenteko saria izaten zen. Getariak ere bazuen trainerua.

431. Eskolan gehiena euskaraz (ZAR-024/005)

Eskolan fraideetan ibili zen 12 urtera arte. Bazeuden "egurra" ematen zieten irakasleak. Euskaraz ematen zuten gehiena, baina bazeuden irakasle erdaldunak ere. Frai Victor.

432. Gauez emakumeei josten irakasten (ZAR-024/007)

14 urtera arte ikasi zuen fraideetan eta ondoren jostundegian hasi zen lanean aita eta ama irakatsita. Gero, gauetan emakumeei irakasten aritzen zen.

433. Txikiteoan abeslari (ZAR-024/015)

Txikiteoan asko abesten zituzten euskal kantak. Debekatuta zegoen euskaraz abestea eta arazoak izaten zituzten.

434. Gerra garaian, soldaduak dendara (ZAR-024/016)

Gerra garaian, jostundegia irekita izan zuten, baina bi alderdietakoek gaiak kentzen zizkieten dendatik. Mutikoak ziren artean eta ez ziren gerraz jabetzen.

435. Mutikotako jolasak (ZAR-024/017)

Entroka jolasa nola zen. Amona-saltoka eta "a la osa". Nola jolasten zen.

436. Hondartzatik aritzen ziren ehizan; Guardia Zibilen zaintza (ZAR-024/020)

Zarautz leku egokia zen ehizarako. Guardia Zibilek utzi egiten zieten hondartzatik hegaztiak ehizatzen, baina arrantzarako baimena eskatu behar izaten zen. Kosta zaintzen egoten ziren etengabe Guardia Zibilak. Behin herritar batzuek Guardia Zibilak mozkortu zituzten beraiek jeneroa errazago mugitzearren.

437. Ehizarako lekuak (ZAR-024/021)

Ahate garaian, urrian, hondartza ertzean jarri eta iluntzean haiek tirokatzen zituzten. Oilagorretara joan zen batean txakurra hil zitzaion elektrokutatuta. Pobes-era joaten ziren oilagorretara, fama handia zuen eta. Nafarroa aldera ere joaten ziren eperretara.

438. Gaztetatik korrika-saioak eta apustuak (ZAR-024/022)

40 urte ingururekin hasi zen korrika eta oraindik ere jarraitzen du lasterketetan parte hartzen. Soldaduska aurretik ere ibiltzen zen, baina gero utzita egon zen. Apustuak ere egin izan ditu.

439. Apustu baten inguruko gorabeherak (ZAR-024/023)

Jose Mari tabernan zabaldutako apustua. 100 kiloko zaku-irina jaso edo ez zuten jokatu apustua.

440. Korrika egiteko entrenamenduak; lasterketak (ZAR-024/024)

Korrika egiteko ez ziren prestatzen eta jatekoa ere ez zuten zaintzen. Taldean entrenatzen ziren; zeintzuk ibiltzen ziren. Surtidoretik San Pelaiaorako ibilbidean entrenatzen ziren. Lehenbiziko lasterketak fraideetakoak izan ziren.

441. Tabernetan sortzen ziren apustuak (ZAR-024/025)

Jendea tabernetan enteratzen zen apusturen bat zegoenean. Apustuak tabernetan sortzen ziren.

442. Arantzazura txangoa (ZAR-024/027)

Zarautzen Arantzazurako fede handia izan dute. Mutikotan ere bi egunetarako txangoa egiten zuten.

443. Harkaitz-mendi elkartearen inguruko kontuak (ZAR-024/029)

Harkaitz-mendi elkarteko sorreran parte hartu zuen. Izan dituen karguak. Lagun kuadrillarentzat egin nahi zuten elkartea, baina ezinezkoa zenez, "caza y pesca" sortu zuten. Bertako kideak 3 kategoriatan banatzen zituzten: ehiztariak, arrantzaleak eta "triperoak".

444. Getariarrekin liskarra balea dela eta (ZAR-024/031)

Harkaitz-mendi elkartean balearen koadro bat dago. Bere aitona-eta harrapatu zuten balea. Horren inguruko bertsoak ere badaude. Getariarrekin liskarrak izan dituzte beti kontu honen inguruan. Inguruko herritarrekin harremana.

445. Gau-arrantza, arroketakoa (ZAR-024/032)

Arroketako arrantza egin izan du beti: gau-arrantza. Karburoarekin argi egin eta "txista"-rekin arrantzatzen zuten. Olagarroak, itsas-kabrak, etab. harrapatzen zituzten. Etxean uzten zioten astia arrantza eta ehizarako.

446. Guardia Zibilekin gertatutako pasadizoa (ZAR-024/034)

Txurrero txikiari Guardia Zibilekin gertatutako pasadizoa. Ehiza eta arrantzako lagunak.

447. Amuari haizarra jartzen zitzaion (ZAR-024/035)

Amuari haizarra (zizarea) jartzen zitzaion.

448. Errekadista lanak (ZAR-024/037)

Emaztea hasi zen trenez enkarguak egiten. Nortzuk ematen zizkieten enkarguak. Paketeak jostundegian gordetzen zituzten eta Donostian ere bazituzten hiru agentzia. Furgoneta asko erabili dituzte.

449. Errekadista lanak (ZAR-024/038)

Donostian non izan dituzten lokalak. Errekadista-lanetan gertatutako pasadizoa.

450. Errekadista lanak (ZAR-024/039)

Iturrik, Pardok, Otzarretak.. ematen zizkieten enkarguak. Astean bi aldiz Gasteizera joaten ziren eskupeten kulatak eramatera. Goizeko lauretan jaikitzen ziren. Ordu asko sartzen zituzten.

451. Errekadisten arteko harremana (ZAR-024/041)

Donostian herri desberdinetako jendea elkartzen ziren eta bakoitzari bere herriko enkarguak ematen zitzaizkion.

452. Osaba margolariaren inguruko kontuak (ZAR-024/046)

Bere osaba margolaria Argentinan egon zen exiliatuta. Idatzi ere asko egiten zuen eta Euskal Jaia berak sortu zuen. Nolakoak ziren orduko Euskal Jaiak.

453. Jatorria; biografia (ZAR-025/001)

Berazadi zaharren jaio zen 1925eko abuztuan, orain camping Zarauz denean. Zenbat senide ziren. Bere ondorengo anaia nola hil zen.

454. Kafearekin hazitako mutikoak (ZAR-025/002)

Kafearekin hazitakoak dira. Aitonari eta osabei berorika egiten zieten.

455. Eskolara neguan (ZAR-025/004)

San Pelaia joan zen eskolara, baina baserrian lana izaten zuten eta negu partean joaten zen gehienbat. Gero gau-eskoletan ibili zen. Bere anaiek hermanotan ikasi zuten. Don Aurelio zen irakaslea.

456. Erdaraz ikastea (ZAR-025/005)

Auzora etorri zen bati euskaraz erakusten zion berak eta hark berari erdaraz. Euskara zaila dela dio.

457. Umetako jolasak (ZAR-025/014)

Entroka jolasten zuten, bi taldetan korrika alkar harrapatzen.

458. Dantzarako ohitura eta zaletasuna (ZAR-025/015)

San Pelaioetan ttunttuna egoten zen eta gazte-kuadrillak kalejiran ibiltzen ziren. Dantza soltean aritzen zen. Lotuan ere gaztetan ikasi zuen. Azkenengo urrezko eztaietan dantzan egin omen zuen. Alpargatak hiru gunetan utzita izaten zituen dantzara zihoanean aldatzeko.

459. Baserriko lanak egin ondoren arrantzara (ZAR-025/019)

Arrantzarako zaletasuna zutenen artean harreman ona zuten. Igandetan, goizeko seietako mezara joan, belarra ebaki, haizarrak bildu eta eguerdi alderako joaten zen Orioko barrara arrantzara.

460. Baserriko bizimodu gogorra; apustuak (ZAR-025/023)

Behin, behi parean Orioko ibaira erori zitzaion. Baserrian lan asko egin behar da. Aia inguruan egiten ziren sega-apustuak. Segan askok egiten zuten, baina segalaririk ez zen irten. Idiekin gozatu egiten zuen.

461. Errotak itxita gerra-garaian (ZAR-025/024)

Garia nola ereiten zuten. Lurra nahiko ona zuten inguruetan. Gerra-garaian ogia etxean egiten zuten. Errota ere bazuten inguruan, baina itxita egoten zen gerratean. Gizon batek asmatutako makinatxoarekin egiten zuten irina. Dena aprobetxatzen zen.

462. Errotak itxita gerraostean; guardia zibilekin gertatutakoa (ZAR-025/025)

Zarautzen baziren bi errota, behintzat: Errotaberri eta Errotazar. Bere aitak eta beste bi lagunak, gauez errotatik zetozela, Guardia Zibilekin izandako pasadizoa.

463. Taberna nola ireki zuen (ZAR-025/028)

Taberna nola ireki zuten. Kanpiñetik alde egin beharra zuen eta lokalaren jabeak proposatu zion taberna jartzeko.

464. Auzoko giroa; kalerako joera (ZAR-025/031)

Auzoan jai finko bat jarri nahi izan zuten, baina emakumeek kalerako joera zuten.

465. Mutil-ardoa eta oilasko-biltzea (ZAR-025/034)

Mutil-ardoan ibilia da. Orain herriaren laguntza gehiago izaten dute, baina ibilbidea berdina da. Oilasko-biltzeko dantza desberdina izaten da.

466. Lehengo eta oraingo dantzarien arteko aldea (ZAR-025/036)

Beti ezagutu du horrela oilasko-biltzeko dantza. Gaur egungo dantzariak ballet-eko dantzariak direla dio. Lehenago orpo gainean egiten zen dantza eta ez hanka-puntetan.

467. Zarautzen hegazkina lur hartzen ikusi zuenekoa (ZAR-026/050)

1929ko irailean jaio zen. Mutikoa zela, gerra garaian, hegazkin batek lur hartu zuen kostan. Euren ondoan zeuden militar alemanak. Hegazkinetik jaitsi zenetako bat osasungintzako burua zen eta gerora fusilatu egin zuten.

468. Mahatsaren koipea, handituak sendatzeko (ZAR-026/001)

Mahatsak duen gauzarik onena barrikan gelditzen den koipea omen da. Handituak eta kolpeak sendatzeko erabili izan dute askok. Berari gertatutako kasuak.

469. Gerra-garaiko gosea (ZAR-026/002)

Gerra garaia oso gogorra izan zen. Lehen gizon sendoak zirenak guztiz mehetu ziren gerratean, gose handia pasa baitzuten. Alberdi irakaslea ihes eginda egon zen.

470. Mendilauta ingurua (ZAR-026/004)

Mendilautan jaiotakoa da, Euromar ondoko etxean. Inguru guztia jardina eta baratzez beteta zegoen.

471. Soldadu baten inguruko kontakizuna (ZAR-026/005)

Mendilauta inguruan, soldaduak egon ziren; golf-ean egoten ziren. Soldadu batek izugarri punteria ona omen zuen eta tiragomarekin ehizatzen zituen txoriak.

472. Gerra-garaiko gertaerak; ihesak, gartzeleratzeak (ZAR-026/006)

Zarautz soldaduz josita egon zen. Berak ezagutu zuen gizon bat udaletxe ondoan eduki zuten preso. Ihes egin eta iparraldera joan zen. Baina harrapatu eta hogeitaz egon zen kartzelan.

473. Giro-politiko nahasia (ZAR-026/007)

Aitaren lagun onena Getarian hil zuten beste batekin batera. Honen inguruko gertaera. Giro politikoa oso nahasia zen.

474. Egindako mendi-ibiliak (ZAR-026/013)

Garai hartan egiten zituzten mendi-ibiliak. Egunero Erniora joan eta etorri egiten zuen. Beste behin Izarraiztik bueltan Mendaroraino ere joan zen.

475. Tailatu zuen eskopeta baten inguruko kontuak (ZAR-026/019)

Erremintek ondo zorrozuta egon behar dute. Eskopeta on bat tailatu zuten Lukas Alberdi eta bien artean. Honen inguruko kontuak.

476. Anaiak, barkuen maketagileak (ZAR-026/024)

Anaiekin batera eduki zuen tailerra. Anaiak barkuen maketagileak ziren. Kartzelan zegoela hasi zen maketak egiten anaia eta oso onak izatera iritsi ziren.

477. Aristokraziaren eragina lan finak egiteko orduan (ZAR-026/025)

Tailuak Zarauzko fabrikanteentzat egiten ziren. Inguruko herrietan baino lan finagoa egiten zen Zarautzen. Aristokraziak ere eragina izan zuen.

478. Tailaren gainbeheraren osteko lanak (ZAR-026/030)

Lanbideak behera egin zuenean [Indaux]-era joan zen lanera. Eguneko lana zein izaten zen. Urte batzuk pasa eta gero "Muebles Etxabe"-n hasi zen lanean.

479. Mendira lagun-artean; perretxikotara (ZAR-026/032)

Beti ibili izan da mendian, baita perretxikotan ere. Urdaneta inguruan ibiltzen ziren perretxikotan. Mendira lagun-artean joaten ziren. Urdaneta inguruko zuhaiztiak. 56an pinu asko hil ziren izotzaren ondorioz.

480. Zarautz eta Getaria arteko txori kantariak (ZAR-026/033)

Zarauztik Getariara bitartean zeuden txori kantariak. Toki bakoitzean ezberdin kantatzen omen dute txoriek. Gaur egun txoriengatik ordaintzen diren dirutzak.

481. Txoriak harrapatzen; mikeletearen zaintza (ZAR-026/034)

Txoriak harrapatzeko zaletasuna gaztetatik izan du. Txoriak bizirik nola harrapatzen zituzten. Debeku asko zegoen ehizarako. Aiako mikeletea ibiltzen zen jendea zaintzen. Honi egindako adar-jotzeak.

482. Txoriak harrapatzen; Guardia Zibilekin gorabeherak (ZAR-026/036)

Sarearekin nola harrapatzen zituzten txoriak. Guardia zibila gaztetxoei ehizarako leku ona kendu nahian ibiltzen zen.

483. Anaia dantza-txapelketetan irabazle (ZAR-026/042)

Anaietako batek ondo egiten zuen dantzan eta sariak ere irabazi zituen dantza-soltean. Berazadirekin ikasten ibili zen eta Donostiara ere joaten zen.

484. Mendi-ibilietarako prestakuntza (ZAR-026/044)

Nola prestatzen ziren mendirako. Astean zehar gogor lan egiten zuten. Janaria ez zuen zaintzen, beti izan da jatun ona.

485. Lehengo klima bustiagoa; uholdeak (ZAR-026/046)

Zestoako uholdea nola gogoratzen duen. Inguruko nortzuk hil ziren bertan. Zarautzen ere izan ziren uholdeak. Txerri-kalea urtero urez betetzen zen. Lehengo klima ez zen hain lehorra.

486. Gari-jotzeak auzolanean. Lertxundik zeukan makina (ZAR-027/010)

Gari-jotzeak auzolanean izaten ziren. Elkano aldeko Lertxundikoak zuen makina. Gero, gariak gurdiz eramaten zituzten beste etxe batera (Pipasenera), garia jotzera.

487. Ibai ertzetan zumea hazten zen eta beraiek batu egiten zuten (ZAR-027/011)

Ibai ertzetan zumea biltzen ere aritzen ziren, beste batzuentzat, diru pixka bat ateratzeko.

488. Umeak etxean jaiotzen ziren emaginaren laguntzarekin (ZAR-027/013)

Bere seigarren umea nola izan zuen. Beraneanteak zituen etxean, eta beraiek ez enteratzeko egin behar izan zituenak. Lehen umeak beti etxean izaten ziren, emaginaren laguntzarekin. Azkena, zazpigarrena, Donostian izan zuen. Etxetxikiko Maria ere partera izan zen. Lehen ez zen izaten errekonozimendurik eta ezer. Haurdun geratu, eta minak hasten zirenean umea jaio.

489. Asti ingurua nolakoa zen (ZAR-027/014)

Asti inguruan ez zen beste ezer, ez futbol zelairik, ez autopistarik, ez ezer. Tabakoa egiten zen, erremolatxa...

490. Umetan esne-partitzen, eta ezkondu ondoren azokan (ZAR-027/015)

Bere ama esne-partitzen ibiltzen zen, azokan ez. Baserritar guztiak ibiltzen ziren esne-partitzen. Kooperatiba plazan eta Txerri-kalean lotzen zituzten asto guztiak. Astotegia ere bazen. Pepita ezkondu ondoren hasi zen azokara joaten. Garai haretan oso giro ona zen, eta gainera oso urte onak izan ziren. Eramandako guztia saltzen zen. Gabonetan oiloak, eta kapoiak, eta denetik saltzen zen. Beraneante aberatsak ere izaten ziren, eta "mantazuriyak" (neskameak) joaten ziren azokara, otarra handiarekin.

491. Baserriko jeneroa: patata, ilarrak, lekak, babarrunak, piperrak... (ZAR-027/017)

Udaberrian, lehenengo patata berria eta ilarrak; gero babarruna eta lekak, uda hasierarako; udan piperrak eta tomatea. Piperra asko egiten zen lehen. Lehen igandetan ere

492. Janariak: egunero babarrunak eta sagarrak (ZAR-027/018)

Etxean batez ere babarruna jaten zen. Babarrun zuria eta garbantzua, eta arroza, jaietako janari goxuak izaten ziren. Egunero babarrunak, urdai mutur batekin. Postrerako sagarrak gehienetan. Garaia zenean, gereziak eta udareak.

493. Neskatoen lana, etxean amari laguntzea (ZAR-027/019)

Neska gazteen lana amari etxean laguntzea izaten zen. Goizean goiz mezetara joan, eta ondoren etxea txukundu.

494. Erromeriak eta udako jaiak: Sanpedroak, Sanpelayoak, Asuntzioak... (ZAR-027/020)

Sasikon zazpi neska ziren, eta hantxe elkartzen ziren auzokoak. Ahoko soinua jo, eta gramola txiki bat ere bazuten, eta hantxe ibiltzen ziren. Udan, Sanpelayoak, Sanpedroak, eta Aiako Asuntzioak. Asuntzioetara Sasiko aitarekin joaten ziren, harek zazpi alaba zituelako, eta zaintzeko (soldaduak izaten zirelako neska bila). Usurbilgo jaietara ere joaten ziren.

495. Umetatik lanean: mutikoak Golfera, eta neskak umezain (ZAR-027/022)

Lehen umetan hasten ziren lanean. Mutikoek eta neskek lan ezberdinak izaten zituzten. Bere semeak ere oso gazterik hasi ziren Golfean laguntzen, 8-9 urterekin. Gaur egun karroak ere badaude laguntzeko, baina lehen oinez pilotak biltzen. Neska-koskorak, behin 11 urtez gero, umezaintzen aritzen ziren.

496. Gaztetan kantu-dantzan, eta nobioarekin zinera (ZAR-027/024)

Etxean kantuan ere egiten zuten. `Markesaren alaba´, eta horrelakoak. Ez zen ezer behar dantzarako. Denak ilusioa egiten zuen lehen. Eta behin nobiotan hasiz gero, batez ere zinera joan, Cine Modelora.

497. Eguzkiarekin jaiki eta eguzkiarekin ohera (ZAR-027/025)

Eguzkiarekin jaiki eta erretiratzen ziren. Udan goizeko 5ak inguruan jaikitzen ziren; baratxuri-zopa eta esnea gosaldur, eta lanera. 12ak orduko etxera, eguzkiak gogor jotzen zuelako. Bazkaldu, siesta, eta, ondoren, berriro lanera. Iluntzean etxera, ganadu-lanak egin eta ohera. Eskolara joan aurretik ere, goiz jaiki, eta saioa egin: artoa jorratu, edo bakandu, edo...

498. Gerraostean soldaduak Iñurritzan eta Asti inguruan. Sasiko kantina (ZAR-027/028)

Beraien etxe inguruko baserrien zerrenda egiten du, zeintzuk dauden, zeintzuk falta diren... Soldaduen kontuak ere kontatzen ditu berriro. Soldaduak non izaten ziren ("Alto de Orio"n...). Sasikon kantina zuten, eta hantxe jaten zuten, eta soldaduen arropa garbitu ere bai... Beraien baserrian (Sakonetan) ere kantina txiki bat jarri zuten.

499. Miren Karmele izenaren inguruko gorabeherak (ZAR-028/004)

Beti Karmele izan da, baina eskolan Maria del Carmen deitzen hasi zitzaizkion. Bataioaren inguruko gorabeherak; ez zieten Miren Karmele izena jartzen utzi nahi. Herriko hainbat istorio. Aitona-amonak ez zituen ezagutu.

500. Ikastera joateko aukera utzita ume-zain joan zen (ZAR-028/005)

Eskola publikoan ibili zen lehenbizi eta gero miserikordian. 15 urte betetzeko zegoela interna Zumaiara ikastera joateko aukera eman zioten, baina berak nahiago zuen ume-zain lana egin. Hiru urte egin zituen lan honetan.

501. 12 urterekin ume-zain udaran (ZAR-028/010)

Kanpoko batzuen etxean [Jean Pierre] egon zen uda baten ume-zain 12 urterekin eta hiru ume zaintzen zituen.

502. 10 urterekin Bilbora neskame (ZAR-028/012)

14 urterekin Bilbora joan zen neskame 15 egunerako. Etxekoandrea oso gogorra zen. Nolako lanak egin eragiten zizkien. Bilbon gertatutako gorabeherak.

503. Bilbotik [Arakaldora] osaba bisitatzera (ZAR-028/013)

Eibarko osaba-ta [Arakaldora] joan ziren, eta bera bisitan joan zitzairen Bilbotik etxerakoan. Nolako ibilerak pasatu zituen.

504. Eskola kontuak; irakasleak (ZAR-028/016)

Eskola publikoan ibili zen "señorita" Felisarekin. Bi maila zeuden eta bera bigarrenean hasi zen, 8 urte ingururekin. Ze ikasten zuten. Bi talde egiten ziren adinaren arabera. Gero "señorita" Nikolasarekin ibili zen.

505. Gerra-garaiko jatekoa (ZAR-028/021)

Gerra-garaiko ogiari "dinamita" deitzen zioten. Ez zuten hura jaten. Babarrunak eta irina lortzen zituzten eta ardia ere hazi zuten etxean. Baratzea zuten etxean. Ogia ere etxean egiten zuten.

506. Josten ikasten; kortea (ZAR-028/023)

Josten ikasten ibili zen. Ze lan egiten zituzten. Aristokraziako jendearentzat ere egiten zituzten arropak. Bi urte egin ostean Purita Narbaizanera joan zen kortea ikastera.

507. Guraso eta anaien propinak (ZAR-028/027)

Orduan bi komunio egiten ziren, bata zazpi urterekin eta bestea hamabirekin. Familiakoen arteko harremana. Anaiak, amak eta aitak ze propina ematen zioten eta zertan gastatzen zuen.

508. Jatordu orekatuak egiten zituzten; baratzea; azoka (ZAR-028/034)

Berdura asko jaten zuten etxean eta babarruna ere bai. Makarroiak, garbantzuak eta babarrun zuriak ere jaten zituzten. Baratzeko gaiak plazan saltzen zituen amak eta baita fruta ere. Sagarrak lapurtzen zizkieten herritar askok.

509. Bederatziurrena bainuetan; txaparroak (ZAR-028/036)

Bederatziurrena: bederatzi bainu hartu behar izaten ziren baineruarekin. Irailekoak izaten zirela onenak esaten zuten. Txaparro itxiak erabili behar izaten zituzten, bestela probokatzea zela esaten zieten.

510. Dantza; neska-mutilen arteko harremana (ZAR-028/037)

Dantzara neska eta mutilak joaten ziren. Mutilak neskei dantza-eskatzera joaten zitzaizkien. Nola ligatzen zuten. Mutil asko izan ditu atzetik.

511. Sagardotegia zuten Sta Marinan (ZAR-028/041)

Sta Marinan sagardotegi asko zegoen. Beraiek ere bazuten sagardotegia eta enboteilatu ere egiten zuten sagardoa. Neskak ez ziren asko joaten sagardotegira. Mutilek tokan jokatzeko zuten.

512. Emakumeen apaintzea: makilaia, orrazkera (ZAR-028/042)

Emakumeek normalean ez zuten erretzen. Bera senarrarengatik hasi zen. Bazeuden makilatzea gustatzen zitzaizen emakumeak ere, baina bera ez zen makilatzen. Trentza luzeekin ibiltzen zen, baina pelukerira gaztetan ez ziren joaten.

513. Etxea alkilatzeke egiten zituzten prestaketak (ZAR-028/044)

7-10 mila pezeta inguru ordaintzen zieten pisuaren alkilerria. Lan handia egin behar izaten zen etxea prestatzen. Etxea garbi-garbi jartzen zuten: zorua garbitu, argizaria eman.. Koltxoi asko behar izaten zen eta Salbidera joaten ziren astintzera.

514. Jatorria; biografia (ZAR-029/001)

Juan Agoues 1927an jaio zen Zarauzko plazan. Plazako etxea. bere aitonaarena zen. Bera txikia zela gurasoak Sta Marina kalera aldatu ziren.

515. Agoues abizena eta "Lukas" gaitzizena (ZAR-029/002)

Agoues abizenaren jatorria. Bere aitona frantsesa zen, arrazoiren batengatik honantz etorria. Amona San Pelaioko baserritarra zen. Nola ezagutu ziren. Amaren aitari "Lukas" deitzen zioten eta berak ere izen hori jaso du.

516. Iñurritza auzoa (ZAR-029/003)

Amona San Pelaioko Sagasti baserrikoa zen. Baserria elizaren ondo-ondoan zegoen. Han inguruan "putzabera" (ura ateratzeko putzua) bat ere bazegoen. Iñurritza auzoaren eta izenaren inguruko kontuak.

517. Ebanistek sortutako karrozeria (ZAR-029/004)

Bere aita ebanista zen, eta 39an karrozeria sortu zuen beste ebanista batekin batera. Oso kotxe gutxi zegoen garai hartan. Orduko kotxeen armazioa egurrezkoa izaten zen eta egurrekin lan egiten zuten.

518. Familiko giroa umetan (ZAR-029/005)

14 senide izan arren, 11 bizi izan ziren. Juan bera zen zaharrena eta hermanotan 3 urte egin ondoren, 12 urterkin hasi zen lanean aitaren tailerrean.

519. Familiko giroa umetan (ZAR-029/006)

Senide asko zirenez, ez ziren asko joan eskolara. Askok izan arren, gehien egon zirenean 7-8 senide egongo ziren elkarrekin bizitzen. Mahaian ez ziren kabitzen eta arrebak karboneraren gainean jaten zuen. Umetan hirunaka ere lo egiten zuten inoiz.

520. San Eloi, karrozeroen eguna (ZAR-029/007)

Abenduaren 1ean San Eloi eguna ospatzen zuten, karrozeroen eguna. Gaztainak edo olagarro-zopa izaten zuten.

521. Karrozeroen soldata; bezeroekin hartu-emana (ZAR-029/008)

Karrozeroen soldatak: aitak 11 pezeta eta erdi irabazten zuen eguneko; berak 55ean 300 pezeta asteen. Bezeroekin tratua nola izaten zen. Fakturak egiten zituzten, baina aurrekonturik ez 50 ingurura arte, kamioien kabinak egiten hasi arte.

522. Zarauzko lehenengo kotxeak (ZAR-029/009)

Kotxeen jabeak nortzuk ziren: don Evaristo medikua, taxistak.. Bakoitzaren kotxea nolakoa zen; markak.

523. Tailerreko lana; erremintak (ZAR-029/010)

Hasierako lana tailerrean eskulana zen. Zerrak, mailuak.. erabiltzen zituzten. Egurra osabaren tailerrean prestatzen zuten.

524. Gau-eskolak eta eskola profesionalaren sorrera (ZAR-029/011)

Lana eta eskola bateratzearen gau-eskoletan ibili zen. 1944 inguruan eskola profesionala sortu zen fraideetan. Ebanisteria, tailaketa eta mekanika irakasten zuten bertan. Gau-eskoletan zer ikasten zuen.

525. Lana, ikasketak eta entretenimendua: arrantza (ZAR-029/012)

Laneko ordutegia. Arratsaldean 6ak inguruan atera eta gau-eskolara joaten zen. Igandetan arrantzara joaten ziren. Neskatan ez zuten egiten bekatua zelako. Garai txarrean jaiotakoa dela dio. Gaztetan ez zuen kirolerako zaletasun handirik.

526. "Juventud parroquiana" zer zen eta ze ekintza antolatzen zituen (ZAR-029/013)

"Juventud parroquiana" parrokiako mutilen taldeari deitzen zitzaion. Lagunartean egoteko gun bat zen eta bilarrean edo kartetan aritzen ziren bertan. Kirolen inguruko frogak ere antolatzen zituzten.

527. Arrantzara joanda pasatako estutasuna (ZAR-029/017)

Behin, anaiarekin arrantzara joanda, estutasuna pasatu zuten. Haize zakarra atera zen; eta, gasolio gutxi zutenez, laguntza eskatu behar izan zuten.

528. Arrantzaleen arteko harremana (ZAR-029/023)

Arrantzaleen arteko harremana. Ontzi asko egoten ziren eta sarritan ia elkar jotzeraino hurbiltzen ziren. Getarian anaiari eta biei gertatu zitzaiena.

529. Arrainen salmenta eta prestaketa (ZAR-029/024)

Arraina plazako goiko aldean saltzen zen. Txibiak pezeta batean saltzen ziren. Txipiroiak tintan prestatzen ziren jateko normalean. Bestelako arrainak prejituta jaten ziren.

530. Txalupa moilan edukitzeko kuota (ZAR-029/025)

Hasieran ez zuten ordaintzen txalupa moilan edukitzeagatik. Gerora urteko erriala ordaintzen zen.

531. Familiako karrozeria (ZAR-029/028)

Hasieran tailer txikia zuten eta kamioiak konpondu behar zituztenean, kanpoan lan egiten zuen. Familiako 5-6 kidek lan egiten zuten bertan. Zarautzen beste karrozeri bat ere bazegoen.

532. Karrozeriko kontuak; bezeroak (ZAR-029/029)

Inguruko herrietatik ere etortzen zitzaizkien bezeroak. Orduko kamioiak motzagoak izaten ziren. Bezeroekin harremana.

533. Krisi garaian gasogenoarekin ibiltzen ziren kotxeak (ZAR-029/032)

40. urte inguruan krisia egon zen gasolinarekin, eta kotxeak gasogenoarekin ibiltzen ziren. Hasierako kotxeak atzerrikoak ziren, eta ondoren 52. urte inguruan hasi zen Seat-a. Gasoginoa arriskutsua zen, jendea asfixiatuta hiltzen zelako.

534. Kamioi baten prezioa (ZAR-029/033)

1955ean bost mila duro inguru balio zituen kamioi batek.

535. Zarauzko lehenengo garraioalariak (ZAR-029/034)

Zarauzko lehenengotako transportistak Goikoetxeanekoak izan ziren. Zaldiekin eramandako karrorik ez du ezagutu. Eskuko karroak asko erabiltzen ziren gauzak garraiatzeko.

536. Baserrietan kotxerik ez eta biderik ere ez (ZAR-029/036)

Baserritarrek ez zuten kotxerik ekarriko 60 urte ingurura arte, biderik ere ez zegoen baserrietara eta. Noiz egin ziren Urdanetarako eta Urtetarako bideak.

537. Neskameen inguruko kontuak (ZAR-029/038)

Emaztea nola ezagutu zuen: emaztea hirugarren solairuko neskamea zen eta bera laugarrenean bizi zen. Aberatsen neskameei "bugatis" deitzen zieten.

538. Pio tabernaren historia - II (ZAR-030/011)

Aitona ameriketatik itzuli eta taberna jarri zuen, 1897an. Gazte hil zen eta amonak hartu zuen ardura; berak handitu zuen negozioa, seme-alaben laguntzarekin. Lau anai-arreba ziren, bat tallista, beste batek arrandegia zuen, eta beste batek ardo-almazena.

539. Ura nola atera zuten herri azpitik (ZAR-030/013)

Ura berotzeko paila erabiltzen zuten. Ostaturako erabiltzen zuten. Sukaldean berotu, eta goraka bidali, goiko geletara. Ura ere Zarautzen beraiek atera zuten lehenengo. 1952ra arte, ura Igeldotik ekartzen zen. Urte hartan, Markesak ura galdu zuen, eta ur-bilatzaile bat ekarri zuen ura non galdu zen azttertzerara. Ur-bilatzaileak Pioren ostatuan egin zuen lo eta esan zien beraien etxe azpian ura zegoela. "Bombas Itur" lantegikoa laguna zuten, eta bere

laguntzarekin atera zuten ura. Santa Barbaratik jaisten den erreka herri erditik pasatzen da, herri azpitik.

540. Pertsonai ezagun asko pasatzen zen Zarauztik: Carmen Sevilla, Fernan Gomez, Franco... (ZAR-030/014)

Ostatutik pertsonai ezagun asko pasatu ziren: Carmen Sevilla, Fernando Fernan Gomez, Sara Montiel... Balduino eta Fabiola ere ezagutu zituen soldadutzan. Franco ere etorri zen Zarautzera, alpargatak erostera. Zarautzera ez zen etortzen; Donostian eta Getarian egoten zen batez ere.

541. Bide erdian jolasten zuten, autorik ez zegoelako (ZAR-030/015)

Zarautzen dozena bat auto egongo zen, taxistenak, eta beste pare bat. Lehenengoetarikoa Leokadiorena izan zen, harategikoarena. Kalea umeena zen; kale erdian jolasten zuten, kotxerik ez zegoelako. Lagun talde handia ziren, eta denak kolean jolasean.

542. "¡Quién ha cambiado las mareas!" (ZAR-030/016)

Riojano batzuk etorri omen ziren duela urte batzuk, eta haserre omen zeuden, norbaitek mareak aldatu zituelako: beraiek marea behean ikustea espero, eta goian zegoelako haserre: "quién ha cambiado las mareas".

543. Zumarragatar batzuk itsasoarekin beldurtu zirenekoa (ZAR-030/017)

Amonak kontatzen zuen anekdota polita. Zumarragatik etorri omen ziren ezkonberri batzuk, ezonbidaian. Zarautzera heldu eta itsasoa ikustera joan ziren; arratsaldean berriro kostara joan, eta hain goian ikusi zutenean, uholdeak zirelakoan beldurtu eta Zumarragara itzuli ziren.

544. Bizimodua asko aldatu da: telefonoa, argindarra, janaria... (ZAR-030/018)

Tabernako eta ostatuko lana gogorra zen; asko aldatu da. Janaria ere zeharo aldatu da. Dena aldatzen da. Oso denbora gutxian irratia etorri ziren, telefonoa... Argindarra ere gutxi zen lehen. Tomatea eta letxuga udan bakarrik izaten zen. Neguan trikapiak, sardina, potajea, aza... Oilaskoa luxua zen.

545. Hotz handia eta lan asko: jan ere ezberdin (ZAR-030/019)

Udan oiloek ez dute arrautza askorik ematen, eta uda-sasoian kanpotik ekartzen zituzten. Karea erabiltzen zuten arrautzak gordetzeko. Azpeititik ekartzen zituzten. Hemengo platerrik gogorrena Zarauzko txibiak ziren. Asko eta onak.

546. Zarauztarrak hondartzan leku jakin batzuetan bakarrik (ZAR-030/020)

Zarauztarrak hondartzara Perlatik Arraldera bitartean bakarrik joaten ziren. Ibairantz inor ez zen joaten.

547. Zarautzen tomate asko jaten zen, baina ez entsaladan (ZAR-030/022)

Gutxika-gutxika, beste janari batzuk ere agertu ziren: legatza saltsan, arroza, izozkiak... Dena sofistikatzen joan da. Lehen letxuga jaten zen Zarautzen, baina tomatea kastellanoek ekarri zuten. 1956an Zalameako langile ugari etorri ziren Getariako bidea egitera. Zarauzko kale asko ere orduan egin zituzten. Horrelako lanak egitera kanpotarrak etorri ziren, eta beraiek ekarri zuten tomatea jateko ohitura. Ordura arte tomatea eginda jaten zen, baina ez entsaladan. Hasieran, gainera, azukrearekin jaten zuten.

548. Zarautz inguruan ehiza asko zegoen (ZAR-030/024)

Ehiza asko egiten zen: oilagorrak, konejua... Lehen mendira asko joaten ziren, baina ez edozein lekutatik.

549. Zarauzko kaleetan adokinak kendu zirenekoa (ZAR-030/025)

Zarautzen kale guztiak adokina ziren. 1956-1958 inguruan hasi zen kentzen.

550. Zarautzek izan duen onena 1960-1970 bitartean (ZAR-030/026)

Zarautzek izan duen sasoirik onena 1960ko hamarkada izan zen: lan asko, turismoa gora, arrantza ere asko egiten zen eta garesti saldu... Diru asko etorri zen Zarautzera.

551. Edari-klaseak (ZAR-030/028)

Lehen edari gutxi zeuden. Ardoa (Cune, Paternina eta besteren bat). Cognac-ak ere pare bat klase. Txanpana ere gutxi (Zarautzen ere hasi ziren egiten). Vermouthik ez zen ezagutzen. Kamararik eta izotzik ere ez zen ezagutzen.

552. Baileak eta orkestak Zarautzen 1960 inguruan (ZAR-030/030)

Gazte denboran, 1950 inguruan, Kulixkako baileak izaten zen. Gerora, diskotekak ere agertu ziren. Orkestak ere jotzen zuten gauero. Musika-plazan ere udan gauero baileak. Abuztuan egunero, eta uztailan ostegunetik igandera.

553. Zarauzko jaiak: Santa Marina, Santa Barbara, Trinitadekoa... (ZAR-030/032)

Herriko jaiak Santa Marinakin hasten ziren. Herri guztia zain egoten zen. Santa Barbaran ere festa polita izaten zen. Getariara eta Oriora ere joaten zen jendea. Trinitadeko festak ere ezagunak ziren, onak. Orduan jende guztiak egiten zuen dantza. Neska-laguna ere horrelako jai egunetan aurkitzen zen. Kantatu ere asko egiten zen, tabernetan asko. Askok eta ondo kantatzen zen.

554. Jende askok lan bat baino gehiago izaten zuen (ZAR-030/033)

Baserritarrekin ere harreman handia zuten. Azoka udaletxe aurrean izaten zen egunero. Askok ofizio bat baino gehiago zuten. Gehienek.

1957an tabernarien artean bilera handi bat egin zuten. Orduan 53 taberna zeuden Zarautzen. Bilera izan zen baxo-erdiaren prezioa igotzeko izan zen. 1963an beste bilera bat egin zen, eta orduan 38 taberna bakarrik zeuden. Tabernari askok eta askok tailerretara joan ziren. Tabernetan ere lan asko zegoen, baina gutxiago kobratzen zen, eta jaiegunik ez. Tabernariak ez dakite Sanpelaio eguna zer den, udan hondartzan bainatzea zer den, euskal jaia zer den...

Lehen "seisilla" izaten zen. Entierroa bukatzean, jatordutxoa. Seisillak hiru klasetakoak izaten ziren: familiakoena, mezadunena edo entierroa joandakoena. Familiakoei bazkaria; mezadunei tortillak, txakolina... Eta gainontzekoei gailetak eta ardoa.

Gerra-aurreko miseria. Kale-baserriak nekagarriak omen ziren. Baserria zegoen bideak "camino del estadio" zuen izena. Ze etxe zeuden inguruan.

Auzokoek asko laguntzen zioten elkarri: auzolana. Astazubi-berri zuen izena baserriak, baina gaitzizena "Tente" zen. Beraien aitonari jarritako izena zen, gizon kurioa zelako. Ez zuen aitona ezagutu.

Etxean ondo konpontzen ziren eta baita ingurukoekin ere. Bideak lurrezkoak izaten ziren. Zarauztik etxera bazituzten zenbait bonbilla. Nor aritzen zen arqiak jartzen.

Berdura hartzen zuten etxean eta ganadu pixka bat ere bazuten. Mahatsa ere bazuten. Arropa berririk nekez izaten zuten.

Asko ziren etxean eta ontzi batetik jaten zuten. Babarruna jaten zuten gehienez. Baina ogia eta olioia falta zitzaizkien. Txerri bat ere hiltzen zuten urtero. Kaletarrak okerrago egoten ziren. Haragia astean behin jaten zen, igandetan.

Gerra-aurretik Zarautzen zeuden harategiak.

Xenpelarren bertso-zati bat abesten du, eta bertso hori zeri abestutakoa den azaldu. Basarri bertsolaria auzokoa zuen, Azken Portun bizi zen.

Auzoa, berez, Elkano da, errekek egiten zuen bereizketa eta.

565. Zer jaten zuten; olagarroa (ZAR-031/012)

Postrerik ez zuten jaten; jaietan arroz-esnea. Afaritan porru-patatak jaten zituzten gehienez eta gosaltzeko baratxuri-zopa edo olagarro-zopa eta katilukada esne. Olagarroa erosi egiten zen. Nortzuk egiten zuten olagarrotan.

566. Mutilak fraideetara eta neskak eskola publikora (ZAR-031/013)

Fraideetan ibili zen eskolan lau urtean. Hanka-hutsik ere ibiltzen ziren. Eskolara goiz eta arratsalde joaten ziren. Bere arrebak eskola publikora joaten ziren; irakasle ona zuten.

567. Txikiteoa eta "Café torero" (ZAR-031/015)

Dozena bat sagardotegi inguru egongo ziren Zarautzen. Ez zegoen dirurik txikiteorako eta sarritan "café torero" hartu behar izaten zuten.

568. Gabonetako menua (ZAR-031/016)

Gonbidautza. Orduan festa zen bazkari desberdina egitea. Oilaskoa urtean bitan bakarrik jaten zen. Gabonetan olio-aza, haragia eta konpota jaten zen. Edateko beti sagardoa. Sagardoa etxean egiten zuten.

569. Azokara saltzera; lehengo bizimodua (ZAR-031/018)

Azokara joaten ziren barazkiak saltzera. Aza, tomate, patata.. eramaten zuten. Lehen inork ez zeukan asko eta inbidia gutxiago zegoen.

570. Prozesioak noiz eta non egiten ziren (ZAR-031/019)

Gurasoak oso elizkoiak ziren. Aita prozesioetan estandartearekin joaten zen. Noiz egiten ziren prozesioak. Kaleak apaindu egiten ziren. Nondik nora izaten ziren prozesioak. Don Fernando izaten zen zuzendaria.

571. Euskaratik erdarara aldaketa (ZAR-031/033)

Erdaraz eskolan ikasi zuen. Baserritarrek hobeto egiten zutela euskaraz dio. Nola aldatu zen euskaratik erdarara. Errezoak ere erdaraz egiten zituzten elizan.

572. Azken Portuko festak; boxeo (ZAR-031/040)

Erromeria, lokotz-biltzea.. egiten ziren Azken Portuko festetan. Manolo Yaben eta Aizarnazabalgo Gurrutxaga soinu-joleak egon izan dira bertan. Aurreneko boxeo txapelketa ere Santa Klaran egin zen 52 inguruan.

573. San Pelaioiko ermitaren historia (ZAR-031/045)

San Pelaiotara eta Santa Mañetara ere joaten ziren. Lehenbizikoa izaten zenez, berau izaten zen onena. San Pelaiion ermita jarri zuten Iñurritzan santuaren irudia aurkitu zutelako kanalean. Nola aldatu den San Pelaioiko festa.

574. Astoa bidea erakusten (ZAR-031/050)

Behien izenak: Motza, Gorri.. Astoa: Txiki. Astoak berak bakarrik jakiten du bidea. Astoak erakusten zien askotan bidea. Errotak. Astoak lotzeko uztaiari "argoilla" deitzen dio.

575. Txakurrarekin gertatutako pasadizoa (ZAR-031/051)

Arratoi-txakurrak izaten zituzten. Txakurrarekin gertatu zitzairen pasadizoa. Kotxeak jo eta hilda zegoelakoan utzi zuten, eta etxean azaldu zitzairen.

576. Itzarkundea batailoiko kontuak (ZAR-032/009)

Reketeek baserrietara joan eta jendea hiltzen zuten, eta beraiek mendira joaten ziren lotara. Gerrara bi anaia joan ziren. Kamioira joan, fardela eta arma jaso eta Mutriku aldera joan ziren. "Itzarkundia" batailoian ibili zen; Lizaso zen kapitana. Berak "enlaze" lana egiten zuen.

577. Frontean bizitako baldintzak (ZAR-032/011)

Zuzenean frontera joan ziren Arrasate aldera. Zuhaitzen azpian lo egiten zuten mendian.

578. Zaragozako behartutako lanak; bertakoen egoera (ZAR-032/013)

Zaragozan zazpiak aldean jaiki eta kafea gosaltzen zuten. Egun guztian lan egin eta bazkaltzeko eta afaltzeko sardina-zaharra ematen zieten. Kamioietan azukre-zakuak kargatzen lan egiten zuten.

579. Terueletik Bilboko kartzelara (ZAR-032/014)

Zaragozatik Teruelera joan zen eta Terueletik kartzelara eraman zuten. Han deklaratu egin zuen eta Bilboko kartzelan urtebete egin zuen horren ondoren. Lau egun egin zituen Terueletik Bilbora.

580. Tailista-lanak (ZAR-032/017)

Urtebete egin zuen tailista moduan. Zortzi orduz lan egiten zuen eta hiru pezeta kobratzen zituen astean. Oinez edo bizikletaz joaten zen lanera.

581. Lasterketak; bizikletarekin gertatutako pasadizoa (ZAR-032/021)

Mutikotatik ibili izan da korrika. Nortzuk ibiltzen ziren aurreneko postuetan lasterketetan. Behin Herniora bizikletaz joan zenean gertatu zitzaiena.

582. Apustuen gorabeherak (ZAR-032/023)

Ez zen jakiten bakoitzak zer jokatzeko zuen apustueta. Trabesak ere egiten ziren eta baita tongoak ere.

583. Etxez etxe telak saltzen (ZAR-032/024)

Logroñotik etorri zenean bere kontu hasi zen lanean, eta ezkondu ondoren telak saltzen hasi zen baserriz baserri. Horretarako ikasketei ekin zien etxean. Oinez joaten zen batera eta bestera eta batzuetan baserrian bertan lo egiten zuen. Materiala Bergaran edo Donostian erosten zuen.

584. Telaren prezioa (ZAR-032/027)

Harreman ona zuen baserritarrekin. Konpetentzia ere bazuen. Tela 18 pezetan erosi eta 29an saltzen zuen.

585. Jaio zeneko anekdota; Pagoetako gurutzea (ZAR-033/001)

Imanol Murua Arregi, 1935ean jaio zen. Pagoetako gurutzea jarri eta hurrengo goizaldean jaio zen. Bere aita ibili zen gurutzea jartzen eta semea jaio behar zelako alde egin beharra izan zuen.

586. Umetan amonarekin Agerreso baserrira (ZAR-033/003)

Gerra garaian, aita soldadu joan zen; eta ama, bi anaia zaharragoekin, Gernikara. Urtebete zuenean, Agerreso baserrira joan ziren bera eta amona, han senideak zituztelako. Agerreso San Pelaioiko muga zegoen.

587. Eskola utzi behar izan zuen operatu egin zutelako (ZAR-033/004)

Eskolan lehenbizi "txapel-haundi"-etan hasi zen. Etxean dena euskaraz egiten zuen arren, mojek erdaraz irakasten zieten. Eskola utzi egin behar izan zuen arazo bat zuelako mokorrean eta operatu egin zutelako. Errekuperatzeko bi urte egin behar zituen ohean eta amonak gurgildun ohean ateratzen zuen kanpora.

588. Gerra garaiko bizipenak (ZAR-033/005)

Aita gudari joan zen gerra garaian; eta ama, bi seme nagusiekin, Gernikara joan zen. Gernikako bonbardaketetan, udaletxe azpiko babeslekuan gordeta egon ziren. Gerora, aita Santoñako kartzelara eraman zuten: bi semeak Ingalaterrara bidali zituzten, eta ama Iparraldera joan zen.

589. Bere anaien itzulera Ingalaterratik (ZAR-033/006)

Bere bi anaia nagusiagoak Ingalaterratik etorri zireneko oroitzapena du. Nola gogoratzen duen une hori.

590. Gosea asetzeko lapurretak (ZAR-033/008)

Beraien jolas-lekua kalea zen. Bazkalostean, mendira joaten ziren lapurretara, gosea zuten eta. Koadriletan ibiltzen ziren eta hainbat ariketatan elkarren kontra aritzen ziren.

591. Gerraosteko giro erdalduna eskoletan (ZAR-033/011)

Gerraosteko giroa oso erdalduna zen. Mutilek euskaraz egiten zuten elkarren artean, baina neskek erdaraz. Eskoletan ere giro erdalduna zegoen, irakasle gehienak kanpokoak ziren eta. Eskolatik formatuta irteten ziren kalera eta "arriba España" esan.

592. Boxeorako non entrenatzen ziren (ZAR-033/012)

Boxeoan jokatzeko egiten zituzten entrenamenduak. Giro ona zenean hondartzan eta bestela "zimaitaioan" entrenatzen ziren; hobeak zirenak 'Círculo'-ko ring-ean edo Hotel Miramar-en. Amak animatu egiten zituen edozein kirol egiteko, baina boxeatzeko ez zion uzten eta ezkutuka ibiltzen zen.

593. 8 urterekin lanera (ZAR-033/013)

Aitari soldata erdia kentzen zioten kartzelan egon zelako. Etxean beharra zegoen eta 8 urterekin golf-era joaten zen lanera. 10 urtetik 12ra bitartean kadi lanean aritzen zen.

594. Neguan kalean eta udaran San Pelaion (ZAR-033/014)

Neguan kalean egiten zuen bizimodua, eskolara bertara joaten zelako eta hango kuadrilla zuelako. Baina udaran San Pelaio aldean ibiltzen zen. Golfean aritzen ziren Mendilautan.

595. Golf-eko lexikoa (ZAR-033/016)

Golf-era sartzen zirenak lehenbizi teniseko pilotak jasotzen aritzen ziren. Golf-era sartzen zirenak lehenbizi teniseko pilotak jasotzen aritzen ziren. Tenisean erabiltzen ziren hitzak ingelesekoak ziren. Golf-eko makilari "anikotia" deitzen zioten. Gehienbat ingelesetik hartutako hitzak erabiltzen ziren.

596. Futbolean non aritzen ziren (ZAR-033/019)

Parrokia aurrean zegoen futbolean aritzeko leku ona, baina aguazilek ez zieten uzten. Kalean ibiltzen ziren, kotxerik ez zen pasatzen eta.

597. Arrantzara goizeko 03:00etan jaikita (ZAR-033/020)

Bere aita txipiroitara joaten zen goizeko 03:00etan jaikita. 06:00ak alderako etorri eta 08:00etarako lanera joaten zen aita. Lana bukatutakoan berriz arrantzara. Txipiroiak saldu egiten zituzten gero. Ama ere han eta hemen aritzen zen lanean.

598. Mutikoen lanak (ZAR-033/021)

Mutiko gehienek han edo hemen lan egiten zuten udaran, beharra zegoen eta.

599. Arrainen izenak; txaluparen zatiak (ZAR-033/022)

Arrain txikien izenak: kabrak, donzeilak, karraspioak, durdoa... Lehen neguan ez ziren itsasora ateratzen. Lau txalupa motordun bakarrik zeuden; norenak ziren. Txaluparen atalak: tosta, karela, branka...

600. Itsasoaren egoerarekin lotutako lexikoa (ZAR-033/023)

Itsasoaren mugimenduei emandako izenak: itsaso handia (mar de fondo), itsaso barea. Kanpoko haizeak aztoratutako itsasoari "haize-olatua" deitzen zioten. Haizeak sortutako zuri-uneei "katxopa" deitzen zaie.

601. Arrantzarekin lotutako lexikoa I (ZAR-033/025)

Bakoitzak zituen trukuak arrantzarako. Oliotan bustitzen zuten batzuek "koaña". Frogak egiten ibiltzen ziren nola harrapatu gehiago.

602. Arrantzarekin lotutako lexikoa II (ZAR-033/026)

Lexikoa: aingura, estatxa, panelak, lema, koasta... Arrantzaren arabera "aizar" desberdinak erabiltzen dira. Aitak bertso zahar ugari zekizkien eta anaia guztiek ikasi zituzten horietako zenbait. Koruan ere ibiltzen zen, baina ez zuen bat-bateko bertsorik botatzen.

603. Aita lanean ere bertso-kantari (ZAR-033/027)

Aitak bertso zahar ugari zekizkien eta anaia guztiek asko ikasi zituzten. Koruan ere ibiltzen zen, baina ez zuen bat-bateko bertsorik botatzen. Aita ebanista zen eta Arruti lantegian egiten zuen lan muntatzaile gisa. Zarauztik Madrilera bide guztian bertsoak abestuz joaten omen zen.

604. Aitarengandik ikasi zituzten bertso zaharrak (ZAR-033/028)

Aitarengandik ikasi zituzten bertso-zaharrak lau anaiek. Bertso sentimentalak eta aberriaren aldekoak gustatzen zitzaizkion aitari, gehienbat Otañorenak, Xenpelarrenak eta Bilintxenak.

605. 'Xalbador' eta Mattin Zarautzen (ZAR-033/029)

Xalbador eta Mattin hegoaldera lehenbizikoz Zarauzko jaialdi batera etorri omen ziren. Bera oroigarriak eramatera joan zen eta eszenatokian egon zen eserita saio osoan.

606. Lehia Cachi Bachi eta Klub Deportiboaren artean (ZAR-033/032)

Cachi Bachi elkarteak kuadrilla batetik sortu zen. Kuadrilla bakoitzak izen bat izaten zuen. Kirol batzuk Klub Deportiboarekin egiten zituzten eta beste batzuk Cachi Bachirekin, eta pikea izaten zen beraien artean. Cachi Bachi boxeoa nabarmendu zen.

607. Kuadrillak eta kirol elkarte edo taldeak (ZAR-033/034)

Gazteen sarea kuadrillek osatzen zuten eta kuadrilla horiek Klub Deportiboaren eta Cachi Bachiren bitartez bideratzen ziren kirolek. "Aitzaki" edo "Mollarri" ere futbol taldeak ziren, baina koadrilek sortuak, federatu gabeak. Koadrilen bihurrikeriak.

608. Garai bateko Zarauzko lasterketak (ZAR-033/035)

Berak ez du korrika-apusturik ezagutu, baina aitak bai, eta baita herriko lasterketetan parte hartu ere. Apustueta ibili izan den jendea. Bere garaiko herriko lasterketak. Kanpora ere joaten ziren.

609. Korrika egiteko abarketak kendu (ZAR-033/036)

Abarketekin ibiltzen ziren eta, sarritan, ez bustitzearren, haiek kenduta egiten zuten korrika. Abarketak non erosten zituen. Zapata dendarik ez zen orduan.

610. Donostian "boronos" deitzen zieten (ZAR-033/037)

Zarautz ingurutik bederatzi lagun joaten ziren Donostiara Lanbide Heziketara eta "los boronos" deitzen zieten euskaraz hitz egiten zutelako.

611. Elizari lotutako gazte-taldeak (ZAR-033/038)

"Juventud Parroquiana" eta "Juventud Antoniana". Hasieran "Juventud Parroquiana"ko zuzendaritzan egon zen, baina 19 urterekin Antonianoetan sartu zen eta juntan sartu zuten. Fraideak eta apaizak ez ziren ondo konpontzen, baina gazteek lortu zuten bi gazte-taldeak elkartzea.

612. Ezkondu ostean guraso elkarteko kide (ZAR-033/039)

Guraso elkartean sartzeko eskatu zioten ezkondu eta gero. Etxea zenbat pagatu zuten eta zenbatekoa zen bere lehendabiziko soldata.

613. Kale izendegiaren aldaketak (ZAR-034/007)

Bera udaletxean zegoenean nola berreskuratu zituzten kaleen izen zaharrak. Kale berriei nolako izenak jarri zizkieten. Komisio bat antolatu zen lan honetarako.

614. Egunkariak banatzen kanpotarren artean; propinak (ZAR-035/005)

Txaletetara eta tabernetara eramaten zituzten egunkariak eta udaran hondartzan ere banatzen zituzten. Egunkari-mota asko izaten zituzten, baita kanpokoak ere beraneanteei eskaintzeko. Udan irabazitako propinekin hiru anaien ikasturtea ordaindu eta dirua sobratu zitzairen. Mutikotan jota egoten zen egiten zuen lanagatik. Familia guztietan berdin ibiltzen ziren.

615. Lanagatik ikasturtea errepikatu zuen (ZAR-035/006)

Lehenbiziko bi urteak Sta. Anan egin zituen eta ondoren La Salle-n ibili zen. Ze irakasle izan zituen. Euskaraz egin ezin zutenez, irakasle batek euskal kanta irakasten zizkien. Egunkari-banaketekin galdutako denboragatik ikastaroa errepikatu zuen. Zuzendarien izenak.

616. Jai-txiki kuadrilla (ZAR-035/008)

Kuadrillako ekipoak "Jai-txiki" zuen izena. Kuadrillakoen izenak. Astean duro bat botata txuleta-jana egin zuten. Beste behin "vuelta a la costa" egin zuten.

617. Mutikotako betebeharrak eta entretenimendua (ZAR-035/009)

Mutikotan mezara joaten ziren irakasleekin igandetan. Arratsaldean bezperetara joan behar izaten zuten, eta bestela zigorra. Igandetako entretenimenduak: pilota, futbola, zinea, dantza...

618. Herriko otxoteen lehiaketa (ZAR-035/010)

Kuadrillan asko abesten zuten tabernetan. Ze tabernatan ibiltzen ziren. Zinema frontoian herriko otxoteen lehiaketa antolatu eta irabazi egin zuten.

619. Futbola talde federatua eta plaieroen sorrera (ZAR-035/012)

24 urte inguruan dagoeneko bazeuden futbol taldeak eta jokalariai Zarautzen. Geroago Emilio Olazabalek "Aitzaki" eta "Tximista" koadrilen taldeak batu eta Zarautzen izenean taldea sortzea proposatu omen zuen. Azpeitiren kontra irabazi eta taldea federatu egin zuten. "Plairoak" nola sortu ziren 44an.

620. Futbol plaieroa eta erregionala (ZAR-035/014)

Batzuetan pilotara joaten zen, hondartzan beti ezin zelako futbolean egin. Venezuelatik larruzkoa baino baloi arinagoa ekarri zuten eta egokiagoa zen hondartzan jokatzeko. Klub deportiboa sortu zenean sortu ziren talde "plaieroa" eta erregionala.

621. Klub Deportiboa; eskubaloia ren hasiera (ZAR-035/016)

Hasieran xakea, pilota, atletismoa eta futbola sartzen ziren klub deportiboan. Gerora kirol gehiago sartu zituzten. Eskubaloia sartzeko nolako gorabeherak izan zituzten. Obretako posteak lapurtuta egin zituzten porteriak.

622. Klub Deportiboa; saskibaloia ren hasiera (ZAR-035/017)

Saskibaloia nola sartu zuten. Donostiatik ekarri zituzten bi kanasta. Partiduak jokatzeko nolako gorabeherak izaten zituzten. "Askatuak" eta "Real Madrid"-en partidua jarri nahi zuten Zinema frontoian, baina neurritz txikiegia zen.

623. Direktibakoen lana (ZAR-035/018)

Direktibakoek egiten zituzten lan guztiak: antolatu, arbitratu, jaso...

624. Lehenbiziko maratokia nola antolatu zen (ZAR-035/019)

Emilio Olazabali Zarautzen maratokia antolatzea bururatu zitzaion. Azkoititik Zarautzera izan zen lehenbiziko maratokia. Abebe Bikila munduko txapeldunak irabazi zuen. Saria txapela besterik ez zen izaten, laguntza gutxi izaten zuten eta. 300 zaraustar aritu ziren antolaketan laguntzen.

625. Bigarren maratokia ren inguruko gorabeherak (ZAR-035/020)

Bigarren urteko maratokia Zarautzik Zumaiara joan-etorria antolatu zuten. Etioppeak astebete lehenago etortzen ziren eta entrenatzen ari zirela Abebe Bikilak orkatila okertu zuen. Lasterketa korritu zuen, baina erretiratu egin behar izan zen.

626. 50 km-ko martxa antolatu zenekoa (ZAR-035/022)

50 km-ko martxa ere antolatu zuten. Eguraldi oso txarra egin zuen eta parte-hartzaileek lur jota bukatu zuten.

627. Golf-ean antolatzen zen krosa (ZAR-035/023)

Golf-ean urtean egun batean krosa antolatzen zen. Behin elurrari aurre egiteko gatza bota eta green-ak erre zituzten nahi gabe.

628. Lehenbiziko talde jubenilaren sorrera (ZAR-035/024)

55ean lehenbiziko talde jubenila atera zuten Klub Deportiboan 14 jokalarirekin. Nortzuk osatzen zuten taldea. Hondartzan paretean marraz pintutatuta banatu zituzten neurri bereko zelaia. Porteriak nola egin zituzten. Diru-laguntzak.

629. Burnizko porteriak nola egin zituzten (ZAR-035/026)

Dirua aurreztearren beraiek egin zituzten porteriak. Nola antolatu ziren burnizko porteriak egiteko. Finalerako ozta-ozta bukatu zituzten. Aurreztutako diruarekin ekipo jubenila atera zuten.

630. Talde handiagoetara joandako jokalariai (ZAR-035/027)

Plaierotik atera diren jokalariai: Txurruka, Amilibia.. Jubeniletako ekipoan zeuden 11etik 10ek jokatu zuten nazionalean. Ekipo handiagoetara joandako jokalariai.

631. Manolo Urzelai-ren omenaldiko partidua (ZAR-035/030)

Manolo Urzelai-ri eginiko omenaldian pilotan jokatzearen duro bana eman zieten. Nortzuk jokatu zuten eta ze jende bildu zen bertara. Lehiakidea askoz hobe zen, baina jende asko ikustean "pasatuta" geratu zen.

632. Dantza eta ligatze-kontuak (ZAR-035/035)

Dantza-kontuak eta ligatze-kontuak nolakoak izaten ziren. Aste Santuan futbola eta jokoa debekatuta egoten ziren.

633. Imanol Murua eta bieri gertatutakoa (ZAR-035/037)

Soldaduskan zeudela Imanol Murua eta bieri gertatu zitzaizen gertakizuna. Indiara joan behar zirela uste zuten eta familia agurtu ostean Donostiara joan eta berandu joan zirelako libratu ziren.

634. 12 urterekin "pintxe" lanean hasi zen (ZAR-036/006)

Eskolan 12 urtera arte ibili zen eta ondoren "pintxe" gisa lanean hasi zen. 14 urterekin Letamendiarenean hasi zen lanean. Beste hiru lantegitan ere aritu zen ondoren. 50 urte egin zituen lanean.

635. Lan-baldintzak; hasieran, eguneko pezeta bat (ZAR-036/007)

Lehenengo soldata: eguneko pezeta. Aprendiz moduan ibili zen, baina altzariak hasi eta amaitu egiten zituen. Oporrak: urtean astebete. Astean 48 ordu sartzen zituzten.

636. II. Mundu Gerrako urteak urterik oparoenak (ZAR-036/013)

"Koaña" erabiltzen zuten. Mugitu egin behar da gehiago arrantzatzeko. Txibirik ez zegoenean bestelako arrainak ere arrantzatzen zituzten. II. Mundu Gerrako urteak izan ziren urterik oparoenak.

637. Amuarekin arrantzatzen ziren arrainak (ZAR-036/014)

Txitxarroak, berdelak, [panekak], kabrak, dontzeillak harrapatzen ziren amuarekin. Sarearekin arrain txikia harrapatzen zuten. Zarautzen ez zegoen arrantzale profesionalik.

638. Txibiai garaiaren arabera (ZAR-036/015)

Batel asko zegoen Zarautzen. Udaberrian txibia txikiagoa harrapatzen zen.

639. Txibi asko hartzen zen; prezioa (ZAR-036/016)

Behin batek Iru[◆]a eramateko ehun txibi eskatu zitzaion goizean harrapatutakoak eta 101 harrapatu zituzten. Txibi txiki bakoitza pezeta bat ordaintzen zuten.

640. Arraunak pagoarekin egiten zituzten tailerrean (ZAR-036/019)

Batelak Getarian, Pasaian edo Orion egiten zituzten, baina Zarautzen ez. Arraunak beraiek egiten zituzten tailerrean pagoarekin. Sokak zertarako erabiltzen ziren.

641. Haize-motak; arrantzarako haize egokiena (ZAR-036/020)

Ipar-haizea eta hego-haizea. Hego-haizea herritik datorrena da, txarra itsasorako. Mendebaleko haizeak zurrunbiloak sortzen ditu. Frantzi-haizearekin gutxiago arrantzatzen da. Txibitarako onena haizerik ez egotea.

642. Itsasoaren egoerak: hondoko itsasoa, kanpoko бага, katxufia, txurroa... (ZAR-036/021)

Hondarra mugitzen duena hondoko-itsasoa. Haizeak goiko ura harrotzen du, baina behekoa ez du mugitzen. Kanpoko бага. "Baga" haizeak sortzen duen olatuari deitzen zaio. Katxufia: haizeak lehertutako olatuak. Txurroa: ura ilunago ikusten den gunea. Ito egin daiteke txurroan sartuta.

643. Lehen ere baziren lehorte eta bero zakarrak (ZAR-036/022)

Ez du aldaketa handirik somatzen klimari dagokionez. Lehen ere bero handiak egiten omen zituen. Inoiz baserritarrek zuhaitzetako hostoak eman behar izaten zizkieten abereei lehortea zegoenean.

644. Aitak egindako batelarekin ibiltzen ziren (ZAR-036/023)

Aitak bazekien batelak egiten astileroan lanean aritu zelako Orion. Berak egindako batelarekin ibiltzen ziren. Geroago, 3.000 pezeta ordaindu zuen batela.

645. Karnata-motak: arkume-ilearekin prestatua, aizarra, lohiarra... (ZAR-036/027)

Txitxarroan egiteko karnata etxean prestatzen zuen arkume-ilearekin. "Kaxan" ibiltzen ziren, martxan zihoazela arrantzan. Faneketan egiteko aizarrak (=haitz-arra) erabiltzen zituen. Aizarra=hondarrekoa; lohi-arra=errekakoa.

646. Arrantza nola egiten zen (ZAR-036/028)

Arrantzatzeko hiru hari erabiltzen zituen normalean. Nola nabaritzen den pikatzen dutenean. Batzuk argiarekin ibiltzen ziren arrantzan, txibiak elkartu egiten zirelako. "Koaña" amu mota bat zen, erdaraz "aguarin".

647. Bateleroen junta; funtzioa eta eginkizunak (ZAR-036/033)

Bateleroen junta bat bazuten eta gastuak pagatzeko dirua jartzen zuten. Azkenengo urteetan 1.000 pezeta urtean-edo ordaintzen zuten. Lekuak antzinatasunaren arabera erabakitzen ziren. Bera ere juntako kide izana da. Udalak ordaintzen zituen gastuak, baina beraiek estropadetan balizak jarri behar zituzten.

648. Balizak nola jartzen ziren (ZAR-036/034)

Balizak nola jartzen ziren. Markak hartzen dira lehenengo, mendi edo baserriak erreferentziatzat hartuta. Baliza estatxarekin eta aingurarekin finkatzen da.

649. Zenbat brazatan ibiltzen ziren (ZAR-036/035)

Batelean joaten zirenean soka metro asko eraman behar izaten zituzten. Kanpoan 18 brazan ibiltzen ziren. Arraunlarien kanpoko balizak zenbat braza izaten dituen. Braza bat: metro ta erdi inguru.

650. Zarauzko txaleten lorategietan ehizan (ZAR-037/012)

Gazterik hasi zen ehizan; mutil koskorretan horixe zen euren afizio nagusia. Habiak zaintzen eta harrapatzen ere aritzen ziren, baina batez ere eskopeta txikiarekin birigarrotan. Zarautzen bertan egiten zuten. Kostalde guztia txaletez beteta zegoen, eta hara joaten ziren ehizara, lorategietara. Urte guztian hutsik izaten ziren, eta bertan. Lorezainen artean ere lagunak zituzten (lorenzain asko zegoen Zarautzen).

651. Gerra-hasieran barazkiak plazara eramateko agindu zieten (ZAR-041/007)

10 urte zituen gerra hasi zenean. Gerra hasi zenean piketeek barazkiak plazara eramateko agindua eman zieten. Zentro republikanoa non zegoen.

652. Umetako lanak baserrian (ZAR-041/011)

11 urterako utzi zuen eskola. 14 urterekin ebanista ikastera joan zen, baina ez zitzaion gustatzen. Umetan baserrian ze lan egiten zuen. Auzora joaten ziren garia batzera eta ezkurak batzera Bista Alegreko jardinerara.

653. Txerria hil zuteneko gertaera (ZAR-041/012)

Txerrikumeak hazten zituzten etxean ferian saltzeko. Izan zuten txerri gizen baten inguruko kontuak. Aitak etxean hiltzen zuen txerria. Behin txerria isilean hil zuten, baina bide-konpontzaileak enteratu eta tripakiak jatera etorri ziren.

654. Atzeritarrekin gertatutako anekdota (ZAR-041/017)

Udaran etortzen ziren eskoziar batzuekin gertatu izitzairen anekdota "ardia" nola esan asmatu ezinik.

655. Lan-baldintzak: soldata eta lan-orduak (ZAR-041/022)

Ebanista hasi zenean zazpi erreal kobratzen zituen egunean. Igeltsero lanengatik zenbat kobratzen zuen soldaduskara joan aurretik. Zortzi ordu egiten zituzten egunean. Lanetik etxera joandakoan beti egoten zen lanen bat.

656. Mutikotako irabaziak tragoxka edo bola-jokoetarako (ZAR-041/026)

Soldaduska ostean bizikletak alkilatu eta ibilaldiak egiten zituzten. Mutikotatan maletero ibiltzen zen eta ateratako diruarekin tragoxkak edan edo bola-jokoetan gastatzen zuen dirua. Meagas-en zegoen bolatokia. Trabesak.

657. Oinetakoak: abarketak, abarkak (ZAR-041/028)

Pezeta bat edo bi ordaintzen zuten bizikletaren alkilerra. Abarketak edo perradun zapatak erabiltzen zituzten, eta etxean abarkak. Sakabi soinujoleak egiten zituen gurpilen gomekin.

658. Eskiladore lanak soldadutzan (ZAR-041/029)

Soldadutzan eskiladore lanetan aritu zen, animaliei ilea mozten. Behin mandoa negarrez jarri zuen. Ez zenez geldik egoten, lotu egin zuten.

659. Soldadutzan sukaldean gertatutako pasadizoa (ZAR-041/030)

Soldadutzan, goizean errebisioa pasatzean botak garbiak izanez gero elizara, eta zikinak izanez gero patatak zuritzera. Felix Murugarren nafarra zen sukaldarien buru. Sukaldean xerrak jan zituen batean gertatutako pasadizoa.

660. Aian debekatuta zegoen dantza lotua (ZAR-041/031)

Zarautzen eta Getarian dantza-lotuan egin zitekeenm, baina Aian ez. Lotuan egiten zutenak kartzelara eramaten zituzten. Ez omen zuen zortetik neskekin.

661. Poliziarekin izandako gorabeherak Donostian (ZAR-041/037)

Donostiara lanera joan zeneko pasadizoa. Poliziek dokumentazioa eskatu zioten eta soldaduskatik etorri berria zenez ez zeukan ezer eta kuartelera eraman zuten.

662. Militarren etxeak egiten aritu zen Amaran (ZAR-041/038)

Donostiara lanera joan zenean, militarren etxeak egiten aritu zen Amaran. Gerora non aritu zen lanean.

663. Perretxiko-lekuak; klaseak (ZAR-041/040)

Aitari sartu zion ziria perretxikoak non biltzen zituen esan nahi ez ziolako. Ze ingurutan biltzen ziren. Ze perretxiko-klase biltzen zituzten: onttoak, kuletoak..

664. Ferira eramandako animalien gorabeherak (ZAR-041/042)

Plaza zaharrean egiten zen animalien feria. Bazituen behi-esnea edaten zuten txerri batzuk. Tratanteek errieta egin zioten txerri haiek ezingo zituztela saldu esanez.

665. Plazara laguntzera; astoerkin egindako ibilerak (ZAR-041/043)

Plazara ere joaten zen laguntzera eta baita hoteletara ere otarrarekin. Zumaiatik etortzen zen senide bati laguntzen aritzen zen. Astoarekin ibiltzen zen, askotan gainean jarrita.

666. Donibane Lohizunen gertatutako pasadizoa (ZAR-041/044)

Donibane Lohizunen haritzak botatzen ibili zeneko pasadizoa.

667. Bizikletarekin egiten zuen amorraietan. (ZAR-041/045)

Frantzian bizikletarekin arrantzan ibilia da amorraietan. Nola moldatzen zen.

668. Naturako elementuen zikloak (ZAR-041/049)

Gauza bakoitzak bere zikloa eta bere ohitura izaten duela azaltzen du. Esaterako, babarruna bere erara hazten da beti.

669. Santa-eskean lutoa zegoen tokian abesten zituzten koplak (ZAR-041/051)

Santa-eskean ere ibilia da. Behin Oikiara ere joan ziren eta bi kuadrilla tokatu ziren parean. "Santa Martiri maitia" kopia abesten zuten eta lutoa bazegoen, "Ave Maria".

670. Eskolan galdutako orduak errekuaperatu ezinik (ZAR-042/003)

14 urte bete aurretik irten zen eskolatik eta amaren baserrira joan zen babarrunak biltzera tripa betetze aldera. Berriz eskolara itzuli eta bere kontura saiatu behar izan zen besteen parera iristeko.

671. 14 urterekin tailerrera eta gau-eskoletara (ZAR-042/004)

Ez du zaletasun handirik izan. Aitarekin joaten zen arrantzara. 14 urterekin hasi zen tailerrean eta gau-eskoletara ere joaten zen.

672. Gerra aurreko irakasleak euskaldunak; ondorengoak erdaldunak (ZAR-042/007)

Eskolan erabili zituzten liburuak. Gerra aurretik, Xabiartxo liburua erabiltzen zuten. Gerra aurretik irakasle euskaldunak zituzten, baina ondorenean erdaldunak. Eskolan egoten zen pankarta.

673. Udaletxea erre zutenekoa (ZAR-042/009)

Gerra-garaian, aita amaren baserrira eraman zituen reketeak zetozelako. Udaletxea erre zutenekoa nola gogoratzen duen.

674. Errenta ezin ordainduta etxez aldatu ziren (ZAR-042/010)

Gosea. Amak ere tapizeri-lanak egiten lan egiten zuen etxean familia aurrera ateratzeko. Errenta ezin ordaindu eta "Txakurraren sala" inguruko etxe batera aldatu ziren. Paso-nibelak banatzen zituen herria eta mendi-aldea.

675. Mutikotako lanak; koro parrokialeko partaide (ZAR-042/011)

Gerra-garaian ere joaten ziren eskolara. Aitari lagundu baratzean, jolas egin... Don Fernando parroko organistak aukeratuta koro parrokialean abesten zuten. Pagarik ez zuten izaten. Mutikotan egindako lanak.

676. 14 urterekin tailan lanean eta gau-eskolan marrazketa ikasten (ZAR-042/012)

14 urte bete bezain laster hasi zen lanean tailista moduan. Berak zer zen ere ez zekien. Gau-eskolara ere joaten zen marrazketa ikastera. Gaztetan asti askorik ez zuten izaten dibertitzeko.

677. Tximillua zertarako erabiltzen zen (ZAR-042/013)

Tximillua (=viruta), beste herri batzuetan nola esaten den. Sua pizteko erabiltzen zuten askotan. Beranduago hasi ziren ganaduarentzat azpi moduan erabiltzen. Hasieran jendea harritu egiten zen.

678. Baserrian egiten zituen lanak (ZAR-042/014)

Baserrian egiten zituen lanak: belarra bildu, sagarrak bildu...

679. Arrantzara noiz; zer hartzen zuten (ZAR-042/015)

Ahal zuten guztian joaten ziren arrantzara. San Jose ingurura arte aterpean izaten zituzten txalupak. Txipiroiak eta arrain txikiak hartzen zituzten: panekak, kabrak... Txibiak saldu ere egiten zituzten dirua lortzeko. Ze garaitan ibiltzen ziren arrantzan.

680. Artes y oficios, gerora eskola profesionala izango zena (ZAR-042/016)

14 urte ingururekin hasi zen gau-eskolan, soldaduskara joan arte. Marrazketa ikasten zuen batez ere. Hasieran "Artes y oficios" zen eta gerora eskola profesionala. Irakasleak: Jose Luis Iriarte gasteiztarra, Tomas Murua...

681. Marrazketa klaseak nolakoak ziren; nork finantziatzen zuen eskola (ZAR-042/018)

Klaseak nolakoak izaten ziren. Laminak kopia behar izaten zituzten eta irakasleak ze akats egiten zituzten esaten zieten. Hasiera batean fraideek ordaintzen zituzten klaseak egur-lantegiekin batera. Eskola profesionala sortzean erakundeek ere parte hartuko zuten.

682. Mutilak bakarrik marrazketa klaseetan (ZAR-042/019)

Hasieran laminekin hasi ziren eta gero buztinarekin ere egiten zituzten irudiak. Tailan ere egiten zuten. Lagunarteko giroa izaten zuten klasean. Mutilak bakarrik egoten ziren. Zarautzen emakumeak tailerrean Pielhoff-en bakarrik zeuden.

683. Hirurogeitik gora tailista Zarautzen (ZAR-042/020)

Lehenbiziko soldata: bederatzi erreal egunean. Tailista ugari zegoen Zarautzen, hirurogeitik gora. Gaur egun ia ez da batere geratzen.

684. Tailaren beherakadaren arrazoia (ZAR-042/021)

Tailistak zergatik gutxitu ziren. 1945 urte inguruan tailatzeko makina ekarri zuten Balmasedatik eta merkeagoa zenez, eskulana gutxitzen joan zen.

685. Tailer batetik bestera ibili zen (ZAR-042/022)

Soldadutzan zegoela, berak lan egiten zuen tailerra desegin eta lantokirik gabe geratu zen. Etxean hasi zen lanak egiten. Gerora, berriz tailerrean hasi zen Orion, eta azkenik Zarautzera bueltatu zen.

686. Tailarako erremintak (ZAR-042/023)

Tailarako erabiltzen ziren erremintak: gubiak, kodilluak.. Tamaina desberdineko erreminta ugari erabiltzen ziren. Dena eskuz egiten zuten.

687. Egur-motak (ZAR-042/024)

Egur-motak. Bera altzariekin lanean hasi zenean haritza, gaztaina, zumarra, intxaurra, lizarra eta gerezia ziren onenak. Pagoa barruko gauzak egiteko erabiltzen zen. Okumea. Intxaurra garestia zen.

688. Marinara apuntatzeko arrazoiak (ZAR-042/025)

Marinan egon zen soldadutzan. Garai txarrekoa dela dio. Ogi gogorra eta janari txarra. Ferrolen zer jaten zuten. Marinara zergatik apuntatu zen. Marinara apuntatzeko Frente de Juventudesezko zertifikatua behar zen.

689. Giro-politikoa; eraikuntzen erabilera (ZAR-042/026)

Frente de Juventudes. Flechas y pelayos (falangistak eta reketeak). Batzokia auxilio social egin zuten. Kasinoa zegoen lekuan ere eskekoei bazkariak ematen zizkieten. Gerra aurretik karlista eta nazionalistak parean ibiltzen ziren hauteskundeetan.

690. Egurrerako zaletasuna nondik datorren Zarautzen (ZAR-042/028)

Egurrerako zaletasuna Zarautzen. Elkanoren garaian itsasontziak ere egiten ziren. Ziurrenik, itsasontzietatik altzarietara pasako ziren gero. Tomas Murua izan zen mende hasieran altzarien tailerrak martxan jarri zituena. Lehenbiziko textilak.

691. Sindikalisten perfilak (ZAR-042/038)

Sindikalistaren irudia pobrearena zen, beharrak bultzatutakoarena, baina baziren sindikalista ikasiak ere, ideak ematen zituztenak. Lantokia oinarri hartuta jokatu izan zuen beti.

692. Egurra, borroka egehien egin zuen sektorea (ZAR-042/039)

Borroka gehien egin zuen sektorea Zarautzen egurrarena izan zen.

693. Langile eta nagusien arteko harremana (ZAR-042/041)

Zarautzen tailer txikiak zeuden. Alfa izan zen langileak bereganatzen hasi zena. Langile eta nagusien arteko harremana.

694. Euskara ikasteko orduak langileentzat (ZAR-042/045)

Langileek euskara ikasteko orduak ere lortu zituzten. Konbenioetan hizkuntza kontuak kontuan hartzen dira, baina langile batzuek ez dituzte behar bezala aprobetxatzen.

695. Gorriek txaletak okupatu eta aristokratek ihes egin zuten (ZAR-043/004)

Gerra hasiera nola gogoratzen duen. Nazionalistak sartu artean gorriak inguruetako txalet zaharretan egon ziren bizitzen. Jabeek (nobleziakoak) alde egin zuten. Aristokraziako asko Zarautzen zegoen Argentinako enbaxadara joan ziren. Nazionalak sartu eta kuartelak jarri zituzten.

696. Iñurritza ingurua nolakoa zen; bertako eskola (ZAR-043/006)

Iñurritza ingurua nolakoa zen; asko aldatu da. Eskolan ere Iñurritzan ibili ziren.

697. Alcala Zamora Zarautzen egon zenekoa (ZAR-043/007)

Irakaslea madrildarra zen. Errepublikazalea zela uste du, Alcala Zamorari harrera egitera joan baitzen. Alcala Zamora Zarautzen egon zenekoa. Frankismo garaian irakasleek hartu zuten bidea.

698. Eskolan neskak eta mutilak banatuta (ZAR-043/008)

Eskolak bi solairu zituen; neskak goian eta mutilak behean egoten ziren. Irakasleak. Oinarrizko kontuak ikasten zituzten. 14 urterekin fraideetara joaten ziren eta 16rekin ofizioa ikastera.

699. Zinea 15 zentimo; sobratutakoarekin gozokiak erosi (ZAR-043/009)

Asteburuan bakarrik inguratzen ziren herrira. Zinea 15 zentimo ordaindu eta sobratzen zenarekin gozokiak erosten zituzten. Udan golf-era dirua irabaztera. Oinez ibiltzen ziren; gerora erosi zituzten bizikletak.

700. Bazkariaren truke baserrira lanera (ZAR-043/010)

Iñurritzan pilotan aritzen ziren elizako paretaren kontra. Korrika ere ibiltzen ziren. Etxe Txikira joaten ziren batzuetan itulan, baratzean.. Laguntzera bazkariaren trukean.

701. Iñurritzan jasotako barazkiak saltzera Donostiara (ZAR-043/011)

Barazki asko jasotzen zen Iñurritzan. Geltoki alderainoko guztia baratzeak ziren. Donostiara joaten ziren trenez barazkiak saltzera. Udan ere dirua ateratzen zuten aristokraziakoekin.

702. Oilasko-biltzea bi taldetan (ZAR-043/012)

Euskal Festak eta San Pelaioak ospatzen ziren Iñurritzan. Oilasko-biltzea nola egiten zen; mutilak bakarrik ibiltzen ziren. Bi talde egiten ziren eta herria bitan banatzen zuten. Zarautzen muga non zegoen.

703. Martaneko taberna (ZAR-043/014)

Surtidore inguruan egon zen sagardotegi bat. Martaneko taberna. Zaharrenek "Benta" deitzen zioten.

704. Euskal Jaiaren sorrera (ZAR-043/016)

Euskal Festa bera jaio zen inguruan hasi omen zen. Don Leandro eta Flores Kaperotxipi izan ziren bultzatzaileak.

705. Mutikotako soldatak limonada eta zigarrotan (ZAR-043/022)

6 erreal irabazten zituzten pilotak jasotzen eta kadi lanarengatik 2-3 pezeta. Gero Martanera joan eta limonada edaten zuten. Zigarro-papera erosi eta arta-bizarrarekin egiten zituzten zigarroak.

706. Lana eta marrazketa; beka bat lortu zuen, baina onartu ez (ZAR-043/025)

16-17 urterekin hasi zen tailista moduan lanean. Zortzi ordu lan egin eta gero marrazketa ikastera. Beka bat atera zuen marrazketan fraideetan. Nork eman zizkien bekak. Zarauzko lehenengo plano orokorra. Beka eman arren lanean jarraitu zuen; beste batzuek beste bide bat hartu zuten.

707. Santa-eskean baserriz baserri; koplak (ZAR-043/026)

Gabonetan eta Santa Ageda bezperan eskean aritzen ziren Iñurritzan. Santa-eskean bere lehengusuak abestutako bertso bat. Koplaria hartuta baserriz baserri ibiltzen ziren. Gabonetan herrira joaten ziren kantura.

708. Erromeriak; festa handiena Donostiara egun-pasa joatea estropadetan. (ZAR-043/027)

Erromeriak galdu egin direla dio. Inguruetako festak: Laurkain, Askizu... Inguruko ze festatara joaten ziren. Urte guztiko festa huandiena: Donostiara joatea estropadetan bazkaria zapata-kajan hartuta.

709. Zarautz eta Donostiaren arteko pikea estropadetan (ZAR-043/028)

KUadrillako bat estropadetan ibili zen. Zarautzek ere atera zuen taldea eta baita sanpelaioatarrek ere. Zarautz eta Donostiaren arteko pikea estropadetan. Baserria eta itsasoa bakarrik zituen Zarautzek.

710. Iñurritza eta kaletarren arteko pikeak (ZAR-043/029)

Iñurritza eta kaletarren arteko pikeak. Bera iñurritzar petoa omen da.

711. Mutil-ardoa; San Juan bezperan ardo dastaketa (ZAR-043/036)

Baserriko mutilek herriko festetan mutil-ardoa egiten zuten auzo guztietan. Mutilek ordaintzen zituztelako ardo-barrikak deitzen zen horrela. Barrikak non jartzen ziren. San Juan bezperan ardo-dastaketa egiten zen.

712. Oilasko-biltzeko dantza berezia (ZAR-043/037)

Bertso zaharrak eta kanta zaharrak abesten zituzten kuadrillan zebiltzanean. Oilasko-biltzean dantza berezi bat egiten omen da. Nolakoa zen dantza.

713. San Pelaioak; banda, txistulariak (ZAR-043/038)

Auzo alaia zen Iñurritza. Ze festa ospatzen ziren. San Pelaioetan Zarauzko banda etortzen zen eta beraiek eusten zizkieten partiturak musikoei. Oilasko-biltzea txistulariekin egiten zen. Inguruko txistulariak.

714. Iñurritza ehiza-leku ona (ZAR-043/039)

Iñurritzan uholdeak ere izaten ziren, oso baju dagoelako. Ehiza-leku ona zen, erribera zegoelako. Istingorrak, hegaberak.. botatzen zituzten. Txalupak ere sartzen ziren Iñurritzara.

715. San Pelaio eguneko ospakizunak (ZAR-043/042)

San Pelaio eguneko ospakizunak. Goizean meza nagusiaren ostean prozesioa egiten zen. Ondoren Lizarrako dultzaineroak. Gero hamaiketakoa eta bazkaria. Kanpoko jendea ere etortzen zen. Gauean soinu-jolea eta bertsolariak.

716. Lau urtean Gasteizen lanean (ZAR-043/043)

Soldadutza zela-eta Gasteizera joan zen. Gero, lana bertan aurkitu eta beste lau urte egin zituen. Aldaketa handia izan zen Iñurritzatik Gasteizera joatea.

717. Aitonak katu bati ateratako bertsoak (ZAR-043/045)

Bere aitonak Agilafuente-neko tela fabrika lan egiten omen zuen. Lagun batzuek katu lapurtu zioten eta gero jan. Bertsoak atera zizkion katuari. Aitonak ez zekienez idazten, idazkariari abestu eta hark idazten zituen.

718. Gutxi abesten zuten, giroa ez zelako egokia (ZAR-045/015)

Gaztetan gutxi abesten zuten, gerraostean debekatuta zegoen eta. Gau-eskoletan aita Ibarbiarekin irakurri zuen lehenbizi euskaraz. Etxean bertsoak abesten zituzten, amak paperetik ikasiak.

719. Auzoetako jaiak (ZAR-045/016)

Auzoetako jaietara joaten ziren gaztetan: Askizu, Urdaneta... Meagan igandero izaten zen erromeria; Argote izaten zen soinu-jotzen. Oinez joaten ziren; gerora bizikletan ibiltzen ziren eta urrunago ere joaten zitiren. Ze ospakizun izaten ziren.

720. Helduan dantza egiteko debekuak; kongregazioak (ZAR-045/017)

Erromeriak nolakoak izaten ziren. Helduan eta soltean dantza egiten zuten. Aian kuadrilla bat kartzelara eraman zuten helduan dantza egiteagatik. Mariaren alabak kongregazioko neskek "zeladorak" izaten zituzten zaintzeko.

721. Igandeko eginkizun eta entretenimenduak (ZAR-045/018)

Igandetan goizean mezara, ondoren ganadu-lanak. Bazkalostean siesta eta kalera lagunekin. Erromeria amaitutakoan etxera. Kuadrillan gutxi edaten zuten eta tabernetan ere gutxi ibiltzen ziren.

722. Gaztetan diru gutxi (ZAR-045/020)

15 urterekin hasi zen lanean fabrika. Dirua justuan izaten zuten gaztetan.

723. Udaletxea erre zutenekoa (ZAR-045/021)

Gerra garaiko oroimen txarra du. Erreketeak sartu zireneko arratsaldea. Udaletxea erre egin zuten, gizon bat barruan zela pentsaturik, baina teilatutik

ihes egin zuen. Beste etxe bat erretzen saiatu ziren, baina herritar batek konbentzitu zituen.

724. San Pelaio eta Iñurritza, izen nahasketa (ZAR-045/025)

Gerra aurretik Iñurritza deitzen zitzaion auzoari, baina eliza egin zutenean San Pelaio izenarekin nahastu zen.

725. Morroiaren eginbeharrak eta baldintzak (ZAR-045/026)

Baserrian Urdanetako morroia izan zuten. Bera tailerrean zebilenean anaiak bakarrik ezin zituen baserriko lanak eraman. Baserriko edozein lan egiten zuen morroiak, etxekoen gisan. Morroiaren soldata.

726. Lan-baldintzak: lan-orduak, oporrak... (ZAR-045/027)

Lan-baldintzak tailerrean. Hasieran astebeteko oporrak ematen hasi ziren. Gero piskanaka joan ziren opor luzeagoak ematen. Altzarien fabrikari ibili izan da beti lanean. Zenbat ordu lan egiten zituen. "Sabado ingles"-a.

727. Baserriko jendea erre kara bainatzera (ZAR-045/034)

Berak 20 urte inguru zituela trainerilak izaten ziren. Igerian justuan ikasi zuen. Erre kara joaten ziren bainatzera, hondartzara joateko arropak aldatu behar izaten zirelako.

728. Zarauztik Aiara korrika-apustua (ZAR-045/035)

Apustuak. Gehien korrika-apustuak egiten ziren. Ezagunenetakoa Zarauztik Aiara Jose Osa eta Rotetak egindakoa. Lasterketa honen inguruko gorabeherak.

729. Idi-demen hasiera "Noizbait" frontoian (ZAR-045/036)

Idi-demak noiz hasi ziren. Etxabek "Noizbait" frontoia alkilerrean hartu eta idi-demak antolatzen hasi zen. "Noizbait" izena nondik datorren.

730. Kondearentzako txakolinarekin gertatutako pasadizoa (ZAR-045/038)

Txakolinak ez zuela urik onartzen esaten zen. Horren inguruko pasadizoa. Behin, kondearentzako txakolina egiten ari zirela, hankak garbitzeko erabiltzen zuten ura erori zitzaien txakolinetara.

731. Getariarrekin pikea balea dela eta (ZAR-045/039)

Harreman ona zuten inguruko herriekin, baina getariarrekin bazuten pikea. Balearen inguruko bertsoak. Nork ikusi zuen eztabaidan ari zirela, balea azkenean usteldu egin omen zen Getariako kaian.

732. Aristokrata gazteen entretenimendua (ZAR-045/040)

Aristokraziako gazteak goizean hondartzara joan eta arratsaldean txokolatea hartzera joaten ziren mendira.

733. Sagardotegietako ohiturak (ZAR-045/041)

Txakolindegia: Txoko taberna dagoena, Amenabar.. Sagardotegia: Errausta, Otzarreta.. Kuadrillan joandakoan tokan aritzen ziren eta galtzen zuenak ordaintzen zuen.

734. Lehengo euskara eta oraingoa; Zarauzkoa eta Getariakoa (ZAR-045/042)

Kaletarrendandik euskara desberdina duela aipatzen dute. Gaur egun gazteekin nabaritzen duen ezberdintasuna. Getariarren euskara desberdina dela dio.

735. Soldadutzara joandakoen bizipenak (ZAR-045/043)

Jendea normalean soldadutzara joan ostean ezkontzen zen. Soldadutzara ez zen joan, gaitz fisikoa zuela esanda. Jendea nora joaten zen soldadutza egitera. Kontatzen zituzten bizipenak. Marinara joaten zirenak garbiago ibiltzen omen ziren.

736. Udan logelak alokatzen ziren (ZAR-045/044)

Etxea erostea garesti zegoen, eta errentan egoten ziren asko. Etxea erosteko aurrezten ibili zen zarauztar bati gertatu zitzaiona. Etxepe bakoitzean bi-hiru familia ere egoten ziren. Udan, logelak alokatzen ziren, "con derecho a cocina".

737. Udararen logelak alkatatzen ziren (ZAR-045/045)

Gerraostean Frantziatik etortzen ziren asko udaran, hau merkeagoa zelako. Frantsesekin izaten zuten harremana. Nora joana izanez gero, udaran etxea alkatatu eta dirutxo ateratzen zuten.

738. Hasierako kanpotarrak nondik etorri ziren (ZAR-045/046)

Lehenbiziko jende-multzoa Galiziatik etorri zen (kanterara lanera) eta gero Extremaduratik.

739. Lehengo Zarautz eta oraingoa (ZAR-045/047)

Herria nola joan den hazten eta aldatzen. Lehengo eta oraingo konparaketa. Desagertutako garbitoki haundi baten inguruko kontuak.

740. Trenbidearen banaketa: Zarautz eta Azken Portu (ZAR-045/051)

Trenbidea beti dagoen lekuan ezagutu du. Trenbidetik haruzkoa beti apartetzat hartzen zen eta bertako jendeak "Zarautzera noa" esaten zuen. Auzokoen harremana.

741. Barazkiak, frutak; hauen zainketa (ZAR-045/053)

Patata, aza, koniflora, azelgak.. denetik hartzen zuten baratzean. Udare asko izaten zituzten, 200 zuhaitzetik gora. "Sulfato de cobre" erabiltzen zuten barazkiak "gorriak" ez jotzeko. 19 urterekin jan zuen lehenbiziko aldiz tomatea.

742. Produktu onenak kalean saltzeko (ZAR-045/054)

Produkturik onenak kalean saltzeko izaten ziren; eta kaskarragoak, etxerako. Bere anaiek belar-meta azpian oilo-arrautzak topatu zituzteneko pasadizoa.

743. Esne-litroaren prezioa bera umea zela eta aurrerago (ZAR-045/056)

Esne-partitzen ere ibili izan zen mutikotan. Marmita eskuan sartu behar izaten zuen, bestela lurra jotzen zion eta. Zenbat diru ordaintzen zen esne-litroa.

744. "Txerri kalea" izenaren jatorria (ZAR-046/003)

Zarauzko Herrikobarra kaleari "Txerri kalea" zergatik esaten zitzaion.

745. Etxeko abereekin ziurtatzen zuten elikagaiak izatea (ZAR-046/004)

Kalean kokatutako etxeetan ere abereak egon zitezkeen. Elikagaiak ziurtatzea zen helburua. Bi familiaren artean pare bat txerri haztea ohikoa zen. Aldiko bat hiltzearekin, epe luzeagorako ziurtatzen zuten haragia etxean. Gerraostean, aita fabrika lanean hasi zenean, kendu zituzten etxeko abere guztiak.

746. Erriberatan zatituta zegoen Zarautz (ZAR-046/005)

Erriberatan zatituta zegoen Zarautz. Erribera batek sei metro eta erdi luze zituen. Erribera arteko mugari, erretena esaten zitzaion. Familiaren bakoitzak erribera kopuru bat zuen.

747. "Azken portu" taberna (ZAR-046/007)

Baserrietara abiatu aurretik azkenengo geldiunea trenbidearen aldamenean zegoen tabernan egiten zuten baserritarrek. Horregatik deitzen zen "Azken portu" taberna. Ardoa lehenengo aldiz bertan probatu zuen Andonik.

748. Itsasoan ez galtzeko erreferentziak hartzeaz (ZAR-046/010)

Motorrik gabeko itsasontziak ziren gehienak garai hartan. Arrantzarako erabiltzen ziren traineru handiei buruz jarduten dute. Itsasoan erreferentziak ondo hartzea garrantzia handikoa da. Honekin lotutako anekdota bat kontatzen du Vitoriok.

749. Karnataren garrantzia (ZAR-046/011)

Arrantzarako erabiltzen den karnatak berebiziko garrantzia duela kontatzen dute. Galiziatik ekartzen duten zizare klase berezi bat da omen da aproposena.

750. Moilako arrantza (ZAR-046/014)

Garai bateko moilako arrantza hura galduta dago. Txirrikarik gabeko kanaberak edo eskuko aparejuak erabiltzea zen ohikoena. Arrantzatzen zituzten arrain klase desberdinak izendatzen dituzte

751. Haitz-harra, lohi-harra eta zizarea (ZAR-046/016)

Haitz-harra, lohi-harra eta zizarearen arteko desberdintasunak.

752. Lupia arrantzatzeko modua (ZAR-046/017)

Lupia arrantzatzeko txalupak mugimenduan behar du. "Kazan" ibiltzea esaten zaio horri. Nola egiten den azaltzen dute.

753. Sare arrantza (ZAR-046/021)

Sare txikiekin arrantzan aritzea libre zegoen lehen. Itsas-kabra eta txangurrotan ibiltzen ziren batez ere. Nolakoa zen eta nola erabiltzen zen kontatzen du.

754. Zarauzko moila (ZAR-046/024)

Zarauzko moilak ehun urtetik gora izango du. Itsasontzi handiak bertan eraikitzen zituzten. Estatu mailan Udalarena den moila bakarretakoa izango dela diote.

755. Sarez arrastean eginiko arrantzaz (ZAR-046/025)

Itsasertzetik sarez arrapatzen zituzten arrainak arrastean. Bost familiarena izaten zen sare hura. Arrantzatutakoak banatzeko moduari buruzko azalpenak.

756. Mollarriko kargaderoa (ZAR-046/028)

Jendeak horrela uste duen arren, Mollarrin ez da inoiz itsasontzirik egin. Minerala kargatzeko lekua zen hura. Bagonetetan ekartzen zuten Asteasu inguruko minerala Mollarriraino. Kablez, aidean garraiatzen ziren bagoneta haiek.

757. Zarauzko azkenengo balearen istorioa (ZAR-047/005)

Balea arpoiaz jotzen zuenarentzat izaten zen eta azken bale hura Hilarioren aitonak, zarauztarra izatez, jo zuen. Marinel taldean getariarrak ere bazeuden eta, Zarauzko portura ekarri ordez, Getariara eraman zuten. Bale hura getariarrarena ala zarauztarrena zen eztabaida piztu zen. Zarauzko bikarioak azken epaiketean balea zarauztarrena zela erabaki zuenerako, balea ustelduta zegoen.

758. Baleak dirutza ematen zuen (ZAR-047/006)

Balea arrantzatzeak etekin handiak ematen zituen. Olio eta koipeak batez ere.

759. "Mila zortziehun eta setentaio txuan" (ZAR-047/007)

1878. urtean gertatu zen istorio honen inguruko koplak kantatzen ditu. Kuadrillako hainbat kideen abizenak aipatzen dira koplak hauetan.

760. Traineruak hondartzatik (ZAR-047/008)

Zarauzko trainerua hondartzatik irteten zen. Urtean zehar egiten zituzten lan desberdinez eta hauen kokalekuaz ari da. Idiak erabiltzen ziren itsasontziak eta arrantzatutakoak lehorra eramateko.

761. Barbarinak txaluparen jabeari ordainetan (ZAR-047/009)

Aberats baten txalupa erabiltzen zuen Hilarioren aitak arrantzarako. Arrantzatutako arrain guztiarekin geratzen ziren barbarinekin izan ezik. Txaluparen jabeari eman behar izaten zizkioten hauek ordainetan.

762. Bizi guztia toldero lanetan (ZAR-047/011)

Aspalditik ibili da Hilarioren sendia toldero lanetan Zarauzko hondartzan. Baineroen garaian, tren geltokira joaten ziren bezero bila. Zer nolako zerbitzuak ematen zituzten azaltzen du.

763. Udatiar aberatsak hiru hilabeterako (ZAR-047/012)

Sasoi batean hiru hilabeterako etortzen ziren udatiarrak Zarautzera. Oporraldia laburtzen hasi zenean udatiarrak hanka egin ez zezaten Euskal Jaia antolatzen hasi ziren. Udatiarren jatorri desberdinak aipatzen ditu. Klase handikoak askotan.

764. Oinez ikasi orduko, toldero (ZAR-047/013)

Oinez ikasi orduko hasten ziren toldero lanetan. Adinaren eta altueraren arabera, lan desberdin bat zuen bakoitzak. Toldoak jarri eta kentzeko prozesua azaltzen du.

765. Toldoei eusteko egurrik aproposena (ZAR-047/018)

Toldoetako ziriak egiteko egur klaseez ari da.

766. "Mundua" deitzen genion toldo handienari. (ZAR-047/019)

Koloreak erabiltzen zituzten toldoak identifikatzeko. Haizeak teilatu-hegalak bota ez zitzaizkien aitak egin zuen diseinu berria deskribatzen du eta baita "mundua" deitzen zioten toldo erraldoia ere.

767. Apropos egindako esmalteaz margotzen ziren toldoak urtero (ZAR-047/020)

Urtero, negu partean, margotu egiten zituzten toldoak. Esmalte berezi bat erabiltzen zen horretarako.

768. Toldoak jarri ahal izateko bete beharreko baldintzak (ZAR-047/022)

Salmenta nolakoa izaten zen azaltzen du. Zumaiaiko komandantziak ematen zien baimena. Salbamendu zerbitzua ematen ere behartuta zeuden. Udaletxea egin zen honen kargu baina zergak ordaintzea eskatu zieten ordainetan. Arazo handia zen tolderoentzat.

769. Lanbide gogorra tolderoena (ZAR-047/023)

Lanbide gogorra dela iruditzen zaio. Itsaso zakarra zeneko egun batean gertatutako anekdota kontatzen du.

770. Toldoak egiteko beharrezko gaiak (ZAR-047/025)

Toldoak egiteko materialaz ari da. Oihala Bergaratik ekartzen zuten, uztaiak Olazabalenean erosten ziren. Arreba zaharrenak josten zituen etxean. Neguan hutsik geratzen ziren txaletetan gordetzen zituzten toldoak.

771. Lehertu gabe datorren olatuari "Txurroa" (ZAR-047/027)

Itsasoko ur-lasterrak non dauden olatuei begira identifikatzea erraza da. Olatua lehertu gabe datorren guneari "txurroa" deitzen diote. Bainurako oso

arriskutsua baina surferako leku aproposena omen da hau. Arriskua adierazteko banderen kokapenaz hitz egiten du.

772. 8 senide 50 metro karratuko etxean (ZAR-047/030)

50 metro karratuko etxean 8 pertsona bizi ziren eta gainera gela bat alokatzen zuten udan. Komedorea eta gurasoen gela ukiezinak zirela kontatzen du.

773. "Agacha la buru erregina, que olatu viene" (ZAR-047/036)

Garai hartako bainujantziek hitz egiten du. Lurrerainoko albornozak erabiltzen zituzten orkatilak ez erakusteko. Bere aita ez du sekula kamiseta gabe bainatzen ikusi eta inor bikiniarekin ikusten bazuten, aguazilari deitzen zioten. Baineroek eskutik helduta eramaten zituzten emakumeak uretara.

774. Oilagorra eta hegaberak ehizatzen ziren nagusiki (ZAR-048/002)

Ehiztari amorratua izan da betidanik. Amaren aldeko sendiak afizioa ba omen zuen. Ehiza-barruti handia egon da betidanik Zarautzen. Oilagorrak eta hegaberak ehizatzen ziren nagusiki.

775. Oilagorra ehizatzeako baldintzak (ZAR-048/004)

Hotzetan, elurra edo izotza denean batez ere eta leku txarrean ibili behar izaten denez, oilagorra ehizatzea oso gogorra iruditzen zaio. Zakurrekin aritu behar izaten da.

776. Kaleko jendeak zuen batez ere ehizarako zaletasuna (ZAR-048/007)

Usotarako zaletasun handia egon izan da Zarautzen. Baserritarrek baino, kaleko jendea ibiltzen zen ehizan.

777. Lorentxak saltzen zuen ehizatutakoa (ZAR-048/010)

Ehizatutakoa Kale Nagusian fruta-denda bat zuen Lorentxari ekartzen zizkioten sal zitzan. Ehizatutako edozer hartzen zuen honek bere dendan saltzeko: oilagorrak, birigarroak, txori txikiak, etab.

778. Erbia (ZAR-048/012)

Erbi asko zen garai batean. Bere gazte denboran erbia ehizatzen ibilitakoa da nahiz eta ordurako galtzen hasita zegoen. "Lurmenan" (elurrik ez duen sasi-azpia) egon ohi ziren erbiak.

779. Azeria eta basakatua (ZAR-048/014)

Azeria azkarra da oso, gauez ehizatzen da. Inork azeria edo basakatua ehizatzen bazuen, kalean harro erakutsi eta baserriz baserri eskean ibiltzen zen. Gaur egun ere badira, hala ere, mendira joan behar izaten da hauek ehizatza eta ehiztariak alfertu egin dira antza.

780. Tarinak, Kardantxiloak eta txontak (ZAR-048/015)

Tarinak eta kardantxiloak apeuarekin harrapatzen zituzten. Kanturako harrapatzen zituzten. Non ibiltzen ziren eta nolakoak diren deskribatzen du. Txontak fruta-arbolen lore eta kimuak jaten ditu.

781. Berdeloiak arbi hazia du gustoko (ZAR-048/016)

Berdeloiak (Carduelis chloris) ereindako arbi hazia jatea gustuko duenez, lur sailak sareekin estali ohi zituzten uztak izorratu ez zitzan.

782. Urteta auzoan soinujolerik onenak (ZAR-048/018)

Urtetan (Zarauzko auzoa) bizi direnak Zarautzera jo izan dute gehiago. Urteta nolakoa zen azaltzen du. Taberna bat bazen orduan. Igandero egiten zen honen inguruan erromeria bertara soinujolerik onenak ekarrita. Zarautzik jende asko etortzen zen auzora, baita Urdaneta auzokoak ere.

783. Meza ostean, hamaiketakoa (ZAR-048/019)

Meza amaitutakoan tabernan elkartu ohi ziren hamaiketakoa egiteko. Gizon eta emakume, hamaiketakoa jartzen zuen etxeko ganbaran biltzen ziren.

784. Don Luis apaiza (ZAR-048/020)

Don Luis apaiza herritik etortzen zen meza ematera. 30 urtez eman zuen meza Urtetan. Gogor egiten zuten apaizek erromerietan dantzan aritzen zirenen aurka.

785. Urtetako maistrak (ZAR-048/021)

Isidorak urte asko egin zituen maistra lanetan urtetan. Honen aurretik, gerra garaian, egon zena ere gogoan du. Elizaren aldamenean zegoen eskola. Zarauzko hainbat auzotako umeak etortzen ziren Urtetako eskolara. Baita kaleko hainbat ume ere.

786. Basoko animalien izenak 1 (ZAR-048/022)

Animaliak argazkietatik identifikatzen ditu. Bakoitzari nola deitzen zaion jasotzea da helburua. Lexikoa. Urtetako euskarak Aiakoarekin ditu Zarauzkoarekin baino parekotasun gehiago.

787. Basoko animalien izenak 2 (ZAR-048/023)

Animaliak argazkietatik identifikatzen ditu bakoitzari nola deitzen zaion jasotzea da helburua. Lexikoa.

788. Anfibio desberdinen izen eta ezaugarriak (ZAR-048/026)

Animaliak argazkietatik identifikatzen ditu. Bakoitzari nola deitzen zaion jasotzea da helburua. Lexikoa.

789. Ziraunak, sugeak eta muskerrak (ZAR-048/027)

Animaliak argazkietatik identifikatzen ditu. Bakoitzari nola deitzen zaion jasotzea da helburua. Ezaugarriak ematen ditu. Lexikoa.

790. Zomorroak (ZAR-048/028)

Animaliak argazkietatik identifikatzen ditu. Bakoitzari nola deitzen zaion jasotzea da helburua. Ezaugarriak ematen ditu. Lexikoa.

791. Zomorroak eta Intsektuak (ZAR-048/030)

Animaliak argazkietatik identifikatzen ditu. Bakoitzari nola deitzen zaion jasotzea da helburua. Ezaugarriak ematen ditu. Lexikoa.

792. "Bakastak" (ZAR-048/034)

"Bakastari" (lakasta) buruz ari da hizketan. Abereentzat oso kaltegarria dela kontatzen du.

793. Luhartza (ZAR-048/036)

Luhartzari buruzko ezaugarriak eta egin ditzakeen kalteak.

794. Katamotza eta basakatua (ZAR-048/038)

Katamotza katuaren oso antzekoa da. Basakatua eta katamotzaren arteko desberdintasunak aipatzen ditu. Harrapatutako basakatuak larrutu egiten ziren.

795. Hiru uso mota desberdin (ZAR-048/040)

Usoen irudiak erakusten dizkio elkarrizketatzaileak eta hauen izenak esaten ditu Jose Marik. Hiru uso mota desberdintzen ditu.

796. Martin arrantzalea (ZAR-048/042)

Martin arrantzaleari buruzko ezaugarriak eta izen desberdinak aipatzen dizkio elkarrizketatzaileak

797. Okil desberdinak eta hauen izenak (ZAR-048/043)

Txori desberdinen izenak esaten ditu elkarrizketatzaileak erakusten dizkion irudiak ikusita. Okila, kiltxoa eta nafar-okila desberdintzen ditu.

798. Zelai txoria (ZAR-048/045)

Zelai txoria, txolarrearen antzeko hegaztiari deitzen diote. Honen ezaugarriak aipatzen ditu. Zelai txoriaren irudia erakusten dio elkarrizketatzaileak.

799. Salbide ingurutik kalerainoko etxe eta lantegiak (ZAR-049/002)

Salbide inguruan zeuden etxe eta lantegiak deskribatzen hasten da eta kalez kale erdiguneraino zeudenak izendatzen ditu.

800. "Sección Femenina" ren egoitza Zarautzen (ZAR-049/003)

1951. urte inguruan "Sección Femenina" inauguratzera Franco etorri zen. Eskolatik jai eman zieten egun hartan Francori txaloak jotzera joan zitezten. Uda garaian, kanpotik etorritako 400 neska inguru hartzen zituzten etxe hartan "Formación del espíritu Nacional" zen irakasgai nagusia.

801. Salbideko labaderoak 25 harri (ZAR-049/005)

Salbideko arropak garbitzeko harraska oso handia zen. Herriko kontu eta esames guztiak entzun zitezkeen bertan. Zarauzko hotelek ere han garbitzen zituzten arropak. Lehenengo harrietan kokatzeko lehentasuna ematen zitzaaien hauei. Abantaila honek eraginda, eztabaida handiak sortzen ziren.

802. Urak hartzen zuen sarri Salbide ingurua (ZAR-049/008)

Labaderoa zegoen ingurua urak hartzen zuen Zarautzen euri asko egiten zuen bakoitzean. Horietako batean, "Sección Femenina"ren egoitzako pareta bota zuen urak. Azpian zeuden txaboletako zerriak Azpen Porturaino igerian iritsi omen ziren.

803. Zarautz toponimoaren jatorriaz (ZAR-049/009)

Zarautz osoa zingira bat zen. Izena ere hortik datorkio: "Txara-utz"ek erdaraz "sitio inundable lleno de zarzas" esan nahi duela dio hiztunak.

804. "Katxina" eta "Txiliku" (ZAR-049/010)

"Katxina"ri buruzko anekdota kontatzen du. Zarauzko ezkontzagina zen: abilidadarik ez zuten mutilzaharrei andregaia bilatzen omen zien. Jesus Olaizola, "Txilikukoa", zen beste pertsonaia ezagun bat. Sebastianen aitarekin batera, inoiz ezagutu duen adarjotzailerik handiena omen zen.

805. Iribarrek, baratzea baino nahiago futbola (ZAR-049/013)

Iribar atezaina baserritarra zen. Aitak eskolatik irten eta, baserrira lanera itzuli aurretik, hondartzara futboleko jolastera joaten zela jakin zuenean, jipoitu zuela gogoan du Sebastianek.

806. Gauero esnea Mondragonesenera (ZAR-049/016)

Gauero litro eta erdi esne Salbidetik "Bar Mondragonesenera" ekartzeagatik propina edo pintxoak ematen ziotenez, gustuko lana zuen. Tabernaren izenaren jatorriaz ere ari da.

807. Kale eta plazen izenak (ZAR-049/018)

Salbide inguruko baserrien izenak. Zarauzko kale eta plazen izenen zergatia azaltzen du.

808. Uholdeak sarri-sarri (ZAR-049/019)

Uholdeak sarri gertatzen ziren Zarautzen. Tailer inguruan metro bat ur noiznahi aurki zitekeen. Orduan ere lanera bizikletaz joaten zen.

809. Alemaniar lantegi asko Zarautzen (ZAR-049/021)

Erriberak non zeuden markatzen ditu mapa batean. Bertako lantegien izenak eta ezaugarriez ari da. Antza denez, gerra garaian ihesi joandako alemaniar askok itsasoa eta muga gertu zituelako Zarautz aukeratu zuten negozioak jartzeko (Taf, Keller, Pielhoff, etab.). Makina handiak nola garraiatzen zituzten kontatzen du.

810. "Koreanoek" erakutsi ziguten tomatea jaten (ZAR-049/022)

Tailerrak Zarautzen gauza berria dira. Batez ere baratzetik bizi izan dira Zarautzarrak betidanik. Kalitate oso oneko barazkiak lortzen ziren kostaldeko herrietan, tomateak batez ere.

811. Extremaduratik etorritako langileak (ZAR-049/023)

Extremaduratik jende asko etorri zen Zarautzera. Gehienak, Getariako errepidearen eraikuntzan lan egitera. Apurka-apurka, lan baldintzak hobetze aldera, fundiziora pasatzen ziren eta ahal zela, zurgintzara.

812. Nobizioak peoi lanetan (ZAR-049/024)

Zarauzko lanbide eskolako peoi lanak fraideetako nobizioek egiten zituzten.

813. Auzolanean jarduteko "bula" ordaindu behar (ZAR-049/027)

Auzolanean egiten ziren lan desberdinak izendatzen ditu. Batzuetan eskolan baimena eskatzen zuten auzolanean jarduteko. Elizan baimena eskatzeari "bula" esaten zitzaion. "Bula" ordainduta mezatara ez joateagatik egiten zenuen bekatutik libre geratzen zinen.

814. Mahatsa jotzean umeak gizonduratu (ZAR-049/028)

Adinaren arabera banatzen ziren lanak. Mahatsa jotzeko gonbidapena jasotzen zuten mutikoak gizon kontsideratzen ziren ordutik aurrera. Mahatsa zapaltzeko prozesua deskribatzen du.

815. Txakolina etxerako (ZAR-049/029)

Hamabi etxetan egiten zen txakolina Zarautzen. Normalean, etxerako ekoizten zuten denek. 400 botila inguru egingo zituzten urtean Salbiden. Sebastianen aitak, parean tokatzen zen edonori botila bat ematen zion. Gaur egun galdu egin da ohitura hori.

816. Eskola eta musika ikasketak aldi berean (ZAR-050/007)

Miserikordia bezala ezagutzen zen eskolan hasi zen arren, La Sallen egin zituen oinarritzko ikasketak. Oroitzapen onak ditu. Ona zen hainbat irakasgaietan gainera. Eskola eta musika ikasketak aldi berean egin behar izaten zituen. Bandako kide zaharrenek jartzen zioten eginkizun zelebraz hitz egiten du.

817. Etxekoei lo eragiteko musika zuen lagun (ZAR-050/009)

Sei urte ingururekin, anai-arreba txikiei lokartzen laguntzea zen bere arduretako bat. Orduan ohartu zen sehaska kanten eta musikaren erritmoak duen garrantziaz.

818. "Sakamantekas" eta "Amona mantalgorria" (ZAR-050/016)

Haurrak beldurtzeko erabiltzen ziren kondairak: "sakamantekas" eta Zarauzko kartzelan egoten zen "amona mantalgorria".

819. Haurtzaroa parroki inguruan (ZAR-050/017)

Haurtzaroko Zarautz nolakoa zen dakar gogora. Etxea baino hobe ezagutzen zuen parrokiak mintzo da batez ere. Pasabide sekretuetan barrena ibiltzen zirela gogoan dauka. Eragin handia izan du bere bizitzan zehar.

820. Txalupa artean igerian (ZAR-050/019)

Hondartza, itsasoa, moila inguruari "kosta"esaten zioten lehen. Gerora ikasi du hondartza hitza erabiltzen. Txalupa artean, igeri egiten nola ikasi zuen kontatzen du.

821. Itsasoarekin harreman estua izan du beti (ZAR-050/020)

Garrantzia handia izan du urak bere bizitza osoan zehar. Umeak zireneko arrantza kontuak, uretako jolasak eta kanalean egin behar izaten zuten garbitasun pertsonalaz hitz egiten du. Hainbat anekdota dakar gogora.

822. Udatiarrentzat lanean (ZAR-050/021)

Udatiarrak etortzen zirenean Zarauzko bizimodua aldatu egiten zen erabat. Umeek lan desberdinak egin zitzaketen, besteak beste, maletak eramaten edo golf makilekin "caddy" lanetan aritzen zirela kontatzen du. Berari ere, udatiarren etxeetan musika bandarekin kontzertuak ematea suertatu izan zaio.

823. Oholtzatik ikusi behar izaten zituen gazteak dantzan (ZAR-050/022)

Hamabostean behin, jai arratsaldeetan, kontzertua eskaintzen zuen musika bandak. Musika jotzen egon behar izateak ez zion dantzarako aukerarik ematen. Hala ere, musika jotzen zuen bitartean gazteen dantzarako jarreraren lekuko zela kontatzen du.

824. "Nahia" dantzalekuko fundatzaileetako bat (ZAR-050/023)

Gipuzkoako lehenengotariko dantzaleku baten fundatzaile izan zen Imanol. "Nahia" zuen izena eta Zarautzen bertan zegoen kokatua. Bertatik pertsona oso ezagunak pasa direla kontatzen du. Hala ere, musika irakasle izanik gaizki ikusia zegoenez, utzi egin behar izan zuen dantzalekua gerora.

825. Zarauzko Euskal Jaia (ZAR-050/024)

Abuztuak 15, Ama Birjina egunez, ospatzen ziren jai nagusiak Zarautzen. Irailaren 9ko "Fiesta vasca" edo Euskal jaiak ere indar handia izan duela kontatzen du. Musika, abesbatzak, antzerkia eta horrelako ekitaldi guztiak antolatzeke eta aurrera eramateko ardura hartzen zuen Imanolek. Euren zor diegu ekitaldiz beteriko aste beteko jaia.

826. "Xirula mirula" musika eskola (ZAR-050/027)

Musikarekin erlazionatutako goi mailako ikasketak burutu zituen. Herria alaitu eta jai giroa sortzeko musikak eman dion aparteko aukeraz mintzo da. Zarauzko "Xirula mirula" musika eskolaren sortzaile ere izan zen. Herriko 500 haur pasa ziren bertatik. Oroitzapen politak dakarzkio gogora.

827. "Oleskariak" abesbatzako zuzendaria (ZAR-050/029)

"Oleskariak" abesbatzako zuzendari izan zen (argazkia ikusten da). Arrakasta handia izan zutela kontatzen du eta baita Donostiako Easo abesbatzaren zuzendari izateko eskaintzari nola uko egin zion ere.

828. Euskararen alde lanean (ZAR-050/030)

Euskararen alde lan egiteko grina sentitu izan du hasiera hasieratik. Berak sortutako kantuak erabili ditu baliabide gisa,

829. Irakaskuntza eta sormenerako dohain berezia (ZAR-050/038)

Bizikletaren tinbrea erabiliz tonu eta erritmo desberdinak bereizten irakatsi zion lagun bati zortzi urte inguru zituztela. Erakusteko erraztasuna izan duela aitortzen du.

830. Ezinezkoa litzaioke kanta bakarra aukeratzea (ZAR-050/043)

Luis Iriondori ("Kontrapunto" taldekoa) esker lortu zuen Bartzelonako disko-etxe batek bere lehen lana argitaratzea. Egindako kanta guztien artean ezinezkoa litzaioke bakarra aukeratzea. "Pintto pintto" kantaren inguruko anekdota.

831. Musika edozein irakasgairako baliagarria (ZAR-051/002)

Edozein ikasgai eta jolas betetzen zituen musikaz Imanolek irakaskuntzan jardun zuen bitartean. Geografia irakasteko sortutako kanta abesten du adibide gisa.

832. "Mak Mikel" kantaren balioaz (ZAR-051/003)

"Mak Mikel" abestia nondik nora sortu zuen azaltzen du. Kanta haren bitartez, bestelako balio batzuk transmititu zizkien haurrei.

833. "Erre errekin errekin" (ZAR-051/004)

Bizitzan zehar gertatzen diren jai, ospakizun edo gertakari berezi guztiek daukate kantaren bat lotuta. "Erre errekin errekin" kanta jartzen du elkarrizketatzaileak adibide gisa.

834. Kanta bat sortzeko prozesuaz (ZAR-051/009)

Kanta eta melodiak burura etorri egiten zaizkiola kontatzen du. Hasiera batean, Lizardi bezalako olerkari zaharren olerkiei jartzen zien musika. Berak sortutako melodiei letrak jartzen hasiko da gero.

835. "Txorien neguko kanta" olerkia (ZAR-051/010)

Nahiz eta bere burua ez duen olerkaritzat hartzen, olerki asko idatzi izan dituela aitortzen du. Neguari buruzko olerki bat musikatzen du. Haurrei ezagunak zaizkien esperientziak identifika erraz bihurtzen ditu musika eta letren laguntzaz.

836. Sehaska kanten erritmoa (ZAR-051/013)

Umetan, anai-arreba txikiagoak loaraztea zen bere eginbeharretako bat. Hauek lokartu ezean, ez zuen kalera irteterik izaten. Orduan jabetu zen musikaren eta erritmo desberdinen garrantziaz. "Haurtxo polita sehaskan dago" kantatzen du adibide gisa.

837. Frontetik ekartzen zituzten jaioberriak (ZAR-051/015)

Hamar senidetan hirugarrena zen Imanol. Lau urtera bitartean baserrian bizi izan zen. Haurrak jaiotzen zirenean, frontetik ekartzen zituztela kontatzen zieten.

838. Euskararen egoera gerraostean (ZAR-051/017)

Euskaraz jarduteagatik etxean ez zuen sekula arazorik izan. Gobernadoreari eskua eman behar izan zioneko anekdota kontatzen du. Iruñan ospatu zen lehen aberri egunera ere joan zen lagun batzuekin. Kartzelatu egin zituztela kontatzen du.

839. Kixotea lehen aldiz irakurri zuenekoa (ZAR-051/030)

Baserritar asko zegoen apaizgaitegietan. Erdaraz ikastera joaten ziren gehienak. Imanolek bazekien gaztelaraz eta Kixotea bezalako lan handiak irakurriak zituen ordurako. Maisulan honi buruzko anekdota kontatzen du

840. Emakumeenganako begirunea (ZAR-051/033)

Gaztetan erretzen zituzten zigarroak nola egiten zituzten kontatzen du. Sexu harremanei dagokienean, garai hartarako ohikoa ez zen askatasun bat bizi izan zuen. Bekatu kontuek ez zuten gehiegi arduratu izan. Emakumearen irudia hainbat zentzutan izan da oso garrantzitsua bere bizitza osoan zehar.

841. Ospakizun ugari Zarautzen (ZAR-115/011)

Orduan herrian izaten ziren festak aipatzen ditu. Arrantza nolakoa izaten zen azaltzen du; eta arrantzara joan behar ez zenean, dantzaldi ugari egiten ziren Zarautzen. San Pelaiotan prozesioa eta festa izaten zen. Ama Birjinak ere ospatzen ziren. Euskal Jaiak 20. hamarkada inguruan hasi ziren ospatzen, eta ordutik arrakasta izan dute. Inauterietan zer egiten zen azaltzen du.

842. Erlijioa lehen (ZAR-115/012)

14 urte bete arte, igandero joan behar izaten zuten bezperetara. Aitonak arrosarioa esateko agintzen zien. Zarautzen egondako bikarioak aipatzen ditu.

843. Mojari buruzko anekdota (ZAR-115/014)

Behin itulan ibili ziren, eta moja batekin batera aritu ziren lanean. Handik astebetara, moja hura irten egin zen komentutik. Gerora, neskame sartu eta ezkondu egin zen.

844. Umetako lanaren ordutegia (ZAR-115/016)

10 urterekin lan egiten zuenean zer ordutegi izaten zuen azaltzen du.

845. Aitonaren heriotza (ZAR-115/017)

Aitona hil zenekoa kontatzen du.

846. Anaiaren soldadutza (ZAR-115/019)

Anaiari soldadutzara Afrikara joatea tokatu zitzaion. Han zela, Afrikako gerra handia izan zen. Azkenean, anaiari zergatik tokatu zitzaion bi urte egotea (eta ez hiru) azaltzen du.

847. Soldadutzan hilabete gutxiago (ZAR-115/020)

Donostiara ardoa saltzera joaten zen. Soldadutzan hilabete gutxiago egotea nola lortu zuen azaltzen du.

848. Eskola (ZAR-116/011)

Zarautzen egondako eskolak aipatzen ditu. Ikastolei buruz hitz egiten dute. Bera 12 urte arte ibili zen eskolan Aginagan.

849. Txikitako lehenengo urteak (ZAR-129/002)

Elkarriketatzaileak azaltzen du Basarri non jaio zen. Basarrik kontatzen du zazpi urte zituela joan zela Zarautzera bizitzera, eta zarautzar sentitzen dela, txikitan bizitako beste lekuen oroitzapen askorik ez baitauka.

850. Nola hasi zen bertsotan (ZAR-129/003)

Basarriren familiak taberna zuen Azken Portun, eta baserritar ugari inguratzen zen bertara. Bertso-giroa egoten zen han, eta, 14-15 urte zituela, bertso-saiotxoak egiten zituen Basarrik. Gaztelu bertsolariarekin bertsotan ibilitakoa da.

851. Kursaalean txapela irabazi zuenekoa (ZAR-129/005)

Bere aitona eta aita bertsozaleak ziren. 1935ean, Kursaalean txapela irabazi zuen: egun hartan sekulako ikara zuen, etxetik apenas ateratako mutil koskorra baitzen. Lotsatia dela aitortzen du. Ez zuen espero txapela irabaziko zuenik.

852. Sortutako bertsoen ondarea (ZAR-129/006)

Normalean ez ditu gogoratzen botatako bertsoak. Lagun batzuek, ordea, haren ehunka bertso dakizkite. Ez du inoiz pentsatu idatzi dituen bertso guztien bilduma egiterik: pozik egingo luke, baina adina traba handia omen du horretarako.

853. Lehengo bertsolari zaharrak (ZAR-129/007)

Lehen bertsolaritza nolakoa zen azaltzen du: gai arruntak, eta askotan elkarren trapu zaharrak aipatzea. Gai horiek mugatu egiten zuten bertsolariaren etorria, eta horregatik orain ez dirudi hain onak zirenik. Hala ere, Basarriren iritziz, bertsolari azkarrak eta biziak ziren, eta haiei esker etorri ziren ondorengoak. Lehengo bi bertsolariri buruz hitz egiten du: Gaztelu eta Txirrita.

854. Bertso-txapelketa eta arauak (ZAR-129/008)

1936ko txapelketan, ez zuen irabazi. Izan ere, arauak zioten irabazi eta handik hiru urtera arte txapeldunak ezin zuela berriro parte hartu txapelketan, baizik eta epaimahaikide izan behar zuela. 1936ko gerraren ondorioz, ordea, ez zen ospatu txapelketarik denbora batean.

855. 'Uztapide' (ZAR-129/009)

Manuel Olaizola Uztapideri buruz hitz egiten du: "bertsolari bezala Donostian jaio zen", ahots ederrekia eta maila handiko bertsolaria omen zen. Gerra iritsi zenean, ordea, Basarrik 7 urte eman zituen batetik bestera, eta Uztapiderekin hartu-emana galdu zuen. Etxera itzuli zenean, hala ere, Uztapiderekin batera abestea tokatu zitzaion bertso-saio askotan.

856. Gerra ostean, norbere burua zentsuratzen bertsotan (ZAR-129/010)

Gerra ostean, ezin zen nahi zen guztia esan, eta bertsotan mingainari kosk egin behar izaten zioten maiz, ondorioen beldur.

857. Bertsolari bizimodua (ZAR-129/011)

Bertsolari gisa izandako bizimoduari buruz hitz egiten du, batetik; eta bestetik, zer lanetan aritu zen, eta nola prestatu zen bertsolari izateko aipatzen du.

858. Gizon aipagarriak (ZAR-129/012)

"Harri" gizonari buruz hitz egiten du, gizatasun handikoa omen zen. "Exeta" ere aipatzen du. Basarrik ez du inoiz apusturik egin.

859. Nabarmentzeko moduko bertsolari zaharrak (ZAR-129/013)

Pedro Mari Otaola;oren lana da Basarriren gogokoa. Haren bertsoak zergatik gustatzen zaizkion aipatzen du. Xenpelar ere oso gogoko zuen, eta Bilintx ere oso ona zela dio.

860. Bertsolaritzaren egoera gaur egun (ZAR-129/014)

Gaur egun, bertsolaritza zer egoeratan dagoen azaltzen du. Bere ustez, maila oneko 15-16 bertsolari badaude.

861. Bertsoen neurria lehen eta orain (ZAR-129/015)

Lehengo bertsolariek erabiltzen zituzten neurriak oraingoek erabiltzen dituztenekin alderatzen ditu.

862. Aldaketak bertsolaritzan (ZAR-129/016)

Gaur egun bertsolaritza aldatu egin da, bai, baina Basarriren ustez beharra ere bazegoen. Lehen erabiltzen ziren gaiek bertsolaritza lokaztu egin zutela uste du; eta horregatik, errespetuzko zenbait jendek ez zituela bertsolariak entzun nahi izaten dio.

863. Bertsolaritzaren etorkizuna (ZAR-129/017)

Bertsolaritzak jarrai dezan, euskarak bizi behar duela dio Basarrik. Bertsolariek ez badute entzulerik, akabo bertsolaritza. Tamalez, euskarak gero eta oihartzun gutxiago duela gizartearen esaten du Basarrik.

864. Omenaldia Zarautzen (ZAR-129/018)

Basarriri ez zaizkio omenaldiak gustatzen, eta berari egingo ziotela aipatu ziotenean, ezezkia eman zuen. Hala ere, egoera ikusita (herrikoek egina, urteroko ohitura bihurtzeko asmoa...) derrigorrean bezala esan behar izan zuen baietz.

865. Gurmendi baserrian jaioa (ZAR-130/002)

Gurmendi baserrian jaio zen. Bertakoa aita zen, ama Askizutik etorria zen. Bi bizitzako baserri handia zen, tolarre eta guztikoa, eta sail handiak zituen. Bizilagunekin ondo konpontzen ziren eta erdibana erabiltzen zituzten hainbat tresna.

866. Beheko suarekin prestatzen zuten janaria (ZAR-130/003)

Zortzi anai-arreba ziren. Ohe bakarrean binaka lo egiten zuten. Beheko suarekin prestatzen zuten janaria eta ondo jaten zuten. Mahai bakarrean egiten zituzten otorduak denek batera.

867. Amonarekin errezatzen (ZAR-130/004)

Anai-arreba gazteenak amonak zaintzen zituen arratsaldean eta errezatzen erakusten zien oso goiz.

868. Esnea banatzen astoarekin (ZAR-130/006)

Zarautzen banatzen zuten esnea, astoa hartuta. Amak esandako erosketak ere egiten zituen bide batez eta ondoren eskolara.

869. Auzoko eskolara joaten zen (ZAR-130/007)

Auzoko eskolara joaten zen. Bizilekua ere bazuen eskolak. Hasierako urteetan Kalixto izeneko gizon batek ematen zizkien eskolak. Ondoren maistra etorri zen eta bertan bizi izan zen familiarekin.

870. Eskola erdaraz jasotzen zuten (ZAR-130/008)

Francisca Alberdi zen maistra eta Nikolas Mujika bere senarra margolaria zen. Ameriketara bolada batzuk pasatzen zituen. Eskolak erdaraz jasotzen zituzten, irakasleak euskaraz jakin arren. Arratsaldean laboreak egiten zituzten. Oroitzapen ona du.

871. Eskolan euskara debekatuta (ZAR-130/009)

Eskolan ez zieten euskaraz egiten uzten. Zigortu egiten zituzten. Errezatu ere egiten zuten.

872. Baserria erre egin zitzaion (ZAR-130/012)

Bere bi anai soldadu eramane zituzten. Handik bi hilabetera baserria erre zitzaion. Herritarrak konturatu ziren. Etxekoak kanpoan ari ziren lanean eta animaliak salbatu zituzten. Herritarrek lagundu zieten ondoren.

873. Umezain gazte garaian (ZAR-130/013)

Bi ume zaintzen zituen jostun baten eta egur-langile baten etxean. Etxea garbitu, umeen arropak garbitu, haiekin paseara irten eta horrelako lanak egiten zituen. Galtza motzekin janzten zituen umeak eta txikiena "txanpilla"rekin bildu eta fajatu.

874. Baserrian kanpoko lan asko izaten zen (ZAR-130/014)

Umezain aritu aurretik baserriko lanetan aritzen zen familiako beste kideekin. Soroan lanean, artoa zuritu eta aletu, babarruna ere bai... lan asko izaten zuten kanpoan. Artoaren zorroak koltxoi moduan erabiltzen zituzten.

875. Erramu bedeinkatua soroan (ZAR-130/015)

Apaiza amonarengana urtean bi aldiz joaten zen. Erramua bedeinkatutakoan, soroaren erdian jartzen zen pusketa bat. Ur bedeinkatua beti izaten zuten oheburuan. Lotara aurretik, behatza busti eta aitaren egiten zuten harekin.

876. Ez zuten umeak Paristik zetozenik sinesten (ZAR-130/016)

Umeak jaiotzen zirenean, Paristik zetozela esaten zieten baina hamar anai-arreba izan zirenez, igartzen zuten amari zer gertatzen zitzaion. Aldameneko andreak laguntzen zion erditzean. Medikua etorri orduko umea jaiota egoten zen askotan.

877. Erditu ostean, ama etxean egon behar (ZAR-130/017)

Umeak azkar bataiatzen zituzten. Senideak, aita-amabitxiak... eta gero merienda egiten zuten. Ama zortzi egun edo gehiago ohean egoten zen haurra izan ondoren eta geroago elizara joaten zen umearekin, lanean hasteko baimen modura edo. Ordura arte, ezin zen etxetik irten.

878. Baserria bi aldiz berreraiki zuten (ZAR-130/018)

Garia prestatzea lan handia zen. Baserria erre zitzaienean, garia ere bai. "Marquesa de Murua"rena zen baserria, beraiek errentan zeuden. Jabeak ez zuen etxea berreraikitzerik nahi baina azkenean lortu zuten. Gerra garaiko materiala txarra zenez, berreraiki egin zuten bigarrenez.

879. Anaia ezkondutakoan, bera neskame joan behar (ZAR-130/019)

Anai zaharrena etxera ezkondutakoan, gainontzekoek alde egin behar izan zuten eta Felisa neskame joan zen Zarauzko etxe batera.

880. Gerra garaian Irunera joan eta bertan geratu zen (ZAR-130/020)

Gerra garaian ahizpari laguntzera joan zen Irunera eta bertan geratu zen bizitzen. Lanean hasi eta hogeita zazpi urterekin ezkondu zen bertako gizon batekin haren etxera, Agerre baserrira.

881. Anaka auzoa nolakoa zen lehen (ZAR-130/021)

Asko aldatu da Irun ordundik. Anaka auzoan baserri batzuk eta "casas baratas" izeneko etxebizitzak zeuden. Irun erreta ikusi zuen, denbora luzez.

882. Orio eta Aiako festetan, dantzan eta erroskilak jaten (ZAR-130/023)

Igandetan dantza soltean aritzen zen gaztetan, karta-jokoan ere bai. Helduta dantzan egitea debekatua zegoen eta berak ez zuen ikasi. Oriora, Aiara, Laurgainera... festetara joaten ziren. Ilundu orduko etxera bueltatzen ziren. Erroskilak jaten zituzten.

883. Abarketekin mendi bidean, zapatekin kalean (ZAR-130/024)

Bideak lohituta zeudenean, abarketa zaharrak jantzita ibiltzen ziren. Herrira heltzerako, alberga bat zegoen eta han garbitzen zituzten hankak, zapata garbiak jazteko.

884. Kanpotik etorritako aristokraziak erabiltzen zuen autoa (ZAR-130/025)

Autorik ez zuten izan etxean sekula. Dirudunek izaten zituzten, txofer eta guzti. Gerra aurretik bazen Zarautzen kanpotik etorritako aristokrazia eta haiek erabiltzen zuten autoa. Udatiar asko izaten zen Zarautzen.

885. Ura putzuzuloetatik marmitetan eramaten zuten etxera (ZAR-130/026)

Nagusitu arte ez zuten argindarrik izan etxean. Harri batzuekin sua egiten zuten edo kandelak erabili edo petroleoarekin bestela. Ura ere berandu ekarri zuten etxeraino. Esne-marmitak betetzen zituzten urez putzuzuloetatik eta horrela konpontzen ziren. Auzoaren izena Urteta da, edozein lekutan putzuzuloak zeuden eta.

886. Lixiba etxe aurreko albergan eta errekan (ZAR-130/027)

Lixiba egiteko etxe aurrean alberga bat izaten zuten. Han "kuela" izeneko egurrezko lekuan ipintzen zuten arropa eta erramu adar batekin egosi egiten zen. Jaboiaren orde z bola batzuk izaten ziren eta hura botatzen zitzaion arropari. Errekan akklaritzen zuten gero arropa asto gainean eramanda.

887. Komuneko zuloak ikuilura ematen zuen (ZAR-130/028)

Bainatu etxean egiten ziren. Komunean zuloa zegoen, egurrezko egiturarekin, eta ikuilura joaten zen. Egunkaria edo erabiltzen zuten garbitzeko.

888. Anaiak Argia egunkaria erosteko ohitura zuen (ZAR-130/029)

Argia egunkaria erosten zuen anaia zaharrenak eta ondoren besteek ere bai. Irratia ezkondu eta gerora izan zuen lehenengoz. Tertulian aritzen ziren.

889. Anaiak bertsopaperak erosten zituen igandeetan (ZAR-130/030)

Ipuin, txiste eta kontuak erabiltzen zituzten tarteka. Fernando Amezketarrarenak askotan aipatzen zituzten. Igandetan bertsolariek bertsopaperak saltzen zituzten eta anaiak beti erosten zituen.

890. Zarauzko euskara mantendu du (ZAR-130/031)

Zarauzko hizkera mantendu du Irunen bizi arren. Gurasoek ez zekiten erdaraz bat ere. Beti euskaraz bizi izan da.

891. Santa Marina kalea lehen (ZAR-131/004)

Santa Marina kalea lehendik hona zertan aldatu den azaltzen du.

892. Janaria kontserbatzeko moduak (ZAR-131/007)

Janaria kontserbatzeko, goitegian (freskeran) gordetzen zuten. Gerora, izotza erabiltzen zuten: izotza terreina handi batean jartzen zuten eta urtu arte han uzten zuten janaria. Izotza kamioian ekartzen zuten.

893. Zarautzen egondako lantegiak (ZAR-131/012)

Zarautzen egondako fabrikak aipatzen ditu: Alfa altzariak, Arruti altzariak, Beristain altzariak, Reineta gozokiak...

894. Ez bainatzeko aholkua (ZAR-131/013)

Hondartzara noizean behin joaten ziren, baina Kontxik ez zuen igeri egiten ikasi: medikuek behin aholkatu zioten ez bainatzeko, eta ordutik ez da gehiago bainatu.

895. Bainatzera bainuzainekin (ZAR-131/015)

Lehen ere hondartzan baziren eguzki-oihalak (toldoak). Bainatzeko, bainuzainekin joaten ziren uretara, jende askok ez baitzekien igerian. Bainuzainak zarauztarrak izaten ziren eta haien janzkera nolakoa zen azaltzen du.

896. Lehengo bainujantziak (ZAR-131/016)

Lehengo bainujantziak nolakoak ziren eta non erosten zituzten aipatzen du.

897. Udatiarrek logelak alokatzen zituztenekoa (ZAR-131/019)

Lehen udatiar asko etortzen zen; zarauztar askok etxeko logelak alokatzen zituzten, eta horretarako nola-hala moldatzen ziren. Lehengo udatiarrak nondik etortzen ziren eta zer bizimodu izaten zuten aipatzen du.

898. Zarauzko hotelak lehen (ZAR-131/020)

Lehen orain baino hotel gehiago zegoen; haien izenak aipatzen ditu. Hotelen artean ere kategoriak zeuden.

899. Trapuzko panpinak eta galtzerdizko pilotak (ZAR-131/024)

Trapuarekin panpinak egiten zituzten; nola egiten zituzten erakusten du. Galtzerdiekin pilotak egiten zituzten.

900. Keller eta Alfa lantegietan ibilitakoa (ZAR-131/033)

14 urtera arte ikasi zuen mojekin eta lanean hasi zen orduan Keller fabrikan. Bere lana zein zen azaltzen du. Handik Alfa fabrikara joan zen lanera, eta altzariei kolorea ematen zien. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

901. Lanera oinez joaten zen (ZAR-131/034)

Lanera oinez joaten zen. Tailerrak aukera ematen zuen bizikleta erabiltzeko, hilean zerbait ordainduz gero. Kontxiren amak nahiago izan zuen zapata pareak erosi diru harekin.

902. Santa Marina kalean jaioa (ZAR-133/002)

Santa Marina kalean jaioa da. Lehenago oso kale polita zen. Ermita txiki bat zegoen bertan. Zarautz txikia zen lehen.

903. Futbolean aritu zen gaztetan (ZAR-133/003)

Futbolean aritzen zen gaztetan herriko taldearekin. Herriz herri ibiltzen ziren. Galtza motz beltzak eta kamiseta urdin edo zuria izaten zuten. Hondartzako futbol txapelketetan ere ibiltzen ziren.

904. Eskolara La Sallera joaten zen (ZAR-133/004)

Hiru anaia ziren etxean. Aita egurlanean aritzen zen, barniza ematen. Ama etxekoandrea zen. Eskolara La Sallera joaten zen.

905. Zarautzen euskaraz asko (ZAR-133/005)

Zarautzen euskaraz asko hitz egin izan da. Udatiarrekin erdaraz egiten zuten.

906. Udatiarrei norbere etxea alokatu (ZAR-133/006)

Udatiar asko etortzen ziren uda-garaia pasatzera. Norbere etxea alokatzen zen dirua ateratzeko eta beste familiaren baten etxera joaten ziren.

907. Elizkizun askotara joan behar eskolatik (ZAR-133/007)

Gerra aurrean euskaraz ikasten zuten. Dotrina kristaua, batuketak eta kenketak eta halakoak ikasten zituzten. Adan eta Evaren kontua kontatzen dute. Igandetan eskolatik mezetara joaten ziren. Elizkizun askotara joan behar izaten zuten.

908. Dena bekatu (ZAR-133/008)

Elizak indar handia zeukan. Bekatua zen dena eta infernua asko aipatzen zen. Konfesatzerakoan kontu txikiak izaten zituzten. Komunio handia egiteko prestakuntza izaten zuten. Lazo handi bat janzten zuten besoa.

909. Gogo-jardunak urtean behin (ZAR-133/009)

Luistarrekin ibiltzen ziren eta urtean behin gogo-jardunak izaten zituzten.

910. Gerra hasieran udaletxea erre zuten (ZAR-133/010)

Gerra hasieran udaletxea nola erre zuten gogoratzen da, irailaren 20an. Hegazkin bat hondartzan nola geratu zen gogoratzen da eta bertakoak preso hartu zituztela. Zarautzik jende asko joan zen baina herrian ez zen iskanbila handirik izan.

911. Gerra ostean, pelaioen desfileak (ZAR-133/011)

Pelaioen desfileak egiten ziren gerra bukatutakoan. Eskolan ere aritu ziren gerra garaian.

912. Tailugile aritu zen lanean altzariak egiten (ZAR-133/012)

Hamalau urterekin denak lanean hasten ziren. "Muebles Murguía" tailarrean lan egiten zuen. Prozesua eskuz egiten zen asko. Tailugilea zen bera.

913. Emazteari tailatutako kutxa opari (ZAR-133/013)

Emazteari oparitu zion kutxa txikia erakusten du. Bertan egindako marrazkien azalpenak ematen ditu. Marrazkilaritzan trebatzeko gau-eskolara joaten ziren.

914. Tailuaren prozesua nolakoa den (ZAR-133/014)

Tailuaren prozesua azaltzen du. Lehenengo paperean marraztu, gero kalkoarekin egurrera pasatu eta tailua egin.

915. Tailurako tresnen azalpena (ZAR-133/015)

Egur ona intxaurrondoaren izaten da. Laneko tresnak erakutsi eta azaltzen ditu: kalko-papera, gubiak, mazeta...

916. Tailurako tresnen azalpena ematen du (ZAR-133/016)

Tailu lanerako tresnak erakutsi eta azaltzen ditu. Metroa, zorroztarria...

917. Gitarrak egiten erretiratu arte (ZAR-133/017)

Musika instrumentuak egiten aritu zen lanean erretiroa hartu arte "Enrique Keller" lantegian. Gitarra egiten azaltzen den aldizkari zahar bat erakusten du.

918. Gitarra egiteko prozesua (ZAR-133/018)

Gitarra egiteko prozesua azaltzen du. Txapak jarri moldean, bazterrak moztu forma emateko, pala jarri eta dena montatu. Emakumeek jarduten zuten sokak ipintzen.

919. Palisandro egurra oso ona gitarra egiteko (ZAR-133/019)

Erresonantzia-kutxa ondo egiteko lan luzea egin behar da. Gitarra ona egiteko palisandro egurra erabiltzen zen, oso egur gogorra.

920. Admira markako gitarrak (ZAR-133/020)

"Admira" gitarra marka du "Enrique Keller" lantegiak eta oraindik saltzen dira. Elkarriketatzaileak erosi berri du. Elektrikoak ere egiten zituzten.

921. Emakumeak aritzen ziren gitarrei sokak ipintzen (ZAR-133/022)

Laurogeita hamar langiletik gora aritzen ziren "Enrique Keller" lantegian. Gehienak emakumeak izaten ziren. Jostailuak, eskusoinuak... egiten zituzten lehen. Berak ez du gitarra jotzen ikasi.

922. Gerrastean, gosea (ZAR-133/023)

Gerraostean gosea pasa zuten. Ogirik ez, oliorik ez eta errazionamendu-liburuxkarekin erosi behar izaten zuten.

923. 'Torito' eta 'Aitzaki' kuadrilla (ZAR-134/002)

Jesus Marik hondartzako futbol-txapelketan jokatzeko argazkia erakusten dute. Torito deitzen zioten lagun bati, eta ezizena nondik zetorkion azaltzen dute. Aitzaki kuadrillakoa zen Jesus Mari.

924. Hondartzako futbol-txapelketako janzkera (ZAR-134/004)

Hondartzako futbol-txapelketan denek uniforme berdina izateagatik, soldaduskako alkandora erabili zuten.

925. "Memorial Zaporra" (ZAR-134/006)

Zaporra bere kuadrillako laguna zen, eta haren aitak tren-geltokian egiten zuen lan; tarte bat zuen bakoitzean, baina, frontoi txikira joaten zen pilotan jokatzera. Gerora, "Memorial Zaporra" txapelketa egiten hasi ziren haren omenez.

926. 'Aitzaki' kuadrillaren bizipenak (ZAR-134/008)

Beraiena 'Aitzaki' kuadrilla zen eta ospetsuak ziren herrian. Lagunartean egiten zituzten planak eta anekdotak kontatzen ditu.

927. Bikoteka dantzatzeko pausoak (ZAR-134/011)

Dantzaldietan dantza lotua dantzatzen zuten. Mutilek neskei nola eskatzen zieten dantzatzeko azaltzen dute.

928. Aterkiari esker ezagutu zuten elkar (ZAR-134/012)

Nola ezagutu zuten elkar azaltzen dute: Pakitari aterkia hautsi zitzaion, Jesus Marik konpondu egin zion, eta handik aurrera pixkanaka tratua egiten joan ziren.

929. Distantzia Zarautzen lehen (ZAR-134/014)

Kale berean bizi baziren ere, Pakita eta Jesus Mari ez ziren betidanik ezagutzen. 9 urte zituenerako, Pakitaren familia etxez aldatu zen eta oso urruti joan zirela iruditzen zitzaion Pakitari. Garai hartan Zarautz nolakoa zen azaltzen dute.

930. Lehen abesteko ohitura handiagoa zegoen (ZAR-134/018)

Lehen gaur baino gehiago abesten zen. Orduko kanta bat abesten du Jesus Marik.

931. Laranja-azalak eta gutiziak (ZAR-134/021)

Gerra ostean gose handia pasa zuten. Laranjak azalik gabe etortzen ziren, azalak bolbora egiteko erabiltzen omen zituztelako. Errekondo dendari eta lehengo gutiziei buruz hitz egiten dute.

932. Soldadutza Irunen eta euskara ahoan (ZAR-134/024)

Jesus Marik Irunen egin zuen soldadutza; 18 hilabete egon zen han. Guadalupeko gotorlekuan egotea tokatu zitzaion. Euskaldunen artean euskaraz egiten zuten soldadutzan. Zarautzen euskaraz asko hitz egin izan da.

933. Jertseak egiten ahizpekin batera (ZAR-134/029)

5 anai-arreba ziren eta Pakita denetan txikiena. 14 urte zituela, jertseak egiten ikasi zuen Pakitak; gerora, ezkondu bitartean, 3 ahizpak aritu ziren etxean jertseak egiten.

934. Jertse motak eta materiala (ZAR-134/031)

Lehengo jertseak nolakoak ziren azaltzen du. Rebeca jertsearen izena film batetik omen dator. Jertseak egiteko hari normala erabiltzen zuten, baina batzuetan beste material klase batzuk ere bai.

935. Jertseak egiteko taldeko lana (ZAR-134/032)

Hiru ahizpen artean egiten zituzten jertseak; bakoitzak zer zeregin izaten zuen azaltzen du.

936. Maxi Orokieta maistra gogoan (ZAR-134/034)

Pakitak eskolan ikasi zuen joste-lanak egiten, doña Maxi Orokieta maistrarekin: emakume hark denetik omen zekien; takigrafia ere ikasi zuten harekin.

937. Miserikordian eta herri-eskolan ikasitakoa (ZAR-134/035)

Pakita Miserikordian ibili zen eskolaurrean, baina 7 urte zituela, herri-eskolan hasi zen: han 4 maistra zituzten; erdaraz ikasten zuten; euskal izenak zituzten neskei erdarazko izenez deitzen zieten...

938. Pazko loratua, txartelak eta konfesatzeko ilarak (ZAR-134/037)

Urtean behin Pazko loratua izaten zen eta txartela ematen zuten; jauna hartzera joatean, txartel haren bidez kontrolatzen zuten zenbat jende joaten zen mezara. Aste Santuan Oriotik jende asko etortzen zen Zarautza konfesatzera. Orduko anekdotak kontatzen dituzte.

939. Konfesatzeko modu desberdinak (ZAR-134/038)

Mutilak eta neskak ez ziren berdin konfesatzen: apaizak mutilei burutik heltzen zien batzuetan, goxotasunez; emakumeak, ordea, burdin-sareen beste aldean egoten ziren.

940. Haurrak izateko prestaketak (ZAR-134/040)

Pakita haurdun egon zenean, gutxitan joan zen Donostiara bere egoera begiratzera, Zarauzko familia-medikuarengana bakarrik baizik. Bi alabak etxean izan zituzten. Jesus Mari laguntzen egon zen haurra jaiotzean. Ohea prestatu egiten zuten minak hobeto aguantatzeko.

941. Arropak garbitu eta lehortzeko lanak (ZAR-134/045)

Lehen garbigailurik ez zegoen eta arropa lehortzeko ere lanak izaten zituzten: sukaldean soka batean jartzen zuten arropa zintzilik, ekonomikako suaren berotasunarekin lehenago lehortzen baitzen. Oraingo arrokek usain gehiago hartzen dute lehengo arrokek baino.

942. Mezara joateko janzkera (ZAR-134/046)

Lehen igandetan gizonak trajea eta gorbata janzten zuten. Mezara joateko, besoak eta hankak estali egin behar ziren; emakumeek buruko zapia eramaten zuten eta gizonak txapela kentzen zuten.

943. Lutoa zenean, beltzez joan behar (ZAR-134/047)

Mezara joateko, buruko zapia era batekoa edo bestekoa zen lutoaren arabera. Lehen lutoa errespetatzen zen, beltzez joan behar izaten zen. Arropa tindatu egiten zuten beltzez, besterik ez bazen.

944. Barruko arropa lehen (ZAR-134/048)

Lehen barruko arropa jostunak egiten zuen. Barruko arropa nolakoa izaten zen azaltzen dute.

945. Zoriontasunaren sekretua (ZAR-134/051)

60 urte eman izan dituzte elkarrekin. Elkarri errespetatzea, bestearen nahia egitea, elkarrekin hitz egitea... horiek izan dira, besteak beste, beren harreman onaren giltzak.

946. Ikasketa onak emateko dirua nondik atera? (ZAR-135/004)

Eskolan ibili zen bitartean, gustura ibili zen. Anaia ona zen eskolan eta hura ingeniari izateko proposatu zioten aitari; etxean, ordea, ez zegoen dirurik halako ikasketak emateko, gerora beste senide guztiak baitzetozen.

947. Telebista ikusitako lehenengo gauzak (ZAR-135/007)

Telebista ekarri zutenean ikusten zituzten lehenengo gauzak gogoan ditu. Gauean emisioa eten egiten zen. Telebista ikusteko etxeko denak elkartzen ziren.

948. Etxeko giro ona (ZAR-135/010)

Ama oso ona zen, autentika. Etxean oso giro ona zeukaten.

949. Tipula esnetan egosita (ZAR-135/012)

Ez zuten sendabelarrak erabiltzeko ohiturarik etxean. Behin eztul handia zuen Rosariok, eta amak tipula esnetan egosita eman zion; gerora ez zuten berriro erabili sendabide hura, baina.

950. Erlakiztenen aurkako sendagaia (ZAR-135/013)

Erlakiztenak izanez gero, amak bazuen haren aurkako sendagaia. Erlakiztenak zer ziren azaltzen du. Antrak ere izaten ziren gerra ostean.

951. Sarna eta zorriak (ZAR-135/014)

Lehen sarna asko egon zen. Rosarioren ahizpak zorriak izan zituen eta orrazi estuarekin orraztu behar izaten zuen ilea, zorriak eror zitezen. Zorrietatik babesteko olioak jartzen zuten ilean.

952. Umetako bainuak etxean (ZAR-135/016)

Ura bazeukaten etxean, eta gerora aita bainu txiki bat jarri zuen. Oso gustuko zuen hura Rosariok. Txikiak zirenean, astean behin garbitzen ziren sukaldean baldea jarrita.

953. Anaiarekiko maitasunagatik gaixotu (ZAR-135/018)

Rosarioren lehengusu bat tuberkulosiak jota hil zen, anaiak gerratik ekarritako alpargatak janzteagatik kutsatuta.

954. Gerran, Zarautz hartu zuten eguna (ZAR-135/020)

Gerra Zarautza iritsi zenean, udaletxea erre zuten eta Rosario hura ikustera joan zen. Gerraren nondik norakoen berri nola izaten zuten aipatzen du. Gerran nazionalek Zarautz hartu zuten eguna, gerora, jaiegun izan zen urte askoan.

955. Gerran, Zarautzen egondako fusilamenduak (ZAR-135/021)

Zarautzen, gerran, gizon ugari fusilatu zituzten. Gerora, Zarautzen elkarbizitza bere onera etorri zenean, fusilatu zutenetako baten alabak aita hil zuen gizonarekin elkarriketa laburra baina gogorra izan zuen.

956. Zarautzarren arteko giro ona (ZAR-135/022)

Zarautzen jendea oso ondo konpondu izan da elkarren artean, joera politikoei eragindako aldeak albo batera utzita.

957. Azken Portuko garbitegia (ZAR-135/025)

Azken Portuko garbitegiko argazkia erakusten du. Garbitegian zer egiten zuten azaltzen du.

958. "El puente de Waterlootik" aurrera (ZAR-135/028)

Narros jauregi ondoko zubiari "el puente de Waterloo" deitzen zioten lehen. Neskak handik aurrera joatea oso gaizki ikusia zegoen lehen, baina beraiei horrek ez zien ardurarik; liberalak izan dira.

959. Zarautzen euskarak izandako galerak eta irabaziak (ZAR-135/029)

Lehen nesken artean dena erdaraz egiten zuten, eskolan dena erdaraz egiten baitzuten; horregatik euskara asko galdu zen Zarauzko nesken artean. Mutilek, ordea, eskolan euskaraz egiten zutenez, ez zuten galdu. Neska-mutilen artean erdaraz egiten zuten. Umetan erdaraz egin eta euskararekiko kontzientzia sartu zitzairen mutil batzuei buruz hitz egiten du.

960. Batzokiko kultura-jarduerak (ZAR-135/031)

Gerra aurretik batzokian euskal dantzak egiten ziren. Orduko andereñoa nor zuten azaltzen du. Emanaldiak egitera kanpora joaten ziren. Batzokian antzerkiak izaten ziren, euskaraz.

961. Gerran alde egindakoen zoria (ZAR-135/032)

Gerra iritsi zenean, batzokiko jarduerak bertan behera gelditu ziren. Gerora hasi zen berriro martxan. Jende askok Zarauztik alde egin zuen gerra garaian: batzuek Venezuelara, besteek Belgikara... Haietako batzuei buruz hitz egiten du.

**962. "Zenbat txorakeria egin genuen guk orduan..."
(ZAR-135/034)**

Gaztetan mutilekin dantza lotua egiten zuten, ez zegoen debekatuta. Mariaren Alabak kongregaziotik bidaliko zituztela mehatxatzen zituzten orduan, baina gerora, debekatzen aritu ziren haiek damutu egin ziren egindakoaz.

963. Ama liberala izan zuen (ZAR-135/035)

Ama oso liberala zuten. Dantza lotua egiteagatik bikarioak mezan atentzioa ematen zuen; baina amak jarrera irekia izaten zuen horrekiko. Lehen bizikleta hartuta joaten ziren inguruko festetara.

**964. Azken pieza jo aurretik alde egiten zutenekoa
(ZAR-135/037)**

Dantzan musika nork jotzen zuen aipatzen du. Bandak hiru tandatan jotzen zuen musika; gerra ostean, "Viva España" abestu behar izaten zuten azken pieza jotakoan; pieza bukatu baino lehen, ordea, gehienek alde egiten zuten plazatik.

965. Dantzaldietako giroa (ZAR-135/038)

Plazan ikasi zuten dantzan. Mutilek neskei dantzatzeko nola eskatzen zieten aipatzen du. Garai batean, soldaduak ibili ziren Zarautzen eta haiek ere dantzara joaten ziren, uniformeak jantzita zeukatela. Neska-laguntzak ere izaten ziren orduan.

966. Neskak moilan bainatzea debekatuta (ZAR-135/040)

Hondartzara joateko ohitura bazeukaten; neskek ezin zuten bainatu moilan (igerian ikasteko erabiltzen zen lekuan) eta horregatik Rosariok ez zuen ikasi ondo igerian.

967. Adoracion izena nondik datorkion (ZAR-137/003)

Errege egunean jaio zelako jarri zioten Adoracion de los Reyes izena. Lehen jaioteguneko santuaren izena edo aitajaun-amandreak aukeratutakoa jartzen zen.

968. Zarautzik egiten zituzten txangoak (ZAR-137/006)

Lehen Zarautz oso txikia zen oraingo aldean. Lehen San Pelaio urruti geratzen zen, eta Argiñano ingurura joaten ziren txangoan. Zarautzen muina lehen nolakoa zen azaltzen du.

969. Udako giroa Zarauzko jauregietan (ZAR-137/008)

Zarauzko jauregietan zer giro izaten zen azaltzen du: udan etortzen ziren gehienbat haien jabeak eta langile asko izaten zituzten beraien zerbitzura; haurrak hazteko eta zaintzeko, ordea, hemengo emakumeak hartzen zituzten askotan.

970. Gelak "con derecho a cocina" (ZAR-137/010)

Udan gelak alokatzen zituzten "con derecho a cocina". Udatiarrak nondik etortzen ziren aipatzen du.

971. Marrazketako tranpak (ZAR-137/013)

Marrazketan ematen zizkieten zereginetan, tranpa egiten zuen Adoracionek.

972. Gerrako trantze latzak (ZAR-137/016)

Gerra Zarautzen ez zen asko nabaritu, soldaduak pasa bakarrik egin baitziren; Gernikan izan zen txikizio ikaragarria. Jendea beldurtu egin zen eta ihes egin zuen. Zarautzen preso zeuden karlista batzuk Bilbora eraman zituzten; haiek zaintzen egon zen aguazila Adoracionen osaba zen, eta beraiekin joan zen beldurratik Bilbora; gerora harrapatu egin zituzten eta heriotza-zigorra izan zuten urte askoan. Adoracionen aitak azkenean lortu zuen nola-hala anaiari heriotza-zigorra kentzea; baina, hala ere, kartzelan jarraitu behar izan zuen hark.

973. Zarautzen gerrak izandako eragina (ZAR-137/018)

Gerran Zarauzko udaletxea erre egin zuten, bonba bat jarrita. Egun hartan, aita txipiroi bila joana zen, eta haiei txalupara tiroka aritu ziren soldaduak.

974. Gerraostean goseari aurre egin behar (ZAR-137/022)

Gerraostean, gosea etorri zen, II. Mundu Gerran Espainia blokeatuta egon zelako. Baserritarrek garia entregatu egin behar izaten zuten. Kokozko olioak ematen zuten errazionamenduan, baina zapore txarra izaten zuen; oliorik ez zenean, ordea, ganaduaren seboa erabiltzen saiatzen ziren.

975. Falangisten desfileetako fusilak (ZAR-137/025)

Gerra bukatu ostean, hainbat tailerretan egin zuen lan Adoracionek. Haietako batean, pelaio eta margariten desfileetako fusilak egiten zituzten. Desfile haietako kantak abesten ditu Adoracionek.

976. Euskal jaiak lehen (ZAR-137/030)

Euskal jaiak San Pelaion ospatzen ziren. Hura herritik urruti zegoela iruditzen zitzairen. Orduko giroa nolakoa zen azaltzen du.

977. San Antonioren kanta (ZAR-137/034)

San Antonioren kanta abesten du.

978. Aitagurea (ZAR-137/037)

Aitagurea errezatzen du.

979. Sakaponetan jolasean (ZAR-138/001)

Sakaponetan nola jolasten zen erakusten du, tortoloxak eta pilota eskutan hartuta. Pausoz pauso erakusten du.

980. Hondartzara sarri joaten ziren (ZAR-138/002)

Palatan jolasten zuten hondartzan. Lehen lorategia zegoen hondartzaren ondoan, baita Miramar hotela ere. Eskolatik irtendakoan joaten ziren hondartzara, arroketan kiskilak harrapatzera, lapak jasotzera... Lehen asko omen zeuden.

981. Baineruak aberatsekin (ZAR-138/003)

Igerian itsasoan ikasi zuten. Aberatsak "baiñeroekin" joaten ziren, zaintzaileekin. Galtza lodiak eta xirazko jantzia eramaten zuten "baiñeroek".

982. Egunpasa Munoazpira (ZAR-138/005)

Garai hartako bainujantziak luzeak izaten ziren, gorputza tapatuta izaten zuten. Kremarik eta ez zuten erabiltzen. Egunpasa joaten ziren Munoazpira.

983. Tisia orduko gaixotasunik txarrena (ZAR-138/007)

Medikuak etxera etortzen ziren, ez zegoen inora joan beharrik gaixotutakoan. Tisia izaten zen gaixotasun txarrena.

984. Orduko gaixotasunak (ZAR-138/008)

"Haztanaparria" gaixotasuna bazen lehen. Ez zen kutsakorra baina markak geratzen ziren gero. Bere ahizpa gazteena pneumoniagatik hil zen.

985. Ahizpa pneumonia harrapatuta hil zen (ZAR-138/010)

Elgorria oso ohikoa izaten zen. Anaiak eta berak pasatu zuten. Ahizpa gazteak ere elgorria zuelakoan, medikuak ez zuen ongi diagnostikatu eta pneumoniagatik hil zen hiru egunen buruan.

986. Hildakoaren gorpua bizkarrean hilerriraino (ZAR-138/012)

Lehen gorpua etxean egoten zen eta bizkarrean eramaten zen hilerriraino. Jatekoa ematen zitzaien etortzen zirenei. Hilerrria non dagoen azaltzen du.

987. Dolua senideak hiltzen zirenean (ZAR-138/013)

Hileta elizkizunetan aldea igartzen zen. Dolua sarri izaten zuten, senideren bat hiltzen zen bakoitzeko.

988. Mantelina elizarako (ZAR-138/014)

Elizarako mantelina eramaten zuten beti. Berak ez zuen ezagutu baina kapa ere eramaten zuten aurretik.

989. Ezkondu arte sexurik ez (ZAR-138/016)

Norbere gorputzaz eta haurdunaldiaz ez zuten ezer askorik jakiten. Ezkondutakoan hasten ziren sexu-harremanak.

990. Tokatutako senarrarekin betiko (ZAR-138/018)

Lehen tokatutako senarrarekin jarraitzen zuten. Ez ziren hainbeste banatzen.

991. Haurdunaldian medikuarengana oso gutxi (ZAR-138/019)

Haurdun geratutakoan, medikuarenera zerbait berezia igarritakoan joaten ziren. Lehenbiziko hilabeteetan botaka eta aritzen zen.

**992. Erditzea medikuarekin edo emaginarekin
(ZAR-138/020)**

Erditzerako medikua edo emagina etortzen zen. Maria Etxe Txiki zen emagina orduan.

993. Lehenengo umea ospitalean jaio zen (ZAR-138/021)

Lehenengo umea Donostian izan zuen ospitalean. Ebakuntza egin zioten.

994. Bularra ematea gozagarri (ZAR-138/022)

Bigarren umea etxean jaio zen. Bularra jaio orduko ematen zien umeei. Bularra ematea gustoko izan du, harreman goxoa sortzen zelako.

995. Bataioa, ama oneratutakoan (ZAR-138/024)

Bataioa emakumea oneratzen zenean egiten zuten. Lehen mezak oso sarri izaten ziren.

**996. Eguraldia baserritarrek ezagutzen zuten ondoen
(ZAR-138/025)**

Eguraldia baserritarrek gehiago jakitzen zuten. Ekaitza noiz datorren nabaritzen zuten baina askoz gehiago ez.

**997. Baserritarrak azokan ezagutzen zituzten
(ZAR-138/026)**

Baserritarrek eta kaletarrek plazan, azokan ezagutzen zuten elkar. Gizon baserritarrak azokatan asko ibiltzen ziren tratuan. Emakume baserritarrak plazara saltzera edo esnea banatzera jeisten ziren. Oinetakoak aldatu egiten zituzten herrira orduko.

998. Baserritarrak esnea banatzera exera (ZAR-138/028)

Astoarekin etortzen ziren baserritarrak esnea banatzera. Astean behin ordaintzen zuten.

999. Etxea suarekin berotzen zuten (ZAR-138/029)

Etxea hiru solairukoa zuen, pasillo luzea eta hiru logela zituen. Suarekin berotzen zuten etxea, baita ura ere.

1.000. Txapa garbitzeko "sidol" (ZAR-138/030)

Txapa eta brontzezko gauzak garbitzeko "Sidoi" izeneko produktua erabiltzen zuten.

1.001. Lotarako adreilua edo ur beroa (ZAR-138/031)

Lotarako adreilu beroa edo botila batean ur beroa ipintzen zuten.

1.002. Kondearen jauregia (ZAR-139/003)

Zarautzen jaio zen, Iñurritzan. Konde baten etxea zaintzen zuen bere familiak. Jauregi hura eta haren inguruak nolakoak ziren deskribatzen du. Bere familiak jauregian zer eginkizun izaten zituen azaltzen du.

1.003. Kondearen jauregiko loreak eta usoak (ZAR-139/004)

Aita kondearen jauregiko lorezaina zen, eta bastidoreak zeuzkan loreak landatzeko. Jauregiaren inguruko zelaiak nolakoak ziren azaltzen du. Usategia zuten zelaian, eta usoak herri guztian bueltaka ibili ostean, hara itzultzen ziren.

1.004. Aristokraziak Zarautzen egiten zuen bizimodua (ZAR-139/005)

Santa Colomako kondeen jauregian egiten zuen lan Manoliren familiak, jauregia zaintzen. Lehen Zarautzen aristokrazia etortzen zen, eta jauregi asko zeuden; jauregi batzuen izenak aipatzen ditu. Aristokraziak festak egiten zituen Zarautzen "Golf"ean. Egunero jokatzeko zuen golfean aristokraziak eta herriko mutil gazteek laguntzen zien hartarako tresnak eramaten diru truk.

1.005. Aristokrazia eta zarauztarrak (ZAR-139/007)

Zarauzko jendea eta aristokrazia ondo konpontzen ziren. Aristokraziak, baina, soldata baxuak ordaintzen zituen. Ama soroan hasi zen lanean diru pixka bat ateratzeko.

1.006. Eskolako berogailua (ZAR-139/010)

Lehen neguan elur handiak egiten zituen. Eskolan berogailua zeukaten, eta txoriek habia egiten zuten berogailuaren hodian. Berogailuak nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

1.007. Eskolan joste-lan praktikoak (ZAR-139/011)

Eskolan zer ikasten zuten azaltzen du. Maistra bakarra zeukaten denentzat, eta hura nola-hala moldatzen zen ume guztiak gobernatzeko. Joste-lanetan aritzen ziren eskolan eta beraientzako arropa egiten zuten orduan. Sareak josten eta orraziak gordetzeko nezeserrak egiten ikasi zuten orduan.

1.008. Lehengo janzkera (ZAR-139/012)

Orduko janzkerari buruz hitz egiten du: lehen emakumeek ez zuten galtzarrik janzten, gonak baizik. Berokiak, bufandak, eskularruak... janzten zituzten neguan.

1.009. Eskola garaiko jolasak (ZAR-139/014)

Eskolatik irtetean, zer jolasetan aritzen ziren aipatzen du. Sokasaltoko jolasak gogoan ditu.

1.010. Dotrina ikasteko tranpak (ZAR-139/015)

Dotrinara joaten ziren eta komunio mota bakoitzerako zenbat ikasi behar zuten gogoan du. Batzuetan, tranpak egiten zituzten dena ikasi behar ez izateko. Etxean garrantzi handia ematen zitzaion dotrinari.

1.011. 10 urterekin ume-zaintzaile (ZAR-139/018)

10 urterekin bukatu zuen eskola eta umeak zaintzen hasi zen. Soldata amari ematen zion. Horrela ikasi zuen sukaldean ibiltzen. Umea nola zaintzen zuen azaltzen du.

1.012. Gau-eskolara joateko erabakia (ZAR-139/019)

Umeak zaintzen zebilela, gau-eskolara joatea erabaki zuen. Santa Marina kalean zegoen eskola hura eta gogoan ditu bertako irakasleak. Hara joateagatik 3 duro ordaindu behar izaten zuten hilean.

1.013. Soldata nola banatzen zuen (ZAR-139/020)

25 pezetako soldata zuen neskame zegoela, eta gau-eskolak 15 pezeta balio zuen.

1.014. San Pelaiotarako soineko berria (ZAR-139/021)

Neskame zebilela, urtean soineko bat egiten zioten nagusiek. Manoli poz-pezik egoten zen soineko berriarekin. San Pelaioko jaietarako egiten zuen soinekoa, egun oso berezia baitzen hura.

1.015. San Pelaiotako bazkaria (ZAR-139/022)

San Pelaiotan zer bazkaltzen zuten azaltzen du.

1.016. Fonografoaren doinuan dantzan (ZAR-139/023)

San Pelaio festak zirenean, arratsaldean fonografoa jartzen zuten martxan etxea goitik behera garbitu bitartean. Hala ikasi zuten dantzatzeko habanerak, tangoak, valsak...

1.017. Aitaren babesa dantza lotua egiteko (ZAR-139/025)

Lehen dantza lotua egiten zuten: Zarauzko plazan debekatuta zegoen, baina Kulixkan ez. Mariaren Alabak kongregaziokoak zirenez, dantza lotua egiten zutenak kongregaziotik kanporatzen zituzten; Manoliren aita, ordea, dantzazalea zen eta dantza lotuan lasai ibiltzeko esaten zien alabei. Manoli kongregaziotik bidali zuten, baina dantzan jarraitu zuen.

1.018. Kongregaziotik kanpo babesa eta beldurra (ZAR-139/027)

Mariaren Alabak kongregazioan zeudela, zer egiten zuten azaltzen du. Kongregaziotik bidali zutenean, lasai samar hartu zuen, aita babesa eman baitzion. Orduan elizan beldur handiak sartzen zituzten.

1.019. Mutilak ezagutzeko bideak (ZAR-139/029)

Mutilak nola ezagutzen zituzten azaltzen du: dantzan, paseatzean...

1.020. Mutilen eta nesken arteko errespetua (ZAR-140/002)

Mutilek neskei eskatzen zieten dantzatzeko. Mutil batzuek errespetua bazuten, baina besteek ez. Behin Manolik masailekoa eman zion mutil bati, pasatzen ari baitzen. Zarautzen nongo jendea ibiltzen zen azaltzen.

1.021. Senarra ezagutu zuenekoa (ZAR-140/005)

Senarra nola ezagutu zuen kontatzen du: egun batzuetan gelditu ziren, eta azkenean bikote izatea erabaki zuten. 3 urtez egon ziren ateratzen ezkondu aurretik.

1.022. San Antonio Urkiolakoari egindako promesa (ZAR-140/006)

Senarra gizon zintzoa zen. Gaztetan gerran ibilia zen, asko sufritu zuen orduan. Garai hartan promesa egin zion San Antoniori, onik ateratzen bazen urtero joango zela Urkiolara. Horregatik, nobio garaian urtero joaten ziren Urkiolara. Haraino iristeko bidea nola egiten zuten eta han zer giro egoten zen azaltzen du.

1.023. Ezkontzako eguna (ZAR-140/007)

Ezkondutik 3 urte eman zituzten nobiotan senarrak eta berak. Ezkontzako eguna gogoan du: don Luis Pagolak ezkontu zituen, Miramar hotelean eman zuten bazkaria, arratsaldean dantza egin zuten, eta handik Madril aldera joan ziren eztei-bidaian.

1.024. Eztei-bidaia plana (ZAR-140/008)

Eztei-bidaian Madrilen izan ziren: gurasoek emandako diruarekin moldatu ziren eta han egiten zituzten planak kontatzen ditu.

1.025. Ehungintzatik okindegira (ZAR-140/011)

Etiket kanpo lan egitea erabaki zuen Manolik, eta ehungintzan hasi zen. Han zer zeregin izaten zituen azaltzen du. 8 hilabetez egon zen han, baina gerora okindegian lan asko sartu zenez, fabrika utzi behar izan zuen.

1.026. Ezkontzako gauean hartutako sorpresa (ZAR-140/017)

Lehen ezkontu arte bikoteek ez zuten guztiz ezagutzen elkar. Behin Zarautzen bikote bati gertatutakoa kontatzen du. Lehen dena isilpean eramaten zen.

1.027. Emakumeek etxetik kanpo lan egitea desohorea zenekoa (ZAR-140/022)

Lehen gaizki ikusia zegoen ezkontu ostean emakumeek lan egitea, desohorea zen eta kritikatu egiten zituzten; hala ere, Manolik ez zion lan egiteari utzi.

1.028. Haurdunaldiak eta jaiotzak (ZAR-140/024)

Manolik 3 seme-alaba izan zituen, hirurak etxean. Lehenengo aldian, emaginak lagundu zion haurrak izaten; baina emagin hark titulurik ez zeukanez, ezin izan zuen gerora jardun hartan jarraitu. Haurdun zegoela, medikuarengana joaten zen haurdunaldia zaintzera. Don Ramiro Goñi medikuari buruz hitz egiten du.

1.029. Siesta lurrean egiteko ohitura (ZAR-140/027)

Ibiltzea oso ona dela dio Manolik. Mugimenduak on egiten du. Lurrean egin izan du siesta Manolik beti, horrela bizkarrean arazorik ez izateko.

1.030. Fraideen gau-eskolak (ZAR-142/002)

Fraideekin ikasi zuen eskolan. Fraideek gau-eskolak jarri zituzten lanbideak erakusteko.

1.031. Kultura musikal handia Zarautzen (ZAR-142/003)

Zarautzen kultura musikal handia egon izan da. Musika-bandak prestigio handia zuen. Don Fernando apaizak lan handia egin zuen musika erakusten, gerora koruan sartzen ziren ume haiek. Lehen taberna giroan gehiago abesten zen.

1.032. Mezara nahitaez joan behar (ZAR-142/005)

Lehen derrigortu egiten zituzten meza nagusira joaten; kontrolatu egiten zuten, gainera, nor joaten zen. Meza ostean "Viva España" abestu behar izaten zuten.

1.033. Euskaraz hitz egitea makurkeria zenekoa (ZAR-142/006)

Eskolan erdaraz hitz egin behar izaten zuten. Mutilek beraien artean euskaraz egiten zuten, baina neskek dena erdaraz. Lehen makurkeria zen euskaraz hitz egitea. Euskaraz hitz egiten zutenei burla egiten zitzaien; batzuek hain gaizki pasa zuten, ez baitzieten seme-alabei euskara erakutsi.

1.034. Euskararekiko jarrera herrian (ZAR-142/008)

Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten eta euskaraz egiten bazuten zigorra jartzen zieten: bale gorriaren zigorra azaltzen du. Mutilek, hala ere, euskarari eutsi zioten Zarautzen. Etxeko giroak zeresan handia zeukan euskararekiko jarreran. Emakumeek Zarautzen ez zuten euskaraz egiten normalean.

1.035. Umetan perretxikoak biltzen (ZAR-142/011)

Lehen lantegietarako egurra inguruko basoetatik eta Nafarroatik ekartzen zuten. Lehen Zarautzik Pagoetaraino basoa zegoen eta Josu eta bere senideak perretxiko bila joaten ziren hara aitarekin. Aitonak erakutsi zion Josuri perretxikoak biltzen.

1.036. Perretxikoak non diren jakin egin behar (ZAR-142/012)

Hainbat lekutara joan izan da perretxiko bila aitonarekin. Behin Lekunberrira lan-kontuengatik joan eta trukean perretxikoak biltzera eraman zituztenekoa kontatzen du. Perretxikoak non diren jakin egin behar da.

1.037. Perretxiko motak (ZAR-142/013)

Perretxikoak zuhaitz azpian egoten dira; nola bilatzen diren azaltzen du. Perretxiko motak aipatzen ditu: onak jaso arren, txartu egin daitezke denborarekin.

1.038. Perretxikoak biltzeko jakin beharrekoak (ZAR-142/015)

Txiki-txikitatik ikasi zuen Josuk perretxikoak biltzen, aitonak erakutsi zion. Perretxiko bila joateko garai onena noiz izaten den azaltzen du.

1.039. Perretxikoak biltzen eta zaintzen (ZAR-142/016)

Perretxikoak biltzeko, moztu egin behar dira, ez dira errotik atera behar, bestela ez dira berriro jaiotzen. Ganaduaren hondakinak oso kaltegarriak dira perretxikoentzat.

1.040. Txipiroiak biltzera denak (ZAR-142/018)

Lehen moila txalupaz beteta egoten zen, eta lana bukatu ostean denak txipiroi bila joaten ziren egunero. Handik ateratako irabaziak handiagoak ziren tailerrean lortutakoak baino. Lehen txipiroi asko harrapatzen ziren.

1.041. Kostako belarrak erretzearen ondorioak (ZAR-142/019)

Lehen arrain asko zegoen kostan; baina lixibaren ondorioz, uretako belarrak erre egin dira eta orain arrainek ez dute non ezkutatu eta non jan. Lehen harraldean harrapatzen zituzten olagarroak; orduan erabiltzen zuten teknika azaltzen du.

1.042. Zarauzko ibaia garai batean garbia zen (ZAR-142/020)

Umetan Zarauzko ibaian karramarro bila aritzen ziren; baina gerora ibaia erabat zikindu zen eta arrainak desagertu egin ziren handik. Zarauzko ibaiaren izenari buruz hitz egiten du.

1.043. Lehengo arrainak eta arrantzarako teknikak (ZAR-142/021)

Lehen hainbat arrain klase zeuden Zarautz inguruko kostan eta haien izenak aipatzen ditu. Arrantzarako teknikak azaltzen ditu.

1.044. Txangurrua harrapatzeko teknikak (ZAR-142/022)

Txangurrua harrapatzen zuten lehen Zarautz inguruan eta hartarako zer teknika erabiltzen zuten azaltzen du.

1.045. Sardexkak eta urpeko arrantza (ZAR-142/023)

Arrainak harrapatzeko sardexkak erabiltzen zituzten askotan; gerora, urpeko arrantza etorri zen, baina denborarekin arrainek ikasi dute arriskua non dagoen.

1.046. Urbian lotan (ZAR-142/024)

Mendian eta arrantzan asko ibilitakoa da Josu. Behin Urbiara joan eta hotz izugarria egin zienekoa kontatzen du.

1.047. Urbian hanka hautsi zueneko komeriak (ZAR-142/025)

Behin Urbiara txangoan joan zirenean, hanka hautsi zuen Josuk. Handik etxerainoko bidea odisea izan zen eta orduko nondik norakoak kontatzen ditu. Azkenean, ospitalera eraman zuten eta hain zegoen nekatuta, lo hartu baitzuen bertan.

1.048. Hankan eskaiola eduki arren, ezin geldi egon (ZAR-142/026)

Hanka hautsi zuen batean, eskaiola jarri zioten, baina perretxiko bila joaten zenez hala ere, eskaiola hondatu egin zitzaion. Azkenean, denbora baino lehenago kendu zioten eskaiola eta urtebete eman zuen hankak berriro indarra hartu arte.

1.049. Gose garaiko ohiturak barru-barruan (ZAR-142/029)

Gerra ostean gosea pasa zuten eta oraindik orduko sentsazioa geratu omen zaie, dena jateko.

1.050. Ostegun arratsaldetako plana: janaria lapurtzea (ZAR-142/032)

Ostegun arratsaldetan jai izaten zuten eskolan eta beti izaten zuten plan bera: janaria lapurtzera joatea. Behin sagar-lapurretan Toritorekin joan zireneko anekdota gogoan du.

1.051. Moila gaineko mahastiak (ZAR-142/034)

Zarauzko moila gainean, mahastia zegoen eta beraiek hango mahatsa lapurtzen zuten.

1.052. Euskara mutilek bakarrik Zarautzen (ZAR-144/003)

Zarautzen lehen neskek kalean ez zuten euskaraz egiten, eta mutilek, ordea, bai. Getarian hobeto gorde zuten euskara, bai neskek eta bai mutilek. Beraiek "Irrintzi" taldean ibiltzen ziren, eta bazuten euskararekiko kontzientzia.

1.053. 'Irrintzi' taldean dantzan eta antzerkian (ZAR-144/004)

Irrintzi taldeari buruz hitz egiten du: hasieran dantza egiten zuten, eta gerora antzerkia. Mutilzaharra antzerkia Gipuzkoa osoan antzeztu zuten; Joxe Alberdi zuten maisu hasieran, eta gerora beraien artean moldatu ziren. Antzezlanak euskaraz izaten ziren eta komeriak izaten zituzten horregatik.

1.054. 'Irrintzi' taldearen emanaldiak (ZAR-144/005)

Emanaldiak non izaten ziren aipatzen du. Jendea joaten zen haiek ikustera. Donostian bazen beste antzerki-talde bat. Irrintzi taldeko kideek, antzezteaz gain, argi-lana eta gainerako lanak ere egin behar izaten zituzten.

1.055. "Irrintzi" taldearen hasiera (ZAR-144/006)

1955 inguruan hasi ziren "Irrintzi" taldearekin. Lagun artean sortu zuten taldea. Futbola eta mendiko irteerak izaten ziren orduko gazteen aisialdia. Hondartzako futbol-txapelketa hasi zenekoa gogoan du.

1.056. Zarauzko jauregiak lehen (ZAR-144/008)

Lehen Zarautz nolakoa zen deskribatzen du: orduko jauregiak, haien jabeak...

1.057. Aristokraziaren inguruko langileak (ZAR-144/009)

Aristokraziarenak ziren Zarauzko lehengo jauregiak. Langile ugari izaten zituzten beraien zerbitzura, besteak beste, ume-zaintzaileak. Aristokrazia mezan zegoen bitartean, Zarauzko mutil koskorak haien kotxeak zaintzen egoten ziren xox batzuen truke. Orduko autoak nolakoak ziren deskribatzen du.

1.058. Udatiarrei maletak etxera eramaten (ZAR-144/010)

Lehen udatiarrak trenetaz etortzen ziren Zarautza; herriko mutil gazteek maletak eramaten zizkieten etxera, xox batzuen truke. Behin izandako anekdota kontatzen du.

1.059. Udatiarrak etxeakoak baino hobeto zaintzen (ZAR-144/011)

Lehen zarauztarrek etxea alokatzen zieten udatiarrei, eta nola-hala moldatzen ziren beraiek uda pasatzeko. Udatiarrak batzuetan hobeto zaintzen zituzten norbere familia baino. Udatiarrak nondik etortzen ziren aipatzen du.

1.060. Udako uso-tiroak Zarautzen (ZAR-144/012)

Udan Zarautzen zer giro izaten zen aipatzen du: biztanleria bikoiztu egiten zen, ekintza ugari egoten zen... Aristokrazia uso-tiroan aritzen zenean, handik ihes egindako usoen bila joaten ziren mutil koskorak. Uso-tiroa nola izaten zen azaltzen du.

1.061. Su artifizialak eta pilota-partiduak Zarautzen (ZAR-144/013)

Zarautzen festetan su artifizialak eta pilota-partiduak izaten ziren. Pilota garrantzitsua zen; orduko pilotariak aipatzen ditu.

1.062. Arraunerako zaletasuna umetatik (ZAR-144/014)

Joxeri arrauna gustatu izan zaio kirol guztien gainetik. Arraunean ibili izan da umetatik, hasieran arrantzan eta gerora kirol gisa. Gogoan du bere lehenengo estropada: Aizarnazabalen jokatu zuten San Migel festetan.

1.063. Baliza-jartzaileen menuaren anekdota (ZAR-144/015)

Lehen txipiroi asko harrapatzen zen. Zarauzko estropadarik garrantzitsuenak trainerillak izaten ziren; baliza-jartzaileei bazkaria ematen zieten, eta haietako batean txipiroiekin izandako anekdota kontatzen du.

1.064. Txipiroiekin tailerrarekin baino diru gehiago lortzen zuten (ZAR-144/016)

Lehen txipiroi asko harrapatzen zen Zarautzen; diru gehiago lortzen zen txipiroietatik, tailerreko lanetik baino. Horrela lortutako diruarekin zer erosten zuten aipatzen du.

1.065. Estropadako balizak jartzen (ZAR-144/017)

Estropadatarako balizak nola jartzen ziren eta hartarako zer zailtasun izaten zituzten azaltzen du.

1.066. Arrauneko entrenamenduak eta patroiairen gaitasunak (ZAR-144/020)

Lehenengo entrenamenduak nolakoak izaten ziren eta patroia izateko zer gaitasun izan behar diren aipatzen du.

1.067. Arraunlari onen ezaugarriak (ZAR-144/022)

Arraunlari onak izateko zer ezaugarri izan behar diren aipatzen du: lehen mutil handiak izaten ziren; gaur egun, ordea, zuntz onak izateari ematen zaio garrantzia.

1.068. Lehengo eta gaurko kontzeptuak arraunean (ZAR-144/023)

Arraunean azkenengo 6 minutuetan aurreko 15 minutuetan bezain beste indar egin behar izaten da; eta horretarako prestatzen dira gaur egun arraunlariak. Lehen, ordea, ez zioten horri begiratzen. Lehengo eta gaurko entrenamenduak alderatzen ditu.

1.069. Arraunaren eta ontziaren materialaren garrantzia (ZAR-144/024)

Lehen arraunean lortzen ziren markak hobetu egin dira gaur egun. Arraunek alde izugarria egiten dute: lehengoak pago-egurrarekin egindakoak ziren eta oso astunak ziren, oraingoak berriz zuntzezkoak dira. Ontziaren materialak berak ere garrantzi handia dauka.

1.070. Lehengo traineruen arazoak (ZAR-144/025)

Lehengo traineruak nolakoak ziren eta zer arazo ematen zituzten azaltzen du.

1.071. Denek ontzi antzekoak, alderik ez egoteko (ZAR-144/026)

Joxe arraunean ibiltzen zen garaian, Donostiak jartzen zituen estropadatarako ontziak. Izan ere, bestela aldeak egoten ziren talde batetik bestera, haietakoren batek ontzi berria erosiz gero.

1.072. Lehengo arraun-taldeen arteko ika-mikak (ZAR-144/028)

Lehen zer arraun-talde zeuden aipatzen du. Zarautzarren eta zumaiarren artean ika-mika egoten zen. Oriotarrak ziren onenak, baina beraien artean liskarrak zeuzkaten.

1.073. Traineruan ateratzeko baldintzak (ZAR-144/034)

Lehen herriko traineruan herriko jendea aritzen zen. Arraunlari izateko baldintza batzuk bete behar ziren: lehen-lehen, herriko arrantzalea izan behar zen; gerora, herrikoa; geroago, bailarakoa; eta azkenik, dirua agertu zenetik, baldintzarik ez dago.

1.074. Kontxako estropadetako giroa eta garraiobideak (ZAR-144/036)

Lehen Kontxako estropadak zirenean, giro izugarria egoten zen. Egun hartarako autobus- eta tren-zerbitzu bereziak jartzen zituzten. Hain ziren zaharrak autobus batzuk, Joxek aterkia irekita joan behar izan baitzuen behin autobus barruan.

1.075. Zarauzko estropadetako ikurrina (ZAR-144/037)

Zarautzen estropadak antolatzen hasi eta handik urtebetera ikurrina legeztatu zen; ordutik, ikurrina eramaten zuen irabazleak. Michelin izan zen hura eraman zuen lehenengo taldea. Michelingo arraunlarien lan-baldintzei buruz hitz egiten du.

1.076. Zarauzko estropadak egiteko trabak (ZAR-144/038)

Estropadak antolatzeko, hainbat lan burokratiko egin behar izaten dira. Zarauzko estropadak antolatzeko, traba ugari egon ziren, baina azkenean aurrera ateratzea lortu zuten.

1.077. Arraun egiteko, eguraldiari eta urari begiratu behar (ZAR-144/039)

Estropadak itsasoan edo ibaian egin, alde handia dago. Itsasoa txartzeak kalte handia egin dezake estropadaren emaitzetan. Enbata ostean, itsasoa bare-bare egoten da. Eguraldia asmatzeko zeri begiratu izan dioten azaltzen du.

1.078. Arraunerako eguraldi aproposa (ZAR-144/040)

Arraunean ibiltzeko eguraldirik onena: laino pixka bat, berorik ez, haizerik ez eta itsasoa bare. Haizeak onura baino kalte gehiago ekartzen du arraunean.

1.079. Estropadak bertan behera uzteko moduko eguraldiak (ZAR-145/001)

Estropadak bertan behera uzteko moduko eguraldiari buruz hitz egiten du. Arraun egin bitartean, gertatu izan da elurra edo izotza egin izana.

1.080. Estropaden egutegia (ZAR-145/002)

Estropaden egutegia azaltzen du: umeenak neguan hasi eta udan bukatzen dira; zaharrenak, ordea, udaberrian eta udan izaten dira.

1.081. Estropada gehiago pixkanaka (ZAR-145/003)

Lehen estropaden denboraldia oraingoa baino motzagoa zen, estropada gutxiago baitzeuden. Pixkanaka zer estropada joan izan diren antolatzen aipatzen du. Ibaiko eta itsasoko estropaden aldeak aipatzen ditu.

1.082. Zarauzko arraun-elkartearen sorrera (ZAR-145/005)

1983an Zarauzko arraun-elkartea sortu zuten; Joxe buru-belarri sartu zen haren antolaketan. Orduko gorabeherak kontatzen ditu: ontziak nola lortu zituzten, non hasi ziren entrenamenduak egiten...

1.083. Entrenamenduak Zarauztik kanpo (ZAR-145/006)

Zarautzen arriskutsua da arraun egitea, eta horregatik Getariara eta Oriora joaten ziren entrenamenduak egitera. Hara joateko, Joxek eramaten zituen kotxez arraunlariak.

1.084. Zarauzko arraun-elkartearen garaipenak eta "Txiki" patroia (ZAR-145/007)

Urte batean, Zarauzko arraun-elkarteak hiru txapelketa irabazi zituen. "Txikik" patroia izateko martingalak nola ikasi zituen azaltzen du. "Txiki" oso egokia zen patroia izateko.

1.085. Ziabogak estropadaren bizigarri (ZAR-145/008)

Ziaboga ondo hartzeko jakin beharreko martingalak azaltzen ditu Joxek. Traineruaren zatiak aipatzen ditu. Kategoriaren arabera, ziaboga kopurua aldatu egiten da.

1.086. Traineruaren egitura (ZAR-145/009)

Traineruaren osagaien izenak aipatzen du. Traineruaren barruan, osagaien egitura aldatzen joan da denboran zehar. Haizearen arabera, alde batetik edo bestetik arraun egitea komeni da.

1.087. Zer aldetan egiten duzu arraun? (ZAR-145/010)

Arraunlariak alde batean edo bestean egin arraun, teknika aldatu behar dute. Bi aldeetan arraun egiten jakitea hobea da, horrela arraunlaria abilagoa da.

1.088. Estropuaren funtzioa eta egitura (ZAR-145/011)

Arrauna kareleko toletean kateatzen da estropuaren bidez. Estropuari buruz hitz egiten du: materiala, egitura...

1.089. Traineruaren zatiak (ZAR-145/012)

Arrauneko lexikoa azaltzen du: karela, trainerua, toletak, arraunak, palka... Palkak gaur egun zuntzez eginak dira, baina lehen egurrezkoak izaten ziren, okumezkoak. Behin olatu batek traineru baten palka puskatu zuen.

1.090. Arraunean aritzeko igerian jakitearen garrantzia lehen eta orain (ZAR-145/013)

Gaur egun nahitaezkoa da igeri egiten jakitea arraunean aritzeko; lehen, baina, ez. Adunako bi mutil ito egin ziren arrauneko entrenamenduan, igerian ez jakiteagatik. Ezbehar handia izan zen hura. Ontzia hondoratzen denean, sosegua mantentzea oso garrantzitsua da, baina ez da erraza.

1.091. Itsaso txarrarekin ateratzeko beldur (ZAR-145/014)

Urte batean oso itsaso txarra izan zen Gipuzkoako txapelketan, eta Zumaiaiko traineruak ez zuen nahi atera izan; gerora jakin zuten arrazoia: arraunlarietako batek ez zekien igerian.

1.092. Moilan ikasi zuten igerian (ZAR-145/015)

Zarauzko moilan ikasi zuten igerian mutil koskorak zirela; baina neskek ezin zuten moilan bainatu, bekatua baitzen, neskak hondartzan ibiltzen ziren.

1.093. Moilako umeak, gero eta argiagoak (ZAR-145/016)

Moilan bainatzen zirenean, jauzi egiten zuten uretara. Lehen dirua bota eta uretan bilatzen zuten txanpona; orain, ordea, uretara salto egin aurretik hartzen dute dirua.

1.094. Kukainaren gainean jolasean (ZAR-145/018)

Gaztetan kukainarekin aritzen ziren jolasean: seboa jartzen zuten kukainaren gainean, eta bukaeran zegoen bandera hartzen saiatu behar zuten. Bandera harrapatzeko sistema ugari zeuden. Politza izaten zen ikuskizun hura eta jende asko egoten zen hari begira. Irabazleek saria izaten zuten.

1.095. Arrauna erabiltzeko teknikaren garrantzia (ZAR-145/020)

Arrauna erabiltzeko teknika azaltzen du. Arrauna hasieratik ondo erabiltzen ikastea oso garrantzitsua da, gerora akatsak zuzentzea zaila baita. Arraunean gorputz guztia lantzen da.

1.096. Arrauna kirol bihurtu baino lehen... (ZAR-145/021)

Arraunaren jatorria arrantzan dago: arrantzatik moilara lehenengo ailegatzen zenak salmentako prezio onena izaten zuen.

1.097. Donostiarren eta ondarroarren arteko apustua (ZAR-145/022)

Apustuak egiten ziren arraunean lehen ere. Duela 100 urte inguru, Lekeitiotik Getariara arraunean joateko apustua egin zuten ondarroarren eta donostiarren artean: donostiarrek irabazi omen zuten, eta Ondarroan diru-galera handiak egon ziren orduan.

1.098. Apustueta trikimailuak (ZAR-145/023)

Apustueta egin izan diren trikimailuak kontatzen ditu.

1.099. Apustuan izandako fedea (ZAR-145/025)

Behin Tolosako batelak zirela izandako apustuaren anekdota kontatzen du.

1.100. 8 urtera arte gosea ase ezinik (ZAR-145/031)

Gerra ostean gosea pasa zuen. Orduko anekdotak kontatzen ditu. Garai hartan morokila jaten zuten esnetan bustita; baina Joxek morokila huts-hutsik jaten zuen. Esnea egosi egiten zuten edan aurretik, eta Joxek esnegaina jaten zuen inor konturatu baino lehen.

1.101. Juan Florentino izen osoa (ZAR-146/003)

Juan Florentino da bere izen osoa. Izenaren jatorria azaltzen du. Soldadutzan "Juan" deitu zioteneko anekdota kontatzen du.

1.102. 'Bihurri' ezizenaren jatorria (ZAR-146/004)

'Bihurri' da bere ezizena, eta nondik datorkion azaltzen du.

1.103. "Bihurriren" bihurrikeria (ZAR-146/005)

Umetan bihurrikeria ugari egindakoa da Florentino. Behin gertatutakoa kontatzen du: suarekin jolasean zebilela, lastoari su eman zion jolasteko eta konturatu gabe metak ere su hartu zuen. Ozta-ozta lortu zuten baserria sugarretatik salbatzea. Florentino, eragin zuenaz jabetu zenean, arto artean gorde zen. Ama oso haserre zegoen, baina amonak babestu zuen Florentino.

1.104. Zuhaitzetik salto egin eta besoa hautsi (ZAR-146/007)

Umetan osabarekin basoan zebilela ganaduari jatena emateko, zuhaitz gainetik salto egin zuen eta besoa hautsi zuen. Don Leandro enplasteroarengana joan ziren orduan eta igeltsua jarri zion besoan.

1.105. Gau-eskolak eta norbere balioaren garrantzia (ZAR-146/009)

Lanean hasi ostean, gau-eskolan ibili zen urte eta erdian, eta han dezente ikasi zuen. Maistra oso ona omen zen, frantsesa. Han zer ikasi zuten aipatzen du: idazten, matematikak egiten... Gerora, hala ere, eskulanetan aritu izan da lanean.

1.106. Baratzeko lana eta azenarioak (ZAR-146/014)

Senide zaharrena izanda, lan asko egitea tokatu zitzaion. Fabrikako lanaz gain, baratzean laguntzen zuen. Baratze handia zeukaten eta azenario asko landatzen zuten han. Donostiako Orly hotelari haietarik asko saltzen zizkioten.

1.107. Amaren lana baratzetik kanpo (ZAR-146/019)

Amak baratzean egiten zuen lan; baina horrez gain, garbitzailea izan zen, koltxoak garbitzen eta harrotzen zituen... Koltxoiekin zer lan izaten zituen azaltzen du.

1.108. Gose garaian arrautzak eta txerrikiak (ZAR-146/020)

Gerra ostean ez zuten gose handirik pasa, baserrian hobeto eutsi zioten eta egoerari. Garai hartan arrautza asko jaten zuten; txerria ere jaten zuten, baina txerriaren zati onenak apaizari, medikuari... ematen zitzaizkion.

1.109. 4 osabaren zorigaitza (ZAR-146/021)

Florentinoren 4 osaba 18 eta 25 urte bitartean hil ziren: bata gerran; bestea soldadu zela gaixotu eta etxean; bestea auto-istripuan; eta gazteena konturatu gabe gurdi baten gainera jauzi eginda.

1.110. Hileta izan eta bazkaria eman behar (ZAR-146/023)

Lehen norbait hiltzen zenean, gaua etxean pasatzen zuen, gaubeila egiten zioten. Hiletaren ostean, bazkaria ematen zitzaien hiletara etorritakoei. Florentinok amonari eman behar izan zion osabaren heriotzaren berri; gogorra izan zen hura, baina amona hala ere hurrengo egunerako bazkaria prestatzen hasi zen.

1.111. Baserriaren madarikazioa uxatzeko moduak (ZAR-146/025)

4 osaba gazte hil zirenez, uste zuten baserriak madarikazioaren bat izango zuela. Hori uxatzeko, apaizak eta fraideak etortzen ziren baserria bedekintzera; baserrira, baina, erdi mozkortuta iristen ziren.

1.112. Fundiziotik alde egin behar osasuna zaintzeko (ZAR-146/027)

14 urte zituela, fundizioan hasi zen lanean eta urtebete eman zuen han. Osasunari kalte handia egiten zionez lan hark, ehun-fabrikara joan zen 15 urte zituela. Urtebetean 33 kilo gizendu zen.

1.113. Esne kondentsatuari esker sendatu (ZAR-146/028)

Umetan diarrea izan zuen Florentinok eta ezin sendatu ibili zen; azkenean, esne kondentsatua hartzeko esan zioten eta hari esker bere onera etorri zen. Florentinoren emaztearen ahizpari ere esne kondentsatuak on handia egin zion.

1.114. Janari garbiaren garrantzia eta hondar-lurrearen onurak (ZAR-146/031)

Lehen janaria behar bezala ez garbitzeagatik etortzen ziren gaitzak, bestiak beste, tifusa. Hondar-lurrean landatutako barazkiak, hala ere, zeuden onenetakoak omen ziren.

1.115. Itulan asper-asper eginda (ZAR-146/033)

Umetan Florentinori askotan tokatu izan zitzaion itulan egitea. Itulan nola egiten zen azaltzen du. Behin itulan asper-asper eginda zebileneko anekdota kontatzen du.

1.116. Gerra osteko gose garaian ondo moldatu ziren (ZAR-149/003)

Gerra ostean etxean ez zuten goserik pasa, ondo moldatzen baitziren janaria lortzeko. Sagarrak, taloa, esnea, ogia... jaten zuten.

1.117. Potajeko zomorroak (ZAR-149/006)

Umetan ez zuten arazo handirik izan jateko garaian. Potajeari zomorroak sortzen zitzaizkion, baina haiek apartatu eta potajea jan behar izaten zuten.

1.118. Dilistak jan aurreko zereginak (ZAR-149/007)

Dilistak erostean, zakarrak apartatu behar izaten zituzten jateko prestatu aurretik.

1.119. Tabakoa azukrearen truke (ZAR-149/008)

Beraien etxera ekartzen zuten esnea kalitate onekoa izaten zen. Errazionamenduko tabakoa etxean ez zuten behar izaten, eta trukatu egiten zuten azukrea lortzeko.

1.120. Udatiarrak zaraustarren etxeetan alokairuan (ZAR-149/010)

Frantziatik jende asko etortzen zen uda Zarautzen pasatzera. Udatiarrak eta herrikoak ez ziren elkarrekin ibiltzen normalean. Udatiarrak alokairuan egoten ziren zaraustarren etxeetan; Maritxuren familiaren etxea zen haietako bat.

1.121. Madrilgo bisitariak etxean (ZAR-149/011)

Etxea alokairuan uzten zioten Madrilgo familia bati; lau neskame ekartzen zituzten haiek.

1.122. Udatiarren planak Zarautzen (ZAR-149/012)

Udatiarrak 3 hilabeterako etortzen ziren Zarautzera. Haien planak aipatzen ditu.

1.123. Udatiarrekin izandako posta-trukea (ZAR-149/014)

Udatiarrak udan etorri aurretik, gutun bidez eta telefonoz izaten zuten harremana haiekin egonaldiari buruzko xehetasunak erabakitzeko. Horrekin lotutako anekdotak kontatzen ditu.

1.124. Udatiarrek utzitako diruak egindako mesedeak (ZAR-149/015)

Udatiarrak etxean alokairuan edukitzeak diru estra ematen zien Zarauzko familiei. Maritxuk eta Imanolek etxea erosi zutenean, alokairuan jartzen zuten udan, horrela kreditua errazago ordaindu ahal izateko.

1.125. Udatiarren inguruko lanak (ZAR-149/016)

Zarautz udan eraldatu egiten zen. Aristokraziaren eta udatiarren inguruan sortzen ziren lanak azaltzen ditu.

1.126. Udatiarrei matematikako klaseak ematen (ZAR-149/017)

Udatiarren inguruan lan asko eratzen zen: Imanolek, bere senarrak, matematikako klase partikularrak ematen zizkien haietako batzuei eta oso harreman ona sortu zuen haiekin.

1.127. Imanolen zaletasuna golf-arekiko (ZAR-149/018)

Imanolek aristokraziako jende asko ezagutzen zuen golf-ari esker. Imanol kadi izan zen hasieran, eta orduan sortu zitzaion golf-erako zaletasuna.

1.128. Golf-eko klubean sartu zirenekoa (ZAR-149/019)

Imanoli golf-arekiko zaletasun handia sortu zitzaion kadi lanetan zebilela. Bere ametsa golf-eko klubean sartzea zen. Azkenean, klubeko bazkide izateko aukera izan zuten Imanolek, bere anaiak eta beste lagun batek; aprobetxatu egin zuten: hasieran hartan, baina, golf-a aristokraziaren kontua zelakoan, lotsa ematen zien bazkide egin zirela esateak. Pixkanaka, zarauztar gehiago sartu ziren klubean.

1.129. Golf-ak etxean izandako arrakasta (ZAR-149/020)

Imanol golf-eko klubean sartu zenean, Maritxu ere sartu zen. Seme-alabak ere eraman zituen Imanolek noiz edo noiz golf-ean ikas zezaten, baina saiakerak ez zuen arrakasta handirik izan.

1.130. Euskaraz egiteko erabakia (ZAR-149/022)

Imanol, senarra, musika plazan dantzan ezagutu zuen. Hasiera hartan erdaraz hitz egiten zuten Imanol eta bere artean. Elkarrekin ateratzen hasi zirenean, ordea, euskaraz egitea erabaki zuten.

1.131. Neskek Zarautzen erdaraz (ZAR-149/024)

Neskek Zarautzen erdaraz hitz egiten zuten lehen. Maritxuren etxean, hala ere, aitzak gogor egiten zien euskaraz hitz egiteko. Maritxuk uste du hezkuntzak garrantzi handia izan zuela mutilen eta nesken hizkuntza-aukeraketan.

1.132. Mojekin irakurtzen ikasten (ZAR-149/026)

Eskolan mojekin irakurtzen nola ikasi zuten azaltzen du. Mojak erdaldunak ziren, baina hitz batzuk euskaraz esaten zizkieten.

1.133. Jostean otoizlaburrak esaten (ZAR-149/027)

Mojekin goizez diktaketak, matematika, geometria... ikasten zuten; arratsaldea, ordea, josten ematen zuten eta josi bitartean otoizlaburrak esaten zituzten.

1.134. Orduko bekatutak (ZAR-149/030)

Orduko bekatuak zein ziren aipatzen ditu.

1.135. Elizara nor joaten zen kontrolatzen zen lehen (ZAR-149/031)

Mutilen kongregazioan kontrolatu egiten zuten nor joaten zen mezara eta nor ez. Gainerakoan, jendea elizara noiz joaten zen kontrolatzeko, txartelak erabiltzen ziren.

1.136. Elizako manamenduak (ZAR-149/032)

Elizako manamenduak aipatzen ditu. Garai batean bete egiten zituzten manamenduak: baraualdiak, bijiliak... Batzuek bulak ordaintzen zituzten bijilia ez bete behar izateko.

1.137. Santa Kruz apaiza (ZAR-151/003)

Mertxek egunkariaren bidez izan zuen Santa Kruz apaizaren berri; haren istorioetako batzuk kontatzen ditu. Aitonak ere ezagutu zuen Santa Kruz apaiza eta gizon gogorra zela esaten zuen.

1.138. Aitona Juli edo Polikarpo (ZAR-151/005)

Mertxek ezagutu zuen aitona: aitona Juli deitzen zioten, baina bere benetakoa izena Polikarpo zen. Mertxeri asko gustatzen zitzaion Polikarpo izena erabiltzea eskolan, izen arraroa iruditzen baitzitzaion.

1.139. Aitona Luisen indarra (ZAR-151/006)

Aitona Luis oso kirolari ona eta indartsua omen zen, baina behin idiak pendizetik behera eror ez zitezen halako indarra egin zuen, hil egin baitzen.

1.140. Errepublika garaian etxea eraikitzeako erabakia (ZAR-151/008)

Munoa inguruko etxe batean jaio zen; geroago, Santa Marina kalera joan ziren; Errepublika garaian, ordea, etxeak egiteko erraztasunak eman zituen gobernuak, eta Mertxeren aitak etxea bere tailerraren gainean eraikitzea erabaki zuen.

1.141. "Ama txiki" (ZAR-151/010)

Mertxe zen etxeko senide zaharrena eta gainerako senideak zaintzea tokatu zitzaion. "Ama txiki" deitzen zioten. Gauean sukaldean kontu-kontari aritzen ziren amarekin, baina Mertxek askotan umea zaintzen egon behar izaten zuen logelan.

1.142. Maximiliana Orokieta maistraren ospe ona (ZAR-151/014)

Mertxek Santa Anan ikasi zuen mojekin. Baina herriko eskola hobea omen zen, hango maistra oso ona baitzen: Maximiliana Orokieta.

1.143. Irakurtzeko zaletasuna betidanik (ZAR-151/015)

Irakurtzea beti gustatu izan zaio asko Mertxeri. Liburutegiko bazkide zen, eta handik hartzen zituen liburuak. Bere kasa ikasi izan du euskaraz irakurtzen.

1.144. Treneko abenturak (ZAR-151/018)

Egunero trenez joaten zen Donostiara lanera. Orduko trenen kalitatea oso txarra zen eta askotan bide erdian gelditzen ziren. Behin gau osoa pasa zuten

ez aurrera eta ez atzera egin ezinik. Trenean lagunak egin zituen; haietako bat jostuna zen eta hainbat familiarentzat egiten zuen lan. Orduko anekdota bat kontatzen du.

1.145. Treneko aberiak (ZAR-151/022)

Orduko trenak elektrikoak ziren. Behin aberia izan zen eta orduko anekdota kontatzen du. Orduko trenak oso txarrak omen ziren, ez ziren garaiz iristen.

1.146. Treneko lagunak eta txartelak (ZAR-151/024)

Mertxe egunero ibiltzen zen trenean; egunero jende bera izaten zen. Orduan 400 pezeta kostatzen zuen trenean urte osoan ibiltzeko txartelak.

1.147. Euskara eta erdara denboran zehar (ZAR-151/027)

Umetan euskaraz egiten zuten kalean, baina eskolan erdaraz. Gerora hasi ziren neskak beraien artean euskaraz egiten. Behin beraien altzari-dendan euskararen gainean izandako anekdota kontatzen du.

1.148. Herriko eskolara joateko gogoa (ZAR-151/029)

14 urtera arte ibili zen eskolan. Errepublikara garaian erlijioa ez zen ematen eskoletan, eta horregatik ikasi zuen mojetan Mertxek. Hala ere, pena du, herriko eskolan maistra hobeak baitzeuden. Mojen eskolan otoizlaburrak esaten zituzten josten aritzen ziren bitartean.

1.149. Kataluniako udaletxeetatik Zarautz aldera bisitan etorri zirenekoa (ZAR-151/031)

Errepublikako garaian, Kataluniako hainbat udaletxetatik bisitan etorri ziren Zarauzko udaletxera. Zarautzen harrera ona egin zieten, baina Madrildik etorritako udatiarrak kexatu egin ziren; liskarrak egon ziren orduan. Ordutik udatiar haietako batzuk ez ziren gehiago etorri Zarautzera.

1.150. Alcalá Zamora Zarautzen (ZAR-151/033)

Alcalá Zamora, Errepublikako presidente zela, Zarautzera etorri zen bisitan. Hari egin zioten harrerari buruz hitz egiten du.

1.151. Mitina debate bihurtzeko arazoak (ZAR-151/035)

Errepublikak gutxi iraun zuen. Garai hartan greba ugari zegoen, mitinak izaten ziren. Behin mitin batean gizon batek hizlariaren kontra egin zuen, baina ez zioten utzi bere jarrera defendatzen.

1.152. Barkilleroari buruzko oroitzapenak (ZAR-153/003)

Maritxuren amak barkilleroei buruzko kanta erakutsi zien. Beraiek ume zirela, barkilleroa egoten zen haien kalean; hari buruzko oroitzapenak kontatzen dituzte.

1.153. Patxiku kalearen historia (ZAR-153/005)

Patxiku kalearen historia kontatzen dute: nor zen Patxiku, zergatik hartu zuen kaleak bere izena...

1.154. Patxiku kalearen eta Barren plazaren historia (ZAR-153/007)

Patxiku kalearen izena "Nuestra señora del Pilar" izan arren, denek "Patxiku kalea" deitzen zioten. Patxiku kalea nondik nora doan eta Barren plaza lehen nolakoa zen azaltzen dute.

1.155. Zarauzko garai bateko kale-baserriak (ZAR-153/009)

Zarautzen kale-baserriak zeuden garaia ezagutu zuten. Orduko etxeez eta giroaz hitz egiten dute.

1.156. "Isasti" baserria (ZAR-153/012)

Zarauztarrak izan arren, beraien gurasoak baserrikoak ziren, eta horren eragina nabari dute, ez baitute kaleko-kaleko hizkera. "Isasti" deitzen zieten umetan.

1.157. Janaria prestatzeko ohiturak (ZAR-153/013)

Beraien amen arteko aldeaz hitz egiten dute. Ogia egiteko, nola edo hala moldatzen ziren errazionamendu garaian. Janaria prestatzeko, zer ohitura izaten zituzten aipatzen dute.

1.158. Santa Luzia, jostungaien eguna (ZAR-153/014)

Mertxek oso ondo zekien jertseak josten. Santa Luzia eguna (jostungaien eguna) ospatzen zuten lehen. Egun hartan, pastelak erosten zituzten, eta orduko anekdotak kontatzen dituzte.

1.159. Santa Luzia eguna gaur egun (ZAR-153/015)

Santa Luzia eguna jostungaien eguna zen. Lehen jostun asko zegoen; eta Santa Luzia egunean, ospakizun handia izaten zuten. Gaur egun, oraindik, emakume asko ateratzen dira elkarrekin bazkaltzera Santa Luzia egunean.

1.160. "Viva Rusia" esan izanagatik, kartzelara (ZAR-153/020)

Gerra garaian, komandantzia militarra zegoen Zarautzen; eta, Francoren soldaduek herriren bat hartzen zutenean, horren berri ematen zuten handik. Bandoa jotzen zutenekoa gogoan dute. Emakume bat kartzelara eraman zuten "Viva Rusia" esateagatik. Kartzelan lixiba egiten ikasi zuen, eta gerora hortik atera zuen bizibidea.

1.161. Barkilloa erosteko jolasa (ZAR-153/022)

Barkilloa erostean, erruletaren jolasa egiten zuten, zenbat barkillo eramango zituzten ikusteko.

1.162. Bandoko albisteak (ZAR-153/023)

Bandoa jotzean, zer albiste ematen zituzten azaltzen dute.

1.163. Alemaniatik Zarautzera etorritako jendea (ZAR-153/025)

II. Mundu Gerran, Zarautzera aleman ugari etorri ziren, Alemaniako gerratik ihesi. Enpresak jarri zituzten hemen.

1.164. Asteasu eta Zarautz arteko kablea (ZAR-153/026)

Alemaniatik etorritako gizon batek jarri zuen purpurina-fabrika; gizon horrek berak jarri zuen, halaber, Asteasutik Zarautzeraino iristen zen kablea, meatzeetako burdina itsasoraino eraman eta itsasontziz garraia zezaten. Gerora, kendu egin zuten, ez baitzen errentagarria.

1.165. Eibarko euskararen ospea (ZAR-153/029)

Eibartarren euskarari buruzko txistekak kontatzen dituzte. Eibarren sortu omen ziren erreminta berrien izenak; oso hiztegi zabala omen daukate industriaren alorrean.

1.166. Euskararen hizkerak (ZAR-153/030)

Euskararen hizkeren arteko aldeaz hitz egiten dute.

1.167. Urolako trena kentzea pena (ZAR-154/003)

Askotan gelditzen zen trena indarrrik gabe. Argindarrarekin ibiltzen zen trena. Urolako trena kentzea pena izan zen.

1.168. Gogo-jardunetara Arantzazura (ZAR-154/004)

Gogo-jardunak nolakoak ziren azaltzen dute. Behin Arantzazun izan ziren. Zortzi egun inguru izaten ziren, otoitzean, hausnarketan... egitera. Zarauzko apaiz bati buruz iritzia ematen dute.

1.169. Apaizek esandakoarekin beldurrez (ZAR-154/005)

Beldurra pasatzen zuten apaizekin. Don Juan Legarra xelebrea omen zen eta ez omen zuen erlijio kontuetan gehiegi insistitzen.

1.170. Apaizekin larrituta (ZAR-154/006)

Apaizak esandakoa ez zen zalantzan jartzen. Apaizarengana joateko larritu egiten ziren. Anekdotak pare bat kontatzen dituzte.

1.171. Konfesatzerakoan neskak saretaren atzetik (ZAR-154/007)

Fraideren batzuek gehiago onartzen zuten konfesatzerakoan. Neska edo emakumeek konfesatzerakoan saretaren atzetik hitz egiten zuten. Txirrin kopuruaren arabera fraide bat edo beste bat eskatzeko aukera zegoen.

1.172. Fraidegai gazteak (ZAR-154/009)

Lehen fraidegai asko izaten ziren. Begi-zeharka begiratzen zieten neskei. Frontoian pilotan aritzen ziren.

1.173. San Antonioko hamahiru astearteak (ZAR-154/010)

San Antonio kofradian 13 asteartetan mezetara joanez gero, San Antonio egunean izozkia ematen zieten. Jesusen Bihotzaren prozesioan ere joaten ziren eta Espainiako bandera eramaten zen.

1.174. Fatimako Ama Birjinarekin desilusioa (ZAR-154/011)

Fatimako Ama Birjina Zarautzera ekarri zuten eta Espainiako banderekin egin zieten harrera. Maritxuk benetako Ama Birjina espero zuen, ez eskultura bat.

1.175. Donostiako kartzelan bazkaltzen (ZAR-154/012)

Eukaristiako kongresua izan zen Donostian eta Martuteneko kartzelan bazkaldu zuten, mojak ordena berekoak zirelako. Orduan mojak oraingo funtzionarioen funtzioak betetzen zituzten.

1.176. Bazkaria zapata kaxetan (ZAR-154/013)

Donostiako kartzelan ume bat bazela gogoratzen da Maritxu, ama barruan zegoelako. Zapata kaxetan eramaten zuten irteeretara bazkaria. Motxila askoz geroago izan zuten.

1.177. Euritarako gomazko katiuskak (ZAR-154/014)

Euritakoak katiuskak izaten ziren, gomazkoak. Elurra gutxi baina egiten zuen. Izotza asko botatzen zuen lehen.

1.178. Xiprineko eta Iturrarango baratzeak (ZAR-154/015)

Lehengo Zarautz nolakoa zen kontatzen dute. Xiprineko baratzean ibiltzen ziren eta Iturrarangoan ere bai. Tabakoa erdi ezkutuan gordeta izaten zuten han.

1.179. Ezkutuan erretzen (ZAR-154/016)

Aurrenekoz arto-bizarrak erre zituzten eta ez zuen gustorik ere izaten. Ezkutuan zigarroa erre zutenekoa gogoan dute.

1.180. Anai-arreba gazteen ardura (ZAR-154/017)

Maritxuk anai-arreba gazteak izan zituen eta ardura gehiago izaten zituen etxean.

1.181. Hildakoak ikustea entretenigarri (ZAR-154/018)

Beti elizan ibiltzen ziren, etxetik kanpo ibiltzearren batzuetan. Hutsarekin barre egiten zuten, gutxirekin moldatzen ziren. Baten bat hiltzen zenean, hura ikustera joaten ziren. Horrelakoak ziren umetako denborapasak.

1.182. Josten ikasten (ZAR-154/019)

Akerregineko etxean josten ikasten aritu zen Mertxe. Moja izandako batek pianoa erakusten zuen.

1.183. Igandetan pastak jatera eta pianoa jotzera (ZAR-154/020)

Arrillaga gozotegikoenera joaten ziren igandetan saltzeko moduan ez zeuden pastak erostera. Pastak erosiz gero, pianoa jotzeko aukera ematen zieten.

1.184. Gozotegiko anekdota (ZAR-154/021)

Gozotegi batean "Keipo" izeneko gozoa eskatu zuten "borracho" eskatu beharrean.

1.185. Getariarrak irekiagoak zarauztarren aldean (ZAR-154/022)

Zarauzkoa edo Getariakoa izan, izaeran oso desberdinak dira. Getariarrak irekiagoak dira. Oraingo arrain-saltzaile baten adibidea ipini dute. Getaria asko aldatu da.

1.186. Getariar neskekin ez ziren ibiltzen (ZAR-154/023)

Getariar neskekin ez ziren ibiltzen. Haiek zinemara etortzen ziren igandeetan. Zarauztar eta getariarrez osatutako bikote asko sortzen ziren.

1.187. Zumaiarrentzat zarauztarrak señoiritak (ZAR-154/024)

Getariako eskolan ibiltzen ziren neskak Zarautzera etortzen ziren bukaeran mojetara eta hortik egiten zuten harreman handiagoa. Zumaia eta Zarautzek ez dute hainbesteko harremanik izan. Haientzat zarauztarrak "señoiritak" ziren.

1.188. Igandeetan bizikletak alokatu (ZAR-154/025)

Igandeetan batzuetan bizikleta alokatzen zuten pagarekin orduerdirako.

1.189. Lizarrara motorrean (ZAR-154/026)

Lizarrara motorrez joan zirenekoa kontatzen du. Ez zen beraiena baina ausartu ziren.

1.190. Errepublika atera zeneko oroitzapenak (ZAR-156/002)

Errepublika etorri zenean, lau senide zeuden amarekin, eta denak etxera joan ziren ziztu bizian. Lehengusu bat Errepublikako banderarekin zihoan, eta etxeko lotsa izan zen hura.

1.191. 'Pernando amezketarra'ren ondorengoak (ZAR-156/005)

Aitak CAFen egiten zuen lan, oso langile ona omen zen. Amezketakoa zen, Pernando amezketarraren ondorengoetako bat.

1.192. Gerrako besarkadak (ZAR-156/009)

Enkarnaren lehengusu batzuen aita alemana zen: Espainiako gerran ez zuten parte hartu beharrik izan, alemanak izateagatik; baina geroago, Hitlerrek deitu eta Alemaniako gerrara joan behar izan zuten. Denak onik itzuli ziren. Garai hartan gertatutakoari buruzko anekdotak kontatzen ditu.

1.193. Ezkutatu beharreko armairuak eta sableak (ZAR-156/013)

Etxean "Euskadi" armairua eduki zuten ezkutatuta 40 urtean. Amak ere bazuen haren aitak Ameriketatik ekarritako bastoi bat, barruan sablea zeukana, baina beldurraren beldurrez, bota edo ezkutatu egin zuen.

1.194. Aita CAFetik purpurina-fabrikara (ZAR-156/015)

Beasainen jaio zen Enkarna, aitak CAFen egiten zuelako lan. 1931ko krisiarengatik, ordea, lan gutxi zegoen CAFen, eta aitak Zarautzera etorri behar izan zuen lanera, lehengusuak eskaini zion lanpostuan aritzera

purpurina-fabrian. Gerraostean jende askok, lan bila, alde egin zuen Espainiatik.

1.195. Purpurina-fabrikako lana (ZAR-156/016)

1931ko krisia ezagutu zuten; krisi hura erabatekoa izan zen. Aita purpurina-fabrian hasi zen lanean orduan, eta hango lanari buruz hitz egiten du Enkarnak. Gerra garaian, militarizatu egin zuten fabrika. Purpurina zertarako erabiltzen zen aipatzen du.

1.196. Eskola batean eta bestean ikasia (ZAR-156/019)

Herriko eskolan hasi zen ikasten Zarautzen, baina Errepublika iritsi zenean, gurutzeak kendu zituzten eskolatik, eta erlijioaz ezin zen hitz egin ere egin. Orduan, mojatara eraman zituzten Enkarna eta bere senideak; eskola hura, baina, kaskarra zen. Eskola bukatutakoan, eskola partikularrera bidali zuten Enkarna; han asko ikasi zuen. Lehen errespetu handia zitzaien maisu-maistrei.

1.197. Tropak etxean janari eske (ZAR-156/022)

Gerra garaian tropak Zarautzera iritsi zirenean, etxera etorri zitzaizkien janari eske.

1.198. "Toma, guapa, para que te acuerdes de mí" (ZAR-156/023)

Soldaduak etxe paretik pasatzen ari ziren batean, haietako batek kantinplora bota zion Enkarnari, hartaz gogora zedin.

1.199. Gerraosteko beldurak eta gosea (ZAR-156/024)

Gerra garaian beldur handia pasa zuen jendeak Zarautzen. Guardia zibilari eta inspektoreei beldur handia zitzaien. Gaur egungo gazteek ezin dute jakin zer izan zen hura, bizi egin behar izan baitzen. Euskadin oztopo handiak jarri zituen Francok diktaduran, eta gero onartu zuen jende langilea zela euskalduna. Gerraosteko goseari buruz hitz egiten du.

1.200. Errazionamendu garaian lanean, kanpoan eta etxean (ZAR-156/025)

Etxean ogia kontrabandoko irinarekin egiten zuten. Garai hartan ogia falta izan zen. Kooperatibako bulego-lanetan aritu zen Enkarna dozena bat urtean, errazionamenduko jeneroa kudeatzen. Azkenean, lana utzi eta etxeko lanetara dedikatu zen.

1.201. Errazionamendu garaiko komeriak (ZAR-156/026)

Kooperatibako lana seme-alabak zaintzearen utzi zuen. Lanean aritu zen denbora janaria lortzeagatik izan zen. Errazionamendu garaian jendeak latzak pasa zituen; orduko komeriak kontatzen ditu.

1.202. Bost urtera arte, "Txakurran sala" auzoa bizileku (ZAR-159/001)

Gerra aurretik jaio arren, oso ume txikia zen eta ez da gerrako kontuez gogoratzen. "Txakurran sala" deitzen zioten auzoan bizi zen umetan, orain poligonoa dagoen lekuan. Uholdeengatik ihes egin zuten anai-arreba bik eta amak zigortu egin zituen. Handik Santa Marinara joan ziren bizitzera alokairuan.

1.203. Etxean noiznahi sutea (ZAR-159/002)

Etxepean tailerra ipini zuten. Ez ziren oso langile arduratsuak eta noiznahi sua izaten zuten.

1.204. Etxe handia zuten (ZAR-159/003)

Etxe handia eta zaharra zen. Batzuetan gauzak non zeuden ere ez zuten jakitzen. Anekdota bat kontatzen du.

1.205. Etxea erosteko baserritarrei dirua eskatu (ZAR-159/004)

Etxean diru askorik ez zuten eta jabeak etxea salgai jarritakoan, etxepeko tailerreko jabeak erosi zuen. Alokairuan pisu batera joan ziren. Bitartean utzitako etxe hura erosteko baserritarrei dirua eskatu zieten.

1.206. Aurreneko dutxa (ZAR-159/005)

Bederatzi anai-arreba ziren. Komun bakarra zuten etxean. Harraskan garbitzen zuten burua ur beroarekin. Aurreneko dutxa hamabost urte ingururekin hartu zuen.

1.207. Frantziar eta alemaniarrek ihesi Zarautzera (ZAR-159/006)

Gogoan du frantsesak ihesi etorri ziren garaia, baita ondoren alemaniarrek etorri zirenekoa ere. Umetan ilehoria zenez, Josetxo Aleman esaten omen zioten.

1.208. Igeltseritza lanbide (ZAR-159/007)

Eskolan Miserikordian ibili zen, gero Herriko Eskolara, handik La Sallera eta azken bi urteak fraideekin. Hamabost urterekin lanean hasi zen igeltsero. Osasun arazoengatik lana utzi eta harategia jarri zuen.

1.209. 1963an lehenengo garabia herrian (ZAR-159/008)

Igeltseroek lehenengo teilatua egiten zuten eta ondoren barruko egitura jartzen zuten. Azulejoak ere ipintzen zituzten. 1963 inguruan ekarri zuten Zarautzera lehenengo garabia. Aurretik bizkarrez jaso eta jeisten zuten dena.

1.210. Lan-baldintza txarrak (ZAR-159/009)

Itxaropenanekoa, Odriozolanekoa, Ziorda kaleko beste bat izan ziren Zarautzen egindako etxeak. Asko. Besteentzako etxeak egin eta norberarentzako ezin. Hiru tabloirekin ibiltzen ziren, barandarik gabe, arrisku handiarekin.

1.211. Atezain Orokietaren eskolan (ZAR-159/010)

Osasunak lagundu ez eta harategia zabaldu zuen. Osasuna gero eta okerrago, atezain hasi zen Orokietaren eskolan, trantsizio garaian. Aurreko alkateak ikurrina legeztatutakoan dimisioa eman zuen eta Imanol Muruak hartu zuen lekua eta hark inauguratu zuen eskola. Urtebete geroago irabazi zituen Muruak hauteskundeak.

1.212. Obretan inspekziarik ez (ZAR-159/011)

Trantsizio garaian egiten ziren eskolek beheko solairuak metro inguruko altura izaten zuen. Horrelakoa zen Ortuellakoa ere, eztanda izan zuen hura. Obrak bukatu eta inork ez zuen inspekziarik egiten.

1.213. 70-80 hamarkadak, gogorrek gazteentzat (ZAR-159/012)

Bera atezain zela, 70-80 hamarkadetan, ikasketak bukatutako ikasle askok, mutilek bereziki, arazo handiak sortu zituzten eskolan. Droga kontuak ere gogorrek izan ziren garai hartan.

1.214. Etorkin asko lanera (ZAR-159/013)

Galiziatik, Extremaduratik eta beste hainbat lekutatik jende asko, familia osoak, etorri zen lanera. "Txiki"ren aitonarekin lanean aritutakoa da. Extremeñoa zen hura eta Donostiako erresidentzia egitera etorria zen.

1.215. Umetako jolaslekuak (ZAR-159/015)

Zalbiden bazen erreka eta handik aritzen ziren jolasean. Hondartzan Harralde txikia izeneko lekua zegoen eta arrokatan ibiltzen ziren. Moian ere asko ibiltzen ziren arrantzan eta.

1.216. Arrantzan hondartza parean (ZAR-159/016)

Zarauzko hondartza parean oso aberatsa zen arrantzarako. Noiz edo noiz Getaria edo Oriola joaten zen. Txalupatan bi lagun bina arraunekin joaten ziren.

1.217. Galerna beti San Anton aldetik (ZAR-159/017)

Galerna ia beti San Anton aldetik etortzen denez, itsasoan Getariatik Zarautzera etortzea erraza da baina Orio parean izanez gero, Donostiara joaten laguntzen du. Noiz edo noiz zurrumbiloak sortu izan dira.

1.218. Bermeoko zoritxarra (ZAR-159/018)

XX. mende hasierako Bermeoko zoritxarra: Urkola izeneko apaiz bat Igeldoko obserbatorioko buru zen eta jakinarazi zuen denborale gogorra zetorrela eta arrantzale asko ez ziren itsasoratu. Baina belaontziak zirenez ordukoak, itsasoan zebiltzan ontzi asko galdu zen. Eguraldi sargoria bazen, kontuz ibiltzen ziren.

1.219. Itsasoratzerakoan, Ama Birjinari salbea errezatu (ZAR-159/019)

Itsasoratzerakoan, Ama Birjinari salbea errezatzen zioten. Fede handia zegoen orduan.

1.220. Elizaren gainbehera (ZAR-159/020)

Dotrina euskaraz izan zuten jaunartze txikirako eta erdaraz jaunartze handirako. Elizan aldrebeskeriak ikusten hasi ziren eta orduan galdu zuten fedea. Duela 60 urte hasi zen gainbehera. Apaizak konfesatzerakoan dena jakitzen zuen, etxekoek baino gehiago. Dantzarako ezkutuka ibiltzen ziren.

1.221. Urdanetako apaizaren gehiegikeriak (ZAR-159/021)

Emaztea aiarra du. Urdaneta auzoko apaizak, Don Danielek, gehiegikeria asko egin zituen mutilak beldurtzeko asmotan. Erromeria zenean apaizetxetik begira aritzen zen gizona. Zumaia bidali zutenean ere astakeriak egin zituen.

1.222. Apaizak bide berria egiterik nahi ez (ZAR-159/022)

Don Daniel apaiza Urdanetatik joandakoan egin zuten auzorako bidea, hark ez zuelako uzten.

1.223. Nobiotan dantzara, zinera eta meriendak (ZAR-159/023)

Bere ama zenaren baserrian egon zen emaztea eta handik ezagutu zuen. Dantzara joan eta hurrengorako gonbidapena egitea zen lehenengo zita. Lau-bost aldiz dantzalagun izanez gero, bikote egiten ziren. Meriendatara edo zinerako plana egiten zuten.

1.224. Emakumeen indarra (ZAR-159/024)

Nobiotan Oriora joan ziren estropadetara eta mutilak behar baino gehiago luzatu eta neskak haserretu zitzaizkien. Emakumeek eraman izan dituzte etxeko kontuak beti beraienean.

1.225. Kontakizun barregarria (ZAR-159/025)

Zarauzko taberna bateko kontu barregarria.

1.226. Nobiotan eraztuna opari (ZAR-159/026)

Nobiotan eraztuna oparitu zion eta orduan eman zion aurreneko musua emazteak. Ezkondu arte ezin izaten zuten musutik pasa.

1.227. Bikotea familiari aurkeztu (ZAR-159/027)

Ezkondu aurretik bikotea familiari aurkezten zitzaion. Koinatua aurkezteko egunean komeriak izan zituzten etxean.

1.228. Ezkontza xumea (ZAR-159/028)

Zarautzen bertan ezkondu ziren eta Miramarren bazkaldu. Autobusez elizara joatekoak ziren baina oinez joan behar izan zuten eta andregaia zai izan zuen. Familia eta lagunak batu ziren. Ezkonaurrean despedida egiten zen.

1.229. Irrintzi antzerki taldean (ZAR-159/029)

Antzerkian aritzen zen kuadrillarekin, Irrintzi taldean. Gipuzkoan zehar ibiltzen ziren. Imanol Urbietak ere tartean izaten zen.

1.230. 27 zapata... zergatik? (ZAR-162/001)

Imanolek bere goitzenaren jatorria eta arrazoia azaltzen du.

1.231. "Asko kostatzen zaigu Zarautzetik ateratzea" (ZAR-162/003)

Herritik irteteko joera txikia dela kontatzen du Imanolek.

1.232. Irakasle Zarautzen (ZAR-162/005)

Itzulpengintzan aritu bada ere, irakaslea da.

1.233. Zaletasunak: antzerkia, literatura eta kirola (ZAR-162/006)

Yoga, korri egitea, literatura eta antzerkia maite ditu.

1.234. Etxean giro euskalduna (ZAR-162/008)

Etxeko hizkuntza euskara izan du betidanik. Ikasketa guztiak euskaraz egin ditu, eta lanean eta etxean orain ere euskaraz bizi da. Aldizkariak ere etxean euskaraz jasotzen zituzten.

1.235. Zarautzeko euskararen egoera (ZAR-162/009)

Euskara asko entzuten da, baina gaztelania ere bai. Gaztetxe ingurua euskal gune naturalena dela dio Imanolek.

1.236. Eragin erdalduna nola bizi duzue? (ZAR-162/011)

Laguntasuna hizkuntza irizpidearen gainetik dagoela dio.

1.237. Euskararen inguruko hausnarketarik ez (ZAR-162/013)

Euskaraz ez dakitenen jarreraren inguruan ari da Imanol. Sare sozialetan euskaraz egiten dute, nahiz eta denek ez ulertu.

1.238. Euskararen egoera sare sozialetan (ZAR-162/015)

Internetek euskal komunitatea ehundu duela dio.

1.239. Blogak eta sare sozialak (ZAR-162/016)

Bere parte-hartzea kontatzen du, gaur egungo bere jardura hau aurreikusterik ez zela esanez.

1.240. Sorkuntza eta diziplinaren konbinazioa (ZAR-162/018)

Elkarlana ikusten du etorkizuneko sorkuntza lanen oinarri. Literatur sorkuntza, adibidez, beste diziplinekin elkartu behar dela dio.

1.241. Euskararen egoera hezkuntzan (ZAR-162/020)

Berak lan egiten duen eskolako euskararen egoera ona ez dela dio, oso gutxi erabiltzen baita. Fokua gazteetan jarri beharrean, helduetan jarri behar da bere iritziz.

1.242. "Helduek gazteei ematen diegun eredua garrantzitsua da" (ZAR-162/021)

Alkoholarekin gertatzen den bezalaxe, euskararekin helduek duten garrantziaz jarduten du. Adibide bezala ematen ditu Kilometroak eta Euskal Jaiak.

1.243. "Eskaparateko gauzak lantzen ari gara" (ZAR-162/023)

Azaleko gauzetan gelditu eta arazo sakonak lantzen ez ditugula dio Imanolek.

1.244. Hizkuntza normalkuntzako teknikaria (ZAR-162/025)

Hizkuntz komunitatean jartzen du berak ardatza, elkarrekin denbora pasatzea erronkatzat baitu. Gaur egungo egoerara moldatu eta gauzak aldatzen hasi behar garela dio, sorkuntza berriekin euskara bultzatu behar dela.

1.245. "Eguzkitsua, baikorra, gertukoa, izan behar da euskara" (ZAR-162/026)

Euskara nolakoa izan beharko litzatekeen azaltzen du.

1.246. Besarkadak banatzeko egitasmoa (ZAR-162/028)

Ikasleen erreferenten inguruan hitz egiten du: futbolariak, musikari zenbait...Euskarazko komunikabideak, erreferentziak, ez dituzte ia ezagutzen ikasleek.

1.247. "Gure euskaltasunak gorabeherak izaten ditu" (ZAR-162/030)

Euskaldunen arteko babesa, besarkada, garrantzitsua dela azpimarratzen du.

1.248. Eukarak indarrik ba al du? (ZAR-162/032)

Euskal musikaren kalitatea, antzerkia... aipatzen ditu Imanolek.

1.249. "Euskal literatura erakargarriagoa izan behar da" (ZAR-162/033)

Literatura gutxi saltzen dela dio Imanolek, batez ere ikasleen artean.

1.250. Liburu irakurle amorratua (ZAR-162/035)

Liburuaren formatua erakargarria nola egin, irakurzaletasuna nola bultzatu... komentatzen ditu pasarte honetan.

1.251. Irakurzaletasuna ikasleei transmititzea, erraza? (ZAR-162/037)

Irakasleek bizi dutena, maite eta gorroto dutena ikasleei transmititzen dietela uste du Imanolek, irakurzaletasuna barne.

1.252. Ostiralero kantu bat eramaten die ikasleei (ZAR-162/038)

Gaur egungo musikatik poesia liburuak eta antzerkia aztertzerarte arte egiten du ibilbidea ikasleekin.

1.253. Hizkuntza ohituren aldaketa ikusi duzu? (ZAR-162/041)

Behin ikasleek kontzientzia bat garatzen dutenean euskararekiko, orduan hasten dira hizkuntza hautuaz ere konturatzen.

1.254. Aurkezpena (ZAR-163/001)

Lo Eizagirre Erguin 1989ko maiatzaren 11an jaio zen Zarautzen eta bertan bizi izan da. Gurasoak zarautzarrak ditu, aita herrikoa eta ama San Pelaio auzokoa. Bi alabetatik gazteena da bera. Gipuzkoako surf federazioko idazkaria izateaz gain, Zarauzko surf eskolako irakasle da aspalditik.

1.255. Aurkezpena (ZAR-163/002)

Elisabeth Thomas Arrizabalaga, Eli, 1992ko urtarrilaren 14an jaio zen Marurin (Bizkaian). Bi urterarte bertan bizi izan zen, gero Larrabetzun beste pare bat urte eta azkenik Zarautzera heldu zen familiarekin. Eliren ama Itziarkoa da eta aita berriz, Utrecht-ekoa (Herbeheretakoa). Orain, Gasteizen ikasten ari da eta ikasteaz gain, surfeko irakaslea da eta belaontzian ibiltzen ere irakasten du.

1.256. Zarauzko surf eskola (ZAR-163/004)

Elkarriketa burutzen den tokiari buruz ari dira, Zarauzko surf-eskolari buruz. 1991ean sortu zen surf-eskola. Zarauzko surf eskolak udan astebeteko ikastaroak eta udaberrian zein udazkenean ikastaro luzeagoak eskeintzen ditu.

1.257. Emakumeen presentzia uretan (ZAR-163/005)

Elik surfean geroz eta emakume gehiago ikusten direla dio. Lok berriz, lehiaketetan hemezortzi urtetik gorako emakume gutxik partehartzen dutela dio. Ikastarotan emakume asko egon arren, lehiaketek ez dute hori isladatzen. Eliren ustez, emakumeak talde bat osatu beharko lukete horretan hasteko.

1.258. Emakumeak surflari ekimena (ZAR-163/007)

Lok emakumeak surflari ekimena zer den kontatzen du. Gipuzkoako Federazioak sortutako ekimen bat da emakumeen artean surfa bultzatzea du helburu. Lok ekimen hori zergatik sortu zen kontatzen du.

1.259. Surflaria eta emakumea izatea I (ZAR-163/009)

Emakumeak surfean zuten maila zalantzan jartzen zen garai batean eta Lok horrek min handia ematen duela esaten du.

1.260. Surflaria eta emakumea izatea II (ZAR-163/011)

Eli urte osoan zehar sartzen da uretara, Lo jada ez. Hala ere, euren bizitza surfarekin lotuta dago. Emakumea eta surflaria izatea nolakoa den kontatzen dute. Batzuk emakumeak animatzen dituzten bitartean, besteak gutxietsi egiten dituzte.

1.261. Itsasoa sozializatzeko lekua (ZAR-163/013)

Ureta sartzean batzuk sozializatzeko gogoia izaten dute eta besteek ez. Elirentzat sozializatzeko modu bat da eta Lok hizketan hasten bada olatuak hartzea ahazten zaiola dio.

1.262. Zer da pikoa? (ZAR-163/014)

Pikoa zer den azaltzen dute. Pikoa olatua lehertzen hasten den lekua da, olatuaren zain egoteko tokia. Pikoa hondartza edo surfera sartzen zaren tokiaren arabera izaten da.

1.263. Arriskuak (ZAR-163/016)

Zarauzko hondartza udako masifikazioa medio arriskutsua bilakatzen da. Surf eskola asko daude udan zehar eta surfa egiteko tokiak mugatuak direnez arriskutsua bilakatzen da surf egitea. Arriskuak bestalde, olatuaren arabera dira. Olatu haunditan arriskuak handiagoak dira.

1.264. Surferako gidak eta teknikak (ZAR-163/018)

Zarautzen urte pare bat lehenago gertatutakoaz ari dira. Itsasoari errespetua zor zaio ez baita erraza itsasoa ezagutzea. Euskal kostaldea ezagutzeko gida oso gutxi daude.

1.265. Surferako gidak eta teknikak (ZAR-163/020)

Ur azpian geratzen zarenean zer egin behar den kontatzen dute. Olatu handietan ibiltzen direnek zein teknika erabiltzen dituzten ere kontatzen dute.

1.266. Surfisten hiztegia eta itsasoko hiztegia (ZAR-163/021)

Surflarien terminologia. Surfa egiteko lekuen izenak aldatu egin dira. Itsasoko hiztegiari dagokionez ezagutza gutxi dute Lo eta Elik.

1.267. Olatuak neurtzeko metodoa (ZAR-163/023)

Olatuak neurtzeko sistema metrikoan neurtu erabili ordez, beste bat erabiltzen da, internacionalagoa.

1.268. Surfeko terminologiaren jatorria (ZAR-163/025)

Surfean erabiltzen den hiztegia ingelesetik dator. Emakumeak surfalari proiektuan surfeko hiztegia euskaraz erabiltzeko ahalegina egiten dute.

1.269. Olatu ezagunak (ZAR-163/027)

Zarauzko olatuen inguruan dihardute. Olatu asko ospetsuak izan arren, ez dira edonorentzat. Surfa egiteko fisikoki oso forma onean egon behar da.

1.270. Uretatik kanpo surfa mintzagai (ZAR-163/029)

Uretatik kanpo itsasoa ez da ohikoena den mintzagaia.

1.271. Surflariekiko aurreiritziak (ZAR-163/030)

Aurreiritzi asko dago surfari dagokionez. Surflariak diren zaraustarrek pijo ospea dute. Lok bere ustez pijo zer den azaltzen du.

1.272. Noiztik surflari? (ZAR-164/002)

Hamahiru urterekin hartu zuen bere lehenengo taula Elik. Surfean egin eta berehala jakin zuen berak surfean egin nahi zuela. Berak bere taula erosi eta ikastaro batean izena eman zuen. Ordutik ez dio surf egiteari utzi.

1.273. Itsasontzien estropadak (ZAR-164/003)

Surfean hasi zen garaian, Eli belaontzien estropadetan ibiltzen zen. Espainia mailan belaontzian ibiltzeko ohitura gehiago dagoela esaten du, hemen berriz bela kirol elitista gisa ikusten dela dio.

1.274. Surflari bilakaera (ZAR-164/004)

Surflari gisa izan duen bilakaera.

1.275. Loren lorpenak surflari gisa (ZAR-164/005)

Loren mailaren inguruan hitz egingo du. Lo oso surflari ona izan da urte luzez.

1.276. Bidaiatzea surfa egiteko aitzakia ala surfa bidaiatzeko aitzakia? (ZAR-164/006)

Elik gustoko du bidaiatzea eta bere bi zaletasunak, surfa eta bidaiatzea uztartzen saiatzen da beti. Egindako bidaiak dakartza gogora.

1.277. Emakume surflariak surfeko prentsan (ZAR-164/007)

Surfeko prentsa asko aldatu da. Emakumeen kasuan, aldizkariak emakumeak Surflari gisa erakutsi beharrean, emakumeak modelo gisa erakusten dituztela esaten du.

1.278. Surfa gorputzaren lateralitatea lantzeko tresna (ZAR-164/008)

Surfak gorputzaren lateralitatea lantzen du. Eli eskuina da. Hau da, bere kasuan ohola edo taularen atzeko aldean duen hanka ezkerrekoa da. Ezkerra edo eskuina izateak olatua hartzeko moduan eragina du.

1.279. Uretan bizitakoak (ZAR-164/010)

Surflari gisa bizitako anekdotak kontatzen ditu Elik.

1.280. Surfean egiteko aholkuak (ZAR-164/012)

Surfean egin nahi duenak gogoan hartu behar du oso arriskutsua dela hondartzetatik kanpo itsasora bakarrik joatea. Itsasoa ezagutzea surfa egin nahi duen edonorentzat beharrezkoa izan arren, ikasteko irakasgai zailena ezagutza hori lortzea da.

1.281. Jatorria zalantzan (ZAR-164/013)

Elik bera euskalduna dela esatean jendea harritu egiten dela kontatzen du.

1.282. Surflari ibilbidea (ZAR-165/001)

Lo bere osabak eraman zuen surfera lehenengo aldiz. Hamaika urte zituen surfean hasi zenean. Txapelketa batean garaipena lortu onodren uda sasoiko denborapasa hura pixkanaka bere egunerokoan toki gehiago hartzen hasi zen. Urte luzez goi-mailako surflaria izan da Lo eta egun ere, surfari lotuta jarraitzen du bere bizitzak.

1.283. Garai berrietara egokituz (ZAR-165/003)

Gaur egungo teknologia berriek surf-eskoletan izan duten eraginaz dihardu. Horrez gain, itsasoaren egoerei dagokionez ere, teknologia berriak asko lagundu dute itsasoaren egoeraren aurreikuspenei dagokionez.

1.284. "Goofy"-ak eta "regularrak" (ZAR-165/005)

Elisabet Thomasek aurreko elkarrizketan emandako azalpen baten harira Lok surfean norbait ezkerra ala eskuina den esateko "goofy" eta "regular" hitzak erabiltzen direla azaltzen du. Goofy hitza Mickey Mouse marrazki bizidunetako sagu ospetsuaren lagunarengatik hartutakoa omen da.

1.285. Emakumeak surflari (ZAR-165/007)

Lok surfari lotutako amets bat du. Amets hori "Emakumeak surflari" proiektutik emakume surflarien talde bat ateratzea da emakumeak elkarrekin uretara joan eta elkarrekin txapelketetan partehartzeko sare bat osatu dezaten.

1.286. Gomendioak hasiberrientzat (ZAR-165/009)

Lok hasiberriei emango lieken aholkua, gozamenarekin lotutakoa da. Hau da, surfean lehen aldiz egiten duenak duen zirrarearekin lotutakoa. Zirrara edo sentipen horiek ikustea gustuko du Lok eta horregatik, oso gustuko du hastapeneko mailetako surf irakasle izatea.

1.287. Euska Herriko emakume surflari aitzindariak (ZAR-165/010)

Lok emakume euskaldun eta surflari aitzindariak aipatzen ditu. Izen asko ematen ditu. Horien artean Miriam Imaz bere herrikidea eta Vanessa Bustillo aipatzen ditu. Hauek norgehiaketan partehartu izan duten emakumeak dira. Beste emakume batzuk ere aipatzen ditu txapelketetan partehartu ez arren, surfean aitzindariak izan direnak.

1.288. Iparralde-Hegoalde muga adierazgarri surfean ere (ZAR-165/011)

Euskal Herriko Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko muga aipatzen du surfari dagokionez. Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldearekin alderatuz gero Iparraldeko kostaldean surfa errotuagoa dagoela esaten du,. Harremanari dagokionez, txapelketak izan dira bi zonalde hauen harreman gune nagusiak.

1.289. Kantauri surf liga eta Iparralde-Hegoalde harremana (ZAR-165/012)

Kantauri surf ligaren inguruan dihardu. Euskal Herriko surf elkarteak elkar ezagutzeko ekimen bat da. Iparralde-Hegoalde loturak egon arren, federazio ezberdinak daude bi zonaldetan.

1.290. Uretan bizitakoak (ZAR-165/014)

Anektodak kontatzen ari da, Elirenak eta bereak.

1.291. Goi-mailako emakume surflarien egoerari kritika (ZAR-165/016)

Egungo surf-albizkariak emakume surflariekiko erakusten duten ereduari kritika. Izan ere, albizkarietan emakumeak modelo gisa hartzen ditutze aintzat, kirolari gisa aintzat hartu beharrean. Lo eredu horren aurka dago, kirol honetan egungo emakume surflariak gizonak bezain trebeak baitira.

1.292. Nor dira surflari eredugarriak? (ZAR-165/018)

Lok bere surflari ibilbidean izan dituen erreferenteen inguruan dihardu. Bere ereduak asko dira. Internazionalki dauden ereduaren inguruan ere hitz egiten du.

1.293. Hitanoa lagunartean (ZAR-167/002)

Lagunartean gizonak badira hiketa erabiltzen dute, bestela, neskei zuzentzean zuketa.

1.294. Hitanoa gaur egun, baliagarri? (ZAR-167/004)

Beste gertutasun eta freskotasun puntu bat ematen dio hiketak hizkuntzari Imanolen iritziz.

1.295. Hitanoa hezkuntzan (ZAR-167/006)

Imanolek berak ez die ikasleei hitanoa irakasten. Herri bakoitzean hiketa aldatu egiten dela aipatzen du, norberak "asma" dezakeela. Gainera, adinekoen eta gazteen hitanoa aldatu dela ere kontatzen digu.

1.296. "Hizkuntzarekin jolasean ibili behar da" (ZAR-167/008)

Hizkuntzaren bizitasunaren seinaleztat du euskararekin jolasean ibili eta aditz berriak asmatzea, hitanoa erabiltzeko modu berriak asmatzea.

1.297. Literatura klasikoa musika bilakatzen (ZAR-167/010)

Literatura erakargarriagoa egiteko asmoz, euskal literatura klasikoa abestietan bihurtzeari ekin zion, hortik "Etxepare rap" etab. bezalakoak jaioz.

1.298. Klasikoak jendaurrean aurkeztuz (ZAR-167/011)

Haurrengana ez ezik, helduengana ere iritsi da bere klasikoak abesti bihurtzeko proiektua. Antzerkia, kantua eta irudia ere uztartzen ditu honek.

1.299. Etxepare Rap proiektua (ZAR-167/012)

Irudiak, antzerkia eta irudia uztartzen ditu testu klasikoarekin batera. Astunkeria kendu eta autoreen ezaugarri interesgarrienak bildu nahi ditu.

1.300. Etxepare Rap proiektua: ikasleen ikuspegia (ZAR-167/013)

Proiektu honen inguruan ikasleek oso jarrera ona izan zutela kontatzen digu Imanolek.

1.301. Etxepare Rap Iparraldean (ZAR-167/015)

Imanolek borondatea baduela dio Iparraldera ere joateko lana aurkeztera, baina saioak lortzea erronka dela dio.

1.302. Lagunarteko erdarazko esamoldeak (ZAR-167/017)

Imanolen kuadrillan gehiena euskaraz egiten bada ere, badaude zenbait gauza erdaraz egiten dituztenak, besteak beste, irainak, konnotazio negatibodun esamoldeak...

1.303. Sortu baino, erabiltzea da erronka (ZAR-167/019)

Gazte hiztegi batez ari da Imanol pasarte honetan, erdaraz esaten ditugun esamoldeak ordezkatzeko sortu beharrekoez.

1.304. Esaera zaharrak erdaraz (ZAR-167/021)

Euskarazko esaera zaharrak ia ezagutzen ez dituztela komentatzen du Imanolek, eta hori dela eta, gaztelaniaz esaten dituztela.

1.305. Zarautzarrak eta getariarrak etsai (ZAR-167/024)

Gertutasuna dela eta getariarrekin "pikea" dutela adierazten du Imanolek.

1.306. Bulgarian jaioa (ZAR-168/002)

Ander Iruretagoiena Kastro 1994an jaio zen irailaren 5ean Bulgarian. 6 urterekin etorri zen Zarautzera. Harrera familia batek ekarri zuen Euskal Herrira. Bere harrera familian arreba bat dauka, Esti.

1.307. Urte batean euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai (ZAR-168/004)

Orokietara Herri Eskolara joan zen; bertan Lehen Hezkuntza burutu zuen eta gero bigarren hezkuntza Lizardi Institutuan. Hizkuntza azkar ikasi zuela esaten diote; urte batean hizkuntza ulertzeko eta hitz egiteko gai zela.

1.308. Sukadaritzaren ondoren aktore lanetara (ZAR-168/007)

DBH bukatu eta gero sukaldaritza egin zuen. Hori bukatzerakoan aktore munduan sartzeko lanetan hasi zen.

1.309. Zarauzko Alproja antzerki amateur taldea (ZAR-168/008)

Aktore munduan sartzeko Zarauzko alproja antzerki amateur taldean apuntatu zen. Udara aldean hasten dira entseatzen eta Euskal Jai egunean antzeztzen dute.

1.310. Donostiako arte eszenikoen tailerrean (ZAR-168/009)

DBH eta sukaldaritza bukatu eta gero, argi zuen berak nahi zuena egiteko unea iritsi zela; benetan gustuko zuena, antzerkia, hain zuzen. 18 urterekin Donostiara joan zen arte eszenikoen tailerrera.

1.311. Goenkalen aktore lanetan (ZAR-168/011)

Telebistan lehen aldiz lanean aritzean, Ander erabat galduta sentitu zen. Grabatzerako orduan presioa sentitzen zuen; izan ere, zazpi ordutan hamalau sekuentzia desberdin grabatu behar izaten zituzten eta dena nahiko bizkor egin behar zen.

1.312. Goenkaleren ondoren, "Muxua" antzezlan (ZAR-168/014)

Goenkaleren ondoren antzezlan bat etorri zen, "Muxua". Ttanttaka produktorekoak arte eszenikoen tailerrera joan ziren antzezle bila eta bertan Ander aukeratu zuten.

1.313. "Muxua", homosexualitateari buruzko antzezlan (ZAR-168/016)

Muxua antzezlan homosexualitatearen ingurukoa da, Kalifornian gertatutako benetako gertakari baten inguruan. Homosexualek jasaten duten presio sozialei buruzko antzezlan bat.

1.314. Antzeztoki txikietan, publikotik gertuago (ZAR-168/018)

"Muxua" antzezlan antzeztoki txikietan egiteko pentsatu zen, publikoarekin gertutasuna lortzeko asmoz. Antzezlan Euskal Herriko zenbait herritan, eskoletan eta Donostiako dFerian antzeztu zuten. Azkenean antzezlan antzerki handietan ere egin da.

1.315. "Último tren a Trenblik" antzezlanean (ZAR-168/019)

"Udara bateko ametsa" izan da "Muxua"-ren ondoren egin zuen lana. Orain "Último tren a Trenblik" antzezten ari dira. Juduen inguruko istorio bat da.

1.316. Alproja antzerki taldea, bere identitatearen parte (ZAR-168/021)

Alprojan antzerkia egiteak bere identitatea sortzeko balio izan diola uste du. Gainera herriko jendea ezagutzeko aukera izan du eta beraiekin lana egitekoa.

1.317. Gitarra, pianoa eta harmonika jotzea gustuko (ZAR-168/024)

Bere zaletasunetako bat gitarra, pianoa eta harmonika jotzea da eta baita umeekin lan egitea begirale bezala.

1.318. "Antzerki munduan euskaraz lan egin daiteke" (ZAR-168/034)

Oraintxe bertan antzezlan gehienak gaztelaniaz egiten ari da. Baina euskaraz lan egin daitekeela uste du.

1.319. Urdirotz basatia (ZAR-169/003)

Roberto Chico. Urdirotz hitz batekin definitu beharko balu, "basatia" zela esango luke; mendi artean, erreka, baliabide gutxi... Kontraste handiko lekua zen; etxe barruko iluntasuna eta kanpoko eguzki eta beroa.

1.320. Urdirozko paisaia ederra (ZAR-169/005)

Aingeru Ezkerra. Natura aldetik, zoragarria zen Urdirotz. Eskualde ezberdinetako euskalkiak entzutea gustoko zuten.

1.321. Urdirotz ixteko arrazoiak (ZAR-169/011)

Oier Agirresarobe. Hasieratik bukaerara aldaketa handia gertatu zen exigentzia eta gurasoen eskakizun mailan. Ikusi zuten Urdirotzek ez zituela betetzen garai horrek eskatzen zituen segurtasun-neurriak bermatzeko baldintzak. Azken urteetan zuzendari tituluak eskatzen ziren. Berak titulua bazeukan, baina ez zuen nahi izaten erabiltzerik, ekarri zitzakeen ondorio guztiengatik.

1.322. Hamabostaldi tematikoak Urdirotzen (ZAR-169/013)

Iban Burgaña. Hasieran planteamendu klasikoa zuten. Baina gero norbaiti bururatu zitzaion txanda gai baten inguruan antolatzea. Horietako bat euskal mitologian oinarritutakoa izan zen. Beste batean berdina egin zuten, baina Asterix eta Obelix pertsonaiekin. Txanda borobildua geratzen zen honela.

1.323. Oroimenaren garrantzia (ZAR-169/015)

Patxi Galarraga. Bere ustez helburua izan beharko litzateke Urdirotzi buruzko oroimen horiek bihurtu daitezela aldaketa edo ekintzarako indar. Han ume edo begirale bezala egon denak, gogoratu dezala ze zoriontsu izan zen eta ze potentzia daukan oroimen horrek. Hura berreskuratzeko halako borroka bat egin beharko litzatekeela iruditzen zaio. Urdirotzen ezer ez zegoen eta sortu egin behar ziren gauzak. Bere umeentzako antzeko zerbaite lortu nahiko luke, baina gaur egun ez da erraza. Naturarekin kontaktua edukitzeak eta errekurtsio gabe egoteak eramaten gaitu harremanak oso zuzenak izatera, bitartekoak kentzen ditugulako. Horrek halako hurbiltasun bat ematen dizu ondokoarekin.

1.324. "Riau riau" euskaraz (ZAR-169/018)

Aingeru Ezkerra eta Asier Mendizabal. Leitzako apaizak, Jose Javier Aizkorbe goizuetarrak, egin zuen "Riau riau"-aren letra euskaraz. Urdirotzen ospatzen zuten uztailaren 6an. Abestia abesten dute.

1.325. Beste udaleku batzuekin konparaketa (ZAR-169/020)

Iñaki Otamendi. Oso ezberdina zen Urdirotzeko udalekua. Begiraleen arteko giroa, udalekura joateko ilusioa, eta nolabait udalekuarekiko lotura emozional potente hori. Lekua oso berezia, ehuneko ehunean natura. Hogeitalau orduak euskal giro batean murgilduta. Nabarmentzekoa zen begiraleen eta sukaldarien arteko harremana; eta baita begiraleen eta haurren artean zegoena ere. Disfrutatu egiten zuten harreman horrekin. Horretan ere ezberdina zen beste udalekuekiko.

1.326. Urdirotzeko txanda bakoitzaren autonomia (ZAR-169/022)

Iñaki Otamendi. Urdirotzeko hiru txandak elkarren artean burbuja autonomoak ziren. Txanda bakoitzak hartzen zuen bere dinamika, bere jarduerak edo helburu propioak markatzen zituen. Asanblean funtzionatzen zuten. Urte batean bakarrik ezagutu du zuzendaria.

1.327. Baliabide gabeziak, norbere balioa erakustarazi (ZAR-169/024)

Patxi Mujika Ezkurra. Urdirotz udaleku oso berezia zen. Han diruak ez zuen balio, dendarik ez zegoen, argia ere ez zegoen... Umeek bere balioa han azaltzen zuten. Ume pila bat egon da udalekura ume bezala joan direnak, eta gero bai begirale bezala, bai sukaldari bezala jarraitu dutenak.

1.328. Euskara eta natura oinarri Urdirotzen (ZAR-169/027)

Rafa Apeztegia. Natura eta euskara helburu zituen astialdiko talde batean zebilen begirale gisa. Alde horretatik ez zitzaion Urdirotz arrotza egiten. Baina gero konturatu zen hura beste gauza bat zela; beretzat jarraipen bat izan zen bere jardueran, baina garrantzitsua.

1.329. Urdirotzek egindako ekarpenak (ZAR-169/029)

Xabier Etxabe. Beretzat Urdirotzek egindako ekarpen handiena zeukan estiloa da. Ziur asko beharragatik edo errekurso faltagatik izango zen, baina hainbat balio edo erakutsi sortu zizkien. Ura neurtu egin behar zen, argindarra ere bai, etxea baserri abandonatu bat zen... Denborarekin, gaurko eskakizunak ikusita, ezin zen horrela jarraitu. Gaur egun ezinezkoa iruditzen zaigu horrelako udaleku bat, eta hala ere posible zen. Hori da hurrengo generazioari esan beharko zaiona: teknologiarik gabe hamabost egun zoriontsu pasa litezkela.

1.330. Aurizberriko kanpinera ibilaldia (ZAR-169/031)

Larraitx Garmendia eta Josu Galarraga. Beren txandan Aurizberriko kanpinera joaten ziren gau bat pasatzera; egun batean joan (oinez) eta hurrengoan etorri. Oso ondo pasatzen zuten, igerilekuan bainatzen eta abar. Argiñanoren alabak arraultza friji zezala nahi izaten zuten. Bidean ziza-leku bat aurkitu zuten eta zizekin errebueltak egin izan zituzten hainbat aldiz. Erosketekin, telefonoekin edo zigarroekin arazotxo batzuk izaten zituzten, baina oso ondo pasatzen zuten.

1.331. Urdirotzen antolaketaren bilakaera (ZAR-169/033)

Xabier Legorburu. Lehen aldiz Urdirotzera joan zenean, bezperan ezagutu zituen lankideak eta hurrengo egunean Urdirotzen bertan zeudenean hasi ziren ekintzak antolatzen. Hasierako urteetan inprobisazio maila horretan funtzionatzen zuten. Urteak aurrera joan ahala, hori aldatzen joan zen eta beste seriotasun batekin hasi ziren antolatzen. Begirale bakoitzak gutxienez bi egun antolatu behar zituen. Gainera, eguraldi txarrari begira ere badaezpada beste egun bat antolatzen zuen.

1.332. Txikitari udalekuan bizitakoak, bere izakeraren oinarri (ZAR-169/035)

Jon Burgaña. Bizikizun benetan zoriontsuak eta garrantzitsuak izan ziren udalekuetakoak. Bertan ikasitako eta bizitako hainbat joku, abesti, ibilaldi... gerora bera den modukoa izatera eraman dute. Txikitatik sortzen da halako kimua, gerora hazten joan dena.

1.333. Gauetan gurasoen falta, begiraleek bete behar (ZAR-169/037)

Susana Arevalo. Gauetan umeentzako hutsune handia da gurasorik gabe egote hori. Eta gauero logeletan begirale bat sartzen zen kandelatxoarekin, eta haurrei ipuina kontatu edo kitarrearekin abestu egiten zien.

1.334. Urdirotz itxi izanaren tristura (ZAR-169/039)

Leire Garate. Azken urteetan egon zen Urdirotzen eta dagoeneko etxearen segurtasunagatik zalantzak izaten hasiak zeuden. Itxi izanak tristura sortzen dio. Bi urtez bakarrik egon zen han, baina oroitzapen oso polita dauka. Hain gauza gutxirekin nola pasatzen zuten hain ondo.

1.335. Gurasoak nor ziren ta non jaio ziren (ZAR-171/001)

1.336. Gurasoen ogibideaz (ZAR-171/002)

1.337. Aitaren familia (ZAR-171/003)

1.338. Aitaren argazkia etxean: Nor da? (ZAR-171/004)

1.339. Noiz jakin zuen aitari zer gertatu zitzaion (ZAR-171/005)

1.340. Antonio Usobiagaren atxiloketa eta hilketa (ZAR-171/006)

1.341. Venancio Amesti apaiza (ZAR-171/007)

1.342. Ankeloren aita derrigor frankistekin soldadutzara (ZAR-171/008)

1.343. Antonio Usabiagaren gorpurik ez eta Getariako udalean aktak falta (ZAR-171/009)

1.344. Aitortzarik ez. Ez lehen ez orain (ZAR-171/010)

1.345. Garai bateko Zarautz (ZAR-175/002)

Zarautz asko aldatu da bera umea zenetik. Beraien etxe inguruan almatzen eta tailer txikiak zeuden. Kanean jolasten zuten. Denek elkar ezagutzen zuten.

1.346. Zarauzko aisialdiko aukerak gaztetan (ZAR-175/003)

Zarautzen bizi zirela, hondartzara joateko ohitura handia zuten. Lanetik irten orduko korrika hondartzara joaten zen udan. Mendira asko joaten ziren gaztetan. 'Ondartza' dantza taldean parte hartu zuen 19 urtera arte.

1.347. Irakasle ikasketak (ZAR-175/004)

19 urterekin Salamanca eta Gasteizen formakuntza jasotzera joan zen eta 21 urterekin itzuli zen. Esperientzia aberasgarria izan zen. Berehala senarra izango zena ezagutu zuen. Batxilerra egin zuen gero. Dagoeneko lanean zebilela, Donostian UBI (unibertsitatera bideratzeko ikasturtea) egiteko erabakia hartu zuen. Haurdun zegoen momentu horretan. Umeak 7 hilabete zituela etorri ziren Zumaiara. Momentu hartan UNED sortu zen Madrilen eta pedagogia ikasketetan matrikulatu bazen ere, ez zen oso ondo konpontzen eta utzi egin zuen. Handik urte batzuetara Donostiako Seminarioan irakasle-ikasketak euskaraz eskaintzen hasi ziren eta han apuntatu zen.

1.348. Oikiako eskolan irakasle (ZAR-175/006)

Oikian bi eskola zeuden: batetik ikastola, arazo ekonomiko handiekin; eta bestetik eskola publikoa, ikasle gutxiarekin baina baliabide gehiagorekin. Beste herri txiki batzuetan egin zen bezala, ikastolako haurrak publikora pasa ziren. Horretarako, ikasketak euskaraz ematea ipini zen baldintza moduan. Momentu horretan Feli irakasle-ikasketak bukatzeaz zegoen eta Oikiatik lanerako deitu zioten. Eskola txikien zailtasunak. 25 urtez egon zen Oikian.

1.349. Meagako eskolarekin harremanetan (ZAR-175/007)

Oikiako eskolan irakasle hasi eta berehala Meagako eskolara joan zen, ea han nola moldatzen ziren ikustera. Han okerrago zeudela konturatu zen. Oikian ikastolako gurasoek lan handia egin zuten; Feliri ere asko lagundu zioten. Bere bigarren urterako beste irakasle bat ere sartu zen.

1.350. Eskola txikien koordinakundea (ZAR-175/008)

Oikiako eskolan irakasle hasi eta berehala Meagako eskolara joan zen, ea han nola moldatzen ziren ikustera. Eskola txikien artean koordinatzeko beharra ikusten zuten. Baliabide falta handia zuten. Irakasleen aldetik koordinakunde bat sortu zuten. Urola kostan talde bat sortu zen eta Tolosaldekoekin ere harremana zuten. Gerora gurasoak ere parte hartzen hasi ziren.

1.351. Atzerritarrei euskarazko klaseak ematen (ZAR-175/009)

Erretiroa hartzeko 2 urte falta zituela, Oikiako eskola utzi eta proiektu berri batean sartu zen: atzerritarrei euskarazko klaseak ematen. Oso aberasgarria izan zen.

1.352. Udako ikastaroetan ikasitakoak praktikan jarritz (ZAR-175/010)

Oikiako eskolan irakasle zebilela, udako oporretan ikastaroak egiten zituzten. Hauetako bi nabarmentzen ditu: Imanol Urbietaren pedagogiari buruzkoa eta bertsolaritzakoa. Ikasitakoak praktikan jartzen ahalegindu izan zen.

1.353. Oikiako eskolaren beharrak (ZAR-175/012)

Oikiako eskolan 80-81 ikasturtean hasi zen lanean. Ikastola eta eskola publikoa batu ziren urte horretan. Euskarazko material falta nabarmentzen du. Etxean zeuzkan liburuak eramaten zituen eskolara. Beste erronka bat, adin ezberdinetako taldeekin lan egitea zen. Horretarako eskola txikien koordinazio taldeko kide bat 'Baga-Biga' liburuaren egilearekin elkartzeko zen eta bi mailatako liburuak batzen saiatu ziren. 'Elkar' argitaletxeak materiala aldatu zuenean komeriak izan zituzten.

1.354. Oikiako eskola nolakoa zen (ZAR-175/013)

Feli iritsi zenean Oikiako eskola nolakoa zen: behean gela handi bat zegoen eta goian irakaslearen etxea. Urtebete beranduago, bigarren irakaslea etorriko zenez, gela erdibitu zuten eta obraren bat ere egin zen. Feli udaletxera joaten zen hobekuntzak eskatzera. Irakasle gehiago sartzen hasi zirenean, goiko etxebizitza ere ikasgela bihurtu zen. Baldintzak ez ziren oso onak: hasieran berogailurik ez zegoen. 2020an eskola berria inauguratu zuten. Inguruko eskola txikiak eraikin oso zaharretan zeuden.

1.355. Oikiako eskolan ume kopuruaren gorabeherak (ZAR-175/015)

Feli Oikiako eskolan hasi zen urtean adin ezberdineko 24 ume inguru zeuden. Urteetan zehar ume kopuruan gorabeherak egon izan ziren. Zumaia eskolara joateko esan izan zieten behin baino gehiagotan baina berak beti defendatu zuen auzoan bertan ikasteko eskubidea.

1.356. Hilerriaren inguruan futbolearen (ZAR-175/017)

Oikian ez zegoen frontoi itxirik. Umeek futbolearen hilerriko pareten inguruan jolasten zuten. Eskolak aterpe txiki bat zeukan.

1.357. Eskolatik egiten zituzten irteerak (ZAR-175/018)

Udaberrian 3 egunerako kanpora joaten ziren aterpetxeren batera. Gabon-eskean ateratzen ziren eta lortutako diruarekin Bilboko gabonetako parkera joaten ziren. Noizbait Donostiako Victoria Eugenia antzokira ere joan ziren pelikularen bat ikustera. Abesbatzen jaialdietan ere parte hartzen zuten.

1.358. Oikiako eskola txikitik Zumaiara ikastera (ZAR-175/019)

Eskola txikia amaituta Zumaiara joaten ziren gaztetxoak. Bi aukera zeuden: publikoan jarraitu edo ikastolara pasa. Publikoan oraindik ez zen euskaraz irakasten, beraz, euskaraz ikasten jarraitu nahi zutenak ikastolara pasa ziren eta akordio bati esker garraioa doan izan zuten.

1.359. Eskola txikien festa (ZAR-175/020)

Gurasoen inplikazioa handia izan zen Oikiako eskolan. Eskola txikien festaren helburua. Inguruko eskola txikiak: Aizarna, Arroa, Meagas, Aginaga eta Zubieta.

1.360. Oikia eta Zumaiaren arteko harremana (ZAR-175/022)

Oikiarren eta zumaiarren arteko harremana. Herrigunetik urrun dagoen auzoa da Oikia eta beti sentitu izan dira pixka bat baztertuak. Oikiak herri izaera lortzeko saiakerak egon ziren.

1.361. Oikiatik Zumaiarako aldaketa ikasleentzat (ZAR-175/023)

Oikiatik Zumaiarako saltoa ikasleentzat lehen gogorragoa zen gaur egun baino. Oikian adin desberdinekoek elkarrekin ibiltzeko ohitura gehiago dute. Gainera, errazagoa egiten zaie baserri giroko jendearekin elkartzea herrigunekoekin baino.

1.362. Hezkuntza metodologia (ZAR-175/025)

Zumaiako irakasle batzuekin elkartu ohi zen, pixka bat koordinatzeko asmotan. Imanol Urbietaren ikastaro bat egin zuen eta asko markatu zuen metodologia horrek. Konstruktibismoaren ikuspegia.

1.363. 60. hamarkadako euskal mugimenduaren berpiztea (ZAR-175/030)

60. hamarkadako euskal mugimenduaren berpiztea. Feli Zarauzko 'Ondartza' dantza taldean ibili zen gaztetan. Dantza taldeak, antzerkiak... sortzen hasi ziren garai horretan. Askotan elizak babesten zuen euskal kultura, lokalak utziz. Euskarazko aldizkariak.

1.364. Irakurtzea gustuko (ZAR-175/033)

Literaturazalea da Feli. Irakurtzea beti gustatu izan zaio. 'Jakin' eta 'Argia' aldizkarietako harpideduna da. Zumaiaiko irakurle taldean egon zen 3 urtez. Idazleekin aurrez-aurre egotea luxu bat da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com